

ITUN BE'IA



ATV


906



A.T.V.

906

ITUN BEÍIA



BILBO'N. – Verdes - Atxirika'renean - Bidaikale, 9. – 1931

M-4533
R-993

A.T.V.
906

Olabide'taí Éraimun, S. J.



ITUN BEÑIA



1931

Yesu'ren Biotzaren Deya
Bidai berezia 73 - Bilbo'n

Nihil obstat:

ROMUALDUS GALDOS, S. I., Cens.

Imprimi potest:

SEVERIANUS AZKONA, S. I.
provinciae Castellanae praepositus.

Imprimatur:

MATTHAEUS, Episcopus Victoriensis.
Victoriae, 15 Martii 1931.

Nere itzak arnas ta bizitza dira.

YON, VI, 63.

Oñ duzu, irakurle euskalduna, Yainkoak gizakumeekin egindako Itun Beñian gure ikasterako idatziz utzi nai izan diguna. Yainkoaz ta Arenganako bidez diarduten idaztirik asko ba-dira, noski. Arte aundia dago, ordea, guzi orietatik ontaraño. Beste guzi orien egileak, bikañenak ere, gizakume dira; onen egilea, beñiz, Yainkoa bera da. Edozein orialdetik irikitakoan, zure begiek bertan irakurtzen dutena Yainkoak berak zuretzat idatzi du. Itzik ere ez duzu an ikusiko, Yainkoak berak zuretzat antxe ipiñi ez dunik. Yainkoa duzu an, yakin bea' duzuna zuri esaten.

Siñestez ori dakigu, Eliz Amak irakatsita.

Egia diogu, ala ere, emen bildutako idazti bakoitzaren idazlea, Matai edo Paul edo beste izeneko norbait dala diogunean. Edozein idazlek bezela, gure auek ere, xede baten guraz, idazteko asmoa gogoan lenik erabaki zuten. Gero, beñiz, esatekoen arloa autu, arlo onen mugak

zedaritu, azaldu bearak ondo ezagun arte azterketan ari izan, ta zer aritu, zer utzi, nondikasi, yarai ta amaitu beak zuten asmatu ondoren, azkenez, orela gogoan erabilia, egokienik zeritzayenez, itzetan gatzaturik, idatzita utzi ziguten. Ori ez zuten, ordea, beste idazle guziek bezela, beren buruz egin, Yainkoaketz bakarik, idazteko Berak yaso ta arteztuta baño. «Berak goiko indarez idaztera eragin ta ezari zitun, ta idaztean bertan ayen alde ari izan zan, Berak agintzen zien guzia, besterik gabe, gogoan ondo yari, zintzoki idatzi nai, ta akatsik ezin dun egiaz egoki adirazi zezaten».¹ Yainkoaren beraren idaztiak dira, beraz, gure osasunerako egiñak, eta Elizaren bidez ta ardurapean guri emanak, Yainkoak guregandik iritsi nai duna ta Beragandik guk eratxi beak duguna andik ikasi ta guretu dezagun.

Idaztirik ez zaigu auek bezain onurakoak ta beak bearekorik. Beude, noski, ayetatik yetxitako argiz ta adorez gizon yakintsu ta zintzoek atontzen dizkiguten irakurgayak. Eguzkia dugu argitarako, eguratsa arnasarako. Ilargiak gauez

¹ XIII Leo Aita Gurenak; Litt. Enc. **Providentissimus Deus.**

ez digu argi apurtxo ori ere ekaítzen, eguzkitik aítuta gurera okeítuz baizik. Yainkoaren idaztiak eguzkia dira; gizon onenak ilargia. Eguzkitan dagonari ¿ilargia zertako? Eguzkia etzandakoan, ilargia on zaigu. Landa zabalean, egurats erdian, arnasa eíaz ta osasuntsua; etxe barnean, zail, ta baita eziña ere, leyo edo iríkituetatik landako eguratsa sartzen ez ba'da. Zeruko eguratsa, zeruko eguzkia, Yainkoaren idaztietan daukagu; gizonenetan ilargia ta leyoak besterik ez. Ona on; bañan obea obe; ta giza-kumeak baño Yainkoa obe dan giñoan, Aren idaztiak ere ayenak baño obe ta etekintsuagoak ditugu.

Bañan ¡au negarígaría! Kistarí geyenentzat idazti aztuagorik ez dago Yainkoarenak baño. Idaztion beírik ere ez dakite ainitzek. Ipuyak, bai, zantaírenak ere; egunkariak, bai, txatxoena ere; giza-iriskeriak piztu ditzaken edozelako irakuígayak, bai, ukuzi askoren eskuetan eíuz daku-sazgu. Goruntz asmoa daukatenek berek, Yesu Kisto'ren irakastez ta adorez gogoa bete ta bizi-tza azteaíren, irakuígai zintzoen egaíri diranek berek, ¿nora yotzen duíe egaíri au arintzeko? ¿Ebaingerietara? ¿Yainkoak berak artarako idatzi ditun beste idaztietako batera? Bearí, bai, ara

leyatu bea' lukete; Yainkoa bera ayen zai an baitago, iñork ezin lesayezken itz bizigariak berei esateko. Geyenek, be'iz, Yainkoa an utzita, Kempis'en, Augustin'en, Teresi'ren edo goi-yakitez nabari dan alako idazle baten o'rialde bikañetan dana au'kitzeko ustez, eguzkitara bea'rean, egurats zabalera bea'rean, leyo ta iri-kitu orien bidez baizik, ez dakite Yainkoaren argi ta atsa berentzako a'rtzen. ¡Zeñen obe, Mari bezela, «Yaunaren oñetara eseri ta Aren itzak aditzen egotea! Arlorik onena Mari'k aukeratu du, ta ez zayo kenduko».¹ Ez bio iñork Israel-darek Sinaimendi ondoan Mois'i zesayotena: «Zeuk itz egiguzu; ez bekigu Yauna mintzo».² Kepa'rekin, ostera, Yesu'ri esan bea' diogu: «Yauna, norengana yo genezake? Betiko bizi-tzarako itzak Zeuk dituzu».³

Auxe da Eliz Amak bere seme guziei egiten dien deirik ga'rtsuena: Yesu'rengana yo; Yesu'ri entzun; Yesu'ren Ebaingeriak edozer baño maiz-ago ta ega'riago iraku'ri, egun oro erabili ta biotzean ausma'rtu ezazute. O'ra Kisto'ren Ordekoak Eliz osoari diotsana: «Gu, beintzat, ez gera

¹ Luk., X, 39, 42.

² Irt. XX, 19.

³ Yon, VI, 69.

iñoiz ere asper̄tuko kistař guziak aolkatzen, gure Yaunaren Ebaingeriak batez ere, Bidalien Egiñak eta Idazkiak, egun oroko irakuřketan erabili, ta norberaren odol ta arnas biuřtzeraño azteřtu ditzatela».¹ Ta Yeronimo Deunaren izenpean burupide au auřeratzen ari dan Bazkuna uřengo itz auetaz Elizeko Buru guziei gorazten die: «Ba-dakizute, Anai Itzalgařiak, Bazkun onen asmoa au dala; lau Ebaingeriak eta Bidalien Egiñak albait zabalenik bařeyatzea, idazti oriek gabe gauřdanik sendi bat ere izan ez dedin, ta berak egun oro irakuři ta ausmařtzen guziak azi ditezan. Egiteko onen etekiñak ezagunda, biotzean daramagu, ta zuen elizetan sařtu ta zabaldu dedin, izen ta asmo bereko bazkunak, Eřomakoari itsatsiak, sořtzea biziřo gura dugu».²

Yainkoaren gogoa, beraz, ezin agiriago ezaguna zaigu. ¿Esnatuko al gera?

Dana dala ogendun, beřiz, gure Eři maitea beti bizi izan da, igande-mezatan eguneko Ebaingeriaz azaltzen zitzayona besterik ezaguteke ta ezaguteko biderik izateke. Yainkoaren itza iñork ere ez dio aren izkuntzaz yaři. Idazteuna irakuřtzeko, beste izkuntza lenik ikasi beařez euskal-

¹ XV Benedict, Litt. Enc. Spiritus Paraclitus.

² XV Bened. Litt. Enc. Providentissimus Deus.

*duna aurkitu da beti. Yainkoaren Idaztiak euskaldunentzat ez dirudite egiñak.*¹ *Guretzat ere, ordea, beste Eri guzientzat bezelaxe, Yainkoak*

¹ *Ez aritu ori irakurtzean. Duvoisin'ek Lapurdi'ko euskeraz, ta Uriarte'k (Fr. Jose Antonio'k), Guipuzko euskeraz, Idazteun osoa Bonaparte'rentzat yari zuten, noski; ez, ordea Euskaleñarentzat. Bonaparte euskaltzale miñak eskatuta, lan aundi au burutu zuten, Vulgatari zeraizkiola. Baña biak, Duvoisin ta Uriarte, katoliko zintzoak ziran, ta Bonaparte'k Elizaren isilean ta Elizak agindutako oarrik gabe ayen lana argitaratu nai baitzun, ayek or'elako argitaraldia erabat eragotzi zioten, eriari irakurgai ateratzeko baimena ukatuz.*

Orobat esana bego Salaberry'k (BN), Etchenique'k (N), Inchauspe'k (Z) euskeratutako Matai'ren Ebaingeriaz; Lizarraga'k euskeratutako Yon'en Ebaingeriaz, eta Inchauspe'k euskeratutako Yon'en Agerketaz.

Euskaleñarentzat, beriz, euskeratu ta argitaratuak ba-dira auek:

- a) *Iesus Christ gvre Iavnaren Testamentv Berria – Rochellan – Pierre Hautin, Imprimiçale, 1571. – Ioannes Leicarraga'rena.*
- b) *Ebanjelio saintia Jesus Kristena, jondone Johaneren arabera – Bayonne, 1874 – Urruthy'rena.*
- d) *Moisseren lehenbizico – liburua – Ieneraçiones – edo – Ethorquia – deithua – Oxford, 1894 – Pierre d'Urte'rena.*
- e) *Evangelioa San Lucasen guissan – Madrid, 1884 – Oteiza'rena.*

g) Izenik gabe Leganitos'tik ba'eyatzen diran Evangelioak. Guziok Elizaren aurka euskeratu ta argitaratuak dira, ordea; katolikoek ezin irakuri ditzakegu. Beraz, Euskaleñarentzat ezer ez dira. Elizaren itzalpean bizi geran euskaldunok, euskaldun guziok, beraz, Yainkoaren Idaztirik irakurgai ez daukagu, ur'engo auek baizik:

- a) *Iesu-Christo – gure Iaunaren – Testament – Berria – lehenago – I. N. Haraneder – Done Ioane Lohitsuko iaun aphez batec – euscararat itçulia – orai, artha bereci batequin, garbiquiago – lehembizico aldicotçat aguer-aracia – laphurtar bi iaun aphecec – Iaun Aphezpicua-*

idatzi ditu. *Iñork ezin ostendu dezaiguke Yainkoagandik Beragandik yarauntsi dugun ondareguren au. Oso bezain uts ta yatoía beti daukaguntzat, Elizaren ardurapean utzi digu; bestela, iñork zerbait andik kendu, zerbait an aldatu, zerbaitekin nasi lezake-ta. Eliza, beriz, Goteuz betetik, Yainkoaren Idaztiak aspertzeke irakurtzera aolkatzen gaitunean bertan, atzañi dago beti, bere isilean ta bere baimenik gabe argitaratu ta irakurñiak izan ez ditezan. Oñela bakañik Yainkoaren Itza begitan dugula etsi etsita egon gaitezke, ta Elizaren eskutik Idaztiok arñtu ezkerro, andik darauskigun Yainkoari kezkarik gabe esan dezayokegu: «Yauna, itz, egidazu: ona zure moñoi au Zuri aditzen».³*

Loyola-Epaila-11/1928.

ren baimenarequin – Baionan – E. Laserre, *Aphezpicuteguico liburu egilea baithan* – Orbeco carrican, 20 – MDCCLV. (Testament Berria izenpean lau Ebanyelioak baizik ez dakar).

- b) Jesukristoren berri-ona S. Joaneke idatzi bezela, 1921, Bilboñ, Jesus'en Biotzaren Deya'n zatika argitaratuta eladeratik euskerara edeñki baño edeñkiago N. Ormaetxea'k itzulita.
- d) Ebaingerien zati batzu; Jaunaren Nekauztia – Deun-Matañren Goizpañaren legez – Lenengo Egutegui bizkaitaía – Bilboñ 1898 – *Arana ta Goiri'tar Sabin'ek euskeratuta.*

Ta emen aipatu litezke Argia'k, Jaungoikozale'k, Zeruko Argia'k, eta Euzkadi'k argitaratu oi dituten Igande-mezatako Ebaingeriak.

O AĀAK

1.^a Orain argitaratzen ditudan idaztiak Itun BeĀikoak dira, eladeraz *Vogels*'ek dakaĀtziĀez euskerara itzulita. *Vulgata* ere, *Hetzenauer*'ek dakaĀenez, gogoan ta begitan beti izan dut. Eladeraz irakuĀtzen ez dan unetxo bat *Vulgata*k dakaĀenean, taketartean edo azpiko oaĀetan emen ageriko da.

2.^a Zenbakiz irakuĀgaya buru ta ataltxoka bereizita doa, 1555'g. urtetik oi danez, irakuĀaldia eĀazteko ta bila-beaĀak lasteĀ idorotzeko. Zenbakiok eta asmo berean ezaĀitako sailburuak, giza-eraskin utsak dira, ta alakotzat, bereziko idazkeraz yaĀtzen dira. Zenbaki yaĀaikera, beĀiz, ezin euskeraz ta eladeraz beti berbera izan diteke; bilbea izkuntza biotan oso bestelakoa da-ta. Begira, ezperen, *Paul*'ek *EĀomaĀei* egindako idazki-asiera.

3.^a EĀi-izkeraz Idazteuna argitaratzekoan Elizaren aginduz ezaĀi-beaĀeko argibide ta oaĀkizunen egileak, *Yesu*'ren *Lagundiko Ogara*'taĀ *Lorentin* eta *Arin*'daĀ *Emanuel* dira:

Ogara'ren oaĀkizunak *Ebaingerietan* eta *Bidalien EgiĀentan* irakuĀgai dituzu; *Arin*'enak osterantzekoan.

Ez ditugu, ordea, lenbiziko argitaraldi ontan guziak ez osorik ere yaĀi izan nai, idazti au berantegi ta lodiegi irten ez zedin.

EBAINGERIAK

IHS
 YESU KISTO'REN
 BEÍI ONA
 MATAI DEUNAK DAKAÁRENEZ

Matai, Lebi ere zeritzana (Mk. II, 14; Lc. V, 27), Alpairen seme ta amabi bidalien arteko bat, Kaparnaun uriko zergari edo publicano zan. Ebaingeria idatzi zuten beste irurari (Mk. Lk. eta Yon'i) auferatu zitza-yen, eta yudentzako, Yesu Lege Zarean agindutako Mesia dala agertzeko asmoz, eberkeraz, au da, ez antxiñako eberkeraz, aldi artan zeramaten aramaikeraz baño, labur eta zin idatzi zun; laster aren baimenaz gerkerara biurtu ta gerkeraz ere zabaldu zan, aramaikoa galdurik. Eusebi edeslari aundiyak aztarnatzen du Kisto'gandik 42-garen urtian edo ageri zala. Gutxienez 50-garen urterako argitu zan, geyenen ustez.

Matai deunaren yaya Iralaren 27-garenean.

I

Yesu'ren etorkia

Abrahan'en belauneko Dabid'en seme dan Yesu Kisto'ren etorki-idaztia.

² Abrahan'ek Isaak sortu zun. Isaak'ek Yakob sortu zun. Yakob'ek Yuda ta aren anayak sortu zitun. ³ Yuda'k Tamar'gandik Pares ta Zara sortu zitun. Pares'ek Esron sortu zun. Esron'ek Aran sortu zun. ⁴ Aran'ek Amina-

1. sqq.

Ona emen Itun edo Testamentu Zar eta Beia lotu ta batzen dun korapiloa: Mesiaren narea ta etoera. Bearezkoa zan, Yesu benetako Mesia zala agertzeko, asieratik bere aragizko etoera azaltzea ere, yudu guziak zekien berayen Igarleen ta Aita Betikoaren esana bete zala: Abrahan eta Dabid'engandik zetoera. «Hosanna Dabiden semeari» esango diote geroago, Bera Mesiatzat goraturik.

dab sořtu zun. Aminadab'ek Naason sořtu zun. Naason'ek Salmon sořtu zun. ⁵Salmon'ek Eřahab'engandik Booz sořtu zun. Booz'ek Eřut'engandik Obed sořtu zun. Obed'ek Yese sořtu zun. ⁶ Yese'k Dabid bakalduna sořtu zun.

Dabid bakaldunak Uria'ren emazte izanagandik Salomon sořtu zun. ⁷ Salomon'ek Eřoboan sořtu zun. Eřoboan'ek Abia sořtu zun. Abia'k Asa sořtu zun. ⁸ Asa'k Yosapat sořtu zun. Yosapat'ek Yoran sořtu zun. Yoran'ek Ozia sořtu zun. Ozia'k Yoatan sořtu zun. ⁹ Yoatan'ek Akaz sořtu zun. Akaz'ek Ezekia sořtu zun. ¹⁰ Ezekia'k Manase sořtu zun. Manase'k Amon sořtu zun. Amon'ek Yosia sořtu zun. ¹¹ Yosia'k Yekonia ta aren anayak sořtu zitun Babilon'eko atzeřaldian.

¹² Ta Babilon'eko atzeřaldi ondoren, Yekonia'k Salatiel sořtu zun. Salatiel'ek Zorobabel sořtu zun. ¹³ Zorobabel'ek Abiud sořtu zun. Abiud'ek Eliakin sořtu zun. Eliakin'ek Azor sořtu zun. ¹⁴ Azor'ek Sadok sořtu zun. Sadok'ek Akin sořtu zun. Akin'ek Eliud sořtu zun. ¹⁵ Eliud'ek Eleazar sořtu zun. Eleazar'ek Matan sořtu zun. ¹⁶ Matan'ek Yakob sořtu zun. Yakob'ek Yose, Mari'ren ezkonařa, sořtu zun. Ta Mari'gandik Kisto deritzan Yesu yayõ zan.

¹⁷ Beraz, Abraham'gandik Dabid'enganaõ amalau belaunaldi: ta Dabid'engandik Babilon'eko atzeřaldiraõ amalau belaunaldi: ta Babilon'eko atzeřalditik Kisto'ganaõ amalau belaunaldi.

Yesu'ren so'rkundea

¹⁸ Kisto'ren so'rtzea, be'riz, onela izan zan. Aren Ama Mari Yose'kin ezkontuta zegola, biak batu baño len, Goteunagandik au'rdun au'rkitu zan. ¹⁹ Yose, aren sena'ra, zuzena zala-ta, bera ez gerendu nairik, isilean utzi nai izan zun. ²⁰ Bañan asmo ontan zebilala, ara, Yaunaren aingerua ametsetan ageri izan zitzayon, esanaz: «Yose, Dabid'en seme: ez beldu' izan zure emazte Mari a'rtzeko; arengan so'rtu dana Goteungandik du-ta. ²¹ Seme egingo ere du, ta Yosu izena eza'riko diozu: bere e'ria ogenetatik Berak ateratuko du-ta. ²² Guzi au, be'riz, gertatu zan, Yaunak iga'learen bidez esana bete zedin:

**²³ Ara, neskak sabelean seme so'rtu
ta argitara eka'riko du;
ta Aren izena Emmanuel,
edo berdin dana,
Yainkoa gurekin izango da,**

²⁴ Yose'k, ba, ametsetatik yaikita, Yaunaren aingeruak agindu zionez egin ta bere emaztea a'rtu zun. Ta ez zitzayon batu seme egin zun a'рте. Ta Yesu izena eza'ri zion.

18. **Ezkontuta.** Ondo dago: mnesteutheise (gerkeraz) ezkontzeko itunduta izan a'ren, ez aztu antziñako Legearen oitura: sena'rak emaztea oraindikan etxeratu baño len, ezkontzeko itz eman ordutik, sena' -emazteen eskubidea zuten: ta o'rela izen onekin, au da, sena' ta emazte, deitzen ziran. Geroago, bateratsu sena'rak emaztea bereganatzen zun. Eta orixe, Maria beldu'rik gabe bereganatu edo etxeratzeko. aingeruak Yoseri agintzen dio.

23 Is. VII, 14.

II

Aztiak Arengana

Erode éregeren egunetan Yudai'ko Betlen'en Yesu yayo zanean, ara, azti batzu soñtaldetik Yerusalen'a etoñi ziran, ² esanaz: «Non dago yayo dan yuduen bakalduna? Aren izaña soñtaldean ikusi dugu, ba, ta agur' egitera gatozkio». ³ Au adituta Erode bakalduna artegatu zan, ta arekin Yerusalen osoa. ⁴ Ta apaiz nagusi ta ériko idazlari guziak bildurik, galde zegien Kisto non yayobeaña zan. ⁵ Ta ayek esan zioten: «Yuda'ko Betlen'en; oñela igarñeak idatzita baitago:

**6 Ta zu, Betlen, Yuda'ko bazteñ ori,
ez zera inñola ere Yuda'ko nagusietan**

[txikiena;

**zugandik soñtuko baita Aitzindaria,
Israel nere éria lañatuko duna.**

⁷ Ordun Erode'k, aztiak isilean deituta, izaña noiz ageri izan zitzayen ayengandik arduraz ikasi zun. ⁸ Ta Betlen'a igorñzen zitula, esan zien: «Zoazte, ta auraren beñi arduraz ar' ezazute, ta idorotakoan, iragarñkidazute, nerau ere agur' egitera noakion».

⁹ Ayek, ba, bakaldunari entzunda yoan ziran. Ta

1. **Aztiak**, magoak. Persi, Medi, Asiri ta Kaldaiko éri aundietan **magoak** zeritzaten ortzi ta izañ yakitez nabari ziranak. Éri guzi auek Palaistinaren soñtaldera yotzen dute: **Sortaldetik** zetozala, besterik gabe, diosku Matai deunak.

2. Idazlari, legelari edo lege-irakasle. Ayen egitekoa zan Lege-arauak zeatz ta meatz azteñtu, azaldu ta eztabaidan erabakitzea.

6. Mik. V, 2.

ara, soñtaldean ikusia zuten izaía auñetik ziyoakien, Auía zegon toki gañean gelditu arte. ¹⁰ Izaía ikustez oso aundia izan zan ayen poza. ¹¹ Ta etxean sañtuta, Auía bere Ama Mari'rekin idoro zuten, ta auzpezturik agur egin zioten, ta beren kutxak irikirik, uré, luñin ta mirá adiguritzat eskeñi zizkioten. ¹² Ta Erode'gana ez itzultzeko onua ametsetan arñtuta, beren eñialdera beste bide batetik osterá egin zuten.

Aigito'ra igesi.

¹³ Ayek yoan ziranean, ara, Yaunaren aingerua Yose'ri ametsetan ageri izan zitzayon esanaz: «Yaiki, Auía ta Aren Ama arñtu ta Aigito'ra iges egizu, ta zaude an, neronek esan arteraño. Auía galtzeařen Aren bila Erode ibiliko da-ta». ¹⁴ Yose'k, ba, yaikirik, Auía ta Ama arñtu zitun gauez, ta Aigito'ra bazteñtu zan. ¹⁵ Ta an zegon Erode'ren eriotzaraño: Yaunak igarñleären bidez esana bete zedin: **Aigito'tik nere Semea deitu dut.** ¹⁶ Erode'k ordun, aztiék iruzur egin ziotela oarñturik, aseñe goñian sañtuta, Betlen'en ta inguru guzietan zitezken bi urtetik berako aur guziak iltzeko agindu zun, aztiengandik ezagundako garaya begiratus. ¹⁷ Ordun bete zan Yeremi igarñleak esan zuna:

¹⁸ Otsa Eñrama'n entzun da;

nagar ta garaxiak ugari;

Eñakel bere umeengatik negaréz,

ta ez diran ezkeró, pozbiderik nai ez.

¹⁹ Erode ildakoan, beriz, Yaunaren aingerua Aigito'n

15 Os. XI, 1.

18 Yer. XXXI, 15.

Yose'ri ametsetan ageri izan zitzayon, ²⁰ esanaz: «Yaiki ta Auía ta Aren Ama artu ta Israel aldera zoaz; Auía il nairik zebiltzanak, il dira-ta». ²¹ Yose'k, ba, yaikirik, Auía ta Aren Ama artu zitun ta Israel alderuntz irten zan. ²² Bañan Erode'ren oñorde, Arkelao, aren semea, Yudai'n bakaldun zala entzunda, ara yoateko belduf izan zan, ta ametsetan aolkatuta Galilai aldetara baztertu zan. ²³ Ta ara ezkerro, Nazaret deritzan irian bizi-lagun gelditu zan, igarleen esana Nazaretaía deritzake bete zedin.

III

Yon Ukuzlea

Egun ayetan Yon Ukuzlea azaldu zan Yudai'ko basoan aldaíka ² esanaz: «Garbai zaitezte, zeru-yaureía urbil dago-ta». ³ Au da, arean, Isai igarleak aitatua itzotan:

**Basoan aldaíka dagonaren otsa:
Yaunaren bidea atondu
ta Aren zidoiak zuzendu itzazute.**

⁴ Or ba, Yon onek soñekoa gamelu ilez egiña zerman, ta geñian laruzko itoltza: aren yanaria, beñiz, otiak eta baseztia ziran. ⁵ Ordun arengana Yerusálen ta Yudai osoa ta Yordan aldeko guziak zetozan, ⁶ ta beren

² Zeru yaureía urbil dago: Mesia edo Kistok emen ludian, Ebaingeriaren bitartez yaí beaf dun bakalduna. Zerukoa da: a) zerutik datoíkigu, b) zerutañen bizitza dakaíkigu, ta d) zeruko atsegiñerako gertutzen gaitu. Askotan, Ebaingeria bera ulertu diteke itz auetaz; beste batzutan, sañago, Eleiza, ta noizbait, beste aldiko zoriona.

³ Is. XL, 3.

ogenak aitoiturik, ukuzpena Yordan ibayean aren eskutik artzen zuten. ⁷ Baña, parisai ta sadukaitarik asko bere ukuzketara etoñiak ikusirik, esan zien: «Ziraunkumeok, datoñken aseñeari igesten nork irakatsi dizue? ⁸ Ekañtzitute, beraz, garbai-arnari egokiak. ⁹ Ta ez liluratu zeron baitan esanaz; Abrahan dugu aita. Bada-saizuet, ba; orko arietatik ere Abrahan'i semeak eraikitzeke lain da Yainkoa. ¹⁰ Aizkora onezkero zugatz-eñoari ezañita baitago. Arnari onik ez dakañken zugatza ebaki ta sutara yaurtiko dute: ¹¹ Nik, bai, urez ukuzten zaituzt garbaitarako; baña nere ondoren Etoñtzekoa ni baño azkañagoa da, ta Aren oñetakoak eramateko ere ez naiz ni nor. ¹² Beraxek Goteunez ta suz ukuziko zaituz. Baea eskuan dakañ, ta bere lañaña garbituko du, ta bere garia mandioan bilduko du; lastoak, ordea, eñeko ditu itzungi ez diteken sutan.

⁷ **Parisai ta sadukaitarik** yuduen artean Legeari buruz soñtutako bi alderdi nagusien yañaitzaleak ziran. **Sadukaitarik**, Lege utsa, idatzita dagonez, iñongo ekanduei yaramateke, zuzenbidetzat arturik, bizitzako atseññetan murgildurik zebiltzan. Ez arimarik, ez aingerurik, ezta, beraz, ilen berpizterik siñesten ez zutelako, askotsu apaiz izanda ere Yainkoarenetan zabañ ta ayolañabetsu azaltzen ziran.

Parisaitarik, beñiz, legekoi amoñatuak omen ziran. Baña Legearen mamia baño azala maiteago zuten, eta Lege-arautxorik pitiññetan ta Legeari erdoña bezela, giza-ekanduz eratsitako zirtzilkerietan oso zoñotz ta arduratsu gizaññean ageri miñez zebiltzan beti.

¹¹ **Oñetakoak eramateko.** Gaurko egunetan ere soñtaldean, yaur-egietan sartzeko, oñetakoak erantzi bear dira, ta moñoyen arazoa da yaunaren oñetakoak artu ta eramatea. Orixe da, ba, Yonek aiñ poliki dakañena, Yesusen añez bere burua txikitzeke.

¹² Yonen ukuzpen edo batayoak ez zun bere eñayetn indañik Goteuna emoteko ta arimak garbitzeke: Yaunaren eskeña aurkitzen zun damutasunaren bitartez, ta oñegatik **damu-batayo** edo ukuzpena zan. Yesurenak, beñiz, **bere indañez, suaren** antzera garbitzen dun **Goteuna** dakarkigu, ta ori agertzen du Yonek, esanaz **Goteunez ta suz** ukuziko gaitula. Goteuna su-irudiz jetxi zan Pentekoste egunetan, ta Batayoan ta Konfirmazioan suak bezela arima irazeki, garbitu ta donetzen du.

Yesu'ren ukuzpena

¹³ Ordun Yesu Galilai'tik Yordan'a etoñi zan Yon'gana, onek ukuzia izateko. ¹⁴ Yon'ek ordea, zeragozkion esanaz: «Ni naiz Zuk ukuzi beara, ta nigana Zual zatoz?» ¹⁵ Bañan Yesu'k yardetsi ta esan zion: «Oraingoan utzi; zuzenbide osoa onela betetzea baitagokigu». Ordun Yon'ek utzi egin zion.

¹⁶ Ukuzpena artuta berealaxe urtatik Yesu irten zan; ta, ara, ortzia zabaldu zala, Yainkoaren Atsa uso-irudiz yeisten ta bere gañera etoñtzen ikusi zun. ¹⁷ Ta, ara, ots bat ortzitik esaten: «Auxe da atsegin zaidan nere Seme kutuna».

IV

Yesu'ren barutea ta zirikaldiak

Ordun Yesu basora Atsak eraman zun, txerének zirikatua izateko. ² Ta barutan be'oge'i egun ta be'oge'i gau egon ezkerro, azkenean gose izan zan. ³ Ta zirikalariak alderatu ta esan zion: «Yainkoaren Seme ba'zera, a'riok ogitzeko esazu». ⁴ Yesu'k yardetsi ta esan zion: «Idatzita zegok: ez duk gizona ogi utsez bizi, Yainkoaren aotik so'rtutako itz oroz baizik». ⁵ Ordun txerének iri deunera eroanda, yauretxeko erpiñean ya'ri zun, ⁶ ta esan zion: «Yainkoaren Seme ba'zera, yalki zaitez goitik bera: idatzita baitago:

**Zure zaitza bere aingeruei egotzi die;
ta eskuetan artuko zaitute,
aritan zure oñak tupust egin ez dezan».**

¹ Atsak, au da, Goteunak, Yainkoaren Atsak.

⁴ Deut. VIII, 3.

⁶ Er. IX, 11,12.

⁷ Yesu'k esan zion: «Idatzita ere zegok: **Ez duk ire Yainko Yauna zirikatuko.** ⁸ Beñiz ere txere-
nek mendi garai garai batera eraman zun, ta luñbirako
yaureñi guziak eta ayen ańandia erakutsi zizkion, ⁹ ta
esan zion: «Guziek damazkizuket, auzpeztuta yauresten
ba'nauzu». ¹⁰ Yesu'k esan zion: «Utikan, Satan ori:
idatzita baitzegok: **Ire Yauna yauretsak, ta Berari
bakañik moñoi atoñkio**».

¹¹ Ordun txereñek utzi zun, ta aingeruak alderatu ta
moñoi ketan ari zitzazkion.

Yesu Kaparnaun'en

¹² Yesu, beñiz, giltzaperá Yon emana zala entzunda,
Galilai'ra baztertu zan. ¹³ Ta Nazaret utzirik, itxasal-
deko Kaparnaun'a eldu zan, ta an Zabulon ta Neptali'ren
mugetan, eñikotu zan, ¹⁴ Isai igarñleak esandako ura bete
zedin:

¹⁵ **Zabulon luñaldeá ta Neptali luñaldeá.
Yordan aruzko itxasbidean,
atzeritañen Galilai.**

¹⁶ **Īuntan zetzan eñiak argi aundia ikusi du;
ta erio-layotzean zeuntzaneñ argia soñtu zaye.**

¹⁷ Añezkero Yesu asi zan agirian itz egin ta esaten:
«Garbai zaitezte, zeru-yaureñia urbil dago-ta»

Lenbiziko deituak

¹⁸ Galilai'ko itxasondoan zebilala, anai bi, Kepa

¹⁰ Satan ori: eberkeraz Satanek arerio ta zirikatzañe esan nai du.

⁷ Deut. VI, 16.

¹⁰ Deut. VI, 13.

^{15,16} Is. IX, 1,2.

deritzan Simon ta aren anai Ander, Yesu'k ikusi zitun sarea itxasora botatzen: a'antzale baitziran.¹⁹ Ta esan zien: «Zatozte nere ondotik, ta Nik giza'antzale egingo zaituzt.²⁰ Ta bertantxe ayek, sareak utzita, ya'rai zitzazkion.

²¹ Andik au'eratuz, beste anai bi, Yakob Zebedai' rena ta Yon, aren anaya, ikusi zitun aitarekin ontzian beren sareak antolatzen, ta deitu zitun.²² Ayek ere bertantxe sareak eta aita utzita, ya'rai zitzazkion.

Bazte'rik bazte' irakasten

²³ Eta Yesu Galilai'n ba'rna alde orotara zebilan, ango sinagogetan iraskasten ta yauraldiaren Be'ri Ona zabaltzen, ta gaitz ta eri guziak e'riarengan sendatzen.

²⁴ Siri osoan ere Aren ospea ba'reyatu zan, ta edotariko gaitz ta o'ñazez gaizki zeuden guziak, txerendun, aldientsu ta elba'rituak, eka'ri zizkioten eta sendatu zitun.²⁵ Eta Galilai'tik, Dekapoli'tik, Yerusalen'dik, Yudai'tik eta Yordan aruzkotik gizatalde aundiak ya'rai zitzazkion.

²³ Sinagoga, yuduak otoi egiteko ta Idazteuna iraku'ri ta azaltzeko biltzen diran tokia da.

²⁵ Deka-polis (=Ama'uri) izentatzen zan, asieran ama'eta geroago geixeago izan ziran urien bazkuna. Alderdi onetako geienak gentilak (=ez yuduak) ziran.

V

*Mendiko itzaldia**Zori ona*

- Y**esu, beñiz, gizaltaldea ikusita, mendira igo zan, ta eseri zanean, bere ikasleak alderatu zitzazkion.
- ² Eta bere aoa irikirik, irakasten asi zitzayen, esanaz:
- ³ «Gogo-landeñen zori ona, zeru-yaureñia berena dute-ta.
- ⁴ Negañ dagitenen zori ona, poztuko dira-ta.
- ⁵ Otzanen zori ona, luña yarauntsiko dute-ta.
- ⁶ Zuzen-gose ta egañi diranen zori ona, ase izango dira-ta.
- ⁷ Erukitsuen zori ona, erukia iritsiko dute-ta.
- ⁸ Biotz-garbien zori ona, Yainkoa dakuskete-ta.
- ⁹ Gentzakoyen zori ona, Yainkoaren seme deritzakete-ta.
- ¹⁰ Zuzenagatik esetsien zori ona, zeru-yaureñia berena dute-ta.
- ¹¹ Zuen zori ona, Nigatik biraokatu ta esetsiko zaituztenean, ta zuen lepotik gezuñ esanaz yazañiko zaskizuenean. ¹² Poztu ta ikotu zaitezte, zuen saria zeruan yoritsu dalako: oñela, ba, zuen auñeko igañleei ere yazañi zitzazkien.

Lege Beñia Zañari buruz

- ¹³ «Zuek zerate luñarekiko gatza. Oñ, ba, gatza gezatu

ezkero: zerez gazitu? Ezertarako ere ez da, alde yaurti ta gizonek iztikatua izateko baizik. ¹⁴ Zuek zerate gizargia. Mendi-tontoñean yañitako iria ezin ostendu diteke. ¹⁵ Zuzia berebat ez dute ixio ta lakaripean ipintzen, argimutil gañean baño, etxeko guziei argi dagien. ¹⁶ Oñela zuen argia gizauñean ditziz bego, zuen egite onak dakusazten, ta zuen Aitagoikoa goretsi dezaten.

¹⁷ Ez uste legea edo igarñleak bazteñtzera etoñi nainanik: bazteñtzera ez, betetzera bai etoñi nator. ¹⁸ Zin ziñez dasaizuet: ortzi-luñak dirauteño, ez da legetik *i* edo tiltxo bat ere galduko, dana burutu arte. ¹⁹ Beraz, aren agindu txikitxoren bat bazteñtu ta bazteñtzen irakatsi dukena, zeru-yaureñian txikitxo izango da.

²⁰ Esaten dizuet, ba: zuen zuzentasuna idazlari ta parisaitañena baño ugariagoa ez izatekotan, ez zerate zeru-yaureñian sartuko.

²¹ «Entzun duzute antziñekoei esan zitzayela: ez iñor il; iltzalea, beñiz, auzitegian ogendun bego. ²² Nik, beñiz, dasaizuet; bere senideari aseñe zayon edonor, auzitegian ogendun bego; bere senideari **kirten** diotsana, beñiz, batzañean ogendun bego; ta **zantal** diotsana, su-lezerako ogendun bego. ²³ Beraz, opalmai ondoan zure oparia eskeintzen ba'zaude, ta zure aurka zer edo zer

¹⁷ **Legea ta Igarñleak:** Testamentu Zañ osoa.

¹⁸ *i* **edo tiltxo bat...** Izki edo mañatxorik txikiñen bidez Legean agindu ta irakasten zaigun edozer, mengel irudiañen, osorik eta ziero burutu ta betebeañ da.

²⁰ Idazlari ta parisaitañen zuzentasunak azala besterik ez zun, mami-rik ez. Yaunak bere yaureñian biotzari begiratzen dio, ez, gizonen bezela, aurpegiari bakañik.

²¹ Irt. XX, 13; Deut. V, 17.

zure anayak dula an oroitzen ba'zera, ²⁴ zure oparia antxe opalmai au'ean utzita, zoaz au'arik onezkoak zure anayarekin egitera, ta o'ezkero ba-zatozke zure oparia eskeintzera.

²⁵ Zure aitzikoari alki zakizkio lenbaitlen, bidean arekin zoazaño: berak ebazleari, ta ebazleak amaiñari emana ta mo'oilopean itxia ez izateko. ²⁶ Ziñez dasaizut; ez zera andik irtengo azken laurdena ordaindu arte.

²⁷ Entzun duzute esanda dagola; **ez izo'rtu.** ²⁸ Nik, be'riz, dasaizuet: emakumea i'ritsez iñork begira dunekoxe, arekiko izo'keri egin du bere biotzean.

²⁹ Eskuiko begiak gaitzeratzen ba'zaitu, atera ta zuregandik erauzazu: obe zaizu, ba, soin-atal bat galtzea, zure soin osoa su-lezeratzea baño. ³⁰ Ta zure eskuyak gaitzeratzen ba'zaitu, ebaki ta zuregandik erauzazu; obe zaizu, ba, soin-atal bat galtzea, zure soin osoa su-lezeratzea baño.

³¹ Esana dago: **Bere emaztea iñork zapuztekoan, zapuztagiria bemayo.** ³² Nik be'riz, dasaizuet; izo'keriagatik ez ba'da, iñork bere emaztea zapuzten ba'du, izo'keritara daragi, ta zapuztua beretzat a'rtzen dunak ezkontza loitzen du.

³³ Entzun duzute ere antziñekoei esan zitzayela: **Ziñik ez autsi; eman, ordea, Yaunari zure ziñak.**

³² Izorkeriagatik ere ez du Yaunak ezkontza austeko eskubiderik ematen, senar emazteak alkar aldentzeko baño: eta o'egatik dio, aldentzekoan ere ezin ditekela **izo'keririk gabe** ez beste senar batek emazte zapuztua, ez beste emazte batek aldendutako senara ezkontzat a'rtu, ezkontzaren korapilo edo loka'ria eten ezin dalako.

²⁷ Irt. XX, 14.

³¹ Deut. XXIV, 1.

³³ Irt. XX, 7; Leb. XIX, 12. Deut. V, 11; Zen. XXX, 3.

³⁴ Nik, beñiz, dasaizuet: inola ere ez zin egin: ³⁵ ez ortziagatik, Yainkoaren aulkia dalako; ez luřagatik Aren oñazpikoa dalako; ez Yerusalen'gatik, Bakaldun Aundiaren iria dalako. ³⁶ Ezta zure buruagatik ere zinik egin; ile bat ere ezin zuritu edo beztu duzulako. ³⁷ Zure izkera, ordea, beti bedi «bai bai; ez, ez»; Gañerakoa gaitzetik da noski.

³⁸ Entzun duzute esanda dagola; **begi ordain, begi; ortz ordain ortz.** ³⁹ Nik, beñiz, dasaizuet; gaiztaginari gogor ez egin; eskuiko matsalean inork yotzen ba'zaitu ordea, bestea ere eskeñiozu.

⁴⁰ Ta, soñekoa zuri kentzeařen, zurekin auzitan liskařtu nai dunari soingañekoa ere emayozu. ⁴¹ Ta inork mila urats ibilerazten ba'dizkizu, bi mila egin arekin. ⁴² Daskaizunari emayozu, ta yesan nai dizu-nagandik ez zaitez atzeratu. ⁴³ Entzun duzute esan-da dagola: **urkoa maite** ta etsaya gořoto **ezazu.** ⁴⁴ Nik, beñiz, dasaizuet; zuen etsayak maite itzazute; gořoto zaituztenei ongi egiezute, ta esetsi ta iraintzen zaituztenen alde otoi egizute, ⁴⁵ bere eguzkia on ta gaiztoen gañean atera ta euria on ta gaiztoen gañera eratořtzen dun Aitagoikoaren seme izan zaitezten. ⁴⁶ Alabaña, maite zaituztenak maite ba'dituzute; ¿zein sari dukezute? ¿Zergariak berek ez ote dute ori egiten? ⁴⁷ Ta senideei bakařik agur egiten ba'diezute, geyegiko-rik zer dagizute? Atzeřitařek berek ez ote dute ori egiten? ⁴⁸ Oso osoak izan zaitezte, beraz, zuen Aitagoikoa oso osoa dan bezela.

³⁸ Irt. XXI, 24; Leb. XXIV, 20; Deut. XIX, 21; 43 Leb. XXIX, 18.

VI

Nola ukař, otoi ta baru egin beař

Gomazute, zuen egite onak gizauřean ez egiteko, ayek zakusazten; bestela, zuen Aitagoikoarenean ez duzute saririk izango.

² Beraz, ukař egiterakoan, turutotsik ez atera zure auřetik, azalutsek sinagogetan ta kaleetan oi dutenez, gizonek goretsi ditzaten. Ziñez dasaizuet: beren saria ařtua dute. ³ Ukařa zuk egitean, beřiz, ez beki zure ezkeřak zure eskuyak zer dagin, ⁴ zure ukařa isilean izan dedin; ta isilean dakusan zure Aitak ordainduko dizu.

⁵ Ta otoi egitean, azalutsak bezela ez izan; ořelakoen atsegiņa sinagogetan eta zeiburuetan zutik otoi egitea da, gizauřean agertzeko. Ziñez dasaizuet: beren saria ařtua dute. ⁶ Zu, beřiz, otoi egiterakoan, sař zaitez zure gelan, ta atea itxita, zure Aitari isilean otoi egiozu; ta isilean dakusan zure Aitak ordainduko dizu.

⁷ Otoitzean, beřiz, ez egon bal bal itz egiten, atzeřitařak bezela; itzaren itzez entzungaři dirala uste dute-ta. Ez zuek ořela izan; ⁸ baitaki zuen Aitak zer beař duzuten, zuek Berari eskatu baņo len. ⁹ Zuek, beraz, onela otoi egizute: Gure Aitagoikoa; guren bego zure izena; ¹⁰ betoř zure yauraldia; egin bedi zure naya, zeruan bezela, luřean ere. ¹¹ Beař dugun ogia gaur iguzu; ¹² ta

1 Au da, ez duzute asmo uts ořekin, gizonek zakusazten, egite onik bete beař: baņa lagun urkoen eredu izatea dagokizue, ayek zuen egite onak ikusirik, Aitari dagokion aintza damayoten.

5 Begira gorago IV, 23.

asketsi gure zoñak, gure zoñdunenak gerok ere askesten baitizkiegu; ¹³ ta ez gaitzazu zirikalduan utzi; gaitzera gabe, gauzkazu, ordea.

¹⁴ Alabaña, gizonei beren zoñak askesten ba'dizkiezute, zuen Aitagoikoak ere zuen ogenak asketsiko dizkizue: ¹⁵ gizonei askesten ez ba'dizkiezute, ostera, zuen Aitak ere ez dizkizue ogenak asketsiko.

¹⁶ Baru egitean, ez ibili, azalutsak bezela, betilunik; aurpegia zañgailtzen dute, ba, gizonei barutzale agertzeko. Ziñez dasaizuet; beren saria artua dute. ¹⁷ Zuk, beñiz, baru egitean, gantzu ezazu zure burua ta ikuz aurpegia, ¹⁸ ez gizonei barutzale agertzeko, isilean dagon zure Aitari baño; ta isilean dakusan zure Aitak ordainduko dizu.

Emengoak nardatuz, zerukoetara yo bear

¹⁹ Altxoñak zuentzat luñ ontan ez bildu; erdoi-sitsak emen zirtzika ari baitira, ta lapuñek zulatu ta ostu oi dute. ²⁰ Altxoñak, ostera, zeruan bil itzazute zuentzat; ez dago an erdoi-sitsik zirtzikatzeko, ezta zulatu ta osteko lapuñik ere. ²¹ Izan ere, zure altxoña iñon ezkerro, zure biotza ere antxe dago. ²² Soñaren zuzia, begia da. Zure begia garbi izan ezkerro, zure soin osoa argitsu izango da, ²³ Zure begia lauso izan ezkerro, beñiz, zure soin osoa iluntsu izango da. Beraz, zukan dagon argia iluntasun ba'da, iluntasuna bera zeinbestekoa izango da?

²⁴ Bi nagusiren moñoi ezin izan iñor. Edo bata goñoto ta bestea maite izango du, ba; edo batari atxi-

²⁴ Mammon: Aramaitañen artian aberastasuna, norbait bailitzan.

kirik, besteari narda egingo dio. Yainkoaren ta Mammon' en mo'oi ez zaitezkeite izan.

²⁵ Argatik dasaizuet: ez ayola izan zerez bizia azi, zerez soña yantzi. ¿Bizia ez al da yanaria baño zertsuago? ta soña, yazkia baño geyago? ²⁶ O'ra eguratseko egaztiak; ez dute ereiten, ez itaitzen, ez mandiotan biltzen; ta zuen Aitagoikoak azten ditu. Ayek baño nagusiago zuek ez al zerate? ²⁷ Zuetako nork, be'riz, asma-ala asma ere, bere bizia besabetez luzagotu dezake? ²⁸ Yazkiaz, berebat, zertako ayola izan? O'ra basaliriak. Begira nola aunditzen diran. Ez dute lanik egiten, ez iruten. ²⁹ Ala ere dasaizuet: Salomon bera bere aintza betean ere ez zan orietako bat bezain apaindurik azaldu. ³⁰ Beraz, gau' bizi ta biar labera botatzen dan la'abela'ra Yainkoak o'rela yazten ba'du; zenbat arduratsuago azalduko zaizue, siñeste u'ridunoi? ³¹ Ez ayola izan, beraz, «zer yan, zer edan, zer yantzi dezakegu» esanaz. ³² Guzi orien bila atze'ita'ak dabiltza. Zuen Aitak, be'riz, ba-daki guzi orien bea'rean zaudetela. ³³ Beraz, Yainkoaren yaure'i ta Aren zuzenbide bila lenik zabiltzate, ta guzi oriek geiga'ri a'rtuko dituzute. ³⁴ Ta biarkoaz ayola ez izan. Biarko ayola, biar. Egunari naikoa eguneko dordoa.

VII

Irizkeriaz

Iñor ez ebatzi, ebatziak izan ez zaitezten. ² Alabañan, ebatziko zenuketen ebazpidez ebatziak izango zerate, ta neu'rtuko zenuketen neu'riz neu'rtuko zaizue.

³ Zer dala-ta, zure senidearen begian agotza dakusazu, ta zeroñen begian aga ere ez duzu oartzen? ⁴ Edo zer dala-ta, senideari dasayozu; utzi, agotza begitik kenduko dikat; ta oña, zeroñen begian aga? ⁵ Azaluts ori, zeroñen begitik aga lenen erauzazu, ta aiezkeru senidearen begitik agotza kentzen diardukezu.

⁶ Guren danik zakuñei ez eman; ezta zuen txirlañoiak ere txerñen auean ez iralki, txirlañoiak oinpean iztikatuta gero zeron gañera abarakituz ez datoza.

Otoirako aolkua

⁷ Eska ezazute ta emango zaizue; bila zabiltzate ta idoroko duzute; yo ezazute ta irikiko dizuete; ⁸ eska-leak arñu ta biltzaleak idorotzen du, ba, ta yotzaleari irikitzen diote. ⁹ Nor da, ezperen, zuetan, bere semeak ogia ba'daskayo, arña damayonik? ¹⁰ edo arña ba'daskayo, sugea damayonik? ¹¹ Orñ ba, zuek, gaiztoak izan arñen, semeei emari onak ematen ba'dakizute, zeñen areago zuen Aitagoikoak eske datozkionei emari onak egingo dizkie? ¹² Beraz, gizonak zuei egitea nai duzuten guzia, zuek ere ayei egiezute. Orñan baitaude Legea ta Igarleak.

Zerurako bidea

¹³ Ate estutik sarñ zaitezte; aundia da, ba, galtzerako atea, ta zabala ara daraman bidea, ta asko dira andik sarñzen diranak. ¹⁴ Bizitzarako atea, beñiz, ¡zeñen estuda, ta zeñen mearñ ara daraman bidea! ta gutxi dira idorotzen dutenak.

¹⁵ Ernai bizi, otso zakañak bañnetik dirala, ardi-lañuz datozkizuen sasi-igañleei buruz. ¹⁶ Ayen arnariz antz emango diezute. Eloñtik matsak, edo lapañetik pikoak biltzen al dira? ¹⁷ Alaxe ba, zugatz onak arnari on, zugatz txañak arnari txañ. ¹⁸ Zugatz onak arnari txañik ezin ekañi dezake; ezta arnari onik zugatz txañak ere. ¹⁹ Arnari onik ez dakañen zugatz oro ebaki ta sutara yaurtiko dute. ²⁰ Alakoei, beraz, beren arnariz antz emango diezute.

²¹ Ez da zeru-yaureñian sañtuko «Yauna, Yauna» diostan edonor; nere Aitagoikoaren naya dagaña, orixe bai, zeru-yaureñian sañtuko da.

²² Ainitzek egun artan esango didate: Yauna, Yauna, ez ote dugu zure izenean igañketan egin? ez ote ditugu zure izenean txereñak iraitzi, ta zure izenean alatz asko egin? ²³ Ta nik ordun aitoñtuko diet: ez zaituzt iñoiz ere ezagun: alde Nigandik, gaiztagiñok.

Itzaldiaren amaya

²⁴ Beraz, nere itzok entzunda betetzen dituna, aizkañean bere etxea eraiki zun gizon gurbilaren antzekoa izango da ²⁵ Euria yetxi ta ibayak etoñi ta aizeak erauntsi ta etxe ura yo añen, ez zan erori; aitz gañean sendotuta zegolako. ²⁶ Nere itzak entzunda betetzen ez dituna, beriz, ondañgañean bere etxea eraiki zun gizon

21 Yauna, Yauna biotzez esatea beañezkoa izanda ere, benetan ala gezuñez esaten dan, biotzetik ala aoz ta ezpañez, egiteak argiratuko dute. Begira geroago Luk. VI, 46.

17 Is. LIII, 4.

tentelaren antzekoa izango da. ²⁷ Euria yetxi ta ibayak etoñi ta aizeak erauntsi ta etxe ura yo orduko, bêra erori zan, ta aren poñokaldia aundia izan zan».

²⁸ Itzok Yesu'k bukatu zitunean, gizatalde ayek Aren irakastez ariturik zeuden. Eskudunari dagokionez irakasten ari baitzitzayen, ez ayen idazlariak bezela.

VIII

Legenarduna

Menditik yetxi zanean, gizatalde aundiak yañai zitzazkion. ² Ta ara, legenardun batek etoñita guñ egin zion, esanaz: «Yauna, nai ba'duzu, garbitu nazezu». ³ Ta Yesu'k, eskua luzaturik, ikutu zun, esanaz: «Nai dut; garbi biur zaitez». Ta bertantxe legenaraz garbi egin zan: ⁴ Ta Yesu'k esan zion: «Begira; ez inñori esan; zoaz, ordea, ta apaizari aurkeztu zakizkio, ta ayentzako agiritzat Mois'ek agindutako oparia eskeniozu».

Kaparnaun'go euntaria

⁵ Kaparnaun'en sartu zala, euntari bat arganatu zan arenez ⁶ esanik: «Yauna, nere moñoya etxean elbarituta datza oñaze goñitan». ⁷ Ta Yesu'k esan zion:

VIII. Orain artekoan Matai deunak Yesu'ren irakaspenak bildu ditu; auñerakoan alatzak batuko ditu.

5 Euntaria: eun gudamutilen burua.

«Ba-noakio ta sendatuko dut»: ⁸ Euntariak yardetsi ta esan zion: «Yauna, ez naiz ni nor nere aterpera Zu etorzeko; itzez bakañik esazu, ordea, ta mo'roya sendatuko da. ⁹ Neuk, ere, ba, besteren mendean egon a'ren, gudamutilak nere mendean ba-ditut; eta bati «oa» diotsat, ta ba-doa, besteri «ato'», ta ba-dato'; ta nere mo'royari «au egik», ta ba-dagi». ¹⁰ Entzunaz Yesu'k a'iturik, ze'raizkionei esan zien: «Ziñez dasaizuet: ez dut onenbesteko siñesterik Israel'en idoro. ¹¹ Ba-dasaizuet ere: ekeraxezkitik asko eto'ri ta zeru-yaure'ian Abraham, Isaak eta Yakob'ekin etzango dira; ¹² e'riko semeak, osterax, atetiko iluntara oilduak izango dira. ¡Ango nega' ta ortz-ka'aska!» ¹³ Ta euntariari Yesu'k esan zion: «Zoaz, ta gerta bekizu, siñetsi duzunez». Ta ordu artantxe mo'roya sendatu zan.

Beste sendakuntza batzu

¹⁴ Kepa'ren etxera eto'irik, aren amagia'eba Yesu'k ikusi zun suka'rez oeratuta. ¹⁵ Ta eskua ikutu ziola, suka'ak utzi zun, ta yaiki ta etxe koetan ari zitzayon.

¹⁶ A'ratsaldera ezkerax, txere'ndunik asko eka'ri zizkiten, ta txere'nak itzez ziaurtizan, ta gaxorik zeuden guziak sendatu zitun; ¹⁷ Isai iga'leak esan zun au bete zedin: **Berak gure eriak a'rtu ta gure elgaitzak eraman zitun.**

¹⁸ Baña gizapilo aundiak ze'raizkiola Yesu'k ikusirik, beste ertzera igarotzeko agindu zun. ¹⁹ Ta idazlari batek arganatu ta esan zion; «Irakasle, edonora zoazken,

¹⁷ Is. LIII, 4.

yaíraiko natzaizu». ²⁰ Ta Yesu'k dasayo: «Azeriek oatzea ta eguratseko egaztiek kabia ba-dute; Gizasemeak, ordea, ez du non burua ezaí».

²¹ Bere ikasleetako beste batek esan zion: «Yauna, idazu lenik nere aita eorztera yoateko baimena» ²² Bañan Yesu'k esan zion: «Zaíaizkit, eta ilak utz itzazu beren ilak eorzten».

Ekaitza ibituta

²³ Ontziskan saítu zala, bere ikasleak yaírai zitzazkion. ²⁴ Ta ara, ontziska uíñez estaltzeko ainbestean, itxasketa gogoía sortu zan; Bera, beíz, lo. ²⁵ Ikasleek, beraz, Arengana yo ta iratzaí zuten, esanaz: «Yauna, yagon gaitzazu; galduak gera». ²⁶ Ta Yesu'k esan zien: «Zergatik beldur zerate, siñeste urídunok?». Onezkero yaikita, aize-itxasoei agindu egin zien; ta eztialdi edeía etoí zan. ²⁷ Ta guziak aítu ziran, eta zioten: «Zein ote duk au, aize ta itxasoa menderatzen zazkiok-eta?».

Gadara'ko txerendunak

²⁸ Itxasoa igarota, Gadara aldera eldu zanean, txerendun bi, ilobietatik irtenda aurkeztu zitzazkion, inor bide artatik ezin igarotzeko añean zakaíegi. ²⁹ Ta asi ziran deadaíez esaten: «Yesu, Yainkoaren Seme, guri ta Zuri zer? oñaze ekaítzera al zatozkigu beaí baño len?» ³⁰ Or ba, andik ez urun urdalde aundi bat laíean zan. ³¹ Ta txerenek eskatu ta esan zioten: «Emendik iraitzen ba'gaituzu, urdaldera igor gaitzazu». ³² Ta esan zien: «Zoazte». Ayek irtenda urdeetara yoan ziran, ta ara,

urdalde osoa aldapabera itxasora amildu ta uretan ito zan ³³ Urdezayek, beñiz, iges egin zuten, ta irira etoñita dana azaldu zuten, txerendunena ere bai. ³⁴ Ta iri osoa Yesu'gana irten zan; ta ikusi zuteneko, beren mugetatik alde egiteko arenez zeskayoten.

IX

Kaparnaun'go elbaria

Ta ontziskan sañturik, itxasoa igaro ta bere irira etoñi zan.

² Ta ara, elbari bat aurkeztu zioten oean etzana. Ta Yesu'k ayen siñestea ikusirik, elbariari esan zion: «Uste on izan, seme ori, askesten zazkizu ogenak». ³ Onezkero idazlari batzuk beren baitan, zerasayoten: «Birao zegik orek». Ayen asmakeriak Yesu'k ikusirik, esan zien; «Zer dala-ta, biotzetan asmakeriok darabiltzizute? ⁵ Zer da eñazago; «askesten zazkizu ogenak» esatea, ala «yaiki ta zabiltza» esatea? ⁶ Or ba, ogenak luñean askesteko eskubidea Gizasemeak ba-dula dakizuten, elbariari esan zion: «Yaiki, oea arñu ta etxera zoaz». ⁷ Ta gizona yaiki ta bere etxera yoan zan. ⁸ Gizataldeak, au ikusitakoan, belduñ ziran, ta oñenbesteko eskubidea gizonen eman zien Yainkoa goretsi zuten.

Matai'ri egindako deya

⁹ Andik yoanda, Yesu'k Matai zeritzan gizon bat zergategian eserita ikusi zun, ta esan zion: «Zañraizkit».

Ta ura yaiki ta yaíai zitzayon. ¹⁰ Ta arenean Yesu bazkaritan zegola, ara, zergari ta gizatxaí asko aratuta, Yesu'rekin ta Aren ikasleekin zeuntzan. ¹¹ Ori parisaitaírek zekustela, bere ikasleei zerasayoten: «Zergatik zuen irakasleak zergari ta gizatxaíekin yaten du? ¹² Baña Yesu'k entzunda esan zien: «Sendoek ez dute osagilerik beaí; makalek, ordea, bai. ¹³ Zoazte, ba, ta ikasazute zer dan arako ura: **eíukia nai dut, oparirik ez.** Ez naiz, ba, zindoak deitzera etoí, ogendunak baño».

Yon'en ikasleak

¹⁴ Ordun Yon'en ikasleek arganatu ta esan zioten: «Zergatik guk eta parisaitaírek maiz baru egiten dugu, ta zure ikasleek ez dute barurik egiten?» ¹⁵ Yesu'k esan zien: «Ezteikideek, ayekin ezkonbería dagoño, negaí egin ote dezakete? Ezkonbería kenduko dioten garaya ba-datoíke; ta aízkeru, bai, baru egingo dute. ¹⁶ Inork ez dio soñeko zaíari oyal zailezko zatalik erasten: soñekoari puska bat kendu ta zaíata areagotzen zayolako. ¹⁷ Ezta zagi zaíetan ere ez dute ardo beírik ipintzen; bestela, zagiak leítu, ardoa ixuri ta zagiak galdu egiten dira. Ardo beía, ordea, zagi zaíetan ipintzen dute, ta biak yoritzen dira.

Odol-yarioduna ta Yair'en alaba

¹⁸ Oírela ayekin ziardula, ara, aundiki batek arganatu ta aguí egin zion, esanaz: «Yauna, alaba aresti-

¹³ Os. VI, 6.

xean il zait; zatoz, ba; zure eskua ezaŕkiozu, ta piztuko da». ¹⁹ Ta Yesu yaiki ta bere ikasleekin yaŕai zitzayon.

²⁰ Ta ara, amabi urte ayetan odol-yarioz zegon emakume batek, atzetik urbilduz, soñeko mendela ikutu zion, ²¹ bere baitan baitzion: «Aren soñekoa ikutzen ba'dut, besterik gabe, sendatuko naiz. ²² Yesu'k atzeruntz itzuli ta emakumea ikusirik, esan zion: «Uste on izan, alaba; zure siñesteak sendatu zaitu». Ta bertatikantxe emakumea sendatu zan.

²³ Aundikiaren etxera ezkerro, Yesu'k txistulariak eta an bildutakoen iskanbila ikusi zunean, ²⁴ esan zien: «Alde egizute; neska ez dago ilik, lotan baño». Ta puŕust zegioten. ²⁵ Ta angoak alde eragiñak zirala, sartu zan ta eskutik eldu zion. Ta neskatxa yaiki zan. ²⁶ Ta bazteŕalde artan osoan gertatukoaren ospea zabaldu zan.

Itsu biren sendakuntza

²⁷ Andik Yesu irten zanean, itsu bi yaŕai zitzazkion deadaŕez zesayotela: «Eŕuki zakizkigu, Dabid'en Seme ori». ²⁸ Ta etxera orduko, itsuak alderatu zitzazkion. Yesu'k dasaye: «Ori zuei egiteko gai naizala siñesten al duzute?» «Bai, Yauna» dasayote. ²⁹ Ordun begiak ikutu zizkien, esanaz: «Egin bekizue, siñesten duzutenez». Ta ayen begiak argitu ziran. ³⁰ Eta Yesu'k zoŕozki esan zien: Gomazute, ba; iñork ere ez beki». ³¹ Ayek, osterera, irtenda, Aren ospea bazteŕalde artan osoan baŕeyatu zuten.

Mintzula

32 Ayek irten ondoren, ara, gizon mintzul txeréndun bat Berari ekaña. 33 Txerena iraitzia izanda, mintzulak mintzo egin zun, ta gizataldeek ańtuta zioten: «Ez duk egundo Israel'en orelakorik ageri izan». 34 Parisaitarek, ordea, zerasaten: «Txerénburuaketz txerénak iraitzen ditu».

35 Ta Yesu iri ta eńska orotara zebilan, ayen sinagogetan yaureñiaren Beńi Ona zabaltzen, ta gaitz ta eri guziak sendatzen. 36 Ta gizataldeak ikusirik, biotza erdiratu zitzayon, ardiak artzairik gabe bezain akiturik zeuntzalako. 37 Ordun bere ikasleei esan zien: «Uzta yoritsu, da, noski; nekazariak, ordea, gutxi. 38 Otoi egiozute, beraz, uzta-yabeari, nekazariak bere uztara bidaltzeko».

X

Bidaliak arlora

Ta bere amabi ikasleak deiturik, gogo satsuei buruz eskubidea eman zien, ayek iraitzi ta eri ta mińak oro sendatu zitzaten. 2 Amabi bidalien izenak, beńiz, auek dira: auřena, Kepa deritzan Simon, ta Ander, aren anaya; Yakob Zebedai rena, ta Yon, aren anaya; 3 Pilipe, ta Bartolomai; Toma, ta Matai zergaria, Yakob Alpai'rena ta Tadaí; 4 Simon Kananai'koa; ta Yuda Iskariote, Bera saldu zuna.

5 Amabiok Yesu'k bidali zitun, agindu ta esaten

5 Geroago ikasleak luřalde guzietara zabalduko ziran; ordukoz ez.

zielarik: «Atzeñiruntz ez yoan, ta samaritañen iritan ez sartu. ⁶ Zoazte, ordea, Israel'en etxeko ardi galduetara. ⁷ Zoazte, ta aldañi egizute, esanaz; zeru-yaureñia urbil dago. ⁸ Eriak sendatu itzazute; ilak piztu; legenañdunak garbitu; txerñenak iraitzi; ururik artua ururik emazute. ⁹ Ez euki urerik zuen gerikoetan, ez zilañik, ez txanponik; ¹⁰ ez biderako zoñorik, ez bi soñekorik, ez oñetakorik, ez makilik; langileari bere yanaria zoñ zayota. ¹¹ Edozein iri, naiz eñixkan, sartu ezkerro, galde egizute nor an aukerako liteken, ta zaudete arenean irten arteraño. ¹² Etxera orduko, beñiz, angoei agur egizute. ¹³ Ta etxe ura aukerako ba'da, zuen gentza gañera betoñkio; aukerako ez ba'da, beñiz, zerongana zuen gentza itzul bedi. ¹⁴ Eta nonbait añera onik ez gogo oneko entzulerik ez ba'duzute, etxe edo iritik irtetean, zuen oñetatik autsa astindu ezazute. ¹⁵ Ziñez dasaizuet: ebaztegunean yasangañiago izango da Sodoma ta Gomañra'ren zoria, alako iriarena baño.

«¹⁶ Oñ Nik, ardiak otsotartera bezela, bidaltzen zaituzt. Sugeak bezain gurbil izan zaitetze, beraz, ta usoak bezain xalo. ¹⁷ Gizonei buruz zaudete zurt; batzañretan salatu ta beren sinagogetan ebainduko zaituzte-ta. ¹⁸ Ta nagusi ta bakaldunengana Nigatik eramana izango zerate, berei ta atzeñitañei aitoñ egiteko. ¹⁹ Salatuko zaituztenean, beñiz, ez ari asmatzen nola ta zer esan; garai artantxe emango baitzaizue zer esan; ²⁰ ez baitzerate zuek mintzo zeratenak; Aitaren Atsa baño, zero ngan mintzo dana.

«²¹ Anayak anaya eriotzarako salatuko du, ta aitak

semea; ta semeak gurasoen aurka yaikiko dira, ta il ere egingo ditute. ²² Ta nere izenagatik guziek gořoto izango zaituzte. Bañan azkeneraño diraukena, ori yarei izango da.

«²³ Iri ontan esetsiko zaituztenean, beste batera iges egizute. Ziñez dasaizuet: ez duzute Israel'go iri guzie-tako aldia burutuko, Gizasemea datořeneko.

«²⁴ Ez da ikaslea irakaslea baño geyago; ezta mořoya ere nagusia baño. ²⁵ Naiko du ikasleak bere irakaslea bezelakoa izatea, ta mořoyak bere nagusia bezelakoa. Etxeko Yaunari Beelzebul gaitzizena ezaři ba'diote, ĩzenbat areago Aren etxekoei!

«²⁶ Ez izan, ba, ayen beldur; ezer ere estalirik ez baitago, agiriko ez danik; ezta ostenik ere, yakingo ez danik. ²⁷ Iluntan dasaizuedana, argitan esazute; ta aotik belarira dantzuzutena, etxe gañetatik oyuztatu ezazute. ²⁸ Soña iltzen dutela, gogoa ezin il dutenen beldur ez izan; gogoa ta soña su-lezera yaurti ditzakena-ren beldurago izan zaitezte. ²⁹ Ez ote dira txoriak pits batetan bina salgai? Ta ořatiño, ayetako bat ere ez da luřera eroriko, zuen Aitak nai izan ezik. ³⁰ Zuen buruko ile guziak ere zenbatuta daude. ³¹ Ez beldur izan, beraz; txori kopurua baño obeak zerate zuek.

«³² Gizaurėan aitořkuko nauna, Neronek ere nere Aitagoikoaren aurėan aitořtuko dut. ³³ Gizaurėan ukatuko nauna, beriz, Neronek ere nere Aitagoikoaren aurėan ukatuko dut.

«³⁴ Ez uste gentza ekařtzen luřera etoři naizala; gentzarik ez, ezpata bai ekařtzen etoři naiz. ³⁵ Semea

aitarengandik, eta alaba amarengandik, eta éraña amagiarébagandik alde eragitera etoí naiz-ta. ³⁶ Edonoren etsayak, bere etxeakoak. ³⁷ Aita edo ama Ni baño maiteago duna, Neretzako lain ez da. ³⁸ Ta bere gurutza ártuta ez daíaidana, Neretzako lain ez da. ³⁹ Bere burua idoro dunak, galduko du; ta bere burua Nigatik galdu dunak idoroko du.

«⁴⁰ Zuek ártzen zaituzanak, Nerau ártzen nau; ta Ni ártzen naunak bidali nauna ártzen du. ⁴¹ Igarlea igarletzat ártzen dunak, igarle-saria ártuko du; ta zintzoa zintzotzat ártzen dunak, zintzo-saria ártuko du. ⁴² Ta antuxin bat ur otz ere txikitxo orietako bati, ikaslea dalakoxe, damayonak, ziñez dasaizuet, ez du bere saria galduko».

XI

Yon Ukuzlearen geznariak

A ginduok bere ikasleei Yesu'k emanda gero, andik yoan zan ango irietan irakatsi ta Beíri Ona zabal-tzera.

² Yon'ek, beíz, Kisto'ren eginbidea baitegian entzunda, bere ikasleetako bi bidalirik, ³ esan zion: «Zu al zera Etoítzekoa, ala beste norbaiten zai egon beaí

³⁹ Au da. Nigatik **emengo** bizitza galtzen dunak, **angoa** (beste aldikoa) irabaziko du.

³ Yon'ek berak ondo zekin Yesu zala **etortzekoa**, au da, Yainkoak bialdutako Mesia: Yon'en ikasleak, beíz, eztabaidan zebiltzala, Yon'ek Yesu'gana bialtzen ditu, ayek Yesu's'en Mesiatasuna ikusi zezaten. Begira Lk. VII, 18...

dugu?» ⁴ Ta Yesu'k yardetsi ta esan zien; «Zoazte, ta entzun ta ikusi dituzunen be'ri Yon'i emayozute. ⁵ Itsuek ba-dakuste; érenak ba-dabiltza; legena'rdunak garbi egi-ten dira; go'erek ba-dantzute; ilak pizten dira; lande'ei Be'ri Ona azaltzen zaye. ⁶ Ta zori ontsua da galbiderik Nigan ez dukena».

Yon Ukuzlearen goraldia

⁷ Ayek yoan ziranean, be'riz, Yesu gizataldeari Yon' tzaz mintzatzen asi zitzayon: «Zer ikustea'ren basora irten zerate? ¿Aizeak erauntsitako seskaren bat ote? ⁸ Zer ikustea'ren irten zerate, ba? Guriki yantzitako norbait ote? Guriki yazten diranak yauregietan oi daude, o'ra'tiño. ⁹ Zer ikustea'ren irten zerate, beraz? Iga'rleren bat ote? Orixe bai, Neuk esanda; baita igar'le ba'ño areago ere. ¹⁰ Aunetzaz idatzita baitago:

**O'ra nere aingerua Nik bidaltzen ditut:
bidea au'etik gertu dezaizun.**

¹¹ Ziñez dasaizuet: emakumegandik yayotartean ez da Yon Ukuzlea ba'ño aundiagorik yaiki; zeru-yaure'ian txikiena, be'riz, ura ba'ño aundiagoa da. ¹² Yon'en egun-etatik onakoan, be'riz, zeru-yaure'ia olda'rtuta dabil, ta artzaz olda'rtsuak yabetzen dira. ¹³ Yon'engana'ño izanak baitira Legearen ta igar'le guzien igar'ketak. ¹⁴ Ta ona'rtu

10 Mal. III, 1.

11 Yesu gure Yaunak ez digu emen agertzen zein dan bere Aitaren au'rean aundiena; bai ordea, ez dagola Itun Za'rean Yon'en arazoa bezelakorik: ba'ña Itun Be'riko arazorik txikienak Yon'ena ba'ño aundiagoak dirala. Bestela ez luke esango Testamentu Be'riko edozeiñ, naiz txikiena, Yon ba'ño aundiagoa dala.

nai ba'duzute, beraxe da etoítzekoa dan Eli. ¹⁵ Entzuteko belaíidunak bentzu.

Siñetsi beáean sakeé

¹⁶ Gizaldi au, beíz, zeñekin berdinduko dut? Zeyean eserita dauden mutikoak bezelako da, gaíaxika lagun-txoei ¹⁷ dasayetenean: guk zuei txilibitua yo, ta zuek dantzarik ez; guk zuei eresi egin, ta zuek negaíik ez. ¹⁸ Alabaña, yan-edan gabe Yon etoíi da, ta diote: txerén dik. ¹⁹ Yan-edaten etoíi da Gizasemea, ta diote: Ori duk yatun ta ardozalea, zergari ta gizatxaéren adiskidea. Ta sena bere egitez aintzat ezaguna da».

²⁰ Ordun, bere alatzik geyenen ikusle izandako iriei akaí egiten asi zan, garbai izan ez ziralako. ²¹ ¡Zure zori txaía, Korazin! ¡Zure zori txaía, Betsaida! Zuenean egindako alatzak Tir'en eta Sidon'en egiñak ba'lira, zurdatz ta éautsez aspalditik garbai izango ziran-eta. ²² Esaten ere dizuet: ebaztegunekoa, zuei baño ariñagoa Tir'i ta Sidon'i izango zaye. ²³ Ta zu, Kaparnaun, ortziraño yaikimiñez al zabiltza? Luíperaño eraitxia izango zera. Zurean egindako alatzak Sodoma'n egiñak ba'lira, gauí-daño agian lirauke-ta. ²⁴ Areago dasaizuet: ebaztegunekoa zuei baño ariñagoa Sodoma aldekoiei izango zaye.

Kisto'ren uztafia

²⁵ Garai artan Yesu'k ekinda esan zun: «Goresten zaitut, Aita, zeru-luén Yauna, yakitun ta zuíei guziok ostendu ta aurtxoei erakutsi dizkiezulako. ²⁶ Bai, Aita, oírela atsegin izan zaizu-ta. ²⁷ Dan dana nere Aitak

eman dit. Ta ez dago Semea dazagunik, Aita baizik; ezta Aita dazagunik ere, Semea Bera ta Semeak ezagunerazi nai liokena baizik.

²⁸ Zatozte Nigana neke ta lořetan zaudeten guziok; ta Neuk pizkořtuko zaituzt. ²⁹ Nere uztařia leporatu ta Nigandik ikasi egizute; biozbera ta apal naizan ezkerok; ta biotz-gentza didorokezute; ³⁰ nere uztařia leguna, ta nere zama ariņa da-ta».

XII

Larunbatz

Aldi artan Yesu alořetan zeař ziyoan larunbatez; ta Aren ikasleak, gose izanik, galburuak itzindu ta yaten asi ziran. ² Parisaitařek ori ikusita esan zioten: «Ara, larunbatez zilegi ez dana zure ikasleak egiten ari dira». ³ Baņan Ark esan zien: «Ez al duzute irakuři zer egin zun Dabid'ek, bera ta berekin zeudenak gose ziranean? ⁴ Nola yauretxean sařtu ta, apaizek baizik, ez berak ez berekin zeudenek ezin yan zitzaketen eskein-ogiak yan zitun? ⁵ Ez al duzute Legean irakuři apaizek larunbatez yauretxean larunbata austen dutela, ogenik egiteke? ⁶ Orř, ba, Nik dasaizuet: emen ba-dago yaur-etxea baņo gurenago dana. ⁷ Ta **eřukia nai dut, oparirik ez** zer dan ba'zenekite, ez zenukete bein ere ogengabekorik gaiztetsiko. ⁸ Larunbataren yabe Giza-semea da-ta.

⁴ **Eskein-ogiak** yopu-oparitzat, Israel'go amabi leņuek Yainkoari asteoro eskeintzen zizkioten amabi ogiak ziran.

⁷ Os. VI, 6.

⁹ Andik yoanda ayen sinagogara etoñi zan. ¹⁰ Ta ara, bertan gizon bat esku-igari. Ta Bera salatzeko galde egin zioten, esanaz: «Zilegi al da inor larunbatean sendatzea?» ¹¹ Berak, beriz, esan zien: «Nor da zue-nean, ardi bat zuloan erori zayola, atzi ta yaso ez du-kenik? ¹² Ardia baño gizona zenbat obe gero. Zilegi da, beraz, larunbatetan on egitea». ¹³ Ordun gizonari diotsa: «Esku ori zabal egizu». Ta zabaldu zun; ta bestea bezain sendorik gelditu zitzayon. ¹⁴ Parisaitarak, beriz, alde egin-da, Aren aurka bildu ziran, Bera nola galdu asmatzen.

¹⁵ Bañan Yesuk' ori yakinda, andik alde egin zun; ta lagun asko yari zitzazkion, ta guziak sendatu zitun. ¹⁶ Ta Bera ager ez zezatela agindu zien, ¹⁷ Isai igar-learen esan au bete zedin:

¹⁸ Ara aukeratu dudan nere moioya,
nere biotzak atse atsegin dun kutuna.
Nere atsa Aren gain kokaraziko dut,
eta zuzenbidea eriei azalduko die.

¹⁹ Ez du akarik, ez oyurik aterako;
Ta inork ere ez du Aren mintzoa zeyetan
[entzungo.

²⁰ Seska irikitua ez du puskatuko,
ta ketan dagon zunda ez du itzungiko,
zuzenbidea garai yari arte.

²¹ Ta aren izena eriek izango dute
[itxarobide».

Txeëndun itsu ta mintzula

²² Ordun txeëndun itsu ta mintzul bat ekaí zioten, ta sendatu zun, iztun ta ikustun utzirik. ²³ Ta gizatalde guziek aítuta zerasaten: «Ez ote duk au Dabid'en Semea?» ²⁴ Parisaitaiek, beíz, zerasaten: «Beelzebul txeëndurua lagun ezik, ez ditu onek txeéndak iraitzen». ²⁵ Bañan Yesu'k ayen asmakeriak igaírik, esan zien: «Bere aurka bujukan ari dan eíak lu' yoko du; ta bere aurka bujukan ari dan iri edo etxeak ez du iraugo. ²⁶ Ta Satan'ek Satan iraitzen ba'du, bere aurka bujukan ari da. Nola iraugo du, beraz, aren yaureíak? ²⁷ Ta Beelzebul lagun, txeéndak Nik iraitzen ba'ditut, zuen semeek, nor lagun, iraitzen ditute? Argatik berak izango dituzute ebazle. ²⁸ Yainkoaren Atsez txeéndak Nik iraitzen ba'ditut, beíz, oía Yainkoaren yauraldia etoí zaizue. ²⁹ Nola, ezperen, indaítsuaren etxean iñork ere saítu ta ango atuxak bipildu litzake, indaítsua aúrenik lotu izan ezik? Orezkero, bai, etxea beretzat ustu lezayoke.

³⁰ Ene alde ez dagona, ene aurka dago; ta Nerekin biltzen ez duna, baíeyatzen ari da.

Goteunaren aurkako ogena

³¹ Argatik dasaizuet: ogen ta biraoak oro gizonei asketsiko zazkie; Gogoaren aurkako biraoa, beíz, ez

^{26.} Satanek Satan..., au da, Satanek bere menpeko txeéndak iraitzen ba'ditu...

^{31-32.} Gogoaren aurkako biraoa zer da? Goteunaren egiterik argienak deabru edo txeéndari ezartzea, Parisaitaiek egin zuten antzera. Oin ba, gure alde Yainkoa oren aíguro ta indartsuki ari danean bertan,

zaye asketsiko. ³² Ta Gizasemearen aurka inork itz egin ba'lu, asketsiko litzayoke; baña Goteunaren aurka itz dagikenari ez zayo mende ontan, ezta gerokoan ere asketsiko.

³³ Edo zugatz ta arnaria, biak era bat, onartu; edo zugatz ta arnaria, biak era bat, gaiztetsi itzazute; zugatza zein dan arnaritik ageri da-ta. ³⁴ Ziraunkumeok, gaiztoak izan ezkerok, nola itz onik egin zenezakete? Biotz betea aoak ustuk. ³⁵ Gizon onak altxor onetik onaurkiak ateratzen ditu; ta gizon gaiztoak altxor gaiztotik gaiztakeriak ateratzen ditu. ³⁶ Esan ere dasaizuet; norberak alpeirik esandako itz bakoitzaz ebaztegunean erantzun bearko du. ³⁷ Zure itzengatik onetsi, ta zure itzengatik gaiztetsia izango zera-ta».

Ezagupide ziña ta parisaitarak

³⁸ Ordun idazlari ta parisaitar batzuk yardetsi ta esan zioten: «Irakasle, ezagupideren bat ikusi nai dugu, Zuk eginda». ³⁹ Ark erantzuki esan zien: «Gizaldi gaizto ta dolor au ezagupide bila dabil; ez zayo, ordea, ezagupiderik emango, Yona igarlearen ezagupidea baizik. ⁴⁰ Izan ere, Yona arayaren sabelean iru egun ta iru gau egon zan bezela, Gizasemea ere iru egun ta iru gau lur biotzean egongo da. ⁴¹ Ninibe'tarak gizaldi onen aurka auzian yaikiko dira ta gaiztetsiko dute; Yona'ren

bere aitoria onartu bearez, txerentzat zapuztea, gure osasunerako bidea Goteunari eragozte da. Oregatik dio Yesuk, **Gogoaren aurkako** biraoa ez zayela asketsiko, alako gizon ustelak sendakintza ta osakaia galbide ta ondapen biurtzen dutelako. Au egiten dun gaixoa esan diteke eskuarki eziñ ditekela sendatu, Yaunarentzako eziñik ezpadago ere.

40 Yona, II, 1.

41 Yona, III, 5.

42 Bak. 3, X, 1.

aldañiz ayek garbai izan baitziran, ta ona emen Yona baño geyago dana. ⁴² Egoako Andrea gizaldi onen aurka auzian yaikiko da ta gaiztetsiko du; Salomon'en yakin-tza entzutearen, luéko azken bazteretik etoñi baitzan; ta ona emen Salomon baño geyago dana.

⁴³ Gogo satsua, beñiz, inoren-gandik irtendakoan, etzetan baña ibili dabil atsedean bila, ta ez du iristen. ⁴⁴ Ordun dio: «Ützi nikan nere etxera itzuliko nauk. Eta itzuli orduko, utsik, ekoñtu ta txukunduta dakus. ⁴⁵ Ordun ba-doa, ta beste zazpi gogo bera baño gaizto-ago berekin arñzen ditu, ta etxean sarturik, bertan geldit-zen dira; ta arako gizonaren azken aldia, lengoa baño latzagoa gertatzen da. Oñela gertako zayo gizaldi zantañ oni ere».

Yesu'ren etxarikoak

⁴⁶ Gizataldearekin Yesu'k oraindik ziardula, ara Aren Ama ta senideak lekorean zeuden Arekin itz egiteko zai. ⁴⁷ Norbaitek ere esan zion: «Ara lekorean zure Ama-senideak zure zai». ⁴⁸ Baña Berak, zerauskionari eran-tzunik, esan zion: «Nor dut Nik Ama ta nor ditut seni-deak?» ⁴⁹ Ta eskua ikasleetaruntz edaturik, esan zun: «Oñra nere Ama ta nere senideak. Alabaña, nere Aita-goikoaren gogoa betetzen duna, orixe dut anai ta aréba ta ama».

⁴⁶ **Senideak.** Seme-alabak ez ezik, aide urénak ere, lengusuak eta osaba-izebaen ilobak, eberkeraz, eladeraz, eta latíñez elkarén **senide** maiz deritzate. Gurean ere, bizkaitaréntzat, **senide** ta **aide** izenak orobatsu dira. Oñelako senidetza da emen eta Ebaingeri ta Bidalien Egiñetako une batzuetan Yesu'ren aideei Ari buruz ezartzen zayena. (Begira Gen. XII, 16; XXIX, 12)

XIII

Alegiak: ereilea

Egun artan etxetik Yesu irtenda, itxasertzean eserita zegon. ² Baña gizataldeak éruz biltzen zitzazkiola-ta, txalupan saíturik, eseri egin zan; ta gizatalde dana ur-egian zegon. ³ Ta irakaskizun asko alegitan egin zizkien, esanaz: «Ara, ereile bat ereitera irten zan; ⁴ Ta ereitean, azi batzu bide ondoan yalki ziran; ta egaztiek etoñi ta yan egin zituten. ⁵ Beste batzu, luí askorik ez zuten aítartean yalki ta berealaxe erne ziran, luíak mamirik ez zulako. ⁶ Bañan eguzkia soítuta kizkali ziran, ta érorik ez baitzuten, igaítu egin ziran. ⁷ Beste-tzu, beñiz, arantzartean yalki ziran; ta arantzek, aunditu ziranean, ito egin zituten. ⁸ Besteak, ostera, luí gizenean yalki ziran; ta ale zekaíten, batzuk eunbana, beste batzuk irurogeina, bestetzuk ogei ta amaína. ⁹ Entzuteko belaíidunak bentzu».

¹⁰ Ta ikasleek urbildurik esan zien: «Zergatik alegitan darauskiezu?»

¹¹ Yesu'k erantzuki esan zien: «Zeru-yaureñiaren mami ostena ezagutea zuentzakoxe dagolako; ayentzako, beñiz, ez dago; ¹² daukanari emango baitzayo, ta gartzazal egingo da; ez daukanari, beñiz, daukana ere kendumo zayo. ¹³ Argatik alegitan darauskiet; dakustelarik, ikus ez dezaten, ta dantzutelarik, entzun ta uleí ez dezaten. ¹⁴ Ta ayengan betetzen da Isai'k iragaítakoa, zionean:

14,15 Is. VI, 9,10.

belariz entzunda ez duzute ulertuko,
ta begiz begirata ez duzute ikusiko.

¹⁵ Loditurik baitago eñi onen biotza;
belari goiak ta begi itxiak dauzka,
belariz entzuteke,
ta begiz ikusteke,
ta biotzez ulertzeke,
itzul ez dedin ta sendatu ez dezadan.

¹⁶ Zori ontsuak, ordea, zuen begiok, dakustelako;
ta zuen belariok, dantzutelako. ¹⁷ Ziñez dasaizuet: zuek
dakusazutena igarle ta zintzo askok ikusi naita, ez
zuten ikusi; zuek dantzuzutena entzun naita ez entzun.
¹⁸ Zuek beraz, ereilearen alegia entzuzute. ¹⁹ Yaur-
eñiaren beñi entzunda, ulertzen ez dunari, gaiztoak etoñi
ta aren biotzean ereindakoa kentzen dio; orixe da bide
ondoan ereindakoa. ²⁰ Aritar-tean ereindakoa, beñiz, da,
itza entzun-ala, beregan pozik artzen duna; ²¹ bañan
eñorik ez du, ta iraizekoa da. Beraz, itzarengatik lañi ta
yazañaldia soñtzean, laster aurikatzen da. ²² Arantzañ-
tean ereindakoa, beñiz, itza dantzuna da; baña gizarteko
auziabañek ta aberastasunaren lilurak itza itotzen diote,
ta arnaririk gabe gelditzen da. ²³ Luñ gizenean ereinda-
koa, ordea, da, itza entzunda ulertzen duna ta arnari
dakañena, naiz eunbana, naiz irurogeina, naiz ogei ta
amaña.

Iraka

²⁴ Beste alegi bat erakutsi zien, esanaz: «Zeru-yaur-
eña, azi ona bere aloñean erein zun gizonaren antzekoa

da. ²⁵ Moíoyak lo zeudela, aren etsaya etoíi ta gari-
 tarteán iraka gañetik ereinda yoan zan. ²⁶ Garibelaña
 azi ta burutu orduko, beíiz, iraka ere ageri izan zan.
²⁷ Ordun etxeko yaunaren moíoyek arganatu ta esan
 zioten: «Ez al zenun azi ona zure aloíean erein? iraka
 nondik du, ba? ²⁸ Ta esan zien: «Etsayak egin du ori». Moíoyek
 dasayote: «Iraka biltzera gu yoatea nai al
 duzu?» ²⁹ Esan zien: «Ez; iraka biltzean, garia ere
 arekin agian idoki ez dezazuten. ³⁰ Utzi biak itaiteraño
 aunditzen; ta itaiterakoan itailariei esango diet: «Iraka
 auíenik bildu ta sutarako espalka lotu ezazute; garia,
 beíiz, nere mandioan abazkatu».

Yeben-azia ta orantza

³¹ Beste alegi bat ekaíi zien, esanaz: «Zeru-yaureía
 norbaitek eskuan artu ta bere aloíean ereindako yeben-
 -azia bezela da. ³² Azirik txeeña da ori; garatu ezkerro,
 beíiz, eltzekaririk aundiena da, ta zugatz egiten da, ta
 eguratseko egaztiak aren adaíetan abi egitera datoz».

³³ Beste alegi bat ekaíi zien, esanaz: «Zeru-yaureía,
 emakume batek artu ta, ore osoa murtzitu arte, iru
 lakari irintan izkututako orantza bezela da».

Iraka-alegiaren mamia

³⁴ Guziok alegitan lagunabaíei Yesu'k esan zizkien;
 ta alegitan baizik ez zitzayen mintzatzen; ³⁵ igaríleak
 esana bete zedin:

³⁵ Er. LXXVII, 2.

«Alegitan iriko dut nere aoa;
luía luí danetik ostenik egonak azalduko ditut».

³⁶ Ordun gizataldea igoírita, etxera yoan zan. Ta ikasleak alderatu zitzazkion, esanaz: «Aloíreko iraka-alegia azaldu iguzu». ³⁷ Ark erantzuki esan zien: «Azi ona ereiten ari dana, Gizasemea da; ³⁸ aloía, luí-bira. Azi ona, yaureíko semeak dira; ta iraka, gaiztoaren semeak. ³⁹ Iraka erein zun etsaya, txerén da. Itaitea, beíz, aldi-amaya; ta itailariak, aingeruak. ⁴⁰ Beraz, iraka bildu ta éretzen dan bezela, aldi-amayan ere oírela gertako da. ⁴¹ Gizasemeak bere aingeruak bidaliko ditu; ta Aren yaureítik gaizpide ta gaiztagin guziak abazkatu, ⁴² ta su-labera iraitziko ditute. ¡Ango negar ta ortz-kaíaska! ⁴³ Ordun zintzoek beren Aitaren yaureían, eguzkiak bezela, argi egingo dute. Entzuteko belarí-dunak bentzu.

Altxoí ostena, txirlaía ta sarea

⁴⁴ Zeru-yaureía, landan izkututako altxoía bezela da. Norbaitek upatu ta ostendu zun; ta artzaz poz poz-turik, ba-doa, ta ditunak oro saltzen ditu, ta erosten du landa ura.

⁴⁵ Beíz ere zeru-yaureía, txirlaí edeí bila dabilan garazlaria bezela da. ⁴⁶ Txirlaí bitxi bat upatuta, yoan zan, ta zitunak oro saldu zitun, ta txirlaía erosi zun.

⁴⁷ Baita beíz ere, zeru-yaureía, itxasora botata edo-tariko aíayak biltzen ditun txinga bezela da. ⁴⁸ Beterik dagonean, ateratzen dute, ta ur-egian eseririk, onak saskitarako berezi ta txarák alde iraitzen ditute. ⁴⁹ Oíre-

laxe gertatuko da aldi-amayan; aingeruek irtenda, gaiztoak zintzotartetik berezi, ⁵⁰ ta su-labera iraitziko ditute. ¡Ango negar ta ortz-kařaska! ⁵¹ Guzi auek uleřtu al dituzute?» «Bai, Yauna» dasayote. ⁵² «Ořela, ba», dasaye, «zeru-yaureřiaz yakitun dagon idazlari oro, zařberı bere altxořetik ateratzen dun etxeko yaunaren antzekoa da».

Yesu bere eřian

⁵³ Alegiok bukatuta, Yesu andik yoan zan. ⁵⁴ Ta bere eřira etořirik, angoei beren sinagogetan irakasten ari zan, ta guziek ařiturik zerasaten: «Nondik oni onenbesteko sena ta indařak?» ⁵⁵ Arotzaren semea ez ote duk au? Mari ez ote zeritzak onen ama, ta onen anayak Yakob Yose, Simon ta Yuda? ⁵⁶ Ta onen ařeba guziak ez ote zeudek gure, artean? Nondik, ba, guziok oni? ⁵⁷ Ta guziak zebiltzan Beragatik eře. Yesuk, beřiz, esan zien: «Ospegabe igařlerik ez dago, bere eřian ta bere etxean baizik». ⁵⁸ Eta ayen siņesgabea zala-ta, ez zitun alatzak eřuz an egin.

XIV

Yon Ukuzlearen eriotza

Aldi artan Yesu'ren ospea Erode laurdenburuak entzun zun. ² Ta bere mořoyei esan zien: «Yon Ukuzlea da ori; il artetik piztu da, ta argatik onenbeste alatz egiten ari da».

¹ Au zan Erode Antipas, Galilai ta Perai'ren buru, Erode Aundiaren seme. Geroago, Yesu'ren nekaldian, beřiro agertuko zaigu.

⁵⁵ Beg. XII, 46.

³ Erode'k, ba, bere anayaren emazte Erodia'gatik, Yon atzi, lotu ta mo'oilopean ipiñi izan zun: ⁴ Yon'ek ziotsalako: «Ez zaizu zilegi emakume ori eukitzea». ⁵ Ta ura il nairik, e'riaren beldu' zan, igar'letzat zutelako. ⁶ Bañan Erode'ren urtebe'rian Erodia'ren alaba, guzien erdian dantzan eginda, Erode'ri atsegin izan zitzayon, ⁷ ta onek zin egin zion eskatu aña emango ziola. ⁸ Neskatzak, be'riz, amak len aolkatuta, diotsa: «Yon Ukuzlearen burua azpil gañean oraintxe idazu». ⁹ Bakalduna goibeldu zan; bañan egindako ziñengatik eta maikideengatik, emateko agindu zun; ¹⁰ ta norbait bidalirik, lepoa Yon'i moztu zion. ¹¹ Ta aren burua azpil gañean eka'rita neskatxari eman zioten, ta onek amari eraman zion.

¹² Ta aren ikasleek aratuta, beraren soña eraman ta eortzi zuten, ta Yesu'gana yoan ziran be'ria zeka'kiotela.

Ogi ugarituak

¹³ Au entzunda, Yesu txalupaz andik basora irten zan, bazte'rturik egoteko; ta gizataldeek entzun zuteneko, irietatik oñez ze'raizkion. ¹⁴ Lego'ra orduko, gizatalde aundia ikusirik, e'ruki izan zitzayen, ta ayetako eriak sendatu zitun.

¹⁵ A'ratsalde ezkerro, be'riz, ikasleek arganatu ta esan zioten: «Bazte' au soil ta eguna apalean dugu; gizataldea igo'razu, e'riskaetara yoanik, yanaria eros dezaten». ¹⁶ Baña Yesu'k esan zien: «Ez dute yoan bea'rik; zerok yaten emayezute». ¹⁷ Erantzun zioten: «Ez dugu emen bost ogi ta bi a'rai besterik». ¹⁸ Ark esan zien:

«Ekazkidazute onara». ¹⁹ Ta gizataldeari belar gañean etzateko agindutakoan, bost ogiak eta bi arayak artu ta ortzira begiraturik, ogiak onetsi ta autsi zitun, ta ikasleei eman zizkien, tai ikasleek, beriz, gizabare. ²⁰ Ta guziek yan zuten, ta ase ziran. Ta ondarak yaso zituten, amabi otae puruzkiñez beterik. ²¹ Yaleak, beriz, bost mila gizon izan ziran, emakume ta aurak alde.

Ekaitza ibituta

²² Ta bereala bere ikasleei agindu zien ontziskan sartu ta beste ertzera aurea ar zezayotela, Berak gizataldea zegoen bitartean. ²³ Ta gizataldea igoritakoan, Bera mendira igo zan, berezian otoi egitera. Ta ilundu ezkerro, bakaik zegon an.

²⁴ Ontziska, beriz, uinek itxaserdian danbaka zera-bilten: aitzikoa zan aizea-ta. ²⁵ Baña laugarren gau-aldian ayetara yoan zan itxasgañetik ibilki. ²⁶ Ta ikasleek, Yesu itxasgañetik ibiltzen ikusirik, larituta zioten: «Iratxoduk». Ta belduaren belduñez deadaika asi ziran. ²⁷ Yesu'k, beriz, berealaxe itz egin ta esan zien: «Uste on izan; Ni nauzute; ez izutu». ²⁸ Ordun Kepa'k erantzuki esan zion: «Yauna, Zu ba'zera, Zugana urgañez yoateko agindu egidazu». ²⁹ Yesu'k esan zion: «Zatoz». Ta Kepa ontziskatik yetxita urgañez ziyoan Yesu'gana etortzeko. ³⁰ Bañan aize zakaia ikusirik, belduitu zan, ta murgiltzen asi zala, ots egin zion: «Yauna, yarei

²⁵ Laugarren gau-aldian – Gauda antziñekoek iruna orduko lau zatitan berezi oi zuten.

nagizu». 31 Ta berealaxe Yesu'k, eskua edatuz, eldu ta esan zion: «Zergatik zalantzan asi zera, siñeste uridun ori?» 32 Ta ontziskara biak igo zirala, aizea gelditu egin zan. 33 Ontziskan zeudenek, beñiz, arganaturik, yauretsi zuten, esanaz: «Yainkoaren Seme zera noski».

34 Ta itxasadaía igarota, Genesaret aldera etoñi ziran.

Genesaret'eko sendakuntzak

35 Angoek Bera ezagun zuteneko, beñia bazteñalde guzi ayetara zabaldu zuten, ta gaizki zeuden guziak aurkeztu zizkioten, 36 ta Aren soñeko mendela beintzat ikutzeko añen zegioten. Ta ikutu zioten guziak sendatu ziran.

XV

Parisaitaären azalkeria

Ordun Yerusalen'dik idazlari ta parisaitaíak alderatu zitzazkion, esanaz: 2 «Zergatik zure ikasleek asabaen ekanduak austen ditute? Ogi yaterakoan ez ditute eskuak ikuzten-eta». 3 Baña Yesu'k yardetsi ta esan zien: «Zuek, beñiz, zergatik Yainkoaren agindua zuen ekanduagatik austen duzute? 4 Yainkoak aginduetan esandu, ba; aita ta amari lotsa erakuskiezu; ta aitari, naiz amari birao legiokenak, bizia gal beza. 5 Zuek, ordea, diozute: aitari, naiz amari iñork ba'diotsa, nigandik itxaro zenitzaken onaurkiak ba-dira [Yainkoari] emanak,

4 Irt. XX, 12; Deut. V, 16; Irt. XXI, 17; Leb. XX, 9; Itz. XX, 20.

⁶ ez dio bere aitari, naiz amari beste laguntzarik zor. Ta orela, zuen ekanduengatik, Yainkoaren agindua ustu egin duzute. ⁷ Azalutsok, zuentzaz ederki iragarí du Isai'k esanaz:

⁸ Eri onek ezpañez, bai, lotsa darakuskit; biotza, beriz, Nigandik urun dauka.

⁹ Alpeirik ospatzen naute, ordea; giza-aburu ta aginduak irakasten ari diran ezkerro».

¹⁰ Ta gizataldea Beragana deiturik, esan zien: «Entzun ta adizute: ¹¹ ez du aotik sartzen danak inor kutsatzen; aotik sortzen danak, beriz, orek, bai, gizona kutsatzen du».

¹² Ordun bere ikasleek arganatu ta esan zioten: «Ba al dakizu parisaitarak, ele au entzunda, sumindu egin dirala? ¹³ Bañan Ark yardetsi ta esan zien: «Nere Aita-goikoak landatu ez dun landarea, eroak gora irauliko da. ¹⁴ Utzi itzazute; itsu dira ta itsumutil; ta itsuari itsua mutil ba'zayo, biak zulora bear».

¹⁵ Ordun Kepa'k itz egin ta esan zion: «Azaldu iguzu alegi au». ¹⁶ Ta Yesu'k esan zun: «Zuek ere oraindik adingabe al zaudete? ¹⁷ Ez al duzute ulertzen aotik sartzen dana, sabelera yetxi ta sastegira egozten dala? ¹⁸ Aotik irteten diranak, beriz, biotzetik sortzen dira; ta

⁶ Yuduek beren onetatik Yainkoarentzat zerbait berezi nai zutenean, «au korban bego» esaten zuten; ta azezkeroxe orela Yainkoari eskeñia eziñ zezaketen gurasoek, esta artzckodunek ere berentzak eskatu, Yainkoarena zalakoan. Or ba, seme batzuk, beren gurasoei eman bear zieten soroskia korbantzat Yainkoari eskeintzen zioten, gurasoei lagun ez etortzeko. Gaiztakeri au Yesu'k emen gaitzesten du.

8,9 Is. XXIX, 13.

auetxek, bai, gizona kutsatzen dute. ¹⁹ Biotzetik soítzen baitira irain ta asmo txarák, gizerailketak, ezkontzako azpikeriak, izoérkeriak, lapuérkeriak, gezuér-aitoérak eta biraoak. ²⁰ Auetxek dira gizona kutsatzen dutenak. Esku ikuzteke yateak, ordea, ez du inór kutsatzen».

Kanaan'dara

²¹ Andik irtenda, Tir ta Sidon aldeetara Yesu bazteértu zan. ²² Ta ara, kanaandar emakume batek alde aye-tatik etoér ta ots egin zion, esanaz: «Yauna, Dabid'en Seme ori, éruki zakizkit; nere alaba txerének oñazez darabil». ²³ Baña Yesu'k ez zion itzik ere erantzun. Ta bere ikasleek úrbilduta zeskayoten: «Igoéazu emakume ori; oyuka atzetik datoérkigu-ta. ²⁴ Bañan Ark erantzuki esan zun: «Israel etxeko ardi galduetara baizik, ez naiz bidalia». ²⁵ Bañan emakumeak úrbilduta agur egin zion, esanaz: «Yauna, lagun zatozkit». ²⁶ Yesu'k erantzuki esan zun: «Ez dago ondo semeen ogia artu ta txakurtxoei egozte». ²⁷ Bañan emakumeak esan zion: «Bai zera, Yauna; tofoek ere beren yabeen maitik yalkitako apurák yaten ditute-ta. ²⁸ Ordun Yesu'k erantzuki esan zion: «Emakume, aundia da zure siñestea; nai duzunez gerta bekizu». Ta bertatik alaba sendatu zitzayon.

²⁹ Ta Yesu, andik yoanda, Galilai'ko izpazteérea etoér ta mendira igorik, an eseri zan.

²⁶ Yudentzako (gaur ere bai, musulmanentzako) érbesteko guziak zakurák zeritzaten, beren buruak éri autua ta Yaunaren etxeko semeak ziralako. Emen Yesu'k izenaren laztasuna leundurik, txakurtxoak deitzen ditu, ez gero zakurák. Ta zein edér ta samurki erantzuten dion zorioneko sidondar (edo siri-poiniketar) emakume onek!

Ogiak beñiro ugarituta

30 Eta gizatalde aundiak arganatu ziran, éren, ebain, itsu, mintzul ta besterik asko berekin zekaztela. Ta oñetara ezañi zizkioten; ta sendatu egin zitun. 31 Giza-bańak, beñiz, ańiturik zeuden, mintzulak mintzatzen, ebainak pizkoń, érenak ibiltzen, ta itsuak ikusten ikusirik; ta Israel'en Yainkoa goresten zuten.

32 Yesu'k, beñiz, bere ikasleak deitu ta esan zien: «Gizatalde oni éruki natzayo; iru egun auetan Nerekin baitaude, ta zer yan ez dute; ta ez ditut barurik igoñi nai, bidean akitu ez ditezan». 33 Ta ikasleek diotsate: «Baña baso ontan nondik guri oñenbesteko gizataldea asetzeko aña ogi? 34 Ta Yesu'k esan zien: «Zenbat ogi dituzute?» Ayek esan zioten: «Zazpi; ta ańaitxo banaka batzu». 35 Ta gizataldeari luńgañean etzateko agindu zion. 36 Ta zazpi ogiak eta ańayak ańtu ta eskeń egińik, zatitu zitun, ta bere ikasleei eman zizkien, ta ikasleek eñiari banatu zizkioten. 37 Ta guziak yanda ase ziran ta zazpi otańe yaso zituten ondakiñez beterik. 38 Yan zutenak, gero, ańtxo ta emakumeak alde, lau mila gizon ziran. 39 Ta gizataldea igoñirik, ontziskara igo ta Madala aldera etoñi zan.

XVI

Parisai ta sadukaitańak atańatuta

Parisai ta sakudaitańek zirika arganatu ta eskatu zioten ortziko zantzuren bat, ańen, berei erakusteko. 2 Bańan Ark erantzunik esan zien: «Ańatsa etoñi-

ta, diozute: añasgoñi, biar ozkarbi 3 Goizean, beñiz: gauñ ekaitz, ozkoñi goibel da-ta. Beraz, ortzi-aúrpegiari antzematen ba-dakizute; ta aldi-agerpideak ezin igarñi ote ditzakezute? 4 Gizaldi gaizto ta zantañ au zantzu eske dabil, ta ez zayo zantzurik emango, Yona igarñlearena baizik.» Eta ayek utzita, yoan egin zan.»

5 Itxasadaña igarotzean, ogi ekañtzeaz ez ziran Aren ikasleak oroitu. 6 Ta Yesu'k esan zien: «Begira ta zurt egon parisai ta sadukaitaären orantzari buruz». 7 Ayek elkañ ziar dukiten, esanaz: «Ez dikagu ogirik añtu ta...»

8 Yesu'k igarñi ta esan zien: «Zer ari duzute elkañekin, siñeste uridunok, ogirik ez duzutela-ta? 9 Oraindik ez al duzute ulerñtzen ta ez al zerate oroitzen bost mila gizonentzako bost ogietaz, ta zenbat otañe bildu zenitutenik? 10 ezta lau mila gizonentzako zazpi ogietaz, ta zenbat otañe bildu zenitutenik? 11 Nola ez duzute igarñtzen ogiaz ez niardula, «zurt egon parisai ta sadukaitaären orantzarekiko» esan nizuenean?»

12 Ordun oañtu ziran ez ziela ogi-orantzatik alde egiteko esan, parisai ta sadukaitaären ikasbidetik baño.

Kepa, Elizaren oñañi

13 Pilipe-Kaisarai aldetara Yesu'k etoñita, bere ikasleei galde zegien: «Gizasemea nor dala diote gizonek?»

14 Ayek erantzun zioten: «Batzuk, Yon Ukuzlea; beste batzuk, Eli; bestetzuk, Yeremi edo igarñleetako bat.»

15 Yesu'k dasaye: «Zuek, beñiz, nor naizala diozute?»

16 Kepa Simon'ek erantzuki esan zion: «Zu zera Kistoa, Yainko biziären Semea». 17 Ta Yesu'k erantzuki esan

zion: «Zori ontsua zera, Simon Bar Yona ori; ez baitizu aragik ez odolek ori ageri egin, nere Aitagoikoak baizik. ¹⁸ Nik beñiz dasaizut: Aitz zera zu, ta aitz onen gañean nere Eliza eraikiko dut; eta lezeko ateak ez dira aren aurka garai izango. ¹⁹ Ta zeru-yaureñiko giltzak zuri emango dizkizut; ta zuk luñean lotua, zeruan ere lotua izango da; ta zuk luñean askatua, zeruan ere askatua izango da».

²⁰ Ordun bere ikasleei agindu zien Bera Kistoa zala iñori ere ez esateko.

Nekaldiaren iragariketa

²¹ Añezkero Yesu asi zan bere ikasleei erakusten Yerusalen'a yoan, ta zañ, idazlari ta apaiz nagusien aldetik neke asko ta eriotza yasan ondoren, irugañen egun-ean beñpiztu beañ zula. ²² Ta Kepa'k Bera aldera arturik, akañ zegion, esanaz: «Ez, añen, ez, Yauna; ez zaizu oñelakorik gertatuko». ²³ Bañan Yesu'k itzulirik esan zion: «Alde Nigandik Satan ori; auriko zatzazkit, Yainkoarenen aogozorik ez duzu-ta, gizakienena baizik».

7 Bar - Yona = Yon'en seme.

17-19 Iru dira Kepa'ri Yesu'k emen egindako agintzak: 1.^a Eliza eraiki Yesu'k egingo dula; 2.^a Elizaren oñari edo oñaitza, ta buru edo agintari nagusia, Kepa izango dala, Yesu'k berak autu ta yañita. 3.^a Oñela eraikitako Elizak ez dula iñoiz ere luñ joko, leze-indañ ta oldañketak gora bera. (Kepa ta Aitz izenak orobat dira; Kepa, eberkeraz; Aitz, euskeraz. Ate izenez soñtaldean aginte nagusia adirazten zan. Cauñ ere Turkia, Ate Garaya maiz deritza. Giltzak, beñiz, yaubetasunaren irudia edonun dira).

Begira gero (Yon, XXI, 15-17) nola Yesu beñpiztuak agintzok burutzen ditun, Tiberi-itxasaldean Kepa, Elizaren Artzai, bildots-ardien gain, yañirik.

Norberari uko egin beařaz

²⁴ Ordun Yesu'k bere ikasleei esan zien: «Nere atzetik iñork etoři nai ba'du, bere burua ukatu ta bere gurutza leporatu beza, ta beřait. ²⁵ Bere burua yaregin nai dunak, galduko du; bere burua Nigatik galdu dunak, beřiz, idoroko du. ²⁶ Zertarako litzayoke, ba, iñori ludi osoa irabazi izana, bere burua galduko ba'lu? Ala zer eman lezake iñork bere biziaren ordañez? ²⁷ Izan ere, Gizasemea bere Aitaren aintzaz etořiko da bere aingeruekin; ta ordun bakoitzari bere egiñen arauz ordainduko dio. ²⁸ Ziñez dasaizuet; ba-dira emen daudenetako batzu, Gizasemea bere yauraintzaz etořtzen ikusi arte, eriotza murtxatuko ez dutenak».

XVII

Yesu'ren antzalda

Sei egun buruan Kepa, Yakob ta Yon, aren anaya, Yesu'k aldera artu ta berekin mendi garai batera daramatzi. ² Ta ayen aurean antzaldatu zan. Ta Aren aurpegia, eguzkia bezain istatsu, Aren yazkiak, beřiz, elura bezain zuri biurtu ziran. ³ Ta ara Mois ta Eli, Arekin zeraustela, ageri izan zitzazkien. ⁴ Kepa'k, beřiz, arte arturik, Yesu'ri esan zion: «Yauna, emen ederki geundeke. Nai ba'duzu, iru txabola emen egin ditzagun; Zuretzat bat, Mois'entzat bat eta Eli'rentzat bat». ⁵ Ta ara, oraindik zerausala, odei argitsu batek itzalpean artu

zitun, ta odeitik mintzo batek zion: «Auxe da atsegin zaidan nere Seme kutuna: entzuyozute». ⁶ Ta ikasleak entzunda, auzpez erori ziran ta oso belduitu. ⁷ Ta Yesu'k alderatu ta ikutu zitun, esanaz: «Yaiki ta ez beldui izan». ⁸ Ayek, beriz, begiak gora yasorik, Yesu besterik inor ez zuten ikusi.

⁹ Ta menditik yeistean, agindu au Yesu'k egin zion: «Ikusi duzutena inori ere ez esan, Gizasemea il artetik piztu arte. ¹⁰ Ta ikasleek galde egin zioten, esanaz: «Nola, beraz, idazlariek darasate lenik Eli etoñi beara dala? ¹¹ Ta Berak erantzun zien: «Eli etoñiko da, noski, ta dana beriztuko du. ¹² Esan ere, esaten dizuet: Eli etoña da, ta ez dute ezagun; nai izan dutena egin diote, ostera. Alaxe Gizasemeak ere goñiak ikusiko ditu ayen aldetik». ¹³ Ordun ikasleek igari zuten, esana Yon Ukuzleaz esan zela.

Alditsuaren sendakuntza

¹⁴ Gizataldegana itzuli zanean, gizon bat arganatu ta Aren auzez belaunikatu zan, ¹⁵ esanaz; «Yauna, nere semeari eruki zakizkio, alditsu ta mingaitzez dago-ta; askotan, ba, sutara ta maiz urtara erortzen da. ¹⁶ Zure ikasleei aurkeztu diet, eta ezin sendatu izan dute». ¹⁷ Yesu'k erantzuki esan zun: «Ene gizakume siñesgogor ta makuok! noiz arte yasan bearko zaituzt? Ekarkidazute onara. ¹⁸ Ta Yesu'k akari egin ziola, argandik txeren irten zan, ta mutila ordutikantxe sendatu zan.

¹⁹ Ordun ikasleek, Yesu'gana berezian urbildurik, esan zioten: «Zergatik guk ezin iraitzi izan dugu?»

²⁰ Yesu'k esan zien: «Zuen siñeste uñagatik. Ziñez dasaizuet: yeben-azia añeko siñestea ba'zenute, mendi oni «órtik ara oa» zuek esanda, ba-liyoake, ta ezin litekenik zuentzat ez legoke. ²¹ Órelakoak iraitzeko, beñiz, otoi-baruak beste biderik ez dago».

Zergaz

²² Galilai'n zeudela, Yesu'k esan zien: «Gizasemea giza-eskuetan utzia izango da, ²³ ta ilko dute, ta irugañen egunean piztuko da». Ta biziro atsekabetu ziran. ²⁴ Kaparnaun'a etoñi ziranean, didrakme-lakatzaleek Kepa'gana alderatu ta esan zioten: «Zuen irakasleak ez ote du didrakme ordaintzen?» ²⁵ «Bai»: erantzun zien. Ta etxera orduko, Yesu aitzindu zitzayen, esanaz: «Simon, zer deritzazu? Lu'eko bakaldunek laka, naiz zerga, norgandik aítzen dute? Beren semeengandik, ala aítzengandik? ²⁶ Ark erantzun zion: «Aítzengandik». Eta Yesu'k esan zion: «Beraz, semeak aske dira. ²⁷ Ala ere, gaizpiderik ez damayegun, itxasora zoaz, ta amua botata, gora lenik datoñen a'aya aítu ta aren aoa irikirik, estater bat idoroko duzu: ori, ba, aítuta, Niketz ta zuketz emayezu»

²⁴ **Didrakme** = Drakme biko txanpona. **Drakme**, beñiz, peseta batetsuko txanpona. **Estater** = lau bat drakmeko txanpona.

XVIII

Aurtxoak eta gaitzeratzaleak

Garai artan ikasleak Yesu'gana urbildu ziran zesayotelarik: «Zeru yaureñian aundiena zein deritzazu?»
² Ta Yesu'k, aurtxo bat deiturik, ayen erdian ipiñi ³ ta esan zun: «Ziñez dasaizuet: aurtxoak bezelako biurtzen ta egiten ez ba'zerate, ez zerate zeru-yaureñian sartuko.
⁴ Beraz, aurtxo au bezain txiki biurtzen dana, orixe da zeru-yaureñian aundiena. ⁵ Ta orelako aurtxoren bat beregana artzen dunak Nerau artzen nau. ⁶ Nere siñestun txikitxo auetako bat gaitzeratu lukenari, beñiz, obe litzayoke asto-igaraña lepotik dindil ezañita itxas barenean murgildu ba'lute. ⁷ Zori txaña gaizpideengatik ludiaren zoria! Gaizpideak, nai ta ez, izango dira-ta; baña gaizpidea dakañken gizona, ¡orixe negañoña! ⁸ Zure eskuak naiz oñak gaitzeratzen ba'zaitu, ebaki ta zuregandik erauzazu; obe zaizu, ba, eskumotz edo eñenik bizitzan sartzea, betiko sutara, esku biak, naiz oin biak dituzula, iraitzia izan baño. ⁹ Ta zure begiak gaitzeratzen ba'zaitu, atera ta zuregandik erauzazu; obe zaizu, ba, begi-bakañ bizitzan sartzea, su-lezera, begi biak dituzula, iraitzia izan baño. ¹⁰ Zurt ibili, beraz, txikitxo auetako

6 Asto-igara-ña=au da, astoak darabilan eñotaña. Ikaragañizko zigoñkada izan añen; gutxi da, geroxeago (v. 11) diona ulertzen dunentzako; au da, Gizasemea gizonak zeruratzeko jetxi dala.

8-9 Esku ta oñak ebaki, begiak atera, dirauskunian, esan nai du, begiak bezain maite ta esku ta oñak bezain beañ duzun edozer, pekatu-rako bide ba'zaizu, ateratzeko.

bat ere ez gaitzeratzeko; Nik dasaizuet, ba: ayen aingeruak zeruan nere Aitagoikoaren aurpegia beti ikusten daude.

¹¹ «Galdu zana yaregitera Gizasemea etoñi da, ba.
¹² Zer deritzazute? Eun ardi iñork ditula, ayetako bat galdu ba'du, ez ote ditu larogei ta emeretziak lañean uzten, galduaren bila yoateko? ¹³ Ta agian ba'didoro, ziñez dasaizuet: arengatik pozikago dago, galdu ez diran larogei ta emeretziengatik baño. ¹⁴ Alaxe, ba, zuen Aitagoikoak ere ez du txikitxo orietako bat ere galtzea nai.

Senidetarteko uts egiñetan nola yardur

¹⁵ «Zure senideak uts egin ba'dizu, yoan arengana, ta aren ta bion artean bakañik zaudetela, akañ egiozu. Aditzen ba'dizu, senidea irabazia duzu. ¹⁶ Aditzen ez ba'dizu, beñiz, lagun bat edo birekin itzul zakizkio, bi edo iru aitoñen aoz auzi oro erason dedin. ¹⁷ Ayei ere aditzen ez ba'die, elizari esayozu: ta elizari aditzen ez ba'dio, arotz ta zergaritzat bekizu.

¹⁸ «Ziñez dasaizuet: zuek luñean lotua, zeruan ere lotua izango da; ta zuek luñean askatua, zeruan ere askatua izango da. ¹⁹ Esan ere dasaizuet: zuetako bi edozer eskatzeko luñ gañean biltzen ba'dira, nere Aitagoikoak egiña izango zaye. ²⁰ Bizpairu lagun nere izeñean bildurik dauden tokian, Nerau ere ayen erdian nago-ta».

Irain-askesteaz

²¹ Ordun Kepa'k arganatu ta esan zion; «Yauna, zenbatetan nere senideak niri uts eginda, asketsiko diot? zazpitan ote?». ²² Yesu'k dasayo: «Ara dasaizudana: zazpitan ez ezen, baita zazpitan zazpi ama' bider ere. ²³ Argatik zeru-yaure'ia, bere mo'oyekin a'emanak garbitu nai zitun bakalduna bezela da. ²⁴ Garbitzen asi orduko, ama' mila talanta zo' zizkion mo'oi bat au'keztu zioten. ²⁵ Ordaintzeko ezer ez zula-ta, nagusiak mo'oya ta aren emaztea ta seme-alabak eta zitunak oro saldu ta ordaña berari emateko agindu zun. ²⁶ Baña mo'oi ark auzpezturik, gurka ziotsan: zakizkit biotz-zabal, ta dana itzuliko dizut. ²⁷ Nagusiak mo'oi artzaz e'ukituta, askatu zun ta zo'a asketsi zion. ²⁸ Arako mo'oyak, be'iz, irtenda, eun denari zo' zizkion mo'oi-kide bat upatu zun, ta itobea'ez ari eldurik, ziotsan: zo' didakana idak. ²⁹ Mo'oi-kideak auzpezturik otoi zegion, esanaz: Itxoidak, eta ordainduko dikat. ³⁰ Baña besteak ezetz, ta yoanda, giltzaperera yaurti zun, zo'a garbitu arte. ³¹ Gertatzen zana ikusirik, aren mo'oi-kideek, biziro goibelduta, nagusiagana yoan ta dana azaldu zioten. ³² Ordun aren nagusiak deitu ta esan zion: mo'oi gaizto ori, zo' osoa asketsi dikat, ero'ek eskatuta. ³³ Ez ote zegokiokan ire mo'oi-kideari ere e'uki izatea, nerau

²² Yuduek asko edo berein esateko, zazpi esan oi zuten guk amaika bezela.

²⁴ Talanta (atenata'ra) azta zan, ez diru edo txanpona: 5.000 peseta baño geixeago.

²⁸ Denari, txanpon bat zan, langile ta gudamutilei egunsaritzat eman oi zitzayena.

eruki izan nintzaikan bezela? ³⁴ Ta aren nagusiak, aseretuta, oñazetara igofi zun, zoí osoa garbitu arte. ³⁵ Oíela egingo dizue nere Aitagoikoak ere, nork bere senidea askesten ez ba'duzute».

XIX

Ezkontzaz ta ezkontzausteaz

Erausiok bukatutakoan, Galilai'tik Yudai'ko mugetara Yesu yoan zan Yordan aruntzago. ² Ta gizatalde aundiak yaíai zitzazkion, ta an sendatu zitun.

³ Parisaitarak, beíiz, arganatu ziran, zirika zesayotelarik: «Zilegi al zayo senarari emaztea edozergatik uztea?» ⁴ Yesu'k erantzun zien: «Ez al duzute irakuíi Egileak astetik ar ta eme egin zitula, ⁵ ta esan zula: **Argatik, gizonak aita ta ama utziko ditu, ta bere emazteari itsatsiko zayo, ta biak aragiz bat izango dira?** ⁶ Aíezkero, beraz, ez dira bi, aragi bat baizik. Beraz Yainkoak batua, ez beza gizonak bakandu». ⁷ Ayek diotsate: «Nola, ba, Mois'ek agindu digu, emaztea, zapuztagiria emandakoan, uzteko». ⁸ «Zuen biotz gogoíragatik» dasaye, «emazte-zapuztea Mois'ek zilegi utzi zizuen; atsaíetik, ordea, ez zan oíela. ⁹ Nik, beíiz dasaizuet: izoíkeriagatik ez ba'da, iñork bere emaztea zapuzten ba'du, izoítzale da: ta zapuztua bereztat arízen duna, izoítzale da». ¹⁰ Ikasleek diotsate:

⁵ As. II, 24.

⁹ Begira len Mt, X, 32.

«Senañ-emaztetarteko auzia oñela izan ezkerro, ezkontzak onik ez dakar». ¹¹ Yesu'k dasaye: «Ez dute guziek itz au ulertzen: emana zayenek bakañik baño. ¹² Ba-dira, ba, irenak, amaren sabeletik oñela yayoak; eta ba-dira irenak, bestek oñelakotuak; ba-dira ere irenak, zeru-eñia-gatik beren buruz irenduak. Uleñ lezakenak uleñ beza».

Aurtxoak

¹³ Ordun aurtxo batzu eskeñi zizkioten, eskuak ayei ezañirik, otoi egin zezan. Ta ikasleek akañ zegieten. ¹⁴ Baña Yesu'k esan zien: «Utzi aurtxoak ta ez iezute Nigana etoñtzen eragotzi; oñelakoena da, ba, zeru-yaureña». ¹⁵ Ta eskuak ayei ezañita, yoan zan andik.

Gazte aberatsaren naigabea

¹⁶ Ta ara norbaitek urbildurik esan zion: «Irakasle: Zer onik negike, betiko bitzitza iristeko?». ¹⁷ Ark esan zion: «Onaz zergatik Niri galde?» Ona, bat bakaña da. Baña betiko bizitzan sañtu nai ba'duzu, aginduak bete itzazu». ¹⁸ Ark diotsa: «Zeintzu, ba?» Yesu'k diotsa: Ez iñor il; izoñkeririk ez egin; ez ostu; gezuñezko aitoñik ez esan; ¹⁹ aita-amaei lotsa erakuskiezu; ta urkoa zure burua bezain maite ezazu. ²⁰ Gazteak diotsa: «Guziok gaztetanik bete ditut; zer gabe naiz oraindik?». ²¹ Yesu'k diotsa: «Ona oso izan nai ba'duzu, zoaz, dituzunak saldu ta landeñei

¹² beren buruz irenduak. Auek dira, aingeruak bezela garbi bizi-tzeko, ezkontzeke ta edozein lizunkeritik uñun gelditzen diranak.

^{18, 19} Irt. XX, 12-16.

emazkiezu; ta altxoía zeruan daukakezu: ta zatoz; zaraizkit» ²² Itzok entzunda gazteak alde egin zun goibeldurik, onibañik eruz zeukan-eta. ²³ Ordun Yesu'k bere ikasleei esan zien: «Ziñez dasaizuet: aberatsa nekez sartuko da zeru-yaureñian. ²⁴ Ba-dasaizuet ere: erazago da gamelua oratzuloan sartzea, aberatsa zeru-yaureñian baño». ²⁵ Itzok entzunda, ikasleak oso ariturik zeuden, esanaz; «Nor yaregin diteke, ba?» ²⁶ Bañan Yesu'k ayei so eginda, esan zien: «Gizonei ori eziña zaye; Yainkoarentzat, ordea, ezin ditekenik ez dago».

Oldez lander egiñak

²⁷ Ordun Kepa'k artetuz esan zion. Ona emen gu, dana utzita, garaizkizunok; zer izango da, ba, guretzat?». ²⁸ Ta Yesu'k esan zien: «Ziñez dasaizuet; yañai zitzazkidatenok, beñpiztean, Gizasemea bere yauralkian eseriko danean, zuek ere amabi aulkitan eseriko zerate, Israel'go amabi leñuen ebazle. ²⁹ Ta etxea, edo anai-arebak, edo aita-amak, edo seme-alabak, edo landak nere izenagatik utzi ditukenak, eunetan beste ainbeste artuko du, ta betiko bizitza daukake. ³⁰ Ta auñen diran asko, azken izango dira; ta azkenak auñen.

XX

Mastiko nekazariak

Izan ere, zeru-yaureña, bere mastirako nekazariak akuratzera goizean goiz irten zan etxeko yauna bezela da. ² Eguneko denari banan nekazariekin itunduta, bere

mastira igoñi zitun. ³ Ta irugañen egunaldian edo irtenda, beste batzu zeyean alpeñik egoten ikusi zitun. ⁴ Ta esan zien: zoazte zuek ere nere mastira, ta bidezkoa damai-zueket. ⁵ Ayek, ba, yonan ziran. Seigañen orduan ta bederatzigañenean ere irtenda, orobat egin zun. ⁶ Amaiketan beñiro irtenda, beste batzu or geldirik egoten ikusirik, esan zien: zer zaudete or egun osoan alpeñik? ⁷ Inork ere ez gaitu akuratu-ta, darantzuyote. Dasaye: zoazte zuek ere nere mastira. ⁸ Ilundu orduko, mastiaren yabeak bere otseinburuari esan zion: nekazariak deitu ta egunsaria emayezu, azkenengandik asi ta auñenenganaño. ⁹ Ta amaikak aldean eldutakoek etoñi ta denari bana artu zuten. ¹⁰ Auñenak ere etoñi ziran, geyago artuko zutelakoan; bañan ayek ere denari bana artu zuten: ¹¹ Artutakoan, beñiz, etxeko yaunaren aurka maxioka asi ziran, ¹² esanaz: azken oriek ordu beteko lanean ari izanda, gurekin berdindu dituzu, egun beteko nekea ta beroa yasan ditugunokin. ¹³ Bañan ark, ayetako bati erantzunik, esan zion: adiskide, ez dikat bidegaberik egiten. Ez ote aiz nerekin itundu denari batez? ¹⁴ Irea artu ta oa: azken orñi, beñiz, iri aña eman nai ziokat. ¹⁵ Zilegi ez ote zaidak nai dikadana egitea? Ni ona naukalako, ire begia okeña izango ote duk? Oñela, azkenak auñen izango dira; ta auñenak azken».

³ Eguna, edo izañetatik izañetarañoako artea, antziñakoek lau zati berdintan bereizten zuten, ta ayetako bakoitza, beñiz, iru ordutan. Egunorduak beti amabi ziran; neguan laburago ta udan luzeagoak. Eguerdiko ordua, seigañena beti. Gauda ere, olaxe, lau zati berdintan ebakirik, zati bakoitzari gau-aldi edo gaueko zai-aldi deitzen zien, eñomatar guda-mutilak zai ziranegan gau atal oñetan aldatzen ziralako. Begira len XIV, 25.

Yerusalen'ako bidean

17 Yerusalen'a igotzean, Yesu'k amabi ikasleak baka-
rean aritu ta bidean esan zien: 18 O'ra Yerusalen'a igotzer
goaz, ta Gizasemea apaiz nagusi ta idazlarien mendean
ya'ria izango da, ta eriotza erabakiko diote, 19 ta atze-
rita'rei emango diete, ixekatu, astindu ta gurutzatu
dezaten; ba'na iruga'ren egunean piztuko da».

Zebedai'ren semeak

20 Ordun Zebedai'ren semeen ama urbildu zitzayon
bere semeekin Ari gu'ka ta zerbaiten eske. 21 Yesu'k
esan zion: «Zer nai duzu?». Ark dasayo: «Ene seme biok
zure yaure'ian esertzeko esazu, bata zure eskui aldean,
bestea ezker'ekoan». 22 Ba'na Yesu'k yardetsi ta esan
zun: «Ez dakizute zer daskazutenik. Nik edango dudan
ontzia zuek edan al dezakezute?». Ayek dasayote: «Ba-
-dezakegu». 23 «Nere ontzia, noski, edango duzute»
dasaye: «ba'na nere eskui-ezker' esererazterik ez dut nere
aukeran zuentzako, nere Aitak atondu dientzako
baizik». 24 Beste ama'rak, ori entzunda, bi anayei ase-
retu zitzazkien. 25 Ba'na Yesu'k beregana deitu ta esan
zien: «Ba-dakizute atzer'iko buruzagiek e'ria beren men-
dean daukatela, ta aundikiak e'riarenganako agintea
darabiltela. 26 Ez bedi o'relakorik zuenean: oster'a ere,
zuetan aundiena izan nai lukena, zuen mo'oi bego,

20 Zebedai'ren semeak, Yon eta Yakob: Ama, be'riz, Salome. Uste
zuten Yesu'ren yaure'ia lu'ekoa zala, ta Berak e'roma'ren buzta'ria yuduei
kendu bea' ziela.

²⁷ ta zuetan buru izan nai lukena, otsein bekizue.
²⁸ Oñela, ba, etoñi da Gizasemea, ez beretzat otsein-
 -eske, otsein izatera ta askotzaren ordainñerako bere
 bizia ematera baño».

Itsu biren sendakuntza

²⁹ Yeriko'tik irten ziranean, gizatalde aundia yañai
 zitzayon. ³⁰ Ta ara, bide ondoan eserita zeuden itsu bik,
 Yesu igarotzen zala entzunda, ots egin zuten, esanaz:
 «Yauna, Dabid'en Seme ori, eñuki zakizkigu». ³¹ Ta
 gizataldekoek akañ zegieten isilñerazteko. Ayek, ordea,
 are ta geyago ots egiten zuten, esanaz: «Yauna, Dabid'
 en Seme ori, eñukigu zakizkigu. ³² Gelditurik, beraz,
 Yesu'k deitu ta esan zien: «Zer nai duzute dagizuedan?»
³³ Ayek dasayote: «Yauna, begiok argitu. ³⁴ Yesu'k, ba,
 ayetzaz eñukiturik, begiak ikutu zizkien. Ta bereala
 ikustun eginda yañai zitzazkion.

XXI

Yesu Yerusalen'en sartzen da

Yerusalen'a urbildu ta Oliamendi aldeko Betpage'ra
 eldu ziranean, ikasle bi bidali zitun, ² zesayelarik;
 «Zoazte aurkez duzuten eñixkara, ta bereala aurkituko

²⁸ askotzaren ordaintzerako. Bere asmoz ta gogoz, guzientzako
 etoñi zan; ta askotsu, beren eñuz, galtzen ba'dira ere, txit asko izango dira
 Yesu'ren odolez erositako zori ona iritsiko dutenak. Berez, anti polloon,
 ta eñiarentzat, eñiagatik, askorentzat..... orobatetsu dira.

³⁰ Mark'ek itsu baten izena dakañ, Bartimai (Mark. X, 46); Luk'ek,
 beñiz, ez du izenik aipatzen, itsu bat esanaz (Luk. XVIII, 35); eta Matai'k
 itsu biren sendaketa azaltzen digu. Agian, Matai'ren gertaerak bi dira.

duzute asto eme bat lotuta, ta arekin astakumea ere. Azkatu ta ekazkidazute. ³ Ta inork ezer ba'lesaizue, esayozute Yaunak bea' ditula; ta berealaxe utziko dizkizue». ⁴ Guzi au egin zan, Iga'leak esana bete zedin:

**5 Esayozute Sion'go alabari:
Ora or' dato'kizu zure erege
otzanik astogañean
ta uzta'pekoaren umegañean eserita.**

⁶ Ikasleek, ba, yoanda, Yesu'k agindu zienez egin zuten. ⁷ Astama ta umea eka'ri ta bizka'ean beren soñekoak ayei eza'irik, gañean Bera ya'ri zuten. ⁸ Ta gizataldeko askok beren yazkiak bidean irau'ri zituten; beste-tzuk, be'riz, zugatzetatik ada'arak ebakita bidean edatzen zituten. ⁹ Ta au're-atzetik ziyoazan e'rikoek deada'ka zioten: «Gora Dabid'en Semea! Onetsia Yaunaren izenean dato'rena! Gora goi goyenetaraño!»

¹⁰ Ta Yerusalen'en sa'rtu zaneko, iri osoa dardaraka ya'ri zan, esanaz: «Nor duk au?» ¹¹ Ta lagunaba'rek zerasaten: «Au duk Yesu iga'lea, Galilai'ko Nazareta'ra».

Yauretxeko salketariak

¹² Ta Yesu'k yauretxean sa'rtuta, sal-erosten an ari ziran guziak iraitzi zitun, ta dirularien mayak eta usosaltzaleen aulkiak irauli ¹³ ta esan zien: «Idatzita dago: nere etxea otoi-etxe izango da; zuek, ordea, lapu'obi egin duzute».

5 Zak. IX, 9; Is. LXII, 11.

13 Is. LVI, 7; Yer. VII, 11.

¹⁴ Ta itsu ta érenak arganatu ziran yauretxean; eta sendatu egin zitun.

¹⁵ Apaizpuru ta idazlariak, ostera, Ark egindako añañiak eta mutiltxoak yauretxean «gora Dabid'en Semea» oyu egiten ikusirik, aseé ziran. ¹⁶ Ta esan zioten: «Ba al dantzuzu zer darasaten oriek?» Yesu'k esan zien: «Bai. Ez al duzute bein ere irakuñi:

**aurtxo ta bulañekoen aotik
goradeya atera duzu?»**

¹⁷ Ta ayek utzita, iritik Betani'ra irten ta an gel-ditu zan.

Pikondo igartua

¹⁸ Biaramunean goizetik irira itzultzean, gose izan zan. ¹⁹ Ta bide ondoan pikondo bat ikusirik, artara yoan zan, ta ostoak besterik ez zun artan idoro, ta esan zion: «Inoiz ere ez bekik alerikan soñtu». Ta pikondoa bertantxe igartu zan. ²⁰ Ta ikasleak ori ikusirik, añitu ziran, esanaz; «¡Oñen laster igartu duk!» ²¹ Yesu'k, beñiz, yardetsi ta esan zien: «Zuek ere siñestez ta zalantzarik gabe ba'zeniardute, pikondolari egiña egingo zenukete; ta ez ori bakañik; baita mendi oni «ken oñtik ta itxasora yaurti adi» ba'zenesayote, gertatuko lizake ere. ²² Ta otoiketari siñestez zeneskaketen dan dana añtuko duzute».

16 Er. VIII, 3.

19 Yesu'k ba-zekin aurtetik ez zala pikorik zugatzean; ala ere pikondora eldu zan ezbailekin, gero erakutsi ziguna adierazteko. Zugatzak eñurik ez zeukan, baña pikondoa sinagogaren irudia zan: sinagogak oñiak ba-zitun ugari, arnaririk ez; oñegatik Yesu'k igar'erazten du.

Yesu'ren eskubidea

²³ Yauretxera etoñi ta irakasten ari zala, apaizpuru ta eñiko zañak arganatu ziran, esanaz: «Zein eskubidez dagizuna dagizu? Ta eskubide ori nork eman dizu?»
²⁴ Yesu'k yardetsi ta esan zien: «Nik ere galdetxo bat egingo dizuet. Erantzuten ba'didazute, beñiz, Nik ere esango dizuet zein eskubidez dagidana dagidan. ²⁵ Yon' en ukuzpena nondik zan? zerutik ala gizagandik?» Ayek, beñiz, elkañekin ziardukiten, esanaz: «Zerutik, ba' darantzuyogu, esango digu: zergatik, ba, ez zenioten siñetsi? ²⁶ Gizagandik, ostera, ba'diotsagu, eñiaren belduñ gera». Guziek Yon igañletzat zeukatelako.
²⁷ Yesu'ri erantzunik, beraz, esan zioten: «Ez dakigu». Berak ere, dasaye: «Nik ere ez dasaizuet zein eskubidez dagidana dagidan. ²⁸ Baña zer deritzazute? Norbaitek bi seme zitun, ta lenari urbildurik, esan zion: seme, zoaz gauñ nere mastira lanera. ²⁹ Ark ordea, erantzuki esan zun: «ba-noa, Yauna»; ta ez zan yoan. ³⁰ Besteari urbildurik, orobat esan zion. Ark ordea, erantzuki esan zion: «ez dut nai»; baña gero, garbayak eraginda, yoan egin zan. ³¹ Biotako nork egin zun aitaren gogoa?» «Azkenak» dasayote. Yesu'k esan zien: «Ziñez dasaizuet; zergari ta emagalduek Yainkoaren yaureñira auñenduko zazkizue. ³² Alabaña, Yon zuzenbidetik etoñi zitzaizuen, ta zuek ez zenioten siñetsi; zergari ta emagalduek, ostera, siñetsi zioten; zuek, beñiz, bera ikusita ere, ez zerate gerokoan garbai izan, ari siñesteko.

^{29,30} **Ba-noa** esanda ere, yoan ez zun semea, yuduen antzekoa da; ta «ez dut nai» erantzunda, aitaren esana egin zun semea, gentilen irudia.

Mastiko nekazari okeak

33 Beste alegi bat entzuzute. Etxeko yaun batek mastia landatu zun, ta baranoan esi ezañi zion, ta artan tolare bat egin ta doñe bat eraiki zun, ta nekazariei akuran utzi zien, ta urutira yoan zan. 34 Matsaroa etoñtzeko zanean, moñoyak nekazariengana bidali zitun bere matsak biltzera. 35 Ta nekazariak moñoi ayei elduta, au sakaildu egin zuten, ori il, bestea añikatu. 36 Lengoak baño beste moñoi ainitzago beñiz ere bidali zizkien; ta oriei ere orobat egin zieten. 37 Azkenean, bere semea bidali zien, esanaz: nere semeari lotsa erakutsiko diote. 38 Baña nekazariak, semea ikusi zuteneko, elkañi zesayoten: au duk oñordekoa; zatozte, il dezakagun, aren ondarea yasotzeko. 39 Ta bera atzirik, mastitik iraitzi ta il zuten.

40 Onezkero, ba, zer egingo die nekazari ayei masti yabeak etoñitakoan?» 41 Ayek dasayote: «Gaiztoak gogoñ zeatuko ditu, ta bere mastiaren zitua mugonez dakañkioten beste nekazariei akuran egotziko die». 42 Yesu'k dasaye: «Ez al duzute bein ere Idaztietan irakuñi:

eraikileek bazteñtutako aña bera,

giltzañi gertatu da?

Yaunak egiña da ori,

ta begitan añigañi dugu.

43 Argatik dasaizuet: Yainkoaren eña zuei kendu

33 Ikaragañizko alegi onetan Yesu'k bere arerio amoñatuai erakusten die, ondo neurtuta zeukala goñotoaren sakontasuna, ta Bera bere arerioen galgaña izango zala.

42 Er. CXVII, 22, 23.

ta bere zitua lekañken eñari emana izango zayo. 44 Ta ari onen gañean eroriko dana apuruko da; ari onek, beñiz, gañera eroriko zayona porokatuko du». 45 Aren alegiak apaizpuru ta parisaitaiek entzun zitutenean, berentzaz ari zala igari zuten. 46 Ta Bera atzi nai ta ere, lagunabañen belduñ ziran, igarletzat guziek zeukatelako.

XXII

Ezteyeta deituak

Yesu'k, mintzatuz, beñiro alegitan egin zien, orela: 2 «Bere semearen ezteyak egin zitun bakaldunaren antzekoa da zeru-yaureña. 3 Ezteikideak deitzeko bere moñoyak bidali zitun; ta deituek ez zuten etoñi nai izan. 4 Beñiz beste moñoi batzu bidali zizkien, esanaz: ezteikideei esayezute: ots, oturuntza gerturik dut; nere itelak eta araki gizenduak ilak ditut, eta dana apaindurik dago; zatozte ezteyeta. 5 Ayek, ordea, yaramanik ez; ta urlia bere sorora, berendia bere garatzetara yoan ziran. 6 Andarakoek, beñiz, aren moñoyak atzi ta irañez betetakoan, il egin zituten. 7 Bakalduna, ba, aseñetu zan, ta bere gudamutilak bidalirik, gizeraile ayek porokatu zitun, ta ayen iria eñe zun. 8 Ordun bere moñoyei esan zien: ezteyak gerturik daude; baña deitu izanak ez ziran aintzako. 9 Zoazte, ba, bideburuetara, ta yañugiko dituzutenak oro ezteyeta deitu itzazute. 10 Ta moñoyek, bideetara irtenda, yañugi zitutenak oro, on ta gaizto,

bildu zituten; ta ezteitegia maikidez bete zan. ¹¹ Maiki-deak ikustera bakalduna sartu zala, eztei-yantzirik ez zekañen norbait an ikusi zun. ¹² Ta esan zion: adiskide, nola emen sartu zera, eztei-yantzirik ekañtzeke? Ta ark itzik ere ez. ¹³ Ordun bakaldunak laguntzaleei esan zien: esku-oñak oñi lotuta, atetiko iluntara yaurti ezazute. ¡Ango negar ta ortz-kañaska! ¹⁴ Deituak asko baitira, autuak ordea gutxi».

Kaisar'entzako zergaz

¹⁵ Onezkero parisaitarñak yoan ta elkar itundu ziran, Yesu izketan leñarazteko. ¹⁶ Oñtarako, beren ikasleak erodetarñ batzugin bidali zizkien esanaz: «Irakasle, ba-dakigu egizale zerala, ta Yainkoaren bidea egiz darakasazula, ta iñoren ayola ez zerala, giza-aurpegirik aintzat ez duzu-ta. ¹⁷ Esaiguzu, ba: zer deritzazu? Kaisar'i zerga ematea zilegi ote da, ala ez?» ¹⁸ Bañan Yesu'k, ayen maltzurkeria igañirik, esan zien: «Zertarako zirika zatozkidate, azalutsok? ¹⁹ Zerga-txanpon bat erakuskidazute». Ta ayek denari bat eskeñi zioten. ²⁰ Yesu'k beñiz, esan zien: «Irudi au ta idazkun au norenak dira?» ²¹ «Kaisar'enak», dasayote. Ordun esan zien: «Kaisar'enak, ba, Kaisar'i izkiozute; ta Yainkoarenak Yainkoari». ²² Ori entzunda añitu ziran, ta Bera utzirik, alde egin zuten.

¹³ Ez betiko zorionaren mayean ezta aren irudi ta gertuera dan Eukaristiko mayean ere, eziñ leike iñor yañi, eztei-yantzirik gabe, edo biotzeko garbitasun ta apaingañirik ekañtzeke.

¹⁹ Begira XXII, 15.

Be'pizteaz

²³ Egun artan bertan, be'pizterik ez dagola dioten sadukaita'ek, Arengana yoanda, galde egin zioten, ²⁴ esanaz: «Irakasle, Mois'ek esan zun: **semerik gabe iñor iltzen ba'da, aren anayak alarguna emazte-tzat ar' beza, ta anaya zanari ondorengoa so'rtu bezayo.** ²⁵ Or' gurean zazpi anai ziran; ta lena emaztea ar'tuta il egin zan; ta ondorengorik ez zula-ta, bere anayari emaztea utzi zion. ²⁶ Berebat biga'enenak, eta iruga'enenak zazpiga'eneraño. ²⁷ Guzien azkena emaztea ere il zan. ²⁸ Beraz, be'piztutakoan, zazpietatik zeñen emazte izango da? Guziek emazte izan baitzuten». ²⁹ Yesu'k, be'riz, yardetsi ta esan zien: «Oke' zaudete, Idaztiak ta Yainkoaren inda'ra ezaguteke. ³⁰ Alabaña, be'piztutakoan, iñork ez du emazterik ar'tzen ez ematen; zeruan, be'riz, Yainkoaren aingeruak bezela dira. ³¹ Be'pizteaz ere ez al duzute iraku'ri Yainkoak zuei itz egiñik esandako au: ³² **Abraham'en Yainkoa, ta Isaak'en Yainkoa, ta Yakob'en Yainkoa naiz Ni?** Ez da Yainkoa ilen Yainko, biziena baño.

³³ Lagunaba'arak, au entzunda, Aren irakasteaz ar'ituta zeuden. ³⁴ Parisaita'arak, ordea, sadukaita'arak isile-razi zitula aditurik, bildu egin ziran, ³⁵ ta lege irakasle zan ayetako batek azpikeriz galde egin zion: ³⁶ «Irakasle, zein da legean agindu aundia?» ³⁷ Yesu'k esan zion:

²⁴ Deut. XXV, 5, 6; As. XXXVIII, 8.

³² Irt. III, 6.

Zure Yainko Yauna biotz biotzez, gogo gogoz ta adin adiñez maite ezazu. ³⁸ Auxe da agindu aundia ta lena. ³⁹ Bigárena, beñiz, onen idekotsu da; zure geidea, zure burua bezain maite ezazu. ⁴⁰ Agindu biotatik esegita daude Lege osoa ta Igarleak».

Kisto'a ta Dabid

⁴¹ Parisaitarak bildu ziralá, Yesu'k galde egin zien esanaz: ⁴² «Kistoaz zer deritzazute? Noren seme da?» «Dabid'ena», dasayote. ⁴³ «Nola, ba», dasaye, «Dabid'ek goi-atsez Berari Yauna deitzen dio, esanaz:

⁴⁴ **Yaunak nere Yaunari esan zion:**
nere eskui aldean eseri zaitez,
zure etsayak oñoltzat ezaítzen dizkizudan arte?

⁴⁵ Beraz, Dabid'ek Berari Yauna ba'diotsa, Dabid'en seme nola daiteke?»

⁴⁶ Ta iñork itzik ezin erantzun zion, ezta aírezkero Ari galde egiteko bekokirik izan ere.

37 Deut. VI, 5.

39 Leb. XIX, 18.

⁴¹ Yesu gizon zan aldetik, Dabid'en seme, baña Yainko zan aldetik, Dabid'en Yauna zan, ta oregatik Dabid'ek abestu zun: «Yaunak (au da, Aitak) Yaunari (au da, nere Seme ta Yaun batera dan Mesiari) esan zion...» Ta Parisaitarek, aragiari ta aragizko nareari begiraturik, ez zuten Yesu'ren Yainkotasuna ikusteko begirik. ¡Ayen gogortasuna! Biotzak nai ez duna, begiek ez dute ikusten.

⁴⁴ Er. CIX, 1.

XXIII

Parisaikeria

Ordun Yesu'k gizataldeari ta bere ikasleei itz egin zien, ² esanaz: «Mois'en aulkian idazlari ta parisaitar'ak eseri dira. ³ Lesaizueketen guzia bete ta egizute beraz; dagitenik, be'riz, zuek ez egin; esateko gizon baitira; egiteko, ez. ⁴ Zama astun ta ezin eramán alakoak lotu ta besteen sorbaldan ya'rtzen ditute, ba; berek, ordea, ez ditute beatzez ere zirkindu nai.

⁵ «Dagiten guzia, gizonék ikusi ditzaten, dagite. Artarako, bekokian lar'utx aundiak eta so'nekoan mendel zabalak dakazte. ⁶ Oturuntzetan maipuruak eta sinagogetan aulki nagusiak atsegin ditute, ⁷ baita zeyetan agur'ak eta Rabbi izena entzutea ere. ⁸ Zuek, osterá, Rabbi izena ez ar'tu; bat baka'rik da, ba, zuen Irakaslea, ta anai zerate oro. ⁹ Ezta in'ori lu'rgañean aita deitu ere; bat baka'rik da, ba, zuen Aita, zerukoa. ¹⁰ Irakasle izena ere ez ar'tu; bat baka'rik da, ba, zuen Irakaslea, Kisto'a. ¹¹ Zuetakorik nagusiena, mo'roi bekizue; ¹² goratzen dana, apaldua izango da, ba; apaltzen dana, be'riz, goratua izango da.

¹³ «Zuen zori txar'a, idazlari ta parisaitar' azalutsok! gizakumeei zeru-yaure'ria ixten diezutelako: ez zerate,

⁵ lar'utxak. Legezaletzat agertzeko, parisaitar' batzuk ku'tun bat Legear'en itz batzuekin bekokian eramán oi zuten ugalez loturik. Lar'utxezko ku'tun oriek emen Yesu'k aipatzen ditu.

ba, zuek sartzen, ta sartu nai dutenei eragotzi egiten diezute.

[¹⁴ «Zuen zori txara, idazlari ta parisaitar azalutsok! alargunen etxeak otoi luzeka iresten dituzutelako. Oregatik epai zorotzagoa izango duzute.]

¹⁵ «Zuen zori txara, idazlari ta parisaitar azalutsok! yaraile bat irabazteko, itxaso-legorez osteraka baitzabiltzate ta irabazitakoan, zerok baño bitan sulezegayago biurtzen duzute.

¹⁶ «Zuen zori txara, bide erakusleitsuok! «Yauretxeagatik egindako zina ezer ez da», diozute ba; «yauretxeko ureagatik egindakoa, beriz, bete beara da». ¹⁷ Tentel etaitsuok; zer da aarena? urea, ala urea gurentzen dun yauretxea? ¹⁸ Ta «opamayagatik egindako zina ezer ez da; aren gañeko opagatik egindakoa, beriz, bete beara da». ¹⁹ Itsuok; zer da aarena? opa, ala opa gurentzen dun maya? ²⁰ Beraz, opamayagatik zin dagineak, arengatik eta aren gañeko guziengatik ere zin dagi; ²¹ ta yauretxeagatik zin dagineak, arengatik eta artan egoitza dunagatik zin dagi; ²² ta ortziagatik zin dagineak, Yainkoaren aulkiagatik eta aulkian esertzen danagatik zin dagi.

²³ «Zuen zori txara, idazlari ta parisaitar azalutsok! inuntzi ta ezamilo ta kuminetako amaarenak ordainduta, legean nagusi diran zuzentasun, eruki ta sinestea alde bat uzten dituzutenok. Auek egitekoak ziran; ayek, beriz, ez uztekoak. ²⁴ Bide erakusleitsuok, eltxoa iragazi ta gamelua iresten duzutenok!

²⁵ «Zuen zori txara, idazlari ta parisaitar azalutsok! barnetik lapurkeriz ta satsez beterik zaudetela, ontzi

-azpilen azalekoa garbitzen duzutenok! ²⁶ Parisaitar'itsu ori! Ontzi ta azpilen barnekoa lenen garbi ezazu, azalekoa garbitu dedin.

²⁷ «Zuen zori txara, idazlari ta parisaitar' azalutsok! azaletik eder' gizonei ageri ta barnetik ilen ezuzez ta edolako satsez beterik dauden ilobi zurituen antzekoak zerate-ta. ²⁸ Orela zuek ere, azaletik zindo gizonei ageri, ta barnetik lizunkeriz ta gaiztakeriz beterik zaudete.

²⁹ «Zuen zori txara, idazlari ta parisaitar' azalutsok! igañleen ilobiak eraiki ta zindo ziranen oroitaluak apaintzen dituzute, ba, ³⁰ ta darasazute: gure arbasoen aldian bizi izan ba'giña, ez gentozkieke igañleen odolketarako lagun. ³¹ Orela, zeron aitozez, igañleak il zitutenen seme zerate, ³² zuen arbasoen neuria beterik. ³³ Suge ta ziraunkumeok; sulezerako epayari nola iges dagiokezute?

³⁴ «Izan ere, ora Nik igañle, ikastun ta yakitunak bidaltzen dizkizuet; zuek, beriz, ayetako batzu il ta gurutzatuko dituzute, ta zuen sinagogetan batzu ebaindu ta iriz iri esetsiko dituzute, ³⁵ gañera datoñkizuen luñ gañean ixuritako odol zindo guzia, Abel zindoaren odoletik asi ta yauretxetik opamairako artean il zenuten Baraki'ren seme zan Zakari'ren odoleraño. ³⁶ Ziñez dasaizuet; gizaldi auni guzi auek gañera datozkioke.

³⁷ «¡Yerusalen, Yerusalen, igañleak il ta zugana bidaliak arikatzen dituzun ori! ¡Zenbatetan zure umeak bildu nai nitun, oloak egapean bere txitaldia bezela, ta zuk ez zenun nai! ³⁸ Ora, ba, zuen etxea utsik utziko

zaizue. ³⁹ Alabañan, ez nauzute beñiz ikusiko, «gora Yaunaren izenean datořena» dasakezuten arte: Neuk dasaizuet».

XXIV

Yerusalen'en itxesa ta ludiaren amaya

Ta yauretxetik Yesu irtenda ba-ziyoan. Ta arganatu ziran ikasleak, yauretxeko eraikiñak Ari erakusteko. ² Ark, beñiz, erantzuki esan zien: «Guzi auek ikusten al dituzute? Ziñez dasaizuet: ez da emen iraultzeke ari gañean añirik geldituko».

³ Ta Oliamendi gañean eserita zegola, ikasleak berezian urbildu zitzazkion, esanaz: «Esaiguzu oriek noizko diran, ta zein daiteken zure etořtze ta aldi-amayaren ezagupidea». ⁴ Ta Yesu'k erantzuki esan zien: «Begira, ez zaitzazala iñork liluratu. ⁵ Alabaña, nere izena ařtuta, asko etořiko dira esanaz: «ni naiz Kistoa», ta askorik liluratuko dute. ⁶ Guda-goraberak eta buřukako zarata entzungo dituzute. Begira, ez lařitu; guzi oriek yazo beařak dirala ere, amairik ez dago ořa-tiño. ⁷ Endari enda ta eřiri eři yařkiko zayo, ba, ta izuřite, gosete ta luřikarak alderik alde sořtuko dira. ⁸ Guzi auek, ordea, miñen askiñak dira.

⁹ «Ordun oñazetara zarabilzkete, ta ilko zaituzte, ta eři guziei gořotagaři izango zatzazkiete nere izenagatik.

² Yesu'k emen esana, beřogei urte buruan edo bete zan, Tit'en gudariek Yerusalen ařtu zutenean. Buru ontako enparauak, Yerusalen'en pořokaldiaz eta ludi-amayaz esanak dira, Yerusalen'en pořokaldia ludi-amayaren iruditatzat agertzen zaigula.

¹⁰ Okerbidera ere ordun asko sayestuko dira, ta elkar salatu ta gofoto izango dute. ¹¹ Ta sasigarle askok yaiki ta askorik liluratuko dute. ¹² Ta gaiztakeri ugariagatik ainitzen maitakuntza oztuko da. ¹³ Bañan azkeneraño liraukena, ori gaizkatuko da. ¹⁴ Ta yaureñiaren Beñi On au luñ osoan zabalduko da eñi guziekiko agiritzat; eta azezkerok dotoñke amaya.

¹⁵ «Beraz, Daniel igarleak esandako itxes nazkagarria yauretxean yañita ikusiko duzutenean, (irakuñleak igarñi beza), ¹⁶ ordun Yudañ n diranek mendietara iges begite; ¹⁷ ta etxe goitian dana ez bedi, zerbait etxetik eramateko, yetxi; ¹⁸ ta landan dana, atzera ez bedi soñekoren bila itzuli. ¹⁹ Egun ayetako auñdun ta inñude gaxoak! ²⁰ Otoi egizute, beraz, zuen igesa neguan edo larunbatean gerta ez dedin. ²¹ Izan ere, ordun lañialdi gogoña izango da, luña luñ danetik onakoan izan ez dan, ta gerokoan izango ez dan bezainbatekoa ²² Ta egun ayek labuñtu ez bañira, ez lizake inñor ere gaizkatuko. Bañan autetsiengatik labuñtuko dira alako egunak.

Kisto'ren etoñera

²³ «Norbaitek ordun «oña oñ edo emen Kistoa zegok» bañlesaizue, ez, añen, siñetsi. ²⁴ Yaikiko dira, ba, sasi-kisto ta sasigarle batzuk agerki ta añigañi aundiak erabilki, autetsiak berak, al bañliz, iruzuñtara ekañtzeko alakoan. ²⁵ Oñ duzute, ba, auñetik, Neuk esanda. ²⁶ Beraz, «ara, basoan zegok» bañlesaizuate, ez irten; «ara, etxe bañnean», ez siñetsi. ²⁷ Alabaña, tximista soñtaldetik

15 Dan IX, 27.

irtenda saítalderaño agiri dan bezela, Gizasemearen etoíera ere alaxe izango da. ²⁸ Saíaskia non, aranoak ara bilduko dira.

²⁹ «Egun ayetako laíaldia igaro ala, beíz, eguzkia ilunduko da, ta ilargiak ez du argirik emango, ta izaíak ortzitik yalki ta ortzi-eíroak kordokatuko dira. ³⁰ Ta ordun Gizasemearen ezagupidea ortzian agiriko da, ta luíreko eí guziak bulaí-yoka asiko dira; ta Giza-semea indaí ta ospe aunditan ortzi-odeitartean etoítzen ikusiko dute. ³¹ Ta bere aingeruak turutots ozenarekin bidaliko ditu, ta auek Aren autuak bilduko ditute lau aize-zokoetatik, ortziburutik bururaño.

³² «Pikondotik, beíz, alegi bat ikasazute. Adaíak samuítu ta ostoak ernetzen zazkionean, uda auíki datoíela ba-dakizute. ³³ Ala zuek ere, guzi oriek ikusitakoan, yakizute [Gizasemea] atalondoan auíki dagola. ³⁴ Ziñez dasaizuet ez dala gizaldi au, guzi auek burutu arte, amaituko. ³⁵ Ortzi-luírenak egingo du; nere itzenak, ordea, ez.

³⁶ «Arako egun ta garai aren beírik ala ere, Aitak baizik, iñork ez daki; ezta zeruko aingeruek ere. ³⁷ Giza-semearen etoíeran, Noe'ren egunetan bezela, gertatuko da-ta. ³⁸ Ugolde auíreko egunetan guziak yan-edaten ta ezkondu ezkonerazten ari ziran, Noe kutxan saítu zan egun artaraño. ³⁹ Ta ugoldeak etoíi ta guziak eramán zitun arte, ez zuten igaí. Oírelakoa izango da

³⁴ **gizaldi au...** Andik beírogei urte baíu, 70 gaíren urtean emengo lenengo atalean esanak ziuí ziuí bete ziran.

³⁶ **iñork ez daki.** Begira Mk. XIII, 32.

Gizasemearen etoíera ere. ⁴⁰ Aloíean ordun bi gizon aurkituko dira; bata artu ta bestea utzia izango da; ⁴¹ bi emakume igaran eyotzen ari izango dira; bata artu ta bestea utzia izango da.

⁴² «Atzaí egon, ba, zuen Yauna zein egunetan etoítzeko danik ez dakizute-ta. ⁴³ Ori, bai, yakizute: lapuía zein gaualditan letoíken etxeko yaunak ba'leki, ernai legoke ta ez luke bere etxea zulatzen utziko. ⁴⁴ Beraz, gerturik egon zuek ere; ez dakizuten garayan Gizasemea ba-datoíke-ta. ⁴⁵ Zein da, ba, otsein zurí ta zintzoa, otsein guzien buru bere yaunak yaíia, azkuíia mugonez ayei emateko? ⁴⁶ Otsein zori ontsua, bere yaunak etoítzean oírela ari izaten lidorokena! ⁴⁷ Ziñez dasaizuet, bere ondasun guzien buru yaíiko du. ⁴⁸ Bañan alako otsein gaiztoak «nere nagusiak luzatzen dik» bere baitan ba'lesa, ⁴⁹ ta bere otseinkideak astintzen, ta mozkoítiekin yan-edaten asiko ba' liz, ⁵⁰ berak uste ez dun egunean ta ez dakin garayan etoíiko da alako otseíñaren nagusia, ⁵¹ ta abaíkatuko du, azalutsen saria damayola. Ango negaí ta ortz-kaíaska!»!

XXV

Neska ergelak ta guíbilak

Ordun zeru-yaureía, ezkonberíengana, kriselú bana arítuta, irten ziran amaí neska bezelakoa izango da. ² Ayetako bost, ergel ziran, ta bost, guíbil. ³ Bost ergelek, kriselúak arítuta, ez zuten oliorik, berekin artu;

⁴⁰ bata artu, au da, zorionerako autua, ta bestea utzia, au da, sulezerako.

⁴ gurbilek, ordea, kriseluekin olioa ere beren ontzietan artu zuten. ⁵ Senargayak luzatzen zula-ta, beriz, guziak logale ta lo ere gelditu ziran. ⁶ Baña gaberdian oyu egin zieten: ona senargaya; arengana irten zaitezte. ⁷ Neska guzi ayek ordun yaikita kriseluak atondu egin zituten. ⁸ Ta ergelek gurbilei esan zieten: zuen oliotik iguzute, gure kriseluak itzaltzen diyoazalako. ⁹ Baña gurbilek erantzun zieten: obe duzute saltzaleengana yoan ta zerontzat erosi; guretzat eta zuentzat gutxi izan ez dedin. ¹⁰ Erostera ziyoazan artean, beriz, senargaya etori zan, ta gerturik zeudenak ezteyeta saitu ziran, ta atea itxi egin zan. ¹¹ Azkenean beste neskak ere ba-datoz esanaz: yauna, yauna; iriki egiguzu. ¹² Bañan ark erantzun zien: zinez dasaizuet; ez zaituzt ezagun.

¹³ Atzari egon, ba, ez egunik ez garairik ez daki-zute-ta.

Talantak

¹⁴ «Berebat norbaitek, urutira yoaterakoan, bere mo-royak deituta, bere ondasunak utzi zizkien: ¹⁵ bati bost talanta eman zizkion, besteri bi, beste bati, beriz, bat bakaik, bakoitzaren antzeari zegokionez; ta berealaxe yoan zan. ¹⁶ Bost talanta artu zitunak, garazketara aye-kin yoanda, beste bost irabazi zitun. ¹⁷ Berebat, bi artu zitunak beste bi irabazi zitun. ¹⁸ Baña bat artu zunak yoan ta luia aitzurtuz, bere nagusiaren dirua ostendu

14... Urutira, zerura yoatekoa, Kisto gure Yauna zan; mo-royak, gu; talantak, onbidean ibilki, zerua irabazteko Arengandik ditugun, indar ta urgazi guziak; epe luze ori, gizadiarentzat, ludi-amairano-koa da, bakoitzarentzat, beriz, il arterano-koa.

egin zun. ¹⁹ Epe luze ondoren mo'oi ayen nagusia eto'ri ta a'remanak garbitzen ayekin ya'ri zan. ²⁰ Bost talanta a'rtu zitunak arganatu ta beste bost eka'ri zizkion, esanaz: Yauna, bost talanta utzi zenizkidan; o'ra beste bost nik irabazita. ²¹ Nagusiak esan zion: eup, mo'oi on ta zintzo ori, u'ritan zintzo izan zera-ta, yoritsutan buru ya'riko zaitut; zure nagusiaren pozetara sa' zaitez. ²² Bi talanta a'rtu zitunak ere arganatu ta esan zion: Yauna, bi talanta utzi zenizkidan; o'ra beste bi nik irabazita. ²³ Nagusiak esan zion: eup, mo'oi on ta zintzo ori, u'ritan zintzo izan zera-ta, yoritsutan buru ya'riko zaitut; zure nagusiaren pozetara sa' zaitez. ²⁴ Talanta bat a'rtu zunak, be'riz, arganatu ta esan zion: Yauna, ba-nekin zo'rotza zerala, erein ez duzun tokian ere itaitzeko, ta ba'eyatu ez duzun bertan ere biltzeko gizona. ²⁵ Beraz, beldu'rez, yoan nintzan ta lu'rpean zure talanta ostendu nun; zurea o' duzu. ²⁶ Ba'nan aren nagusiak yardetsi ta esan zion: mo'oi gaizto ta alpe' ori; erein ez dikadan bertan ere itaitzen, ta ba'eyatu ez dikadan bertan ere biltzen dikadala ba-ekikan gero. ²⁷ Ain zuzen ere, beraz, nere dirua dirulariei egotzi be'a' ien, ta nik, efo'rtzean, nerea irabaziarekin a'rtuko nikan. ²⁸ Beraz, talanta o'ri kendu ta ama' talanta dauzkanari emayozute. ²⁹ Daukanari emango baitzayo, ta yoritsu izango da; ez daukanari, be'riz, daukala dirudin ori ere kenduko zayo. ³⁰ Ta mo'oi alpe' ori atetiko iluntara yaurtazute. ¡Ango nega' ta ortz-ka'aska!

Azken epaya

31 Berebiziko ospetan Gizasemea bere aingeru guzietan etorritakoan, bere aulki ospetsuan eseriko da. 32 Ta eñi guziak Aren aurrean bilduko dira, ta elkarrengandik bereiziko ditu, ardiak akerrengandik artzayak bereizten ditun bezelaxe. 33 Ta ardiak bere eskui aldean ipiniko ditu; akerak, ordea, ezkerrekoan. 34 Ordun Yaunak bere eskui aldekoari esango die: Zatozte, ene Aitak onetsiok; eukazute ludiaren atxeretik gerturik dagokizuen yaurreia. 35 Gose nintzan, ba, ta yaten eman zenidaten; egañi nintzan, ta edaten eman zenidaten; arotz nintzan, ta etxera artu niñuzuten; 36 larugorri nengon, ta yantzi niñuzuten; gaxo, ta ikeri niñuzuten; giltzapean, ta Nigana etori zinatzen. 37 Zindoek ordun erantzungo diote, esanaz: Yauna, noiz gose ikusi ta inutu zinuazagun? noiz egañi, ta edaten eman genizun? 38 noiz arotz, ta etxera artu zinuazagun? edo noiz larugorri, ta yantzi zinuazagun? 39 Ala noiz gaxorik edo giltzapean Zu ikusita, Zugana etori giñan? 40 Ta Yaunak erantzungo die: Zinez dasaizuet: nere anai gaxoetako norbaiti orrelakoren bat egin zenioten bakoitzean, Neroni zenegidaten.

41 «Ezker aldekoari, beñiz, ordun esango die: Utikan Nigandik, gaiztetsiok, txerrenarentzat eta bere aingeruentzat gerturik dagon betiko sutara. 42 Gose nintzan, ba, ta ez zenidaten yatekorik eman; egañi nintzan, ta ez zenidaten edatekorik eman; 43 arotz nenbilan, ta ez niñuzuten etxera artu; larugoririk nengon, ta ez

niñuzuten yantzi; gaxorik eta giltzapean, ta ez zenidaten ikustaldirik egin. ⁴⁴ Ordun ayek erantzungo diote, esanaz: Yauna, noiz ikusi ziñuzagun gose, egañi, arótz, larugoñi, gaxorik edo giltzapean, ta ez gintzazkizun lagun etoñi? ⁴⁵ Ta Ark erantzungo die, esanaz; ziñez dasaizuet: orietako norbaiti oñela uts egiten zenioten bakoitzean, Neroni zenegidaten. ⁴⁶ Ta auek betiko oñazetara yoango dira; zindoak, ostera, betiko bizitzara».

XXVI

Azpisugea kirika

Itzaldiok bukatuta, Yesu'k bere ikasleei esan zien: ² Ba-dakizute Paska etzidamu dala ta Gizasemea gurutzerako salduko dala».

³ Garai artan apaizpuru ta eñiko zañak Kaipa zertizan apaiz nagusiaren yauregian bildu ziran, ⁴ ta elkar-ekin itundu ere, nola Yesu mañoz atzi ta ilko zuten. ⁵ «Ez, ordea, yayegunean», zioten, «zalapañtarik eñian soñ ez dedin».

Betani'ko oturuntza

⁶ Betani'n, Simon legenañdunaren etxean Yesu zala, maikidetzat zetzanean, ⁷ emakume batek, gantzuki edeña ontzian zekañela, arganatu ta buru gañetik ixurizion. ⁸ Ikasleak, beñiz, ori ikusita aseñetu ziran, esanaz: «Zertako bonbonkeri au? ⁹ Edeñki saldu ziteken, ba,

⁷ Emakume au Mari Malen zan, Laza'ren añeba ta Marta'ren aizpa. Beg. Yon, XI, 2.

ordaña landeíei emateko». ¹⁰ Baña Yesu'k adituta esan zien: «Zergatik emakume oni nekagaíi zatzazkiote? Niri oírek egiña, ondo egiña da. ¹¹ Landeíak, ba, beti dituzute zuekin; Ni, ordea, ez nauzute beti. ¹² Onek, beíriz, gantzuki au soñean ixuri didanean, ilobirako gertu nau. ¹³ Ziñez dasaizuet: luíalde guzietako bakoi-tzean Beíi On au aldaíikatuko danean, onek egin duna ere, beraren oroitzat, aipatuko dute».

¹⁴ Ordun amabietako batek, Yuda Iskariote zeri-tzanak, apaizpuruengana yoanda, ¹⁵ esan zien: «Zer eman nai didazute, ta nik eskuratuko dizuet?» Ta ayek ogei ta amar zilaíki eskeñi zizkioten. ¹⁶ Ta aírezkerotik, Bera ayei eskuratzeko abagune bila zebilan.

Azken Aparia

¹⁷ Lenbiziko Otil-egunean ikasleek Yesu'ri urbildu ta esan zioten: «Non nai duzu Paska atondu dezaizugun?» ¹⁸ Yesu'k dasaye: «Irira zoazte urliarengana, ta esayozute: Irakasleak dio: nere garaya urbil dago; nere Paska zurean egingo dut nere ikasleekin». ¹⁹ Ika-sleek Yesu'k agindu ziena egin zuten, ta baita Paska atondu ere.

²⁰ Ilunabaíean, beíriz, amabi ikasleekin zetzan; ²¹ ta aparitan zeudela, esan zien: «Ziñez dasaizuet: zuetako batek iruzur egingo dit». ²² Ta atsekabe aunditan bakoi-tza asi zan esaten: «Ni ote naiz, Yauna?» ²³ Berak eran-tzuki esan zun: «Eskua ératiluan Nerekin saítzen dun

¹⁵ Ogei ta amar zilaíki edo zilaírezko sikel. Ori oi zan yopu bat erosteko saria, sikel bakoitza, lau drakme ainbatekoa zala.

bat da salduko nauna. ²⁴ Izan ere, Gizasemea ba-doa Beratzaz idatzita dagonez; baña salduko duna, jori negarǵaǵia! Obe litzayoke alakoari yayo ez izana».

²⁵ Yuda'k, Bera saldu zunak, artetuz esan zion: «Rabbi, ni ote naiz?» Ta Yesu'k ari: «Zeroǵek esan duzu».

²⁶ Aparitan ari ziralala, ba, Yesu'k ogia aǵtu, onetsi ta puskatu zun, ta bere ikasleei eman zien esanaz: «Aǵtu ta yan; au da nere soña». ²⁷ Ta ontzia aǵturik, eskaǵ egin zun ta eman zien, esanaz: «Edazute ontatik guziok. ²⁸ Au da, ba, nere odola, Itun-odola, ogen asketserako askoren alde ixuriko dana. ²⁹ Ba-dasaizuet ere: ez dut gauǵgero iñoiz ere matsardo ontatik edango, beǵia nere Aitaren yaureǵian zuekin edango dudan egun artaraño».

Oliamendiruntz

³⁰ Ta eresia esanda, Oliamendiruntz irten ziran.

³¹ Ordun Yesu'k esan zien: «Guziok gau ontan tupustaǵi izango nauzute. Idatzita baitago: artzaya yoko dut, eta saldoko ardiak sakabanatuko dira.

³² Baña Nerau, beǵpiztuta gero, Galilai'ra auǵea artuko dizuet». ³³ Kepa'k, beǵiz, erantzuki, esan zion: «Guziok tupust eǵinaǵen, ez dut nik iñoiz ere eǵingo». ³⁴ Yesu'k esan zion: «Esan ere dasaizut: zeroǵek gauǵ bertan, olaǵak yo baño len, irutan ukatuko nauzu». ³⁵ Ta

²⁵ Zeroǵek esan duzu = oǵela da, zuk esan duzun bezela. Ori Yesu'k isilean erantzun zion, ta beste ikasleek ez zuten entzun.

²⁹ Ardo beǵi au, zeruko zori ona da, betiko apari aundian bezela, Yesu'ren yaǵaileei ematekoa.

³¹ Zak. XIII, 7.

Kepa'k Ari: «Zurekin il beárekotan ere, ez zaitut nik ukatuko». Ta orobat beste ikasleek ere esan zuten.

Getsemani'ko naigabea

36 Ordun Yesu'k Getsemani deritzan etxaldera aye-kin etoñi ta ikasleei esan zien: «Eseri emen, Ni aruntzago otoi egitera noan artean» 37 Eta Kepa ta Zebedai'ren bi semeak berekin eramanda, atsekabe ta lañizaten asi zan. 38 Ordun esan zien: «Iltzeko bezain lañidut biotza. Itxoin emen ta atzañi egon Nerekin». 39 Ta auéeraxeagoturik, auzpeztu zan otoiketari esaka: «Ene Aita, ontzi au, al ba'da, Nigana gabe biyoa; ez nere oldez, ordea, zurez baño». 40 Ta ikasleengana itzulita, lo yañugi zitun. Ta Kepa'ri dasayo: «Zer, ba, ordu bat ere Nerekin ernai ezin egon al zinaaten? 41 Zaudete ernai ta otoi egizute, axekaldira ez etoñtzeko. Gogoa, noski, pizkoñ dabil; aragia, ordea, erkin».

42 Beñiz ere yoan zan bigañen aldiz ta otoi egin zun, esanaz: «Aita, ontzi au, Nik edateke, ezin igaro ba'da, egin bedi zure gogoa». 43 Ta beñiz itzulita, lo yañugi zitun; ayen begiak astunduta zeudelako.

44 Ta ayek utzirik, beñiz yoan zan, ta irugañen aldiz otoi egin zun, lena beñiz esaten.

45 Gero ikasleengana itzuli ta esan zien: «Onezkero lo egizute ta atsedan egizute. Oñra, garaya eldu da, ta Gizasemea gaiztagiñei emana izango zaye. 46 Yaiki ta goazan. Oñra, urñildu da saldu nauna».

Yesu atzituta

47 Oraindik mintzo zala, ara Yuda, amabietako bat, eldu zan, ta arekin ezpata-makilaz gizapilo aundia, apaizpuru ta eriko zarak bidalita. 48 Yesu saldu zunak, beriz, ezagupide au eman zien: «Nik muin egingo diodana, uraxe da; atzazute». 49 Ta bereala Yesu' ganaturik, esan zion: «Agu' Rabbi», ta muin egin zion. 50 Yesu'k esan zion: «Adiskide, zertara zatoz?

Ordun urbildurik, Yesu atzeman ta oratu egin zuten. 51 Ta ara, Yesu'rekin zeudenetako batek, eskua luzatuz, ezpata atera zun, ta apaiz nagusiaren mo'oi bat yota, bela'ria moztu zion. 52 Ordun Yesu'k esan zion: «Ezpata zo'ora itzulazu; ezpataz ari diran guziak ezpataz galtzen baitira. 53 Uste al duzu nere Aitari ezin eskatu diodala? Berealaxe bidaliko lizkidake amabi aingerutalde ba'no geyago. 54 Ba'nan o'ela yazo be'ra dala dion idatzitakoa nola bete liteke? 55 Ordun Yesu'k gizataldeari esan zion: «Lapu' bila bezela, ezpata-makilaz irten zerate Ni atzematera. Egunero yauretxean eseri oi nintzan irakasten, ta ez ni'uzuten atzi. 56 Ba'na guzi au, iga'leek idatzia bete dedin, gertatu da».

Ordun ikasle guziek, Bera utzita, iges egin zuten.

Kaipa'renean

57 Ayek, beriz, Yesu atzirik, Kaipa apaiz nagusiarengana eraman zuten, idazlari ta zarak antxe bildurik zeudela. 58 Kepa ere urutitik zerayon apaiz nagusiaren

atariraño. Ta bañura sañtuta, moñoyekin eserita zegon, amaya ikusteko.

59 Bañan apaizpuruak eta batzar osoa Yesu'ren aurka zebiltzan gezuñezko aitor bila; 60 ta ez zuten ezer idoro, gezuñezko aitorlari asko aurkeztuañen. Azkenez, ordea, bik etoñi 61 ta esan zuten: «Onek esan du; Yainkoaren etxea poñokatu ta iru egun buruan beñeraiki dezaket». 62 Ordun apaiz nagusiak yaiki ta esan zion: «Oriek zure aurka aitorñzen dutenari, ez al diozu ezer erantzuten? 63 Baña Yesu isilik zegon. Ta apaiz nagusiak esan zion: «Yainko bizañen agintzen dizut, Kistoa, Yainkoaren Semea, ote zeran guri esateko», 64 Yesu'k diotsa: «Zeroñek esan duzu. Ba-dasaizuet ere: Gizasemea aurki dakuskezute Yainko altsuaren eskui aldean eserita ortzi-odeyetan etoñzen».

65 Ordun apaiz nagusiak bere yazkiak uratu zitun, esanaz: «Birao egin du. Zertarako aitorñik onezkero? Biraoa zerok ointxe entzun diozute. 66 Zer deritzazute?» Ta ayek erantzuki esan zuten: «Iltzeko ogendun da». 67 Onezkero aurpegira txuka, ta yoka, ta baita batzu ere matsalekoka asi zitzazkion, 68 esanaz: «Igañi iguk, Kisto, nork yo aukan».

Kepa'ren izpitzoak

69 Kepa, beñiz, andik alde zegon atarian eserita. Oñ ba, neskame batek alderatu ta esan zion: «I ere Yesu galilaitañarekin enbilan». 70 Baña Kepa'k uko egin zion, esanaz: «Ez zekiñat zer dionan ere». 71 Ta atartera ziyoala, beste neskame batek ikusi zun ta angoei esan

zien: «Ori ere Yesu Nazaretarekin zegokan». ⁷² Ta beñiro Kepa'k zin eginda ukatu zun: «Ezagun ere gizon ori ez zezagunat». ⁷³ Ta geroxeago, an zeudenek Kepa'ri urbildu ta esan zioten: «I ere ayetakoa aiz; ire mintzoerak berak agertzen au-ta». ⁷⁴ Ordun asi zan biraoka, gizon ura ezagun ez zula zin egiten.

Ta berealaxe ola'ak yo zun, ⁷⁵ ta Kepa oroitu zan Yesu'k berari esandako itz ayetzaz: «Ola'ak yo baño len, irutan ukatuko nauzu». Ta andik irtenda, samiñez nega' egin zun.

XXVII

Kaipa'rengandik Pilat'engana

Egundu ala, apaizpuru ta e'riko za' guziek Yesu'ren au'ka batza' egin zuten, Bera eriotzarako ematearen. ² Ta loturik eramanda, Ponti Pilat buruzagiari eman zioten.

Yuda'ren amaya

³ Yesu gaiztetsia izan zala Yuda'k, Bera saldu zunak, ikusitakoan, garbayak eraginda, ogei ta ama' zila'kiak apaizpuru ta za'ei itzuli zizkien, ⁴ esanaz: «Ogen egin dut, odol zintzoa salduz». Bañan ayek esan zioten: «Guri zer? Euk ikus». ⁵ Ta zila'kiak yauretxean yau'

² Yuduek Yesu gurutzatu nai zuten; gurutzeko eriotza, be'iz, ez zan yuduen artean gaiztagiñentzat erabiltzen, e'oma'fen artean baño. Argatik Pilat'engana yo zuten.

tirik, aldendu ta yoan zan, ta bere burua gargalez ito zun.

⁶ Apaizpuruek, beñiz, zilañkiak artu ezkerro, esan zuten: «Zilañkiok atabakan sartzea ez da zilegi, odol-sari diralako». ⁷ Bañan elkar itundurik, ayetaz buztinlariaren landa erosi zuten arotzen ildegitzat. ⁸ Argatik gauñdaño landa ark Hakeldama edo Odol-landa izenadu. ⁹ Ordun bete zan Yeremi igañleak esandako au:

**Ogei ta amañ zilañki artuz,
oñen merke salgai
Israel'en semeek izan baitzuten,
¹⁰ buztinlari baten zelai-saritzat ezañi zituten,
Yainkoak agindu zidanez.**

Pilat'enean: galdetaldia

¹¹ Yesu, ba, buruzagiaren auean azaldu zan, ta buruzagiak galde egin zion esanaz: «Yuduen bakalduna Zu al zaitut?» Yesu'k dasayo: Zeroñek diozu». ¹² Ta apaizpuru ta zañek salatua izan añen, ez zun ezer erantzun. ¹³ Ordun Pilat'ek dasayo: «Ez al dantzuzu zenbat aitoñ zure kaltetan dakañtenik?» ¹⁴ Itzik ez zion, ordea, ezertzaz erantzun, buruzagia guziz añiturik uzteko alakoan.

Yesu ala Baraba?

¹⁵ Paska-yayetan buruzagiak baitegiko bat, eñiak nai lukena, askatu oi zion. ¹⁶ Garai artan, ba, Baraba zeri-

⁹ Zak. XI, 13.

¹⁰ Yer. XXXII, 6-9.

tzan ots aundiko gaiztagin bat baitegian zeukan. ¹⁷ Beraz, eía bildurik, Pilat'ek esan zien: «Zein nai duzute askatu dezaizuedan? Baraba, ala Kistoa omen dan Yesu?»

¹⁸ Inartxiz eman ziotela baitzekin.

¹⁹ Ebaztaulkian ura eserita zegola, beñiz, bere emazteak gezna bidali zion, esanaz: «Ez nasi oñako zindo oñen arazotan; axanpa asko ametsetan beragatik gauñ izan ditut-eta».

²⁰ Bañan apaizpuru ta zañek eía limuñtu zuten, Baraba eskatzeko ta Yesu galtzeko. ²¹ Buruzagiak, beñiz, yardetsi ta esan zien: «Biotako zein nai duzute zuei askatzea?» Ta ayek esan zuten: «Baraba». ²² Pilat'ek dasaye: «Zer egingo diot, ba, Kistoa omen dan Yesu'ri?» «Gurutzera ori», diote guziek. ²³ «Zertan ogen egin du, ba?» buruzagiak dasaye. Bañan ayek areago oyu zegiten, esanaz: «Gurutzera ori».

²⁴ Pilat'ek, ba, ezer iristen ez zula, ta zalapañta, beñiz, geituz ziyoala ikusirik, ura erakañita, eskuak eñiaren auñean ikuzi zitun, esanaz: «Zindo onen odolarekiko ogenik gabe naiz; zerok ikus». ²⁵ Ta eñi osoak erantzunik esan zun: «Geron ta gure semeen gain oñen odola».

²⁶ Ordun Baraba askatu; Yesu, ordea, zigoñkatu ondoan, gurutzatua izan zedin, eman zien.

Arantzazko buruntza

²⁷ Ordun buruzagiaren gudamutilek, gudaletxera Yesu añturik, gudatalde osoa Arengana bildu zuten,

²⁸ ta Bera erantzirik, estalki goñi bat yantzi zioten. ²⁹ Baita arantzaz buruntza bat eyorik, buruan ezañi zioten ta seska bat eskuyan. Onezkero, Aren auñean belaunikaturik, ixekaz ziotsaten: «Aguñ yuduen bakal-dun». ³⁰ Ta Ari lixtukatuz, seska kendu zioten ta buruan zerauntsaten. ³¹ Oñela ixekatu ondoan, estalkia erantzi ta bere yazkiak yañi zizkioten ta gurutzatua izateko atera zuten.

Gurutzaldia

³² Irtetean, Simon zeritzan Kirenai'ko gizon bat yañugi ta Aren gurutza eramateko akuratu zuten. ³³ Ta Golgota edo Garezuñtegi deritzan tokira eldutakoan, ³⁴ ardo-beazuna edaten eman zioten. Baña murtxatu ala, ez zun edan nai izan.

³⁵ Yesu gurutzatu ondoan, beñiz, Aren yazkiak, zotz egiñik, elkañi banatu zizkioten. ³⁶ Ta an zeuden eseririk Bera zaitzen.

³⁷ Aren ogen-agiria ere burua baño gorago idatzita ezañi zioten: «AU DA YESU NAZARETAÑA, YUDUEN BAKALDUNA».

³⁸ Ordun Arekin lapuñ bi gurutzatu zituten; bata, eskui aldean, ta bestea ezkerkoan.

³⁹ Igarotzen ziranek, beñiz, burbuñoka biraokatu ⁴⁰ ta esaten zioten: «yauretxea poñokatu ta iru egun buruan beñeraikitzen dukan ori; ire burua yaregik. Yainkoaren Seme ba'aiz. guruzetik yetxi adi». ⁴¹ Berebat apaizpuru, idazlari ta zañek zerasaten: ⁴² «Besteak

³⁵ Er. XXI, 19.

yaregin ditu; bere burua ezin. Israel'en Yaun da: gurutzetik orain yetxi bedi, ta siñetsiko diogu. 43 Yainkoa bere alde uste zun: Yainkoak yaregin beza orain, maite ba'du; Yainkoaren Seme naiz, zion-eta». 44 Arekin gurutzaturik zeuden lapuñek ere oñela irain zegoten.

45 Seiretatik bederatziak arte luñ osoa iluntan gelditu zan. 46 Ta bederatziak aldean, Yesu'k deadañ aundiz ots egin zun, esanaz: «Eli, Eli, lamma sabachtani?» edo «Ene Yainkoa, ene Yainkoa, zergatik zapuztu nauzu?» 47 Ori entzunda an zeuden batzuk zerasaten: «Eli'ri deika zegok ori». 48 Ta berealaxe ayetako batek atxintxi egiñik, oragun bat arñtu ta ozpiñez uyelduta, seska-erpiñean yañi zun ta edaten eman zion. 49 Andarakoek, beñiz, zerasaten: «Zekuskagun yaregiteko Eli ote zetoñkiokan».

50 Baña Yesu'k ozengi beñiro ots egiñik, azken atsa atera zun.

51 Ta ara, yauretxeko estalkia goitik bera erdibitu ta luña ikaraz asi zan, ta añiak puskatu, 52 ilobiak iriki, ta ildako zintzoen soin asko piztu ziran; 53 baita, Yesu beñpiztuta gero, iri deunera etoñi ziran ta ainitzei ageri izan zitzazkien. 54 Euntariak eta arekin Yesu zaitzen zeudenek, beñiz, gertatzen ziranak ikusirik, guziz izututa zerasaten: «Yainkoaren Seme ukan ziñez ori».

55 Emakume asko ere an zeuden uruntxetik begira, Yesu'ren ondoren mirabetzat Galilai'tik etoñiak. 56 Ayen

45 Beg. Mt. XIV 25 ta XX 3.

46 Er. XXI, 2.

artean Mari Malen, ta Yakob'en ta Yose'ren ama Mari, ta Zebedai'ren semeen ama, aurkitzen ziran.

Yesu'ren eorzipena

⁵⁷ Arastu zanean, Yose zeritzan Arimatai'ko gizon aberats bat etoñi zan; bera ere Yesu'ren ikasle. ⁵⁸ Onek Pilat'engana alderatu ta Yesu'ren soña eskatu zion. Ta Pilat'ek emateko agindu zun. ⁵⁹ Yose'k, ba, soña arturik, izara garbi batez bildu, ⁶⁰ ta berak aitzean ebakitako bere ilobi beñian eortzi zun, ta obi-aoari arkaitz bat piringilan ezañirik, yoan zan. ⁶¹ Mari Malen, beñiz, ta beste Mari ura antxe zeuden ilobiaren aurkez eserita.

Paraskebe urenean

⁶² Biaramunean, apaizpuru ta parisaita'ak Pilat'engana bildu ziran, ⁶³ esanaz: «Yauna, oroitu gera iruzuñti ark, oraindik bizi zalarik, esan zula: iru egun bañu beñipiztuko naiz. ⁶⁴ Agindu ezazu, beraz, ilobia iruga'ren eguneraño zaitzea. Aren ikasleak etoñi ez ditezan, ta soña ostuz, eñiari ez dasayoten: piztu da il artetik. Azkeneko iruzuñ ori, lengoa baño gaitzagoa liteke-ta». ⁶⁵ Pilat'ek erantzun zien: «Zaitaldea or' duzute; zoazte, ta, dakizutenez, yagozute». ⁶⁶ Yoan ziran, ba, ta ila'ria zildaitatz, yagoleen zaipean ilobia yañi zuten.

⁶² **Paraskebe.** Larunbatean yuduei lan bat ere zilegi ez zitzayela-ta, ostiralean biaramuneko biañá gertu oi zuten. Argatik ayenean ostirala, gerteguna, edo eladeraz paraskebe zeritzan.

XXVIII

Yesu berpiztuta

Larunbateko arátsa lenbiziko astegunean goizabaítu zanean, Mari Malen ta beste Mari ura ilobia ikusterá etoíri ziran. ² Ta ara, luíikara aundia soítuz, Yaunaren aingerua zerutik yetxi zan, ta araturik, arkaitza irauli zun, ta aren gañean eseri zan. ³ Aren aurpegiak tximista zirudin, ta aren soñekoa eluía bezain zuria zan. ⁴ Yagoleak aren belduéz laíi-ikara ta ilda bezela gelditu ziran.

⁵ Aingeruak, beríz, emakumeei zerauskiela, esan zien: «Ez belduí izan; gurutzatua izan dan Yesu'ren bila zatoztela baitakit. ⁶ Ez dago emen; Berak esan zunez, piztu da-ta. Zatozte ta ikusazute Yauna zetzan tokia. ⁷ Ta zoazte azkaí Aren ikasleei esatera: piztu da il artetik, eta Galilai'ra aureratzen zaizue; an ikusiko duzute. Oía auretik Nik esanda».

⁸ Ordun ayek, belduí ta poz aundiz, ilobitik lasteí irten ziran, beíia ikasleei azkaí ekaítzera. ⁹ Ta oía, Yesu aurkeztu zitzayen, ezanaz: «Aguí». Ayek, beríz, urbildu zitzazkion, ta oñak laztanduz, yauretsi egin zuten. ¹⁰ Ordun Yesu'k esan zien: «Ez belduí izan; zoazte, ta nere anayei esayezute Galilai'ra yoateko; an nakusteke».

Apaizpuruen mañoak

¹¹ Emakumeak yoandakoan, zaitaldeko batzuk irira etoñi ta yazoa apaizpuruei azaldu zieten. ¹² Auek, beñiz, zañekin bildu ta itundu ezkeru, dirua soñean gudamutil ayei eman zieten, ¹³ esanaz: «Esazute: aren ikasleek gauez, gu lo geundela, etoñi ta Aren soña ostu dute. ¹⁴ Ta buruzagiak ori ba'lentzu gerok limuñtuko dugu ta kalterik gabe aterako zaituzagu». ¹⁵ Ayek dirua arñtuta irakatsi zieten, egin zuten. Ta gauñdaño ere suñmuñ au yuduen artean bañeyatuta dago.

Yesu'k bidaliei egotzitako eginbeña

¹⁶ Amaika ikasleak, beñiz, Galilai'ra yoan ziran, Yesu'k adirazi izan zien mendira. ¹⁷ Ta Bera ikusirik, yauretsi egin zuten. Batzu, ordea, enuxu banuxu zeuden.

¹⁸ Ta Yesu'k urñbildurik, itz egin zien, esanaz: «Zeru-luñetan al izate guzia emana izan zait. ¹⁹ Zoazte, beraz, ta eñi guziei irakaskiezute, Aitaren ta Semearen eta Goteunaren izenean ukuziz, ²⁰ ta agindu dizuedan guziak betetzen erakutsiz. Ta ara, Neu zuekin nago egun oro aldi-amairaño».

YESU KISTO'REN
BEÍ ONA
MARK DEUNAK DAKÁRENEZ

MARK Deuna, BIDALIEN EGIÑAK idaztian (XII, 12, 25; XV, 37), Yon Mark, eta Paul'en idazkietan Mark, besterik gabe, deritzana (Kol. IV, 20; Pil. XXIV, 2, Tim. IV, 11), yudua zan ta Barnaba Deunaren lengusua, (Kol. IV, 10), ta Kepa'ren ikasle ta entzule maitea (Kep. I-V, 13). Barnaba'rekin, Paul'en lenbiziko ibiltaldian Ebaingeria zabaldua gero, Panpil'ko Perge'n gelditu ta Yerusalen'a itzuli zan (Bid. XIII, 5, 13). Geroago, Eróma'n Paul'ekin agertzen zaigu (Kol. IV, 10), ta uréna, bai Kepa'rekin ere. Kepa'k seme izen gozoa ematen dio (Kep. I-V, 13), berak batiatu zulako. Ta Kepa'ri entzuna idazti ontan ezari zun ezker, Mark'en Ebaingeria sari Kepa'rena ere deitu oi zan. Ta sakon aztertzen ba'dugu, noski, Kepa'ren azarna ugari dakuskegu. Labur ta oso biziro darakuskigu Yesu Yainko dala, ta izaki guzien, baita txerenen ere, yabe dala. Emen, Kepa'ri goragara'i litzayoken guzia isilduta, aren ukoak eta gañerako utsak, garbi aitortzen dira. Eróma'n bertan 44g. urtean edo, Luka'rena baño len, beintzat, Ebaingeri au agertu zan.

I

Yon Ukuzlea

Yainkoaren Seme dan Yesu Kisto'ren Beí Onaren asiera. ² Isai Igarleak idatzita dago:

«Ara, nere aingerua bidaltzen dizut,
bidea zure auretik gertu dezaizun.

² Oyuz dago basoan, ta aren mintzoa au da:
Aren zirkuak zuzen itzazute.

⁴ Itzok beterik. basoan Yon azaldu zan ukuzten, ta ogen-askatzerako garbai-ukuzpena aldarikatzen. ⁵ Ta

⁴ Basoan, au da, Yudaiko ermuan.

Yudaí osoa ta yerusalendaí guziak arengana irteten ziran, ta, beren ogenak aitoítuz, Yordan ibayean ukuzpena arengandik aítzen zuten. ⁶ Ta Yon gamelu-ilez yantzia zebilan, ta geíuntzean laú-geíko bat zekaíen; ta aren yanaria txaiskuíak eta baseztia ziran. ⁷ Ta aldaíka zion: Nere ondoren ba-datoí ni baño indaítzuagoa; ta Aren oñetako ugala auzpezturik askatzeko ez naiz ni nor. ⁸ Nik urez ukuzi zaituzt; Berak, ordea, Goteunez ukuziko zaituz».

⁹ Or, ba, alako egunen batean Galilai'ko Nazaret'etik Yesu etoí ta Yon'ek Yordan'en ukuzia izan zan. ¹⁰ Ta berealaxe uretatik irtenda, ortzia uraturik ikusi zun, ta Atsa uso-irudiz Beragana yeixten. ¹¹ Ta ortzitik mintzo au soítu zan: «Zu zera atsegin zatzazkidan nere Seme kutuna».

¹² Ta bereala Atsak basora bultzatu zun. ¹³ Ta beíogeí egun basoan egon zan iúziekin, Satan'ek zirikatuta. Aingeruak, beíiz, moíoi zetozkion.

Lenbiziko ikasleak

¹⁴ Yon atzi zuten ezkerro, Yesu Galilai'ra etoí zan, Yainkoaren yauraldia aldaíkatuz ¹⁵ ta esanaz: «Epea bete da; Yainkoaren yauraldia urbíldu da; garbai izan zaitezte, ta Beíi Ona siñetsazute».

¹⁶ Ta Galilai'ko itxasondoan igarotzean, Simon ta Ander, aren anaya, ikusi zitun sareak itxasora botatzen; aíantzale baitziran. ¹⁷ Ta Yesu'k esan zien: Zatozte ene

⁸ Beg. Mat. III, 11, ta III, 12.

¹² Beg. Mat. IV, 1.

ondotik, eta Nik gizañantzale egingo zaituzt». ¹⁸ Ta bertan sareak utzita, yañai zitzazkion.

¹⁹ Apur bat andik auñeratuz, Yakob Zebedai'rena ta Yon, aren anaya, ikusi zitun, auek ere ontzian sareak atontzen. ²⁰ Ta bereala dei egin zien. Ta ayek, ontzian aita Zebedai otseñekin utzirik, yañai zitzazkion.

Kaparnaun'go txerenduna

²¹ Kaparnaun'a ba-datoz, ta larunbatera orduko sinagogan sañtuta, irakasten ari zan. ²² Ta Aren irakasteaz soñ zeuden; eskudunari dagokionez baitzerakaskien; ez idazlariek bezela.

²³ Ayen sinagogan, ain zuzen ere, gizon batek, txerén satsua beregan zeukala, deadañ egin zun; ²⁴ esanaz: «Yesu Nazaretañ ori; guri ta zuri zer? gu galtzeko etoñi al zera? Ba-dakit nor zeran; Yainkoaren Deuna». ²⁵ Yesu'k larderiatu zun, esanaz: «Isilik ago, ta onengandik irten adi». ²⁶ Ta txerén satsua gizona iñarósiz ta oño aundi egiñaz, argandik irten zan. ²⁷ Ta guziek añtuta elkañi galdeka zerasayoten: ¿Zer duk au? Zelako ikaspiderik duk beñi au? Txerenei berei aginbidez agindu egiten ziek, ba, ta ayek men egiten ziotek». ²⁸ Ta Aren aipua Galilai alde orotara laster eldu zan.

21 Sinagogan, beg. Mat. IV, 23.

22 Idazlariek- gauñ ere aldi artako idaztietan ikusi genezaken bezela, kokolotasun aundietan sañtuta, beti eztabaidan zebiltzan. «Emen eñabi edo maixu Yakob'ek au dio; bañan eñabi Benyamiñ'ek bestea: eta eñabi Yuda eskumatik ba'diyoa, eñabi Toma'k ezkeretara yotzen du. Erditik yoateko ziur ezer ez dakigu». Betikoa. Yesu'k bakañik esan dezake: NIK dasaizuet; NI naiz EGIA. Ta Aren izenian Eleizak ere bai. Beste guziak, gizon diranez, gezuñti dira.

24, 25 Ez zun nai Yesu'k txerén edo deabruen aitoña.

Simon'enean

²⁹ Ta bereala sinagogatik irtenda, Simon ta Ander'en etxera Yakob eta Yon'ekin etoñi zan. ³⁰ Simon'en amagiañeba sukañez zetzan, ta bereala guziek artzaz darauskiote. ³¹ Yesu'k, urbildurik, eskutik arñtu ta eraiki zun; ta bertantxe sukañak utzi zun, ta mirabe-lanetan emakumea asi zitzayen.

³² Aratsaldean, eguzkia etzandakoan, eri ta txerendun guziak zekazkioten, ³³ ta eñi osoa ataldean bilduta zegon. ³⁴ Berak askotariko miñez zeuden asko sendatu zitun, ta txerñ asko iraitzi ere. Eraustea zeragozkien, ordea, Bera nor zan ba-zekitelako.

Galilain'n baña: legenañduna

³⁵ Goizauñeko arats miñean yaikita, basora yoan zan, ta an zegon otoiketean. ³⁶ Simon ta Simon'ekin zeudenak Aren bila irten ziran, ³⁷ ta idoro zutenean, esan zioten: «Guziak zure bila dabilta». ³⁸ Ark dasaye: Goazan emendik auzoko irietara, an ere aldañi dagidan; oñtarako etoñi naiz-ta». ³⁹ Izan ere, ayen sinagogetara Galilai osoan baña yoan zan, aldañi egiten ta txerñak iraitzen.

⁴⁰ Ta legenañdun batek, arenez arganatu ta belaunikaturik, esan zion: «Nai ba'duzu, garbitu nazakezu», ⁴¹ Yesu'k artzaz erukiturik, eskua auñeratu ta esan zion: «Nai dut; garbi izan zaitez». ⁴² Yesu'k ori esan orduko, legenaña aldendu ta gizona garbi egin zan. ⁴³ Ta berea-

la Yesu'k igorí zun, larderiaz ⁴⁴ ziotsala: «Begira gero; ez inori esan; zoaz, ordea, apaizari aurkezteko, ta Mois'ek erabakitakoa zure garbikuntzagatik eskeñiozu, aitoítzat izan dakien. ⁴⁵ Baña yoan zaneko, asi zan esatekoak esaten ta yazoa zabaltzen. Ta aiezkerok irian Yesu ezin ziteken agirian sartu, ta basaldetan zegon; ta edonondik Arengana ziyoazan.

II

Elbañiduna

Zenbait egunen buruan Kaparnaun'en beñiro sartu zan. Ta etxean zegola adituta, ² lagunak eruz ara bildu ziran, atauréan ere ezin egoteko añean; ta mintzo egiten zitzayen.

³ Ta ara, lagun batzu datoz, elbañidun bat, lau gizonak eroana, Arengana ekañtzen. ⁴ Ta gizataldeañen Ari urbildu eziñik, zegon aldeko sapaya zulatuta elbañidun zetzan zeñaldoa zulotik eratxi zuten. ⁵ Yesu'k ayen siñestea ikusirik, elbañidunari esan zion: «Seme, zure ogenak askesten zaskizu». ⁶ Idazlari batzu eserita an zeuden, ordea, beren biotzean asmatzen: ⁷ «Zer zioke oñek? Birao zegik. Yainkoa izan ezik, ogenak nork asketsi al zetik?» ⁸ Oñela ayek asmatzen ari zirala Yesu'k

⁴⁴ Aitoítzat... Zure garbikuntza edo sendakizuna izango zaye zein naizen ikusteko aitoña.

⁴ Sapaya, au da, etxegañekoa... apala izaten da Soñtaldean, buztin gogoñtuaz, ta abañez ta oñi belañez estalduta; eskilarak inoiz bañutik ere ba-ziran, sañago kanpotik, etxeko alderditik. Igo ziran, ba, kanpotik, etxea bañutik bete zegola.

bere argiz ezagunda, dasaye: «Zer ari zerate orelakorik gogoan erabiltzen? ⁹ ¿Zer da erazago? «ogenak askesten zazkizu» elbañidunari esatea, ala «yaiki, zure zeñaldoa artu ta zoaz» esatea? ¹⁰ Beraz, ogenak luñgañean asketeko eskubidea Gizasemeak daukala dakizutentzat, (elbañidunari dasayo). ¹¹ «Nik dasaizut: yaiki, zeñaldoa artu ta etxera zoaz». ¹² Ta bertantxe gizonak yaiki ta zeñaldoa arturik, yoan zan. Ordun arituta guziek Yainkoa goratzen zuten, esanaz: «Iñoiz ere ez dikagu orelakorik ikusi».

Lebi deituta

¹³ Beñiro itxasalderuntz irten zan, ta gizatalde osoa Arengana ziyoan, ta Bera irakasten ari zitzayen. ¹⁴ Iraizean, Lebi Alpai'rena zergategi ondoan eserita ikusi zun, ta esan zion: «Zañraizkit». Eta ura yaiki ta yañai zitzayon. ¹⁵ Ta ara, arenean bazkaltzen zegola, zergari ta gizatxañ asko Yesu'rekin ta Aren ikasleekin maikide zeuntzan; asko baitziran zeñraizkionak. ¹⁶ Zergari ta gizatxañekin bazkaltzen ikusitakoan, idazlari ta parisaitañek Aren ikasleei zerasayeten: «Zergatik zuen irakaslea zergari ta gizatxañekin yan-edaten dago?» ¹⁷ Yesu'k au adituta esan zien: «Ez dute sendoek sendagin beañik, gaxo daudenek baño. Ez natzaye zintzoei deika etoñi, ogendunei baño».

¹³ Lebi, beste izenez Matai

¹⁷ Osagile edo sendagiñak, osagile dan aldetik, zer egiñik ez luke, guziak sendo ta osasuntsu ba'leude.

Baruaz

¹⁸ Yon'en ikasleak ta parisaita'ak baruetan zeuden, ta Arengana eto'irik, dasayote: «Zergatik Yon'en ikasleek eta parisaita'enek baru egiten dute; zure ikasleek, be'iz, ez dute baru egiten?» ¹⁹ Ta Yesu'k esan zien: «Baru egin ote dezakete eztei-lagunek, ezkonbe'ria aye-kin dago'no?. Ez; baru ezin dagikete, ezkonbe'ria berekin dute'no. ²⁰ Ezkonbe'ria aldenduko zayen egunak bada-tozke; ordun, bai, egun artan baru egingo dute.

²¹ So'neko za'ari i'ork ez dio oyal zalezko zatalik yosten; bestela, eraskin o'rek oyal za'ra za'ratatzen du, ta etena areagotzen da. ²² Berebat, zaragi za'etan i'ork ez du ardo be'irik ipintzen; bestela zaragiak ardoa'ren le'r-tzen dira, ta bai ardoa baita zaragiak ere galtzen; zaragi be'itan, ordea, ardo be'ria ipi'ni be'ra da».

Larunbatz

²³ Ereintzetan ba'na larunbatean ziyoala, Aren ikasleak asi ziran galburuak bidenaba' itzintzen. ²⁴ Ta parisaita'ek esan zuten: «Begira, zer dala-ta dagite larunbatean zilegi ez dana?» ²⁵ Berak dasaye: «Ez al duzute i'noiz iraku'i Dabid'ek be'a'aldian zer egin zun, bera ta arekin zeudenak gose izan ziranean? ²⁶ ¿nola apaiz nagusi Abiatar'en egunetan, Yainkoaren etxean sa'rtu

19, 20, 21... **Ezkonbe'ria**, Yesus zan; bere emaztea, Eleiza; Eleiza emaztetzat artzeko eto'i zan Yesu; orain, Yesu bizi dan artean, ezteyak dira. Yesu ildakoan, ikasleak baru egingo dute, au da, estutasunean biziko dira, Yesu'gatik odola ixuri artera'no.

zan, ta apaizek baizik, inork ere ezin yan zitzaken eskein-ogiak yan zitun, ta berarekin zeudenei eman zizkien?»
 27 Esan ere zesayen: «Larunbata gizonañen egiña da: ez, ostera, larunbatañen gizona. 28 Beraz, Gizasemea larunbataren ere Yaun da».

III

Larunbataz beñiro: esku-igaña

Beste bein ere sinagogan sartu zan, ta esku-igañ bat zegon an. 2 Ta larunbatean sendatuko ote zunentz, Arengana adi adi zeuden, Bera salatzeke. 3 Ta esku-igañari esan zion: «Yaiki erdira». 4 Ta angoei dasaye: «Larunbatean on ala kalte egitea da zilegi? inor gaizkatzea ala galtzea?» Ayek tutik ere ez. 5 Ordun ayetara aseréz so egiñik, eta ayen biotz-gogoñkeriañen goibeldurik, gizonari diotsa: «Zabaldu esku ori». Ark zabaldu zun ta eskua sendatu egin zitzayen.

6 Parisaitañak irtenda lasteñ, Erode'tañekin itundu ziran Yesu'ri buruz, Bera galtzeko.

7 Baña Yesu bere ikasleekin itxasoruntz bazteñtu zan. Ta gizatalde aundia Galilai'tik yañai zitzayon. 8 Baita Yerusalen'dik ere, ta Idumai'tik, Yordan aruzkotik eta Tir eta Sidon aldeetatik samaldaka ziyoazan Arengana, zegiña entzunik. 9 Ta gizataldeañen, ontzizka bat beretzat gerturik izateko ikasleei esan zien, lardakatu ez zezaten. 10 Lagun asko sendatzen zitula-ta, gaxo zeuden guziak oldañean zetozkiolako, Bera ikutu nairik.

¹¹ Eta txerén satsuek, Bera zekustenean, auspeztuta oyu zegoten, esanaz: «Yainkoaren Semea zera Zu». ¹² Ta zoórozki larderiatzen zitun bere beírik zabaldu ez zezaten.

Amabi bidalien aukera

¹³ Ta mendira igorik, nai izan zitunak Beregana deitu zitun, ta Arengana etoíi ziran. ¹⁴ Ta amabi berezi zitun Berekin egon zitezán, aldaíketara ¹⁵ ta txerénak aginbidez iráiztera bidaliak izateko. ¹⁶ Ara bidalitzat berezitako amabiak: Simon (ta oni Kepa izena ezaí zion), ¹⁷ Yakob Zebedai'rena, Yakob'en anai Yon (bioi Boanerges, edo berdin dana, Yuzturi-seme izena ezaí zien), ¹⁸ Ander, Pilipe, Bartolomai, Toma, Yakob Alpai'rena, Tadaí, Simon Kananai'koa, ¹⁹ ta Yuda Iskariot, Bera saldu zuna.

Idazlarien zitalkeria

²⁰ Ba-datoz etxera, ta bertara beíz gizataldea bildu zan, otastirik ere uzten ez ziela. ²¹ Beretaíak entzunda, Artaz yabetzeko irten ziran, «burutik egiña duk», baitzioten. ²² Yerusalen'dik yetxitako idazlariék ere «Beelzebul dauka» zioten, «ta txerén nagusiaren egitez txerénak iráizten ditu». ²³ Yesu'k deitu zitun ta alegitan esan zien: «Nola Satan Satan'ek iraitzi lezake? ²⁴ Alderdikerritan urátutako eía, ezin dagoken eí da. ²⁵ Alderdikerritan urátutako etxea, ezin dagoken etxe da. ²⁶ Berebat Satan bere aurka biuí ta ari ba'da, ezin dagoke, ta arenak egin du. ²⁷ Ez da, beíz, indaítsuaren etxean

saítuta atuxak ostu dezazkiokenik, indaítsua lenik lotu gabe: aírezkero, bai, etxea ustu dezayoke.

²⁸ Ziñez dasaizuet: ogenak oro asketsiak izango zazkie gizakumeei, baita legizketen birao guziak ere. ²⁹ Baña Goteunaren aurka birao legikenak ez du askespenik iñoiz ere izango, ta betiko ogenez ogendun izango da».

³⁰ «Txerén zeukak» baitzioten.

Yesu'ren Ama-senideak

³¹ Ordun ba-datoz Aren Ama-senideak, eta lekorean gelditurik, Ari deika mezu dagońkiote. ³² Ta gizataldea baranoan eserita zegola, dasayote: «Ara, lekorean dituzu Ama-senideak zure zai». ³³ Ta ayei erantzuki, esan zun: «Nor dut Nik ama, ta nor ditut senideak? ³⁴ Eta inguruan eserita zeudenei so egiñik, esan zien: «Ona emen nere ama ta nere senideak. ³⁵ Izan ere, Yainkoaren gogoa egiten duna, orixe dut anai, ańeba ta ama».

IV

Ereilea

Ta beńiro asi zan itxasondoan irakasten. Baña gizatalde aundia bildu baitzitzayon, ontzira igo ta itxasoan eseri zan; gizatalde osoa, beńiz, uregiko legońean zegon. ² Ta alegitan irakaspén asko zegizkien, ta bere irakastaldian zesayen:

³¹ Beg. Mat. XII, 46

«3 Entzuzute: ereile bat ereitera irten zan. 4 Ta ereitean, azi batzu bide ondoan yalki ziran, ta egaztiek etoñi ta yan egin zituten. 5 Beste batzu luía ugari ez zan añitartean yalkita, laster erne ziran, luíak mamirik ez zulako. 6 Bañan eguzkia soñtu zanean, eñe egin ziran, ta eñorik ez baitzuten, igarñtu ere bai. 7 Bestetzu arantzartean yalki ziran, ta arantzak aundi egin ziranean, alerik ekañtzeke ito egin ziran. 8 Besteak, beñiz, luíonean yalki ziran, ta garatu ta azkoñtuz, ale ekañi zuten, batzuk ogei ta amañ, bestetzuk irurogei, ta beste batzuk eun». 9 Ta esan zien: «Entzuteko belañirik dunak, hentzu».

Alegi onen mamia

¹⁰ Bakañik gelditu zanean, amabiekin ondoan oi zebilzkionek alegiaz galde zegioten. ¹¹ Ta esan zien: «Zuek Yainkoaren eñibañne ostena ezaguteko aukeratuak zerate; besteei, ostera, atzekoei, dana alegitan adirazten zaye,

¹² «**dakustena ikustez uleñtzeke,
ta dantzutena entzutez aditzeke,
atzera iñoiz egin ta ogen-asketsik iritsi**

[**ez dezaten**».

¹³ Onezkero dasaye: «Alegi au ez duzute igarñtzen? Alegi guziak nola igarñiko dituzute, beraz? ¹⁴ Ereileak itza darei. ¹⁵ Bide ondokoak dira, ereiten zayen itza dantzutenekoxe, Satan'ek etoñita ayen biotzetan ereindako

¹² Au da, Yaunaren itza entzun añen, ez diote berari erantzungo. Ta auxe da auñetik Igarleak ikusi ta nabari zuna.

itza erazten dienak. ¹⁶ Aritartean ereindakoak dira berebat, itza dantzuteneko pozik artzen dutenak; ¹⁷ bañan eñorik gabe ta koloka baitira, atsekabe edo yazaña sórtu orduko, sayesten dira. ¹⁸ Bestetzu dira arantzartean ereinak. Auek dira itza entzun dutenak; ¹⁹ baña gizarteko arazoak eta aberastasun-lilurak, eta osterantzeko iritsak sartzen zazkiela, itza ito ta alerik gabe gelditzen zaye. ²⁰ Luí onean ereinak dira, beñiz, itza entzun ta artzen dutela, ale dakañtenak, ogei ta amaña, irurogeina ta eunbana.

Alegi txorta bat

²¹ Ta zesayen: «Kriselua lakaripean edo oe azpian ipintzeko ote dakañte, ala argimutil gañean ipintzeko? ²² Ez baitago ostenik ezer ere, ageriko ez danik; ezta itzalpekorik ere, argitara ez datoñkenik. ²³ Entzuteko belañirik iñork ba'du, bentzu».

²⁴ Ta zesayen: «Gomazute zer dantzuzuten. Neuñtu zenuketen neuñiz, neuñtuko zaizue dantzuzutenoí, ta gañezka gero. ²⁵ Dunari emango baitzayo, ta ez dunari, duna ere kendu».

²⁶ Berebat zion: «Yainkoaren yaureña, ta gizonak luñean ereindako azia, idekotsu dira. ²⁷ Gizona gau-egun lo ta yaiki bitartean, azia erne ta azten doa aren isilean. ²⁸ Luñak berez dakañ, ba, lenbizi belaña, uñena burua, gero buruan ale betea. ²⁹ Zitua eldutakoan, beñiz, gizona itayez laster datoñ, uztaroa dalako».

21... Isilean entzuten duzutena, ludi guzira zabaldu beañko da; zuek ludiaren argi zeratelako.

29 Beg. Mat. XII, 31-34

30 Ta ziotsen: «Zerekin berdinduko dugu Yainkoaren eña? edo, zein alegitan generakuske? 31 Yebenazia bezelakoa da. Azi au, luéan ereiten danean, luéko azirik txena da. 32 Baña ereinda gero, gora datoí, ta barazkirik aundiena egiten da, adar aundiak soíturik, aren itzalpean eguratseko egaztiak koka ditezkelarik».

33 Oírelako alegi askoren bidez zerauskien, ayek uler zezaketen; 34 ta alegirik gabe ez zerauskien; berezian, ordea, bere ikasleei dana azaltzen zien.

Ekaitza ibituta

35 Egun artako aratsaldean esan zien: «Goazan beste aldera». 36 Ta gizataldea igoírik, ontzian zegonez daramate, beste ontzi zenbait daíraizkiola. 37 Ta aize-erauntsi zakaí bat asi zan uñak ontziaren gañera iraitzen ta ontzia betetzen. 38 Yesu, beíz, txopan zegon bururdi gañean lo. Ba-daratzaíte, beraz, ta dasayote: «Irakasle, galduak gera, ta ayolarik Zuri ez? 39 Ta esnaturik, aizeari agindu ta itxasoari esan zion: «Ixo, isilik ago. Ta aizea ibitu ta eztialdi aundia etoí zan. 40 Ta esan zien: «Zergatik oírela belduítu? Zer dala-ta, siñesterik ez duzute?» 41 Saíakioak arítuta, beraz, elkaí zerasayoten: «Nor duk, ba, au, aize-itxasoek ere men baitzegiotek?»

V

Gadara'ko txerenduna ta urdaldea

Ta eldu ziran auéko itxasegira, Gadara'ren aldera. 2 Ta ontzitik irten zaneboxe, gizon bat ilobietatik aurkeztu zitzayon, txerén satsuak arítua. 3 Illobietan bizi

oi zan, ta iñork ez zezaken katez ere lotuta euki. ⁴ Askotan, ba, oinbiluñez ta katez lotuta zegola, kateak eten ta oinbiluñak autsi izaten zitun, ta iñork ez zezaken ezi. ⁵ Ta beti ilobi ta mendietan zebilan gau ta egun oyuka ta bere soña añiz yoka. ⁶ Urutitik Yesu ikusi zūneko, atxintxi eginda, auzpeztu zitzayon, ⁷ ta oyu aundiz esan zion: «Yaun Goigoikoaren Seme Yesu, ¿nire ta zure artean zer? Ez nazazu, ala Yainkoa, oñazetu». ⁸ Yesu'k ziotsan, ba: «Irten adi gizon onengandik, txerén satsu ori». ⁹ Ta galde egin zion: «Nola duk izena?» Ark erantzun zion: «Talde izena dut, asko geralako». ¹⁰ Ta añen ta añenez zeskayon bazteralde artatik ez yaurtitzeko. ¹¹ Urdalde aundi bat zegon an, mendi ondoan larátzen. ¹² Ta txerének zeskayoten, esanaz: «Urdeetara igor gaitzazu, ayetan sar gaitazan». ¹³ Yesu'k ayei bayetz. Ta txerén satsuak gizonagandik irten ta urdetan sartu ziran; ta urdaldea, bi mila buru edo, aldapabera yauzi zan itxasora, ta bertan ito. ¹⁴ Urdezayek iges egin zuten ta yazoa irian ta aldeñietan zabaldu. Angoak, beriz, gertatua zer zan ikustera irtenda, ¹⁵ Yesu' rengana datoz, ta txerenduna, taldea barnean euki zuna, eseri, yantzi ta bere senera itzulia dakuste. Ta izutu ziran. ¹⁶ Ikusle izanek, beriz, txerendunarena ta urdeena azaldu zieten. ¹⁷ Ta ayek asi ziran beren mugetatik alde egiteko Yesu'ri eskatzen.

¹⁸ Ontzira Yesu igotzean, txerendun izanak Arekin egoteko zeskayon. ¹⁹ Baña Yesu'k ez zion onartu;

¹² Txerénak edo deabruak berekin daramate ezin esan alako oñazea; bañan, ala ere, azkeneko epaya eldu baño len, sulezearen belduñez dabilta.

aitzitik, esan zion: «Zoaz etxera, zuretaréngana, ta azaldu egiezu Yaunak egin dizun guzia ta erakutsi dizun erukia. ²⁰ Yoan zan, ba, ta Yesu'k egin izan zion guzia Dekapoli'n zabaltzen asi zan. Ta guziak aritzen ziran.

Odol-yarioduna ta Yair'en alaba

²¹ Ontzian Yesu beste aldera beñiro igaro zala, gizatalde aundia Arengana etoñi zan ta itxasondoan zegon. ²² Ta ba-datoñ Yair zeritzan gizon bat, sinagogako nagusietakoa, ta Yesu ikusi orduko, oñetara auzpezten zayo, ²³ ta arén ta arenez diotsa: «Alabatxoa azkene-koetan dut. Zatoz, ta eskua gañean ezañiozu, sendatu ta bizi dedin». ²⁴ Yesu yoan zan arekin; ta gizatalde aundia zeñayon ertsatuki.

^{25, 26} Ta amabi urte ezkerro sendagile askorengandik asko yasan ta zitunak oro eralgi ondoren, obe beañean, odol-yarioz gaizkiago zebilan emakume batek, ²⁷ Yesu'ren beñi entzunda, Arengana atzetik gizataldean baña eldurik, soñekoa ikutu zion. ²⁸ «Soñekoa bederen ikutzen ba'diot, sendatuko naiz», baitzion. ²⁹ Ta bertantxe odol-yarioa idoñtu zitzayon, ta soñean sumatu zun gaitzetik sendatua zala. ³⁰ Yesu'k beregandik yalkitako indañaz laster oañtuta, eñiarengana itzulirik, zion: «Soñekoa nork ikutu dit?» ³¹ Ta ikasleek esan zioten: «Ertsatuta zauzkan eñia dakusazu, ta "nork ikutu nau" diozu? ³² «Ta baranoan begira zegon, ori egin zuna ikusteko. ³³ Emakumea, beñiz, beragan yazoa ezagunik, belduñ-ikaraz etoñi ta auzpeztu zitzayon, egia osorik aitoñtzen ziola. ³⁴ Ta Yesu'k esan zion: «Alaba, zure

siñesteak sendatu zaitu. Zoaz nare, ta sendatua zaitez zure gaitzetik».

³⁵ Oraindik mintzo zala, sinagogaburuari datozkio esaten: «Il da zure alaba. Zertako oraindik Irakaslea nekarazi?» ³⁶ Zerasatena Yesu'k adituta, sinagogaburuari dasayo: «Ez belduñtu; siñetsi bakañik». ³⁷ Ta iñor ez zun laguntzat arñtu nai izan, Kepa, ta Yakob, ta Yon, Yakob'en anaya, baizik.

³⁸ Sinagogaburuaren etxera ba-datoz, ta dana angoen negañ ta gañaxiz nasia dakus. ³⁹ Ta sañturik dasaye: «Zertako iskanbila ta negañok? Nexka ez dago ilik, lo baño. ⁴⁰ Ta ixeka zegioten. Berak, ordea, guziak alde eraginda, nexkaren aita-amak eta bere lagunak arñturik, nexka zetzan tokira sañtzen da. ⁴¹ Ta nexkari eskutik elduz, dasayo: «**Talitha kumi**», edo berdin dana, «**nexka, yaiki zaitez; Neuk dasaizut.**» ⁴² Ta berealaxe neskatxa yaiki ta ibiltzen asi zan; amabi urte baitzitun. Guziak soñ ta loñ gelditu ziran. ⁴³ Yesu'k, beñiz, zoñozki agindu zien iñori ere ez yakiñerazteko, ta neskatxari yaten emateko esan zien.

VI

Yesu Nazaret'en

Andik irtenda, bere eñira yoan zan, ta ikasleak zerañzikion. ² Larunbata elduta, asi zan sinagogan irakasten; ta entzule askok Aren irakasteaz arñtuta zerasaten: «Nondik oni guziok? Zer duk oni emandako yakintza? ta zer dituk onen eskuz egindako alatzok?

³ Ez ote duk au arotza, Mari'ren semea, Yakob, Yose, Yuda ta Simon'en anaya? Onen a'ebak ere ez ote dizkagu emen gurekin? Ta uzku' ziran Arentzat. ⁴ Yesu'k esan zion: «Dedu gabe igar'lerik ez da bere e'ian, ta bere aideetan ta bere etxean baizik». ⁵ Ta ez zezaken alatzik an egin; eri gutxi, o'atino, esku-ezartzez sendatu zitun. ⁶ Ta a'ituta zegon ayen si'nesgabeaz. Ta baranoko alde'ietan irakasten zebilan.

Amabiak deitzale bidalita

⁷ Amabiak deitu zitun, ta binaka bidaltzen asi zan, txeren satsuen gañean eskubidea eman ziela. ⁸ Ta agindu zien makila baizik biderako ezer ez eramatea; ez ogirik, ez zo'orik, ezta ge'ikoan dirurik ere; ⁹ abarkak, bai, o'netan; aldaga'irik, ordea, ez. ¹⁰ Ta zesayen: «Edozein etxetan sartu ezkeru, zaudete bertan e'ri artatik irten arte. ¹¹ Ta nonbait a'rtu ta adituak ez ba'zerate, andik irtetean, o'netako autsa astin ezazute ayen kalterako ait'o'rtzat».

¹² Yoan ziran, beraz, garbaya alda'ikatzen; ¹³ ta txeren asko iraitzen, ta eri asko olioz igurtzi ta sendatzen zituten.

⁵ Ez zezaken... Yesu'ren asmoa zan, argia biotzaren oke'rtasunez ikusi nai ez zutenen a'uean alatzik ez egitea. O'regatik dio: ez zezaken, ezin zun; ez inda' gabez, entzuleak biotz gogo' ziralako ba'no. Gure eske'gabek Yaunaren eskuak lotu ta inda'gabekten ditu.

¹³ Olioz igurtzi... Alde bitara agertzen zan Ikasleen inda'ra: arimarako, txerena iraitziz, t. a.; so'nerako, gaxoak sendatuz. Ona emen, so'na ta arima sendatzen dun Olioko Sakramentu deunaren irudia.

Yon Ukuzlearen eriotza

¹⁴ Yesu'ren izena nabari egiña baitzan, Erode bakaldunak entzunda, zion: «Yon Ukuzlea il artetik piztu da; argatik inda'arak arengan pizko' ari dira». ¹⁵ Beste batzuk, be'riz, zioten: «Eli da au». Bestetzuk, ostera, «Iga'le da» – zioten – «iga'leetan beste edonor bezela». ¹⁶ Bañan Erode'k entzunda zion: «Lepoa moztu nion Yon berbera da, ilartetik be'rpiztuta».

¹⁷ Izan ere, Erode onek, bere anai Pilipe'ren emaztea, beretzat a'rtua zeukan, ta aren ede'ragatik, Yon atzirazi ta baitegian bilu'ez ya'ri izan zun, ¹⁸ «zilegi ez zaizu anayaren emaztea eukitzea», Yon'ek esaten baitzion. ¹⁹ Argatik Erodia ataizean zebilkion, bizia kentzeko; bañan ezin; ²⁰ Erodek'Yon, gizon zintzo ta yato'rtzat baitzezagun, begirunez ikusi ta yagoten zulako: egitekoetan ere aren burupidez maiz ziardun, ta pozik entzuten zun.

²¹ Egun egokia eldu zan, ordea, Erode'k bere yayotegunetan Galilai'ko nagusi, aitzindari ta aundikiei o'its bat egin zienean. ²² Erodia'ren alaba an sa'rtu ta dantzari egiñaz, Erode'ri ta maikideei atsegin zitzayela-ta, neskatxari bakaldunak esan zion: «Nai aña niri zuk eskatu ezkerro, ba-damaizuket». ²³ Zin ere egin zion: Nai aña niri zuk eskatu ezkerro, nere yaure'riaren erdia ere, ba-damaizuket». ²⁴ Neskatxak, irtenik, amari esan zion: «Zer eskatuko dut?» Ta amak esan zion: «Yon Ukuzlearen burua». ²⁵ Ta bakaldunarengana abazuzaka sa'rtuz, eske au egin zion: «Yon'en burua azpil batean

ointxe eman dezadazun nai dut». ²⁶ Bakalduna goibeldu zan; bañan egindako ziñarengatik eta maikideengatik ez zun atsekabetu nai izan, ²⁷ ta mo'oi bat bertantxe igo'ri zun, aren burua eka'rtzeko aginduz. ²⁸ Mo'oyak, beraz, yoanda, lepoa baitegian Yon'i moztu zion, ta burua azpilean eka'ki, neskatxari eman zion, ta neskatxak amari.

²⁹ Ta ori entzunda, Yon'en ikasleek eto'ri ta aren soña eraman ta ilobiratu zuten.

Amabien itzulera

³⁰ Bidaliek, be'riz, Yesu'rengana itzulirik, berek egin ta irakatsiak oro azaltzen dizkiote. ³¹ Ta Yesu'k dasaye: «Zatozte zuek berezian basaldera, apu' bat atsedeteko». Yoan-eto'ri zebiltzanak asko zirala-ta, yateko ere astirik ez zuten, ba.

³² Ontziratuta, beraz, basalde bazte'rtu batera yoan ziran bereiz. ³³ Norbaitek ikusita, ordea, ayen yoateaz asko yabetu egin ziran, ta iri guzietatik ara oñez leyatirik, au'reratu zitzazkien. ³⁴ Ontzitik irten zaneko, gizatalde izuga'ria ikusi zun, ta biotza samu'rtu zitzayon, artzai gabeko ardiak bezela zeudelako; ta asi zan ayei ikaskizun asko azaltzen.

Ogiak ugarituta

³⁵ Berandu zala-ta, ikasleak u'rbildu zitzazkion, esanaz: «Toki au bazte'rtuta dago, ta beranduxe da. Alde eragitzizu, inguruko e'rixka ta basetxetara yoanda, berentzat zer yan darosten». ³⁶ Baña Yesu'k yardetsi ta

esan zien: «Yaten zuek emayezute». Ta ayek dasayote: «Goazala gu beŕeun denari ogi eroŕtera, oriei yaten emateko?»³⁷ Ark dasaye: «Zenbat ogi dituzute? Zoazte ta ikusazute». Ikusita diotsate: «Bost, eta bi arai».

³⁸ Ordun agindu zien belar bizi gañean oro sailka eratzateko. ³⁹ Ta etzan ere eunbanaka, ta beŕogei ta amarnaka egin ziran. ⁴⁰ Ta bost ogiak eta bi arayak artuta, ortziruntz begiraturik, ogiak onetsi ta puskatu zitun, ta ikasleei zemazkien, laguntaldeari emateko. Arai biak ere oroentzat zatitu zitun. ⁴¹ Ta guziak yanda ase ziran. ⁴² Ta amabi otaŕe otondoz ta araikiz beterik yaso zituten. ⁴³ Ogi-yaleak, oratiño, bost mila gizon izan ziran.

Ur gañean ibilki

⁴⁴ Ta bereala ontzian ikasleak saŕerazi zitun, beste aldean dagon Betsaida'ra auŕendu zekizkion, Berak gizataldea zegoan bitartean. ⁴⁵ Gizataldea igoŕitakoan, beŕiz, mendira yoan zan otoi egitera. ⁴⁶ Ilundu ezkerro, ontzia itxaserdian zan, ta Yesu legoŕean bakaŕik. ⁴⁷ Eta, aizea auŕetik zetoŕkiela-ta, ontzikoak arauketan nekaturik ikusita, laugaŕen gau-aldian edo, etoŕi zitzayen ur gañean ibilki, ta auŕea artu nai zien. ⁴⁸ Ayek, beŕiz, ur gañean ibiltzen ikusi zuteneko, iratxoren bat zalakoan, oyuz asi ziran; ⁴⁹ guziak baitzeuden zekustenaz izututa. Baña laster itz egin ta esan zien: «Adore artu; Ni naiz; ez izutu». ⁵⁰ Ta ayengana igo zan ontzira, ta aizea ibitu

36 Denari, beg. Mat. XVIII, 28.

48 Laugaŕen gau-aldian... Beg. Mat. XX, 3.

zan. Ordun aítuago ziran; ⁵¹ ayen biotzak toildurik zeudela-ta, ez baitzuten ogiena uleítu izan.

Genesaret'eko sendakuntzak

⁵² Legoíeruntz igarota, Genesaret'a eldu ziran ta an ekuratu. ⁵³ Ontzitik irten ziraneko, ezaguna izan zan; ⁵⁴ ta alde guzi ayetan zear zebiltzala, omen zegon artara zeáldotan eroandako erien yoera asi zan. ⁵⁵ Ta eířka, edo iri, edo landaren batera ziyoaneko, zeyetan eriak ezártzen zizkioten, Aren soñeko mendela beintzat ikutzeko zeskayotela; ta ikutzen zuten guziak sendatzen ziran .

VII

Parisaitaíren ekanduak

Yerusalen'dik eldutako parisaitaírek eta idazlarietako batzuk, Arengana bilduta, ² Aren ikasleelako batzueku naíasez, edo ez ikuzitako, oturuntza aítzen dakusazte. ³ Or ba, parisaitaírek eta yudu guziek, arbasoen ekanduari datxizkiola, ez dute yaten, eskuak len arduraz ikuzteke. ⁴ Ta oírelako ikuzketarik gabe ez dira zeitik maira yaítzen. Beste eginbear asko ere ba-ditute ekanduz; ontzi, pegaí, tupin ta aulkien garbiketak.

⁵ Beraz, parisaitaírek eta idazlariak galde dagiote: «Zergatik zure ikasleak arbasoen ekanduz ez dabilta, ta oturuntza esku naíasez aítzen dute?» ⁶ Ark: «Azalutsok, edeíki Isai'k zuetaz iragaíi zun, idatzita dagonez:

«Eri onek ezpañez goosten nau;
baña biotza Nigandik urun dauka.

⁷ Alpeñik guñka datozkit, ordea,
giza-arau diran irakaskizunak irakaski.

⁸ Izan ere, zuek, Yainkoaren agindua utzita, giza-ekanduei zatzizkiete; pegañ-ontzien garbiketan, ta oñelako askotsuetan diarduzutela». ⁹ Ta zesayen: «Yainkoaren agindua zokondoan duzute ayolaz, zuen ekanduei eutsiañen. ¹⁰ Aitari ta amari lotsa erakutsiezu; ta aitari naiz amari birao legiokenari, eriotza oñi, Mois'ek esan baitzun. ¹¹ Zuek, ordea, diozute: «neretik on legizukena, **korban**, edo berdin dana, [Yainkoari] eskeñita dago» aitari naiz amari iñok esan ezkeruxe, ¹² ez dio geroenean aitari naiz amari besterik egin beañ». ¹³ Ta oñela Yainkoaren itza zuen ekanduz indaígabetzten duzute, beste eginbeañ askotan berebat yokatuz».

¹⁴ Ta gizataldea beñiro deiturik, zesayen: «Entzun Niri ta ulerñtu. ¹⁵ Gizagandik alde, ezer ez da, beragan sañtuz, loitu dezakenik; gizabañnetik soñtzen diranak dira, ordea, gizona loitzen dutenak. ¹⁶ Entzuteko belañidunak, bentzu».

¹⁷ Gizataldetik etxera eldu zanean, ikasleek alegi onetzaz galde zegioten. ¹⁸ Ta dasaye: «Zuek ere, beraz, adin gabe zerate? Ez al duzute ulerñtzen, gizagan landatik sañtzen danak ezin loitu dezakela? ¹⁹ Ez baitzayo biotzean sañtzen, sabelean baizik, eta sastegira doa, yanari guziak oñela txautzen dirala?» ²⁰ Ta zion ere: «Gizagandik soñtzen danak, oñek bai, gizona loitzen du.

11 Korban bego...Beg. Mat. XV, 15.

²¹ Bañetik, gizabiotzetik soñtzen dira asmo txararak, izoñkeriak, lapuñketak, erailketak, ²² ezkontza-kutsuak, urégosea, gaiztakeriak, iruzuñ, zantañkeri, bekaitz, birao, añokeri ta erokeriak. ²³ Gaitz guziok bañetik soñtzen dira, ta auetxek loitzen dute gizona».

Kanaandara

²⁴ Andik yaikita, Tir eta Sidon'en mugetara yoan zan, ta iñori ere agiri izan ez nairik, etxe batera bazteñtu zan. Bañan ezin ostendu ziteken. ²⁵ Alaba txerén satsuz zeukan emakume bat, Aren beñi laster entzunda, etoñi ta oñetara auzpeztu baitzitzayon. ²⁶ Elendarara, siripoinikiarara yayotzez, emakume ura zan, ta bere alabagandik txerena iraitzeko zeskayon. ²⁷ Yesu'k diotsa: «Utzi lenik semeak asetzea; ez da, ba, on, semeen ogia arñtu ta txakuñei yaurtitzea». ²⁸ Bañan emakumeak yardetsi ta esan zion: «Bai, Yauna, bai; toñtoek ere maipean umeen otondoak yaten ditute». ²⁹ Yesu'k esan zion: «Oñela mintzo zeralako, zoaz; zure alabagandik txerén irten da». ³⁰ Ta etxera yoanda, neskatxa oean etzana idoro zun; txerena, beñiz, irtena zan.

Goñ-mintzula

³¹ Tir'en mugaldetik beñiro irtenda, Galilai'ko itxasora Sidon'en zear eldu zan; ta Dekapoli'n bañna zebila, ³² goñ-mintzul bat dakañkiote, eskua ari ezarñtzeko zeskayotela. ³³ Ta gizataldegandik bereiz arñturik, belarñ-

26 Beg. Mat. XV, 21.

etan beatzak sartu zizkion, ta mingañean ñu egin zion. 34 Gero, ortziruntz begiraturuz ta asgorapen egiñaz, dio-tsa: «Ephpheta, edo berdin dana, iriki zaitez». 35 Ta beingoan belañiak iriki ta mingain-lokaña askatu zitza-yola, garbi mintzaten asi zan. 36 Ta agindu zien iñori ere ez esateko. Bañan Ark zoñozkiago agindu, ta ayek bañeyagotu. 37 Txundioz añituta baitzeuden, zerasatela: «Dana ondo egin dik; goñak entzule ta mintzulak iztun egin zetik».

VIII

Ogiak beñiro ugarituta

Egun ayetan beñiro gizataldea aundia zan; ta yatekorik ez baitzuten, ikasleak deiturik, dasaye: 2 «Gizataldeaz erdira zait biotza; iru egun ezkerro Nerekin baitaude ta yatekorik ez dute. 3 Ta etxera barurik igoñtzen bañditut, bidean akituko dira; ayetako batzu urundik etoñiak baitira». 4 Ikasleek erantzun zioten: "Emen, basetze ontan, nondik iñork ogiz ase dit-zake?" 5 Ta itandu zien: "Zenbat ogi dituzute?" "Zazpi", esan zioten. 6 Ordun gizataldeari luñ gañean etzateko agindu zion; ta zazpi ogiak añtuta, eskeñ egiñik, puskatu zitun, ta bere ikasleei eman zizkien, gizataldeari banatzeko; ta banatu zizkioten. 7 Añaitxo batzu ere ba-zituten: ta onetsi zitula, banatzeko agindu zien. 8 Ta yanda ase ziran; ta gelditutako pusketaz zazpi saski bete zituten. 9 Yaleak, oñatiño, lau milaren bat izan ziran. Onezkero igoñi zitun.

Parisaitarren orantza

¹⁰ Ta berealaxe ikasleekin ontziratuta, Dalmanuta aldera yoan zan. ¹¹ «Arengana parisaitarak yota, asi ziran Arekin yardukitzen, ortzi-alatz bat azpikeriz zeskayotela. ¹² Ta barnetiko asgorapenez, dio: Zer dala-ta, gizaldi au alatz-eske dabil? Ziñez dasaizuet: ez zayo gizaldi oni alatzik emango. ¹³ «Ta ayengandik aldenduz, beñiro ontziratuta ta beste ertzeruntz yoan zan.

¹⁴ Ogi artzeaz aztu ziran, ta bat baizik ez zuten ontzian berékin. ¹⁵ Ta aolkatuz dasaye: «Ernai ta zurt ibili parisaitarren orantzari buruz ta Erode'ren orantzari buruz». ¹⁶ Ordun asi ziran elkarékin erasaten: «Ogiketarik ez dikagu-ta!» ¹⁷ Yesu'k igarita esan zien: «Zer darasazute ogiketarik ez duzutela? Oraindik ez al duzute igari ta ulertu? ¹⁸ **Begiak izanda, ez al dakusazute? belariak izanda ez al dantzuzute?** Ta oroimenik ez al duzute? ¹⁹ Bost mila gizonentzat bost ogiak zatitu nitunean, ¿zenbat saski ondakiñez beterik yaso zenituten? «Amabi», dasayote. ²⁰ Ta zazpi mila gizonentzako zazpi ogiak zatitu nitunean; ¿zenbat saski ondakiñez beterik yaso zenituten?» «Zazpi», dasayote. ²¹ Ta «oraindik ez al duzute ulertzen?» dasaye.

¹¹ **Ortzi-alatza...**Auxe da gero ere esango diotena (Yon, VI, 30); Yesu'ren alatzak luékoak, edo luéan egiñak, dirala; Mois'ek, beñiz, ortzitik, edo zerutik, mana eman ziela, ta Eli'k zeruko sua ekañi zula, ta orelako kokolokeriak. Yesu'ren aintza agirian zegon (Yon, 1, 14); baña bestelako Mesiaren bat nayago zuten. Aroentzat, apaltasuna ez da iñoiz Mesiaren agerbide izango; ezta lapuéntat, itzulibeara ere.

Betsaida'ko itsua

²² Betsaida'ra ba-datoz, ta itsu bat daka'kiote, ikutu dezala eskaturik. ²³ Eta itsua eskutik a'rtuz, e'rixkatik atera zun; ta aren begietara fu egin ezkerro, bere eskuak eza'ki, galde egin zion ezer ote zekusan. ²⁴ Ark, so eginda dio: «Gizonak ikusten ditut ibiltzen; ta zugatz dirudidate». ²⁵ Begietan be'riro eskuak eza'i zizkion; ta ark so egin zun, ta sendatu zala, dana garbi zekusan. ²⁶ Ordun Yesu'k etxera igo'ri zun, esanaz: «Ez sa'rtu e'rixkan».

Kepa'ren aito'a

²⁷ Andik Yesu bere ikasleekin Pilipe-Kaisarai'ko e'rixketara yoan zan, ta bidean ikasleei galde dagie, esanaz: «Gizonak Ni nor naizala diote?» ²⁸ Ta ayek erantzun zioten: «Yon Ukuzlea; batzuk Eli; beste batzuk, be'riz, iga'rleetako bat edo». ²⁹ «Ta zuek», galdetzen die, «Ni nor naizala diozute?» Kepa'k erantzuki, diotsa: «Zu Kisto'a zera».

³⁰ Ordun zo'rozki agindu zien iñori ere o'retzaz itz egiteko. ³¹ Ta asi zan ayei azaltzen Gizasemea neke askotan ibili bea'ra zala; ta za', apaizpuru ta idazlariek gaiztetsi ta ilko zutela; ta iru egunen buruan be'rpiztuko zala. ³² Ta argi ta garbi esan ere. Kepa'k Yesu alde batera a'rtuz, agiraka zegion. ³³ Baña Yesu'k itzuli ta ikasleak ikusirik, Kepa larderiatu zun, esanaz: «Utikan,

³³ Satan ori...: arerio ori. nere Aitak erabaki dun aren au'ka asma-zen duzun ori,

Satan ori; ez dituzu, ba, Yainkoarenak somatzen, gizonenak baizik».

³⁴ Ta gizataldea ikasleekin deituta, esan zien: «Iñork nere ondotik etoñi nai ba'du, bere burua ukatu ta bere gurutza ar beza, ta berait. ³⁵ Bizia gaizkatu nai dukenak, galduko du, ba; ta ostera, bizia Nigatik eta Beñi Onagatik galdu dukenak, gaizkatuko du. ³⁶ Gizonari, ezperen, zertarako litzayoke luñ osoa irabaztea, bizia galtzen ba'du? Ala ¿zer eman lezake biziaren ordañez? ³⁸ Gizaldi zantañ ta okeñ ontan iñor Nitzaz ta nere itzaz alke ba'da, Gizasemea ere artzaz alke izango da, Aitaren ospez bere aingeru deunekin datoñkenean».

IX

Ta esan zien: «Ziñez dasaizuet; ba-dira emen daudenetako batzu, Yainkoaren yauraldia indañez etoñtzen ikusi arte, eriotza murtxatuko ez dutenak.

Yesu'ren antzalda

² Sei egunen buruan Yesu'k Kepa, Yakob eta Yon bakañik artuta, mendi garai baten gora bereiz daramatzi, ta ayen auñean antzaldatu zan. ³ Aren yazkiak istatsu ta eluñ bezain zuri zuri biuñtu ziran, iñongo zuritzalek ezin zuritu litzaken aña. ⁴ Eli ta Mois ere ayen begitan azaldu ziran, Yesu'rekin erausten. ⁵ Ta Kepa'k artetuz

¹ Yainkoaren yauraldia. Epren ta Krisostoma deunek diote yauraldi izenez Yesu'ren antzalda emen adirazten dala. Baña geyenen ustez, Yerusalen'en poñokaldiaz, ta Elizak añezkero iritsiko zun zabaleraz aditu beañ da.

Yesu'ri dasayo: «Rabbi, ederki geundeke emen; iru txabola egin ditzagun, Zuretzat bat, Mois'entzat bat, eta Eli'rentzat bat. ⁶ «Zer zion ere ez zekin, ordea, oso beldurrik zeudelako. ⁷ Ordun odei bat sórtu zan ayek itzalpetuz; ta odeitik mintzo au: «Au da nere Seme kutuna. Entzuyozute». ⁸ Ta beingoan alde orotara begiraturuz, inor ez zuten berékin ikusi, Yesu baizik.

⁹ Menditik yeistean, agindu zien, ikusi zutena inori ere ez adirazteko, Gizasemea il artetik piztu ondoren baizik. ¹⁰ Eta ayek yazoa beren artean gorde zuten, **il artetik piztu** zer liteken elkar asma ta asma. ¹¹ «Ta galde au egin zioten: «Zergatik idazlariék darasate Eli etori beara dala? ¹² Yardetsi ta esan zien; «Eli'k auena etori ta dana beriztuko du. Nola, ba, Gizasemeaz idatzita dago, asko yasan ta nardatua izatekoa dala? ¹³ Eli etori dala dasaizuet; ta nai izan zuten guzia egin zioten, artzaz idatzita dagonez».

Mutil alditsua

¹⁴ Ikasleetara itzuli zanean, gizatalde aundia ayen baranoan ikusi zun, ta idazlariak ayekin etiketan. ¹⁵ Yesu ikusita berealaxe, gizataldeko guziak aritu ziran, ta Arengana agur egiten leyatu. ¹⁶ Ark galdetu zien: «Zer zenerabilten eztabaidan?» ¹⁷ Gizataldeko batek erantzun zion: «Irakasle, nere semea ekaí dizut. Txeren mintzul batek artuta dauka, ¹⁸ ta artzen dun bakoitzean, luera bota ta

¹² Gizartera Yesu bitan etori beara zan. Lenbizi, ospegabe, zerurako bidean gizadia yartzeko. Bigarenez, ospetsuki, gizadia ebazteko. Bigaren etoraldi au gertutzeko, Eli etoriko da; lenbizikoa gertutzeko, Yon Ukuzlea etori zan. Eli'k Yezabel'gandik asko yasan bea izan zun; Yon'ek Erode'gandik.

lerdea dariola, ortz-kařaska ta zuřun uzten du. Zure ikasleei iraitzeko esan diet: bařan ezin izan dute. ¹⁹ Yesu'k yardetsi ta esan zien: «Auxe enda siřesgabea! Noiz arte zuekin egon beař dut? Noiz arte yasan beař zaituzt? Ekařkidazute mutiřa». ²⁰ «Ekaři zioten; ta ikusi zuneko, mutiřa, txerenek iřařosita, luřean iraulkatzen asi zan, lerdea zeriola. ²¹ Aren aitari Yesu'k galdetu zion: «Noiz ezkerro datozkio aldiok?» «Umetanik» erantzun zion: ²² ta sařitan ere urtara ta sutara yaurti du, il zedin. Bařna, zerbait al ba'duzu, gutzaz erukirik, lagun zatozki-gu». ²³ Yesu'k esan zion: «Al ba'duzu», diozunaz, «dana siřestunarentzat egikizun». ²⁴ Bertantxe, mutiřaren aitak oyuz ta negařez zion: «Siřesten dut: siřetsi gabean zatozkit lagun.»

²⁵ Ordun Yesu'k gizataldea piřatzen ikusirik, txerēn satsua larderiatu zun, esanaz: «Txerēn goř-mintzul ori, Neuk agintzen dikat; alde onengandik, ta beřiz ez akio bein ere sařtu». ²⁶ Ordun ořo egiřnik, eta mutiřa oso pořokaturik irten zan, mutiřa ilda bezela, ta ainitzek «ilda zegok» esateko alakoan utzirik. ²⁷ Bařna Yesu'k eskutik ařtu ta eraiki zun, ta mutiřa zutitu zan.

²⁸ Etxera orduko, ikasleek isilean galde zegoiten: «Zergatik guk ezin iraitzi izan dugu?» ²⁹ Ta erantzun zien: «Ořelako txerēnak, otoi ta baruketan baizik, ezin irten dira».

Ikasleei azaldutako ikaskizun batzu

³⁰ Andik irtenda, Galilai'n bařna ziyoazan; ta ez zun nai iřork yakitea. ³¹ Ikasleei irakasten ta esaten baitzien:

«Gizasemea giza-eskuetan utzia izango da, ta ilko dute, ta ilda gero irugañen egunean beñpiztuko da». 32 Baña ziotsena ez zuten ulertzen, ta Berari galde egiteko belduñ ziran.

33 Kaparnaun'a etoñi ta etxean zegola, galde zegien: «Bidean zer izkatzen zenuten?» 34 Bañan ayek tutik ez; aundiena zein ote zan elkañekin izka bidean ari zan ziralako. 35 Beraz, eseri zala, amabiak deitu ta esan zien: «Inñork lena izan nai ba'du, bego azkena ta guzien otseña». 36 Ta aurtxo bat arturik, ipiñi zun ayen erdiko; ta bera laztandurik, esan zien: 37 «Oñelako aurtxoren bat nere izenean artzen dunak, Nerau artzen nau; ta artzen naunak, Nerau ez, bidali nauna artzen du». 38 Yon'ek esan zion: «Irakasle, txerñenak zure izenean iraitzen gizon bat ikusi dugu, ta eragotzi egin diogu, gurekin ez baitabil». 39 Yesu'k esan zien: «Ez eragotzi; nere izenean alatz eginda bereala, Nitzaz gaizki esan dezakenik ez baitago. 40 Zuen aurka ez dagona, zuen alde dago. 41 Inñork nere izenean, Kisto'renak zeratelako, antuxin bat ur ba'damaizue, ez du bere saria galduko; ziñez dasaizuet.

42 «Nere siñestea duten txikitxo auetako bati gaizpide litzayokenak, obe luke, asto-eyotaña lepotik ezañita, itxasora yaurtia izatea. 43 Eskua gaizpide ba'duzu, ebakazu; obe duzu, ba, bizitzan eskumotz sartzea, itzaliko ez dan sutarako, lezeratzea baño. 45 Ta oña gaizpide ba'duzu, ebakazu; obe duzu, ba, bizitzan eren sartzea, sulezera, oin biak dituzula, yaurtia izatea baño. 47 Ta begia gaizpide ba'duzu, erauzazu; obe duzu, ba, Yain-

koaren erian begi-bakar sartzea, sulezero, begi biak dituzula, yaurtia izatea baño. ⁴⁸ An ez zaye ara iltzen, ezta sua itzaltzen ere. ⁴⁹ Gizakiak oro suz gazituko baitira, ta opariak oro gatzez gazituko. ⁵⁰ Ona da gatza; baño gatza gezatu ba'liz, zerez onduko duzute? Euki gatza zerongan, ta gentza elkarékin».

X

Ezkontza-austeaz

Andik irtenda, Yudai mugetara yoan zan, Yordan aruntz. Beñiro gizataldea Arengana bildu zan, ta beñiro ere, oi zunez, zerakaskien. ² Parisaitaerek ere arganatuta azpikeriz galdetu zioten: «Zilegi al zayo senari emaztea zapuztea? ³ Yardetsi ta esan zien: «Mois'ek zer agindu zizuen?» ⁴ Ayek esan zioten: «Mois'ek bayetsi zun, zapuztagiria idatzita, emaztea uztea». ⁵ Yesu'k esan zien: «Zuen biotz gogoñagatik agindu ori idatzi zizuen. ⁶ Giza-astetik, ordea, Yainkoak ar-eme sórtu zitun. ⁷ Argatik gizonak aita-amak utziko ditu, ta bere emazteari itsatsiko zayo, ⁸ ta aragi batera biek yoko dute. Añezkero, beraz, ez dira bi, aragi bat bakañik baño. ⁹ Beraz, Yainkoak uztañtu duna, ez beza gizonak bakandu».

¹⁰ Etxean beñiro onetzaz galde egin zioten, ¹¹ ta

⁴⁹ Oparia gazitu bear dan lez, bakoitzak biotz biotzetik alegin beza bere burua oso ukatzeko, bear dun gatza, au da, uko egiteko asmo sendoa, gordetzeko.

² Beg. Mat. XIX, 9, ta oña Mat. V, 32.

esan zien: «Bere emaztea utzita beste bat aítzen duna, oírenganako izoítzale da; ¹² ta bere senaía utzita beste-
rekin ezkontzen dan emaztea, izoítzale da».

Yesu ta aurtxoak

¹³ Ta aurtxo batzu zekazkioten, ikutu zitzañ; baña zekazkiotenei ikasleek akaí zegieten. ¹⁴ Ori Yesu'k ikusirik aseíretuta esan zien: «Utzi aurtxoak Niregana etoítzen, ta ez eragotzi; Yainkoaren eía oírelakoena da-ta. ¹⁵ Ziñez dasaizuet: Yainkoaren eía aurtxoaren eduz aítzen ez duna, ez da bertan saítuko». ¹⁶ Ta laztandurik, onesten zitun, eskuak gañera ezaítzen zizkiela.

Gazte aberatsa

¹⁷ Bide egitera Yesu zertenean, norbaitek atxintxika arganatu ta Aren aítziñean belaunikaturik, itandu zion: «Irakasle on, zer egin beaí dut betiko bizitza yarausteko? ¹⁸ Yesu'k esan zion: «Zergatik ona diostazu? Ez dago on danik, Yainkoa baizik. ¹⁹ Aginduak ba-dazkizu: ez iñor il, ez izoítu, ez ostu, gezuíezko aitoírik ez esan, iruzurik ez egin, zure aitari ta amari lotsa izan». ²⁰ Ark erantzuki esan zion: «Irakasle, guzi oriek bete ditut txikitandik.» ²¹ Ordun Yesu'k, maite-so ari egiñik, esan zion: «Bat duzu gabe: zoaz, dituzunak oro saldu ta landeíei izkiezu; ta zeruan altxoía dukezu. Orézkero, gurutza aítuta, zaíaizkit.» ²² Ura, beíz, itzon

¹⁸ Yainkoa bakaírik da berez ona; Yesu ere benetan ona zan, baña mutil arek ez zion azalari baño begiratzen, ta Yesu'k muga ta une egokia ematen dio, ainbeste alatzetan ageri zan Yainkotasunari ere ernai oártzeko. Zuk ona deitzen nazu, gizona besterik ez naizela ustez?...

atsekabez goibelduta yoan zan; onibařak eřuz baitzitun.
²³ Ta Yesu'k, baranoan begiratzuz, bere ikasleei esan zien:
 «Yainkoaren eřian aberatsak zeĩnen nekez sařtuko dira!»
²⁴ Itzok adituta, ikasleak ařituta zeuden. Bařa Yesu'k
 beřiro itz egiřnik, dasaye: «Ene semeok, ĩzeĩnen zala
 ogasunez entzinduei Yainkoaren eřian sařtzea! ²⁵ Eřaza-
 go ořatzulotik gamelua ligaroke, aberatsa Yainkoaren
 eřian sařtu bařo». ²⁶ Ayek ordun ařiagotuta, elkaři
 zerasayoten: «Nor yaregin diteke, beraz?» ²⁷ Yesu'k
 ayengana begiratzuz, dio: «Gizonentzat ori eziņa da;
 Yainkoarentzat, ordea, ez; Yainkoak dana dezake-ta».

Yesu'rengatik dana utzi dutenen saria

²⁸ Ordun Kepa'k asita diotsa: «Ona gu dana utzita
 yařai gatzazkizu.» ²⁹ Yesu'k yardetsi ta esan zion: «Zi-
 ñez dasaizuet: iřor ere ez dago, bere etxea, anai-arebak,
 aita-amak, seme-alabak eta alořak Nigatik eta Beři Ona-
 gatik utzi ezkerro, ³⁰ eunetan beste ainbeste ařtzen ez
 dunik orain, aldi ontan; etxe, anai, ařeba, aita, ama,
 seme, alaba ta alořak, yazařiekin ba'da ere; zeruan,
 beřiz, betiko bizitza. ³¹ Ta auřen asko, azken izango
 dira, ta azkenak auřen».

Auřki Yesu il ta beřpiztuko dala

³² Yerusalen'a igotzen bide zegitela, auřena Yesu
 ziyoan, ayek zurtuta belduřez zeřaizkiola. Ta amabiak
 beřiz Beragana ařturik, gertatzeko zegozkionak esaten
 asi zitzayen. ³³ «Begira; Yerusalen'a igotzen goaz, ta
 Gizasemea apaizpuru ta idazlariei emana, ta eriotzarako

gaiztetsia, ta atzeritañen eskuetan yañia izango da. 34 Ta ixekatu, ta lixtukatu, ta zigoñkatu ta ilko dute. Ta iru egun ondoren berpiztuko da».

Zebedai'ren semeak

35 Zebedai'ren seme Yakob eta Yon urbildu zitzazkion, esanaz: «Irakasle, guk eskatutako edozer, Zuk egitea nai dugu». 36 Yesu'k esan zien: «Ta zer nai duzute Nik zuei egitea?» 37 Esan zioten: «Iguzu zure aintzaroan, bata zure eskui aldean, bestea ezkerkoan esertzea». 38 Baña Yesu'k esan zien: «Ez dakizute zer daskazutenik. Nik edaten dudan ontzia edan al dezakezute? ta Ni ukuzten naizan ukuzpenez ukuzi al zaitezket?» 39 Ayek esan zioten: «Bai». Ta Yesu'k dasaye: «Nik edaten dudan ontzia zuek edango duzute; ta Ni ukuzten naizan ukuzpenez ukuziak izango zerate; 40 baña nere eskui-ezker aldean esertzeko ematea, nere Aitak gerturik dagon ayentzat baño ez dagokit».

41 Au adituta, amarak asi ziran Yakob'en ta Yon'en aurka aseretzen. 42 Baña Yesu'k deitu ta esan zien: «Ba-dakizute erien buruzagiak menpekoen yabe agertzen dirala, ta aundiek erian aginbidea erabiltzen dutela. 43 Zuen artean, beriz, ez oñela; oñtera ere, zuen artean aundiena izan nai lukena, otsein bekizue; 44 ta zuen artean lena izan nai lukena, guzien yopu bedi. 45 Ez da, ba, Gizasemea otsein-eske etoñi; otsein izatera, ta bere bizia ainitzen yarei-saritzat ematera baño.

37 Zure aintzaroan; Matai deunak zeru-yaureñian diona. Au da. Mesiak, yuduen ustez, eraiki beañ zun luñeko bakaldi edo ereñuan.

Yeriko'ko itsua

46 Yeriko'ra ba-datoz; ta Yeriko'tik ikasleekin ta lagun askorekin Yesu irtetea, Bartimai eskale itsua, Timai'ren semea, bide ondoan eserita zegon. 47 Ta Yesu Nazareta'ra an zala adituta, ots egin ta esaten asi zan: «Yesu, Dabid'en Seme ori, e'ruki zakizkit». 48 Ta askok atar'atzen zuten isil egoteko. Ark, ordea, areago oyuka, zion: «Dabid'en Seme ori, e'ruki zakizkit». 49 Yesu'k, gelditurik, esan zun: «Dei egiozute». Itsua deitzen dute, diotsatela: «Biotz on; yaiki adi; dei egiten dik». 50 Soin-ga'nekoa yaurtita, beraz, zutitu ta Yesu'rengana yoan zan. 51 Ta Yesu'k arengana itzulirik, esan zion: «Zer nai duzu Nik zuri egitea?» Ta itsuak esan zion: E'rabuni, ikuseraztea». 52 Ordun Yesu'k diotsa: «Zoaz; zure si'nesteak sendatu zaitu». Ta bertatik ikusten asi zan, ta bidean ze'raizkion.

XI

Yerusalen'a sar'tze ospetsua

Yerusalen'a ur'bilduz, Oliamendi aldeko Betpage ta Betani'ra eldu ziranean, ikasleetako bi igori zitun, 2 ta esan zien: «Zoazte au'eko e'rixka ortara. An sar'tu ala, astakume bat idoroko duzute lotuta, gau'rdano ga'nean inor eseri ez zayona. Askatu ta eka'kidazute. 3 Ta zertan ari zeraten inork ba'lesaizue, esayozute: «Yau-

46-52 Beg. Mat. XX, 29-34 ta o'ara.

1-11 Beg. Mat. XXI, 1-11; ta Luk XIX, 21-38; baita 10, XII, 12-16.

nak bear du;» ta berealexe onara igoriko du». 4 Yoan ziran, beraz, ta astakume atauréan lotua bideburuan idoro ta askatu egin zuten. 5 ¡Ango batzuk esan zioten: «Zer ari zerate or astakumea askatzen? 6 Bañan ayek, Yesu'k agindu izan zienez erantzun zieten; ta angoek utzi egin zien.

7 Ordun astakumea Yesu'ri dakañkiote, ta beren txabuxak astoari ezañita, gañean Bera eseri zan. 8 Ainitzek ere bidean beren txabuxak yaurtzen zituten; beste-tzuk, beñiz, ostolak landetatik ebaki ta bidegañean bare-yatzen zituten. 9 Ta auré-atzetik ziyoazanek deadaárez zioten: «Gora! ¡Onetsia, Yaunaren izenean datorena! 10 ¡Onetsia datoñen yauraldia, gure arbaso Dabid'en yauraldia! ¡Gora goyenetaraño!

11 Yerusalen'a orduko, yauretxean sañtu zan; ta dana arakatu ondoren, berandu zala-ta, amabiekin Betani'ra yoan zan.

Pikondo biraokatua

12 Biaramunean, Betani'tik irten zirala, gosetu egin zan. 13 Ta urundik pikondo oritsu bat ikusirik, artara yoan zan, zerbait artan ote lidoroken. Bañan artara ezkerro, ostoak besterik ez zion idoro, piko-aroa ez zalako. 14 Ta ari mintzatuz, esan zion: «Gaurdanik ez beza iñork betidañokoan iregandik ale bat ere yan». Ta ikasleek zentzuten.

Yauretxeko salketariak

15 Yerusalen'a ba-datoz. Ta yauretxean sañtuta, ango salerosleak yaurtitzen asi zan, ta dirularien mayak eta

uso-saltzaleen aulkiak irauli egin zitun. ¹⁶ Ta ez zun inor uzten yauretxean barna atuxik eroaten. ¹⁷ Ta irakasten asi zan, esanaz: «Ez al dago idatzita: **Nere etxea eñi guzietan otoi-etxe izan beara da?** Zuek, ordea, **lapuñobi** egiña duzute» ¹⁸ Ori adituta, apaizpuru ta idazlariak nola Bera galdu lezaketen zebiltzan; Aren beldur baitziran, eñi osoa Aren irakasteaz arituta zegolako. ¹⁹ Iluntzean, iritik irten zan.

Pikondoa igartuta

²⁰ Biaramun goizean, pikondoa, iraisean, ikusi zuten erotik igartua. ²¹ Ta Kepa'k, oroiturik, esan zion; «Eñabbi, begira; birao egin zenion pikondoa igartu da.» ²² Ordun Yesu'k asi ta esan zien: «Yainkoaren siñestea ezazute. ²³ Ziñez dasaizuet: Orko mendi ori «ken ortik, eta itxasora yauzi adi» esanda, biotzean kordokatu gabe, diona gertatuko dala inork siñesten ba'du, gertatuko zayo. ²⁴ Argatik dasaizuet: zuen otoiketean edozer eskatuta, artuko duzutela siñetsazute; ta iritsiko duzute. ²⁵ Otoyerakoan, beñiz, norbaiten aurka zerbait baldin ba'duzute, asketsiozute, zuen Aitagoikoak ere zuen oge-nak asketsi ditzan. [²⁶Bestela, zuek askesten ez ba'duzute, zuen Aitagoikoak ere ez ditu zuen utsegiñak asketsiko».]

Yesu'ren eskabideaz

²⁷ Beñiz Yerusalen'a datoz; ta yauretxean zebilala, apaizpuru, idazlari ta zañek Arengana yo ²⁸ ta diotsate: «¿Zein eskubidez guzi oriek egiten dituzu? ta oriek egiteko eskubide ori norik eman dizu?» ²⁹ Yesu'k, beñiz,

yardetsi ta esan zien: «Galdetxo bat egingo dizuet; erantzuidazute, ta Nik esango dizuet zein eskubidez oriek egiten ditudan. 3^o Yon'en ukuzpena zerutik ote zan, ala gizagandik? Erantzuidazute». 3^r Ayek, ordea beren kolkorako asi ziran esaten: «Zerutik ba'diogu, ¿zergatik, ba, ez zenioten siñetsi? dasaiguke. 3² Gizagandik esateko, beñiz, eñiaren beldur gera». Igarle yatoñtzat guziek Yon begiratzen zuten eta. 3³ Erantzuki, beraz, Yesu'ri dasayote: «Ez dakigu.» 3⁴ Ta Yesu'k erantzuki dasaye: «Nik ere ez dasaizuet zein eskubidez oriek egiten ditudan».

XII

Mastiko nekazari okeñak

Ta asi zan ayei alegitan itz egiten.

«Gizon batek masti bat landatu zun, ta esia baranoan ezañi ziola, tolare bat egin ta borda eraiki zun, ta nekazariei akuran utzi zien, ta eñitik yoan zan. 2 Garai egokian moñoi bat nekazariei bidali zien, ayengandik masti-zitua yasotzera. 3 Bañan ayek moñoya atzi, yo ta esku-utsik igoñi zuten. 4 Beñiz beste moñoi bat bidali zien; ta ori ere zanpatu ta il egin zuten; ta ala beñiz beste asko. Ta nekazariak batzu ebaindu ta beste-tzu il egin zituten. 6 Oraindik bat, seme kuñuna, zun; ta ori ere bidali zien, esanaz: «Nere semeari lotsa erakutsiko diote». 7 Baña nekazari ayek elkañi esan zioten:

1-12. Beg. Mat. XXI, 33-46, ta Luk XX, 9-19

«Au duk oñordekoa; zatozte; il dezakagun, ta gurea izango duk yarauntsia». ⁸ Ta bera atzirik, il ta mastitik yaurti zuten. ⁹ Zer egin beaño du, ba, mastiaren yabeak? Etoñi datoñke, ta nekazariok poñokatuta, mastia beste inortzuei damayeke. ¹⁰ Ez al duzute irakuñi Idaztune au;

**Argiñek txarñetsi zuten aña bera
zoko-giltz ipiña da?
Yaunak ipiñita dago,
ta begitan añañari dugu».**

¹² Alegi au berentzat esan zula igañi baitzuten, Bera atzi nairik zebiltzan. Bañan eñiaren belduñez, Bera utzirik, alde egin zuten.

Kaisar'entzako zergaz

¹³ Ta Arengana pañisai ta Erodetar batzu dagoñtzite, izketan labanerazi dezaten. ¹⁴ Bidali auek etoñi ta diotsate: «Irakasle, ba-dakigu egizale zerala, ta inoren belduñez eurt ez egitekoa; giza-auñpegirik begiratzeke, Yainkoaren bidea zintzoki darakusazu-ta. Kaisar'i zerga ematea zilegi al da? bai ala ez? ;Ordaindu beaño, ala ez?» ¹⁵ Ayen maltzuñkeria igañirik, esan zien: «Zergatik zirika zatozkidate? Txanpon bat ekañkidazute, ikusi dezadan». ¹⁶ Ekañi zioten, ta esan zien: «Irudi ta idazkunok norenak dira?» «Kaisar'enak», esan zioten. ¹⁷ Ordun Yesu'k erantzuki esan zien: «Kaisar'ena Kaisar'i, ta Yainkoarena Yainkoari emayozute». Ta Artzaz añitzen ziran.

Sadukaitařak eta berpiztea

¹⁸ Berpizterik ez dagola dioten sadukaitařak ere Arengana datoż, ta galde au dagiote: ¹⁹ «Irakasle, Mois' ek idatzi zigun, semerik gabe emaztea utzirik, iñoren anaya ilko ba'liz, ilaren anayak aren alarguna emaztetzat ařtzeko, ta anaya zanari ondorengoa sořtzeko. ²⁰ Or' ba, zazpi anai ziran, ta lena ezkondu ta semerik uzteke il zan. ²¹ Bigařena ere alargunarekin ezkondu ta semerik uzteke il zan. Ta orobat irugařena. ²² Alaxe zazpirek ez zuten ondorengorik utzi. Guzirik azkena alarguna bera il zan. ²³ Berpiztaldian, berpiztuko diranean, ¿zeñen emazte izango da, zazpirek bera izan zuten ezkerok? ²⁴ Ta Yesu'k erantzuki esan zien: «Okeř ez al zaudete gero, Idaztiak eta Yainkoaren indařa eza-guteke? ²⁵ Ilartetik berpiztutakoan, ez da senařtzetik ez emaztetzetik; zeruan, ordea, guziak, Yainkoaren aingeruak bezela izango dira. ²⁶ Ildakoen berpizteaz, beriz, ez al duzute Mois'en idaztian irakuři Yainkoak lapařetik esan ziona: **Ni, Abraham'en Yainkoa, ta Isaak'en Yainkoa, ta Yakob'en Yainkoa?** ²⁷ Yainkoa, beriz, ilena ez da, bizidunena baño. Oso okeř zabiltzate, beraz».

Agindurik nagusiena

²⁸ Ayen eztabaida entzuten egondako idazlari batek, ondok erantzun ziela ikusirik, itandu zion: «Agindurik

²⁶ Beg. Mat. XXII, 32.

nagusiena zein da?» ²⁹ Yesu'k erantzun zion: «Agindurik nagusiena au da: **Adizu, Israel; gure Yainko Yauna, Yauna bakaía da;** ³⁰ ta zure Yainko Yauna biotz biotzez, gogo gogoz, adin adiñez ta adore adorez maite bearí duzu. ³¹ Bigaíena auxe: **Zure lagun urkoa, zure burua bezain maite ezazu.** Agindu biok baño gurenagorik ez dago.» ³² Idazlariak esan zion: «Ederki ta egiz, Irakasle, esan duzu Yainkoa bakaía dala, ta Bera besterik ez dagola; ³³ ta biotz biotzez, gogo gogoz, adin adiñez ta adore' adorez Bera maite izatea sutopa ta opari guziak baño gurenagoa dala. ³⁴ Zuíki erantzun zula ikusirik, Yesu'k esan zion: Yainkoaren eritik urun ez zaude». Ta aiezkerok iñork ez zun Ari galde egiteko bekokirik.

Dabid'en semea

³⁵ Yauretxean irakasten ari zala, Yesu'k zion: Nola darausate idazlariak Kisto'a Dabid'en seme dala? ³⁶ Dabid'ek berak Goteunaren atsez dio, ba:

**Nere Yaunari Yaunak esan zion:
Eseri zaitez nere eskui aldean,
zure etsayak oin-aulkitzat
yártzen dizkizudan artean.**

³⁷ Dabid'ek berak Yauna diotsa; nola, beraz, seme du? Ta gizatalde aundia pozik zegon Aren itzok entzuten.

³⁸ Bere irakastaldian au ere ba-zesayen: «Atzaí egon idazlariei buruz, Oí dabiltza aro aro yantzita, zeyetan

29, 30 Deut. VI, 4.

31 Leb. XIX, 18.

35 Beg. Mat. XXII. 41, oarí.

agurak, ³⁹ sinagogetan aulki nagusiak, eta oturuntzetan maipurua irikatzen, ⁴⁰ alargunen etxeak iresten, ta otoi luzeak egiten. Ebaztaldia ere orelakoentzat latzagoa daiteke

Alargunaren ukartxo

⁴¹ Altxor aurrean eserita, atabakara txanponak iraitzen zetozanak begiratzen zegoen. Aberats ainitzek txanpon asko iraitzen zituten. ⁴² Alargun lander batek ere etoñ ta lauziriko aña diran zipatxo bi atabakara bota zitun. ⁴³ Ta Yesu'k bere ikasleak deiturik, esan zien: «Ziñez dasaizuet; alargun lander onek, guziek baño geyago atabakara bota du. Besteek gañez dagienetik bota dute, ba; onek, ordea, bere apurtxotik bizirako zeukan dana bota du.»

XIII

Yesu'ren itzaldia azken egunetaz

Yauretxetik zertela, bere ikasleetako batek esan zion: «Irakasle, begira zeinbesteko ari ta zelako etxekuntza». ² Yesu'k erantzuki esan zion: «Ormatzar guziok ikusten al dituzu? Ariarik ari gañean ez da lur yotzeke geldituko».

³ Ta yauretxearen aurrez Oliamendi'n eserita zegolarik, Kepa'k, Yakob'ek eta Yon'ek berezian itandu zioten: ⁴ «Esaiguzu; noizko dira oriek? ta zein ezagupide da guzi oriek betetzen asi orduko?»

⁴² Beg. Lk. XXI, 1-4. Zipa = txanponik txena.

Amayaren zantzuak

5 Ordun Yesu asi zan ayei esaten: «Begira; ez zaitzazala inork liluratu. 6 Nere izena artuta, asko etoriko baitira, «ni naiz» esaten, ta asko liluratuko ditute. 7 Zuek, beñiz, gudu ta gudotsak entzunda ere, ez lañitu. Guzi oriek yazo beñak dira; baña amairik oraindik ez. 8 Endari enda, ta eriri eri yañkiko zayo, ba, ta alderik alde luñikara ta gosetea soñtuko dira. Guzi auek, ordea, miñen askiñak dira.

9 Zerona beñiz, ikusazute. Auzitegi ta sinagogetara eramango zaituzte, zigoñkatuko zaituzte ayentzako aitoñtzat. 10 Baña lenago Beñi Ona eri guziei aldañikatu beñ zaye. 11 Atzita eramango zaituztenean, beñiz, ez lañi izan zer ote diokezuten; garai artantxe idarokia izango zaizuen esakezute, ez baitzerate zuek ordun mintzale, Goteuna baño. 12 Anaya anayak eriotzarako salatuko du, ta semea aitak; eta gurasoen aurka semeek yaikita bizia kenduko diete. 13 Ta nere izenagatik guzientzat goñotagañi izango zerate. Bañan azkeneraño liraukena, orixe gaizkatuko da.

Yerusalen'en poñokaldia

14 Itxes iguingañia beñ ez liteken tokian egoten ikusiko duzutenean, (irakuñleak igañi beza), ordun, Yudañ leudekenek, mendietara iges egin bezate. 15 Ta etxe-goitian legokena, ez bedi, zerbait etxetik eramateko, bañnera yetxi. 16 Ta landan legokena ez bedi soñekoren

bila etxera itzuli. ¹⁷ ¡Egun ayetako aurđun ta inñude gaxoak! ¹⁸ Otoi egizute, beraz, negutean ori gerta ez dedin. ¹⁹ Izan ere, egun ayetako lañialdia bezelakorik ez da gauřdañokoan, Yainkoak ludia sořtu zunetik, izan, ezta geroenean izango ere. ²⁰ Ta alako egunak Yainkoak labuřtuko ez ba'litu, ezin liteke inñor ere gaizkātu. Baña berezi ditun onetsiengatik, alako egunak labuřtuak dauzka.

Azken egunak

²¹ Ordun «ona emen Kisto'a; ořa oř» norbaitek ba'lesaizue, zuek ez siñetsi. ²² Sasikisto ta sasigařleek yaiki ta ařitzeko ezagugařiak egingo ditute, ba, aute-tsiak berak, al ba'liz, liluratzeko ainbatekoak. ²³ Zuek, beraz, gomazute. Ořa, Neuk dana iragaři dizuet.

²⁴ Bañan egun ayetan, lañialdi ořen ondotik, eguzkia ilunduko da, ta ilargiak ez du argirik egingo, ²⁵ ta ortziko izařak yalkiko dira, ta ortzi-orpoak zotukatuko dira. ²⁶ Ta ařezkero, Gizasemea indař ta ospe aunditan odeitartean etořtzen ikusiko dute. ²⁷ Ordun bere aingeruak bidaliko ditu; ta auek Aren autetsiak bilduko ditute lau aizeak datoan luřalde uřutienetatik ortzi goyenetaraño.

²⁸ Pikondotik alegi bat ikasazute. Aren adařak samuř ta osto beřitan daudeneko, uda auřki datořela ba-dakizute. ²⁹ Ala zuek ere, oriek agitzen ikusitakoan, yakizute atauřean auřki dagokela. ³⁰ Ziñez dasaizuet: ez da gizaldi au amaituko, guzi auek burutu arte. ³¹ Ortzi-luřenak egingo du; nere itzenak, ordea, ez.

32 Arako egun ta garai aren beñirik, Aitak baizik, iñor ez daki, beñiz: ez zeruko aingeruek, ezta Semeak ere. 33 Gomazute; atzañi egon, ta otoi egin; garaya noiz danik ez dakizute-ta. 34 Oñela norbaitek, urutira yoan ta bere etxea uzterakoan, bere moñoyei eskubidea eman ta arlo bana egotzirik, atezayari zurt egoteko aginduzion. 35 Beraz, Yauna noiz datoñken, aratsean, ala gauerdian, ala oñaritean, ala goizean, ez dakizuten ezkerro, zaudete atzañi, 36 bapetan etoñirik, ez zaitzazan idorollo. 37 Ta zuei dasaizuedana, guziei dasayet: atzañi egon.

XIV

Azpisugea

Bi egunen buruan Paska ta Oñilak zetozan. Ta apaizpuru ta idazlariak zai zeuden nola Yesu azpikerizatzi ta il zezaketen. 2 Baña zerasaten: «Yayegunean, ez, zalapañtarik eñian soñtu ez dedin».

3 Betaniñ, Simon legenañdunenean maikide zegola, emakume bat alderatu zitzayon, akarurin uts ta bikaiña ontzian ekañki; ta ontzia autsirik, buru gañera uriña ixuri zion. 4 Batzu, beñiz, maxioan asi ziran: «Zertako

32 Aitak dazagun edozer, Semeak ere, Yainko dan aldetik ba-dazagu; beraz, ebazteguna ere bai. Aitaren geznari dan aldetik, ordea, ez dezaiguke ezer erakutsi, Aitak Aren bidez esan nai diguna baño. Gañerakoa, guretzako yakitez, ez daki; ta oñelakoa da ebazteguna.

1 Paska aldiko zortzi egunetan orantz edo legami gabeko ogiak yan beañ ziran, ta Paska egunak urbil zirala esan beañez, **egun bi bañu paska ta oñilak zetozala** dirausku. **Paska ta oñilak**, au da, paska egunetakõ apari nagusiaren eguna (egunik aundiena zalako, eta oñegatik bera bakañik ere Paska deitzen zalako,) eta beste oñilaren egunak, len azalduta dagonez.

urin au ořela galdu? ⁵ Irureun denaritan baño gorago
urin ori saldu litekek, ordaña landeři banatzeko». Ta
aren auřka mar mar zeuden. ⁶ Baña Yesu'k esan zien:
«Utzazute: zergatik nekagaři zatzazkiote? Niri ořek egi-
ña, ondo egiña da, ⁷ Landeřak, ba, beti dituzute zue-
kin, ta nai duzutenean, on egin al diezute. Ni, ordea,
ez nauzute beti. ⁸ Al zuna egin du onek; auřetik nere
soña ilobirako gantzutu du. ⁹ Ziñez dasaizuet: luřalde
guzietako bakoitzean Beři On au aldařikatuko danean,
onek egin duna ere aipatuřo da beraren oroitzat».

¹⁰ Ta Yuda Iskariote, amabietako bat, apaizpuruen-
gana yoan zan, Yesu ayei saltzera. ¹¹ Ayek adituta poztu
egin ziran, ta diru emateko agintza egin zioten. Ta zai
zebilan nola Bera mugonez ayei eman.

Azken Aparia

¹² Lenbiziko Otil-egunean, Paska-ilketakoan, ikas-
leak diotsate: «Nora nai gaituzu, Paska-aparia Zuri
atontzera?» ¹³ Ta bere ikasleetako bi igoriřik, dasaye:
«Zoazte irira, ta lusuila daroan gizon bat upatuko du-
zute: zařaizkiote; ¹⁴ ta sařtuko dan etxean jaunari
esayozute: Irakasleak dio: non dago aterbea, nere ikas-
leekin Paskakoa yan dezadan? ¹⁵ Ta mandio aundi ta
apaindu bat erakutsiko dizue: an guretzat dana gertu
ezazute». ¹⁶ Irakasleak yoan ziran, ta irira etoriřik, dana,
esan zienez, idoro zuten, ta Paska atondu.

¹⁷ Ařatsaldea elduta, amabiekin datoř. ¹⁸ Ta apari-
tan zeuntzala, Yesu'k esan zien: «Ziñez dasaizuet: zue-
tako batek, maikide zaidan batek, salduko nau».

¹⁹ Itzok goibelduta, asi ziran banaka Ari esaten: «Nik ote?» Ta beste batek: «Nik ote?» ²⁰ Yesu'k esan zien: «Amabietako batek, azpil berberetik Nerekin, yaten dagon batek. Gizasemea, noski, alde doa, Beratzaz idatzita dagonez. ¡Auxe zori txara, beñiz, Gizasemea salduko dunarena! Obe luke alakoak yayo ez izana».

²² Ta aparitan zeudela, Yesu'k ogia artu, onetsi, puskatu ta eman zien, esanaz: «Torizute; au da nere Soña». ²³ Ta ontzia arturik, esker eginda, eman zien, ta guziek artatik edan zuten. ²⁴ Ta esan zien: «Au da Itun Beñirako nere Odola, askoren alde ixuriko dana. ²⁵ Ziñez dasaizuet: ez dut gauñdanik matsardo ontatik iñoiz ere edango, beña Yaunaren erian zuekin edango dudan egun artaraño».

Getsemani'runtz

²⁶ Ta eresia esanda, Oliamendi'runtz irten ziran.

²⁷ Ta Yesu'k dasaye: «Guziok tupustari izango nauzute. Idatzita baitago: **«Artzaya yoko dut, eta saldo-ko ardiak sakabanatuko dira.** ²⁸ Baña beñpiztuta gero Galilai'ra auñelari yoango natzaizue». ²⁹ Kepa'k esan zien: «Guziek tupust eguñaren; neuk, ordea, ez». ³⁰ Ta Yesu'k diotsa: «Ziñez dasaizut: gauñ berton, olañak bitan yo baño len, irutan ukatuko nauzu. ³¹ Baña Kepa'k ekinda zion: «Zurekin il beñ ta ere, ez zaitut nik ukatuko». Ta guziek orobat zioten.

25 Beg. Mat. XXVI, 29

Yesu'ren otoyá

32 Getsemani deritzan etxaldera datoz, ta bere ikasleei dasaye: «Eseri emen, otoi dagidan artean». 33 Ta Kepa, Yakob eta Yon berekin árturik, laíi ta atsekabetan asi zan. 34 Ta esan zien: «Iltzeko bezain laíi dut biotza; itxoin emen ta ernai egon». 35 Ta apur bat auferatuz, luéan auzpeztuta otoi zegin, zori ura, alba'liz, aldendu zekion. 36 Ta zion: «Abba, Aita, Zuk dana dezakezu; ontzi au Nigandik alde erágizu; ez, ordea, Nik nai dudana, Zuk nai duzuna baño».

37 Ta aytara itzulita, lo yarugi zitun. Ta Kepa'ri diotsa: «Simon, zu ere lo? Ordu batez ernai ezin egon izan zera? 38 Ernai egon ta otoi egin, zirikaldira ez etoítzeko. Gogoa, noski, gerturik dago; aragia, ordea, erkin».

39 Ta beíro yoanda, otoi egin zun, lena beíz esaten. 40 Ta itzulirik, beíz lo yarugi zitun, ayen begiak astunduta baitzeuden; ta ez zekiten zer erantzun.

41 Irugaíen aldiz ba-dator ta esaten die: «Lo egizute orain ta atsedén ártu. Naiko da. Garaya eldu da. Ara Gizasemea okeíen eskuetan erori úren dago. 42 Yaiki ta goazan. Begira, úrbil dago salduko nauna».

Yesu atzita

43 Oraindik mintzo zala, Yuda Iskariot, amabietako bat, agiri da, ta arekin gizasail aundia ezpata-makilaz, apaizpuru, idazlari ta zaírek bidalita. 44 Aren saltzaleak,

36 Abba aramayeraz, ta Aita euskeraz, berdín dira.

beñiz, ezagupide au emana zien: «Nik muin negiokena, uraxe da; atzi ta guñbilki eramazute». ⁴⁵ Ta etoñi ala, Arengana auñeraturik, «Eñabi», esan ta muin egin zion. ⁴⁶ Ordun atzeman ta eldu zioten. ⁴⁷ Bañan ango batek ezpata aterata, apaiz nagusiaren moñoya yo ta belañia itaitu zion. ⁴⁸ Yesu'k, beñiz, ayekin mintzatuz, esan zien: «Lapuñ bila bezela, ezpata-makilaz Ni atzematera irten zerate. ⁴⁹ Egun oro zuen auñean irakasten yauretxean egoten nintzan, ta ez niñuzuten atzi, Idatziak onela bete ditezan».

⁵⁰ Ordun guziek, Bera utzita, iges egin zuten. ⁵¹ Gaztetxo bat ala ere, izara lañugoñi gañean yantzita, zeñayon, ta atzeman zuten. ⁵² Ark, ordea, izara eran-tzirik, lañugoñian iges egin zien.

Kaipa'renean

⁵³ Apaiz nagusiarengana Yesu daramate; ta apaiz-puru, idazlari ta zañ guziak ara biltzen dira. ⁵⁴ Kepa ere yañai zitzayon uruntsu apaiz nagusiaren atari bañneraño, ta moñoyekin sutondoan eserita zegon berotzen.

⁵⁵ Apaiz nagusia ta batzañe osoa, beñiz, Yesu'ren kaltetan aitoñ bila zebiltzan, Bera iltzeko; ta ez zidoro-ten; ⁵⁶ ainitzek Aren auñka gezuñez aitoñ egiñaren, aitoñok bat ez zetozañako. ⁵⁷ Azkenik, batzuk yaiki ta gezuñez Aren auñka aitoñ zegiten, esanaz: ⁵⁸ «Gerok entzun diogu esaten; eskuz egindako yauretxe au Nik poñokatu ta iru egun buruan beste bat eskuk ez egiña, eraikiko dut». ⁵⁹ Bañan oñela ere, ayen esanak ez zeto-
zan bat.

60 Beraz, apaiz nagusiak, erdira yaikita, galde au Yesu'ri egin zion: «Ezer ez al darantzazu? Zer da auek leporatzen dizutena?» 61 Baña Yesu isilik zegon itzik ere erantzuteke. Beñiro apaiz nagusiak itandu ta esan zion: «Kisto'a, Onetsiaren Semea, al zera Zu?» 62 Ta Yesu'k esan zion: «Bai; Ni naiz; ta Gizaseme au ikusiko duzute Yainko altsuaren eskui aldean eserita ortzi-odeyetan etoítzen». 63 Ordun, apaiz nagusiak, bere yazkiak uratuz dio: «Onezkero aitoítzalerik zertarako bear? 64 Biraoa zerok entzunda zaudete. Zer deritzazute?» Ta ayek ao batez eriotzarako ogenduntzat gaiztetsi zuten. 65 Batzu ere lixtuka asi zitzazkion, ta Aren aurpegia estalirik, zartatuz ziotsaten; «Igaí egik»; eta matsalekoka zerauntsaten.

Kepa'ren izpitzoak

66 Beko atarian Kepa zegola, ba-datoí apaiz nagusiaren neskameetako bat, 67 eta Kepa sutondoan ikusirik, so egin ta esan zion: «I ere Yesu Nazaretaíarekin enbilan». 68 Bañan Kepa'k uko egin zion, esanaz: «Dionanik ere ez zekiñat, ezta igaí ere egiten. Ta atauíera irten zan, ta olaíak yo egin zun. 69 Neskamea, ura ikusirik, asi zan beñiro an zeudenei esaten: «Au ere orietakoa duk». 70 Baña Kepa'k beíz ere uko. Ta apuí bat ezkerro, angoek Kepa'ri beíz ziotsaten: «Orietako aiz noski; galilaitaía aiz-ta». 71 Ordun Kepa asi zan araokatzen ta zin egiten: «Ezagun ere ez dazagut diozuten gizon ori». 72 Ta berealaxe olaíak bigaíren aldiz yo zun. Ta Kepa

oroitu zan Yesu'k berari esandako itzaz: «Ola'arak bitan yo baño len, irutan ukatuko nauzu» Ta nega'ez asi zan.

XV

Pilat'en au'ean

Goiz goizean apaiz nagusiek, za'ekin, idazlariekin ta batza're osoarekin itundu ziralta, Yesu lotu ta Pilat'i eka'ri ta eman zioten. ² Pilat'ek itandu zion: «Yuduen bakalduna Zu al zera?» Berak erantzuki esan zion: «Zero'rek diozu». ³ Ta apaiz nagusiek askotaz salatzen baitzuten, ⁴ Pilat'ek be'iro itandu zion: «Ez al duzu ezer erantzuten? Begira zeinbestetzaz salatzen zaituten». ⁵ Baña Yesu'k ez zun ezer ere erantzun. Ta Pilat a'ritu zan.

¿Yesu ala Baraba?

⁶ O'í ba, Paska-yayetan baitegiko bat, e'riak leskakena, askatu oi zion. ⁷ Matxiñadan norbait il baitzuten, Baraba zeritzana, baitegian zegon beste matxiñekin. ⁸ Pilat'engana yota, beraz, e'rikoak asi ziran beti egiten ziena berari eskatzen. ⁹ Baña Pilat'ek erantzun zien, esanaz: «Yuduen bakalduna askatzea nai al duzute?» ¹⁰ In'artsiaren apaiz nagusiek eman izan ziotela baitzekin. ¹¹ Bañan apaiz nagusiek e'ria axatu zuten, Baraba baka'rik askatua izan zekion. ¹² Pilat'ek, ordea, be'iro erantzuki, esan zien: «Zer nai duzute, ba, yuduen bakaldunari egitea?» ¹³ Be'iro ayek deada'ar egin zuten: «Gurutzatu

ezazu.» ¹⁴ Baña Pilat'ek zesayen: «Zein oke' egin du, ba?» Ta ayek areago deada' zegiten: Gurutzatu ezazu.»

¹⁵ Ordun Pilat'ek, e'ria limu'rtu nairik, Baraba askatuz, Yesu, len zigo'katua, gurutzatu zedin eman zien.

Arantzezko buruntza

¹⁶ Ta gudamutilek yauregi ba'nera, edo gudaletxera, eramán zuten. Ta gudari saldo osoa bildurik, ¹⁷ soñean txabux go'ri bat, eta buruan arantzaz eyotako buruntza bat eza'ri zioten. ¹⁸ Ta asi ziran agurka: «Agu'í, yuduen e'lege.» ¹⁹ Ta seska batez buruan zerauntsaten, ta tu zegioten, ta belaunikaturik, maku'rtu egiten zitzazkion. ²⁰ Ta o'rela ixekatu ondoren, txabux go'ria erantzi ta bere soñekoa yantzi zioten. Ta gurutzatzeko atera zuten.

Gurutzaldia

²¹ Ta arlotik zeto'ren bat, Simon Kirenai'koa, Alexander'en ta E'rupu'ren aita, igarotzean akuratu zuten, Aren gurutza e'ramateko. ²² Ta Golgota, edo berdindana, Garezu'rtegi'ra, Yesu eramán zuten. ²³ Ta mir'az nasitako ardoa edateko zemayoten; baña Ark ez zun a'rtu. ²⁴ Yesu gurutzatu ondoan, Aren yazkiak banatu zituten, zotz egiñaz nork zer eramango. ²⁵ Iruga'ren ordua zan gero, gurutzatu zutenean. ²⁶ Gañean idatzita ere zegon Aren ogen-agiria: **Yuduen bakalduna.** ²⁷ Ta Arekin lapu' bi gurutzatu zituten; bata eskui aldean, bestea ezke'ekoan. [²⁸ O'rela bete zan idatzita zegon au: **Ta gaiztagiñekin berdindu zuten**].

²⁹ Igarotzen ziranek, beñiz, burbuñoka biraokatzen ta esaten zioten: «Eit, yauretxea poñokatu ta iru egun buruan beñeraikitzen dukan oñek, ³⁰ ire burua yaregik, gurutzetik yetxirik». ³¹ Berebat apaizpuruek eta idazlari-riek maxi zegiotela, elkañi ziotsaten: «Besteak yaregin ditu, ta bere burua ezin. ³² Kisto'a, Israel'en eñegea, gurutzetik orain yetxi bedi, ikusi ta siñetsi dezagun.» Ta Arekin gurutzatuek ere iraintzen zuten.

Yesu'ren eriotza

³³ Seigañen orduan luñ osoa ilundu zan bederatziga-ñenerarte. ³⁴ Ta bederatzigañenean, Yesu'k ozengi ots egin zun, esanaz: «**Eloi, Eloi, lamma sabachtani?**» edo berdin dana, **Ene Yainkoa, ene Yainkoa, zergatik zapuztu nauzu?**» ³⁵ Ori entzunda, an zeuden batzuk zerasaten: «Ara, Eli'ri deika zegok ori:» ³⁶ Ta norbaitek, atxintxi egiñik, oragun bat ozpiñez uyeldu ta seska-erpiñean ezañita, edaten zemayon, esanaz: «Itxoizute: ikus dezagun Bera eraixteko Eli ote datoñen». ³⁷ Baña Yesu'k, ots aundi bat egiñik, azken atsa atera zun.

³⁸ Ta yauretxeko estalkia goitik bêra erdibitu zan. ³⁹ Auñez auñe zegon euntariak, beñiz, oñela ots egiñik il zala ikusita, esan zun: «Yainkoaren Seme zan ziñez gizon au.»

⁴⁰ Emakume batzu ere an zeuden uruntxetik begira; ta ayen artean Mari Malen, ta Yakob gaztearen ta Yo-se'ren ama Mari, ta Salome, ⁴¹ Galilai'n Yesu zegonean, mirabe lagunketan zeñraizkionak; baita beste emakume asko ere, Yerusalen'a Arekin igoak.

Yesu'ren ilobiratzea

⁴² Añatsalde apalean, Paraskebe, edo larunbat aurreko eguna zala-ta, ⁴³ Yose Arimatai'koa. batzañe nagusi-koa, ta Yainkoaren yauraldi zai zegona, etoñi zan ta Pilat'engana sartu, Yesu'ren soña eskatzen. ⁴⁴ Pilat'ek, oñen laster Yesu il zala añituta, euntaria eratoñirik, itandu zion il ote zan. ⁴⁵ Ta bayetz yakiñik, soña Yose'ri eman zion. ⁴⁶ Ta Yose'k, izara bat erosi ta soña eraxirik, izaraz bildu ta añkaitzean irikitako obian eortzi zun, ta obi-aotan añi bat atetzat yañi zun. ⁴⁷ Mari Malen ta Yose'ren Mari, beñiz, begira zeuden soña non ipiñita gelditzen zan.

XVI

Yesu beñpiztuta

Larunbata igaro zanean, Mari Malen'ek eta Yakob'en Mari'k eta Salome'k gantzukiak erosi zituten [Yesu] iguñtzera yoateko. ² Ta lenbiziko astegunean, goiz goizetik ilobira dato, eguzkia soñtzean, ³ «Ilobi-atetik aña nork irauliko digu?» elkañi zerasayotela. ⁴ Ta begiak yasorik aña dakuste alde eragiña zala; aundiegi zan oñatiño. ⁵ Ta obian sartu ziralta, gazte bat ikusi zuten eskui aldean eseri ta soñeko zuriz yantzia; ta izutu

² Lenbiziko astegun au, yudentzat, igandea zan.

ziran. ⁶ Ark, beñiz, dasaye: «Ez izutu; gurutzatu izandako Yesu Nazaretañaren bila zatozte; beñpiztu da; ez dago emen; oñra non ipiñi zuten. ⁷ Zoazte, ba; Aren ikasleei ta Kepa'ri esayezute Galilai'ra auñeratzen zai-zuela. An ikusiko duzute, Berak esan zizuenez».

⁸ Ayek, ba, iñlobitik irtenda iges egin zuten, belduñ-ikarak zeudelako, ta iññori ez zioten ezer esan belduñ-añren.


⁹ Lenbiziko astegunean, goizean beñpiztu zalarik, zaz-pi txereñgandik Berak yaregindako Mari Malen'i ageri izan zitzayon lenbizi. ¹⁰ Ura, Yesu'rekin egondakoei beñi ekañtzera yoan zan, atsekabez negañetan zeudenean. ¹¹ Ta ayek, bizitan zala ta Malen'ek ikusi zula entzunik, ez zuten siñetsi.

¹² Gero, ayetako biri, baseñira ziyoazala, bidean besteren irudiz ageri izan zitzayen. ¹³ Ta ayek, yoanda, osterantzekoei beñi eman zioten. Baña bioi ere ez zieten siñetsi.

¹⁴ Azkenik, amaikak mai ondoan zeuntzala, ageri izan zitzayen, ta siñesgabea ta biotzgogoñkeria yauki zizkien, beñpiztua ikusi izan zutenei siñetsi ez zietelako. ¹⁵ Ta esan zien: «Zoazte luñbira osoan baña, ta gizaki guziei Beñi Ona iragañkiezute. ¹⁶ Siñetsi ta ukuz-pena arñtu dukena, gaizkatuko da; siñetsi ez dukena, or-dea, gaiztetsiko da. ¹⁷ Siñetsi duketenei, beñiz, alatzok dañraizkieke; nere izenean txereñnak iraitzi, izkera beñiak erabili, ¹⁸ ta sugeak eskuz arñtzeko gai izango dira; ilgañi zerbait edanda ere, ez die kalterik egingo; eskuak eriei gañean ezañitakoan, eriak sendatuko dira».

19 Ayei mintzatu ondoren [Yesu] Yauna zerura yaso zan ta Yainkoaren eskui aldean eserita dago.

20 Ayek, beñiz, yoanda, bazteñalde guzietan Beñi Ona zabaldu zuten, Yauna alatzez lankide ta zerakaste-naren sendotzale zitzayela.



YESU KISTO'REN
BERI ONA
LUKA DEUNAK DAKAREN EZ

LUKA deunaren yatorizko uria Siri'ko Antioki zala Eusebi'ren bitartez dakigu, ta alde batera yudutara ez zala, ta bestera osagile ta Paul'en kutuna zala ere Paul'ek berak agertzen digu (Kol. IV, 14). Gero Bidalien Egiñetan ageriko zaigu Paul'ekin bigarren ta irugarren ibiltaldi aundietan lagun zintzo. Luka'ri aintziñate guziak irugarren Ebaingeria ezartzen dio, ta Ebaingeri ortatik ere laster igartzen da Paul'en ikaslearen azterna. Emendik ez baliz, inondik ez genduke gure Yaunaren aurtzaroa yakingo. Bidalien Egiñak deritzan idaztitxo au 64'gn. urtean agertu baitzan, eta Ebaingeria Bidalien Egiñak baño lenagokoa baitzan, beraz ziur dakigu irugarren Ebaingeria 63'gn. urterako agertu zala.

Luka deunaren yaya urilaren 18'n.

I

Itzaurera

A si ta bertatik ikusle ta Itz-ereile izanek yakiñerazi digutenez, ¹ gurean yazotakoen txostena atontzen ainitzek alegin dutela-ta, ³ azterenez dana ayolatsu ikeri dudan neroni ere otu zait, aldikoa aldian, zuri, Teopil bikain ori, idaztea, ⁴ ikasi dituzunen egia dazaguzun.

Yon Ukuzlearen soñera

⁵ Erode Yudai'ko yaunaren egunetan, Zakari zertzan, apaiz bat zan, Abia'ren sailekoa; ta aren emaztea,

³ Teopil onen beste beñirik ez dugu. Kistau ospatsuren bat bide zan, berari Luk'ek Ebaingeria ta bigarren idaztia, au da, Bidalien edo Apostoluen Egiñak, eskeintzeko. Bid. Eg, I, 1.

Elisabet izenez, Aaron'en alabaetakoa zan. ⁶ Yainkoaren begitan biok zintzo ziran, ta Yaunaren agindu ta zuzenbide guzietan akañkizunik gabe zebiltzan. ⁷ Ta umerik ez zuten, Elisabet legoía zalako ta biak elduegixeak ziralako.

⁸ Bere sailaren aldia zala-ta, Yaunaren auñean yaur egiten zegon bein batean, ⁹ luñinketarako, apaizetan oi danez, zotzean aututa, Yaunaren etxean sañtu zan; ¹⁰ ta luñiñaldian eñi guzia otoiketetan zegon atetik. ¹¹ Yaunaren aingerua, beñiz, Zakari'ri ageri izan zitzayon luñimai eskui aldean zutik. ¹² Bera ikustez Zakari lañitu zan, ta belduñak añtu zun. ¹³ Bañan aingeruak esan zion: «Ez izutu, Zakari, zure otoyá entzuna baitago, ta zure emazte Elisabet'ek auñ egingo dizu, ta Yon izena ezañiko diozu. ¹⁴ Atsegin ta pozkañi izango zaizu, ta aren yayotzaz asko poztuko dira; ¹⁵ Yaunaren auñean aundia izango da-ta. Ez du ardorik ez sagañdorik edango; ta bere amaren sabelean bertan Goteunez beteko da. ¹⁶ Israel'en seme asko beren Yainko Yaunarengana itzuliko ditu, ¹⁷ ta guzien auñean Eli'ren adoretz ta indañez yoango da, gurasoen biotzak semeengana ta siñesgabeak zintzoen senera ekañtzen, Yaunari eñi bikain bat atontzeko». ¹⁸ Ta Zakari'k aingeruari esan zion: «Ori zertan dazaguket? Zañá naiz, ba, ta nere emaztea ere adiñean elduegixea. ¹⁹ Aingeruak yardetsi ta esan zion: «Ni Gabirel naiz, Yainkoaren auñean egoten naizana; ta zuri mintzatu ta beñi au ekañtzen bidalita natoñ. ²⁰ Ta begi-

^{8, 9} Yauretxean eginbeañak 24 apaiz-sailen ardurapean zeuden, salak oñtarako asteka aldikatzen zirala. Asteko sail-apaiz artean, beñiz, zer nork egin beañ zunik zotzean erabakitzen zan.

ra; garai egokian nere itzak beteko dira; bete artean, beñiz, mintzulik zaudeke, itzik ezin egiñez, siñetsi ez didazulako».

²¹ Eria bitartean Zakari'ren zai zegon, yauretxean berantzen zala-ta añiturik. ²² Irten zanean, ezin mintzatu zitzayen, ta agerkari bat yauretxean ikusi zula igarizuten. Ark, beñiz, kiñuka zerauskien, ta mintzulik gelditu zan.

²³ Yauregiteko egunak bete zitzazkionean, etxera yoan zan. ²⁴ Egun ayen ondoan Elisabet, aren emaztea, aurðun egin zan, ta bost ilabetez ostenik zegon, esanaz: ²⁵ «Onela Yaunak egin dit egunotan, nere gerena gizar-tetik kentzeko begiratu naularik».

Aingeruak Mari'ri ekañitako gezna

²⁶ Seigañen ilabetean Yainkoak Gabirel aingerua Nazaret deritzan Galilai'ko irira bidali zun neskatx batengana. ²⁷ Neskatxa, Yose zeritzan Dabid'en belauneko gizon baten emaztegaya zan, ta neskatxaren izena, Mari. ²⁸ Onengana orduko, ba, aingeruak esan zion: «Aguñ, eskeñtsu; Yauna zurekin; [onetsia Zu emakumetan]». ²⁹ Ori adituta, Mari artegatu zan, alako aguña zer ote liteken asmatuz. ³⁰ Ta aingeruak esan zion: «Ez belduñ izan, Mari; Yainkoaren edeña daukazu-ta. ³¹ Begira; sabelean seme soñtu ta egingo duzu, ta Yesu diotsakezu. ³² Aundia izango da; ta Goikoaren Seme diotsakete; ta Aren arbaso Dabid'en aulkia Yainko Yaunak

²⁵ Israeldañak emakumeen agoñtasuna alketzat artzen zuten, Mesia-
ren aragizko yatoñiari begira

²⁷ Emaztegaya. Beg. Mat. I, 18,

damayoke; ³³ ta Yakob'en etxeko buruzagia izango da bein betiko; ta Aren yauraldiak ez du amairik izango». ³⁴ Baña Mari'k aingeruari esan zion: «Ori nola liteke, gizonik ez baitazagut?» ³⁵ Ta aingeruak erantzuki esan zion: «Goteuna Zugana goitik yetxiko da, ta Goikoaren indar'ak bere itzalpean artuko zaitu. Argatik ere, Deun soñtua, Yainkoaren Seme deritzake. ³⁶ Oñra, ezperen, Elisabet zure aidea bere zañtzaroan aur'dun egiña, ta agoñ omen zana, aur' egiteko seigañen ilabetera eldua; ³⁷ Yainkoarentzat ezin ditekenik ez dago-ta.» ³⁸ Ordun Mari'k esan zun: «Ona Yaunaren mirabea; egin bedi nigan diozunez». Ta aingerua yoan zan Arengandik.

Mari ta Elisabet elkar'i agur'ka

³⁹ Egun ayetan Mari yaiki ta mendiruntz arin yoan zan Yudai'ko iri batera. ⁴⁰ Ta Zakari'renean sañtuz, Elisabet'i agur' egin zion. ⁴¹ Ta ara, Mari'ren agur'a Elisabet'ek entzun ala, sabelean aur'a yauzika asi zitzayon ta Elisabet Goteunez bete zan. ⁴² Ta ozengi ots egin zun, esanaz: «Onetsia Zu emakumeetan, ta onetsia zure sabeleko umea ere. ⁴³ Nor naiz, ordea, ni, nere Yaunaren Ama nigana etoñtzeko? ⁴⁴ Begira, ba; zure agur'-mintzoa nere belañietara orduko, aur'txoa nere eñayetan iyutika asi da. ⁴⁵ Zori onekoa, beñiz, Yaunaketz Zuri esanak beteko dirala siñetsi duzun Ori! ⁴⁶ Ta Mari'k esan zun:

³⁴ Gizonik ez baitazagut... Itz garbi onekiñ agertzen du gizonik aragiz ez ezaguteko zeukan asmo sendoa; ezperen, berak diona uleñtu ere eziñ leike, eta eñezegia zan erantzuer'a, ta ez beintzat aingeruarena.

«Yauna gogotikan goosten dut,
 47 ta Yainkoa osagaí zaidala-ta,
 biotza poz-dardar dagokit.

48 Berak bere mirabe onen txikitasuna
 [begirata,
 ara, gizaldi guziek zori ontsua diostakete.

49 Izan ere, nigan oparo ari izan da
 altsua dan ta Deuna deritzana,

50 lotsa darakustenei
 gizaldiz gizaldi eúki zayena.

51 Bere besoa indaíez erabili du;
 biotz aíoetako atuiesteak suntsitu,

52 altsuak aulkitik irauli,
 ta apalak gora yaso ditu.

53 Gose ziranak ogasunez bete
 ta aberatsak esku utsik yaurti ditu.

54, 55 Gure arbasoei esan zienez,
 Israel, bere otseiña, beretzat aítu du betiko,
 Abraham ta aren aziarekiko bere eúkiaz
 [oroitzeko».

56 Ta iru ilabetez arekin egonda, berera Mari
 itzuli zan.

Yon Ukuzlearen yayotza

57 Elisabet'ek, beíz, ertaldia eldu zitzayonean, seme
 egin zun. 58 Ta Yainkoak ari erakutsitako eúki aundia
 entzunda, bere auzoko ta aideak pozkide zetozkion.
 59 Zortzigaíren egunean auíaren erdainketara etoí ziran,
 ta Zakari izena, aitarena gero, ezaí nai zioten. 60 Amak,

ordea, artetu ta esan zun: «Inola ere ez; Yon izena izango du». ⁶¹ Ta esan zioten: «Izen ori dunik inor ere ez dago zure aideetan». ⁶² Ta aitari kiñuka galde zegioten nola nai zun aurá izendatzea. ⁶³ Berak, beríz, idaztoltxoa eskaturik, idatzi zun; «Yon da orén izena». Ta guziak aritu ziran. ⁶⁴ Ta beingoan ao ta mingaña askatu zitzazkion, ta Yainkoa goresten mintzo zan.

⁶⁵ Ayen auzoko guziak belduřtuta zeuden, ta Yudaiko mendi alde guzian gertariok bařeyatzen ziyoazan. ⁶⁶ Ta entzule guziek biotzean zekazten, esanaz: «Zer deritzak aur' ori izango dukala? Yaunaren eskua orén alde baitzegok». ⁶⁷ Aren aita Zakari'k goiko adorez beterik, igarí egin zun, esanaz:

**⁶⁸ Onetsia Israel'en Yainko Yauna,
bere eria begira ta yaregin dulako.**

⁶⁹ Bere mořoi Dabid'en etxean

Yaregile azkařa sořtu digu,

⁷⁰ (bere igarle deunen aoz

aspaldi esan zigunez)

**⁷¹ gure etsai ta gořototzale guzien eskutik
yarei gu ateratzeko,**

⁷² gure arbasoei eruki izateko,

ta bere Itun deuna gomutaratzeko.

⁷³ Gure arbaso Abraham'i zin egin zion, ba,

**⁷⁴ gure etsayen eskutik yaregingo giñuzala,
belduřik gabe mořoi bizi gakizkion,**

⁶³ Idaztola: zurezko edo olezko ta argizagiz mazkildutako zatitxoa; eztenxo batekiñ idazten zan, ba.

⁷⁵ deun ta zintzo Aren begitan
gure egun guzietan ibilki.

⁷⁶ Ta zu, aurí ori, Goikoaren igañle deritzakezu,
Yaunaren auréti bidea gertuz zoazkioke-ta,

⁷⁷ ogen-asketserako osasun-yakintza
bere eñari irakasteko.

⁷⁸ Yainkoaren eñai eñukitsuak dirala-ta,
goitik Goiz-argia gurera etoñi da,

⁷⁹ iluntan ta erio-itzalpean etzanak argitzera
ta gentza-bidetik gure oñak zuzentzera».

⁸⁰ Auñ, beñiz, azkoñtzen ziyoan ta adorez azkañtzen;
ta basoan bizi zan Israel'i agertzeko eguneraño.

II

Yesu'ren yayotza

Egun ayetan luñbira osoa eñoltzeko agindua Kaiser
August'ek atera zun. ² Lenbiziko eñoltze au, Siri'ko
buruzagi Kirin zala, egin zan. ³ Guziak, beraz, norbera-
ren irira eñoltzeko ziyoazan.

⁴ Yose ere bai, Dabid'en etxe ta yatoñiko baitzan,
Galilai'ko Nazaret iritik Yudai'ko Betlen irira igo zan
⁵ eñoltzarako bere emazte Mari auñdunarekin. ⁶ Ta an

⁷⁸ Goiz-argi au Mesias da.

¹ Luñbira osoa. Eñoma'ren zigoñak menperatutako luña ta eñiak.

² Lenbiziko eñoltze au... Lenbizikoa diogu, amañ urte bañu biga-
fena (Bid. V, 37) izan zalako. Oingoan izenak bakañik idazten ziran,
zenbatza besterik ez zalako; gerokoan, beñiz, zerga ere ba-zan.

zeudela, erditzeko egunak Mari'ri bete zitzazkion. ⁷ Ta bere lensemea izan zun, ta oyalez bildu ta ukulu-askan ezañi zun; aroztegian ayentzat tokirik ez zegolako.

Aingeru ta artzayak

⁸ Alde artan artzai batzu zeuden, aldizka atzañirik, izañpean, beren artaldeak gauez zaintzen. ⁹ Ta ara, Yaunaren aingerua aurkeztu zitzayen, ta Yaunaren aintza ayen baranoan istatu zan, sañakioz belduñtzen zitula. ¹⁰ Bañan aingeruak esan zien: «Ez izutu; orizute; eñi osoa poz poztuko dun zerbait iragañtzen natoñkizue. ¹¹ Yaregilea, Kisto Yauna dana, Dabid'en irian gauñ yayo zaizue. ¹² Ta oña zuentzat ezagupidea; Aurtxoa oyalez bildu ta ukulu-askan ipiñita idoroko duzute». ¹³ Bat batean zerutañen samalda aundi bat aingeruarekin bildu zan. Yainkoa goosten ta esaten zutela:

**¹⁴ Aintza goyaldetan Yainkoari,
ta luñean gentza ta gogo ona gizonei.**

¹⁵ Aingeruak zerura yoanda, beñiz, artzayek elkañi ziotsaten: «Goazan Betlen'año, ta Yaunak yakiñerazi digun gertari au dakusagun». ¹⁶ Yoan ziran azkañ, ta Mari ta Yose ta Aurtxoa askan etzana idoro zituten. ¹⁷ Ta ikusitakoan, Aurtxo artzaz ayei esana zabaldu zuten. ¹⁸ Ta guziak, artzayek zerauskietena entzunik, añitzen ziran. ¹⁹ Mari'k ordea, esanok oro bilduta zeuz-

⁷ Lensemea, edo amabeñiren semea. Yesu, Mari'ren seme bakaña da; beraz, amabeñiren semea. Ondo, beñiz, lensemetzat emen aipatzen da, bereala azalduko dan Garbikuntzako, Beragan bete beña zala adirazteko.

¹⁹ Ebaingeri onen bitañtez Yesu'ren aurtzaroaz dakiguna, Andra Mari'ri zoñ diogu.

kan, bere biotzean auzmaítzen zitula. ²⁰ Ta artzayak, esana izan zitzayenez, entzun ta ikusi zutenarengatik Yainkoari aintzaka ta goraka itzuli ziran.

Yesu'ren erdainkuntza

²¹ Auía erdaintzeko zortzi egunak bete ziranean, amasabelean Bera erne baño len aingeruak ekaítako Yesu izena ezaí zioten.

Yesu yauretxean aurkeztuta

²² Ta Mois'en legez ayen garbikuntzarako egunak bete ziranean, Aurtxoa Yerusalen'a eraman zuten, Yau-nari aurkezteko, Yaunaren legean idatzita dagonez: ²³ «**Amabeñiren ume aí dana bego Yaunarentzat berezi**», ²⁴ ta oparitzat uxapal biko bat edo usakume bi eskeintzeko, Yaunaren legeak dionez.

²⁵ Orí ba, Simeon zeritzan gizon zintzo ta Yainkozale bat Yerusalen'en ba-zan, Israel'en atsaldi zai; ta Goteuna zegon arengan. ²⁶ Goteunak irakatsita zeukan erio-tza ikusiko ez zula, Yaunaren Kistoa len ikusteke. ²⁷ Gogoaren eragitez, ba, yauretxera etoí zan; ta Yesu auía, lege-arauz zegokiona egiteko, Aren gurasoek an saítzean, ²⁸ berak ere bere besoetan Auía artu ta Yainkoa onetsi ta esan zun:

²⁹ «**Orain, Yauna, zure itzaren arauz,
zure otsein au gentzaz dagoítzu;**

³⁰ **zure osabidea nere begiok ikusi dute, ba,**

²³ Irt. XIII, 2; Zenb, VIII, 16.

²⁴ Leb. XII, 2-13.

³¹ eñi guzien auéz Zeroék yaña,
³² atzeñiak argitzeko zuzi
 ta zure eñi Israel'en aintza dedin».

³³ Oñelakoak Auñaz entzutean, Aren aita-amak aña-
 tuta zeuden. ³⁴ Simeon'ek biok onetsi ta Auñaren ama
 Mari'ri esan zion: «Begira; asko Israel'en galdu ta asko
 piztu ditezan, gudoyaltzat yañita dago Au. ³⁵ Ta Zero-
 ñen biotza alderen alde ezpatak zulatuko du, biotz
 askotako asmoak ager ditezan».

³⁶ Emakume igarñe bat ere ba-zan, Ana, Panuel'en
 alaba, Aser'en eñokoa. Adñean oso eldua zan, ta bere
 senañarekin neskatandik zazpi urtez bizi izanda, ³⁷ laro-
 gei ta lau urteraño alargun zegon, yauretxetik alden-
 tzeke, baru ta otoiketani [Yainkoa] gau ta egun yaures-
 ten. ³⁸ Beraz, garai artan etoñirik, onek ere Yauna
 goresten zun, ta yareikuntza zai Yerusalen'en zeuden
 guziei Auñaz zerauskien.

³⁹ Yaunaren lege-arauz dana bete ondoren, Galilai'ra
 itzuli ziran, beren iri Nazaret'a. ⁴⁰ Ta Auña azi ta azkoñ-
 tzen ziyoan senaz beterik, eta Yainkoaren adeya Arengan
 zegon.

Irakasletartean

⁴¹ Paska yayean Aren gurasoak urte oro Yerusalen'a
 yoaten ziran. ⁴² Amabi urtedun zala, beraz, yayean oi
 bezela, ayek ara igo ziran. ⁴³ Ta egunak igarota, oster-
 koan, Auña Yerusalen'en gelditu zan gurasoak oartzeke.
⁴⁴ Laguntaldean zegolakoan, egunbeteko bidea egin
 ondoren, aide ta ezagunen artean Aren bila asi

ziran. ⁴⁵ Bañan idorotzen ez baitzuten, Yerusalen'a itzuli ziran Aren bila. ⁴⁶ Iru egun buruan idoro zuten yauretxean irakasleen erdian eserita, ayei entzun ta galde egiten. ⁴⁷ Ta entzule guziak so' ta lo' zeuden Aren yakintza ta erantzunetaz. ⁴⁸ O'rela ikusi zutenean, a'ritu ziran, ta Amak esan zion: Seme, zergatik ori egin diguzu? Begira; aita ta biok zure bila atsekabez genbiltzan. ⁴⁹ Ta esan zien: «Zertarako nere bila ibili, ordea? Ez al zenekiten nere Aitarenean egon bea' dudala?» ⁵⁰ Ayek, be'iz, ez zuten Ark esana uler'itu.

⁵¹ Ta yetxi zan ayekin, ta Nazaret'a eto'irik, ayen mendean bizi zan. Aren Amak, be'iz, guzi au bere biotzean zeukan. ⁵² Ta Yesu senaz ta lazoz ta Yainkoaganako ta gizaganako gogarabidez azten ziyoan.

III

Yon Ukuzlea basoan

Tiberi Kaiser'en yauraldiko amaboska'ren urtean, Yudai'n Ponti Pilat yaur'le zala, ta Galilai'n Erode, Iturai'n Erode'ren anai Pilipe, ta Abilene'n Lisani laurdenburu zirala; ² Ana ta Kaipa apaiz nagusien mendean, Zakari'ren seme Yon'i basoan Yaunak itz egin zion. ³ Ta Yon eto'iri zan Yordan alde osoan ba'rna ogen

⁵² Yainkoa zanetik, eziñ auferatu ziteken Aren yakintza ezertan ere; baña gizona zanez, bere yainkotasunaren yakintza geroago ta geyago erakutsi al zun, ta bere zentzumenen bidez gauza be'riak egunero ikasi ere bai; demagun, gau' ikusi, atzo bere gizabegiak ikusi ez zutena; gau' entzun orain arte entzun ez zuna, ta o'relakoak.

¹ Palaistina'ren ipa' eta so'taldera yotzen zuten Iturai, Trakonitis eta Abilene zeritzan lu'aldeak.

-asketserako ukuzpena aldarikatzen, 4 Isai igarlearen idaztian idaztzita dagonez;

«Basoan aldarika ari danaren otsa;

Yaunaren bidea atondu

ta Aren zidoiak zuzen itzazute.

5 Sakan guziak beteko dira,

ta mendi ta muño guziak apalduko.

Okeñuneak arteztuko

ta malkaak ordotuko dira,

6 ta gizaki guziek Yainkoaren osabidea

[dakuskete».

7 Arengana ukuzpen-eske taldeka zetozkionei esaten zien: «Ziraunkumeok, norak erakutsi dizue etoítzeko dan aseñetik igesten? 8 Egin garbai-arnari yatoiak, eta ez asi esaten: Abrahan dugu aita. Esaten dizuet ba; Yainkoa ari orietatik ere Abrahan'i semeak soítzeko altsu da. 9 Egon ere aizkora zugatz-eñoari ezañita dago. Beraz, arnari onik ez lekañken zugatz guzia erauzi ta sutara yaurtiko dute» 10 Ta laguntaldeen galde zegoiten: «Zer egin bea dugu, ba? 11 Ta ark zerantzuyen: «Bi soñeko ditunak ez dunari bemayo, ta yatekorik dunak berebat egin beza». 12 Zergariak ere ukuzpen-eske arganatu ta esan zioten; «Irakasle, zer egingo dugu?» 13 Ta ark esan zien: «Erbakitakoa baizik ez lakatu», 14 Baita gudamutilek ere galde zegoiten: «Ta guk zer egingo dugu?». Ta esan zien: «Indañkeririk iñori ez egin, ezta iruzuñik ere, ta zuen sariaz naikotu».

15 Baña Yon'i buruz eña kardabaz, ta Kistoa ote

4-7 Is. XL, 3-6.

zanentz guziak biotz artegaz baitzeuden, ¹⁶ Yon'ek, guziei erantzunik, esan zien: «Nik noski urez ukuzten zaituzt; ba-dato'í, ordea, beste bat, ni baño azka'ragoa, ta oñe-tako ugalak askatzeko ere nor ez natzayona. Beraxek suz ta Goteunez ukuziko zaituz. ¹⁷ Baea eskuan daka'í, ta garia bere mandioan bilduz, lastoa ezin itzungi diteken sutan e'réko du».

¹⁸ Aolkuok eta beste asko ere egiñik, Be'ri Ona e'riari azaltzen zion.

¹⁹ Bañan Erode laurdenburuak, bere anayareñ emazte Erodiarengatik eta berak egindako gaiztakeri guziengatik Yon'ek aka'í egin ziola-ta, ²⁰ gaiztakeri be'ri bat lengoei erantsi zien, baitegian Yon itxirik.

Yesu'ren ukuzpena

²¹ Ukuzpena a'rtzen e'ri guzia zegon bein batean, Yesu ere ukuzpena a'rtuta gero otoiketean zegola, ortzia zabaldu ta ²² soin-irudiz Goteuna Aren gañera, usoa bezela, yetxi ta ots au eto'í zan: «Zu zera nere Seme kuñuna, nere gogarakoa».

²³ Yesu ogei ta ama'í urtekoa edo zan, agertzen asi zanean, ta Yose'ren seme omen zan.

Yesu'ren eto'íkia

Yose, be'riz, Eli'ren seme zan; ²⁴ ta au Matat'ena; ta au Lebi'rena; ta au Melki'rena; ta au Yane'rena; ta au

²⁴ Eli'ren seme. Yose'ren aita Luka'k emen Eli, ta Matai'k (I, 16) Yakob aipatzen du. Biek egia diote. Yakob ta Eli anai ziran. Eli semerik gabe ilda gero, Yakob aren anaya, Legeari zetzikiola, alargu-narekin ezkondu zan ta arengandik Yose so'rtu zun. O'í ba, Legearen aginduz, o'íelako semeak anai nagusiaren seme ziran.

Yose'rena; ²⁵ ta au Matati'rena; ta au Amos'ena; ta au Nahun'ena; ta au Esli'rena; ta au Nagai'rena; ²⁶ ta au Mahat'ena; ta au Matati'rena; ta au Semei'rena; ta au Yose'rena, ta au Yuda'rena; ²⁷ ta au Yoana'rena; ta au E'esa'rena; ta au Zorobabel'ena; ta au Salatiel'ena; ta au Neri'rena; ²⁸ ta au Melki'rena; ta au Adi'rena; ta au Kosan'ena; ta au Elmadane'na; ta au Er'ena; ²⁹ ta au Yesu'rena; ta au Elizer'ena; ta au Yorin'ena; ta au Matat'ena; ta au Lebi'rena; ³⁰ ta au Simeon'ena; ta au Yuda'rena; ta au Yose'rena; ta au Yona'rena; ta au Eliakin'ena; ³¹ ta au Melea'rena; ta au Mena'rena; ta au Matata'rena; ta au Natan'ena; ta au Dabid'ena; ³² ta au Yese'rena; ta au Yobed'ena; ta au Booz'ena; ta au Sala'rena; ta au Naason'ena; ³³ ta au Aminadab'ena; ta au Admein'ena; ta au Arnei'rena; ta au Esron'ena; ta au Pares'ena; ta au Yuda'rena; ³⁴ ta au Yakob'ena ta au Isaak'ena; ta au Abrahan'ena; ta au Tara'rena; ta au Nakor'ena; ³⁵ ta au Seruk'ena; ta au E'ragau'rena; ta au Palek'ena; ta au Eber'ena; ta au Sala'rena; ³⁶ ta au Kainan'ena; ta au Arpaxad'ena; ta au Sem'ena; ta au Noe'rena; ta au Lamek'ena; ³⁷ ta au Matusala'rena; ta au Enok'ena; ta au Yared'ena; ta au Maleleel'ena; ta au Kainan'ena; ³⁸ ta au Enos'ena; ta au Set'ena; ta au Adan'ena; ta au Yainkoarena.

IV

Yesu'ren barute ta zirikaldiak

Yordan'etik Yesu itzuli zan Goteunez beterik, basora Goteunak zeramala ² be'rogei eguneko, txer'enenak zirikatua izateko. Egun ayetan ez zun ezer yan; igaro ziranean, be'riz, gose zan. ³ Ta txer'enek esan zion: «Yainkoaren Seme ba'zera, a'ri oni esayozu ogitzeko». ⁴ Yesu'k erantzun zion: «Idatzita zegok; **ez duk ogi utsez gizona bizi, Yainkoaren edozein itzez ba'ño**». ⁵ Txer'enek gero [mendi garai batera eramanda], lu'rbira-ko e'ri guziak bat batean erakutsi zizkion, ⁶ ta esan zion: «Guzion ga'neko esku ta ospea emango dizkizut; nere aukeran daude, ba, ta nai dudanari damazkiot. ⁷ Beraz, auzpezten ba'zatzait, guzi au zurea izango da». ⁸ Yesu'k yardetsi ta esan zion: «Idatzita zegok: «**Ire Yainko Yauna yauretsak eta Berari baka'rik mo'roi ato'rkio**». ⁹ Yerusalen'a ere eroan ta yauretxeko erpi'nean ya'ri zun ta esan zion: «Yainkoaren Seme ba'zera, yalki zaitez beruntz; ¹⁰ idatzita baitago:

Zure zaitza bere aingeruei egotzi die,

¹¹ **ta ayek eskuetan zaramazkete,**

a'ritan zure o'nak tupust egin ez dezan».

¹² Yesu'k yardetsi ta esan zion: «Esana zegok: **Ez duk ire Yainko Yauna zirikatuko**».

⁴ Deut. VIII, 3.

⁸ Deut. VI, 13; X, 20.

^{10, 11} Er. XC, 11, 12.

¹² Deut. VI, 16.

¹³ Zirikaldiok bukatuta, Arengandik txerén aldendu zan ordukotz.

Yesu Nazaret'en

¹⁴ Ordun Yesu, Gogoaren eragitez, itzuli zan Galilai'ra, ta Aren aipua, bazte'ralde osoan ba'reyatu zan.

¹⁵ Bera, beriz, ayen sinagogetan irakasten ari zan, guziek goresten zutela.

¹⁶ Nazaret'en azi baitzan, bertara eto'ri ta sinagogan, oi zunez, sa'rturik, iraku'rtzera yaiki zan. ¹⁷ Isai iga'learen idaztia eman zioten, ta zabaldu zuneko, idaztune au upatu zun:

¹⁸ «Yaunaren atsa nere ga'nean;

Berak gantzutu ta bidali nau, ba,

lande'ei Be'ri Ona eka'rtzeko,

biotz garbaitsuak sendatzeko,

¹⁹ lotuei yareikuntza,

itsuei ikusmena,

ta atsekabetuei atsaldia eskeintzeko,

ta Yaunaren adei-urtea alda'rikatzeko.

²⁰ Ta idaztia bildu ta arduradunari itzulitakoan, eseri zan. Ta sinagogan guzien begiak zeuden Arengana so ta so. ²¹ Asi zan, beraz, ayei esaten: «Gau' bete da idazkun au zuen belar'ietan». ²² Ta guziek adei zeka'rikioten, ta Aren aotik so'rtzen ziran itz ede'retaz a'riturik, zerasaten: «Ez al duk au Yose'ren semea?» ²³ Ta Berak esan zien: «Esan za'ra esango didazute, noski; sendalari, zero'ren gaitza erauzi. Kaparnaun'en egin

18, 19 Is. LXI, 1, 2.

omen duzun dana, emen ere, zure eñi ontan egizu». ²⁴ Esan zien ere: «Ziñez dasaizuet; ez dago igañlerik bere eñian aintzat arturik. ²⁵ Emakume alargun asko Israel'en ba-ziran Eli'ren egunetan, iru urte ta sei ilabetez ortzia itxirik zegola, gosete goñia luñ osoan soñtu zanean. ²⁶ Ala ere, Eli ez zan ayetako inorengana bidalia izan, Sidon'go Sarepta'ra baño, alargun bategana. ²⁷ Baita Elisai'ren egunetan legenañdun asko ere Israel'en ba-ziran; ta ayetako inor ez zan garbitua izan, Naaman Siriaña baño».

²⁸ Itzok adituta, guziak sinagogan aseñez bete ziran, ²⁹ ta yaikirik, Bera iritik yaurti ta ayen iria yañita zegon mendi tontoñera eramane zuten, andik amiltzeko. ³⁰ Bera, beñiz, ayen erditik mara mara ziyoan.

Kaparnaun'go sendakuntzak

³¹ Ta Galilai'ko iri dan Kaparnaun'a yetxirik, larunbatetan angoei irakasten ari zan. ³² Ta añitzen ziran Aren irakasbideaz; aginbidez mintzo baitzan.

³³ Gizon txerendun bat sinagogan ba-zan, ta oyu aundi egin zun, ³⁴ esanaz: «Eurt, Yesu Nazaretañ ori; guri ta Zuri zer? gu galtzera etoñi al zera? Ba-dakit nor zeran; Yainkoaren Deuna». ³⁵ Yesu'k larderiatu zun, esanaz: «Isilik ago ta onengandik irten adi. Ta gizona erdira botata, argandik txeren irten zan, kalterik berari egiteke. ³⁶ Ta guziek izututa elkañi ziotsaten: «Ori duk itz, ori! Txeren satsuei aginbidez ta indañez Oñek agindu ta ayek irten». ³⁷ Ta ango bazteralde guzietara Aren aipua bañeyatzen ziyoan.

Simon'enean

38 Sinagogatik yaikita Simon'en etxera Yesu sartu zan. Sukañ aundiz Simon'en amagiañeba zan ta aren alde otoi zegioten. 39 Ta Berak, aren aldamenean zutik, sukañari agindu egin zion, ta sukañak emakumea utzi zun, ta au berealaxe yaiki ta mirabe-lanetan asi zitzayen.

40 Eguzkia etzanda gero, edolako gaitzez makalen bat zuten guziek, ekañi zioten, ta Berak, bakoitzari eskuak ezañirik, sendatu egin zitun. 41 Txereñak ere ainitzen-gandik ilkitzen ziran deadañez esanik: «Yainkoaren Semea zera Zu»; ta Berak akañez isilerazten zitun, Bera Kistoa zala zekitelako. 42 Egundu orduko, andik irten ta basora yoan zan, ta gizataldea Aren bila zebilan, ta Arengana elduta, berekin gelditzeko zeskayon. 43 Bañan Ark esan zien: «Yainkoaren yauraldia beste iriei ere aldañikatu beañ diet; oñtarako bidalia naiz-ta». 44 Galilai' ko sinagogetan, beraz, Beñi Ona zabaltzen ari zan.

V

Añantza añaña

Bein batean, Genesaret aintzira ondoan Bera zutik zegola, eñaik Arengana yo zun, Yainkoaren itza entzuteko. 2 Ur egian bi txalupa Yesu'k ikusi zitun. Añantzaleak, beñiz, ayetatik yetxita, sare-garbiketean ari ziran. 3 Bata Simon'ena zan; ta artara igorik, eskatu zion legoñetik apuñ bat alde eragiteko. Ta eseririk, eñaari

irakasten txalupatik asi zan. ⁴ Itzaldia bukatu zunean, Simon'i esan zion: «Zabalera yo ta sareak arantzurako bota». ⁵ Simon'ek yardetsi ta esan zion: «Nagusi, gau osoan ekinda ere, ez dugu ezer atera. Ala ere, Zuk esan ezkerro, sarea botako dut». ⁶ Ori eginda, arai kopuru aundia bildu zuten, ta sarea uratzen zitzayen. ⁷ Beraz, beste txalupako adiskideei keñuz eskatu zieten lagun etortzeko. Etoñi ziran, ta txalupa biak murgiltzeko zorian bete zituten.

⁸ Au ikusitakoan, Simon Kepa Yesu'ren oñetara auzpeztu zan, esanaz: «Nigandik alde egizu, Yauna, gizon ogenlari naiz-ta». ⁹ Sareratutako arainketaz bera ta Arekin ziran guziak izututa baitzeuden, ¹⁰ ta berebat Yakob ta Yon, Zebedai'ren seme ta Simon en lagunak. Yesu'k, beñiz, Simon'i esan zion: «Ez izutu; gau'gero gizarantzale izango zera» ¹¹ Ta txalupa lego'erraturik, dana utzita, yarai zitzazkion.

Legena'rduna

¹² Beste bein ere, ango irietako batean Bera zala, legena'raz yositako gizon batek, Yesu ikusirik, auzpeztuta otoi zegion, esanaz: «Yauna, Zuk nai ezkerro, garbi nazakezu». ¹³ Yesu'k, eskua au'erratuz, gizona ikutu zun, esanaz: «Nai dut; garbi izan zaitez». Ta bertantxe legena'ra urutiratu zitzayon. ¹⁴ Ordun Yesu'k agindu zion, inñori ere ez esateko; «zoaz, ordea; apaizari au'keztu zakizkio, ta Mois'ek agindu zuna eskeñiozu zure garbi-kuntzaren aito'rtzat».

¹⁵ Aren ospea gero ta geyago bařeyatzen ziyoan; ta eřia samaldan zetořkion entzutera, ta erien osakuntza iristera. ¹⁶ Bera, beriz, basoan bazteřturik otoi egiten zegon.

Elbařiduna

¹⁷ Alako egun batean, Bera irakasten ari zala, ba-zeuden an ere parisai ta lege-irakasleak, Galilai ta Yudai' ko eři guzietatik, baita Yerusalen'dik ere etořiak Eta Yau-naren indařa ageri zan Aren sendaketan. ¹⁸ Ta ara, zeřaldoan elbaři bat zekařten gizon batzuk, Yesu'ri auřkezteko, bařnera sařtu nai zuten. ¹⁹ Ta gizataldeařen sařbiderik ez zekustela, sapai gaņera igo ta telartetik zeřaldoan eraitxi zuten erdira Yesu'ren auřera. ²⁰ Ayen siņestea ikusirik, esan zion: «Gizona, ogenak askesten zaskizu». ²¹ Ordun idazlari ta parisaitařak asi ziran beren baitan asmatzen: «Nor duk birao-ontzi ori? Ogenak nork asketsi litzakek, Yainkoak bakařik baņo?» ²² Baņan Yesu'k, ayen asmakeriok igařirik, itz egin ta esan zien: «Zer ari zerate zuen biotzetan asmatzen? ²³ Zer da eřa-zago? ogenak askesten zaskizu esatea, ala yaiki, ta abil esatea?. ²⁴ Beraz, ogenak askesteko eskubidea Gizasemeak lurgañean daukala dakusazuten, (elbařidunari dasayo) Nik dasaizut: Yaiki; zure zeřaldoa ařtu ta etxera zoaz».

²⁵ Ta bertantxe ayen auřean yaikirik, zetzan zeřaldoa ařtu ta bere etxera yoan zan, Yainkoa goretsirik, ²⁶ Ta guziek zoratuta Yainkoa goresten zuten, ta belduřez beterik zerasaten: «Ařitzekoak gauř ikusi zetikagu».

Lebi deituta

²⁷ Oriek eginda gero irten zan, ta Lebi zeritzan zergari bat zergategi ondoan eserita ikusirik, esan zion: «Zaíaizkit». ²⁸ Ta ura, dana utzirik, yaiki ta yaíai egin zitzayon. ²⁹ Oríts eder bat Lebi'k egin zion, ordea, bere etxean, ta bai zergari, baita beste lagun sail aundia ere, ayekin maikide ziran. ³⁰ Au zala bide, idazlari ta parisaitarak maímaí zebiltzan, Aren ikasleei esanaz: «Zergatik zergari ta gizatxaíekin yan-edaten duzute?» ³¹ Ta Yesu'k erantzuki esan zien: «Ez dute sendoek osagilerik beaí, makalek baño. ³² Ez naiz garbai-deyez zintzoetara etoí, ogendunetara baizik». ³³ Bañan ayek esan zioten: «Zergatik Yon'en ikasleak baru ta otoiketán maiz ari dira, ta baita parisaitárenak ere; zureak, osterá, yan-edaten?» ³⁴ Yesu'k, beíz, esan zien: «Ezteikideak barutzea nai al duzute, beraz, ezkonbeía ayekin dagoño? ³⁵ Ezkonbeía kenduko zayen egunak ba-datozke; egun ayetan, noski, baru egingo dute».

³⁶ Alegi au ere yaíi zien: «Soñeko zaíi iñork ez dio soñeko beírik adabaki erasten; bestela, ba, beía urátuta gero, beírik ateratako adabakiak ez dio zaíari ondo ematen.

«³⁷ Ez du iñork ere zagi zaíetan ardo beírik ipintzen;

27 Lebi, beste izenez Matai.

37 ta 38 Eguneroko bizitzatik arturiko antz eta irudi onekin yakin erazten die, ez dirala Lege Beíaren zapi beía ta Lege Zaíaren zapia batean yosi ta lotu beaí, ezta Lege Beíko ardo beía ere Lege Zaíeko zagietan ixuri, au da, Lege Zaíaren agintza gogor eta meáretan estutu ta ito.

bestela, ba, zagiak leitu ta galdu egingo dira ardo beñí-
áren, ta ardoa ixuri. ³⁸ Zagi beñitan, ordea, ardo beña
ipiñi bea; oñela biok diraute. ³⁹ Ta zaña edan-beñian
ez du inork beñirik nai; «zaña obe duk» dio-ta».

VI

Larunbatz

Lenbigañen larunbatean ereintzetan baña igarotzean,
bere ikasleek galburuak aítzen ta eskuetan mañus-
katuz yaten ziyoazan. ² Ta parisaitaí batzuk esan zie-
ten: «Zer ari zerate, larunbatetan zilegi ez dana egiten?»
³ Yesu'k erantzuki esan zien: «Ez al duzute oratiño
irakuí Dabid'ek egin zuna, bera ta arekin zeudenak
gose ziranean? ⁴ Nola yauretxean saítu ta, apaizek
baizik, inork ere ezin yan zitzaken eskein-ogiak aítu ta
yan zitun, ta arekin zeudenei eman zizkien? ⁵ Esan
zien ere: «Gizasemea larunbataren ere Yabe da».

⁶ Beste larunbat batean ere sinagogan saítu zan ira-
kastera, ta an gizon esku-igaí bat zegon. ⁷ Ta idazlari
ta parisaitaíak Arengana zeuden adi adi, larunbatean
sendaketarik egingo ote zunentz, Bera salatzeke. ⁸ Berak,
beñiz, ayen asmakeriok igaíta, gizon esku-igaíari esan
zion: «Yaiki ta zutik egon erdian». Ta gizona yaiki ta
zutik yaí zan. ⁹ Ordun Yesu'k esan zien: «Galde dagi-
zuet; larunbatean on ala kalte egitea da zilegi? inor
gaizkatzea ala poíokatzeta?» ¹⁰ Ta guzietara baranoan

¹ Lenbigañen larunbata zein zanik ez dakigu ziero. ¿Paska ondo-
koaren ufengoena?

begirata, gizonari esan zion: «Esku ori zabaldu». Ta ark eskua zabaldu zun, ta sendatu zitzayon. ¹¹ Ayek, ordea, ero ero eginda, elkarí zerasayoten zer ote legioketen Yesu'ri.

Bidalien aukera

¹² Egun ayetan mendira bazteítu zan otoi egitera, ta gau osoa zeraman Yainkoari otoiketán. ¹³ Egundu zanean, bere ikasleak deitu ta ayen artetik amabi auturik, **bidali** izena eman zien; ¹⁴ Simon (oni Kepa izena ere ezaí zion) Ander, aren anaya, Yakob, Yon, Pilipe, Bartolomai, ¹⁵ Matai, Toma, Yakob Alpai'rena, Zelote deritzan Simon, ¹⁶ Yuda Yakob'ena, ta Yuda Iskariot, saltzale izango zitzayona.

¹⁷ Ta ayekin yetxita, zelai batean gelditu zan bere ikasleekin ta Yudai osotik eta Yerusalen'dik eta Tir ta Sidon itxasaldetik ara bildutako gizataldearekin. Guziok an zeuden Berari entzuteko ta beren gaitzetik sendakuntza iristeko, ¹⁸ ta txerén satsüek gaizki erabiliak sendatzen ziran; ¹⁹ ta guziak Bera ikutu nairik zebiltzan, Arengandik indara sórtu ta guziak sendatzen zitulako.

Mendiko itzaldia; a) Zoriona

²⁰ Ordun, bere ikasleetara begiak yasorik, onela mintzatu zan:

^{12, 17, 20} Emen ageri da; lenik meñdira igo zala, ta gero menditik pixka bat yetxita, zelayean, baña mendiko zelayean, eta órela mendian oraindiño, bere itzaldi agurgaría egin zula. Beg. Mt, X, 1-4, Mk. III, 13-19.

«Zuen zori ona, landerok; Yainkoaren eria zuena da-ta!

«²¹ Zuen zori ona, gose zeratenok; aseko zerate-ta!

«Zuen zori ona, orain negarez zaudetenok; bare egingo duzute-ta!

«²² Zuen zori ona, Gizasemearen gizonek goroto, oildu ta irainduko zaituztenean, ta zuen izena gaiztotzat zapuztuko dutenean! ²³ Poztu ta ikotu zaitezte alako egunean; zuen saria zeruan yoritsu dalako; igarleei ere beste ainbeste ayen gurasoek egin zieten.

«²⁴ Zuen zori txara, ordea, aberatsok; zuen atsaldia onezkero ba-duzute-ta!

«²⁵ Zuen zori txara, ase zeratenok; gose izango zerate-ta!

«Zuen zori txara, orain bare egiten duzutenok; samin ta negarez izango zerate-ta!

«²⁶ Zuen zori txara, gizonek zuetzaz ongi darausketenean; sasigarleei ere orela ayen gurasoek egin zieten.

b) Etsayak maite bear

«²⁷ Zuei, beriz, entzuten zagozkidatenoi dasaizuet: etsayak maite itzazute; goroto zaituztenei ongi egiezute; ²⁸ biraokatzen zaituztenak onetsi itzazute; ²⁹ iraintzen zaituztenen alde otoi egizute; matsalean yotzen zaitunari beste matsala ere eskeniozu; txabuxa kentzen dizunari soñekoa ere ez ukatu; ³⁰ eske datořkizun edonori emayozu, ta zerbait ostu dizunari ez itzulerazi. ³¹ Gizonek zuei egitea nai duzutenez, zuek ere ayei egiezute.

²⁹ txabuxa edo gañeko yantzia.

32 Maite zaituztenak maite ba'dituzute, zein da zuen adeya? Gizatxaiek ere beren maitatzaleak maite ditute. 33 Ta ongi dagizuetenei ongi ba'dagiezute, zein da zuen adeya? Gizatxaiek ere ori egiten dute. 34 Ta yesana itzuliko dizuetenei auferatzen ba'diezute, zein da zuen adeya? Gizatxaiek ere gizatxaiei auferatzen diete, beste ainbeste artzekotan. 35 Zuek, beriz, zeron etsayak maite itzazute, ta guziei ongi egin ta auferatu iezute, ordanaren usterik gabe; ta Goi goikoaren seme izango zerate; eskergabe ta gaiztoei ere adeitsu azaltzen zaye-ta. 36 Beraz, biotzbera izan zaitezte, zuen Aita biotzbera dan bezela. 37 Ez inor ebatzi, ta ez zerate gaiztetsiak izango; besteak asketsi, ta zuek ere asketsiak izango zerate. 38 Emazute, ta badamaizuekete; neurri on, tinko, inarosi ta gañez dariola damaizuekete altzora. Neurituko zenuten neurri berberaz, neurituko dizuetelako».

d) Norbera ezaguteaz

39 Baita alegi au ere ekañi zien: «Ausaz ere, itsua itsumutil izan al diteke? Ez ote dira biak zulora eroriko? 40 Ikaslea ez da irakaslea baño garayago; ikastunena ere bere irakaslea bezelakotsu daiteke. 41 Zer dala-ta, beriz, zure senidearen begian kizkia dakusazun orek, zeroen begian duzun abea ez duzu nabaitzen?

42 «Edota zure senideari nola dasayokezu «senide, itxoin; kizkia begitik idokiko dizut; abea zeroen begian ez dakusazularik?» Azaluts ori, zeroen begitik abea len idokazu, ta arezkero garbi ikusiko duzu, zure senidearen begitik kizkia idokitzeko.

43 «Ez dago, ba, zugatz onik arnari txar dakañkenik; ezta zugatz iroturik ere, arnari zindo dakañkenik, 44 bere arnaritik zugatza zein dan ageri da-ta; eloñtik ez du, ba, inork pikorik artzen, ezta lapañetik ere matsik biltzen. 45 Gizon onak bere biotzeko altxor onetik ongia ateratzen du; ta gaiztoak bere biotzeko altxor gaiztotik gaizkia ateratzen du; biotzari gañez dariona aoak da-raus-ta.

e) *Azken oñña*

46 «Zertako zatozkidate Yauna, Yauna deyez, ta diodana ez dagizute? 47 Erakutsiko dizuet noren antzekoa dan, Nigana etoñita, diodana entzun ta egiten duna. 48 Etxea eraikitzeke, atxuñketan sakonduz, azpia arñkaitz gañean yañi zun norbaiten antzekoa da. Ugoldea etoñi ta alako etxea ibayak oldañez erauntsiañen, ezin zirkin eragin zion, edeñki eraikita zegolako. 49 Diodana entzunda egin ez duna, beñiz, luñ gañean bere etxea eustazpirik gabe eraiki zun gizon baten antzekoa da. Ibayak erauntsita, alako etxea berealaxe erori ta guziz poñokatu zan».

VII

Kaparnaun'go euntaria

Eñiaren belañitan egindako itz guziok bukatu ondoren, Kaparnaun'en sartu zan. 2 Euntari batek asko maite zun moñoya gaizki zegon, iluñen. 3 Yesu'ren beñi entzunda, yuduetako zar batzu Arengana bidali zitun,

bere mo'oi ura sendatzera eto'rtzeko a'renez. 4 Yesu'gana ayek au'keztu zirala, ga'rtsuki otoi zegioten, esanaz: «Ori eman dakion ainbatekoa da; 5 gure e'ria maite baitu, ta sinagoga eraiki digu». 6 Ayekin, beraz, Yesu yoan zan. Ta etxetik u'ngabe zala, adiskide batzu euntariak bidali zizkion, esanaz: «Yauna, nekerik ez a'rtu; ez naiz ni nor nere aterpera Zu sa'rtzeko. 7 Zugana yoateko ere ezer ez nintzalakoan nengon; itzez baka'rik esazu, ordea, ta nere mo'roya sendatuko da. 8 Neuk ere, ba, besteren mendean egona'ren, gudamutilak nere mendean ba-ditut; ta oni «oa» diotsat, ta ba-doa; besteri «ator», ta ba-dato'r; ta nere mo'royari «au egik» ta ba-dagi». 9 Au entzunda Yesu artzaz a'ritu zan, ta ze'rayon e'ria-rengana itzulirik, esan zien: «Zi'nez dasaizuet; Israel'en ere ez dut onenbesteko si'ñesterik idoro». 10 Ta bidali izanek, etxera itzulirik, sendatua idoro zuten gaxo egondako mo'roya.

Nain'go alargunaren semea

11 O'rezkero Yesu yoan zan Nain deritzan irira, ta Arekin bere ikasle ta laguntalde aundia ziyoazan. 12 Iriko atetara u'rbildu ziranean, ara, ama alargunaren seme baka'ra ila ateratzen aoki aundia alargunarekin ziyoan. 13 Alarguna Yaunak ikusi zuneko, arenganako biotza erdiratu zitzayon, ta esan zion: «Ez nega' egin». 14 Ta alderaturik, ze'aldoa ikutu zun, ta eroaleak gel-ditu zira'n. Ordun esan zun: «Mutil, zero'i dasaizut: yaiki zaitez». 15 Ta ila agondu ta mintzatzen asi zan. Ta Yesu'k amari eman zion. 16 Ta guziek izututa Yain-

koa goresten zuten, esanaz: «Igarle aundia gurean yaiki duk, eta Yainkoa bere eñari lagun etoñi zayok». ¹⁷ Ta Aren aipu ori Yudai'n ta inguru guzian bañeyatu zan.

Yon Ukuzlearen gezna

¹⁸ Yon'en ikasleek guzion beñi ekañi zioten. ¹⁹ Ta Yon'ek bere ikasleetako bi deitu ta Yauna'gana igoñi zitun, esanaz: «Zu al zera Etoñtzekoa, ala besteren zai egon beañ dugu?» ²⁰ Gizon ayek Arengana eldutakoan, esan zioten: «Yon Ukuzleak igoñita gatozkizu esaten: Zu al zera Etoñtzekoa, ala besteren zai egon beañ dugu?» ²¹ Ain zuzen ere, garai artantxe mindun ta eri ta txeñendun asko sendatu zitun, ta itsu ainitzi ikusmena eman zien. ²² Geznariei erantzunik, beraz, esan zien: «Zoazte, ta zerok entzun ta ikusia Yon'i esayozute. Itsuek ba-dakuste, eñenak ba-dabiltza, legenañdunak garbitzen dira, goñek ba-dantzute, ilak beñpizten dira, ta landeñei Beñi Ona iragañtzen zaye. ²³ Zori ontsua, beñiz, Niri buruz sayesten ez dana».

Yon'en goraldia

²⁴ Yon'en geznariak yoan ziranean, asi zan gizataldeari, Yon zala-ta, esaten: «Zer ikusteañen basora irten zerate? Aizeak erauntsitako seskaren bat ote? ²⁵ Zer ikusteañen irten zerate, ba? Guriki yantzitako norbait ote? Guriki yantzi ta eztitan bizi diranak yauregietan egon oi dira, oñatiño. ²⁶ Zer ikusteañen irten zerate? Igañleren bat ote? Orixe bai, Neuk esanda, baita igarle baño areago ere. ²⁷ Onetzaz idatzita dago;

²⁷ Mal. III, 1.

**Ara nere aingerua bidaltzen dizut,
bidea zure auréetik gertu dezaizun.**

«²⁸ Ba-dasaizuet, ba; emakumegandik yayotartean ez da Yon baño igarle aundiagorik. Ala ere, zeru-yaurérian txikiena, ura baño aundiagoa da.

«²⁹ Ta eñi guzia ta zergariék Yainkoa gogotik goretsi ta Yon'en ukuzpena artu zuten. ³⁰ Parasai ta idazlariék, beriz, ayenganako Yainkoaren asmoa nardatu zuten, Yon'en ukuzpena astanduz.

«³¹ Gizaldi onetako gizonak, beraz, zeñekin berdinduko ditut? Noren antzekotzat deritzazket? ³² Zeyean eserita dauden mutikoak bezelako dira, laguntxoei garaxika dasayetenean: guk zuei txilibitua yo, ta zuek dantzarik ez; guk zuei eresi egin, ta zuek negarik ez. ³³ Etoñi da, ba, Yon Ukuzlea ogirik yateke ta ardorik edateke; ta zuek diozute: «txeren dik». ³⁴ Gizasemea yan ta edaten etoñi da; ta zuek diozute: «Ori duk yatun ta ardozalea, zergari ta gizatxañen adiskidea». ³⁵ Yakintza, beriz, bere seme guziék aintzat dazagute».

Simon parisaitañenean

³⁶ Parisaitañ batek berekin bazkaltzeko eskatu ziola, parisaitañ arenean sartu ta maitara yañi zan. ³⁷ Parisaitañenean Yesu bazkaritan zala, iriko ematxañ batek yakinda, ontzian gantzuñin ekañi zun, ³⁸ ta Aren atzetik yañita, oñak bere malkoz ikuzi, bere adatsez idorñtu,

³⁵ Yakintzaren semeak, edo yakitunak, biotza egiarentzat zabalik dutenak dira. Oñelakoak Yon'en ta Yesu'ren ikasbidera zintzo datoz. Parisaitañen biotza, oñtera zitala zan, ta ez zuten ikasletzat Yon, ez Yesu, arñtu nai.

muñez bete ta gantzuññez igurtzen asi zitzayon. 39 Yesu deitu izan zun parisaitarak, ori ikusita, bere kolkorako zerasan: «Igañle izan ba'uk, ba-lekikek onek nor ta nolako dukan eskuka ari zayon ematxañ ori». 40 Yesu'k erantzuki esan zion: «Simon, zertxobait esango nizuke». Eta Simon'ek Ari: «Esan, ba, Irakasle». 41 «Malegari batek zoñdun bi zitun. Batak bost denari zoñ zizkion; besteak beñogeñ ta amañ. 42 Zoñ garbitzekorik ez zutela, bieñ asketsi zien. Zeñnek maiteago beañ du?» 43 Simon'ek erantzun zion: «Nere ustez, geyago asketsi zayonak». Yesu'k esan zion: «Ondo ebaki duzu». 44 Ta emakumearengana itzulirik, Simon'i esan zion: «Emakume au ba al dakusazu? Zurean sañtu naiz, ta ez didazu oñetarako urik eman; onek, ostera, oñak bere malkoz busti ta bere adatsez idoñtu dizkit. 45 Ez didazu muñik egin; au, ostera, sañtu danetik, ez da aspertu nere oñei muñ egi-tez. 46 Burua ez didazu olioñ igurtzi; onek, ostera, gantzuññez oñak igurtzi dizkit. 47 Argatik dasaizut; asko maite izan dula-ta, bere ogen ugariak askesten zazkio; gutxi askesten zayonak, beñiz, gutxi maite du». 48 Ta emakumeari esan zion: «Askesten zazkizu zure ogenak».

49 Ordun maikideak asi ziran elkañean esaten: «Nor duk ogenak ere askesten zetikan au?» 50 Yesu'k, beñiz, emakumeari esan zion: «Zure siñesteak yaregin zaitu. Zoaz narerik»

VIII

Eñiz eñi

Geroenean iriz iri ta eñiz eñi zebilan, Yainkoaren yaureñiaz Beñi Ona iragañi ta aldañikatzen; ta Arekin amabiak ziyoazan, ² baita txeren satsu ta erietatik sendatutako emakume batzu ere; Malen deritzan Mari, zazpi txeren satsu ilki izan zitzazkiona, ³ ta Yone, Erode'ren otseinburu Kusa'ren emaztea, ta Susana, ta beste asko, beren ogasunez Yesu sorozten zutenak.

⁴ Laguntalde aundia ta irietatik Arengana etoñiak bildu zitzazkiola, alegi au esan zien: ⁵ «Azi ereitera ereilea irten zan. Ta ereitean, poxi bat bide ondoan yalki ta istikatua izan zan, ta eguratseko egaztiek yan zuten. ⁶ Beste bat aritar-tean yalki zan ta erne orduko igañtu, astarerik ez zulako. ⁷ Beste bat arantzartean yalki zan, ta arantzek, arekin soñtuz, ito zuten. ⁸ Beste bat luñ onean yalki zan; ta ernetakoan, eun alako ale ekañi zun». Au esanda, deadañez esan zun: «Entzuteko belañidunak bentzu».

⁹ Ikasleek, beñiz, itandu zioten alegi au zer liteken. ¹⁰ Ta Berak esan zien: «Yainkoaren yaureñiaren mami ezagutea zuentzat dago; besteentzat, ordea, alegitan; dakustela, ez dakusten, ta dantzutela, uler ez dezaten. ¹¹ Alegia, beñiz, au da. Azia, Yainkoaren itza da. ¹² Bide ondokoak, itza dantzutenak dira; baña gero

¹⁰ Edo, berdin dana: Zuek nere alegi edo parabolen mamia goz-nartzen duzute; parisaitañek eta antzekoek azala besterik ez dute ikusiko.

txeírenek etoírita biotzetik itza kentzen die, siñetsirik yaregin ez ditezan. ¹³ Aírtartekoak, itza dantzutenean, pozik aítzen dutenak dira; bañan eíorik ez dutela, epe gutxirako siñesten dute, ta axekaldian sayestu egiten dira. ¹⁴ Arantzartean yalkiak, dantzutenak dira; baña bizitzako arazoak, aberastasuna ta eztikeriak dirala-ta, ito egiten dira, ta alerik ez dakaíte. ¹⁵ Luí onean yalkiak, beíz, itza entzunda, biotz on ta zintzoan daukaten ta egonaíz ale dakaítenak dira.

¹⁶ Inork ez du kriselua piztu ondoan Iakaripean estaltzen, edo oepean ipintzen; argimutil gañean, ordea, yaítzen du, etxean saítzen diranek argia dakusten. ¹⁷ Ez dago, ba, ostenik ezer ere, ageriko ez danik; ezta itzalpekorik ere, nabari ta argitarako ez danik. ¹⁸ Ori-zute, beraz, nola aditzen duzuten; daukanari emango zayo, ba; ta ez daukanari, euki uste duna ere kenduko zayo».

Yesu'ren ama-senideak

¹⁹ Aren Ama-senideak Arengana etoíri ziran, ta gizataldearen ezin urbil zitzazkion. ²⁰ Batzuk gaztigatu zioten; «Ama-senideak oí dituzu atetik, Zu ikusi nairik. ²¹ Ark, beíz, yardetsi ta esan zien: «Yainkoaren itza entzun ta egiten dutenak, auetxek ditut ama-senide».

Ekaitza

²² Alako egun batean bere ikasleekin ontzira igo zan ta esan zien: «Aintziraren beste aldera goazan». Ta asi

19 Ama-senideak. Beg. Mat. XII, 46-50; Mk. III, 31-35; Lk. VIII, 21.

ziran aruntz. ²³ Arakoan, lo gelditu zan; ta aize-erauntsi bat ur gañean soñtu zala, galetsian zebiltzan, urak estaltzen zitulako. ²⁴ Arengana yota, beraz, esnatu zuten, esanaz: «Yauna, Yauna, galtzen gera». Baña Berak esnatuta aizeari ta itxasketari araokatu zien; ta ibitu ziran, ta ezialdia etoñi zan. ²⁵ Ordun esan zien; «Non dago zuen siñestea?» Ta ayek izu ta añituta, elkañi ziotsaten: «Nor duk. ba, aize-itxasoei agindu ta men zegiotekan au?»

Gergesa'ko txerenduna

²⁶ Eldu ziran Gergesañen aldera, Galilai'ren auñez auñe. ²⁷ Ta legoñera irten zanean, soñekorik ta etxerik gabe iñobietan bizi oi zan aspaldiko txerendun eñi-seme bat Arganatu zan. ²⁸ Ta Yesu ikusi zuneko, Aren auñean auzpezturik, deadañez esan zion: «Niri ta Zuri zer, Yaun Goigoikoaren Seme Ori? Ez nazazu, añen, oñazetu». ²⁹ Gogo satsuari Yesu'k agintzen zion, ba, gizon arengandik irteteko, aspaldi ezkerro artzaz yabetuta zegolako. Katez ta oinbiluñez loturik gorde oi zuten; baña lokañiak etenda, basaldera txerenen eragitez bazteñtzen zan. ³⁰ Beraz, Yesu'k galde egin zion, esanaz: «Nola duzu izena?» Ta ark «Talde», esan zion; tuxuri asko arengan sañtu izan ziralako. ³¹ Ta lezeratzeko agindu ez zezayen añen zegioten. ³² Urdalde aundi bat lañatzean zegon mendi artan; ta ayetara sañtzeko baimena zeskayoten. Ta eman zien. ³³ Ordun tuxuriak gizonagandik irten ta urdeetan sañtu ziran; ta urdaldea aldapabêra itxasora amildu ta ito egin zan.

34 Yazoa urdezayek ikusirik, iges egin ta irian ta aldeñietan bañeyatu zuten. 35 Angoak, ordun, yazoa ikustera irten ziran, ta Yesu'ganaño eldurik, tuxuriak ilki zitzazkion gizona idoro zuten Yesu'ren oñetara eseri, yantzi ta bere senera itzulia; ta izutu ziran. 36 Ta ikusle izanek azaldu zieten nola txerenduna sendatu zan. 37 Ta ayengandik alde egiteko Gergesa aldeko guziek Yesu'ri zeskayoten, belduñaren belduñez zeudelako. Ontzira igorik, beraz, itzuli zan. 38 Tuxuriak ilki zitzazkion gizonak Arekin egoteko zeskayon. Bañan Yesu'k igorí zun, esanaz: 39 «Zoaz etxera, ta Yainkoak egin dizun guzia erasazu». Yoan zan, beraz, Yesu'k berari egindako guziak iri osoan aldañikatuz.

Odol-yarioduna ta Yair'en alaba

40 Yesu itzuli zanean, gizataldeak txera ona egin zion, guziak Aren zai zeudelako. 41 Ta ara, Yair zeritzan sinagogaburua etoñi ta Yesu'ren oñetara auzpeztuz, bere etxera, añen, sañtzeko zeskayon, 42 amabiren bat urteko alaba bakaña, iluñen zeukalako.

Ara yoatean, gizataldeak lerdaka zerabilan. 43 Orí ba, emakume batek, amabi urte ayetan odol-yarioz egonda, iñorgandik osasuna iristeke, bere ontasun guzia atxeteretan iralgi zunak, 44 atzetik urbilduz, soñeko mendela ikutu zion; ta berealaxe odol-yarioa gelditu zitzayon. 45 Ta Yesu'k esan zun: «Nor da ikutu nauna?» Guziek Ari uko, ta Kepa'k eta aren lagunek dasayote: «Nagusi, gizataldeak itobeañez lerdakutzen zaitu». 46 Ta Yesu'k esan zun: «Bat edo batek ikutu nau; indaña

Nigandik ilkitzen nabari dut-eta». 47 Ordun emakumea, ostenik ez zegola oarturik, etoñi zan ikaraz, ta Aren oñetara auzpezturik, eñi osoaren auñean aitoñtu zion zergatik ikutu zun, ta nola beingoan sendatu zan. 48 Ta Yesu'k esan zion: «Alaba, zure siñesteak sendatu zaitu; zoaz narerik».

49 Oraindik mintzo zala, sinagogaburuari etxetik norbait datoñkio, esanaz: «Il da zure alaba; Irakasleari gero nekagañi ez izan». 50 Baña Yesu'k itzok entzunda, neskatxaren aitari esan zion: «Ez belduñ izan; siñetsazu eta besterik gabe sendatuko da».

51 Ta aren etxera eldu zanean, iñor ez zun Berekin sañtzen utzi, Kepa, Yon ta Yakob, ta neskatxaren gurasoak baizik. 52 Guziak an negañ ta samiñez zeuden. Yesu'k, beñiz, esan zien: «Negañik ez egin; ez dago ilik, lotan baño». 53 Bañan iñi zegioten, il zala baitze kiten. 54 Ordun Berak neskatxari eskutik eldu ta esan zion: «Neskatxa, yaiki zaitez». 55 Ta arnasa itzuli zitayon, ta bereala yaiki zan. Ta Yesu'k ari yaten emateko agindu zun. 56 Neskatxaren gurasoak añituta zeuden; ta Yesu'k agiudu zien iñori ere yazoa ez esateko.

IX

Amabiak deitzale bidalita

Amabiak deiturik, txerñ guzien gañeko indañ ta eskubidea eman zizkien, baita eriak sendatzeko ere. 2 Ta bidali zitun Yainkoaren yauraldia iragañtzera,

ta makalak sendatzera. ³ Ta esan zien: «Ezer ez eraman biderako; ez makilik, ez zoñorik, ez ogirik, ez zilañik; ezta aldagañirik ere. ⁴ Edozein etxetan sartu ezkerro, geldi zaitzte an, egon-irtenetarako. ⁵ Ta nonbait artzen ez ba'zaituzte, iri artatik irtetean, zuen oñetako autsa astindu ezazute ayen auñkako agerbidetzat».

⁶ Ayek, beraz, irtenda, eñirik eñi zebiltzan, Beñi Ona edonun zabaltzen eriak ta sendatzen.

Erode'ren kezkak

⁷ Gertari guziok adituta, Erode laurdenburua kezkatan zegon. Izan ere, batzuk: «Il artetik Yon beñpiztu duk» zerasaten; ⁸ beste batzuk: «Eli ageri izan duk;» bestetzuk beñiz: «Antziñeko igañleren bat piztu duk». ⁹ Bañan Erode'k zion: «Yon'i lepoa nik moztu nion; nere entzutez alakoak egiten ari dan ori, beñiz, nor da?» Ta nondik Ura ikusiko zebilan.

Ogiak ugarituta

¹⁰ Bidaliek, itzulitakoan, egin zuten guzia Yesu'ri azaldu zioten; ta Berekin artu zitula, Betsaida deritzan iri ondoko basalde batera bereiz baztertu zan. ¹¹ Baña lagunabañak, ori yakinda, atzetik yañai zitzazkion; ta Berak abegi onez Yainkoaren yaureñiaz zerauskien, ta sendakuntzaren beañean zeudenak sendatu egiten zitun.

³ Ezer ez eraman.=beañ dana besterik ez eraman. Begira, ezperen, geroxeago, ez aldagañirik=ez bi soñeko; ta Mark. VI, 8, ez makila besterik.

⁹ Ikusmiñez. Geroago ere nekaldian berdiñ agertuko zaigu, gizon ustel ta goi-arin.

¹² Eguna erortzen asia zan, ordea, ta amabiek arganatu ta esan zioten: «Gizataldea igořazu, aldeřiko eři ta auzoetan bařna, aterbe ta yanari bila; basaldean gaude-ta». ¹³ Bařnan Ark esan zien: «Zerok yaten emayezute». Ayek, beřiz, esan zioten: «Onenbesteko eřiarentzat yanariak eroštera yoan ezik, bost ogi ta bi ařai besterik ez dugu». ¹⁴ Bost milaren bat gizon ziran, ba. Ala ere, bere ikasleei esan zien: «Beřogei ta amařnako sailka esererazi itzazute». ¹⁵ Ala egin zuten, guziak esererazirik. ¹⁶ Ordun Berak, bost ogi ta bi ařayak ařtu ta ortzira begiratu, onetsi ta puskatu zitun, ta ikasleei eman zizkien, gizataldeari banatzeko. ¹⁷ Ta guziak yanda ase izan ziran. Ta uzkiřnak bildurik, amabi saski bete ziran pusketaz.

Kepa'ren aitořa

¹⁸ Berežian otoi egiten Bera zegola, ta Arekin ikasleak ere, galde au egin zien: «Gizonek Ni nor naizala diote?» ¹⁹ Ayek erantzun ta esan zioten: «Yon Ukuzlea; batzuk, Eli; beste batzuk, beřiz, antziřneko igařleren bat piztuta». ²⁰ Berak esan zien: «Zuek, beřiz, nor naizala diozute?» Ordun Kepa'k erantzun ta esan zion: «Yainkoaren Kistoa». ²¹ Bařnan Ark iřnori ere ez esateko zořozki agindu zien, ²² esanaz: «Nekerik asko Giza-semeak yasan beař du; zař, apaizpuru ta idazlariek gaiztetsi ta ilko dute; ta irugařen egunean beřpiztuko da».

Norberaren ukoa

²³ Ta guziengana itzulirik, zesayen: «Nere ondoan iřnork etoři nai ba'du, bere burua ukatu ta bere gurutza

egun oro leporatu beza, ta berait. ²⁴ Bizia yoritu nai dukenak, galduko du; ba, Nigatik galdu dukenak, oster, artxek yorituko du. ²⁵ Alabaña, gizonari zertarako zayo ludi osoa ere irabaztea, bera galdu ta ondatzen ba'da? ²⁶ Nitzaz ta nere itzaz iñor alke ba'da, Gizasemea ere artzaz alke izango da, bere ospez, ta Aitaren ta aingeru deunen ospez datořkenean. ²⁷ Ziñez dasaizuet ere; ba-dira emen daudenetako zenbait, eriotza murtxatuko ez dutenak, Yainkoaren yauraldia ikusi arte».

Yesu'ren antzalda

²⁸ Itzaldiok eginda zortziren bat egun ezker, Kepa, Yon ta Yakob Berekin arćurik, mendira igo zan otoi egitera. ²⁹ Ta otoi egitean, Aren aurpegi-antza aldatu ta soñekoa zuri ta istatsu egin zan. ³⁰ Ta ara, gizon bi, Mois ta Eli, Arekin erausten ³¹ ageri izan ziran ospe aunditan, Yerusalen'en Berak izango zun azagaz ziardutela. ³² Bitartean Kepa ta bere lagunak lo-astun zeuden. Esnatu zirañean, Aren aintza ikusi zuten, baita Arekin zeuden bi gizonak ere. ³³ Auek Arengandik alde egiterakoan, Yesu'ri Kepa'k esan zion: Yauna, emen edeřki geundeke; iru txabola egin ditzagun; Zuretzat bat, Mois' entzat bat, eta Eli'rentzat bat;» zer zion ez baitzekin. ³⁴ Ořela mintzo zalarik, odei batek sořtu ta itzalpetu zitun; ta ayek odeyen sařtu ziranean, ikasleak belduřtu egin ziran. ³⁵ Odeitik, beriz, ots bat sořtu zan, esanaz: «Au da nere Seme kuřuna; Berari entzuyozute». ³⁶ Ta otsa ari bitartean, Yesu bakařik aurķitu zan.

Ta ayek isili ziran, ta ikusitakorik ez zioten inori esan egun ayetan.

Mutil aldientsua

³⁷ Biaramunean, menditik yetxi ziranean, gizatalde aundi bat Arengana etori zan. ³⁸ Ta ara, gizataldeko gizon batek ots egiñaz esan zion: «Irakasle, begira, aeren, nere seme au. Bakaia zait ³⁹ eta txerenek eraso, ta beingoan deadaiez ta lerdena dariola inarosten du, ta nekez aldentzen zayo bera porokatuz. ⁴⁰ Zure ikasleei eskatu diet txeren ori iraitzeko, ta ayek ezin». ⁴¹ Yesu'k erantzuki esan zun: «¡Au gizaldi siñesgabe ta okeia! Noiz arte zuekin egon bea dut? noiz arte yasan bea zaituzt? semea onara ekaizu. ⁴² Ta mutila urbiltzean, txerenek luera yaurti ta inarosi zun. Bañan Yesu'k txeren satsua larderiatur, mutila sendatu ta aitari itzuli zion. ⁴³ Ta guziak sor ta lor gelditu ziran Yainkoaren aunditasunaz. Orela guziak egiñengatik arituta zeudela, beiaz, bere ikasleei esan zien: ⁴⁴ «Itzok zuen biotzetan ipini; Giza-semea giza-eskuetara emana izango da». ⁴⁵ Ayek, ordea ez zuten itz au ulertu, ta estalirik zegokien ayek aditzeke; ta artzaz galde egiteko belduz ziran.

Ni ta ni

⁴⁶ Bururatu zitzayen, ordea, zein ote liteken ayetako aundiena. ⁴⁷ Baña Yesu'k ayen biotzetako asmakeriak igaririk, aurtxo bat artu ta bere aldamenean ipini zun, ⁴⁸ ta esan zien: «Aurtxo au nere izenean datotsanak,

Nerau natotsa; ta natotsanak, bidali nauna datotsa. Zuetan txikiena dana, auxe da aundiena-ta».

49 Yon'ek artetuz esan zion: «Nagusi, norbait ikusi dugu txerénak zure izenean iraitzen, ta eragotzi egin diogu, gurekin ez dabilalako». 50 Yesu'k erantzun zion: «Ez eragotzi; zuen aurka ez dagona, zuen alde dago-ta».

Yerusalen'untz

51 Luía Berak uzteko egunak betetzekoan, Yerusalen'a iteran yoatea erabaki zun, 52 ta geznariak auretik ara bidali zitun. Auek yoan ta Samari'aeren erixka batera sartu ziran, Arentzat gertu bearak atontzeko. 53 Ez zuten, ordea, angoek atotsi, Yerusalen'a ziyoalako. 54 Ori Aren ikasle Yakob eta Yon'ek ikusita, esan zioten: «Yauna, nai al duzu sua ortzitik yetxi ta oriek ilauntzeko esan dezagun? 55 Berak, ordea, ayengana itzulirik, akar egien zien. 56 Ta beste erixka batera yo zuten.

57 Bidean ziyoazala, norbaitek esan zion: «Edonora zoazala yaraiko natzaizu». 58 Ta Yesu'k esan zion: «Azetiek saizulo ta egaztiek abi ba-dute; Gizasemeak, beriz, ez du burua non ezaí.

59 Beste norbaiti ere esan zion: «Zaraizkit». Bañan alako ark esan zion: «Yauna, lenik nere aita eorztera yoaten utzi nazazu». 60 Yesu'k esan zion: «Ilen eorzqueta ilei utziezu. Zu, beriz, zoaz Yainkoaren yauraldia aldarikatzerá». 61 Beste batek esan zion: «Yauna, yaraiko

51 Samariaek yuduak gofoto zituten, Garizin mendian yauretxebat eraiki zuten, ta Yerusalen'go hidea zeragozkien guziei.

natzaizu; baña lenik etxekoei azken agur egitea onartu egidazu». ⁶² Yesu'k esan zion: «Goldeari eskua ezarita, atzeruntz begizatzen duna ez da Yainkoaren erirako gai».

X

Irurogei ta amar ikasleak

Ori ezkerro, Yaunak beste irurogei ta amar berezi ta binaka bere auretik bidali zitun Bera etoriko zan iri ta alde guzietara, ² au zesayela: «Uzta bai ugari; biltzaleak, beriz, gutxi. Uzta-yabeari otoi egiozute, beraz, biltzaleak bere uztara bidal ditzan. ³ Zoazte; ora, otsotartera arkumeak bezela bidaltzen zaituzt. ⁴ Zarparik ez eraman, ez zororik, ez oskirik; ta bidean inori agurik ez egin. ⁵ Edozein etxetan sartu ezkerro, «gentza etxe onentzat» lenik esazute; ⁶ ta gentza-semerik an ba'lego, zuen gentza aren gañean kokatuko da; bestela, zuengana itzuliko. ⁷ Etxe artan geldi ere zaitzte, lemaizueketena yan-edaten; langileari saria zor zayo-ta. Etxerik etxe ez aldatu. ⁸ Ta edozein iritan sartu orduko, atosten ba'zaituzte, aurkeztuko dizuetena yazute; ⁹ ta ango eriak senda itzazute, ta esayezute: «Yainkoaren yauraldia eldu da zuentzat». ¹⁰ Ostera ere, edozein iritan sartu orduko, atosten ez ba'zaituzte, zeyetara irtenik, esayezute: ¹¹ zuen iritik onetan itsatsi zaigun autsa ere, zerontzako astintzen dugu; yakizute oratiño Yainkoaren yauraldia eldu dala. ¹² Aitor natzazue Sodoma'ren zoria egun artan yasangañagoa izango dala, alako iriarena baño.

«¹³ Zure zori txara, Korazin! Zure zori txara, Betsaida! Zuenean egindako alatzak Tir'en ta Sidon'en egiñak ba'lira, zurdatz ta erautsez eserita aspaldi garbai izango ziran. ¹⁴ Orezkero, ebaztegunean Tir'en ta Sidon'en zoria, zuena baño yasangañagoa izango da. ¹⁵ Zu ere, Kaparnaun, ortziraño ez ote zera yaiki? Luñeraño eroriko zera.

¹⁶ Dantzuizuenak Neroni dantzuit; eta uxatzen zaituzanak Nerau uxatzen nau. Uxatzen naunak, beñiz, bidali nauna uxatzen du».

Irurogei ta amañen itzulera

¹⁷ Irurogei ta amañak pozik itzuli ziran, esanaz: «Yauna, tuxuriak ere zure izenean azpiratzen zazkigu». ¹⁸ Baña Berak esan zien: «Satan ba-nekusan, tximista bezela, ortzitik yeisten. ¹⁹ Orizute: suge ta arubiak eta etsayaren indar guzia oinperatzeko al izatea eman dizuet, eta ezerk ez dizue kalterik egingo. ²⁰ Ez zaitezte ala ere, tuxuriak azpiratzen zazkizuela-ta, poztu; poztu zaitezte, ordea, zuen izenak zeruan idatzita daudelako».

Yesu'ren eskeñ-itzak

²¹ Garai artantxe Goteunez adoretuta esan zun:

**«Goratzen zaitut, ene Aita,
ortzi-luñen Yauna,
yakitun ta zuñei oriek ostendu
ta aurtxoei erakutsi dizkiezulako.**

¹⁵ Oraindikan gauñ Kaparnaun nun zan ere ziuñ ez dakigu. Ain izugañiro bete zan Yesu'ren esana! Oñenbeste Koraziñ eta Betsaida'z ere esan beañ degu.

Bai, Aita, oréla atsegin zaizu-ta.

²² Dana nere eskuan Aitak utzi du.

Ta Semea nor dan iñork ez dazagu,
Aitak baizik.

Aita nor dan ere iñork ez dazagu,
Semea ta Semeak erakutsi nai diona

[izan ezik».

²³ Ta ikasleengana biurturik, esan zien: «Zuek dakusazutena dakusten begiak, ¡begi zori ontsuak! ²⁴ Ba-dasaizuet, ba; zuek dakusazutena igañle ta bakaldun askok ikusi nai ta ez zuten ikusi; zuek dantzuzutena entzun nai ta ez zuten entzun».

Samariañ zintzoa

²⁵ Ta ara, legelari batek yaiki ta azpikeriz esan zion: «Irakasle, zer egin beañ dut betiko bizitza iristeko?»

²⁶ Yesu'k esan zion: «Zer dago Legean idatzita? Nola irakuñtzen duzu?» ²⁷ Legelariak erantzuki esan zion: «Zure

Yainko Yauna biotz biotzez, gogo gogoz, adore adoretz ta adin adiñez maite ezazu; zure lagun urkoa, beñiz, zure burua aña». ²⁸ Yesu'k esan zion: «Edeñki erantzun duzu. Ori egizu, ta biziko zera». ²⁹ Bañan ark, bere burua zuritu nairik, Yesu'ri esan zion: «Ta nor da nere lagun urkoa?»

³⁰ Yesu'k yardetsi ta esan zion: «Gizon bat, Yerusalem'dik Yeriko'ra yeistean, lapuñen eskuetan erori zan, ta ayek ura erantzi ta zaurtu ondoan, erdi ilik utzirik,

²⁹ Bere burua zuritu nairik, edo, galdetzeañen bakañik galdetu ez zula erakusitsi nairik.

yoan ziran. ³¹ Agian, bide artatik apaiz bat yeisten zan, ta gizaxoa ikusirik, auñera igaro zan. ³² Andik ere ziyoan Lebitar bat eldu ta bera ikusi aren, auñera igaro zan. ³³ Samariaar bat, ostera, bidean ziyoala, alderatu zitzaion, ta bera ikusirik, eruki izan zan. ³⁴ Ta arengana elduta, zauriak olio z ta ardoz igurtzi ta lotu zizkion; ta asto gañean yarik, aroztegira eramane ta bere ardurapean artu zun. ³⁵ Ta biaramunean, denari bi aterata, ostalariari eman zizkion, esanaz: «Oren ardura ar ezazu, ta geyago eralgi bearkotan, neuk ordainduko dizut osterakoan». ³⁶ Iruotako zein deritzazu lapuren eskuetan eroritakoaren lagun urko azaldu zala?» ³⁷ Ark esan zion: «Erukia erakutsi ziona». Ta Yesu'k esan zion: «Zoaz, ta zuk ere orela egizu».

Mari ta Marta

³⁸ Bidean auñera ziyoazala, erixka batean sartu zan, ta Marta zeritzan emakume batek berera artu zun. ³⁹ Onek Mari zeritzan aizpa bat zun; ta au Yaunaren onetara eserita, Aren itzak aditzen zegon. ⁴⁰ Marta, beriz, arazo askotan maratz zebilan. Ta Yesu'ri aurkezurik, esan zion: «Yauna, aizpak lanean bakaarik utzi nau, ta Zuri ayolarik ez? Esayozu, ba, lagun dato'kidala». ⁴¹ Bañan Yaunak erantzunik esan zion: «Marta, Marta, urduritsu zabilta, ta askotara artega. ⁴² Bat bakaarik da bea, ordea. Arlorik onena Mari'k aukeratu du, ta ez zayo kenduko».

XI

Otoi-eredua

Otoiketan nonbait Bera egonda, amaitu zuneko, ikasleetako batek esan zion: «Yauna, otoi egiten irakaskiguzu, Yon'ek bere ikasleei irakatsi zienez». ² Ark esan zien: «Otoi egitean esazute: Aita, guren bego zure izena; betor' zure yauraldia; ³ eguneko gure ogia egun oro iguzu; ⁴ asketsi gure ogenak, gerok ere gure zor'dunei askesten baitiegu, ta ez gaitzazu zirikal-dian utzi.

⁵ Ta esan zien: «Zuetako norbaitek adiskide bat du, ta arengana gaberdian doa ta diotsa: adiskide, iru ogi izkidak; ⁶ bide egiñaz adiskide bat enera zaidak, eta ari zer eskeñi ez dikat. ⁷ Baña besteak bar'utik daran-tzuyo: ez akit nekagañi; atea itxirik zegok, eta nere mutilak oean nerekin zeudek; ezin yaiki naitekek ogiak emateko. ⁸ Ba-dasaizuet: adiskidetzat eskatua emateko yaikitzen ez ba'da, aren isiagatik beintzat, yaikiko da, ta bear' ditun guziak emango dizkio. ⁹ Berebat Nik dasaizuet: Eskazute, ta emango zaizue; bila zabiltzate, ta idoroko duzute; yo ezazute, ta irikiko dizuete. ¹⁰ Eske dabilanak ar'tzen du, ba; ta bila dabilanak ba-di-doro; ta yotzaleari irikiko diote. ¹¹ Aitari zuetako batek ogia ba'daskayo, ari bat aitak ote damayo? edo ar'aya ba'daskayo, ar'ai orde suge bat aitak ote damayo? ¹² Edo

aíaultza ba'daskayo, aíubi bat ote damayo? ¹³ Beraz, zuek, gaiztoak izan áren, emari onak zuen umeei egiten baldin ba'dakizute, zeñen areago zuen Aitagoikoak adorre ona emango die eskatuko diotenei!»

Yesu'ri siñesteko zantzuak

¹⁴ Txéren mintzul bat iraitzen Yesu ari izanda, txéren ura irten zaneko, mintzulak itz egin zun, ta gizataldea áritu zan. ¹⁵ Batzuk esan zuten, ordea: «Beelzebul txérenburuaren egitez txérenak iraitzen zetik». ¹⁶ Beste batzuk, zirika ortzi-zantzu bat zeskayoten. ¹⁷ Berak, beíz, ayen asmakeriak igáirik, esan zien: «Alderdikeritan ari dan eíi guzia poókatzen da, ta etxea etxeren gain erortzen da. ¹⁸ Beraz, Satan ere bere baitan alderdika ari ba'da, nola legoke zutik aren yaureía, Beelzebul'en eragitez txérenak iraitzen ditudala diozuten ezkerok? ¹⁹ Beelzebul'en eragitez txérenak Nik iraitzen ba'ditut, beíz, zuen semeek noren eragitez iraitzen ditute? Argatik ayek zuen ebazle izango dira. ²⁰ Yainkoaren beatzez txérenak iraitzen ba'ditut, ordea, Yainkoaren yauraldia ziñez eldua duzute.

²¹ Bere ataria gizon azkar' batek iskiluz yagoten du-nean, eskier' daude ditunak oro. ²² Bañan ura baño azkar'agoren batek etoíta azpiratzen ba'du, entzinbide zitzazkion iskiluak kenduko dizkio ta aren erazkiñak

14 Txéren mintzula, edo txérenduna mintzul egiten zun txérena.

banatuko ditu. ²³ Nerekin ez dagona, nere aurka dago; ta Nerekin biltzen ez duna, sakabanatzen ari da.

²⁴ Txereñ satsua gizagandik ilkitzen danean, etzetan baña dabil atsedean bila; ta iristen ez dula, dio: «Itzuliko nauk utzi dikadan etxera». ²⁵ Ta ara elduta, ekoitu ta apaindua yarugitzen du. ²⁶ Ordun ba-doa, ta bera baño zazpi tuxuri txarago biltzen ditu, ta sarturik, artan bizi dira; ta alako gizonaren ondorenak askiñak baño txarago izaten dira».

²⁷ Orela Berak itz eginda, laguntaldeko emakume batek, mintzoa goratuz, esan zion: «Zori ontsua, ekañi zñuzan sabela, ta edoski zenitun ugatzak!» ²⁸ Bañan Ark erantzun zion: «Zori ontsuak noskiago, Yainkoaren itza entzunda betetzen dutenak!»

Yesu ta Yona

²⁹ Eria moltzotu zala, beñiz, Yesu asi zan esaten: «¡Gizaldi au gizaldi okeña! zantzu eske dabil; ta ez zayo zantzurik emango, Yona igarlearena baño. ³⁰ Izan ere, Ninibe'tarentzat Yona zantzu izan zan bezelaxe, Gizasemea gizaldi ontako gizonentzat orela izango da. ³¹ Egoaldeko andre bakaldunak gizaldi ontako gizonen

²⁸ **Zori ontsuak noskiago...** Ederki erakusten zaigu Amari ere zoriona ez datoñkiola, aragiz sabelean Bera soñtu zulako, siñismenaren bidez lenago soñtu ta maite zulako baño. Itzez itz gerkerazko **men oun** esango geunke: Bai beintzat! Amaren zorionari bai esanez, zoriontasuna, len lez (beg. Lk. VIII, 21), Bera ta bere Aita maite duten guzienganaño zabaltzen du. Guziz ziuñ ta ederki Beda Agurñari deunak lib. IV, c. 29 in Lk. XI.

aurka ebatzegunean yaiki ta gaiztetsiko ditu; Salomon' en yakintza entzutearen lur guenetik etofi baitzan; ta ona emen Salomon baño geyago dana. ³² Ninibe'tarek ere gizaldi onen aurka ebatzegunean yaiki ta gaiztetsiko dute; Yona'ren deyez garbai izan baitziran; ta ona emen Yona baño geyago dana.

³³ Kriselua ixio ondoren inork ez du izkutuan edo lakaripean ipintzen, argimutil gañean baño, sartzen diranek argia dakustentzat. ³⁴ Soin-kriselua, begia duzu. Zure begia garbi izan ezkerro, zure soin osoa argitsu izango da; okei izan ezkerro, beñiz, zure soña ere iluntsua izango da. ³⁵ Begira, beraz, zugaran dagon argia itzali ez dedin. ³⁶ Zure soin osoa, beñiz, argitan ta itzalunerik gabe ba'dago, osorik argitsu izango da, kriselua dir dir argitzen zaitunean bezela».

Paisaitaren azalkeria

³⁷ Bera mintzo zala, parasaitar batek berekin bazkalteko eskatu zion. Yesu, beraz, arenean sartu ta maitara yari zan bazkalareko ikuztea egiteke. ³⁸ Parisaitara, beñiz, ori ikusita aritzen baitzan, ³⁹ Yaunak esan zion: «Zuek, parisaitarok, orain katilu ta azpilak azaletik ikuzten dituzute; zeron barnea, ordea, lapurkeri ta gaiztakeriz kuinkuin dago. ⁴⁰ Tenteltzarok! Azalekoa egin dunak, barnekoa ere ez al du egin? ⁴¹ Oratiño, gañezkiñak ukarketan eralgi itzazute, ta dana izango zaizue garbi.

⁴² Zuen zori txara, ordea, parisaitarona! inuntzi, bortusai ta belar guzien amarenak ordainduz, zuzenbide

ta Yainkoaren maitasuna alde batera uzten dituzutenona! Auek egin bea'ak ziran gero; ayek, be'iz, ez uztekoak.

⁴³ Zuen zori txara, parisaita'ona! sinagogetan aulki nagusiak eta zeyetan agurak irikatzen dituzutenona!

⁴⁴ Zuen zori txara, ageri ez diran ta gizonek ayen gañean ibili a'ren ez dazaguzan ilobiak dirudizutenona!»

⁴⁵ Ordun legelari batek yaiki ta esan zion: «Irakasle, o'ela mintzatuz, guri ere irain egiten diguzu». ⁴⁶ Bañan Yesu'k esan zion: «Baita zuen zori txara ere, legelariona. Ezin eraman alako zamak besteei leporatzen dizkiezute, ba; zerok, ordea, beatz batez zamarik ikutzen ere ez dakizute.

⁴⁷ Zuen zori txara, zuen asabaek ildako igar'leentzat ilobiak antolatzen dituzutenok! ⁴⁸ Ayek egiña zuek aito'rtu ta onartzen duzute, beraz; ayek bizia kendu zietenei ilobiak zuek antolatzen dizkiezuten ezkerro. ⁴⁹ O'regatik ere Yainkoaren yakintzak esan zun: «Igar'le ta bidaliak igo'riko dizkiet; igo'ri auetako batzu ayek il ta besteak esetsi egingo ditute; ⁵⁰ gizaldi onek lu' so'rtzetik onakoan ixuri dan igar'le guzien odolaz erantzun dezan, ⁵¹ Abel'en odoletik asi ta opa'ri ta yauretxe artean ildako Zakari'ren odoleraño. Izan ere, odol o'ertzaz gizaldi oni zuribidea eskatuko zaye; Neuk da-saizuet.

⁴⁸ Edo: Igar'leak il zituten asabaen asmoa ba'utik duzute, aren egiña onartzen duzute, igar'le guzien nagusia naizan Ni ere iltzeko gerturik zaudete, ta bitartean ildako igar'leen obiak edertzen dituzute.

⁵² Zuen zori txara, yakite-giltzaz yabetu zeraten legelariona. Ez zerate, ba, zerok sartu, ta sartzen zira-nei eragotzi egin diezute».

⁵³ Orela mintzo zitzayela-ta, idazlari ta parisaitarak asi ziran gogor Ari egiten, ta askotaz itantzen, ⁵⁴ Aren aotik itzen bat yalkiko ote zai.

XII

Beldur gabe Yesu aitoritu bear

Milaka lagunak bitartean, elkar sakatzeko alakoan bildu zirala, asi zan lenik bere ikasleei esaten: «Zeron ardura ezazute, parisaitaren orantza dan azaluskeriari buruz! ² Ez dago, ba, estalirik ezer ere, ageriko ez danik; ezta itzalpekorik ere, yakingo ez danik. ³ Ostera ere, iluntan zuek esana, argitan entzuna izango da; ta aotik belarira gelan zuek erausia, etxegañetatik aldarikatuko da. ⁴ Zuei, beñiz, ene adiskideoi, dasaizuet; ez izutu, soña il ondoren, besterik ezin egin dutenei buruz. ⁵ Noren beldur zaitezketen, ostera, erakutsiko dizuet. Soña il ondoren, sulezera yaurti dezakenaren beldur zaitezte; Oren, bai, Oren beldur izan zaitezte; Neuk dasaizuet.

⁶ Ez ote dira bost txolañe xemaiko bitan salgai? Yainkoarentzat, oratiño, ayetako bat ere ez dago aztuta. ⁷ Zuen buruko ile guziak ere zenbatuta daude. Ez bel-

⁵² Yakite-giltza legelariak eñari ostu zioten, Mesia erege aberats ta luñeko aunditasunez ederturik etortzeko zala erakutsirik. Ta orela, berak Mesiaren yaureñan sartu ezik, besteai ere sañera eragotzi zien.

duí izan, ba; txolaíre asko baño gurenagoak zerate zuek.

⁸ Esan ere dasaizuet: gizaúrean aitoítuko nauna, Yainkoaren aingeru aúrean Gizasemeak ere aitoítuko du, ⁹ gizaúrean ukatuko nauna, beíz, Yainkoaren aúrean ukatua izango da. ¹⁰ Gizasemearen aúrka birao legikenari, asketsiko zayo; Goteunaren aúrka birao legikenari, ostera, ez zayo asketsiko.

¹¹ Sinagogetara, ta agintari ta nagusiengana zaramazketenean, ez laíri izan nola ta zer zuen alde erantzun edo zer esango duzuten; ¹² esan beaía garai artan bertan Goteunak erakutsiko dizue-ta».

E u k i m i ñ a z

¹³ Eríko norbaitek esan zion: «Irakasle, esayozu nere anayari ondarea nerekin erdikatzeko». ¹⁴ Bañan Yesu'k esan zion: «Gizona, nork yaíri nau zuetan ebazle edo banatzale?». ¹⁵ Ta guzientzat esan zun: «Zurt egon ta eukimin guzitik zuen burua arduraz zaitu; gañez iñork euki aíren, aren bizitza ez baitago dauzkanetatik eskegita».

¹⁶ Alegi au ere erakutsi zien: «Gizon aberats baten aloíak uzta ugari ekaíri ziola, ¹⁷ bere kolkorako asmaketan asi zan, esanez; Zer egin beaí dikat, nere uzta non bildu ez dikat-eta? ¹⁸ Oía-esan zun-nere egitekoa. Nere mandioak irauli ta zabalagoak egingo zetikat, eta ayetan nere uzta ta ondasun guziak bilduko zetikat. ¹⁹ Aíezkero nere gogoari esango ziokat: ots, urte

¹⁰ Beg. Mt. XII, 31.

¹⁴ Yesu zeru-luñen yabe izanik ere, ez zan Aitaren asmoz alako kazkañkerietan ebazteko etoíi.

askotarako ogasun yoritsu bilduta daukak. Atsedean artu, yan, edan, oparo bizi. ²⁰ Baña Yainkoak esan zion: Zoro ori; gauko aratsean ire bizi eske zetozkek; norenak izango dituk ik bilduak?

²¹ Alakoxea da, ba, Yainkoarentzat aberastu beartean, beretzat biltzen ari dana».

Yainkoaren guganako arduraz

²² Ta bere ikasleei esan zien: «Argatik dasaizuet: ez lañi izan biziarentzat zer yan, soñarentzat zer yantzi. ²³ Yanaria baño bizia geyago da, ta yazkia baño, soña. ²⁴ Begira beleak; ez dute ereiten, ez itaitzen; goñuberik ez daukate, mandiorik ere ez; ta Yainkoak azten ditu. Txorietatik zuetaraño, ordea, arte edeña dago. ²⁵ Aitzitik ere, zuetan nor da bere bizitzari beserdi bat, ekiñaren ekiñaz, geitu dezayokenik? ²⁶ Beraz, gutxiena ere ezin duzuten ezkerro, osterantzekoaz zertarako ayola ibili? ²⁷ Begira liliak nola garatzen diran. Ez dira lanean ari, ez goruetan. Ala ere, dasaizuet Salomon bera, goraldirik ospatsuenean, ez zegola ayetako edozein bezain apaindurik. ²⁸ Or, ba, gau zelayean dagon ta biar laberatuko dan belaña Yainkoak orela yazten ba du, zeinbesteraño ko ardura erakutsiko dizue zuei, siñeste-urioi? ²⁹ Ez ibili, beraz, zer yan, ala zer edan artega ta lañi. ³⁰ Alakoen ondotik luřkoyak dabiltza; ³¹ zuen Aitak, ordea, ba-daki guzion beartetan zuek zaudetela. Zabiltzate, beñiz, Yainkoaren yaureñi bila, ta enparau guziok geigañitzat artuko dituzute. ³² Ez beldur izan, motxiño ori; zuen Aitak adeitsuki yaureña zuentzat baitauka. ³³ Daukazutena

saldu ta ukar egizute: maroizten ez diran zarpak eta aitzen ez dan altxora zuentzat atondu zeruan; lapurik an ez baitago, ezta zirtzikatzeko sitsik ere. ³⁴ Izan ere, zuen altxora non, zuen biotza ere antxe.

Moñoi ernaya

³⁵ «Zuen sarkutzak gerikatu ta kriseluak ixioturik beude, ³⁶ nagusia ezteyetatik noiz itzuliko dan moñoyak zai dauden bezela, etoñi ta yo ala, atea berari irikitzeke. ³⁷ Zori ontsuak, noski, nagusiak etoñtzean ernai yarugiko ditun moñoi ayek! Ziñez dasaizuet: magala geriratuz, maitara yariko ditu, ta bazkari-moñoi-ketan ari izango zaye. ³⁸ Zori ontsuak ayek, bigaren gau aldian, naiz irugarenean, etoñita ere, ala yarugitzen ba'ditu!

³⁹ «Ori ere yakizute; zein ordutan lapura letoñken etxeko yaunak ba'leki, ernai legoke, ta bere etxea zulatzen ez lioke utziko. ⁴⁰ Oñela, ba, zuek zaudete gerturik: ez dakizuten garayean Gizasemea datoñke-ta».

⁴¹ Ordun Kepa'k esan zion: «Yauna, ¿guretzat, ala guzientzat alegi au diozu?» ⁴² Ta Yaunak esan zun: «Zein da gero yaurtzale zintzo ta gurbila, nagusiak otseinburu yaria, etxekoei azkuña mugonez banatzeko? ⁴³ Zori ontsua nagusiak etoñtzean ala ari izaten yarugitako moñoi ura! ⁴⁴ Ziñez dasaizuet; ditun guzien buru yariko du. ⁴⁵ Baña moñoi ark bere biotzean ba'dio «nere nagusiak luzatzen dik», eta moñoi-neskameak astintzen, ta yandedan-mozkoñtzen ari ba'da, ⁴⁶ berak uste ez dun egunean ta ez dakin garayean bere nagusiak etoñita zati-

tuko du ta gaiztoei zoř zayena damayoke. ⁴⁷ Bere nagusiaren gogoa yakinda ere, gerturik egon beařean, aren gogara ari ez zan mořoi ark arakaldi izugařia yasan beařko du. ⁴⁸ Ariņa, beřiz, nagusiaren gogorik yakiteke, astingarı zerbait egin lukenak. Asko eman zayonari, asko eskatuko diote, ba; ta asko egotzi zayonari, geyago lakatuko diote.

Gudadei gorria

⁴⁹ Luřari su ematera etoři naiz; ta irazeki dan ezkerro, zer nai dut? ⁵⁰ Ukuzpenez ukuzi beařa naiz; ta anartean nere ezin egona! ⁵¹ Gentza ekařtzen luřera etoři naizala uste al duzute? Ez noski, dasaizuet, berezkuntza baizik. ⁵² Gerokoan, etxe batean bost daudela, bereziko dira iru biren auřka, ta bi iruen auřka. ⁵³ Bereziko dira, aita semearen auřka, ta semea aitaren auřka; ama alabaren auřka, ta alaba amaren auřka; amagiařeba eřaņaren auřka, ta eřaņa amagiařebaren auřka».

Eguraldia dala-ta

⁵⁴ Ba-ziotsan ere gizataldeari: «Ekeratik odei bat sořtzen ikusita bereala diozute: «Euriyasa zetořk», ta alaxe da. ⁵⁵ Egoaizea baldin ba'dabil, «bero egingo dik» diozute; ta alaxe da. ⁵⁶ Azalutsok, ortzi-luřen auřpegia

⁴⁹ Sua=Goteunaren maitetasun ta indařa.

⁵¹ Yakiņa da Yesu'k ez zitula nai gizonen gaiztakeriak daramazten berezkuntzak: guziok bat egiteko etoři baitzan! Baņa Berak nai zun Ebaingeriaren zabalkundea, ta ba-zekin andik irtengo zirala zalantz eta zalapařtak ugari.

⁵⁶ ¿Ez duzute oraingo garai au ezaguten? Eguraldia igařtzeko ain zořotz zeratenok, ¿nola ez dezute igařtzeu Mesiařen aldia etoři dala? Igařleak eman zitun ezaupide guziak bete dira ta...

aditzen ba-dakizute; nola, beraz, ez duzute oraingo garai au ezagutzen? ⁵⁷ Zer dala-ta ez duzute zeronez zuzen dana igartzen? ⁵⁸ Agintariagana zure aurkakorekin zoazala, bidean bertan arengandik yaregiteko alegizu; ebazlearen eskuetan yaí ez zaitzan, ta ebazleak amainarenetan, ta amainak moíoilpean. ⁵⁹ Ez zera andik irtengo, azken zipa ordaindu arte; Neuk dasaizut».

XIII

Garbairako aolkua

Galilaitaí batzuen odola eskeintzen zeuden oparia- rekin Pilat'ek nasi izan zula-ta, garai artan batzu etoíri ziran yazoa Yesu'ri iragartzen. ² Ta erantzuki esan zien: «Galilaitaírik gaiztoenak uste al duzute galilaitaí oriek ziralá, oírenbeste nozitu zuten ezkeró? ³ Ez noski, ba-dasaizuet. Garbai ez ba'zerate, osterá, guziok ere oírelá zuzituak izango zerate. ⁴ Doíreak Siloe'n gañera erori ta leítu zitun emezortzi ayek ere, Yerusalen'go gizonik ogendunenak ziralá uste al duzute? ⁵ Ezta ere, dasaizuet. Garbai ez ba'zerate, osterá, guziok ere oírelá zuzituak izango zerate».

⁶ Alegi au ere esan zien: «Norbaitek pikondo bat bere mastian landatuta zeukan; ta aren piko bíla etoírita ez zun alerik idoro. ⁷ Mastizayari, beraz, esan zion: «Begira; iru urteotan pikondo ontara ale bíla etoítzen naiz; ta alerik ez. Ebakazu, ba. Zertarako luíean alpeírik dago? ⁸ Bañan ark erantzun zion: «Yauna, aur-

ten ere utzazu; nik baranoa atxuítu ta simauítuko díot,
 9 ale ote dakaén gerokoan; ez ba'dakaí, ebakiko duzu».

Larunbatz

10 Larunbata zala, Yesu sinagogan irakasten zegon.
 11 Ta ara, emezortzi urte ayetan txerének gaitzez zeukan emakume bat an zegon iñola lerdendu eziñik korapilotuta. 12 Gaxoa Yesu'k ikusi zunean, deitu ta esan zion: «Emakume, zure gaitzetik yaregiña zaude». 13 Ta eskuak ezaí zizkiola, emakumea beingoan lerdendu ta Yainkoa goresten asi zan.

14 Larunbatean Yesu sendakuntzan ari zala-ta asefeturik, sinagogaburuak yaiki ta gizataldeari esan zion: «Ba-dira sei egun lanerako; ayetan, ba, etoí sendakuntza bila, ez, ordea, larunbatean». 15 Bañan Yaunak yardetsi ta esan zun: «Azalutsok, zuetan ez al du edonork bere idia edo astoa larunbatean ukulutik askatu ta edatera ateratzen? 16 Ta Satan'ek emezortzi urteotan loturik zeukan Abraham'en alaba oni lokaía larunbatean ezin lekiokela askatu?»

17 Oírela mintzo zala, Aren etsayak lotsa ziran; eí osoa, beíz, poz pozik zegon Berak egindako goragaí guziengatik.

Yebenazia ta orantz

18 Esan ere zien: «Zelakoa da Yainkoaren yaureía? ta zerekin berdinduko dut? 19 Gizon batek artu ta bere baratzean ereindako yebenazia erne ta zugatz aundi

9 Pikondo oíitsu, baña agoía ziran Yuduak.

egin zan, ta aren adaíetan txoriek abi egin zuten. Alaxe da Yainkoaren yaureía».

²⁰ Ta berebat esan zien: «Yainkoaren yaureía zerekin berdindu nezake? ²¹ Orantza emakume batek artu ta iru lakari irintan sartu zun, ore osoa murtzitu arte. Alaxe da Yainkoaren yaureía».

Zeru-atea

²² Yerusalen'a bide egiñaz, iri ta baseíetan irakasten ziyoan. ²³ Ta norbaitek esan zion: «Yauna, gutxi al dira zerua iristen dutenak?» Ta Berak esan zien: ²⁴ «Ate estutik sartzeko leya zaitetze; sartu nai ta ezin sartu asko ibiliko dira-ta; Neuk dasaizuet. ²⁵ Etxeko yaunak yaiki ta atea itxi ondoren, atauretik zuek ate-yoka asiko zerate, esanaz: Yauna, Yauna, iriki iguzu. Eta erantzungo dizue: «Nongoak zeraten ere ez dakit». ²⁶ Ordun asiko zerate esaten: «Zure aúrean yan ta edan genun, ta gure zeyetan irakasten ari izan ziñan». ²⁷ Ta esango dizue: «Nongoak zeraten ere ez dakit. Alde Nigandik, gaiztagin guziok! ²⁸ Orduko negar ta ortz-kaíaska, Abraham, Isaak, Yakob eta igarle guziak Yainkoaren eían; zuen buruak, beíz, andik oilduak ikusitakoan! ²⁹ Ekera-oxezkietatik, ipar-egoetatik datozke, ordea, ta Yainkoaren eían maikide eseriko dira. ³⁰ Ta azkenen diranak lenenak izango dira, ta lenen diranak azkenenak izango dira.

Bere eriotzari buruz

³¹ Egun artan bertan parisaitar batzu alderatu zitzazkion, esanaz: «Irten emendik eta zoaz; Erode'k il egin

nai zaitu-ta». ³² Bañan esan zien: «Zoazte ta azeri oñi esayozute: «Orizu, gauñ ta biar tuxuriak iraitzen ta eriak sendatzen ari nauzu; ta etzi nereak egin du. ³³ Baña gauñ-biar-etzietan auñera egin beañ dut: Yerusalen'dik alde iltzea igañleri ez dagokio-ta. ³⁴ ¡Yerusalen, Yerusalen, igañleak il ta zuregana bidaliak añikatzen dituzun ori; zenbatetan zure umeak bildu nai izan ditut, bere txitaldia oñak egapean bezela, ta zuek ez duzute nai izan! ³⁵ Oñ ba, utsik geldituko da zuen etxea. Ta ba-dasaizuet; ez nauzute ikusiko «gora Yaunaren izenean datoñena» zuek esateko garaya eldu arte.

XIV

Ugeriduna

Larunbatean bazkaltzera parisaitañ nagusi batenean sañtu zala, kirika zegozkion. ² Ta ara, gizon ugeridun bat Aren auñean zegon. ³ Yesu'k, ba, legelari ta parisaitañengana itzulirik, itz egin ta esan zien: «Zilegi al da larunbatean iñor sendatzea ala ez?» ⁴ Bañan ayek isili ziran. Berak, beñiz, gizona atzirik, sendatu ta igoñi zun. ⁵ Ta ayengana biuñturik, esan zien: «Nor da zuetan, astoa edo idia larunbatean zulora erori ba'zayo, berealaxe ateratzen ez dunik? ⁶ Ta ezin oñetzaz erantzun zioten.

^{32, 33} Ez naiz ilgo Erode'k nai dun garayean, nere Aitak autu dunean baño: aren mañokeriak nere Aitaren asmoarekin ezereztuko dira; ta oñegatik nere bidean yañai naiz, ainbeste igañleen odolak goñitu dun Yerusalen'go urian il arte. **Gauñ, biar, etzi** esandakoan, agertzen digu ziuñ dakiela zeintzuk diran Bere bizitzaren urte ta ilen atalak, irugañena eldu arte.

Maipururik ez irikatu

⁷ Aulki nagusien bila maikideak zebiltzala oarturik, alegi au ekañi zien: ⁸ «Ezteideya artutakoan, ez zaitez maipuru yañi; ba-liteke, ba, zu baño gurenagoren bat deitua izatea, ⁹ ta biok deitu zaituzanak ordun esan lezai-zuke; toki au orentzat utzazu. Añezkero, azken tokia alkez artu beaño zenuke-ta. ¹⁰ Bazkaldeya artutakoan, beñiz, zoaz ta azken tokian yañi zaitez, deitzaleak etoñi ta dasaizun; adiskide, zatoz gorago. Oñela maikideen aurean deduz azalduko zera. ¹¹ Goratzen dana, apaldua izango da, ba; ta apaltzen dana, goratua.

¹² Bazkaldeya egin zionari, beñiz, esan zion: «Bazkari edo apari egitekoan, zure adiskideak ez deitu, ez senideak, ez aideak, ez auzoko aberatsak; bestela, ba, ayek deya biurtuko lizukete, ta ordaña ba-zenuke. ¹³ Oñits egitekoan, ordea, landeñ, maki, eñen ta itsuak deitu; ¹⁴ ta ordainbiderik auek ez dutelako, zori ontsua izango zera, berpiztaldian zindoen saria artuko duzu-ta».

Oñits aundia

¹⁵ Au adituta, maikide batek esan zion: «Zori ontsua Yainkoaren eñian maikide izango dana». ¹⁶ Oni, beñiz, Yesu'k esan zion: «Gizon batek apari edeña atondu zun, ta bertara ainitzei dei egin zien. ¹⁷ Otorduan, deituei bere moñoya igoñi zien etoñtzeko esaten, aparria gerturik zegola-ta. ¹⁸ Baña guziak aiko maiko asi ziran. Lenbizikoak esan zion: aloñ bat erosita nago,

ta ikustera yoan bea' dut; asketsi, ba, a' ren. ¹⁹ Beste batek esan zion: bost uzta' idi erosita nago, ta azte'rtzera noa; asketsi, ba, a' ren. ²⁰ Ta beste batek esan zion: Ezkonbe'ri nago ta ezin noake.

²¹ Mo'roya, a' rezkero, itzuli zan nagusiari dana adi-razteko. Ordun nagusiak ase' retuta mo'royari esan zion: zoaz arin iriko ze' i ta auzoetara, ta lande' r, maki, itsu ta e' renak onara sa' rerazi itzazu. ²² Ta mo'royak esan zion: Yauna, agindu duzuna eginda ere, oraindik tokia dago. ²³ Ta nagusiak mo'royari esan zion: bide ta esietara zoaz, ta gogo' rean ere, guziak sa' rerazi itzazu, etxea bete dakidan. ²⁴ Ba-dasaizuet, ba; au' renean deitutako gizon ayetako batek ere ez du nere apar'ia txastatuko»

Nola Yesu'ri ya'rai bea' r

²⁵ Laguntalde aundia Arekin ziyoan; ta ayengana biu'rturik, esan zien: ²⁶ «Nigana norbait ba' dato' r, ta bere aita, ama, emaztea, seme-alabak, eta anai-a' rebak, baita bere burua ere, iguintzen ez ba' ditu, ezin izan diteke nere ikasle. ²⁷ Ta gurutza sorbaldan nere ondo- ren ez dato' rena, ezin izan diteke nere ikasle. ²⁸ Etxe eraiki nai ezker' o zuetako nork ez du au' retik eralgi bea' ra astiro ainbatzen, buru ematekorik ote daukan- entz? ²⁹ azpikoa eza' rita gero ezin bukatu ba' du, ikusle guziak aren lepotik asi ez ditezan ixekaz ³⁰ esaten; gizon onek eraikitzen asita ezin bukatu izan dik. ³¹ Be- rebat bakaldunetan batek besteren au' rka guda egite-

²⁵ iguintzen ez ba' ditu= Ni ba' no gutxiago maite ez ba' ditu. Beg. Mat. X, 37.

koan, ez al du lenik astiro asmatzen amár mila gizon-ekin gogor egin ote lezayoken ogei mila gizonekin gañera datořkionari? ³² Bestela, alako ura oraindik urun dagoño, geznariak bidali ta onezkoak eskatzen dizkio. ³³ Ořela, beraz, zuetan ere ditun guziak uzten ez dituna ezin izan diteke nere ikasle.

³⁴ Gatza ona da; baña gatza gezatu ba'liz, zerez gazitu liteke? ³⁵ Ez luřerako, ezta sastegirako ere ez da gai; ta ořtik yaurtitzen dute. Entzuteko belaridunak bentzu».

XV

Ardi galdua

Zergari ta gixatxař guziak Arengana zetozan, Berari entzuteko. ² Parisaitař ta idazlariak, beřiz, maxiotan zerasaten: «Onak ař-emanak ba-ditu gizatxařekin, ta ayek maikide ditu».

³ Bañan Yesu'k alegi au esan zien: ⁴ «Eun ardi izan ta bat galdu ezkerro, zuetako nor ez doa, larogei ta emeretziak lařean utzirik, galduaren bila, atzeman arte? ⁵ Atzeman orduko, beřiz, bere lepoan pozik ezařtzen du, ⁶ ta etxera eldu ala, adiskide ta auzokoak biltzen ditu, esanaz; poz zaitezte nerekin; ardi galdua idoro dut-eta. ⁷ Neu aitoř natzaizue: ořela zeruan ere garbai dan ogenlari batengatik poz aundiagoa izango da, garbai izanetik ez daukaten larogei ta emeretzi zindogatik baño.

⁸ Berebat, zein emakumek amár txanpon izan ta bat

galdu ba' du, ez du kriselua pizten ta etxea isusten ta ez da aren bila ayolaz ibiltzen, idoro arte? ⁹ Idoro ala, beñiz, adiskide ta auzokoak biltzen ditu, esanaz: poz zaitezte nerekin; txanpon galdua idoro dut-eta. ¹⁰ Neu aitof natzaizue; ofela Yainkoaren aingeruetan ere pozten dira, garbai dan ogenlari batengatik.

Seme zarastela

¹¹ Ezan zien ere: «Gizon batek seme bi zitun, ¹² ta gazteenak aitari esan zion: Aita, indazu ondaretik daggokidan lagiña. Ta aitak ondarea banatu egin zien. ¹³ Egun asko gabe semerik gazteena, guziak bilduta, urutiko aldetara yoan zan, ta an, bulezka bizirik, bere ogasun guzia irion zun. ¹⁴ Zitunak oro eralgi zitunean, beñiz, gosete izugaña baztealde artan sortu zan, ta bera asi zan laztuta bizitzen. ¹⁵ Yoan zan, beraz, ta ango eritar baten akuran yañi zan. Onek bere laretara igori zun urdezai. ¹⁶ An, txeriek yaten zuten larekiz sabela bete naita, inork ez zemayon. ¹⁷ Beraz, bere senera itzulirik, esan zun: amaika ogipekok nere aitarenean ogia ba-dute ugari; neu, beñiz, emen goseak iltzen nago! ¹⁸ Yaiki ta ba-noake nere aitarengana, ta ba-dasayoket: Aita, Goikoaren aurka ta zuri buruz ogen egin dut; ¹⁹ ez naiz orezkero zure seme-izena eramateko gai; zure ogipekoetan ar nazazu, aren.

²⁰ «Beraz, yaiki ta aitarengana yoan zan. Urutian bera oraindik zegola, bere aitak ikusi zun, ta biotza erdiratu zitzayola, semearengana irten zan arin, ta

besoak lepora ezañirik, laztandu egin zun. ²¹ Ordun semeak esan zion: Aita, Goikoaren aurka ta zuri buruz ogen egin dut; ez naiz oñezkero zure seme-izena eramateko gai; zure ogipekoetan ar nazazu, aien. ²² Aitak, ordea, bere moñoyei esan zien: «Soñekorik edereña laster ekañi ta yantziozute, ta eraztuna eskuan ta oskiak oñetan ipiñi izkiozute. ²³ Txekoñ guritua ere ekañi ta il ezazute; ta oñits ta yai bedi; ²⁴ nere seme au ilik egonda berpiztu, ta galdua izanda azaldu dalako». Ta asi ziran oñitsean pozten.

²⁵ «Seme nagusia, beriz, landan zegon. Etxera andik urbildu zanean, eresi ta dantzak entzun zitun, ²⁶ ta moñoi bat deiturik, galde egin zion guzi ayek zer ziran. ²⁷ Moñoyak esan zion: Anaya etoñi duzu, ta zure aitak txekoñ guritua il du, semea beriro osasundun beretu dulako. ²⁸ Ordun aseñeturik, ez zun sartu nai; ta arengana aita irten zan arenez. ²⁹ Bañan aitari yardetsi ta esan zion: «ona, ainbeste urtetan yopu natzaizu zure agindurik bein ere austeke, ta antxume bat ere ez didazu iñoiz eman, nere adiskideekin yolas artzeko. ³⁰ Ta ematxañekin ogasuna irentsi dizun seme oñentzat, etoñi danekoxe, txekoñ guritua il duzu». ³¹ Bañan aitak esan zion: «seme, zu beti nerekin egoten zera, ta nereak oro zure dira. ³² Egoki da, ordea, oraingo poz ta yaya, zure anai au ilik egonda piztu, ta galdua izanda azaldu dalako».

XVI

Yauŕle maltzura

Bere ikasleei ere esan zien: «Gizon aberats bati bere yauŕlea salatu zioten ogasuna irioten ziola-ta. ² Beragana deitu ta esan zion, beraz: Zer da zutzaz dantzudana? Zure yauŕpidea erakuskidazu; onezkero yauŕle ezin izan zaitezke-ta. ³ Yauŕleak ordun bere baitan esan zun: Zer dagiket, nagusiak yauŕgoa kentzen didan ezkerro? Atxuŕean ezin dut; eskean lotsa naiz. ⁴ Ba-dakit zer egin, bestetzuk etxera aŕ nazaten yaurgotik astandua naiteken orduko. ⁵ Banaka, beraz, bere nagusiaren zoŕdunak deiturik, lenbizikoari esan zion: Zenbat zoŕ diozu nere nagusiari?

⁶ Ark esan zion: Eun aŕatz olio.

Ta yauŕleak ari: Tori zure agiria, eseri azkaŕ, ta idatzi beŕogei ta amaŕ.

⁷ Gero beste bati esan zion: Zuk ere zenbat zoŕ duzu?

Ark esan zion: Eun eŕegu gari.

Ta yauŕleak ari: Tori zure agiria, ta idatzi larogei.

⁸ Nagusiak, beŕiz, yauŕle maltzur ura goratu egin zun, zuŕki ari izan zalako. Izan ere, luŕ-umeak beren alkaŕketan zuŕagoak dira argi-umeak baŕno. ⁹ Nik, beraz, dasaizuet: Mamon okeŕaren lepotik zuen adiskideak geitu itzazute; ilko zeratean, betiko aterpera zatotsazten.

¹⁰ Ñimiñoan zintzoa, aundian ere zintzo; ta ñimi-

ñoan maltzuía, aundian ere maltzuí. ¹¹ Mammon okeáz zintzoak izan ez ba'zerate, beraz, ondasun yatoía nork egotziko dizue? ¹² Ta besterenaz zintzoak izan ez ba'zerate, zeron nork emango dizue? ¹³ Inor ezin izan diteke bi nagusiaren moíoi; edo bata goíoto ta bestea maite izango du, ba; edo batari adikoí ta besteari ayolagabe izango zayo. Yainkoaren ta Mammon'en moíoi ezin izan zaitezket»,

Parisaitaíen azaluskeria

¹⁴ Erausi guziok entzuten parisaitaíak zeuden, ta uíekoi baitziran, Berari inaka asi ziran. ¹⁵ Esan zien, beraz: «Zuek gizauíean zintzo iruditzen ba-dakizute; zuen biotzak, ordea, Yainkoak ba-dazagutzi. Gizauíean gorena, beíz, Yainkoaren auíean nazkagaí da. ¹⁶ Lege ta igaíleen aldia Yon arterañokoan izana da; aízkerok, Yainko-yauraldiaren Beí Ona zabaltzen da, ta guziak oldaíz ara datoz. ¹⁷ Eíazagoa da, beíz, ortzi-luák igarotzea, kizkitxo bat ere legetik yalki baño. ¹⁸ Bere emaztea utzi ta beste bat aítzen dunak, izoíkeri dagi; ta senaíak utzia beretzat aítzen dunak, izoíkeri dagi.

Aberats beti-yai ta Lazar eskalea

¹⁹ «Gizon aberats bat zan, purpura ta liñaberazko yazkiak eta egun oro oíits edeíak izan oi zituna. ²⁰ Baita Lazar zeritzan eskale bat ere ba-zan aberats aren atalondoan zauriz yosirik etzanda, ²¹ aberatsaren maitik yal-

¹¹ Mammon, aberastasunaren yainkoaizuna ta aberastasuna bera. Mammon okeía: okeítasunerako bide dalako, ta askotan okeítasunetik datoíelako.

kitako apuréz asegale; zakuñak, osterá, zetozkion ta zauriak milikatzen zizkioten. ²² Eskalea il zan, ta aingeruek Abrahan'en altzora eramán zuten. Aberatsa ere il zan, ta eortzi zuten. ²³ Sulezean zegola, begiak yasorik, Abrahan urundik ikusi zun, ta baita aren altzoan Lazar ere. ²⁴ Ta deadañez esan zion: «Abrahan aita, nitzaz eruki izan, ta Lazar nigana igorazu, bere erpurua urtan bustita, mingaña oztu dezaidan; gar'ontan oñazez nago-ta». ²⁵ Bañan Abrahan'ek esan zion: «Seme, oroi zaitez, bizi ziñanean, atsaldia artu zenula, Lazar'ek, beriz, atsekabea. Orain, osterá, atsaldia berak emen du, ta zuk oñazea. ²⁶ Osterantzean ere, leze aundi bat dago gure ta zuen artean, emendik ora ta ortik onara inor ezin igaro dedin». ²⁷ Ta besteak esan zion: «Aren, aita, Lazar ori beñik bein nere aitaren etxera igorazu, ²⁸ ditudan bost anayei emengoa aitorzeco, oñazetoki ontara ayek ere ez datoza». ²⁹ Bañan Abrahan'ek esan zion: «Mois ta igarleak ba-dauzkate; bentzuyete». ³⁰ Ta ark esan zion: «Ez, Abrahan aita; ildakoren bat ayetara ezkeró, beriz, garbai izango dira». ³¹ Abrahan ek yardetsi zion: «Mois'i ta igarleei ez ba'dantzuyete, iletatik inor piztu ba'liz ere, ez diote siñetsiko».

XVII

Gaizpidez ta irain-asketsaz

Bere ikasleei esan zien: «Eziña da gaizpiderik ez sórtzea; bañan jau zori txara, gaizpidea yartzen dunarena! ² Obe litzayoke alakoari, eyotaña lepotik

ezañita, itxasora yaurtia izatea, txikitxo auetako bat ere gaizpideratzea baño. ³ Zeron ardura ezazute. Zure anayak uts egin ba'dizu, akañ egiozu; ta garbai ba'liz, asketsiozu. ⁴ Ta egunean zazpitan uts eginda, egunean zazpitan «garbai nauzu» esaten ba'datoñkizu, asketsiozu».

Siñeste ta apaltasunaz

⁵ Ta bidaliek Yaunari esan zioten: «Siñeskuntza geitu iguzu». ⁶ Yaunak, beraz, esan zien: «Yebenazia bezainbateko siñeskuntza ba'zenute, masustondo oni «eñotik atera ta itxasora alda adi» zuek esan ezkeron, men egingo lizueke.

⁷ Moñoya goldetan, naiz artzaitzan, egonda landatik biurñzen danean, zuetako norak dasayo: «aurera azkañ; eseri aparitan?» ⁸ ta ez dasayo aitzitik: «aparia gertu agidak, gerikoa lotu, ta yan-edaten natxiokaño, eraso-idak; ta gero ik yan-edango duk?» ⁹ Moñoyari eskeñ egingo ote dio, agindu zayona bete dulako? Ez Nik uste. ¹⁰ Oñela zuek ere, agindu zaizuen guzia egin ondoan, esazute: moñoi txatxañ gera; egin beañ genu-na egin dugu».

Amañ legenañdunak

¹¹ Yerusalen'akoan, Samari'n ta Galilai'n baña bein ziyoan; ¹² ta eñixka batean saññzen zala, aurkez zetozan amañ gizon legenañdun urñdik gelditu ¹³ ta asi ziran deadañez Ari esaten: «Yesu nagusi, ori, eñuki zakizkigu». ¹⁴ Ikusi zituneko, esan zien: «Zoazte, ta apaizei

aurkeztu zakizkiete». Ta ara, yoatean garbi egin ziran. ¹⁵ Ayetako batek, sendatu zala ikusi zunean, atzera egin zun, Yainkoa deada rez goratzen. ¹⁶ Ta Aren oñetara auzpeztu zan esker egiñaz; ta alako ura samarita ra zan. ¹⁷ Ordun Yesu'k itz egin ta esan zun: «Ez al dira ama rak garbi egiñak? Non dira, ba, bederatziak? ¹⁸ Arótz au besterik ez da izan Yainkoa goratzeko itzuli danik». ¹⁹ Ta esan zion: «Yaiki ta zoaz. Zure siñesteak sendatu zaitu».

Kisto'ren biga'ren eto'erez

²⁰ Parisaita r batzuk itandu zioten: «Noiz dato r Yainkoaren yauraldia?» Berak yardetsi ta esan zien: «Yainkoaren yauraldia oar ga'iro ez dato r; ²¹ ta ez diokete: «o ra o r, edo ara an». Zeron ba'rnean daukazute Yainkoaren yauraldia».

²² Ta bere ikasleei esan zien: «Ba-datozke egunak, eta ordun zuek Gizasemearen egun bat bederen ikusi nai izango duzute; ta ez duzute ikusiko. ²³ Ta esango dizuete: Ona emen; o ra o r. Ez zaitezte iñora yoan Aren bila. ²⁴ Alabaña; odeiz odei dirdiratuz tximist argitsua diyoan bezela, bere egunean azalduko da Gizasemea ere. ²⁵ Ara baño len, ordea, gizaldi onengandik neke asko yasan ta gaiztetsia izan bea r du. ²⁶ Ta Noe'ren egunetan gertatua, Gizasemearen egunetan ere gertako da. ²⁷ Yan ta edaten, ezkondu ta ezkonera zten bizi

²⁰ Yainkoaren yauraldia – Mesiaren garaya – ez dato r, parisaita rek uste duten bezela, zarata eta bu'runba aundiarekin. **Zeron ba'rnean dago,** zuen e rdian dagolako zuek ezagun nai ez duzuten Mesia. Beg. Yon, III, 3; XVIII, 36.

ziran, Noe kutxan sartu ta ugoldeak etoñi ta guziak suntsitu zitun eguneraño. ²⁸ Orixe Lot'en egunetan ere yazo zan; guziek yan-edaten, sal-erosten, landatzen ta etxeak eraikitzen ari ziran. ²⁹ Baña Sodoma'tik Lot irten zan egunean, su ta kirastautsak ortzitik yetxita guziak ñaundu zitun. ³⁰ Alaxe yazoko da Gizasemea ageriko dan egunean. ³¹ Egun artan, etxe gañean legokena, ez bedi bañean dauzkan atuxak ateratzera yetxi; ta aloñean legokena, berebat, ez bedi atzera itzuli. ³² Lot'en emazteaz oroi zaitezte. ³³ Bizia euki nai lukenak, galduko du; ta galdu lukenak, piztuko du.

³⁴ «Ba-dasaizuet; gau artan bi egongo dira oe batean; bata artu ta bestea utzia izango da. ³⁵ Emakume bi elkarékin eyotzen ari izango dira; bata artu ta bestea utzia izango da. ³⁶ Aloñean bi aurkituko dira; bata artu ta bestea utzia izango da».

³⁷ Ayek ordun dasayote: «Non, Yauna?» Ta Berak esan zien: «Sañaskia non, aranoak ere ara bilduko dira».

XVIII

Ebazle lotsagabea

Otoiketán aspértzeke beti ekin beañ zutela erakusteañen, alegi bat ere ekañi zien, ² esanaz: «Iri batean ebazle bat zan Yainkoaren belduñik eta gizonen ayolarik gabe. ³ Iri artan bertan ere alargun bat zan; ta ebazlearengana zetoñen, esanaz: «Zuzenbidea egidazu nere aitzikoari buruz». ⁴ Ebazleak, ordea, ez zun luzaroan nai. Ondoren, ordea, bere baitan esan zun:

«Yainkoaren beldur, ta gizonen lotsa ez ba'naiz ere,
5 alargun ori nekagarí zaidan ezkeru, zuzenbidea egingo diot, aráamazkan noizpait ez dato'rkidan».

⁶ Emen Yaunak esan zien: «Entzuzute zer dion ebazle gaiztoak. ⁷ Ez ote die gero Yainkoak zuzenbidea egingo, gau ta egun deada'rez dagozkion bere autetsiei? Ayen lepotik yasanbera azalduko ote da? ⁸ Zuzenbidea egingo die, noski, ta laster egingo ere: Neuk dasaizuet».

Parisaitara ta zergaria

⁹ Berak zintzo ta besteak ezer ez diralakoan a'ro a'ro dabilzan batzuentzat alegi au esan zun: ¹⁰ «Yauretxera otoi egiten gizon bi igo ziran; bata parisaitar, bestea zergari. ¹¹ Parisaitarak, otoyaldian zutik, onela zion bere baitan: Ene Yainkoa, esker dagizut, beste gizonak edo o'ra'ko zergari ori bezela, lapur, oker ta ezkontza-nasle ez naizalako. ¹² Aste oro bitan baru egiten dut, eta ditudanen ama'ena ematen.

¹³ Zergariak, beriz, urutian zegola, begiak ortziruntz ez zitun yaso ere nai, ta bular-yoka zion: Ene Yainkoa, ogenlari onetzaz eruki izan.

¹⁴ Ba-dasaizuet: au etxera itzuli zan zindotuta; bestea ez; goratzen dana apaldua izango da-ta; apaltzen dana, beriz, goratua izango da».

Yesu ta aurak

¹⁵ Aurtxoak ere ba-zekazkioten, ikutu zitzan; ta ikasleek, ori ikusita, akar zegieten. ¹⁶ Baña Yesu'k aurak deitu zitun, esanaz: «Aurtxoak Nigana etortzen

utzi, ta ez eragotzi; Yainkoaren eña orelakoena da-ta.
¹⁷ Ziñez dasaizuet: aurtxoak bezela Yainkoaren yaureña artu ez lukena, ez da artan sartuko.

Gazte aberatsa

¹⁸ Aundiki batek itandu zion: «Irakasle on Ori, zer egin bear dut betiko bizitza yarausteko?» ¹⁹ Ta Yesu'k esan zion: «Zergatik ona diostazu? Inor ez da ona, Yainkoa baizik. ²⁰ Aginduak ba-dazkizu: ez izortu, ez inor il, ez ostu, gezuézko aitorik ez esan, zure aita-amaei lotsa izan». ²¹ Besteak esan zion: «Guziok gaztetanik bete ditut». ²² Yesu'k entzunda esan zion: «Zertxo bat oraindik peitu zaizu; dituzun guziak saldu ta landerei eman; ta altxoía zeruan daukakezu; ta zatoz, zaraizkit». ²³ Au entzunda goibeldu zan, aberats okitua zalako. ²⁴ Yesu'k, beriz, ura goibeldurik ikusita esan zun: «Zeñen zaila da aberatsak Yainkoaren eñan sartzea. ²⁵ Oratzulotik gamelua eñazago igaro liteke, aberatsa Yainkoaren eñan sartu baño».

²⁶ Ta entzuleek esan zuten: «Nor yaregin diteke, ba?» ²⁷ Bañan Yesu'k esan zun: «Gizonentzat ezinkizuna, Yainkoarentzat eginkizun».

Oldez lander egiñak

²⁸ Ordun Kepa'k esan zun: «Ona emen gu, dana utzita, yarai gatzazkizunok». ²⁹ Ta Yesu'k esan zien: «Ziñez dasaizuet: ez dago bat ere, Yainko yauraldiañen

etxe, emazte senide, aide edo semeak utzi ondoren; 30 geyago mende ontan, ta betiko bizitza gerokoan artzen ez dunik.»

Yesu bere azaga iragañtzen

31 Ta amabiak Berekin arturik, esan zien; «Begira, Yerusalen'a igotzen goaz, ta beteko da igarleek Gizasemeaz idatzi zuten guzia. 32 Izan ere, atzaritañei emana, ixekatua, iraindua ta lixtukatua izango da. 33 Ta Bera zigoñkatu ondoan, il egingo dute; ta irugañen egunean berpiztuko da».

34 Ayek, beriz, ez zuten ezer ere ulertu; ta itzok ayentzat estalirik zeuden; ta ez zioten esana igarñtzen.

Itsu argitua

35 Yeriko'ra urbiltzen zanean, itsu bat eskean zegon bide ondoan eserita. 36 Gizataldea igarotzen zentzuneko, beriz, zer ote zan galde egin zun. 37 Ta esan zioten: «Yesu Nazaretaña igarotzen da». 38 Ordun ots egin zion, esanaz: «Yesu, Dabid'en seme Ori, nitzaz eruki». 39 Ta auñetik ziyoazanek larderiatu zuten isiltzeko. Ark, ordea, areago ots egiten zion: «Dabid'en seme Ori, nitzaz eruki». 40 Beraz, Yesu'k, gelditurik, Beragana ekañtzeko agindu zun; ta itsua urbildu zitzayonean, itandu zion, 41 esanaz: «Zer nai duzu Nik Zuri egitea?» Ta ark erantzun zion: «Ikuseraztea, Yauna». «Ikusi, ba; 42 Yesu'k esan zion: «Zure siñesteak sendatu zaitu». 43 Ta bertantxe ikustun biurñtuta, Aren ondolik ziyoan, Yainkoa goratuz. Eñi osoak berebat, yazoa ikusirik, Yainkoa edeñesten zun.

XIX

Zakai

Yeriko'n saítuta, igarokiz ziyoan ² Ta ara, Zakai zeritzan ta zergariburu zan gizon aberats bat ³ Yesu nor zan ikusmiñez zebilan; gizataldearen ez zezaken, ordea, ñaíoa zalako. ⁴ Atxintxika, beraz, auírea aítuz, astigaí batera igo zan, Bera ikusteko; andik igaro beára zan-ta. ⁵ Yesu'k ara orduko, begira ta ikusi zun, ta esan zion: «Zakai, yetxi azkaí; zuenean gauí egon beaí dut-eta». ⁶ Azkaí yetsi zan, ba, ta pozik aítu zun etxera. ⁷ Ta guziak, ori ikusirik, maxiotan asi ziran, esanaz: «Gizatxaí baten etxean Ori kokatu». ⁸ Zakai'k, beíriz, Yaunari auíkeztuta esan zion: «Emen naukazu, Yauna; ditudanen erdia landeíei damayet, eta iñori zerbait bidegabez kendu ba'diot, lau alakoa biuítzen diot». ⁹ Ta Yesu'k esan zion: «Osakuntza gauí etxe ontan egin da; au ere Abraham'en seme da-ta. ¹⁰ Galdua bilatu ta gaizkátzera, Gizasemea etoí da, ba».

Amaí minak

¹¹ Yerusalen'dik uíbilean baitzan, ta Yainkoaren yauraldia auíki agertzekoa zalakoan entzuleak baitzeuden, itzaldian ekinda, alegi au esan zien: ¹² «Aundiki bat uítiko luíaldera yoan zan, ango yaureía beretu ondoren itzultzeko asmotan. ¹³ Ta bere amaí moíoi deiturik, amaí mina banatu zizkien, zesayela: Ekin

13 Mina, eun bat drakme edo peseta inguru.

irabazketan natořen artean. ¹⁴ Bere eřitařek gořoto zuten, ta aren ondolik geznariak bidali zituten, esanaz: Ez dugu nai gizon ori yauntzat. ¹⁵ Bera, beřiz, eři ura beretu ondoren itzulita, dirua emian izan zien mořoyak deitu zitun, zenbat nork irabazi zun yakiteko. ¹⁶ Lenbizikoa aurkeztu zitzayon, esanaz: Zure minak amar mina sořtu ditu. ¹⁷ Yaunak esan zien: Ots, mořoi on ori; gutxitxoan zintzo izan zerala-ta, amar iriren buru izango zera. ¹⁸ Bigařena ere eldu zan, esanaz: Yauna, zure minak bost mina sořtu ditu. ¹⁹ Oři ere esan zion: Zu ere bost iriren buru zaitezke. ²⁰ Beste bat etoři zan, esanaz: Yauna, oř duzu zure mina; zapitan bilduta euki dut; ²¹ zure belduř bainintzan, latza zeralako; ipiři ez duzuna ařtu, ta erein ez duzuna itaitzen duzula. ²² Yaunak dasayo: Erořen aotikan ebazten aut, mořoi okeř ori. Latza naukala, ta ipiři ez dikadana ařtzeko, ta erein ez dikadana itaitzeko gizona naukala ba-ekikan. ²³ Zergatik, ba, ez duk nere dirua irabazitan yaři, ta nik etořtzean bilduko nitek irabaziekin? ²⁴ Ta angoei esan zien: Mina ken iozute, ta amar mina ditunari emayozute. ²⁵ Ta esan zioten; Yauna, amar mina ba-ditu. ²⁶ Ba-dasaizuet: dunari emango zayo; ez dunari, ordea, duna ere kenduko zayo. ²⁷ Yauntzat nai izan ez nauten nere etsayak, beřiz, ekaři ta nere auřean il itzazute». ²⁸ Itzok bukatuta, auřera asi zan beři, Yerusalen'a igotzen.

Yerusalen'a sařtze ospetsua

²⁹ Oliamendi ondoko Betpage ta Betani'ra eldu zanean, bere ikasleetako bi igoři zitun, ³⁰ esanaz: «Zo-

azte auferko erixka ontara; an sartu ala, astakume bat idoroko duzute lotuta, gauñdaño gañean inor eseri ez zayona. Askatu ta ekañkidazute. 31 Ta zergatik askatzen duzuten inork itantzen ba'dizue, esayozute: Yaunak aren bea' du». 32 Igoñi ayek, ara yoanda, dana idoro zuten Yesu'k esan zienez. 33 Astakumea askatzen ari zirala, yabeek esan zieten: «Astakumea zergatik askatzen duzute»? 34 Ayek erantzun zieten: «Yaunak bea' dulako».

35 Ordun Yesu'ri ekañi zioten; ta beren txabuxak astakumeari gañera ezañita, gañean Yesu yañi zuten. 36 Ta auñera ziyoan bitartean, beren txabuxak bidean lagunabañek irauñtzen zizkioten. 37 Oliamendi bañen aldera eldu zanean, ikasle sañleko guziak asi ziran pozaren pozez Yainkoa ozengi goñresten, ikusitako alatz guzien-gatik, 38 esanaz: «Gora Yaunaren izenean datoñkigun bakalduna! Gentza zeruan, ta aintza goyenetan!»

39 Gizatalde arteko parisaita' batzuk, ordea, esan zioten: «Irakasle, zure ikasleoi agiraka egiezu». 40 Bañan erantzuki esan zien: «Ba-dasaizuet; auek isiliko ba'lira, añiek oyu legikete».

Yesu negañez

41 Urñbildu zanean, beñiz, iria ikusirik, arengatik negañez asi zan esaten: 42 «Zuk ere ai zenezagu, egun ontan beintzat, gentzarako dagokizuna! Orain, ordea, estalirik dago zure begientzat. 43 Egunak datozkizuke, ta zure etsayek lubaki-esia baranoan irikiko dizute, ta bañean añtu ta alde guzietatik ertsatuko zaitute. 44 Ta

zurean zerori ta zure umeak suntsituko zaituzte, ta ańirik ere argańean ez dute utziko; zukanako adei-garaya ezagun izan ez duzulako».

Yauretxeko salketariak

⁴⁵Yauretxean sańtuta, salerosketan an zeudenak iraitzen asi zan, ⁴⁶zesayelarik: «Idatzita dago: nere etxea otoi-etxe; zuek, ordea lapur-zulo egin duzute».

⁴⁷Ta egun oro yauretxean irakasten zegon. Bańan apaizpuru, idazlari, ta eńiko nagusiak Bera galdu nairik zebiltzan; ⁴⁸ez zuten, ordea, igartzen zer egin, eńi osoa Ari entzuten buru-belańi zegolako.

XX

Yesu'ren al izateaz

Alako egun batean, eńiari irakasten ta Beńi Ona azaltzen ari zala, apaizpuru la idazlariak zańekin aurkeztuta, ²itz egin ta esan zioten: «Esaiguzu; zein eskubidez ońela ari zera? eskubide ori nork eman dizu»? ³Erantzuki esan zien: «Galdetxo bat Nik ere egingo dizuet. Esaidazute; ⁴Yon'en ukuzpena zerutik ote zan, ala gizagandik?» ⁵Ayek, beńiz, elkańean ziardukiten, esanaz: «Zerutik ba'diogu, Berak dasaiguke; zergatik, ba, ez zenioten sińetsi? ⁶Gizagandik ba'diogu, beńiz, eńiak ańikatuto gaitu; Yon igańle zala etsi etsita dago-ta.

⁴⁵ Is. LVI, 7; Yer. VII, 11.

7 Erantzun zioten, beraz, ez zekitela nondik zan. 8 Ta Yesu'k esan zien: «Ezta Nik ere ez dasaizuet zein eskubidez oriek egiten ditudan».

Mastiko nekazari okeak

9 Ta asi zan alegi au eñiari esaten: «Gizon batek masti bat landatu zun, ta nekazari batzuei akuran utzi-rik, luzaroko urutira zan. 10 Uztaroan, maizteñ aytara moñoi bat igoñi zun, masti-zitutik eman zezayoten. Nekazari-ek, ordea, bera astindu ta esku-utsik yaurti zuten. 11 Beste moñoi bat igoñi zien; ta ayek ori ere astindu ta iraindu ondoren, esku-utsik yaurti zuten. 12 Beste irugañen bat oraindik bidali zien; ayek, ordea, ere zaurtu ta yaurti egin zuten. 13 Ordun masti-yabeak esan zun: Zer dagiket? Nere seme kutuna igoñiko diet; Bera ikusita, ausaz lotsa azalduko zazkio. 14 Baña maizteñek ikusi zutenean, elkañi esan zioten: Au duk oñordekoa; il dezakagun. ta yarauntsia guretzat. 15 Ta mastitik yaurti ta il egin zuten.

Zer egingo die, ba, masti-yabeak? 16 Etoñiko da, ta alako maizteñak zuzituko ditu, ta mastia beste batzuei damayeke».

Au adituta, ayek esan zuten: «Ez, añen, ez». 17 Baña Berak, ayei so egiñaz, esan zien: «Zer da, beraz, idatzitako au:

Añgiñek astandutako aña giltzañi nagusi ipiña da?

18 Añi onen gañean eroriko dana, puskatuko da;

17 Er. CXVII, 22; Is. VIII, 16

aíri onek, beñiz norbaiten gañera erori ezkerro, apuñtu egingo du».

¹⁹ Apaizpuru ta idazlariak, alegi au berengatik esan zula igañirik, ordun bertan Bera atzi nai zuten; bañan eñiaren belduñ ziran.

Kaisar'entzako zergak

²⁰ Beraz, atustan yañirik, azkondari batzu Arengana igoñi zituten, itzen bat zintzo-azalez atzi zezayoten, eñiyaurlearen esku ta menpera Bera eratorzeko. ²¹ Ta galde au egin zioten: «Irakasle, ba-dakigu bidez erausi ta irakasten duzula, ta nor nor dan bereizteke Yainkoaren bidea egiz darakasazula. ²² Ziñlegi al da zerga Kaisar'i ematea, ala ez? ²³ Ayen maltzurkeñia igañirik, esan zien: ²⁴ «Txanpon bat erakuskidazute. Dakañtzin irudi ta idazkuna norenak dira?» Ayek erantzuki esan zioten: «Kaisar'enak». ²⁵ Ordun Berak esan zien: «Oñezkerro, Kaisar'ena Kaisar'i, ta Yainkoarena Yainkoari emayozute». ²⁶ Ta itzik ere ezin atzi zioten eñiaren auñean; ta Aren erantzunaz añituta isili ziran.

Beñpizteaz

²⁷ Beñpizterik ez dala dioten sadukaitañetako batzuk ere, Arengana alderatuz, itandu zioten, ²⁸ esanaz: «Irakasle, Mois'ek idatzirik utzi digu: semerik gabe emaztea utzirik norbaiten anaya il bañliz, aren anayak beretzat alarguna añtu ta bere anaya zanari ondorengoa soñtu bezayo. ²⁹ Oñ ba, zazpi anai ziran, ta lena ezkondu ta semerik gabe il zan. ³⁰ Bigañena ere alargunarekin ez-

kondu, ta semerik gabe il zan. ³¹ Irugaírenak ere alarguna artu zun beretzat; eta orobat zazpirek; semerik ez zuten utzi ta il egin ziran. ³² Azkena emakumea ere il zan. ³³ Beraz, emaztetzat zazpirek izan zuten ezkerro, ayetako zeñena emazte izango da berpiztaldian?»

³⁴ Yesu'k erantzun zien: «Mende ontako gizakumeak dira ezkontza-arazotan ibiltzekoak; ³⁵ arako mende ura iristeko ta ilartetik berpizteko lain aurkituentzat, beriz, ezkontza-arazorik inola ere ez dago; ³⁶ ezin il dira-ta; aingeruak bezela, Yainkoaren seme baitira, berpiztez ala biurtuak. ³⁷ Ilak berpizten dirala, beriz, Mois'ek berak adirazten digu, lar ondoan Yainkoari Abraham'en Yainkoa, ta Isaak'en Yainkoa, ta Yakob'en Yainkoa diotsanean. ³⁸ Yainkoa beriz, ez da ilen Yainko, bizidunena baño; guziak Arentzat bizi dira-ta».

³⁹ Idazlari batzuk ordun itz egin ta esan zioten: «Ederki esan duzu, Irakasle». ⁴⁰ Ta arezkero ez zuten ezer itantzeko adorerik.

Dabid'en semea

⁴¹ Baña Berak esan zien: «Nola Kisto'a Dabid'en seme omen da? ⁴² Dabid'ek berak eresi-idaztian baitio:

Yaunak nere Yaunari esan zion:

nere eskui aldean eseri zaitez,

⁴³ zure etsayak oñazpikotzat

yaritzen dizkizudan artean.

³¹ Beg. Mk. XII, 1-12 ta Mt. XXI, 33-46

⁴¹ Beg Mt, XXII, 41.

⁴² Er. CIX, 1, 2,

44 Beraz, Dabid'ek Yauna ba'diotsa, Dabid'en seme nola izan diteke?»

45 Ta eñi osoak entzunda, bere ikasleei esan zien: «Zurt egon idazlariei buruz. Yantzi-luzeok or' dabilta, zeyetan agurak, sinagogetan aulki nagusiak, eta aparitan maipurua irikatzen, 46 ta alargunen etxeak, otoi luzeren apukoz, iresten. Epai zorotza artuko dute noski oriek».

XXI

Alargunaren ukartxo

Begiak yasorik, aberats batzu ikusi zitun beren emariak atabakan botatzen. ² Alargun lander' bat ere ikusi zun zipatxo bi an botatzen. ³ Ta esan zun: «Ziñez dasaizuet: alargun lander' onek, guziek baño geyago bota du. ⁴ Guzi oriek, ba, gañezkiñetatik Yainkoarentzako oparietara bota dute; onek, ordea, bere apurtxotik bizitzarako zeukan guzia bota du».

Yerusalen'en porokaldiaz

⁵ Yauretxea ari ederez ta opariz apaindua zegola zioten batzuei esan zien: ⁶ «Begitan dituzuten guziotatik ari gañean airik luera gabe geldituko ez dan egunak ba-datozke». ⁷ Ta itandu zioten, esanaz: «Irakasle, noiz gertatzekoak dira oriek? Ta zein igarpide izango da orelakoak gertatzekoan?».

⁸ Yesu'k esan zien: «Ernai ibili, atzipera ez etor-

1 Beg. Mk. XII, 41-44.

7 Beg. Mt. XXIX, Mk. XIII.

tzeko. Ainitz ba-datozkizue, ba, nere izenean esaten: ni naiz; eldu da garaya. Ez yoan, beraz, ayen ondotik. ⁹ Guda ta zalapartak entzun áren, ez izutu. Olakoak lenik gerta bea; ez dago, o'atino, amaya aurki. ¹⁰ Ordun-zesayen-endari enda ta e'iri e'ri ya'kiko zayo, ¹¹ ta alderik alde so'rtuko dira lu'rikarak, izu'ri, gosete, alatz izuga'ri, ta ortziko zantzu aundiak.

«¹² Guziok baño len, ordea, atzi ta esetsiak izango zerate, sinagoga ta baitegietan itxiak, eta bakaldun ta agintariengana eka'riak, nere izenarengatik. ¹³ Guzi au, be'iz, nere aito'ra eman dezazuten, gertako zaizue. ¹⁴ Ala ere, zuen biotza erabakita bego zeron zuribidea au'etik ez asmatzeko. ¹⁵ Neronek emango dizkizuet, ba, zuen etsayek buru egin ta yardetsi ere ezin lezayoketen ao ta sena. ¹⁶ Guraso, senide, aide ta adiskideak izango dituzute salatza'le ta zuetako batzuen iltza'le ere bai. ¹⁷ Ta nere izenarengatik guzien go'rotoga'ri izango zerate. ¹⁸ Ala ere, zuen buruko ile bat ez da galduko. ¹⁹ Egona'riz bizia au'era aterako duzute.

²⁰ Yerusalen gudari-taldez esitua ikusi orduko, aren po'rokaldia aurki dagola yakizute. ²¹ Ordun Yudai'n diranak mendietara igesi biyoaz; ta iri ba'nekoak landara irten bitez; ta bazte'aldekoak ba'nera ez betoz. ²² Apenegunak baitira ayek idatzitako guziak bete ditezan. ²³ Egun ayetan au'rdun ta in'udeen zori txara! La'ri aundia lu' osoan ta armin go'ria e'ri ontan izango da-ta. ²⁴ Batzu ezpata-sorbatzak ilko ditu; besteak atze'ri guzietara eramana izango dira yopu; ta atze'ri-ta'rek Yerusalen ostikatuko dute, atze'ri aldia bete arte.

Gizasemearen bigarango etoiera

²⁵ Eguzki, ilargi ta izaíretan zantzuak azalduko dira; ta luírean guziak laíri ta arminduta dabilzake itxasoko orú ta uinengatik; ²⁶ ta luíari gertatzekoen belduí ta zalantzaíren, gizakumeak igaírtu beaírez daudeke; ortziko orpoak zotukatuko diralako. ²⁷ Ordun Gizasemea ikusiko dute indaí ta ospe aunditan odei batean etoítzen.

²⁸ Guziok gertatzen asi orduko, beíriz, zuek yaiki ta burua yasozute; zuen askatasuna urbil dago-ta.

²⁹ Ta alegi au esan zien: «Begira pikondoa ta zugatz guziak. ³⁰ Ernatzen asita daudela ikustean, uda aurki dagola ba-dakizute. ³¹ Oírela zuek ere guziok gertatzen ikusi orduko, yakizute Yainkoaren yauraldia urbil dagola. ³² Ziñez dasaizuet: ez da gizaldi au igaroko, guziok yazo arte. ³³ Ortzi-luírenak egingo du; nere itzenak, ordea, ez du egingo.

Ernai egon beaí

³⁴ Zeron ardura eukazute, salokeri ta ordikeritan ta bizitza ontako arazoetan biotza mokoítu ez dakizuen, ta alako eguna itxumustuan ez datoíkizuen. ³⁵ Sarea bezela datoírke, ba, luí osoan dauden guzien gañera. ³⁶ Beraz, zaudete ernai beti, ta ekin otoyari, etoírki-

³² Yerusalen gizaldi artan ondatu zan, ta bere galkuntza azkenengo epayaren irudia zanez, Yesu'k emen gertaera bien ezaugaíriak alkartzen ditu. Garai arñan bizi ziran askorentzako Yerusalen'en ondapena Yesu epailearen ageípena izango zalako érez ulertzen dira Yesu'ren esari batzuk. Mt. X, 23; XVI, 28. Mk. VIII, 39. Lk. IX, 27.

³⁵ Sarea bezela: gizonak ardurage dagozala, gañetik yetxiko zaye, sarea edo lakioa bapetan gañeratzen dan antzera.

zun guzioi iges egiteko ta Gizasemearen aúrean agertzeko lain izan zaitezten».

37 Órela ari oi zan egunéz yauretxean irakasten; gauez, ordea, irtenik, Oliamendi'ra bazteítzen zan. 38 Ta eíi osoa goiz goizetik Arengana ziyoan, Ari yauretxean entzuteko.

XXII

Batzaí Nagusiaren erabakia

Paska deritzan Otil-yayeguna urbil zegon, ² ta apaizpuru ta idazlariak nola Bera il zezaketen ayolatsu zebiltzan, eíiaren belduí ziralako. ³ Bañan amabietako batengan, Iskariot izengoitia zun Yuda'gan, Satan saítu zala, ⁴ alako ura apaizpuru ta idazlarietara yoan zan, nola Yesu lemayeken ayekin eraustera. ⁵ Ayek poztu ziran ta ari dirua emateko itundu ere bai. ⁶ Berak agintza egin zien ta zalapartarik gabe Yesu ayei emateko mugon bila zebilán.

Azkeneko Aparia

⁷ Paska-bildotsa iltzeko Otileguna eldu zanean, ⁸ Kepa ta Yon bidali zitun, esanaz: «Zoazte Paska aparía guri atontzera». ⁹ Ayek esan zioten: «Non nai duzu atontzea?» ¹⁰ Ta Ark esan zien: «Zuek irira orduko,

37 Yuda Iskariotek Yesu'ren oitura ba-zekiñ, Oliamendi'ra gudamutilak eramán zitunian.

10 Gizon bat aurkeztuko zaizue... Yesu'k onelako agerkun edo ezaugaia emanik, alde batera bere yakituria agertzen zun, ta bestera Yuda Iskarioteri aparía non zan yakitea ta zalaparta beaí zan baño len erabiltea galerazon zion.

pegar bat ur sorbaldan, gizon bat aurkeztuko zaizue; zoazte aren ondotik sartuko dan etxeraño, ¹¹ ta etxeko yaunari esayozute: «Irakasleak dio: non dago aroztegia, nere ikasleekin Paskakoa yan dezadan? ¹² Ta berak apaldegia aundi ta apain bat erakutsiko dizue; an atondu. ¹³ Ara yoanda, esan zienez dana idoro ta Paska atondu zuten.

¹⁴ Otaldia eldu zanean, maitara yañi zan; ta amabi bidaliak Arekin. ¹⁵ Ta esan zien: «Nekaldira baño len Paska au zuekin yan gogo gogo nun. ¹⁶ Ba-dasaizuet, ba, beste bein yango ez dudala, Yainkoaren erian beteko dau artaraño». ¹⁷ Ta ontzia arturik, esker eginda, esan zun: «Torizute ta zuen artean bana ezazute. ¹⁸ Ba-dasai-zuet, ba, matsardorik edango ez dudala, Yainkoaren yauraldia etoñi arte». ¹⁹ Ta ogia arturik, esker eginda, zatitu ta eman zien, esanaz: «Au da nere Soña, zuen alde emana. Au egizute nere oroitzat». ²⁰ Berebat apalostean, ontzia artuz, esan zien: «Ontzi au Itun Beñia da, zuen alde ixuritako nere odolez.

²¹ Banan; au samina! nere saltzalearen eskua Nerekin mayean dago. ²² Gizasemea ba-diyoa noski, erabakita dagonez; baña zori txara ere Bera saltzen dunarena»!

²³ Ta ayek asi ziran elkarñi galdeka zein ote liteken orelakorik legikena.

Galenkeriaz

²⁴ Liskaña ere ayen artean soñtu zan nor ote liteken ayetako aundiena. ²⁵ Bañan Yesu'k esan zien: «Eñien yaunak yabe azaltzen zazkie, ta ayen gañeko aginbidea

daukatenak ongile omen dira. ²⁶ Zuek ez orela; aitzitik ere, zuetan aundiena, txikiena bezela bedi, ta nagusia, mo'roya bezela. ²⁷ Zein da, ezperen, aundiena; aparitan datzana, ala apari-mo'roya? Aparitan datzana, ezta? Ala ere, Ni zuen artean mo'roi bezela nago. ²⁸ Zuek zerate, ordea, nere beltzaldietan Nerekin egonak; ²⁹ ta Nik yaure'ria atontzen dizuet, nere Aitak atondu didanez, ³⁰ nere yaure'ria nere mayean yan ta edan dezazuten, ta Israel'go amabi leñuak ebazten yauralkietan eseri zaitezten:

U'engoxe armiñaldirako o'arak

³¹ [Gero Yaunak esan zun] «Simon, Simon, begira; Satan'ek eske egin du, garia bezela, zuek galbaitzeko. ³² Nik, ordea, zure alde otoi egin dut, zure siñesteak pu'rut egin ez dezan; zuk, be'riz, zuzpe'rtuta gero, zure anayak sendo'rtu itzazu». ³³ Kepa'k esan zien: «Yauna, baitegi ta eriotzara ere Zurekin yoateko gerturik nago. ³⁴ Bañan Yesu'k esan zion: «Ba-dasaizut, Kepa; ez du o'la'arak gau' yoko, zuk ezagun nauzula irutan len ukatu gabe».

³⁵ Ta esan zien: «Zarpa, zo'ro ta oskirik gabe bidali ziñuztanean, zerbait peitu ote zitzaizuen?» Ayek erantzun zioten: «Ezer ere ez ³⁶ Ta Yesu'k esan zien: Orain be'riz zarpa daukanak, a' beza berekin, ta baita zo'roa ere; ta ez daukanak, bere txabuxa saldu ta ezpata erosi beza. ³⁷ Ba-dasaizuet, ba: Nigan bete bea' da idatzitako au: **Ta gaiztagintzat a'rtua izan da. Izan**

³⁷ Is. LIII, 2.

ere, nereak laster egingo du. 38 Ayek esan zioten: Yauna, ona emen ezpata bi», Ta Berak esan zien: «Naiko da».

Getsemani'ko otoya

39 Andik irtenda, Oliamendi'ra, oi zunez, yoan zan; ta ikasleak ere ya'rai zitzazkion. 40 Ara orduko, esan zien: «Otoi egizute, zirikaldira ez eto'rtzeko». 41 Ta a'rikada bat bide edo, ayengandik bakandu zan ta belau-nikaturik otoi zegin, 42 esanaz: «Aita, nai ba'duzu, Nigandik ontzi au alde eragizu; ez bedi, ordea, nere gogoia egin, zurea baño». 43 Ordun ortzitik aingeru bat ageri izan zitzayon, Bera adoretuz. 44 Ta la'ri go'ritan ya'rita, otoika areago zeragoyon, lu'eraño odol-tantaka izerdia zeriola.

45 Otoitik yaikita, ikasleetara eto'iririk, ya'ugui zitun gogaita'ren lo, 46 ta esan zien: «¿Zer zaudete lo? Yaiki ta otoi egizute, zirikaldira ez eto'rtzeko».

Atzemaleak

47 Oraindik mintzo zala, ara gizasail bat. Guzien buru, Yuda zeritzan amabietako bat zeto'ren, ta Yesu' gana alderatu zan muin egitera. 48 Yesu'k esan zion. «Yuda, muiñez Gizasemeari iruzur' al dagiozu?» 49 Ordun Arekin zeudenek, gertatzekoa ikusirik, esan zioten: «Yauna, ezpataz yoko al ditugu?» 50 Ta ayetako batek apaiz nagusiaren mo'royari eskuiko bela'ria zartzakoan

43 **Atsedengian egongo zera.** Yesu'ren arima aintzez ta ede'rtasunez inguraturik **Abraha'men Kolkora**, au da, itz onekin deitzen zan **linbo'ra**, yetxi ondoren, toki au benetako «paradisua» edo atsegin-baratz biu'rtu zan.

moztu zion. ⁵¹ Baña Yesu'k erantzun ta esan zien: «Utzi orain». Ta belaría ikutuz, mo'roya sendatu zun. ⁵² Gero, bila zetozkion apaizpuru, yauretxeko gudalburu ta za'ei esan zien: «Lapu' bilá bezela, ezpata-makilaz Ni atzematera irten zerate. ⁵³ Egun oro zuekin yauretxean egoten nintzanean be'iz, ez niñuzuten atzeman. Auxeda, ordea, zuen garaya ta ilunaldiaren inda'ra».

Kaipa'renean: Kepa'ren izpitzoak

⁵⁴ Ordun Bera atzeman ta apaiz nagusiaren etxera eramán zuten. Kepa, be'iz, uruntxetik ze'rayon. ⁵⁵ Atari erdian sua piztu zuten ta baranoan eseri ziran, ta ayekin Kepa ere. ⁵⁶ Neskame batek bera sutondoan eserita ikusi ta ondo begiratzuz, esan zun: «Ori ere Arekin zebilek». ⁵⁷ Baña Kepa'k ukatu zion, esanaz: «Ez diñat ezagun ere». ⁵⁸ Geroxeago beste batek ura ikusi ta esan zion: «I ere ayetakorik aiz». Baña Kepa'k esan zion: «Ez, gizona, ez». ⁵⁹ Ta ordubetetsu ezkerro, beste batek sendoki zerasan: «Au ere noski Arekin zegokan, galilaita' duk-eta». ⁶⁰ Kepa'k, be'iz, esan zion: «Gizona, zer diokan ere ez zekikat». Eta bertantxe, Kepa oraindik mintzo zala, ola'arak yo zun. ⁶¹ Ta Yaunak Kepa'gana biu'rtuz, so egin zion. Ta Kepa oroitu zan Yaunak berari esandako itz o'etzaz: «Ola'arak yo baño len, irutan ukatuko nauzu». ⁶² Ta andik irtenda, saminki nega' egin zun.

⁶³ Eta Yesu atzemaná zeukaten gizonék ukaldika pu'rust zegoten. ⁶⁴ Ta begiak Ari estalirik, au'pegian

62 Ola'arak yo baño len... Beg. Mk.

zerauntsaten, ta galde zegioten, esanaz: «Igañak zein dukan ire yotzalea»; ⁶⁵ ta beste birao asko Aren auka zegizten.

Yesu batzañ Nagusian

⁶⁶ Egundu ala, eñiko zañ, apaizpuru ta idazlariak bildu ziran, ta beren batzañera Yesu eraman zuten, esanaz: «Kistoa Zu ote zeran esaiguzu». ⁶⁷ Ta Berak esan zien: «Nik esanda ere, ez didazute siñetsiko. ⁶⁸ Ta zerbait galdetzen ba'dizuet, ez didazute erantzungo, ez nauzute askatuko ere. ⁶⁹ Gizasemea, oñatiño, eserita egongo da gauñgero Yainko indañtsuañen eskui aldean». ⁷⁰ Ordun guziek esan zioten: «Oñezkero Yainkoaren Semea sera Zu?» Berak esan zien: «Zerok diozute, Neu naiz». ⁷¹ Ayek, beñiz, esan zuten: «Onezkero beste aitoñik zertarako? Bere aotik gerok entzunda gaude».

XXIII

Pilat'en auñean

Ta batzañeko guzi ayek yaikita, Pilat'engana eraman zuten, ² ta salatzen asi ziran, esanaz: «Onako au gure eñia aztoratzen, Kaiser'entzako zergak eragozten, ta bera Kisto bakalduna dala aldañikatzen», atzeman dugu. ³ Pilat'ek, beraz, galde egin zion, esanaz: «Yuduen bakalduna Zu al zera?» Yesu'k erantzuki ezan zion: «Zeroñek diozu».

⁴ Ordun Pilat'ek apaizpuru ta eñiari esan zien: «Epaikizunik ez dut gizon onengan atematen bat ere».

5 Ayek, beñiz, gogoñago zeragoyoten, esanaz: «Eña zañamalkatzen du, Galilai'tik asi ta onaraño. Yudai osoan baña irakasten ibilki». 6 Galilai'ren aipua Pilat'ek entzunda, gizon ura galilaitara ote zan galdetu zun; 7 ta Erode'ren mendekoa zala yakinda, Erode'ri igori zion, egun ayetan au Yerusalen'en baitzegon.

Erode'ren auean

8 Yesu ikustez Erode oso poztu zan. Artzaz entzunagatik, Bera ikusi gogo baitzun aspaldi ezker, ta alatzan bat Ura egiten zekuskelakoan baitzegon. 9 Galde asko zegizkion, beraz. Yesu'k, ordea, ez zion ezer ere erantzun. 10 Apaizpuru ta idazlariak, beñiz, ekin ta ekin zeuden Bera gogoñ salatzen. 11 Bañan Erode'k bere gudamutilekin ezetsi ta purust egiñik, soñeko zuri bat Ari yantzita, Pilat'i itzuli zion. 12 Ta egun artatik, elkarren etsai ziran Pilat eta Erode, adiskidetu ziran.

Yesu ala Baraba

13 Pilat'ek, beñiz, apaizpuruak, agintariak eta eña bildurik, 14 esan zien: Gizon au, eñiaren nasletzat, ekañi didazute. Ta ara, zeron auean galde egin niola, Aren lepotik dagizkidazuten salaketaz, epaikizunik ez dut gizon onengan idoro. 15 Ezta Erode'k ere. Arengana igori zaitut, ba, ta ezer ere ez zayo eriotzarako lain eraso. 16 Berak, ataratuta gero askatuko dut.»

17 Ain zuzen ere, yai artan baten bat askatu beañ zioten. 18 Guziek, beñiz, ao batez ots egin zioten,

esanaz: «Ken ori, ken; ta Baraba askatu iguzu». ¹⁹ Gizon au, zalaparta irian soñtu ta norbait il zula-ta, baitegian itxirik zegon. ²⁰ Beñiro Pilat'ek, Yesu askatu nairik, itz egin zien. ²¹ Bañan ayek deadañez zerantzuyoten: «Gurutzera ori, gurutzera!» ²² Irugañenez esan zien: «Orek zer du gaizki egiña? Ez diot iltzeko lain ezer idoro. Atañatu ondoren, beraz, askatuko dut». ²³ Bañan ayek añamaka zeragoyoten gurutza Arentzat eskatuz, ta ayen añamantza areagotzen ziyoan. ²⁴ Pilat'ek erabaki zun ayen eskaria egitea. ²⁵ Beraz, zalapartari ta gizerailatzat baitegian itxitako ura, ayek eskatuta, askatu egin zun, ta Yesu ayen naitara eman zien.

Garezuñmendi'runtz

²⁶ Zeramatenean, bordatik zetoñen Kirenai'tar Simon norbait atzirik, gurutza Yesu ondoren eroateko leporatu zioten. ²⁷ Eñikoak eñuz zeraizkion, ta baita emakumeak ere negañez ta adiaka. ²⁸ Ayengana biurñturik, Yesu'k esan zien: «Nigatik negañik ez egin; zerongatik eta zuen semeengatik, bai, negañ egizute, Yerusalen'go alabak. ²⁹ Izan ere, egunak ba-datozke, ta ordun esango da: Zori onekoak agoñak, eta auñik soñtu ez duten sabelak, eta eradoski ez duten bulañak! ³⁰ Ordun asiko dira mendiei esaten: zatozkigute gañera; ta muñoei, estal gaitzazute. ³¹ Eguñ ezean au yazo ezkerro, ba, igañean zer yazoko da?»

³² Beste bi gaiztagin ere Arekin eriotzara zeramazten.

Gurutzaldia

33 Ta Garezuímendi deritzan tokira eldu ziranean, antxe Bera ta lapur ayek gurutzatu zituten, bata Aren eskui aldean, bestea ezkerékoan. 34 Ta Yesu'k zion: «Aita, asketsiezu; zer dagiten ere ez baitakite».

Ta Aren yazkiak zotzean banatu zituten. 35 Eri guzia an zegon begira, ta arekin agintariek ere purust zegioten, esanaz: «Besteak yaregin zetik; bere burua yaregin beza, Yainkoaren Kistoa, autua, baldin ba'duk ori». 36 Gudamutilek ere inaka zegioten, urbildu ta ozpiña Ari eskeintzen ta 37 esaten ziotela: «Yuduen bakalduna ba'aiz, ire burua yaregik». 38 Aren gañean, beñiz, iragaríki au zegon, Ela, Eroma ta Eber'eko izkiz egiña: Yuduen Bakalduna Au.

39 Ta eskegirik zeuden gaiztagiñetako batek biraoka ziotsan: «Kistoa ba'aiz, eroñen burua ta gureak yaregin itzak». 40 Baña besteak yardetsi ta akar egin zion, esanaz: «I ere, oñazekide atzayolarik, ez al aiz Yainkoaren beldur? 41 Guk, bai, oñazeok bidez zetikagu gure egiñen ordain egokitzat; Onek, beñiz, ezer ez dik bidegabe egin». 42 Ta Yesu'ri ziotsan: «Yesu, oroi zaitez nitzaz, zure yaureñira orduko». 43 Ta Yesu'k esan zion: «Ziñez dasaizut: gauñ Nerekin atsedengian egongo zera».

Yesu'ren eriotza

44 Seirak aldean, lur osoa ilundu zan bederatziak arte; 45 eguzkia itzali zan ta yauretxeko estalkia erbiditu.

44 Seirak=eguerdia. Bederatziak=gure irurak. Beg. Mk.

46 Ta Yesu'k, ozengi ots egiñak, esan zun: «Aita, zure eskuetan nere atsa uzten dut». Ta au esanda, azken arnasa atera zun.

47 Yazoa euntariak ikusita, Yainkoa goretsi zun, esanaz: «Zindoa zan ziñez gizon au». 48 Ta ikuskizun ontara bildutako guziak, yazoa ikusitakoan, bula' yoka biurtzen ziran.

49 Aren ezagun guziak eta Galilai'tik ya'rai izan zitzazkion emakumeak ere an zeuden urundik begira.

Yesu'ren eorzketa

50 Ta ara, Batza're Nagusiko gizon zintzo ta on bat, Yose zeritzana, 51 ta ayen burupide ta egiñetan bat eto'ri ez zitzayena. Yudai'ko Arimatai irita'ra zan, ta Yainko yauraldiaren zai zegon. 52 O'rek, ba, Pilat'engana yo ta Yesu'ren so'na eskatu zion. 53 Ta gurutzetik eratxita, izarez bildu, ta len i'nor ere ipi'ña ez zan aitz zulatu batean ipi'ni zun. 54 Paraskebe eguna zan, ta larunbateko goizaba'ra. 55 Yesu'rekin Galilai'tik eto'ritako emakumeek aratuta, i'lobia ikusi zuten, ta baita Aren so'na artan nola ipi'ñirik zegon ere. 56 Ta etxera itzulirik, lu'rin ta gantzukiak atondu zituten; larunbatean, ordea, geldi egon ziran aginduaren arauz.

54 Larunbateko goizaba'ra. Eguzkiaren sartzetik - ilunaba'retik-asten zan ur'engo eguna; len esan dan lez, eguna lau ataletan banatzen zalako: lenbiziko ordutik iruga'renera (guretzat: 6-9), iruga'renetik seiga'renera (9-12), seiga'renetik bederatzi ga'renera (12-3), bederatzi ga'renetik amabiga'renera (3-6). Ta iru orduko zati banak lenbiziko orduaren izena eramaten zun sa'ri: o'rela lenbizikoa (6-9), iruga'rena (9-12), bederatzi ga'rena (12-3).

XXIV

Yesu berpiztuta

Baña lenbiziko astegunean, goiz goizean, ilobira yoan ziran, atondutako luññak zeramaztela. ² Ta aña ilobitik iraulia idoro zuten; ³ ta barnera sañturik, ez zuten Yesu Yaunaren soña idoro.

⁴ Ta ara, oñetzaz ayek kezkatan zeudela, soñeko argitsuz yantzitako gizon bi auñkeztu zitzazkien. ⁵ Emakumeak belduñez ta burua luñeruntz makuñtuta gelditu baitziran, bi ayek esan zieten: «Zer ari zerate biziduna ilartean bilatzen? ⁶ Ez dago emen: piztu da. Oroi zaitzte nola, oraindik Galilai'n zegola, itz egin zizuen, ⁷ esanaz: «Gizasemea gaiztoen eskuetara etoñi, gurutzatua izan, ta irugañen egunean piztu beaña da». ⁸ Ta Aren itzetaz oroi ziran. ⁹ Ta ilobitik itzulita, guzion beñi amaiki ta beste guziei ekañi zieten. ¹⁰ Beñiok bidaliei ekañi zizkietenak, beñiz, Mari Malen, Yone, Mari Yakob'ena ta beste lagun guziak ziran.

¹¹ Bidaliek, ordea, ayen esana ameskeritzat añtu zuten, ta ez zieten siñetsi. ¹² Baña Kepa yaiki ta ilobira leyatu zan. An makuñturik, miesak luñean erantziak ikusi zitun, ta yazoaz añtuta berera itzuli zan.

Emaus'ko ikasleak

¹³ Egun artan bertan, Yerusalen'dik irurogei estadi bide Emaus deritzan baseñira ayetako bi ziyoazan,

13 Estadi bat, seireunen bat oñeko luzera zan.

¹⁴ yazo ziran guzjetaz elkarékin ziardutela. ¹⁵ Erausiotan ziardutenean, ara, Yesu Bera urbildu ta bidelagun egin zitzayen. ¹⁶ Bañan ayen begiak lausoturik zeuden, Ura ezaguteko. ¹⁷ Berak esan zien: «Zer da bidean ari duzuten ori?» Ta goibeldu ziran. ¹⁸ Keleopa zeritzan batek erantzuki esan zion: «Bakaña ote zera Yerusalen'en arótz, egunotan an yazoen beírik gabe?» ¹⁹ Yesu'k esan zien: «Zer, ba?» Ayek esan zioten: «Yesu Nazaretar Órena. Igarle zan, Yainko ta eíiaren auéan egitez ta itzez gizon azkaña. ²⁰ Baña gure apaizpuru ta nagusiek eriotzarako epaya Arentzat iritsi ta gurutzatu egin zuten. ²¹ Izan ere, guk Israel yaregingo zula uste genun; bañan irugañen eguna da gauñkoa guziok yazo zirala. ²² Óratiño, gure arteko emakume batzuk ere arítuta utzi gaitute; ilobira goiz goizetik yoanda, ²³ Aren soña idorotzeke itzuli dira, ba, esanaz, aingeru batzuk agerita, Bera bizi dala esan zietela. ²⁴ Ta guretar batzuk, ilobira yoanda, emakumeek ziotenez, dana idoro dute; Bera, beíz, ez dute ikusi».

²⁵ Ordun Yesu'k esan zien: «Tentelok, eta igarleen itz guziak siñesteko biotz-motelok! ²⁶ Ez ote zun Kisto'k orélakorik yasanda bere aintzan sartu beañ? ²⁷ Ta Mois' engandik asita, Idaztietan Beratzaz esandako guziak, igarlerik igarle, azaltzen zizkien.

²⁸ Ziyoazan baseñira urbildu ziranéan aruntzago ziyoalakoa egin zun. ²⁹ Bañan ayek gelditzeko ertsatu zuten, esanaz: «Geldi zaitez gurekin; arátsa alde baitago, ta eguna aitzen diyoa». Ta ayekin gelditzeko sartu zan. ³⁰ Aparitan ayekin zetzala, ogia artu, onetsi, zatitu

ta banatu zien. ³¹ Ordun ayen begiak iriki ziran, ta nor zan ezagun izan zuten. ³² Baña Bera ayen begitatik itzali zan ta ayek elkañi ziotsaten: «Ez ote genitun biotzok gañez, Idaztiak azalduz bidean itz egiten zigunean?»

³³ Ta bertantxe yaiki ta Yerusalen'a itzuli ziran. An amaikak idoro zituten beren lagunekin bilduak, ³⁴ «Yauna zñez beñpiztu da, ta Simon'i ageri izan zayo», ziotela. ³⁵ Ayek ere bidean yazo zitzayena azaldu zieten, baita Bera ogi-zatiketan ezagun zutela ere.

Yesu, bidali guzien erdian


³⁶ Erausiotan ziardutela. Yesu'k ayen erdian azalduta esan zien: «Gentza zuei; Neu naiz; ez beldur izan». ³⁷ Bañan ayek, lañi ta izututa, iratxoren bat zekustelakoan zeuden. ³⁸ Esan zien, beraz: «Zergatik lañi zerate, ta zuen biotzetan ustekeriok soñtzen dira? ³⁹ Esku-oñak begira izkidazute. Neu naiz. Aztatu ta ikus nazazute. Iratxoek aragirik ez dute, ezta ezurik ere, zerok ikusita Nik dudanez». ⁴⁰ Ta au esandakoan, esku-oñak erakutsi zizkien. ⁴¹ Baña pozañen añituta ayek orañdik siñesten ez baitzuten, esan zien: «Yatekorik emen ba al duzute? ⁴² Ayek añaiki ere ta ezti-oñaze bat eskeñi zizkioten, ⁴³ ta Beñak añtu ta ayen añaean yan ondoren, ⁴⁴ esan zien: «Au da niona, zuekin nengola, esaten nizuenean; Mois'en legean, igañleen idaztietan eta eresietan Nitzaz idatzitako guziak bete beñak dira». ⁴⁵ Ordun adimena

³³ **Amaikak.** Emen amañ batuta zeuden, Tomasen utsez, baña Yuda Iskariote'k iges egiñ zunetik, Bidaliak **Amaikak** izentatzen ziran, bat edo bestea egon ez añen ere, **Amabiak** len ziran bezela.

argitu zien, Idatziak ulertzeko, 46 ta esan zien: «Onela idatzita dago, ta onela Kisto nekeetan ari izan ta irugañen egunean ilartetik beřpiztu beařa zan. 47 Ta onela nere izenean eři guziei, Yerusalen'dik asita, garbai ta ogen-asketsa aldařikatu beař zaye. 48 Guzion aitořtzaleak, beřiz, zuek zerate. 49 Ta ara, nere Aitaren agintzakoa Neronek zuen gañera bidaliko dut. Anartean, zuek zaudete irian, goitikako indařez yantziak izan arte».

Zerura

50 Gero atera zitun Betani'ra, ta eskuak yasorik, onets-aguřa egin zien. 51 Ta onesten zitularik, ayengandik aldendu ta zerura goratua izan zan. 52 Ayek, beřiz, Berari guř eginda, Yerusalen'a poz pozik itzuli ziran, 53 ta yauretxean beti zeuden, Yainkoa goratzen ta onesten zutela.



50 **Betani'ra:** Betani aldera. Oliamendi'ko bidetik iru kilometro inguru. Beg. Bid. Eg. I, 12.

YESU KISTO'REN
 BEÍI ONA
 YON DEUNAK DAKAÁRENEZ

YON, «Yesuk maite zun ikaslea», Zebedai arantzalearen eta Salome'ren seme, Yakob Aundiaren anai, ta Genesaret itxas-egian dagon Betsaida'koa zan. Yesu'k gurutzetik bere Amaren ardura egotzi zion. Yon'en ama, Mari Andrearen aide, lengusu edo, zan. Yesu'ren Ama beregain artutakoan, Yerusalen'en bizi zan. Geroago, Epeso'rako bidea arturik, an ikasle bikain mordo ede'ra bildu zun. Bere eskolako izan baitzitun Papias eta Antioki'ko Inaki ta Esmirna'ko Polikarpo. Domitian'en esetsaldian, Patmo'ra bazte'itu ta erbesteraturik, Nerba'ren aldian be'iro Epeso'ra eldu ta Trayan nagusi zala, Epeso'n bertan il zan, eun urtetsuko gizaroan, Bidali guzien za'ena. Patmo'n «Agerpena» deritzan idaztia egin zun; Ebaingeria, be'iz, Epeso'n, Yesu Kristo'ren yainkotasuna aldi artako si'nausleen au'ka egiztatzeko. O'fegatik aren Ebaingeria antzi'neko Gura-soek «gogozkoa» deitu zuten, gurenena dalako.

Yon deunaren yai-eguna Gabonilaren 27' ga'enean da.

I

Sa'iera

Asieran Itza ba-zan,
 ta Itza Yainkoagan zan,
 ta Itza Yainko zan.

² Asieran Bera Yainkoagan zan.

³ Dana Berak egi'na da,

1 Aita eta Seme ta Goteuna Yainko baka'ra izanik, bakoitzak Yainkotasun oso ta berbera du. Ala ere, Semea Aitaren Yakintza deritza, ta Goteuna Aita-Semetarteko Maitasuna. Emen, Yon'ek Semea Aitaren Itza deitzen du, antzi'neko yuduek Memra deitu zuten bezela.

ITZ onetzaz irutzuok emen aito'rtzen dira: a) asieran ba-zala, edo betidanikoa dala; b) Yainkoa'gan zegola, ITZAREN nortasun berezia adierazten zaigularik; d) Yainko zala, au da, Aitaren eta Goteunaren Yainkotasun berbera dula.

ta Bera gabe ez da egin
egindako ezer ere.

⁴ Beragan bizitza zan,
ta bizitza gizargia zan;

⁵ ta argia iluntan ageri da,
ta ilunak ez zun artu.

⁶ Gizon bat azaldu zan
Yainkoak bidalia;
aren izena Yon.

⁷ Aitoztzat au etoñi zan,
argiaren aitoztzat,
aren bidez guziek siñesteko.

⁸ Ez zan ori argia,
argiaz aitoñ egitekoa baño.

⁹ Izan ere, ba-zan Argi ziña,
luñ ontara datozan gizakume guziak
argitzen dituna.

¹⁰ Ludian zegon,
ta ludia Berak egiña zan;
ludiak, ordea, ez zun Bera ezagun.

¹¹ Beretañetara etoñi zan,
ta beretañek ez zuten artu.

¹² Artu zuten guziei, beñiz,
bere izena siñetsi zutenei,
Yainkoaren seme biurtzeko
eskubidea eman zien.

¹³ Ez dira auek odoletik yayo,
ez aragi-irítsetik,
ez giza-irítsetik,

Yainkoagandik baño.

14 Ta Itza aragi egin zan,
ta gurean bizi izan zan,
ta Aren aintza ikusi dugu,
Aitaren Seme bakañari
dagokion aintza,
eskeñez ta egiz betea.

15 Beratzaz Yon'ek aitoñ dagi
ta aldañika dio:

«Au da nik niona;
nere ondoren datoñena
aurena yañi zait,
ni baño len zalako».

16 Ta Aren gañezkotik
eskeñ ondoren eskeñ
guziok artzen dugu.

17 Legea, ba, Mois'en bidez emana da,
eskeñ ta egia Yesu Kisto'ren bidez ekañiak.

18 Yainkoa ez du iñork bein ere ikusi;
Yainko Seme bakañak,
Aitaren altzokoak,
ezagurazi digu.

Yon'en aitoña

19 Ta au da Yon'en aitoña, yuduek Yerusalen'dik
apaiz ta lebitañak bidali zizkionean, «nor zera zu?»
galdeka. 20 Aitoñtu, bai, ta ukatzeke aitoñtu zien: «Ez

19 Beg. Mt. 3, 1-12; Mk. 1, 1-11;

naiz ni Kistoa». ²¹ Beñiz ayek galde: «Zer ba? Eli ote zera?» Ta berak: «Ez». «Igarlea ote zera?» Ta berak: «Ezta». ²² Beraz, esan zioten: «Nor zera, ba? bidali gaitutenei erantzuna damayegun. Zeróretzaz zer diozu?» ²³ Ordun esan zien: «**Yaunaren bidea atondu ezazute, basoan oyuz dagonaren otsa naiz ni, Isai igarleak zionez**».

²⁴ Bidaliak, beñiz, parisayetakoak ziran, ²⁵ ta itandu zioten: «Zergatik, ba, ukuzten ari zera, ez Kistoa, ez Eli, ez igarlea ere ez zera ezker?» ²⁶ Yon'ek erantzun zien: «Nik urez ukuzten dut; zuen erdian dago, ordea, zuek ez dazaguzuten norbait, ²⁷ nere ondoren datořena, ta oski-ugala askatzeko ere lain ez natzayona».

²⁸ Guziok Betani'n, Yordan aruzko ertzean yazo ziran: an zegon, ba, Yon ukuzten.

²⁹ Biaramunean, Yon'ek Yesu beragana etořtzen ikusi ta esan zun: «Ořa Yainkoaren Bildotsa, giza-ogena kentzen duna. ³⁰ Ořetzaz nik nion: nere ondoren datoř auřena yaři zaidan gizona; ni baño len zalako. ³¹ Ta nik ez nezagun. Ala ere, Israel'en ager dedin, urez ukuzten etoři naiz ni».

³² Aitoř au ere Yon'ek egin zien, esanaz: «Uso-irudiz Atsa ortzitik yeixten ta Aren gañean kokatzen

²¹ Igarlea ote zera? Au da, Moisek agindutako Igarle aundia edo Mesias. Ez, ba, aditu igarle bat dan ala ez.

²³ Is. XL, 3.

²³ Au da, ni naiz Isaias igarleak itz onekiñ esandako Yesu'ren gez-naria.

²⁹ Yainkoak autu dun Bildotsa. Is. 53,7. Beste bildotsen odolak ezin lezake ogenik garbitu. Bildots onek giza-ogen edo munduko pekatua, au da, asierakoa ta bere ondorengo guziak kentzen ditu.

ikusi dut. ³³ Bera nik ez nezagun; bañan urez ukuztera bidali naunak Berak esan zidan: «Norbaitengana Atsa yeixten ta aren gañean kokatzen ikusiko duzu; Beraxe da Goteunez ukuzten duna». ³⁴ Ta neronek ikusi dut, eta aitoitu dut Beraxe dala Yainkoaren Semea».

Yesu'ren bost ikasle lenak

³⁵ Biaramunean ere, Yon'ek, bere ikasleetako birekin zegola, ³⁶ Yesu ibiltzen ikusirik, dio: «Ora Yainkoaren Bildotsa». ³⁷ Itzok aditurik, ikasle biak Yesu'ri ya'ai zitzazkion. ³⁸ Yesu'k, beriz, itzulita, Berari ya'aitzen ikusi zitunean, esan zien: «Zeren bila zatozte?» Ayek esan zioten; «Rabbi, edo berdin dana, Irakasle, non bizi zera?» ³⁹ «Zatozte» dasaye «ta ikusazute». Yoanda, beraz, ikusi zuten non bizi zan. Ama'ak edo ziran.

⁴⁰ Yon'en itzak entzunda ya'ai zitzazkion biotako bata Ander zan, Simon Kepa'ren anaya. ⁴¹ Onek, inor baño len, Simon, bere anaya, aur'kituta, dasayo: «Mexia, edo berdin dana, Kistoa idoro dikagu». ⁴² Ta Yesu'gana eraman zun. Yesu'k ari so egiñik, esan zion: «Simon zera Zu, Yona'ren semea; zure izena, beriz, Kepa izango da, edo berdin dana, Aitz.

⁴³ Biaramunean, Galilai'ra yoan naita, Pilipe upatzen du ta diotsa: «Za'raizkit», ⁴⁴ Pilipe au Betsaida'ra zan, Ander ta Kepa'ren e'ita'ra. ⁴⁵ Natanael Pilipe'k upaturik, diotsa: «Aur'kitu dikagu Mois'ek legean ta igar'leek idatzi zikatena; Yesu, Yose'ren semea, Nazareta'ra».

³⁹ Ama'ak edo... au da gure aratsaldeko laurak.

⁴⁵ Natanael, beste izenez Bartolamai.

46 Ta Natanael'ek esan zion: «Nazaret'etik ezer onik ba al zeto'kkek?» Pilipe'k diotsa: «Ato' ta ikusak».

47 Natanael Yesu'k Beragana eto'rtzen ikusi zunean, esan zun artzaz: «O'ra Israeldar' yato' bat, iruzu'rik ez duna».

48 Natanael'ek diotsa: «Nondik nazaguzu?». Yesu'k erantzun ta esan zion: «Pilipe'k zu deitu au'ean, pikondopean zeundela, ikusi zaitut.» 49 Natanael'ek erantzun ta esan zion: «E'rabbi, Yainkoaren Semea zera Zu; Israel'en Yauna zera Zu». 50 Yesu'k yardetsi ta esan zion: «Pikondopean ikusi zaitut esan dizudalako, si'nesten al duzu? Aundiagoak ikusteko zaudé». 51 Ta dasayo: «Ortzia zabalik laste' ikusiko duzute, baita Yainkoaren aingeruak ere Gizasemearen gain igo ta yeixten».

II

Kana'ko ezteyak

I ru egun buruan ezteyak egin ziran Galilai'ko Kana'n. Yesu'ren Ama an zegon, ² ta baita Yesu ta Aren ikasleak ere ezteyeta deituak izan ziran. ³ Ardoa aitu baitzan, Yesu'ri bere Amak diotsa: «Ardorik ez dute». ⁴ Ta Yesu'k dasayo: «Emakume, Zuri ta Niri zer? Ez da oraindik nere garaya eldu» ⁵ Ordun Aren Amak mo'royei dasaye: «Lesazuekena, dana dala, egizute». ⁶ Yuduen garbiketarako oi danez, bizpairuna suileko sei

51 Yakob'ek ametsetan (As. 28,12) ikusitako zeru ta lu'aren alkatasuna, nigan bete dala ikusiko duzute.

4 Emakume, itzalezko itza da, gure artean andra edo andre-aren antzekoa. Zuri ta niri zer? Au ere oiturazko esakuntza zan, adierazteko lez: Emen, arazo onetan, zer ikusirik ez dugu. Nere garaya, nere Yainkotasuna alatzten bitartez agertzeko garaya.

aíri-kantxin an zeuden. ⁷ Yesu'k dasaye: «Kantxiñok urez bete itzazute». Ta goraño bete zituten. ⁸ Beíz dasaye: «Orain atera ta eramayozute maizayari». Ta eraman zioten. ⁹ Ura maizayak txurupatu zun ardo egiña; ta nondik liteken ez baitzekin (ba-zekiten, ordea, atera zuten moíoyek), senar beíari ots egiñaz, ¹⁰ dasayo: «Ardo ona guziek asierako ezartzen dute, ta gero, maikideak zerbelduta daudenean, txara; zuk, beíz, ardo ona oraingo utzi duzu».

¹¹ Alatz-askin au Galilai'ko Kana'n Yesu'k egin zun, bere aintza erakutsirik; ta aiezkeru Beragan Aren ikasleek siñestea ezaí zuten.

Yauretxeko salketariak

¹² Gero Kaparnaun'a yetxi zan bere Ama, senide ta ikasleekin, ta an egun gutxi egin zituten. ¹³ Yuduen Paska aurki zala, ba, Yerusalen'a Yesu igo zan. ¹⁴ Yauretxean idi, ardi ta usoen salketari ta diru-ordainlariak eserita ikusirik, ¹⁵ zartalu bat goroitez eginda, guziak yauretxetik yaurti zitun ardi ta idiekin, dirua sakabanatuz ta dirumayak irauliz. ¹⁶ Ta usosaltzaíei esan zion: «Guzi au kendu emendik eta nere Aitaren etxea ez egin azoka-etxe». ¹⁷ Aren ikasleek gomutaratu zuten idatzita zegola: «Zure etxearekiko azkuak yaten nau».

¹¹ Bere aintza erakutsirik: au dá, bere Yainkotasunaren aintza itzauréan (Yo. 1, 14) esan dun bezela.

¹² Mt. 13, 55. Aldi onetarako Yose deuna il zala emendik ere susmatzen da.

¹⁴ Yauretxean, au da yauretxearen atauréko tokietan.

¹⁷ Er. LXVIII, 10.

¹⁸ Yuduek. beñiz, gogor egin ta esan zioten: «Orela egiteko ere, zer zuribide darakuskiguzu?» ¹⁹ Yesu'k yardetsi ta esan zien: «Yauretxe au eraitxazute, ta iru eguntan eraikiko dut». ²⁰ Yuduek yardetsi zioten: «Beñogeñ ta sei urtetan eraiki izan da yauretxe au, ta iru eguntan zuk eraikiko?» ²¹ Yauretxe esanaz, ordea, bere soñaz zerausan. ²² Ori esan zula, beñiz, Aren ikasleak oroi ziran, il artetik piztu zanean; ta idatzia ta Yesu'k esana siñetsi egin zituten.

²³ Paska zala-ta, Yerusalen'en zegonean, Aren izena ainitzek siñetsi zuten, zegitzin alatzak begira-ta. ²⁴ Yesu Bera ez zitzayen, oratiño, bete betean zabaltzen; ezagun ere guziak zezagutzin, ba, ²⁵ ta gizakiaz ez zun iñoren aitoñik beañ, gizabañnea Berez zezagulako.

III

Nikodemo'rekin izketan

Ba-zan parisaitařetan Nikodemo izenez gizon bat, yuduen nagusi. ² Onek Yesu'gana gauez etoñ ta esan zion: «Rabbi, yakinda gaude Yainkoagandik zotozala irakasle; iñork ezin litzake, ba. zuk dagitzizun alatzok egin, Yainkoa arekin egon ezik».

³ Yesu'k erantzun ta esan zion: «Zin ziñez dasaizut: Yainkoaren eñia iñork ezin ikusi du, beñiro yayo izan ezik».

1 Yuduen nagusi. Sanhedrin zeritzan batzařekoa

2 Rabbi, au da, Maixu edo Irakasle.

3 Yainkoaren eñia... ikusi, au da, Yainkoaren eñiari beragandu edo bertan sartu.

⁴ Nikodemo'k diotsa: «Aguretu ezkerro, ordea, nola yayo? Amasabelean iñor beñiz sañtu ta yayo al diteke?»

⁵ Yesu'k yardetsi zion: «Zin ziñez dasaizut: Urtatik eta Atsetik beñiro yayo izan ezik, Yainkoaren eñian iñor ezin sañtu diteke. ⁶ Aragitik yayoa, aragi da; ta Atsetik yayoa, ats da. ⁷ Beñiro yayo beañ duzu esan dizudalako, ez añitu. ⁸ Atsak nai dun artan darauntsa; ta aren burunba dantzuzu; ez dakizu, ordea, nondik nora diyoan. Alakoxea da ere Atsaren egitez yayo dana».

⁹ Nikodemo'k erantzuki esan zion: «Ori zela diteke?»

¹⁰ Ta Yesu'k erantzun ta esan zion: «Israel'en irakasle zera, ta oriek ez dazkizu? ¹¹ Zin ziñez dasaizut: daki-guna diogu, ta dakusaguna aitoñtzen dugu; ta ez duzute gure aitoñ añtzen. ¹² Luñekoetaz nerauskizuenean, siñetsi ez ba'didazute, zeruetakoaz ba'nerauskizue, nola siñetsiko zenidakete? ¹³ Ta ez da iñor zerura igo, zerutik yetxi dana baño; au, beñiz, zeruan dagon Gizasemea da. ¹⁴ Ta sugea basoan Mois'ek gora yañi zun bezela, Gizasemea ere gora yaso beañ da, ¹⁵ Aren siñestea izanik, iñor galdu ez dedin, guziek, ordea, betiko bizitza dezaten. ¹⁶ Izan ere, Yainkoak gizaldia oñenbeste maite izan dula-ta, bere Seme bakañ eman dio, Aren siñestea izanik, gal ez dedin; guziek, ordea, betiko bizitza deza-

⁵ Urtatik eta Atsetik beñiro yayo=Batayoaren bitartez yayotza beñia añtu. Uretik eta Goteunagandik=uraren bitartez batayoan beñizten gaitun Goteunaren indarez. Ura baita batayoan ezaupide ikusgañia, ta Goteuna ikusi ezindako grazi edo eskeñaren emalea, urtatic eta Goteunagandik beñiro yayo giñan, gizon beñia ta izaki beñia, Paul deunak dion lez (Kol. 3, 10; Gal. 6, 15), izateko.

⁸ Atsak edo aizeak, lenengo atalean; bigañenean beñiz (3, 86) Atsa da Goteuna, izen bakañaz bata ta bestea alkañturik; bata bestearen iruditat añtuta.

ten. ¹⁷ Ez du, ba, Yainkoak bere Semea giza-ebazletzat luñera bidali, Aren bidez gizadia gaizkatu dedin baño. ¹⁸ Aren siñestea daukanarentzat ebazterik ez dago; ez daukana, beñiz, ebatzia dago, Yainkoaren Seme bakañaren siñesterik ez daukalakoxe. ¹⁹ Ebaztea, beñiz, au da: gizagana Argia etoñi da, ta gizakiek Argia baño iluna maiteago izan dute, ayen eginbideak okeñak ziralako. ²⁰ Okeñ dabiltzan guziek argia goñoto dute, ba, ta alakoak argitara ez datoz, ayen egiñak gaiztetsiak ez ditezan. ²¹ Egiaren bidetik dabilana, beñiz, argitara datoñ, bere egiñak agiri ditezan; Yainkoagan egiñak dira-ta».

Yon'en aitoñ beñia Yesu'ren alde

²² Onen ondoren Yesu bere ikasleekin Yudai alderdira yoan zan, ta an bizi zan ayekin, ukuzketan. ²³ Yon ere Aion'en, Salin ondoan, ukuzten zegon, an ura ugari zalako. Ta ainitzek ara yo ta ukuzpena arñzen zuten. ²⁴ Oraindik Yon ez zan baitegira eramana-ta.

²⁵ Ukuzpena gora bera, Yon'en ikasleetan eztabaida soñtu zan yudu batekin. ²⁶ Ta Yon'engana yota diotsate: «Rabbi, Yordan aruzkoan zurekin zegola, aitoñ eman zenion gizon ura, ukuzten ari da, ta guziak arengana diyoaz». ²⁷ Yon'ek yardetsi ta esan zien: «Iñork ezer ezin arñtu dezake, zerutik ematen ez ba'zayo. ²⁸ Zerok aitoñ zatzazkidate esan nula: Ez naiz ni Kistoa, Aren auñetik bidalia baño. ²⁹ Emaztegayaduna, senañgai da; ta aldamenean adi dagokion adiskidea, senañgayaren

²⁹ Senañgaya, Yesu da; emaztegayaya, Eliza, edo Yesu'k beretutako arima guziak. Yon'en arazoa, zerutik ari emana, beñiz, gizonak bere-tzeko zetoñen Yesu'rengana arimak eramatea zan.

mintzoaz poz pozten da. Orelako poza, beñiz, nigan bete bete da. ³⁰ Berari garaitzea dagokio; niri, beñiz, ikoltzea. ³¹ Goitik etoña guzien gañean dago; luřetik sořtua, luřekoa da, ta luřekoaz darausa. Zerutik etoña guzien gañean dago, ³² ta ikusi ta entzun dunaz aitoña dakař; inork ez du, ordea, Aren aitoña ařtzen. ³³ Aren aitoña ařtzen dunak, beñiz, Yainkoa egiti dala tinkatzen du: ³⁴ Yainkoak bidalia, Yainkoaren itzez mintzo da, ba; Yainkoak ez baitio Atsa neuñiz ematen. ³⁵ Aitak Semea maite du, ta dana eskuan yañi dio. ³⁶ Semearen siñestea daukanak, betiko bizitza dauka; baña Semearen siñesterik ez daukanak ez du bizitzarik ikusiko; alakoaren gañean, beñiz, Yainkoaren aseña dago».

IV

Sikar'ko osin ondoan

Yon'ek baño Yesu'k ikasle geyago beretu ta ukuzten zitula parisaitařek entzun zuten. ² Ukuzleak, oñatiño ikasleak ziran, ez Yesu Bera. ³ Yaunak, au adituta, Yudai utzi ta Galilai'ra beñiz yo zun. ⁴ Oñtarako, Samari'n baña igaro beař, ta ⁵ Sikar deritzan Samari'ko irira datoř, Yakob'ek bere seme Yose'ri emandako landa ondora. ⁶ An ituñi bat zan, ta Yesu, bideak nekatuta, ituñi ondoan eseri zan. Seirak edo ziran.

⁷ Samari'ko emakume bat urzun datoř, ta Yesu'k diotsa; «ur idazu», ⁸ ikasleak yateko-bila irira yoanak baitziran.

⁹ Samariař emakumeak diotsa, ba: «nola, yudu

zerala, niri, emakume samariaí oni, ur-eske zatozkit?» Samariaíekin yuduek ań-emanik ez dute-ta.

¹⁰ Yesu'k yardetsi ta esan zion: «Yainkoaren oparia ba'zenezagu, ta «ur idazu» dasaizuna nor dan ba'zeneki, ur bizia zerońek zeneskayoke, ta ba-lemaizuke».

¹¹ Emakumeak diotsa: «Yauna, antuxińnik ere ez duzu, ta osińa bańen dago: ur bizia, beraz, nondik duzu? ¹² Yakob gure arbasoa bańo aundiagoa ote zaitugu? Ark emanda dugu osiń au, ta berak eta bere seme ta abereek ontatik edaten zuten».

¹³ Yesu'k erantzuki esan zion: «ur onen edale guziak beńiz egańi izango dira: ¹⁴ bańa nik damayokedan uretik ledakena, ez da bein ere egańi izango; aitzitik ere, damayokedan ura, betiko bizitzarańo txiństaka darioken ur-ituńi egingo da arengan».

¹⁵ Ordun emakumeak diotsa: «Yauna, idazu ur ori, egańi ez izateko, ta ur eske onara ez etońtzeko».

¹⁶ Yesu'k dasayo: «Zoaz, zure senańa deitu, ta zatoz onara».

¹⁷ Emakumeak darantzuyo: «Senańik ez dut».

Yesu'k diotsa: «Ondo esan duzu «senańik ez dut»; ¹⁸ bost senań izan dituzu, ba, ta orain duzuna, zure senań ez da; ori egiz esan duzu».

¹⁹ Emakumeak dasayo: «Yauna, igańle zerala ba-dakust. ²⁰ Gure arbasoek mendi ontan yaureskuntza

²⁰ Samariańek yuduei isituki ukatzen zien Yerusalen zala agiriko yaureskuntza Yainkoari egiteko toki bakańa; ta Garizin mendian beste yauretxe bat eraiki zuten. Yesu'k ordurarte yuduak ońtan zuzea ibili zirala dio; geroenean, beńiz, yaureskuntza yatońa alde guzietara zabalduko zala, Yainkoaren eskeńak biotzetan piztutako adorez giza-bańnekoa ta azalekoa Aren gogara artezturik.

egin zuten; ta zuek diozute yaureskuntza Yerusalen'en egin bear dala».

²¹ Yesu'k diotsa: «Emakume, siñeskidazu; Aita ez mendi ontan, ezta Yerusalen'en ere, yauretsiko duzuten garaya ba-dator. ²² Ez dakizutena yauresten duzute zuek; dakiguna yauresten dugu guk: osasuna yuduen-gandik da-ta. ²³ Baña yauresle yatorék Aita gogoz ta egiz yauresteke garaya ba-dator, ta oraingoa da; orelako yauresleak Aitak nai ditu-ta. ²⁴ Yainkoa gogo da; ta gogoz ta egiz Bera yauretsi bear dute Aren yauresleek».

²⁵ Emakumeak dasayo: Ba-dakit Kistoa deritzan Mexia, etortzeko dala. Datorénean, dana Berak irakatsiko digu».

²⁶ Yesu'k dasayo: » Mintzo natzaizun auxe nauzu».

²⁷ Une artan bere ikasleak eldu ta aritu ziran, emakumearekin zerausalako. Ala ere ez zion inork esan: «Zer galdetzen diozu?» edo «Zertzaz mintzo zera oreakin?»

²⁸ Emakumea, lusuila an utzirik, irira doa ta gizonnei dasaye: ²⁹ «Zatozte, ikusazute egin dudan guzia esan didan gizon bat. Au ote da Kistoa?» ³⁰ Beraz, iritik irtenda, Arengana yoan ziran.

³¹ Bitartean ikasleek zeskayoten, esanaz: «Rabbi, yan ezazu».

³² Bañan Ark esan zien: «Ba-dut Nik yateko, zuek ez dakizuten azkuiri bat».

³³ Ikasleek, beraz, elkari zerasayoten: «Yanaria norbaitek ekari ote dio?».

³⁴ Yesu'k dasaye: «Nere yanaria au da; bidali naunaren

gogoa egitea ta aren burupidea betetzea. ³⁵ Ez al diozute zuek: lau ilabete baú, itaitea? Ara, beíz, Nik dasaizuet: yaso begiok eta begira aloák itaiterako engoitik orituak. ³⁶ Itailariak, beíz, egunsaria ártzen ta betiko bizitzarentzat uzta biltzen du; ereilea ta itailaria orobat poz ditezan. ³⁷ Oítan ere egia da esakun au: besterik da ereilea, ta besterik itailaria. ³⁸ Landu ez duzutena biltzera bidali zaituzt: besteek lan eginda, ayen arlo landuan zuek saútu zerate».

³⁹ Iri artako samariaí askok, beíz, aitoí ura, «egin dudan guzia esan dit» emakumeari entzunda, Yesu'ren siñestera yo zuten, ⁴⁰ ta arenganaturik, berekin, áren, gelditzeko zeskayoten; ta egun bitan gelditu zan. ⁴¹ Ta Ari entzunaz, geyagotsuk Aren siñestea ártu zuten, ta emakumeari ziotsaten: ⁴² «Ez dugu onezkero zure esanagatik siñesten. Gizadiaren gaizkatzalea, noski, Au dala gerok entzun ta ikusi baitugu.

Yesu Galilai'n

⁴³ Bi egun buruan andik irtenda, yoan zan Galilai'ra ⁴⁴ igaílek bere eían entzute onik ez dula Yesu'k Berak esan izan zulako. ⁴⁵ Galilai'ra eldu zanean, beíz, galilaitaírek abegi ona egin zioten, yayean Yerusalen'en Ark egiña ikusi izan zutelako; ayek ere yaitara yoanak baitziran. ⁴⁶ Ura ardotu zun Galilai'ko Kana'ra, beraz, itzuli zan.

Ta semea Kaparnaun'en gaxorik zeukan yauregiko norbaitek, ⁴⁷ Yudai'tik Galilai'ra Yesu etoíi zala entzunda, Arengana yo, ta bere semea sendatzera yeixteko

eskatu zion; ilúren zegolako. ⁴⁸ Yesu'k esan zion: «Alatz ta ariñarik ikusi ezik, ez duzute siñesten». ⁴⁹ Yauregikoak diotsa: «Yauna, yetxi zaitez nere semea il baño len». ⁵⁰ Yesu'k diotsa: «Zoaz; zure semea bizi da». Yesu'k ziotsana gizonak siñetsi zion, ta ba-ziyoan. ⁵¹ Bidean ziyoanean, bere mo'oyek arganatu ta be'ri au daka'kiote: «Zure semea bizi da». ⁵² Galde egin zien zein ordutan onera egin zun; ta esan zioten: «Atzo zazpiretan sukarak alde egin zion». ⁵³ O'ela aitak ateman zun ordutan bertan Yesu'k esan ziola: «Zure semea bizi da», ta bai bera, baita bere etxeko guziak ere, siñestun egin ziran.

⁵⁴ Au da Yesu'k Yudai'tik Galilai'ra itzuli zanean, egindako biga'eren alatza.

V

Betesda'ko elbaria

O rézkero Yesu, yuduen yaya zala-ta, Yerusalen'a igo zan. ² O' ba, Yerusalen'en ba-da Ardiate ondoan, eberkeraz Betesda deritzan urtegi bat bost aterpekin. ³ Auetan eri, itsu, e'eren ta elbari asko zeuntzan, ura igituko zai. ⁴ Alabañan, Yainkoaren aingeruak, urtegira noizik bein yetxirik. ura irabiotzen zun; ta irabiotutako urtan au'ena sa'rtzen zana, edozein gaitzez zegola ere, sendatzen zan.

⁵² Zarpiretan, eguerdi osteko lenengo orduan, guretzat ordu batetan,

¹ Yuduen yaya, geyenak emen Paska ulertzen dute, Izan leike txabolen yaya zeritzana ere.

⁵ Ayetako gizon bat bere gaitzez ogei ta emezortzi urte ezkerro an zegon. ⁶ Yesu'k ura etzanik jkusi ta aspaldi an zegola yakinda, diotsa: «Sendatua izan nai al duzu?» ⁷ Gaxoak erantzun zion: «Yauna, urtegira ur igitaldian naramaken gizonik ez dut; eta ni ara orduko, ni baño len besteren bat yeixten da». ⁸ Yesu'k dasayo: «Yaiki, zure ze'aldoa artu ta zabilta». ⁹ Ta bertantxe gizona sendatu zan; ta, ze'aldoa sorbaldan, ibili zebilan.

Larunbata zan gero egun ura; ¹⁰ ta yuduek sendatu izanari ziotsaten: «Larunbat duk; ez zaik zilegi ire ze'aldoa eroatea». ¹¹ Yardetsi zien: «Sendatu naunak esan dit: Zure ze'aldoa artu ta zabilta». ¹² Itandu zioten, beraz: «Nor duk «zure ze'aldoa artu ta zabilta» esan dikikan gizon ori?» ¹³ Baña sendatu izanak ez zekin nor liteken; ango gizataldetik Yesu baztertu zalako.

¹⁴ Geroago Yesu'k gizona yauretxean aurkitu ta esan zion: «Orizu; sendatu zera; auferontzean ez ogenik egin, oke'agoren bat ez dato'rkizun». ¹⁵ Ordun gizona yoan zan, sendatu zuna Yesu zala yuduei esatera. ¹⁶ Yuduek, be'iz, Yesu esesten zuten, larunbatean o'relakoak egiten zitulako. ¹⁷ Baña Yesu'k yardetsi zien: «Nere Aita orain ere ari da, ta Ni ere ari naiz». ¹⁸ Ain zuzen ere o'rexegatik, Yainkoari Aita esaka bere burua Yainkoarekin berdintzen zulakoxe, ta ez baka'rik larunbata austen zulakoan, bizia Ari kentzeko amoratuta yuduak zebiltzan.

¹⁹ Beraz, Yesu'k yardetsi ta esan zien: «Zin ziñez

dasaizuet: Semeak bere buruz ezer ezin egin du, Aita egiten dakusana baizik; Onek dagiña bera Semeak ere dagi-ta. ²⁰ Aitak Semea maite du, ba, ta Berak dagin guzia darakuskio; egiteko aundiagoak ere erakutsiko dizkio, zuek aritu zaitezten: ²¹ Aitak ilak eraiki ta pizten ditun bezela, Semeak ere nai ditunak pizten ditu-ta. ²² Ez du, ba, Aitak inor ere ebazten; ebazpide guzia, beriz, Semeari egotzi dio, ²³ Semea guziek goretsi dezaten, Aita goresten duten bezelaxe. Semea goresten ez dunak, Bera bidali dun Aita ere ez du goresten. ²⁴ Zin ziñez dasaizuet: nere itzaren aditzale ta bidali naunaren siñestun danak betiko bizia du, ta alakoa ebazpidera ez dator; eriotzatik bizira aldatzen da, ordea. ²⁵ Zin ziñez dasaizuet: Yainkoaren Semearen otsa ilek aditzeko garaya eldu da, ta oraingoa da gero: ta adituko dutenak biziko dira; ²⁶ Aitak beregan bizia dun bezela, Semeari ere bizia beregan izatea eman dio-ta. ²⁷ Baita Gizaseme dan ezkerro, ebazteko eskubidea ere eman dio. ²⁸ Ez aritu onetzaz; ba-dator, ba, garaya, ²⁹ ta zuzen ibiliak, bizitzeko piztuko dira; okeñ ibiliak, beriz, ebatziak izateko.

³⁰ «Nere buruz ezer ezin dagiket. Dantzudanez darabakit; eta nere epaya zuzena da; ez dut, ba, nere oldea bilatzen, bidali naunarena baño.

³¹ «Neronezaz Neronek aitor ba'dagit, nere aitorá ez da siñeskañi. ³² Beste bat da Nitzaz aitor dagiña; ta ba-dakit Nitzaz dagin aitorá siñeskaña dala. ³³ Zuek

²⁷ **Gizaseme dan ezkerro**, au da, Daniel Igarleak lañoetan ikusitako gizasemea, Mesias. Aren aurfan eñi guziak auzpezen dira, ta berak, erdian yañirik, danak epaikatzen ditu (Dan. 7, 13, 14).

Yon'i bidaliak igorí zenizkioten, ta ark egiari aitor' egin zion. ³⁴ Nik, ordea, aitor'ik ez dut gizagandik artzen; baña gomutaratzen dizuet, zeron yareikuntzarako. ³⁵ Ura zuzi ixio ta argitsu zan, ta aren argitan zuek apur' bat poz artu nai zenuten. ³⁶ Baña ba-dut Nik Yon'ena baño aitor' gurenagoa: Aitak Niri egotzitako ta Nik burutzen ditudan egitekoak nere alde daude, Aitak bidali naula aitor'tzen. ³⁷ Bidali naun Aitak Berak aitor' egin dit. Aren mintzoa zuek ez duzute bein ere entzun, ez Aren aur'pegia ikusi, ³⁸ ezta Aren itza zuengan izan ere; Berak bidali dunari siñesten ez diozutelako.

³⁹ «Idaztiak aztertu itzazute, betiko bizitza ayetan daukazutela uste duzuten ezkerok; auek dira Nitzaz aitor' dagitenak. ⁴⁰ Zuek, beriz, ez duzute Nigana yo nai bizitza izateko. ⁴¹ Gizagandikako aintzaz Niri ayolarik ez. ⁴² Bañan ezagun zaituzt; Yainkoaganako maitasunik zuengan ez dago. ⁴³ Ni Aitaren izenean etor' naiz, ta ez nauzute artzen. Beste norbait bere buruz ba'letor', alako ori artuko zenukete. ⁴⁴ Nola siñetsi zenezakete zuek, elkar'engandik ospea artzen duzutenok, eta Yainkoagandik bakañik datořen ospe bila ez zabilzatenok? ⁴⁵ Ez uste Nik Aitaren aurean salatuko zaituztanik; ba-dago salatuko zaituzana, zeron ustea eratxiki diozuten Mois berbera. ⁴⁶ Mois'i siñetsiko ba'zeniote, Niri ere siñetsiko zenidakete; berak Nitzaz idatzi du-ta. ⁴⁷ Baña berak idatzia siñesten ez ba'duzute, nere esana nola siñetsiko duzute?»

³⁵ Zuzi ixio... Zuziak ez du berezko arg'rik, artutakoa baño: ořela Yon'ek bere argia Yesu'ri zoř zion.

VI

Ogi ugarituak

Orézkero Yesu yoan zan Galilai'ko Tiberi itxasoz aruzko aldera, ² ta gizatalde aundia ze'rayon, erietan zegitzin alatzak zekusaztelako. ³ Mendira Yesu igo zan, ta an zegon cserita bere ikasleekin. ⁴ Paska, yuduen yaya. aurki zan.

⁵ Yesu'k begiak yaso ta gizatalde izugaria Beregana eto'rtzen ikusi zunean, Pilipe'ri esan zion: «Ogiak nondik erosiko ditugu oriek yan dezaten?» ⁶ Zirikatuz ori ziotsan, baitzekin zer egiteko zan.

⁷ Pilipe'k erantzun zion: «Be'reun denari ogi ez da naikoa, bakoitzak apur bat artzeko».

⁸ Ikasleetako batek, Simon Kepa'ren anai Ander'ek dasayo: ⁹ «Ba-dago emen mutiko bat, bost garagar-ogi ta bi arai dituna; bañan o'renbestentzat zer dira oriek?»

¹⁰ Ala ere, Yesu'k esan zien: «Etzanarazi itzazute lagunak». Toki ura belar'sua zan gero, ta bost milaren bat gizon etzan ziran.

¹¹ Ordun Yesu'k, ogiak artu ta esker' eginda, zeuntzanei banatu zizkien, baita norberak nai aña, arayak ere. ¹² Ta ase ziranean, bere ikasleei esan zien: «Uzki-ñak bil itzazute, ezer gal ez dedin». ¹³ Bildu ere zituten, ta yandakoan gelditutako garagar' otzuzez amabi saski bete zituten.

1 Mt. XIV, 13-21; Mk. VI, 32-42; Lk. IX, 10-17.

¹⁴ Yesu'k egindako alatza gizon ayek ikusita zerasaten: «Auxe duk noski giza'ntera eto'rtzeko ukan i'garle yato'ra». ¹⁵ Bañan Yesu'k, bakalduntzat Bera a'rtzeko zetozkela i'garirik, mendira be'riro bazte'rtu zan baka'rik.

Ur gañean ibilki

¹⁶ A'ratsaldean, Aren ikasleak itxasora yetxi ¹⁷ ta ontzira igota, Kaparnaun'a itxasoz aruntz ziyoazan. Ilundutakoan, ez zan Yesu ayetara eto'ri; ¹⁸ ta itxasoa, aize zaka'rik zerauntsala, a'rotzen ziyoan. ¹⁹ Ogei ta bost edo ogei ta ama'ren bat estadi a'raunka au'feratu ziranean, Yesu dakuste ur gañean ibilki ontzira u'rbiltzen, ta izutu ziran. ²⁰ Bañan Ark dasaye: «Ni naiz; ez izutu». ²¹ Beraz, ontzira a'rtu nai zuten; ta bereala, ziyoazan lego'aldera ontziak yo zun.

Bizitzarako Ogia

²² Biaramunean, beste itxasertzeko gizataldea o'artu zan ontzixka bat besterik an ez zala, ta Yesu sa'rtu ez zala bere ikasleekin; ikasleak baka'rik yoan zirala, ordea. ²³ Baña beste ontzi batzu Tiberi'tik eto'ri ziran, Yaunak eske' eginda, ogia yan zuten tokira. ²⁴ Beraz, Yesu an ez zala, ezta Aren ikasleak ere, gizataldeak ikusi zune-ko, ontzietara guziak igo ta Kaparnaun'a eto'ri ziran Yesu bila. ²⁵ Ta, itxasoa igarota, idoro zutenean, esan zioten: «Rabbi, noiz eldu zera onara?» ²⁶ Yesu'k erantzuki esan zien: «Zin ziñez dasaizuet: ogietatik yanda ase z'eratelako, ez, ordea, ikusitako alatzengatik,

Nere bila zatozkidate. ²⁷ Ez zaitezte nekatu aitzen dan ogiaŕen; ekin, ordea, betiko bizitzaraño dirauken ta Gizasemeak damaizueken ogi bila. Auxe da, ba, Yainko Aitak bere aztaŕnaz berezia».

²⁸ Esan zioten, beraz: «Zer genegike Yainkoaren eginbidetik ibiltzeko?»

²⁹ Yesu'k erantzun ta esan zien: «Au da Yainkoaren eginbidea; Berak bidali dunaren siñestea zuek izatea».

³⁰ Ta ayek esan zioten: «Baña zein ezagugaŕi darakuskiguzu, siñetsi dezaizugun? Zer dagi zu? ³¹ Mana gure asabaek basoan yan zuten, idatzita dagonez: **ort-zitik ogia eman zien yateko**».

³² Yesu'k esan zien: «Zin ziñez dasaizuet: zerutikako ogirik ez zizuen Mois'ek eman; zerutikako ogi yatoŕa nere Aitak damaizue. ³³ Zerutik yetxi ta gizakiari bizia damayona, Yainkoaren ogia da-ta».

³⁴ Esan zioten, beraz: «Yauna, ogi ori beti iguzu».

³⁵ Ordun Yesu'k esan zien: «Nerau nauzute bizitzarako Ogia. Nigana datoŕena ez da gose izango, ta siñestun zaidana, ez da bein ere egaŕi izango. ³⁶ Bañan esan dizuet; ikusi nauzute, ta ez duzute siñesten. ³⁷ Aitak eman didan guzia Nigana datoŕke, ta Nigana datoŕkena ez dut astanduko; ³⁸ ez naiz ba, nere gogoa egiteaŕen, zerutik yetxi, bidali naunarena baño. ³⁹ Ta au da bidali naunaren gogoa; Berak eman didan guzitik ezer ere Nik ez galtzea, azken egunean beŕpiztea baño. ⁴⁰ Au da,

³¹ Er. LXXVII, 24.

³⁷ Yainko Aitak bere aztaŕnaz berezia. Aitak Semeari ezaŕitako aztaŕna edo sigilua dira Semeak egindako alatzak, eta Aita Beraren aitoŕa.

beríz, nere Aitaren gogoa; Semea ikusi ta Aren siñestea dukenak betiko bizitza izatea; ta alakoa Nik azken egunean berpiztuko dut».

41 Yuduak, beríz, mar mar zeuden Artzaz, «Nerau nauzute ogi bizia, zerutik yetxia» esan zulako, 42 ta zerasaten: «Ez ote duk au Yesu, Yose'ren semea? ta zonen aita ta ama ez ote zetikagu ezagun? Nola, ba, zio; «Zerutik yetxi naiz?»

43 Bañan Yesu'k yardetsi ta esan zien: «Ez ari mar mar elkarékin. 44 Nigana inor ezin datoŕke, bidali naun Aitak ez ba'dakaŕ; ta alakoa Nik azken egunean berpiztuko dut. 45 Igarleetan idatzita dago: **Yainkoaren ikasle izango dira guziak.** Aitari entzunda ikastun egiña, Nigana datoŕ. 46 Ez uste oratiño Aita inork ikusi dula, Yainkoagandik soŕtua izan ezik; Onek, bai, Aita ikusi du. 47 Zin ziñez dasaizuet: nere siñestea dunak, betiko bizitza du. 48 Ni naiz bizirako ogia. 49 Mana basoan zuen asabak yanda ere il ziran. 50 Ogi au zerutik yetxia da, yaten duna il ez dedin. 51 Ni naiz ogi bizia, zerutik yetxia. Ogi ontatik inork yaten ba'du, betidaño biziko da; ta Nik emango dudan giza-bizirako ogia nere aragia da».

52 Yuduek, ordea, elkaŕi ba-ziardukioten, esanaz: «Nola bere aragia lemaigukek yateko?»

53 Beraz, Yesu,k esan zien: «Zin ziñez dasaizuet: Gizasemearen aragia yan ta Aren odola edan ezik, ez duzute zerongan bizitzarik izango. 54 Nere aragia yan ta nere odola edaten dunak betiko bizitza du, ta Neronek

42 Beg. Mat. XIII, 55, oaŕ.

45 Is. LIV, 3.

piztuko dut azken egunean. ⁵⁵ Nere aragia yanari da ziñez, ta nere odola edari da ziñez. ⁵⁶ Nere aragia yan ta nere odola edaten duna, Nigan dago ta Ni arengan. ⁵⁷ Bizi dan Aitak bidalita Aitarengatik Ni bizi naizan bezela, yaten nauna ere Nigatik biziko da. ⁵⁸ Au da zerutik yetxitako ogia; ez mana bezela. Mana yanda, zuen asabak il egin ziran; ogi au yaten duna beti ere biziko da».

⁵⁹ Itz guziok Kaparnaun'en esan zitun, sinagogan irakaski.

Ikasle askoren atzerapena

⁶⁰ Aren ikaslerik askok entzunda esan zuten: «Gogoña duk itz au, ta nork aditu lezakek?» ⁶¹ Bañan Yesu'k oñetzaz mar mar bere ikasleak zebiltzala bere baitan ezagunik, esan zien: «Onetzaz larde al zerate? ⁶² Oñatiño ere, Gizasemea len zegon ara igotzen ba'zene-kusate! ⁶³ Gogo-adorea da bizia damana; aragia ezertarako ez da. Nik esan dizkizuedan itzak, gogo ta bizitza dira. ⁶⁴ Baña ba-dira zuetan siñesten ez duten batzu». Astetik Yesu'k baitzekin zein ziran siñesgabekoak, ta nork Bera salduko zun. ⁶⁵ Esan zien, beraz: «Argatik esan dizuet: Nigana iñor ezin datoñke, nere Aitak emana ez ba'zayo».

⁵⁵ Nere aragia yanari da ziñez; au da, benetako, egizko ta ez irudizko yanaria.

⁶³ Aragia ezertarako da. Aragia, nere aragia ere, berez. aragi ila ta okel utsa ba'liz, ta yainkotasunik eta arimarik gabe ba'lego, ez lizake betiko bizitza emateko egokia. Baña Yainko naizan gizon onen aragi bizi ta yainkotasunarekin batua dan ezkerro, betiko bizitzaren emalea da. Ta oñela, Nik esandako itzak, gogo edo arima ta bizia dira; bizitza baita-kañte, ta nere aragi bizia ta yainkotasunez betea adirazten baitute.

⁶⁶ Orezkero ikaslerik asko atzeratu ziran; ta gero-koan Arekin ez zebiltzan.

Kepa'ren aitoa

⁶⁷ Beraz, Yesu'k amabiei esan zien: «Zuek ere aldegin nai ote duzute?» ⁶⁸ Ordun Simon Kepa'k erantzun zion: «Yauna, norengana yoko genuke? betiko bizitzarako itzak dituzu. ⁶⁹ Ta guk siñetsi ta ezagun dugu, Yainkoaren Deuna zerala Zu». ⁷⁰ Yesu'k yardetsi zien: «Ez ote zaituzt amabi autu? Zuetako bat, ordea, txerenda». ⁷¹ Simon Iskariot'en Yuda'rengatik au zion, beriz; ura baitzan amabietako bat, Bera salduko zuna.

VII

Txosna-yaya

Orezkero Yesu Galilai'n ba'na zebilan, Yudai'ra yoan nai ez baitzun, yuduak Bera iltzeko asmotan zeudelako. ² Bañan yuduen Txosna-yaya aurki zala-ta, ³ Aren senideek esan zioten: «Emendik irten ta Yudai'ra zoaz, egiten dituzunak zure ikasleek ikusi ditzaten. ⁴ Agirian nabari izan nai ezkerro, ba, iñork ere ez du itzalka ezer egiten. Orelakoetan ari zeran ezkerro,

⁶⁹ Yainkoaren Deuna, au da, Yainkoak donetu dun Mesia. Vulgatak: «Kisto, Yainkoaren semea». (Mc. 1, 24; Lc. 4, 34).

⁷¹ Ez ote zaituzt amabi autu? Kepak guzien ordeztz itz egin zula uzte zulako, Yesusek, Bere yakituria agerturik, asmoa zuzentzen dio, esanaz: Ez dute guziek zure asmo zintzo ori: U'rutik ere ez; zuen arteko batek salduko nau.

² Txosna edo txabola - yaya - Tischri (irail- uril) zeritzan ileko 15-ga'nenetik 22-ga'nera egiten zana. Yuduek egun artan Aigito'ko bizitzaren oroitzat, txosna edo txabolak eraikitzen zuten. Beg. Leb. XXIII, 34-44.

guzien begitan azaldu zaitez». ⁵ Aren siñesterik senideek berek ez baitzuten. ⁶ Yesu'k dasaye: «Ez da oraindik nere garaya eldu; zuena, beñiz, beti gerturik dago. ⁷ Gaiztoek ezin goñoto zaituzte; Nerau, ordea, goñoto naute, ayen egiñak txarñak dirala aitoñtzen ari naiz-ta. ⁸ Zoazte zuek yai oñtara, Ni, beñiz, yai oñtara ez noa, nere garaya oraindik bete ez dalako». ⁹ Au esanda, Galilai'n gelditu zan.

¹⁰ Bañan Aren senideak yoanda gero, Beraxe ere yaitara igo zan, ez agirian, izkutuxean baño. ¹¹ Yuduak, beñiz, Aren bila zebiltzan yai artean, esanaz: «Non zegok ori?» ¹² Ta zuñu muñu aundia zebilan Beratzaz, batzuk, «Zintzoa dut», eta bestetzuk «Ez; eñia liluratzen dik», zerasatela. ¹³ Ala ere, yuduen belduñez, iñor ez zan Artzaz agirian mintzo.

Yesu'ren itzaldia yauretxean

¹⁴ Yai aldiaren erditsuan Yesu yauretxera igo ta irakasten asi zan. ¹⁵ Ta yuduek añituta zioten: «Oñek ikasi ez, ta yakin bai; nola duk ori?» ¹⁶ Yesu'k yardetsi ta esan zien: «Darakastana nereña ez da, bidali nauna-rena baño. ¹⁷ Aren gogoña iñork egin nai ba'du, darakastana Yainkoagandik ote dan, ala nere buruz daraustan igañiko du. ¹⁸ Bere buruz mintzo danak bere ospea bilatzen du; bidali dunaren aintza bilatzen duna, beñiz, egiti da, ta arengan gaitztakeririk ez dago. ¹⁹ Ez

⁸ Ni, beñiz, ez noa; au da, zuek nai duzuten bezela, agirian.

al dizue Mois'ek legea eman? Ez dago, ordea, zuetan legea betetzen dunik. Zergatik il nai nauzute?»

²⁰ Gizataldeak yardetsi ta esan zion: «Txerén duk. Nork il nai au?»

²¹ Yesu'k erantzun ta esan zien: «Egin bat egin dut, eta guziok aritzen zerate. ²² Ala ere, erdainkuntza Mois'ek agindu zizuen (ez Mois'ek asmatuta, beriz, asabaengandik arituta baño), ta zuek gizona larunbatean erdaintzen duzute. ²³ Mois'en legea ez austeko, gizonak erdainkuntza larunbatean aritzen ba'du; gizon bat oso sendatu dudala-ta, ase're al zatozkidate?, ²⁴ Azaletik ez ebatzi; zuzenbidez, ostera, ebatzazute».

²⁵ Yerusalen'go batzuk zioten: «Ez ote duk au il nai ditekana? ²⁶ Or' zegok, ba, zabal zabal mintzatzen, ta inork ez zioke ezer esaten. Etsita ote zeudek nagusiak Kistoa dukala au? ²⁷ Bañan au nongoa dukan ba-zekikagu; Kistoa zeto'rkanean, beriz, inork ez zekikek nongoa dukanik».

²⁸ Beraz, Yesu'k, yauretxean zerakastela, ots egiñaz zion; «Ba-nazaguzute, ta nongoa naizan ba-dakizute. Bañan ez naiz nere buruz eto'ri; eskudunak bidalita nato'ri. Zuek ez duzute Bera ezagun; ²⁹ Nik, ordea, ba-dazagut, Beragandik izatea ta ekitekoa ditudalako».

³⁰ Argatik Bera atzi nai zuten; bañan inork ez zion eskua gañera eza'ri, Aren garaya oraindik eldu ez zalako. ³¹ Lagunaba'retan, beriz, askok siñetsi zioten, ta zerasaten: «Kisto'k, eto'ritakoan, Onek baño zantzu geyago erakutsiko ote zetik?»

21 Egin bat egin dut, elbañiaren sendakuntza. Yo. 5, 2...

Parisaitarak asére

³² Eriaren esamesok parisaitarek entzunda, agintariek in elkartuz, mo'oyak igori zituten Bera atzemateko. ³³ Ta Yesu'k esan zien «Oraindik apur bateko zuekin nago, ta ba-noa bidali naun Arengana. ³⁴ Nere bila zabilzkete, ta ez nauzute idoroko; ta noan ara ezin etori zerate». ³⁵ Yuduek, beraz, alkariekin ziarduten: «Nora ziakek au, ezin idoro dikagu-ta? Elenda'etara ote ziakek, elenda'ren irakasle? ³⁶ Zer duk esan dikan itz au: Ni nagon ara zuek ezin etori zerate?»

³⁷ Yayetako azken egun aundian, ara, beriz Yesu oyuz esaten: «Inor ega'ri ba'da, betorkit eta edan beza. ³⁸ Nere sinestunaren sabeletik, Idatziak dionez, ur bizia ibaika darioke». ³⁹ Au esan zun bere sinestunek artu be'ar zuketen Atsarengatik; Yesu oraindik goretsia ez baitzan, Atsa oraindik emana ez zitzayelako.

⁴⁰ Erian batzuk itzok adituta zioten: «Au duk noski igarlea». ⁴¹ Beste batzuk zioten: «Kistoa duk au». Beste-zuk, beriz, zioten: Kistoa Galilaitik al zeto'rek? ⁴² Ez ote zio'k Idatziak Dabid'en azitik eta Dabid zegokan Betlen iritik Kistoa zeto'rekala?» ⁴³ Orela gizataldean bayezta so'rtu zan Artzaz. ⁴⁴ Ta ayetako batzuk Bera atzeman nai zuten; ba'nan inork ere ez zion eskua ga'nera eza'ri.

⁴⁵ Beraz, mo'oyak apaizpuru ta parisaitarengana itzuli ziran; ta auek esan zieten: «Zer dala-ta ez duzute gizona eka'ri?»

³⁸ Is. XLIII, 19, 20; XLIV, 3; Yoel, 2, 28; Ezek. XXXVI, 25.

46 Mo'oyek erantzun zieten: «Egundaño ez du gizon-ek, gizon onek bezela itz egin».

47 Parisaita'ek yardetsi zieten: «Zuek ere liluratu al zaituz? 48 E'riko nagusi ta parisaita'etan ba al dago bat ere siñetsi dionik? 49 Legea ez dakiten na'asok, bai, biraoga'ri dira».

50 Ayetako batek, Nikodemo'k, Yesu'gana len eto'ri zanak berak, dasaye: 51 «Gure legeak iñor gaiztesten ote du, bera lenen entzuteke, ta zer egin dun yakiteke?»

52 Yardetsi ta esan zioten: «Zu ere galilaita'ra al zera? Idaztiak azte'rtu ta ikusiko duzu Galilai'tik ez dala iga'lerik so'rtu».

53 O'rezkero nor bere etxera itzuli ziran.

VIII

Emazte kutsuduna

Yesu, be'riz, Oliamendi'ra yoan, 2 ta egunsentian yauretxera itzuli zan. E'ri osoa Arengana ziyoan, ta Berak eserita zerakaskien.

3 Ezkontza-kutsutan upatutako emakume bat idazlari ta parisaita'ek Arengana eka'ri ta erdian ya'iririk, 4 Yesu'ri diotsate: «Irakasle, emakume au arestixean upatu dute ezkontza-kutsutan; 5 ta legean Mois'ek olakoak a'rikatzeko agindu zigun. Zer diozu, ba, Zuk?» 6 Azpikeriz ori ziotsaten, Bera salatu al izateko. Baña Yesu maku'rtuta asi zan beatzez lu'ean idazten. 7 Ta galdeka ayek ekin baitzioten, agondu zan ta esan zien: «Zero-tako ogenik gabe litekenak lenbiziko a'ria biraitzio».

8 Ta beíro makuítuta, luéan idazten ari zan. 9 Ayek, ordea, ori entzunda, banaka banaka irteten ziran, eldu-enak auéneko; ta bakaírik Yesu gelditu zan, ta emakumea erdian zutik. 10 Ordun Yesu'k, agondurik, esan zion: «Emakume, non dira? Ez al zaitu batek ere gaiztetsi?» 11 Emakumeak esan zion: «Batek ere ez, Yauna». Ta Yesu'k esan zion: «Ezta Nik ere ez zaitut gaiztetsiko. Zoaz, ta gauígero ogenik bein ere ez egin».

Gizargia

12 Beíro Yesu'k itz egin zien, esanaz: «Ni naiz gizargia. Daíaidana ez dabil iluntan; aitzitik ere, bizerako argia daukake».

13 Parisaitaírek ordun esan zioten: «Zeroíentzaz Zerori aitoí egiten zaude. Indaírik ez du zure aitoíak».

14 Yesu'k yardetsi ta esan zien: «Neronentzaz Neronek aitoí egin aíren, yatoíra da, bai, nere aitoíra; ba-dakit, ba, nondik natoíren ta nora noan; zuek, ordea, ez dakizute nondik natoíren, ez nora noan. 15 Zuek aragibidez ebazten duzute; Nik ez dut iñor ebazten. 16 Ta ebazten ba'dut, yatoíra da, bai, nere epaya; bakaírik ez nago-ta; bidali naun Aita Nerekin baitago. 17 Ta zuen legean idatzita dago bi gizonen aitoíra yatoíra dala. 18 Oí ba, Neronentzaz Neronek aitoí dagit, eta Nitzaz aitoí ere dagi bidali naun Aitak».

19 Ordun dasayote: «Non dago zure Aita?» Yesu'k erantzun zien: «Ez Ni, ezta nere Aita ere ez gaituzute ezagun. Ezagun ba'niñuzute, nere Aita ere ba-zenezagukete».

²⁰ Itzok altxorategian Yesu'k esan zitun, yauretxean irakaski; ta ez zun inork atzi, Aren garaya oraindik etori ez zalako.

Siñesteko gogoñei zema

²¹ Beñiro Yesu'k esan zien: «Ni ba-noa, ta nere bila zebiltzakete. ta zuen ogenarekin ilko zerate. Ni noan tokira zuek ezin etori.

²² Beraz, yuduek zerasaten: «Bere burua ilko ote dik? Ni noan tokira zuek ezin etori», zioke-eta».

²³ Baña Berak esan zien: «Zuek beitikoak zerate; Ni goitikoa naiz; zuek lu' ontakoak zerate; Ni ez naiz lu' ontakoa. ²⁴ Zuen ogenekin ilko zeratela esan dizuet; nor naizan siñesten ez ba'didazute, zuen ogenekin ilko zeratelako».

²⁵ Beraz, ziotsaten: «Nor zera Zu?»

Yesu'k esan zien: «Zer ari naiz asieratik zuei esaten gero? ²⁶ Izan ere, zuetan ba-dut eruz zer esan ta baita zer ebatzi ere. Baña bidali nauna ziña da, ta Nik Berari entzuna gizadiari diotsat».

²⁷ Ayek ez zuten igari Aitaz mintzo zitzayela. ²⁸ Beraz, Yesu'k esan zien: «Gizasemea gora yasoko duzutenean, yakingo duzute nor naizan Ni, ta nere buruz ezer egiten ez dudala; Aitak, ordea, irakatsi didanez, diodana diodala. ²⁹ Bidali nauna Nerekin dago

25 Baita: «asieratik esaten ari naizena» (orixe naiz). Irakurgai iluna, baña gutxi gora bera, danen edo geyenen ustez auxe esan nai duna: Ez naiz besterik asieratik diozuedana baño, edo, oso osorik, zintzo zintzo, esan dudana Berbera naiz. Latinezkoak itzez itz biurtu zutelako *Principium, qui et loquor vobis*, askok ez dute ondo ulertzen.

28 Gora yaso, au da, gurutzean. Yo. 3, 14; Lk. 22, 48; Bid. 2, 39.

ta ez nau bakañik utzi, Berak atsegin duna Nik beti egiten dudalako».

30 Itzok adituta lagun askok siñetsi zioten.

Yainkoaren semeak eta txerrenkumeak

31 Siñetsi zioten yuduei, beraz, Yesu'k zesayen: «Nere esanetan ba'dirauzute, ziñez nere ikasle izango zerate, 32 ta egia dazagukezute, ta egiak yaregingo zaituz».

33 Erantzun zioten: «Abrahan'en ondorengo gera ta egundaño ez gera iñoren yopu izan. Zertako diozu, ba; yarei izango zerate?»

34 Yesu'k erantzun zien: «Zin ziñez dasaizuet: ogen dagiña, ogen-yopu da. 35 Yopua, beñiz, ez dago etxean betiko; semea, bai, betiko dago. 36 Beraz, Semeak yaregingo ba'ziñuz, ziñez yarei izango zerate. 37 Ba-dakit Abrahan'en ondorengo zeratela; baña bizia kendu nai didazute, nere itza zuengan gatzatzen ez dalako. 38 Nik nere Aitarengan ikusi dudana daraust; zuek, beñiz, zuen aitarengan ikusi duzutena dagizute».

39 Yardetsi ta esan zioten: «Gure aita, Abrahan da».

Yesu'k dasaye: «Abrahan'en seme ba'zerate, Abrahan'ek zekionari zuek ere zenekiokete. 40 Zuek, beñiz, Yainkoari entzun diodan egia esan dizuedalako, bizia kendu nai didazute. Ori ez zun Abrahan'ek egin. 41 Zuek zuen aitaren eginbidetik zabiltzate».

Ayek esan zioten, beraz: «Sasikume ez gera gu; Yainkoa beste aitarik ez dugu».

42 Ordun Yesu'k esan zien: «Yainkoa zuen aita

ba'liz, Nerau maite izango niñukezute, noski; Yainkoagandik soñtu ta etoñi naiz-ta. Ez naiz, ba, nere buruz etoñi, Berak bidalita baño. ⁴³ Zergatik ez duzute nere izkuntza ulertzen? Nere itza ezin yasan duzutelako. ⁴⁴ Txerénkume zerate zuek, ta zuen aitaren asmoak bete nai dituzute. Gizeraile zan astetik bera, ta ez zan egian sendorik egon, egirik arengan ez baitago. Gezuña dario-nean. berebizikoa dario; gezuñtia da, ba, ta gezuñaren aita. ⁴⁵ Nik, oster, egia dasaizuet, eta zuek ez didazute siñesten. ⁴⁶ Zuetan nork ogen bat ere egotzi lezaidake? Egia ba'dasaizuet, zergatik ez didazute siñesten? ⁴⁷ Yainkoagandik danak, Yainkoaren itza ba-dantzuzuek; zuek, beriz, ez dantzuzute, Yainkoagandik ez zeratelako».

Yainkoaren Semea Yesu dala

⁴⁸ Ordun yuduek yardetsi ta esan zioten: «Ez ote ziokagu bidez, samariaña aizala ta txerén dukala?»

⁴⁹ Yesu'k erantzun zien: «Txerénik ez dut Nik; aitzitik, Nik nere Aita goستن dut, eta zuek nardatu egiten nauzute. ⁵⁰ Ez nabil, oratiño, nere ospe bila; ba-dago bere gain ori arñtu ta nere alde yaikiko dana. ⁵¹ Zin ziñez dasaizuet; iñork nere itzari eusten ba'dio, ez du eriotzarik bein ere txastatuko».

⁵² Yuduek esan zioten: «Onezkero, ba-zezagukagu txerén dukala. Abraham il ukan, baita igarñleak ere; ta ik diok: iñork nere itzari eusten ba'dio, ez du eriotzarik bein ere txastatuko. ⁵³ Gure aita Abraham baño aundiagoa al aiz? Ura il ukan, baita igarñleak ere il itukan, ba. Nor aizalakoan ago?»

54 Yesu'k erantzun zien: Nere burua Neronek gores-
ten ba'dut, nere goretsa ezer ez da; goresten nauna,
beñiz, nere Aita da, zuen Yainkoa dala zuek diozutena
Bera. 55 Zuek ez duzute Bera ezagun; Nik, ordea,
ba-dazagut, eta ez dazagudala ba'nio, zuek bezain
gezu'rti nintzake. Baña ba-dazagut, eta Aren esana ba-
-dagit. 56 Zuen aita Abraham nere eguna ikusteko iríkan
egon zan; ikusi zun ta poztu zan».

57 Yuduek esan zioten: «Berógei ta amár urte ez
dituk, eta Abraham ikusi dukala?».

58 Yesu'k esan zien: «Zin ziñez dasaizuet: Abraham
so'rtu izan baño len ba-naiz Ni».

59 Ordun ariak artu zituten Ari iraitzeko; baña Yesu
ostendu ta yauretxetik irten zan.

IX

Yayotzez itsua

Ziyoala, gizon bat ikusi zun yayotzez itsu. ² Ta
ikasleek galdetu zioten: «Rabbi, ori itsu yayotzeko
zeñek ogen egin zun? o'ek ala o'eren gurasoek?»

³ Yesu'k erantzun zien: «Ogenik ez du o'ek egin,
ezta o'eren gurasoek ere; Yainkoaren egitea o'rengan ageri
bea' da, ordea. ⁴ Eguna daño, bidali naunaren egite-
koetan ari bea' naiz; arátsa ba-dato', ta artan iñork
ezin lanik egin du. ⁵ Gizartean nagoño, gizargi naiz».

⁶ Au esanda, tu egin zun lu'era, ta loya lixtuz egiñik,

⁴ Eguna=bizitza; arátsa=eriotza.

begiak loyez igurtzi zizkion. ⁷ ta esan zion: «Zoaz ta Siloe'ko urtegian garbi zaitez». (Siloe ta bidalia berdintsu dira gero). Itsua, beraz, yoan, ikuzi ta ikustun itzuli zan.

⁸ Auzokoek eta eskean ibiltzen gizon ura len ikusi zutenek zerasaten: «Ez al duk au eseri ta eskean egon oi zana?» ⁹ Batzuk: «Bai, auxe duk», zioten; bestetzuk: «Ez, aren antzeko bat baño».

Berak, ordea: «Berberaxe nauk», zion.

¹⁰ Beraz, ziotsaten: «Begiak nola argitu dizkik?»

¹¹ Erantzun zien: «Yesu zeritzakan gizonak, loya eginda, begiok igurtzi ta esan zidak: Zoaz Siloe'ko urtegira, ta ikuz zaitez. Ara yoan, beraz, ta ikuzita, ba-zekuskat».

¹² Ta «non zegok alako ura?» baitziotsaten, dasaye: «Ez zekikat».

¹³ Itsu izana parisaitarengana daramate. ¹⁴ Larunbata zan gero, loya eginda Yesu'k begiak argitu zizkionean. ¹⁵ Beñero, ba, parisaitarek itandu zioten nola ikustun egiña zan, ta ark esan zien: «Loya begi gañean ezañi dit: nik ikuzi ditut, eta ba-dakust». ¹⁶ Ordun parisaitar batzuk zioten: «Ez dugu Yainkoagandik alako gizona; larunbata ez baitu yai egiten». Baña bestetzuk zioten: «Alatzok ogenlarik nola legizke?» Ta bayezta soñtu zan ayen artean. ¹⁷ Beraz, itsuari beñero diotsate: «Begiak argitu dizkikan oñetzaz zer diok eroñek?» Ark erantzun zien: «Igañle dala».

¹⁸ Yuduek ez zuten, ordea, siñetsi gizon ura argitutako itsua zala, ikustun beñiaren gurasoak deitu arte.

¹⁹ Galdetu zieten, beraz: «Au al da itsu yayo zala diozuten zuen semea? Nola, ba, orain ba-dakus?»

²⁰ Aren gurasoek erantzun ta esan zieten: «Au gure semea dala ta itsu yayo zala ba-dakigu. ²¹ Zer dala-ta, orain dakusanik, ordea, ez dakigu, ezta begiak nork argitu dizkionik ere. Berari galde egiozute; adiña ba-du; berak bere buruaz itz egin beza». ²² Orela aren gurasoak mintzo ziran, yuduen beldur ziralako. Orduko, ba, yuduak elkartuta zeuden Kisto'tzat Yesu aito'rtuko lukena sinagogatik iraitzeko. ²³ Oregatik itsuaren gurasoek esan zuten: «Adiña ba-du; berari galde egiozute».

²⁴ Itsu izanari, beraz, be'iro deitu ta esan zioten: «Yainkoari aintza emayok. Ba-zekikagu arako gizon ura ogenlari dukala».

²⁵ Ark erantzun zien: «Ogenlari ote dan ez dakit; au baka'rik dakit; itsu izanda, orain ba-dakusadala».

²⁶ Esan zioten: «Zer egin zikan? begiak nola argitu zizkikan?»

²⁷ Erantzun zien: «Len ere esan dizuet, eta ez didazute siñetsi. Zertako, ba, be'iz entzun nai duzute? Zuek ere Aren ikaslae egiteko gogotan al zaudete?»

²⁸ Ordun birao egin ta esan zioten: «Akio ikasle i. Gu, ordea, Mois'en ikasle gaituk. ²⁹ Guk ba-zekikagu Mois'i Yainkoak itz egin ziokala; o'ako ori, ordea, ez zekikagu nondik dukan».

³⁰ Gizonak yardetsi ta esan zien: «Auxe da gero a'itzekoa; zuek nongoa danik ez dakizute, ta Berak

²² Yuduen beldur. Yon'ek yuduen izenez emen yuduen agintari edo nagusiak adirazten ditu.

begiok argitu dizkit. ³¹ Badakigu, óratiño, ogenlariei Yainkoak ez dantzuyela; norbait, beñiz, yainkozale ba'da ta Aren gogoa egiten ba'du, alakoari, bai dantzuyola. ³² Luía luí danetik ez da bein ere entzun itsu yayoari begiak iñork argitu dizkionik. ³³ Yainkoagandik Bera ez ba'liz, ezin ezer legike».

³⁴ Yardetsi ta esan zioten: «Ogen utsik yayo intzan, ta irakasten ere ba al atoíkigu?» Ta andik yaurti zuten.

³⁵ Gizona andik yaurti zutela Yesu'k entzun zun, ta idoro zunean, esan zion: «Gizasemearen siñestea bai al duzu?»

³⁶ Ark erantzun ta esan zion: «Yauna, nor da Beragan siñesteko?» ³⁷ Yesu'k esan zion: «Ikusi ere egin duzu, ta zurekin darausana beraxe da».

³⁸ Ta ark esan zion: «Siñesten dut, Yauna». Ta auzpeztu egin zitzayon.

³⁹ Ordun Yesu'k esan zun: «Bereizteko etoíi naiz Ni gizarte ontara; ez dakustenek ikusi dezaten, ta dakustenak itsutu ditezan».

⁴⁰ Arekin zeuden parisaitaí batzuk au entzunda esan zioten: «Gu ere itsu ote gera?» ⁴¹ Yesu'k esan zien: «Itsu ba'ziñate, ogenik ez zenukete. Orain, beñiz, «Badakusagu», diozute. Or ba, zuen ogena».

³⁹ Ez dakustenek...Ikusi nai dutenek eta argiaren bila zintzo dabilzanek ikusiko dute; bañan afoak eta beren ustez dakustenak. argiaren aúrean itsutuko dira.

X

Artzai Ona

Zin ziñez dasaizuet: artegian atetik saítu beárean, beste iñondik yauzten dana, mausari ta lapur da. ² Atetik saítzen dana, beíz, artzaya da. ³ Oni atezayak atea zabaltzen dio, ta aren mintzoa ardiek ba-dazagute, ta berak bakoitzaren izenez bere ardiak deitu ta laéra ateratzen ditu, ⁴ ta ardi guziak ateratzean, ba-doa ayen auretik, eta ardiak ba-daíazkio, aren mintzoa dazagutelako. ⁵ Arotzari, beíz, ez daíazkioke, aitzitik, iges egingo diote, arotzen mintzoa ez dazagutelako».

⁶ Alegi au Yesu'k egin zien: ayek, ordea, ez zuten ulertu zer zesayenik. ⁷ Beíro, beraz, Yesu'k esan zien: «Zin ziñez dasaizuet: ardi-atea Ni naiz. ⁸ Etoíri diran guziak mausari ta lapur ziran, ta ez zieten ardiek aditu. ⁹ Atea Ni naiz. Nigandik norbait saítzen ba'da, yaregingo da, ta sar-irtenak eta laéak aukeran aurkituko ditu. ¹⁰ Mausaria ez da etortzen, ostu; il ta sakailtzeko baño; Ni, bizia dezaten ta gainezka dezaten, etoíri naiz. ¹¹ Artzai Ona Ni naiz. Artzai onak bere bizia bere ardien alde ematen du. ¹² Moíoyak, beíz, ardien yabe ez dan artzayak, otsoa etortzen ikusitakoan, ardiak utzi ta iges egiten du; ta otsoak artaldea sakaildu ta sakabatatzen du. ¹³ Moíoya, ordea, moíoi dala-ta, ardiak bere gain ez baititu, iges diyoa. ¹⁴ Artzai Ona Ni naiz, ta nereak ba-dazaguzat, eta nereek ba-nazagute. ¹⁵ Alaxe

Aitak nazagu, ta Nik Aita dazagut, eta nere bizia ardien alde ematen dut. ¹⁶ Saletxe ontako ez diran beste ardi batzu ere ba-ditut. Auek ere ekaítzea dagokit; eta nere mintzoa dantzukete, ta ez da izango artalde bat eta artzai bat baño. ¹⁷ Argatik ere Aitak maite nau; nere bizia beíz artzeko ematen dudalako. ¹⁸ Ez dit inork kentzen; Neronek neronez erazten dut; bera erantzi ta beíro artzeko ere eskubidea dut-eta. Agindu au nere Aitagandik artu dut».

¹⁹ Itzok zirala bide, bayezta beíro yudutartean soítu zan. ²⁰ Ayetako askok zioten: «Txerén dik eta burutik egiña zegok. Zertako dantzuyozute?» ²¹ Beste-tzuk, ordea, zioten: «Itzok ez dituk txeréndunarenak. Itsuen begiak txerének argitu al zitzakek?»

Adeluak eta

²² Adeluak eldu ziran Yerusalen'en, ta negu zan. ²³ Yesu yauretxean ibili zebílan Salomon aterpean. ²⁴ Beraz, yuduek inguratu ta esan zioten: «Noiz arte zalantzan gaitukezu? Kistoa ba'zera, esaiguzu zabal zabal». ²⁵ Yesu'k erantzun zien: «Esan ere egin dizuet, eta ez duzute sínesten. Nere Aitaren izenean burutzen ditudan egiñek Nitzaz aito' dagite. ²⁶ Baña zuek ez duzute sínesten, nere ardietakoak ez zeratelako. ²⁷ Nere ardiek nere mintzoa ba-dantzute, ta Nik ezagun ditut, eta ba-daíraizkit. ²⁸ Betiko bizia ere ba-damayet; eta ez

²² **Adelu-yaya** Zerbait egiña dan artarako lenbizikotz erabiltzen asi dugunean, zerbait oren **adela** dugu. Yauretxe beíriaren adela oroitzeko, yuduek yai au urte oro egiten zuten Kasleu'ren 25'ean.

dira betiko galduko, ta inork ez dizkit eskutik kenduko. 29 Eman dizkidan Aita, danik aundiena da, ta inork ezin kendu ditu nere Aitaren eskutik. 30 Aita ta biok bat gera».

31 Ordun yuduek ariak beiro artu zituten Bera arikatzeko. 32 Yesu'k yardetsi zien: «Egite on asko erakutsi dizkizuet nere Aitaketz; ayetako zeñengatik arikatzen nauzute?» 33 Yuduek erantzun zioten: «Egite onaen ez; biraoagatik arikatzen zaitugu, ta, gizon izaki, Yainkatzat zatozkigulako». 34 Yesu'k erantzun zien; «Ez ote dago zuen legean idazita: **Neronek esandut: Yainko zerate?** 35 Yainkoak zerauskien ayei Yainko izena ezañi ba zien, (ta Idatzia ezin ezabatu da), 36 Aitak deunetsi ta gizartera bidali dunari zuek «birao dagik,» dasayozute, «Yainkoaren Seme naiz» esan dulako? 37 Nere Aitaren eginbeaak egiten ez ba'ditut, ez Niri siñetsi. 38 Bañan egiten ba'ditut, Niri siñesten ez didazuten ezkerro, egiñei siñetsiezute, Aita Nigan ta Ni Aitarengan gaudela ezagun ta siñetsi dezazuten».

39 Ordun ere Bera atzi nai zuten; bañan eskutik igesi zitzayen, 40 ta Yordan igarota, lengoan Yon uzuzketan zegon bazteretara itzuli ta an gelditu zan. 41 Ta lagun asko Arengana etoñita zioten: «Yon'ek ez zikan, noski, alatzik bat ere egin. Bañan Onetzaz Yon'ek esanak oro egi itukan». Ta Aren siñestera askok an yo zuten.

30 Izatez, bat; nortasunez bi.

34 Er. LXXXI. 6

XI

Lazar'en berpiztea

Lazar zeritzan Betania¹ bat, Mari ta Marta aizpaen etxaldekoa, gaxorik zegon. ² Mari, beñiz, Yauna gantzuññez iguítzi ta bere adatsez oñak legoítu zizkiona zan; ta aren neba Lazar gaxorik zegon. ³ Orí ba, aizpaok Yesu'ri gezna bidali zioten, esanaz: «Yauna, maite duzuna gaxorik dago». ⁴ Yesu'k adituta esan zun; «Ez da au eriotzarako gaitzaldi; Yainkoaren aintzarako baño, ta aren bidez Yainkoaren Semea goretsia izan dedin».

⁵ Yesuk, beñiz, Marta ta aren aizpa Mari maite zitun. ⁶ Ta Lazar gaxorik zegola entzundakoan, andik irteteke bi egunez gelditu zan. ⁷ Gero bere ikasleei esan zien: «Goazan Yudai'ra beñiz ere». ⁸ Ikasleek diotsate: «Rabbi, yuduek arestixean Zu ańikatu nai, ta beñiro ara al zoaz?»

⁹ Yesu'k erantzun zien: «Amabi ez al dira egunaren orduak? Egunez dabilana, ez da aurikatzen, lu' ontako argia dakusalako; ¹⁰ gauez dabilana, ordea, argirik arentzat ez baitago, aurikatzen da».

¹¹ Oréla mintzatu ondoan, bere ikasleei esan zien: «Lazar, gure adiskidea, lo dago; bañan esnatzera noakio».

¹² Bere ikasleek esan zioten: «Yauna, lo ba'dago, sendatuko da», ¹³ Aren eriotzaz Yesu'k ori zion, ordea,

ta lo-atsedenaz ziola ayek uste zuten. ¹⁴ Beraz, Yesu'k ordun zabal zabal esan zien: «Lazar il da; ¹⁵ ta an ez egonaz pozten naiz zuengatik, siñetsi dezazuten. Goazan, ba, arengana».

¹⁶ Didima oi zeritzan Toma'k ikaskideei esan zien: «Goazan gu ere Arekin iltzeko».

¹⁷ Ara elduta, Yesu'k Lazar aurkitu zun lau egun ezkerro ilobiratua. ¹⁸ Yerusalen'dik Betani amabosten bat estadi alde zan, ¹⁹ ta yudu ainitz ara etoñiak ziran Marta ta Mari'rengana, nebarengatiko samiña ayei arintzeko.

²⁰ Yesu zetoñela entzunda bereala, Arengana Marta irten zan; Mari, beñiz, etxean eserita zegon. ²¹ Marta'k, beraz, Yesu'ri esan zion: «Yauna, emen izan ba'ziña, ez zan nere neba ilko. ²² Orain ere ba-dakit oñatiño, edozer Zuk eskatuta, Yainkoak ba'damaizukela».

²³ Yesu'k diotsa: «Piztuko da zure neba».

²⁴ Marta'k dasayo: «Ba-dakit beñpiztaldian piztuko dala».

²⁵ Yesu'k esan zion: «Pizte ta bizitza Ni naiz. Siñestun zaidana, il izanda ere, biziko da; ²⁶ ta siñestun zaidala bizi dana, ez da betidañokoan ilko. Au siñesten al duzu?»

²⁷ «Bai, Yauna,» dasayo; «siñetsita nago Kistoa, Yainkoaren Semea luñ ontara etoñia, Zu zerala».

²⁸ Au esanda, etxera itzuli zan, ta bere aizpa Mari'ri aopean deitu ta esan zion: «Irakaslea emen zeukanagu, ta Arengana yoateko». ²⁹ Entzunda berealaxe, Mari

18 Amabost estadi=iru kilometro edo.

yaiki ta Arengana azkar' yoan zan. 30 Etxaldera Yesu ez zan oraindik eldua, ta Marta'k yarugi zun tokian oraindik zegon. 31 Abazuzan Mari yaiki ta irten zala ikusita-koan, berari samina arintzen etxean zeuden yuduak yari zitzazkion, ilobira negar' egiteko ziyoalakoan.

32 Bitartean Mari, Yesu zegon tokira eldu ta Bera ikusi zuneko, onetara erori zitzayon, esanaz: «Yauna, emen izan ba'zina, ez zan nere neba ilko».

33 Yesu'k bera negarez; ta arekin etoritako yuduak ere negarez ikustean, biotzetik adia egin ta atsekabe aundia artu zun, 34 ta, esan zien: «Non yari duzute?»

«Yauna», diotsate, «zatoz ta ikusazu».

35 Yesu'k negar' egin zun; 36 ta yuduek zioten: «Ora zeinbeste maite zun!» 37 Ayetako batzuk, ordea, esan zuten: «Itsu yayoari begiak argitu zizkion Onak, ezin al zegiken au ez iltzea ere?»

38 Beraz, Yesu, biotzetik adia beiro eginaz, ilobira dator. Izan ere, obi bat zan, ta aren ganean ari bat zetzan. 39 Yesu'k dio: «Yaso aia».

Marta'k diotsa: «Kiratsa dario; lau egun ezkerro dago-ta».

40 Yesu'k dasayo: «Ez al dizut esan, sinesten ba'duzu, Yainkoaren aintza ikusiko duzula?» 41 Beraz, aia yaso zuten, ta Yesu'k begiak goruntz biurturik, esan zun; «Aita, esker' dagizut aditu nauzulako. 42 Ba-nekin, noski, beti aditzen nauzula; bana baranoan dagozkidan auengatik esan dut, Zuk bidali naula sinetsi dezaten».

43 Ta au esanda, oyu egin zun ozengi: «Lazar, irten ortik». 44 Ta bertantxe, il zana ilki zan, oin-eskuak

lotuta ta aurpegia miesaz estalita. Yesu'k esan zien: «Askatu ezazute ta yoaten utzazute».

45 Añezkero, Mari'gana etoñitako yudu askok, Yesu'k egiña ikusita, Aren siñestera yo zuten. 46 Ayetako batzuk, ostera, parisaitařengana yoanda, Yesu'k egin zuna esan zieten.

Yesu'ren eriotza Sanedrinek erabakita

47 Ordun apaizpuru ta parisaitařek batzařea bildu zuten ta zerasaten: «Zer ari gera? alatz asko gizon ořek egiten ditu-ta? 48 Onela uzten ba'dugu, guziek siñetsiko diote, ta eřomařek etoñi ta luř ta eřia pořokatuko dizkigute». 49 Bañan, ayetako batek, urte artan apaiz nagusi zan Kaipa'k esan zion; «Zuek ezer ez dakizute. 50 Ez zerate oartu ere, eři osoaren orde, gizon bat bakařik iltzea obe dugula, eři osoa galtzea baño». 51 Ez zun, gero, berez ori esan; bañan urte artako apaiz nagusia baitzan, eři osoaren alde Yesu il beařa zala igaři zun. 52 Ta ez eřiaren alde bakařik, baita Yainkoaren seme bařeyatuak bildu zitzan ere. 53 Beraz, Ura iltzeko egun artatik erabakita zeuden.

54 Au zala bide, Yesu ez zan añezkerotik yuduen artean agirian ibiltzen; Eprain deritzan irira andik bazteřtu zan, ordea, ta, antxe, baso ondoko bazteř artan, bere ikasleekin zegon.

55 Yuduen Paska, beřiz, auřki zala-ta, bazteřalde artako lagun asko Paska auřean Yerusalen'a, beren garbiketarako igo ziran, 56 ta Yesu'ren bila zebiltzan, elkaři yauretxean zerasayotelarik: «Zer deritzazute?»

yaitara ez duk etoñi-ta». ⁵⁷ Apaizpuru ta parisaitaiek, beñiz, aldañi egin izan zuten, Yesu non zegon norbaitek ba'leki, agertzeko, Bera atzi zezaten.

XII

Betani'ko bazkaria

Paska-auñeko seigañen egunean Betani'ra Yesu yoan zan. ¹ Il ta Yesu'k piztutako Lazar an bizi zan, ² ta bazkari bat Yesu'ri eskeñi zioten. Marta ari zan mirabe, ta bazkaldañetan Lazar Yesu'rekin zetzan. ³ Mari'k, beñiz, libra bat akaruriñik bikañen añtuta, oñak Yesu'ri igurtzi ta bere adatsez legoñtu zizkion; ta urin usañez etxea bete zan. ⁴ Beraz, Aren ikasleetako batek, iruzur' egingo zion Yuda Iskariot'ek, esan zun: ⁵ «Zergatik urin au ez da irureun denaritan saldu, landeñei saria emateko?» ⁶ Ez zun, ordea, landeñen ayolagatik au esan; lapuñra zalako, ta, zizkua baitzeukan, sañkiñak ostu oi zitulako baño. ⁷ Baña Yesu'k esan zion: «Utziozu; nere obiratze egunerako gertuta baitzeukan. ⁸ Landeñak, ba, beti dauzkazute zuekin; Ni, beñiz, ez naukazute beti».

⁹ Yesu an zegola yudu ainitzek yakinda, ara yo zuten, Yesu'rengatik ez ezen, Berak ilartetik piztutako Lazar ikusteko ere. ¹⁰ Apaizpuruek, beñiz, Lazar ere iltzea asmatu zuten, ¹¹ ura zala bide, yudu ainitzek ara yo ta Yesu'ren siñestea añtzen zutelako.

5 Irureun denari=irureun pezeta edo.

Yerusalen'a sañera

¹² Biaramunean, yaitara etoñitako gizatalde izugaña, Yerusalen'a Yesu zetoñela entzunik, ¹³ palma-adañak añtu ta bidera irten zitzazkion deadañka: «Hosanna! Gora Yaunaren izenean datoñkigun Israel'go Eñege!»
¹⁴ Yesu, beñiz, astotxo bat idorota, gañean eseri zan, idatzita dagonez:

**¹⁵ Ez izutu, Sion'go alaba ori.
 Oñ datoñkizu zure Bakalduna
 astakume gañean yañita».**

¹⁶ Ez zuten au Aren ikasleek ordukotz ezagun; bañan Yesu goretsia izan ondoren, Artzaz idatzita zegola ta berek burutu zutela oañtu ziran. ¹⁷ Oñela, Yesu'k obitik Lazar deitu ta ilartetik piztu zunean, Arekin egonek aitoñ zegoten, ¹⁸ ta argatik ere, alatz ori egin zula entzun zutelako, lagunabañak bidera irten zitzazkion.
¹⁹ Parisaitañek, beñiz, elkañi zerasayoten: «Ba dakusazute. Ez duzute ezer iristen. Oñ guziak Oñen atzetik diyoaz».

Atzeñitañak Yesu'rekin

²⁰ Yayetan yaurestera etoñietan elendañ batzu ba-ziran. ²¹ Auek Galilai'ko betsaidañ Pilipe'gana alderatu ta añen zegoten, esanaz: «Yauna, Yesu ikusi nai dugu».
²² Pilipe'k Ander'engana yo ta diotsa; ta biok, Ander ta Pilipe'k, Yesuri diotsate. ²³ Yesu'k erantzun zien, esanaz:

«Gizasemea goretsia izan dedin garaya eldu da. ²⁴ Zin ziñez dasaizuet: galazia luécan erori ta iltzen ez ba'da, bakañik gelditzen da; bañan iltzen ba'da, zitu ugari dakañ. ²⁵ Bere bizia luáldi ontan nardatzen dunak, betiko daukake. ²⁶ Iñor moñoi yañtzen ba'zait, nere ondotik betoñ, ta Ni nagon tokian dagoke nere moñoi ori ere. Iñor moñoi yañtzen ba'zait, nere Aitak goratuko du. ²⁷ Orain lañi dut gogoa, ta zer dioket? Aita, inka ontatik atera nazazu. Oñexegatik ere inka ontara etoñi naiz. ²⁸ Aita, zure izena goretsazu».

Ordun ots au ortzitik etoñi zan: «Goretsi dut, eta bai goretsiko ere». ²⁹ An zegon eñiak, otsa entzunda, ostotsa zala zion; bestetzuk zioten: «Aingerua mintzo zayok». ³⁰ Yesu'k yardetsi ta esan zien: «Ez da ots au Nigatik etoñi, zuengatik baño. ³¹ Orain gizauzia erabakitzen da; orain gizarte onen nagusia alde yaurtia izango da. ³² Ta Nik, luéetik gora ezkerro, dana Neronengana ekañiko dut». ³³ Au, beñiz, zion, zelako eriotzaz ilko zan adirazteko.

³⁴ Gizataldekoek erantzun zioten: «Betidañokoan Kisto'k diraukela legetik entzunda gaude gu. Nola, ba, diozu: «Luéetik gora beaía da Gizasemea? Nor da Gizaseme ori?» ³⁵ Yesu'k esan zien: «Oraindik apuñ bateko argia zuen erdian dago. Zabiltzate argia duzuteño, ilunaldiak añ ez zaitzazan; iluntan dabilanak nora doan ez daki-ta. ³⁶ Argia duzuteño, argiari siñetsiozute, argi-
-seme izateko».

Au esanda, Yesu andik irten ta ostendu egin zan.

Yuduen siñesgabea

37 Orenbesteko alatzak ayen auíean Berak eginda ere, Aren siñestera ez zetozan, 38 Isai igaríleak esana bete zedin:

«Yauna, gure gezna nork siñetsi?

Ta nori ageri zayo Yaunaren besoa?»

39 Ezin siñetsi zuten, beríz, siñetsi beste nonbait Isai'k dionagatik:

40 Ayen begiak itsutu

ta ayen biotzak mokoítu ditu,

begiz ikusi ta biotzez zuírtuz,

senera ez datozan

ta sendatu ez ditzadan».

41 Au Isai'k esan zun, Aren aintza ikusi ta Artzaz itz egin zunean.

42 Ala ere, nagusietako askok Aren siñestea arítu zuten; baña parisaitaríngatik ez zuten aitoírtzen, sinagogatik iraitzi ez zitzaten, 43 Yainkoaren aintza baño gizauírekoa maiteago zuten-eta. 44 Beraz, Yesu'k ots egin ta esan zun: «Siñesten didanak, ez dit Niri siñesten, bidali naunari baño. 45 Ta nakusanak, bidali nauna dakus. 46 Gizartera Ni argitzat etoíri naiz luíera, nere siñestun bat ere iluntan ez datzan. 47 Ta norbaitek,

38 **Yaunaren besoa** = Yaunaren indaía, alatzetan ageri dana. Is. LIII, 1.

40 Ez zutela siñetsi naiko yakiñáren, Yaunak argia eman zien, eta argiak itsutu zitun, Yaunak itsutu ba'litu bezela, Aita, batek semearen okerkeria ikusita bailion: «Or duk dirua; onda adi». Itzokin ez luke bere aitak bere asmoa erakutsiko, semeak ematen dion maigabea baño. Is. VI, 9.

nere itzak entzunda, betetzen ez ba'ditu, ez dut alakoa Nik ebazten. Ez naiz, ba, gizartera eto'ri gizakumeak ebaztera, gaizkatzera baño. 48 Ba-dago astatzen naunarentzat eta nere itza betetzen ez dunarentzat ebatzi dukena. Nik egindako itzak berak, alakoa ebatziko du azken egunean. 49 Ez dut, ba, Neronek Neronez ezer esan; bidali naun Aitak agindu dit, ordea, zer esan ta zer azaldu bea'í dudan. 50 Ta ba-dakit Aren agindua betiko bizitza dala. Nik diodana, Aitak esan didanez diot, ba».

XIII

Azken apalondoan: oin-ikuzketa

Paska yai au'ean, Yesu'k, Aitarengana gizarte ontatik itzultzeko garaya eldu zayola yakiñik, gizarte ontan zeuden bereta'ak maite izan ezkerro, azkeneraño maite izan zitun.

2 Aparia egiña zan, ta txer'enek ordukotz Simon Iskariot'en seme Yuda'ren biotzean Yesu etsayei emateko asmoa sa'rtuta zeukan. 3 Yesu'k, be'riz, dan dana Aitak eskuetara eman ziola, ta Yainkoagandik Bera irten ta Yainkoagana yoateko zala yakiñik, 4 aparitik yaiki, bere txabuxa erantzi, ta miesa bat a'rturik, ge'rian yantzi zun. 5 Gero aspil batean ura botata, asi zan ikasleen oñak kuzten ta ge'ritik zeka'ren miesaz lego'rtzen. 6 Ba-dato' Simon Kepa'rengana, ta onek diotsa: «Yauna, oñak niri Zuk ikuzi?» 7 Yesu'k yardetsi ta esan zion: «Dagidana, orain ez dakizu; gerokoan yakingo duzu,

ordea». ⁸ Kepa'k dasayo: «Betidañokoan ere ez dizkidazu oñak ikuziko». Yesu'k erantzun zion: «Ikuzten ez ba'zaitut, ez duzu Nerekin erkidegorik izango». ⁹ Simon Kepa'k dasayo: «Yauna, oñak ez ezen, baita eskuak eta burua ere». ¹⁰ Yesu'k diotsa: «Ikuzita dagonak, oñak besterik ez du ikuzi bear; oso garbi dago-ta. Zuek, noski, garbi zaudete; ez, ordea, guziok». ¹¹ Ba-zekin, ba, Bera etsayei zemayena nor zan. Argatik esan zun: «Ez zaudete guziok garbi».

¹² Oñak ayei ikuzi ta bere yazkiak artuta, beñiro etzan zanean, esan zien: «Ba al dakizute zer egin dizuedanik? ¹³ Zuek Irakasle ta Yauna diostazute; ta ederki diozute, ala naiz-ta. ¹⁴ Beraz, Yaun ta Irakasle natzai-zuen Onak oñak ikuzi ba'dizkizuet, zerok ere elkañi ikuzi bear dizkiozute. ¹⁵ Eredua erakutsi dizuet, ba, Nik egin dizuedanez, zuek ere dagizuten. ¹⁶ Zin ziñez dasaizuet: otseña ez da bere nagusia baño gurenago, ezta bidalia ere bidali duna baño. ¹⁷ Au dakizuten ezkerok, zori ontsu zaitezketekete, berebat eginda».

Yuda'ren iruzuraz

¹⁸ Au ez diot guziongatik; ba-dakit zeintzu autu nitun; bañan idatzitako au,

**Ogia Nerekin yaten dunak
orpoa nere aurka yaso du**

bete beara dala-ta, ¹⁹ oraintxetik dasaizuet gerta baño len, gerta ezkerok nor naizan siñetsi dezazuten. ²⁰ Zin

18 Er. XL, 10

ziñez dasaizuet; Nik bidalia datotsanak Nerau natotsa; ta natotsanak, bidali nauna datotsa».

²¹ Itzok esanda, Yesu'k, biotza lañitan, zabal zabal itz egin ta esan zien: «Zin ziñez dasaizuet: zuetako batek etsaipera namake». ²² Ikasleak, ordun, norengatik ote lioken kezka elkañi so egiten asi ziran, ²³ ta ayetako bat, Yesu'k maite zuna, Yesu'ren bulañ gañean ezañita zetzan. ²⁴ Kepa'k, keñu egiñaz, diotsa: «Adi zak norengatik zioke?» ²⁵ Ark, Yesu'ren bulañari ezañirik, diotsa: «Yauna, nor da?» ²⁶ Yesu'k erantzun zion: «Neuk ogia busti ta emango diodan uraxe». Ta ogia bustirik, Simon Iskariot'en Yuda'ri eman zion. ²⁷ Ta otamen atzetik txeren sartu zitzayon. Ordun Yesu'k diotsa: «Egitekoa laster egizu». ²⁸ Apaldañetako batek ere ez zun, ordea, zertako au esan zionik igañi. ²⁹ Zizkuzaya Yuda baitzan, batzuk uste zuten Yesu'k ziotsala: «Yaitarako beaña erosazu», edo landeñei zerbait emateko. ³⁰ Otamena, beraz, arñu ta berealaxe irten zan. Eta gau zan.

Bereala aldendu beañaz

³¹ Yuda irten zanean, Yesu'k esan zun: «Orain goretsia izan da Gizasemea, ta Yainkoa Arengan goretsia izan da. ³² Yainkoa Arengan goretsia izan ba'da, Bera ere Yainkoak goretsiko du, ta berealaxe goretsi ere. ³³ Semetxook, oraindik apur bateko zuekin nago. Nere

²³ Ayetako bat. Yon bera.

³¹ Orain...Yesu'ren nekaldiaren bidez Aitari ta Yesu'ri osperik aundiena datoñkie.

bila zabilzakete, ta yuduei esan niena, orain zuei ere dasaizuet: Ni noan tokira zuek ezin etoñi. ³⁴ Agindu beñi bat dagizuet: elkar maite ezazute. Maite izan zaituztan bezela, zuek ere elkar maite ezazute. ³⁵ Oñtan ezagungo dute guziek nere ikasle zeratela; zuek elkar maite izatean».

³⁶ Simon Kepa'k dasayo: «Yauna, nora zoaz?» Yesu'k erantzun zion: «Ni noan tokira, zu orain ezin yañai; gerokoan, ordea, yañaike zazkidazu». ³⁷ Kepa'k dasayo: «Zergatik orain ez? bizia ere Zuregatik emango dut». ³⁸ Yesu'k erantzun zion: «Bizia Neregatik zuk emango? Zin zinez dasaizut: ez du olañak yoko, irutan zuk Ni ukatu arte».

XIV

Nora ta zertara Yesu diyoan

Ez bekizue biotza lañitu. Yainkoagandik entzindu zaitzte, ta Nigandik ere entzindu. ² Nere Aitarenean egoitza asko dira. Bestela, ba nesaizueke; tokia zuentzat atontzera noa-ta. ³ Yoanda, beñiz, zuentzat tokia atondutakoan, beñiro natoñke, ta Neregana añtuko zaituzt, Ni nagon tokian zuek ere zaudeten. ⁴ Noan tokirako bidea ere ba-dakizute». ⁵ Toma'k diotsa: «Yauna, nora zoazanik ez dakigu ta bidea nola dakikegu?» ⁶ Yesu'k dasayo: «Bidea, egia ta bizia Ni naiz. Nere bidez baizik, Aitarengana iñor ez datoñ. ⁷ Ezagun ba'niñuzute, nere Aita ere ezagungo zenukete; baita dagoneko ere

³⁴ Agindu beñia. Aginduaren neufia ere beñia dalako: «maite izan zaituztan bezela».

ba-dazaguzute, ta ikusia daukazute». Pilipe'k dasayo: «Yauna, Aita erakuskiguzu, ta naiko guretzat». 9 Yesu'k diotsa: «Onen aspaldi ezkerro zuekin nago Pilipe, ta ez ote nazaguzu? Nakusanak, Aita ere ba-dakus. Nola diozu: Aita erakuskiguzu? 10 Ez al duzute siñesten Ni Aitarengan nagola ta Aita Neregan dagola? Dasaizuedana ez dut Nik Neronez esaten; ta dagidana, Neregan dagon Aitak Berak dagi. 11 Siñetsidazute Ni Aitarengan ta Aita Nerengan gaudela; osterontzean, egiñakatik bederen siñetsidazute. 12 Zin ziñez dasaizuet; nere siñestea dunak, Nik dagidana ez ezen, geyago ere berak dagike; Ni Aitarengana noalako, 13 ta nere izenean Aitari zuek edozer eskatuta, orixe Nik egingo dudalako, Aita Semearengan goretsi dedin. 14 Zerbait Niri zuek nere izenean eskatuta, Nik egingo dut.

15 Maite ba'nauzute, nere aginduak bete itzazute; 16 ta, Nik eskatuta, beste Pozemale bat Aitak bidaliko dizue, beti zuekin egoteko. 17 Au da Egiaren Atsa, lu'koyek ezin ar'itu dutena, ez baitute ikusten, ezta ezagutzen ere. Zuek, be'riz, ezagungo duzute, zuetan dago-lako ta zuengan egongo dalako. 18 Ez zaituzt zurtzutziko; zuetara ba-nato'rke. 19 Apu' bat ezkerro ez nau gizadi oke'ak ikusiko; zuek, ordea, ba-nakusazute, Ni bizi naiz, ta zuek ere biziko zerate-ta. 20 Egun artan ba-dazagukezute Ni nere Aitarengan, ta zuek, Neregan, ta Ni zuengan gaudela. 21 Nere aginduak euki ta betetzen dituna, orixe da maite nauna. Maite nauna, be'riz, nere Aitak maite izango du, ta Nik maite izango dut, eta ageriko natzayo».

²² Yuda'k, ez Iskariot'ek gero, diotsa: «Zergatik, guri ageri bai, ta bestelakoei ez?» ²³ Yesu'k yardetsi ta esan zion: «Inork maite ba'nau, nere esana beteko du, ta nere Aitak maite izango du; ta órengana gatozke, ta beragan egotez gaudeke. ²⁴ Maite ez naunak, be'riz, nere itza ez du aintzat a'rtzen; ta dantzuidazuten itza, nerea ez da, bidali naun Aitarena baño. ²⁵ Auek esan dizkizuet, zuekin nengola. ²⁶ Bañan Aitak nere izenean bidaliko dun Goteun Pozemaleak dana irakatsiko dizue ta Nik zuei esandako guziak gomutaratuko dizkizue. ²⁷ Gentza uzten dizuet, nere gentza damaizuet; ez giza-yiteak damanez Nik emanda. Ez bekizue biotza la'ritu, ez kankindu. ²⁸ Zuek entzunda esan dizuet: Ba-noa ta ba-nato'rkizue. Maite ba'niñuzute, poztuko ziñakete Aitarengana Ni yoateaz; Aita Ni baño aundiagoa da-ta. ²⁹ Orain, be'riz, gerta baño len esan dizuet, gertatutakoan siñetsi dezazuten. ³⁰ Ez ditut gau'rdanik izketa asko zuekin izango; ba-dato'f, ba, lu'raldi ontako nagusia, ta Neregan ezer ez du. ³¹ Bañan Aita maite dudala ta Aitak agindu didanez ari naizala guziek dazaguten, yaiki ta goazan emendik».

XV

Matsondo ta ayenak

Ni matsondo yato'ra naiz, ta nere Aita nekazaria da. ² Matsik Nigan ez daka'ren ayena erauzi, ta mats daka'rena garbitu egiten du, mats ugariago eka'ri dezan.

²⁸ Ni baño aundiagoa: gizaki naizan aldetik.

³⁰ Nagusia=Satan.

3 Dagoneko, zuek garbi zerate esan dizuedanaren egitez.
4 Egon beti Neregan, ta Ni zuengan. Matsondoan iraun ezik, ayenak berez alerik ezin ekañi dun bezela, ezta zuek ere, Neregan iraun ezik. 5 Matsondoa Ni naiz; matsayenak, zuek. Inor Neregan ta Ni arengan iraun ezkerro, ale ugari dakañ; Ni gabe ezertxo ere ezin egin duzute-ta. 6 Nigan norbait ez ba'dago, ayena bezela erauzi ta igañtuko da, ta añtu ta sutara botako dute, ta eñeko da. 7 Zuek Neregan ta nere itzak zuengan egon ezkerro, nai aña eskazute ta egingo zaizue. 8 Zuek ale ugari ekañi ta nere ikasle izan ezkerro, nere Aita goretsia da. 9 Aitak maite naun bezela, Nik ere maite zaituzt. Irauzute nere maitakuntzan. 10 Nere maitakuntzan diraukezute, nere aginduak betetzen ba'dituzute, Nik nere Aitaren aginduak beteta, Aren maitakuntzan diraudan bezela. 11 Auek esan dizkizuet, nere poza zuengan egon ta zuen poza bete dedin. 12 Au da nere agindua: elkañ maite ezazute, maite izan zaituztan bezelaxe. 13 Maitakuntza aundiagorik inork ez du, bizia adiskide-enganatik ematerañoa baño. 14 Zuek nere adiskide zerate, agintzen dizuedana egiten ba'duzute. 15 Onezkerro ez dizuet yopu esango; nagusiak zer dagin yopuak ez daki-ta. Adiskide esango dizuet, beñiz, nere Aitari entzun diodan guzia erakutsi dizuedalako. 16 Ez nauzute zuek autu; Neuk autu ta berezi zaituzt, ordea, yoanda zuek arnari dakañtuzten, ta zuen arnariak dirauntzat, eta nere izenean Aitari zuek edozer eskatuta, Berak damai-zuen. 17 Au agintzen dizuet: elkañ maite ezazute.

Luíkoyen goótoaz

¹⁸ «Luíkoyek goóto ba'zaituzte, yakizute Ni len goóto izan nautela. ¹⁹ Ayek bezela luíkoi ba' ziñate, luíkoyek berena maite izango lukete; baña, luíkoyen artetik Nik berezita, luíkoyetakorik ez baitzerate, luíkoyek goóto zaituzte. ²⁰ Gomutara ezazute zuei Nik esana: ez da moóoya nagusia baño gurenago. Ni esetsi ba'naute, zuek ere esetsiko zaituzte; nere itza artu ba'dute, zuena ere artuko dute.

²¹ «Baña guzi au nere izenarengatik egingo dizuete, bidali nauna ez dazagutelako. ²² Ez ba'nentor ta itzik egin ez ba'nie, ogenik ez lukete; gauógero, ordea, ez dute beren ogenarentzako zuribiderik. ²³ Goóto naunak, nere Aita ere goóto du. ²⁴ Beste inork egin ez ditun egiñak ayen artean egin ez ba'nitu, ogenik ez lukete; gauógero, ordea, ikusia ikusita, Aita ta biok goóto gaitute. ²⁵ Bete beara bide zan, ordea, ayen legean idatzita dagon au: **ururik goóto niñuten.** ²⁶ Ala ere, Aitagandik soórtzen dan Egi-Atsa Aitagandik bidaliko dizue-danean, Berak Nitzaz aitor egingo du. ²⁷ Baita zuek ere aitor dagidazukete, lendabizitik Nerekin baitzaudete.

XVI

Agintzak eta pozbideak

Auek esan dizkizuet, aurikatu ez zaitezten. ² Sinagogetatik yaurtiko zaituzte: ta etorri datoóken garayan, bizia edonork kenduko dizue, yaureskuntza oórela

²⁵ Er. XXIV, 19

Yainkoari biurtzen diolakoan. ³ Ta ori egingo dute, nere Aita ezagun ez dutelako, ezta Nerau ere. ⁴ Guziok esan dizkizuet, garaya etoritakoan, oroi zaitzten esanak nitula; ez nizkizuen, ordea, lenbizitik esan, zuekin nengolako. ⁵ Orain, beñiz, bidali naunarengana ba-noa, ta zuetako batek ere ez dit «Nora zoaz» itantzen.

⁶ «Bañan, auek esan dizkizuedala-ta, biotza ilundu zaizue. ⁷ Or ba, egia dasaizuet: on duzute Ni yoatea; Ni yoan ezik, ez zaizue Pozemalea etoriko-ta; yoanda, beñiz, bidaliko dizuet. ⁸ Eta datorkenean, Berak ogenaz, zuzenaz ta ebatzaz ludia etsiraziko du. ⁹ Ogenaz, noski, siñestun ez zaidalako; ¹⁰ zuzenaz ere, Aitarengana noala-ta, auñerontzean ez nakusazutelako; ¹¹ ta ebazkuntzaz berebat, lur ontako nagusia ebatzia dagolako.

¹² Asko dut oraindik zuei esateko; bañan ezin yasan duzute oraingoan. ¹³ Egi-Atsak, etoritakoan, egi guzirako bidea erakutsiko dizue, ordea; ez du, ba, bere buruz ezer esango; entzun aña esango ta gertakizun dana iragariko dizue-ta. ¹⁴ Berak goretsiko nau; enetik artuta iragariko baitizue. ¹⁵ Aitak ditunak oro, nere dira, argatik esan dizuet: enetik artuta iragariko dizue.

¹⁶ Apur bat ezkerro ez nauzute ikusiko; ta beste apur bat ezkerro ikusiko nauzute; Aitarengana noa-ta.

¹⁷ Aren ikasleetako batzuk elkañi zerasayoten: «Zer ote zitekek esaten zigukan ori: «Apur bat ezkerro ez nauzute ikusiko, ta beste apur bat ezkerro ikusiko nauzute?» ta «Aitarengana noa» ori? ¹⁸ Ziokan «apur bat»

⁸⁻¹¹ **Zuzentasuna:** Aitarengan eta Aitaren eskui-aldea dagonaren zuzentasuna; **ebazkuntza:** Satan eta aren yaureña ondatuko ditun epai edo ebazkuntza.

ori zer ote duk? Ez zekikagu zer ziokan». Ala ayek.
¹⁹ Yesuk, beñiz, galde egin nai ziotela igarí ta esan zien: «Apuñ bat ezkerro ez nauzute ikusiko, ta beste apuñ bat ezkerro ikusiko nauzute» esan dizuedala-ta, elkarí galde zabilzate, ¿ezta? ²⁰ Zin ziñez dasaizuet: negárez zuek eta adiaz zabilzakete; luñkoyek, ordea, pozez. Zuek goibelduko zerate; baña zuen goibelaldiak pozera yoko du. ²¹ Emakumea erditaldian lañi dago, zoria eldu zayo-ta; auñ egin ezkerro, beñiz, ez da lañialdi artzaz oroitzen, umea bizitara yayo zalako pozañen. ²² Oñela zuek ere goibeldurik orain zaudete; baña beñiro zakusazket, eta zuen biotza poztuko da, ta zuen poza ez dizue iñork ere kenduko. ²³ Egun artan ez didazute ezer gal-detuko.

«Zin ziñez dasaizuet: nere izenean zerbait nere Aitari ba'daskayozute, emango dizue. ²⁴ Gauñdañokoan ez duzute ezer nere izenean eskatu: eskazute, ta añtuko duzute, zuen poza bete betea izan dedin. ²⁵ Auek alegitan esan dizkizuet. Garaya ba-datoñ, ta añezkerro ez natzaizue alegitan mintzatuko; aitzitik, Aitaz zabal zabal itz egingo dizuet. ²⁶ Egun artan nere izenean eskatu egingo duzute, ta ez dasaizuet Aitari zuen alde otoi egingo diodanik. ²⁷ Aitak berak maite zaituz, ba, zuek maite izan nauzutelako ta Yainkoagandik soñtu naizala siñetsi duzutelako. ²⁸ Aitarengandik soñtu ta gizartera etoñi naiz; beñiro, gizadia utzirik, Aitarengana noa».

²⁹ Ikasleek diotsate: «Oñra, orain garbi mintzo zera ta alegirik ez diozu. ³⁰ Orain ba-dakigu dana dakizula,

ta galde egin dizukenik ez duzula bea. Ortan dazagugu Yainkoagandik soñtua zerala». 31 Yesu'k erantzun zien: «Orain siñesten al duzute? 32 begira ba; Ni bakañik utzita, nor berera banatzeko garaya ba-datoñ zuentzat, eta etoñia da. Bakañik ez nago, ordea; Aita Nerekin dago-ta. 33 Auek esan dizkizuet, gentza Neregan dezazuten. Gizartean arminduta zaudekete; ezazute kemen; giza-indaña Nik azpiratu dut».

XVII

Yesu'ren otoyá bere buruaren alde

Auek esandakoan, Yesu'k ortziruntz begiak yasorik, esan zun: «Aita, garaya eldu da; zure Semea goretsazu, zure Semeak goretsi zaitzan, 2 ta gizaki guzien gañean al izatea eman diozun ezkerro, Aren ardurapean yañi dituzun guziei betiko bizitza eman dezayen. 3 Betiko bizitza, beñiz, au da; Yainko ziña bakaña zeran Ori ta bidali duzun Yesu Kisto ezagutea. 4 Nik goretsi zaitut; luñ gañean eman didazun egitekoa burutu dut. 5 Orain, ba, Aita, goretsi nazazu zure baitan, luña asi baño len Zugan neukan aintzaz. 6 Gizartetik eman dizkidazun gizonei zure izena erakutsi diet. Zureak ziran, ta Neretzat eman dizkidazu; ta itza onañtu dute. 7 Orain ba-dazagute Zuregandik dala eman didazun guzia. 8 Eman dizkidazun itzak eman baitizkiet; ta ayek onañtu ditute, ta, Zuregandik soñtu naizala ziñez ezagun ta Zuk bidali nauzula siñetsi dute.

Yesu'ren otoyá bere ikasleen alde

9 «Ayen alde a'renez naukazu. Ez dizut lu'rkoyen alde otoi egiten, eman dizkidazun auen alde baño, zureak diralako. ¹⁰ Nereak oro, zure dira, ta zureak, nere; ta ayengan goretsia izan naiz. ¹¹ Onezkero ez nago gizar-tean; auk, be'riz, gizar-tean daude, ta Ni Zuregana noa. Aita Deuna, eman dizkidazunok zure izenean zaitu itzazu, Gu bezela, bat ditezan. ¹² Ayekin nengola, eman zenizkidanak zure izenean zaitu nitun; eta ez da ayetako bat ere galdu, seme galga'ria baizik, Idatzia bete dedin. ¹³ Orain, be'riz, Zuregana noa, ta itzok gizar-tean egiten ditut, nere poza berengan bete betean dezaten. ¹⁴ Zure itza eman diet, eta lu'rkoyek go'oto izan ditute lu'rkoi ez ziralako, Ni ere lu'rkoi ez naizan bezela.

¹⁵ «Gizartetik ateratzeko ez daskaizut, gaitzetik zaitzeko baño. ¹⁶ Lu'rkoyetako ez dira, lu'rkoyetako Ni ez naizan bezela. ¹⁷ Egiarentzat berezita euzkazu; egia, be'riz, zure itza da. ¹⁸ Gizartera bidali nauzun bezela, gizartera Nik ere bidali ditut, ¹⁹ eta ayengatik nere burua bereizten dut, ayek ere egiarentzat bereziak izan ditezan.

Yesu'ren otoyá bere siñestun guzien alde

²⁰ «Ez dizut, ordeá, ayen alde baka'rik, otoi egiten, ayen aito'ragatik siñetsiko didatennen alde ere bai baño, ²¹ guziak bat ditezan, eta Gugan bat ditezan, Zu, Aita, Neregan ta Ni Zuregan bat geran bezela; ta o'rela

gizaki guziek siñetsi dezaten Zuk bidali nauzula. ²² Ta Zuk Niri emandako aintza ayei eman diet, Gerok bat geran bezela, ayek ere bat ditezan, ²³ Ni ayengan ta Zu Neregan, oso bat ditezan, ta orela gizaki guziek ezagun dezaten Zuk bidali nauzula, ta Ni bezain maite izan dituzula. ²⁴ Aita, Ni nagon tokian Neretzat eman dizkizudanak ere egotea nai dut; luía luí baño len, maite nauzula-ta, eman zenidan aintza ikus dezaten. ²⁵ Aita zuzen Ori, ez zaitute luíkoyek ezagun; Nik, ordea, ezagun zaitut, eta auek ere ba-dazagute Zuk bidali nauzula. ²⁶ Ta zure izena erakutsi diet, baita erakutsiko ere, maite izan nauzun maitakuntza ayengan dedin, ta Ni ere ayengan».

XVIII

Getsemani'n

Auek esandakoan, Kedron érekaz aruntz Yesu irten zan bere ikasleekin, ta ango baratza batean sartu ziran. ² Tokia Yuda'k ere, Bera saldu zunak, ba-zezagun, bertan Yesu askotan bere ikasleekin biltzen zalako. ³ Beraz, Yuda, gudamutil sail bat eta apaizpuru ta parisaita'engandik mo'oyak arturik, ara yoan zan kriselu, zuzi ta iskiluak eramanez. ⁴ Yesu'k, be'iz, gañera zeto'rkiona zearo yakiñik, au'feratu ta esan zien: «Noren bila zabiltzate?»

⁵ Erantzun zioten: «Yesu Nazareta'aren bila».

Yesu'k dasaye: «Ni naiz».

³ Gudamutil sail bait, Eroma'ren «cohors» zeritzan saila.

Yuda ere, Bera saldu zuna, ayekin zegon. ⁶ «Ni naiz» Yesu'k esan zienean, guziak atzeratu ta luñera erori ziran. ⁷ Beñiro, beraz, galde egin zien: «Noren bila zabiltzate?»

Ta ayek esan zuten: «Yesu Nazaretañaren bila».

⁸ Yesu'k erantzun zien: «Esan dizuet Ni naizala. Nere bila zatozten ezkerro, ordea, utzi auek yoaten».

⁹ Bete beña zan, ba, Berak len esana: «Eman dizkidazun ayetako bat ere ez dut galdu».

¹⁰ Ordun Simon Kepa'k zekañen ezpata atera ta apaiz nagusiaren moñoya yo ta eskuiko belaña moztu zion. Moñoyaren izena Malk zan. ¹¹ Bañan Yesu'k Kepa'ri esan zion: «Zoñora ezpata itzuli. Aitak eman didan ontzia ez al dut edango?»

¹² Ordun, gudalsalekoek, sailburuak eta yuduen moñoyek Yesu atzi ta lotu egin zuten.

Ana ta Kaipa'renean

¹³ Urte artako apaiz nagusi Kapai'ren aitagiñeba Ana zan, ta arengana Yesu eramán zuten aúena.

¹⁴ Kaipa, beñiz, «Eñi osoaren orde gizon bat bakañik iltzea obe da» yuduei aolku eman ziena zan.

¹⁵ Yesu'ri Simon Kepa zeñayon, baita beste ikasle bat ere. Ikasle au, apaiz nagusiaren ezaguna zala-ta, apaiz nagusiaren atarian Yesu'rekin sañtu zan; ¹⁶ Kepa, beñiz, atañean zegon. Baña beste ikasleak, apaiz nagusiaren ezagunak, irtenda, neskame atezayari itz egin zion, ta Kepa sañtu zun. ¹⁷ Neskame atezayak, beñiz, Kepa'ri dasayo: «I ere gizon oñen ikasleetakorik ez al

aiz?» Ark dasayo: «Ez naun». ¹⁸ Otz baitzegon, mo'oi ta otseñak su eginda berotara zeuden, ta baita ayekin Kepa ere zutik zegon bero-bea'ez.

¹⁹ Bitartean apaiz nagusiak Yesu'ri bere ikasle ta ikaspideaz galde egin zion: ²⁰ Yesu'k erantzun zion: «Agirian beti itz egin diet o'ko guziei; yudu guziak biltzen diran sinagogetan ta yauretxean ari izan naiz beti irakasten, ta itzalka ez dut ezer esan. ²¹ Zertako Niri galde? Entzun didatenei galde egiezu zer esaten nien. Oriek ba-dakite Nik esana. ²² Ori esanda, ango mo'oi batek matsaleko bat Yesu'ri eman zion, esanaz: «Apaiz Nagusiari o'ela darantzuyok?» ²³ Yesu'k yardetsi zion: «Oke' itz egin ba'dut, oke'az aito' egizu; zuzen, be'iz, egin ba'dut, zergatik yotzen nauzu? ²⁴ Ordun Ana'k Yesu lotu ta apaiz nagusi Kaipa'rengana igo'ri zun.

²⁵ Bitartean Kepa zutik berotzen zegola, esan zioten: «I ere ez al aiz o'ren ikasleetakorik?» Berak ukatu ta esan zun: «Ez nauk». ²⁶ Apaiz nagusiaren mo'oyetako batek, bela'ria Kepa'k moztu zionaren aide zanak, dasayo: «Ez al aut baratzen arekin ikusi? ²⁷ Be'iz ere Kepa'k uka, ta bertantxe ola'rak yo zun.

Pilat'enean

²⁸ Kaipa'renetik ebaztegiara Yesu daramate. Goiz zan oraindik; ta ayek ez ziran ebaztegian sa'rtu, Paska yatekoan kutsurik ez a'rtzeko. ²⁹ Ayengana, beraz, Pilat'ek irtenda esan zien: «Gizon onen au'ka zer daka'kidazute?»

³⁰ Erantzun ta esan zioten: «Gaiztagin ez ba'liz ez geneka'kizuke».

³¹ Pilat'ek esan zion: «Zerok artuta zeron legebidez ebatzazute».

Bañan yuduek esan zioten: «Guri ez zaigu zilegi inor iltzea». ³² Orela bete beara zan, beñiz, Yesu'k esan izan zuna, zein eriotzaz ilko zan adirazirik.

³³ Orezkero Pilat'ek ebaztegian beñiro sartu ta Yesu deiturik, esan zion: «Yuduen bakalduna al zera Zu?»

³⁴ Yesu'k erantzun zion: «Zere buruz ori diozu, ala Nitzaz zuri bestek esanda?»

³⁵ Pilat'ek erantzun zion: «Yudu ote naiz gero? Zure eñitar ta apaizpuruak emanda zauzkat. Zer egin duzu?»

³⁶ Yesu'k erantzun zion: «Nere yaureña luñ ontako ez da. Nere yaureña luñ ontako ba'liz, nere mendekoak, noski, buñukatuko lirake, yuduei emana izan ez nendin. Emengo ez da, ordea, nere yaureña».

³⁷ Ordun Pilat'ek esan zion: «Bakaldun zera, beraz?»

Yesu'k erantzun zion: «Zero'ek diozuna; bakaldun naiz. Gizartera, beñiz, ortarakoxe yayo ta etoñi naiz, egiari aitoñ egiteko. Egiari datxizkion guziek nere mintzoa ba-dantzute.»

³⁸ Pilat'ek dasayo: «Egia zer da?»

Yesu'ala Baraba?

Ta ori esanda, yuduetara beñiro irten zan ta esan zien: «Ez dut nik oñengan epaikizunik atematen. ³⁹ Ekan-dutzat duzute, ordea, Paskan zuei nik bat askatzea. Nai al duzute yuduen bakalduna askatzea?» ⁴⁰ Baña guziek oyuka erantzun zioten: «Ori ez, Baraba baño». Baraba, beñiz, lapuñ zan.

XIX

Arantzazko buruntza

Ordun Pilat'ek Yesu artu ta zigořkarazi zun. ² Ta gudamutilek buruntza bat arantzaz eyota buruan ipiñi zioten, ta txabux goři bat berari yantzirik, ³ zetozkion, esanaz: «Aguř, yuduen bakaldun», ta matsalekoka zerauntsaten.

Ořa Gizona

⁴ Beraz Pilat'ek ayengana beřiro irtenda, esan zien: «Emen ateratzen dizuet, epaikizunik atematen ez diodala yakin dezazuten». ⁵ Yesu, ba, arantzazko buruntza ta txabux gořia ekařki, irten zan, ta Pilat'ek dasaye: «Ořa Gizona». ⁶ Apaizpuru ta mořoyek Yesu ikusitakoan, oyuka asi ziran: «Gurutzera ori, gurutzera» esaten.

Pilat'ek dasaye: «Zerok artu ta gurutzatu ezazute; Nik ez diot epaikizunik atematen-eta».

⁷ Yuduek erantzun zioten: «Guk legea dugu, ta gure legez il beařa da, Yainkoaren Semetzat yaiki da-ta».

Galdetaldi beřia ta epaya

⁸ Itzok adituta, Pilat belduřagotu zan, ⁹ ta ebazte-gian beřiro sařtuta, Yesu'ri dasayo: «Nongoa zera?» Baņa Yesu'k ez zion erantzunik biuřtu. ¹⁰ Beraz, Pilat'ek diotsa: «Itzik ere ez niri? Zu gurutzatzeko ta

⁷ Leb XXIV, 16; Deut. XIII, 5.

askatzeko eskubide dudala ez ote dakizu?» ¹¹ Yesu'k erantzun zion: «Nere aurka eskurik ez zenuke bat ere, goitik emanda ez ba'zenu. Argatik ere eman naukizuna ogendunagoa da».

¹² Ordutik Pilat Ura askatu gogoz zebilan. Bañan yuduek oyu egiten zuten, esanaz: «Ori askatzen ba'duzu, ez zera Kaisar'en adiskide; bere buruz bakalduntzat yaiki dana, Kaisar'en aurka ari da-ta».

¹³ Itzok adituta, Pilat'ek ayengana Yesu atera zun, ta auzitarako maipuru ya'ri zan Litostroto, edo eberkeraz Gabbata, deritzan tokian. ¹⁴Paska aueguna zan; ta seirak aldean yuduei dasaye: «O'ra zuen bakalduna». ¹⁵ Ayek, ordea, oyu egin zioten: «Alde ori, alde; gurutzatu ezazu».

Pilat'ek dasaye: «Zuen bakalduna nik gurutzatu?»

Apaizpuruek erantzun zioten: «Kaisar beste eregerik ez dugu».

¹⁶ Ordun gurutzatu zezaten eman zien, ta ayek Yesu artu egin zuten.

Gurutzaldia

¹⁷ Ta gurutza sorbaldan zeroala, Garezu'rmendi, edo eberkeraz Golgota, deritzan tokiruntz irten zan. ¹⁸ An gurutzatu zuten, ta Arekin beste bi ere bai aldamenetan, Yesu, be'riz, erdian. ¹⁹ Pilat'ek idatzitako agiria ere gurutz goitian ipi'ni zuten. Ta idazkuna au zan:

13 Lithostrotos=afiztatua: Gabbatha=gain edo mu'noa,

14 Seirak aldean= eguerdi aldean.

«Yesu Nazaretaía, yuduen bakalduna». ²⁰ Agiri au yudu askok irakuíi zuten; Yesu gurutzatu zuten tokia iri ondoxean baitzan; agiria, beíiz, eberkeraz, éromeraz ta eladeraz idatzita zegon. ²¹ Ordun yuduen apaizpurruek Pilat'i ziotsaten: «Ez idatzi «yuduen bakalduna»; «yuduen bakalduna ni naiz» berak zerasala baño». ²² Pilat ek erantzun zien: «Idatzia idatzi».

²³ Gudamutilek, beíiz, Bera gurutzatu ondoan, Aren yazkiak artu ta lau lainan bakandu zituten, bakoitzarentzat bana. Soñekoa ere artu zuten. Soñeko au, beriz, yosgabea ta gañetik beraño erabat eyoa zan. ²⁴ Beraz, elkaíi esan zioten: «Uíratu ez; txotxean egin baño, norentzat izango». Oírela bete beaía zan idatzitako au:»

«Nere yazkiak beren artean banatu zituten, ta nere soñekoaz txotx egin zuten».

²⁵ Gudamutilek, ba, au egin zuten. Yesu'ren gurutz ondoan Aren Ama Mari, ta onen aizpa Mari Keleopa'rena, ta Mari Malen zeuden. ²⁶ Yesu'k bere Ama ta ikasle maitea an ikustean, Amari dasayo: «Andre, oía zure semea. ²⁷ Gero ikasleari dasayo: «Oía zure Ama». Ta aiezkeroxe ikasleak berera artu zun.

²⁸ Gero Yesu'k, dana beterik zegola yakiñik, Idatzitakoa bete zedin, esan zun: «Egaíi naiz». ²⁹ Ontzi bat an ba-zan ozpiñez beterik, eta oragun bat artan ase ta seska-erpiñean ezaíirik, aora urbildu zioten. ³⁰ Ta ozpiña Yesu'k artu zunean, esan zun: «Nereak egin du». Ta burua makuíturik, azken arnasa atera zun.

24 Er. XXI, 19

Obiratzea

3¹Paraskebe zan; ta soñak larunbatez gurutzean geldi ez zitezán, larunbat ura egun gurena baitzan, yuduek Pilat'i eskatu zioten ayen anakak autsi ta soñak eraixteko. 3² Gudamutilek, beraz, etoñita lenbizikoari ankezuñak autsi zizkioten, baita Arekin gurutzatua izan zan besteari ere. 3³ Baña Yesu'gana etoñi ziranean, il zala ikusirik, ez zizkioten ankezuñak autsi. 3⁴ Gudamutil batek, oñatiño, aiztamakilez sayetsa sakaildu zion, ta bertantxe ura ta odola iñotsi ziran. 3⁵ Ta ikusi zunak aitoñtu du, ta ziña da aren aitoña. Ta berak ba-daki egia diola, zuek ere siñetsi dezazuten. 3⁶ Auek egin ziran, ba, idatzitakoa bete zedin: «**Ez diozute ezurik autsiko**», 3⁷ Ta beste idaztune batek dio: «**Sakaildu zutena ikusiko dute**».

3⁸ Gertarion ondoren, Yose Arimatai'koak, yuduen belduñez isilean gero, Yesu'ren ikasle zala-ta, Pilat'i baimena eskatu zion Yesu'ren soña yasotzeko. Ta Pilat'ek bayetsi zion. Etoñi zan, beraz, ta Yesu'ren soña arñtu zun. 3⁹ Baita Nikodemo ere, beñola gauez Yesu'rengana etoñitakoa, dator eunenbat libra miña ta lerdamin ekañki. 4⁰ Ta Yesu'ren soña arñtu ta gantzuturik, miesaz lotu zuten, eorzketan yuduek oi dutenez.

35 Ikusi zunak=Yon'ek berak.

36 Irt. XII, 46 ta Zen. IX, 12. Itzok, Yesu'ren irudi zan Paska-bildot-saz idatzita zeuden.

37 Zak. XII, 10

4¹ Gurutzatu izan zan tokian baratza bat zan, ta baratzan ilobi beñi bat, orduraño artan inor eortzia ez zala.
 4² Ilobi ori urbil zala-ta, antxe Yesu eortzi zuten, Paraskebe baitzan.

XX

Kepa ta Yon ilobian

Lenbiziko astegunean, argitu baño len, Mari Malen ilobira goizean yoan zan, ta aña ikusi zun ilobitik aldatuta. ² Beraz, Kepa'rengana ta Yesu'k maite zun beste ikaslearengana azkar yoanda, esan zien: «Yauna ilobitik yaso dute, ta ez dakigu non yañi duten.» ³ Ordun Kepa ta beste ikasle ura irten ta ilobira etoñi ziran. ⁴ Atxintxika biak batera ziyoazan; baña beste ikasle ura, Kepa baño ariñago ibilki, auñena eldu zan ilobira. ⁵ Ta bañera makuñtuz, miesak ikusi zitun luñean yañita; bañan ez zan sartu. ⁶ Zeñayon Simon Kepa ere eldu ta ilobian sartu zan, ta miesak luñean yañita ikusi zitun, ⁷ baita Yesu'ren buru gañean egondako zapia miesetatik bakandu ta alde bat bilduta. ⁸ Ordun, auñena eldu-tako ikasle ura ere ilobian sartu zan, ta ikusi ta siñetsi zun. ⁹ Yesu ilartetik piztu beaña zala dion Idatzia oraindik ez zekiten, ba. ¹⁰ Orezkero, ikasleak beretañengana itzuli ziran.

Mari Malen'i Yesu agertzen zayo

¹¹ Mari, ordea, ilobi ondoan lekoretik zegon negañez. Negañ egitean, beñiz, makuñtu zan ta ilobira

1 Lenbiziko astegunean=igandean.

begiratu zun. ¹² Ta Yesu'ren soña eortzita egon zan tokian bi aingeru soñeko zuriz yantzita ikusi zitun, bata buru aldean, bestea oin-aldean eserita. ¹³ Ayek dasayote: «Emakume, zergatik negarok?»

«Nere Yauna», dasaye, «eraman dute ta non ipiñi duten ez dakit-eta». ¹⁴ Au esandakoan, atzeruntz begirata, Yesu ikusi zun zutik; Yesu zanik ez zekin, ordea.

¹⁵ Yesu'k dasayo: «Emakume, zergatik negarok? Noren bila zaitut?»

Mari'k baratzaya zalakoan, dasayo: «Yauna, zuk eraman ba' duzu, esaidazu non ipiñi duzun, ta nik ba-daramaket».

¹⁶ Yesu'k dasayo: «Mari».

Onek, itzuli ta eberkeraz esan zion: «Rabboni», edo berdin dana, Irakasle.

¹⁷ Yesu'k dasayo: «Ez Ni ikutu; nere Aitarengana ez naiz oraindik igo-ta. Zoaz nere senideengana; ta esayezu: nere Aitarengana ta zuen Aitarengana, nere Yainkoarengana ta zuen Yainkoarengana igotzen naiz».

¹⁸ Ta Mari Malen ikasleengana dator beñi on au ekaítzen: «Yauna ikusi dut, eta au esan dit».

Yesu bidaliei agertzen zaye

¹⁹ Lenbiziko astegun artako aratsaldean, ikasleak bildurik zeudela, ta, yuduen belduéz, ateak itxirik zeuzkatela, Yesu etoñi ta erdian yañi zitzayen, esanaz: «Gentza zuei». ²⁰ Ta au esandakoan eskuak ta sayetsa

¹⁹ Lenbiziko asteguna igandea zan. Gure iganderen orde, yuduek larunbata zuten aste oroko yaya.

erakutsi zizkien. Ikasleak, Yauna ikusita, poztu ziran.
²¹ Beñiz esan zien: «Gentza zuei. Aitak bidali naun bezela, Neronek ere bidaltzen zaituzt». ²² Au esanda, ats eman ta esan zien: «Ats Deuna ar' ezazute. ²³ Ogenak asketsiko dizkizuetenei, asketsiak izango zazkie; ta lotuko dizkizuetenei, loturik geldituko zazkie».

²⁴ Ayetako bat, ordea, Didima zeritzan Toma, ez zegon ayekin, Yesu etoñi zanean. ²⁵ Beste ikasleek esan zioten: «Yauna ikusi dugu». Bañan ark esan zien: «Iltze-sakiak Aren eskuetan neronek ikusi, ta nere beatzta iltze-zuloetan ta nere eskua Aren sayetsean sartu ezik, ez dut siñetsiko». ²⁶ Andik zortzi egun buruan, ikasleak beñiro bañean zeuden eta ayekin Toma ere. Ateak itxirik zeudela, Yesu etoñi ta erdian yañi zitzayen, esanaz: «Gentza zuei». ²⁷ Gero Toma'ri diotsa: «Ekatzu onara beatz ori, ta ikusi eskuok eta ekatzu esku ori, ta nere sayetsean sar' ezazu; ta siñesgogor' ez izan, siñestun baño». ²⁸ Toma'k erantzun ta esan zion: «Ene Yauna, ta ene Yainkoa!» ²⁹ Yesu'k esan zion: «Ikusi nauzulako siñetsi duzu. Ikusteke siñetsi dutenak, auek zori ontsuak!»

³⁰ Beste ezagupide asko ere Yesu'k egin zitun bere ikasleen auñean; ez daude, ordea, idazti ontan yañirik. ³¹ Yañitako auek, beñiz, idatzita daude, Kisto Yainkoaren Semea dala siñetsi dezazuten, ta siñeste onez betiko bizitza Aren izenean iritsi dezazuten.

²³ Emen dugu Yesu'k bidaliei ta ayen oñordekoei emandako ogenak ebazletzat askesteko edo ez askesteko eskubidea; ta beraz, ogenak apai-zari aitoñtzeko agindu garbia (Trent, XIV batz. 3^g, b.)

XXI

Tiberi itxasaldeko agertaldia

A rezkero Yesu bere ikasleei ageri izan zitzayen Tiberi itxasaldean. Ta onela ageri izan zitzayen.

² Simon Kepa ta Didima zeritzan Toma, ta Natanael, Galilai'ko Kana'taía, ta Zebedai'ren semeak eta Aren ikasleetako beste bi, elkarékin zeudela, ³ Simon Kepa'k dasaye: «Arantzara ba-natxiak». «Gu ere irekin gatxiaztik», diotsate. Irten ziran, beraz, ta ontzira igota, ez zuten gau artan ezertxo ere atera: ⁴ Goiza eldu ondoren, ur ertzean Yesu azaldu zan; baña Yesu zanik ez zuten ikasleek igarí. ⁵ Yesu'k, beríz, esan zien: «Mutilak, yatekorik al duzute?» Esan zioten: «Bat ere ez». ⁶ «Eskui aldetik sarea bota», dasaye: «ta atziko duzute». Bota zuten, beraz, ta ezin atera zuten arái tirluagatik. ⁷ Ordun Yesu'k maite zun ikasle ark Kepa'ri esan zion: «Yauna duk».

Yauna zala Simon Kepa'k aditu zuneko, soingañekoa yantzi zun (yantzi-arín zegon, ba), ta itxasora yauzi zan. ⁸ Beste ikasleak ere ontzian etorí ziran aráisarea narástuz; ez zeuden, ba, legoóretik urún, bereunen bat beserditan baño.

⁹ Legoórean yetxi ziraneko, ikatz bizi pilo bat ikusi zuten ta gañean arái bat, baita ogia ere. ¹⁰ Yesu'k dasaye: «Arái atzi beí orietatik ekaítzute». ¹¹ Simon Kepa'k igota sarea legoóratu zun, eun ta beógei ta amairu arái aundiz betea. Ta ainbeste izanda ere, ez zan sarea

uratu. ¹² Yesu'k dasaye: «Etoñi ta yan». Bañan ikasle-
etako batek ere kemenik ez zun Berari «Nor zera Zu?»
itantzeko; Yauna zala baitzekiten. ¹³ Ordun Yesu'k
etoñirik, ogia artu ta dāmaye, ta araya berebat.

¹⁴ Au izan zan Yesu'k bere ikasleei egindako irugañen
agertaldia, ilartetik piztu ondoren.

Kepa Yesu'k Elizpuru yañita

¹⁵ Bazkalondoan Yesu'k Simon Kepa'ri esan zion:
«Simon Yon'ena, auek baño maiteago al nauzu?»

«Bai, Yauna», dasayo, «Zeroñek ba-dakizu maite
zaitudala».

Yesu'k dasayo: «Lañatu nere arkumeak».

¹⁶ Beñiz dasayo: «Simon Yon'ena, maite al nauzu?»

Kepa'k diotsa: «Bai, Yauna; Zeroñek ba-dakizu
maite zaitudala».

Yesu'k diotsa: «Zaitu nere ardiak».

¹⁷ Irugañenez dasayo: «Simon Yon'ena, maite al
nauzu?»

«Maite al nauzu?» irutan Yesu'k baitziotsan, Kepa
goibeldu zan ta esan zion: «Yauna. Zuk dana ezagun
duzu; Zuk ba-dakizu maite zaitudala».


Yesu'k dasayo: «Lañatu nere ardiak. ¹⁸ Zin ziñez
dasaizut: gazte ziñanean, geñikoa yantzi ta nai zenun
tokira yoaten ziñan; bañan aguretuta gero, zure eskuak
zabalduko dituzu ta beste norbaitek yantzi ta zeroñek nai
ez dukezun tokira eramango zaitu». ¹⁹ Au esan zion,
zelako eriotzaz Yainkoa goretsiko zun adirazirik.
Ta oñela mintzatu ondoan, esan zion: «Zaraizkit».

²⁰ Kepa'k, itzulita, bere ondoren etoítzen ikusi zun, Yesu'k maite zun arako ikasle ura, aparitan Yesu'ren bular' ondoan zetzalarik, «Yauna, nor da iruzur' dagizuna?» galde egin ziona. ²¹ Kepa'k ikusi zunean, Yesu'ri esan zion: «Yauna, ta ori zer?» ²² Yesu'k dasayo: «Ni itzuli arte ori o'ela egotea nai ba'dut, zuri zer? Zu za'raizkit». ²³ A'ezkero, senideen artean susmur' so'rtu zan ikasle ura ez zala ilko. Ez zun Yesu'k, ordea, «Ez da ilko» esan; «Ni itzuli arte ori o'ela egotea nai ba'dut, zuri zer?» ba'ño.

A z k e n a

²⁴ Au da esandakoen aitor' dagin ta guziak idatzi ditun ikaslea; ta aren aitor'a zi'ña dala ba-dakigu.

²⁵ Ba-da, o'ra'ti'ño, beste askorik ere Yesu'k eginda, ta oro banaka azaltzeko idatzi litezken idaztiak ez dut uste ludi osoak ere eden litzakenik.



BIDALIEN EGINAK

BIDALIEN EGIÑAK

«Bidalien Egiñak» izenez idazti onek ez ditu Kepa ta Paul'en egin batzu baño azaltzen. Ala ere, ayetan Goteunaren indara ain zoli ta nagusi Eliz beñiaren alde ageri baita, Yon Krisostoma deunak «Goteunaren egiñak» izena ezari leitiokela dio. «Eliz beñiaren edestia» ere esan daitioke. Berak dionez, irugañen Ebaingeriaren atzetik datoí, ango azkenetik asi ta Paul'en lenengo espetxaldiraño: Kisto'ren ondoreko 62 edo 63'gañen urteraño, beraz. Idaztiak berak darakuskigu amaitzeke dagola. Baita, idazti onen eta irugañen Ebaingeriaren sañera irakuñita, argi dago, esku baten beraren lana dirala. Gañera, bien idazkera berdiñak orixe darakuskigu. Luka bera idazti onen egile aitoñtzen zaigu, Paul'ekin egin zitunak guka ainbeste aldiz adiraztean. Yesu'ren egiñak bere Eliza scndo yañtzeko irugañen Ebaingerian argitu ondoren, emen, Goteunaren egiñak, Eliza, landare beña gogoñtu artekoak, dakañzkigu.

Eñoman bertan Paul espetxean zegola, idatzi bide zun.

Iru atal ditu: 1.^a, Eliz beñiaren goraberak Yerusalen'en eta Yudai osoan (I, 4-VIII, 3); 2.^a, Samari'n, Damasko'n ta Antioki'n (VIII, 4-XII, 25); 3.^a, atzeñietan (XIII-XXVIII, 30).

I

Sañera

Len ere, ene Teopil, Yesu'k egin ta irakatsi zun guziaz litz egin dut, lenbizitik asita, ² Berak aututako bidaliei aginduak Goteunez emanda, gora arñtu zan eguneraño. ³ Yasanak yasan ondoan ere, agerbide askotaz bere burua bizirik erakutsi zien, beñogeñ egun bañu ayeñ aurkeztuz, ta Yainkoaren Eñiaz ayekin yardunez.

⁴ Ayekin bildurik bein zegola, Yerusalen'dik ez irte teko, Aitaren agintza zai egoteko, ordea, agindu zien. «Agintza au», esan zien, «nere aotik entzun duzute.

1 Len, irugañen Ebaingerian; idazti onen ta irugañen Ebaingeriaren egilea Luka da-ta.

⁵ Yon'ek urez ukuzi zun, noski; zuek, beñiz, egun asko gabe Goteunez ukuziak izango zerate».

⁶ Bildurik zeudenek galde egin zioten: «Yauna, Israel'go yaureña orain beñiztuko al duzu?» ⁷ Ta Berak esan zien: «Aitak bere mendean yañi ditun garai ta unea igaitzea, zuena ez da. ⁸ Baña zuengana datoñken Goteunaren indaía artuko duzute, ta Yerusalen'en, ta Yudai osoan, ta Samari'n, baita luñ guenetaraño ere, aitoñtzale izango zazkidate».

⁹ Au esanda, ayen begitan gora egin zan, ta odei batek begitatik kendu zien. ¹⁰ Ta Bera ortziruntz yoaten begi-begira ayek zeudela-ta, ara, soñeko zuriz gizon bik aurkeztu ¹¹ ta esan zieten: «Galilaitaño, ¿zer ari zerate ortziruntz begira? Zuengandik zerura artu dan Yesu ori, zeruratzen ikusi duzuten bezela, etoñi datoñke».

¹² Zeuden mendia Oliamendi deritza, ta Yerusalen aldean dago larunbateko bidez bakanduta. Andik, beraz, ordun, Yerusalen'a itzuli ziran, ¹³ ta eldu ala, Kepa, Yon, Yakob, Ander, Pilipe, Bartolomai, Matai, Alpei'ren Yakob, Simon Zelote, ta Yakob'en Yuda'ri arotzaldirako zitzayen mandiora igo ziran. ¹⁴ An guziek gogo batez emakumeekin, ta Yesu'ren Ama Mari ta senideekin otoiketari beti zarduten.

Matia'ren aukera

¹⁵ Egun ayetan eun ta ogeiren bat senide bildurik zeudela, Kepa'k erdian yaikita esan zien: ¹⁶ «Senideok;

¹² Larunbateko bidea=larunbatean yuduei zilegi omen zitzayen bidea; bi milaren bat urats.

¹⁴ senideekin. Beg. Mat. XII, 46, oar.

Yuda'tzaz, Yesu atzi zutenen au'elari artzaz, Goteunak Dabid'en aoz Idaztian esandakoa bete be'ara da. ¹⁷ Guretakoa ta gure lanbiderako lagun zala ere, ¹⁸ landa bat oke'ar-saritan beretu zun, ta amilduta le'rtu egin zan, e'rai guziak ba'reyatuz. ¹⁹ Yerusalen'en ori guzientzat nabari izan da; ta o'rexegatik landa ura ayen izkeraz Hakeldama, edo Odol-landa deritza. ²⁰ Eresi-Idaztian idatzita baitago:

**Utsik bego ayen borda,
ta i'nor ere ez bedi artan bizi.
Aren egitekoa bestek ar' beza.**

²¹ «Egoki da, beraz, gure artean Yesu Yauna bizi zala, gurekin beti batzu ibili baitziran, ayetako norbait aukeratzea, ²² Yon'en ukuzpenetik asita gure artetik Yesu ar'tua izan zan egunera'no egona, Aren be'rpizteaz aito'rtzale gurekin dedin».

²³ Ta bi au'keztu zituten; Barnaba zeritzala, Zuzena ziotsaten Yose, ta Matia. ²⁴ Ta otoi egi'naz zioten: «Guzien biotzak ezagun dituzun Yaun O'rek, erakuskiguzu biotako zein aukeratu duzun ²⁵ bidalien lanbide au ar'tzeko; artatik Yuda, dagokion tokira yoateko, sayestu dan ezker».

²⁶ Ta zotz eginda, Matia'rengana zotzak yo baitzun, amaikaekin zenbatu zuten.

20 Er. LXVIII, 26

II

Goteunaren etoiera

Pentekoste egunean guziak bat eginda zeuden. ² Bat batean, aize zakařarena bezelako buřunba ortzitik sořtu zan, ta zeuden etxe osoa bete zun. ³ Ta su lako miak ikusi zituten bakoitzaren gañera banatu ta kokatzen. ⁴ Ta guziak Goteunez bete ziran, ta Goteunak mintzarazten zitunez, atzeři-izkeraz itz egiten asi ziran.

⁵ Yerusalen'go yudutartean eguzkipeko bazteř guzietatik eldutako lagun yainkozale asko ziran. ⁶ Buřunba ori sořtu zanean, samaldan ara bildu ta ařitu ziran, nork bere izkeraz egiten ayei entzuki. ⁷ Txundioz guziak zeuden, ta ařituta zerasaten: «¿Mintzo ditukan guziok galilaitař ez ote dituk? ⁸ Nola, ba, guk sořtzez dikagun izkera banaz egiten zentzuyekagu? ⁹ Partiařek, Mediařek, Elameitařek, eta Yudai'n, Kapadoki'n, Ponto'n, Asia'n, ¹⁰ Frigi'n, Panpili'n, Aigito'n eta Kirene ondoko Libi aldetan bizi ditukanek, Eřoma'tikako ařotz yudu ta eraskiñek, ¹¹ Keretařek, eta Arabiařek, gure izkera banaz Yainkoaren goraldia zentzuyekagu». ¹² Ořetzaz zurturik, zeri egon yakiteke, elkaři zerasayoten: «¿Zer duk au?» ¹³ Beste batzuk, ordea, «Ardoz aserik zeudek» ixeka zioten.

Kepa'ren itzaldia

¹⁴ Ordun Kepa'k amaikakin auřeratuz, otsa yaso ta itzaldi au egin zien: «Yuduok eta Yerusalen'en zaudeten

guziok; Yakizute ta belaríetan nere itzak ar itzazute.
 15 Ez daude auek mozkoí, zuek uste duzutenez; goizeko
 bederatziak dira-ta. 16 Yoel igaríleak esana ontan duzute,
 ordea: 17 Yaunak dio:

Azken egunetan nere arnasa
 gizaki guziei ixuriko diet,
 eta zuen seme-alabek igarí egingo dute;
 zuen mutilek ikuspenak
 eta zuen agureek ametsak izango ditute.

18 Nere moíoi-neskameei
 nere arnasa ixuriko diet,
 eta igarí egingo dute.

19 Alatzak ortzian ta arígaríak luíean
 soítuko ditut,
 odol, su ta ekaloak.

20 Eguzkia ilundu
 ta ilargia odolduko da,
 Yaunaren eguna,
 egun aundi ta ospetsua,
 etoí baño len.

21 Yaunaren izena aitoítu lukena
 yarei egingo da.

22 «Israeldaríak, itzok entzun. Yesu Nazaretaía Yain-
 koak edereísi dizue Aren bidez zuen artean egindako
 alatz, zantzu ta agerkariz, zerok dakizutenez. 23 Alaba-
 ña, Yainkoak erabaki ta auíetik yakiña zunez, gizon
 ura zuek, etsayei emanda, gaiztoen eskuz gurutzean

15 «Goizeko bederatziak»: Yudentzako «irugarén ordua» (beg. Lk. XXIII, 54).

17-22 (Vulgata'n, Yoel, II, 28-32; Eberkeraz, III, 1-5).

yosi ta il duzute. ²⁴ Baña Yainkoak beřpiztu ta erio-
-miñetatik atera du, erioak ezin azpiratu baitzezaken.

²⁵ Dabid'ek Artzaz dio, ba:

**Yauna beti nekařen begi auřean;
nere eskui aldean dago, koloka ez nadin.**

²⁶ **Andik nere biotz-poza ta mingain zolia;
andik uste onařen nere aragi-atsedena;**

²⁷ **leze ilunean Ni egoten
ta zure kuñun au usteltzen
utziko ez duzu-ta.**

²⁸ **Bizirako bideak erakutsi dizkidazu;
ta zure aurpegiak pozez beteko nau.**

²⁹ «Senideok, zilegi bekit zuen auřean zabal esatea
Dabid gure arbasoa il ta obiratua dagola; gaur-
daño ere gure artean aren ilobia baitago. ³⁰ Igarle zan,
ta ba-zekin bere aulkian bere belauneko bat yařtzeko
Yainkoak zin egin ziola. ³¹ Beraz, etořkizuna ikusirik,
Kisto'ren beřpizteaz esan zun: **Ez da leze ilunean
utzia izan, ta usteltzerik ez du Aren aragiak izango.**
³² Oř ba, Yesu ori Yainkoak beřpiztu du, ta gu guziok
aitořtzale gera. ³³ Beraz, Yainkoaren eskui aldera yaso
izan dan ezkerro, Aitak agindutako Goteuna Yesu'k
bidali digu, zerok ikusi ta entzuten duzutenez. ³⁴ Ez
zan, ba, zerura Dabid igo, ta ala ere dio:

**Nere Yaunari Yaunak esan dio:
Eseri zaitetz nere eskui aldean,
³⁵ zure etsayak zure oin aulkitzat Nik yaři
[arte.**

26-28 Er. XV, 8-11.

34, 35 Er. CIX, 1

36 Onezkero, Israel etxeko guziek zin ziñez yakin bezate zuek gurutzatu duzuten Yesu Au, Yainkoak Yaun ta Kisto yañi dula».

Itzaldi onen atzeak

37 Au entzunda, biotzez garbai izan ziran, ta Kepa'ri ta beste bidaliei esan zieten; «¿Zer egin bea' dugu, anayok?» 38 Ta Kepa'k esan zien: «Garbai zaitezte, ta ogen-asketserako ukuzpena Yesu Kisto'ren izenean zue-tako bakoitzak a' beza; ta Goteuna iritsiko duzute emaritzat. 39 Zerontzat eta zuen semeentzat, eta Yainko gure Yaunak deitu dituken u'rutiko guzientzat agintza au da-ta».

40 Beste itz askotaz ere aitor' ta aolku au egiten zien: «Alde egizute gizaldi oke' ontatik».

41 Ziona ona'rtu zutenak ukuzi ziran, eta iru milaren bat lagun egun artan itsatsi zitzazkion, 42 ta bidalien irakastaldietara, senide-batza'retara, otausketara ta oto-yetara arduratsu yotzen zuten.

43 Lagunaba'ak izututa zeuden. Bidaliek Yerusa-len'en alatz ta a'riga'ri asko zegizten, ta guziak oso beldu' ziran. 44 Siñestunak, be'riz, guziak bat ziran, ta guzia guziena zuten. 45 Ta yarauntsi ta on guziak saldurik, ordaña guzien artean banatzen zuten, bakoitzaren bea'ari zegokionez. 46 Egun oro ere gogo batez yauretxean zirauten, ta etxerik etxe otautsirik, yatekoa pozik eta

46 Etxerik etxe otautsirik. Otautsi; (ogia autsi) emen eta emendik au'era Meza eman ta Yauna'rtu baño ez da.

nabastañez aítzen zuten. ⁴⁷ Oíela Yainkoa goretsi ta eíaren edeía irabazten zuten. Yaunak, beíz, yareikide beíak egun oro itsasten zizkien.

III

Erena Kepa'k sendatuta

Yauretxera Kepa ta Yon bederatzietako otoi aldira bein igotzen zirala, ² lagunen bizkañez gizon bat zetoén, bere amaren sabeletik éren. Gaxoa egun oro Edeía deritzan yauretxeko Ate ondoan yaítzen zuten, andik saítzen ziranei eskean egoteko. ³ Yauretxean Kepa ta Yon saítzerakoan, ukaítxo bat eskatu zien. ⁴ Ari Kepa'k Yon'ekin so egiñaz, esan zion: «Begira gaitzazu». ⁵ Ark begi-begiratzen zitun, ayengandik zerbait aítuko zai. ⁶ Ta Kepa'k esan zion: «Uíerik ez zilaírik ez daukat; baña daukadana damaizut. Yesu Nazaretaíaren izenean yaiki ta zabilta». ⁷ Ta eskuitik elduta, gizona eraiki zun. Ta bertantxe oñazpi ta oípoak sendo biúrtu zitzazkion. ⁸ Ta yauzi batez zutitu ta asi zan ibiltzen, ta yauretxean ayekin saítu zan ibilki ta yauzika, Yainkoa goratuz.

⁹ Eíi osoak gizona ikusi zun ibiltzen ta Yainkoa goosten; ¹⁰ ta guziek zezaguten bera zala yauretxeko Ate Edeí ondoan eseririk egoten zan eskalea, ta yazo zitzayonaz aítu ta txundituta gelditu ziran.

Kepa'k ordun egindako itzaldia

¹¹ Kepa ta Yon oraturik berak zeuzkala, eñi osoa ayengana bildu zan añituta Salomon'ena zeritzan aterpean. ¹² Kepa'k ori ikusita, eñiari esan zion:

«Israeldarok; ¿zergatik oñetzaz añiturik eta guri so zaudete, geron indar ta eñukiz gizon au ibiltun egin dugulakoan? ¹³ Abrahan, Isaak eta Yakob'en Yainkoak, gure arbasoen Yainkoak, Yesu, bere moñoya goratu du, zuek etsayen eskuetan yañi ta Pilat'en auñean ukatu zenutena, askatu nai zunean. ¹⁴ Deun ta Zuzena zuek zapuztu ta gizerailea eman zekizuela eskatu zenuten; ¹⁵ biziaren Soñburua, beñiz, il zenuten. Yainkoak ilartetik beñpiztu du, ordea; ta oñetzaz gu aitoñtzale gatoz. ¹⁶ Ta Aren izenaren siñezpidetzat, dakusazuten ta dazaguzuten gizon au Aren izenak sendotu du, ta Arenganako siñestea zeron guzion begitan osasuna eman dio.

¹⁷ «Ba-dakit, oñatiño, senideok, zuek eta zuen agintariak oñtan yakiteke zenbiltzatela. ¹⁸ Yainkoak, beñiz, bere Kistoak nozitu beañ zula bere igañleen aoz esana zeukana oñela bete du.

¹⁹ «Garbai zaitezte, beraz, ta onbidera zatozte, ogenak ezabatu dakizkizuen, ²⁰ Yainkoak bere auñpegi-atsarua ta zuentzat dan Yesu Kisto bidali ditzan. ²¹ Dana beñizteko garaya, luñ asieratik izan diran bere igañle yatoñen aoz Yainkoak aspaldi iragañitako garai ura eldu arte, zeruan egon beañ du-ta. ²² Mois'ek, noski, esan

22-23 Deut. XVIII, 15. «Ni bezela, igañle bat... Arako igañleari»... Ara emen Yon Ukuzleari itandutakoa: «Igañlea ote zera?» au da, Mois'ek esandako igañle aundia edo Mesia?

zun: Zuen senitartetik, Ni bezela, igarle bat zuen Yainkoak eraikiko dizue. Berak dasaizueken dana entzuzute. ²³ Arako igarle ari entzun ez likena, eritik iraitzi beara da. ²⁴ Samuel'gandik asi ta gero-koan mintzo izan diran igarle guziek ere alako egunak iragari ditute. ²⁵ Igarleen semeak eta gure asabaekin Yainkoak egindako Itunaren semeak zerate zuek, Abraham'i Berak esan zion ezkerok: Zure azian luereko eri guziak onetsiak izango dira. ²⁶ Zuentzat auena Yainkoak bere moioya berpiztu ta bidali du, okebidetik aldendu ba'zerate, onetsi zaitzazan».

IV

Kepa ta Yon sanedrin aueran

Eriari itz egiten ayek zeudela, apaizak, yauretxezaya ta sadukaitarak gañera etoñi zitzazkien ² aseere goñitan, eriari biek irakatsi ta ilartetik Yesu piztu zala aitoñtzen ziotelako. ³ Ta atzemandan, giltzapean itxi zituten biaramuneraño; ilunabara zan-eta.

⁴ Itzaldia entzun zutenetako askok siñetsi zuten, osteran; gizonak oñela bost milaraño edo geiturik.

⁵ Biaramunean ayen nagusi, zar ta idazlariak Yerusalen'en bildu ziran, ⁶ baita apaiz nagusi Ana, ta Kaipa, ta Yon, ta Alexander, ta apaiz saileko guziak ere. ⁷ Ta erdian biak ipiñi zitutela, galde egin zioten: «Zein indarez, ala noren izenean ori egin duzute?» ⁸ Ordun

²⁵ As. XII, 3.

Kepa'k, Goteunez beterik, esan zien: «Ériko nagusi ta Israelgo za'rok, entzun. ⁹ Eri baten osakuntza dala-ta, nola sendatu zan gau' galdetzen zaigun ezkerro, ¹⁰ yakizute zuek eta Israel éri osoak ere; zerok gurutzatu ta Yainkoak il-artetik piztutako Yesu Kisto Nazareta'aren izenean gizon ori zuen au'ean osasundun dago. ¹¹ Ura da, bai, zuek etxe egitekoan astandutako a'ria, giltza'ri orain egiña. ¹² Ta osabiderik ez dago beste in'organ. Gizonei ez zaigu, ba, osakuntza iristeko beste izenik ortzipean eman».

¹³ Kepa ta Yon'en adorea ayek ikusi ta ikasgabe ta alotzak zirala yakin zutenean, a'ritu ziran. Ba-zekiten gañera Yesu'rekin egonak zirala; ¹⁴ baña gizon sendatu ura ayekin baitzekusten, yardetsienik ez zuten bat ere. ¹⁵ Ta batza'etik alde egiteko ayei aginduta, beren artean ziardukiten, ¹⁶ esanaz; «Gizon auei buruz zer dagikegu? agiri da, ba, ta Yerusalen'go guziei nabaria auek egin-dako alatza, ta ezin ukatu dugu. ¹⁷ O'ratino ere, e'riarenengan arazoa geroago ta ba'eyatuago egin ez dedin, larderiatu ditzagun in'ori ere ala'ko izena aipatuz itzik ez egiteko».

¹⁸ Beraz, biak deiturik, agindu zieten in'ola ere Yesu'ren izenean ezer ez esateko, ezer ez irakasteko. ¹⁹ Baña Kepa ta Yon'ek yardetsi ta esan zieten: «Zerok gomazute Yainkoaren aitziñean bidezkoa ote zaigun Yainkoari baño zuei esangiñago izatea. ²⁰ Gerok ikusi ta entzun duguna ezin isilean euki dezakegu-ta».

²¹ Ordun ayek, e'riaren beldu'ez, bidaliak zeatzeko biderik igari eziñik, yazoaz guziak Yainkoa goستن

zuten-eta, yarei igofí zituten. ²² Berogei ta urteetako a zan, ba, ofen alazki sendatutako gizona.

Siñestunen eskeř-otoya

²³ Yarei aurkitu ziraneko, berengana etofí ta apaiz-puru ta zařek egin zieten a zearo azaldu zieten. ²⁴ Ayek aditutakoan, aotsa biotz batez Yainkoagana yaso zuten, esanaz: «Yauna, Zu [Yainkoa] zera ortzi-luř-itxasoak eta ayetako dana egin dituzuna. ²⁵ Zuk zure mořoi ta gure asaba dan Dabid'en aoz Goteunak itz egiñez, esan zenun:

**¿Zergatik dabilta eřiak ořoz
ta ařotzak asmo utsalez?**

**²⁶ Yaunaren aurka ta bere Iguřtziaren aurka
luřeko bakaldunak yaiki
ta nagusiak elkařtu dira.**

²⁷ «Izan ere, iri ontan Erode ta Pilat ařotzekin ta Israel eřiarekin elkařtu ziran, iguřtzi zenun zure mořoi Yesu deunaren izenaren aurka, ²⁸ zure eskuz ta burupidez erabakita zegona bete zedin. ²⁹ Orain, ba, Yauna; ayen zemak entzun, ta zure itza zabal zabal aldařikatzeko kemena zure mořoyei eman. ³⁰ Zabaldu zure eskua, zure mořoi Yesu'ren izenean sendakuntzak, alatzak eta agerpideak egin ditezan».

³¹ Otoi au egindakoa, bildurik zeuden tokia ikaraz asi zan ta guziak Goteunez bete ziran, ta Yainkoaren itza zabal zabal zerausaten.

25, 26 Er. II, 1, 2.

Lenbiziko siñestun ayen batasuna

32 Ainbeste siñestunen biotza, beñiz, bakaña zan, baita gogoa ere; ta iñork ez zion beretakorik ezer bere zunik; guzia guzientzat zitzayen, ordea. 33 Bidaliek Yesu Kisto Yaunaren beñpiztea bipilki aitoñtzen zuten, ta guziengan eskeña zan ugari. 34 Landeñik ayen artean bat ere ez zegon; beren aloñ ta etxeak yabe guziek saldurik, ordaña ekañi 35 ta bidalien oñetan yañtzen zutelako; ta andik beañ aña bakoitzari ematen zitzayon. 36 Oñela, bidaliek Barnaba (edo berdin dana, Atsegin-seme) goitizena ezañi zioten Yose'k, Kiper'en yayo ta lebitaña zanak, 37 zeukan landa saldu ta ordaña ekañi ta bidalien oñetan yañi zun.

V

Anani ta Sapis

Anani zeritzan norbaitek, bere emazte Sapis'ekin itunduta, landa saldu 2 ta, emazteak ez zekila, ordañetik zerbait ostendurik, enparaua ekañi ta bidalien oñetan yañi zun. 3 Kepa'k esan zion: «Anani, biotza Satan'ek nola añtu dizu, Goteunari gezuñ egiñaz, landa-saritik zati bat ostendu duzu-ta? 4 Landa zeneukanean, ¿zurea ez ote zan? Saldu ezkerro, berebat, ordaña zure mendean ez ote zan? Zergatik, ba, oñelakorik zure biotzean erabaki duzu? Ez diezu gizonei gezuñik egin, Yainkoari baño». 5 Itzok adituta, Anani erori ta il egin

zan. Ta entzule guziak beldu¹ goñitan sa²rtu ziran.
 6 Gazte batzuk yaikita ilotza eramán ta eortzi egin zuten.

7 Iruren bat ordu ezkeró, aren emaztea ere sa²rtu zan, yazoa yakiteke. 8 Ta Kepa³'k esan zion: «Esaidazu onenbestez landa saldu ote duzuten». Ta emakumeak esan zion: «Bai, onenbestez». 9 Ordun Kepa³'k esan zion: «Zergatik itundu zerate Yaunaren Atsari gezu⁴ egiteko? Ora ate ondoan zure sena⁵ra eortzi dutenen oñak. Zerori ere eramango zaitute». 10 Ta bertantxe aren oñetan erori ta il egin zan. Beraz, gazte ayek sa²rtuta, bera ilotzik idoro, ta atera, ta bere sena⁵ra ondoan eortzi zuten. 11 Ta bai Eliz osoan, baita yazoa entzun zuten guziengan ere, beldu¹ aundia so⁶rtu zan.

Elizaren gara

12 Eriarengan ere bidalien eskuz alatz ta a⁷riga⁸ri asko egiten ziran.

Siñestunak Salomon aterpean biltzen ziran gogo batez guziak. 13 Besteetako batek ere ez zun ayei eraste⁹ko kemenik; e¹⁰riak, osterá, aundiesten zitun, 14 ta Yainkoarengana siñestun be¹¹riak samaldan zetozan, gizon ta emakume.

15 Eriak ere zeyetara atera ta ze¹²raldo ta oetan ipintzen zituten, Kepa zeto¹³reneko, aren itzalak bederen ayetako bat edo bat ikutu ta sendatu zezan. 16 Baita

11 Eliz osoan. Ona emen nola lenengo aldiz Yesu¹⁴'k Kepa¹⁵'ren gain ya¹⁶ri zun Eliza, edo siñestun guzien bazkuna, bere izen ede¹⁷arekin agertzen dan.

auzoko irietatik ere lagunak samaldan zetozan, ero ta txerendunak ekaítzen; ta alako guziak sendatzen ziran.

Bidaliak beíro esetsita

¹⁷ Ordun apaiz nagusia ta aren alderdikoak (alderdi au sadukaitarena zan) bekaizkeriz eéta yaiki ziran, ¹⁸ ta bidaliak atzirik, eéiko baitegian itxi zituten. ¹⁹ Baña gauez Yaunaren aingeruak baitegiko atea zabaldu ta atera zitun, esanaz: ²⁰ «Zoazte yauretxera, ta bertan eéiari bizibide oni dagokiona azaldu egiozute». ²¹ Ayek, ori adituta, yauretxean goizetik sartu ta irakasten asi ziran.

Bañan apaiz nagusiak eta aren alderdikoek, bat etoóirik, batzarea ta Israel'go zaí guziak bildu ta baitegira moóoyak igoóí zituten bidaliak eratoótzeko. ²² Moóoi ayek ara eldu ziranean, ez zituten baitegian idoro, ta itzulirik, yazoa azaldu zieten, ²³ esanaz: «Baitegia alik sendoen itxirik idoro dugu, baita atarean zayak ernai ere; bañan iriki ondoren, iñor ere ez dugu barnean idoro». ²⁴ Esanok adituta, yauretxezaya ta apaizpuruak kezkatan yaí ziran ori zer ote liteken. ²⁵ Baña norbaitek etoóí ta esan zien: «Ara, baitegian itxi zenituten gizon ayek yauretxean daude eéiari irakasten». ²⁶ Ordun moóoyekin yauretxezaya ara yoan zan, ta ekaí zitun, indaírik ayei egiteke; eéiak arika zitzan belduí baitziran.

²⁷ Ekaí ala, batzareari aurkeztu zizkioten, ta apaiz nagusiak itandu zien, ²⁸ esanaz: «Agindu genizuen, ta zoóozki gero, oórelako izenean ez irakasteko; ta oóa, zuen irakasketaz Yerusalen bete duzute, ta oóako gizon oóen

odola gañera egotzi nai diguzute». ²⁹ Baña Kepa ta bidaliek yardetsi ta esan zioten: «Gizonei baño bidezago Yainkoari esangin izan bea. ³⁰ Abetik eskegi ta il zenuten Yesu, gure arbasoen Yainkoak beípiztu ³¹ ta bere eskuiz buruzagi ta yaregiletzat goratu du, Israel'i ogen-garbai ta asketsa emateko. ³² Ta diogunaren aitor-tzale gatoz gu, ta Yainkoak bere aginpidea onartzen dutenei damayen Goteuna».

³³ Entzunaz eřeta, bidaliak ilerazteko asmoa zera-bilten.

Gamaliel'en onua

³⁴ Baña Gamaliel zeritzan ta eři osoarentzat itzal aundiko lege-irakasle zan parisaitař batek, batzařean yaikita, gizon ayek apuř baten andik ateratzeko agindu zun, ³⁵ ta angoei esan zien: «Israeldařok; gizon oriei buruz zertara yařtzen zeraten zeatz begirazute. ³⁶ Arestiko egun auetan Teuda yaiki zan, ba, bera norbait zala esanaz, ta lareunen bat lagun atxiki zitzazkion; baña bizia ari kendua izan zitzayonean, aren yařaileak bařeyatu ta ezereztu egin ziran. ³⁷ Aren ondoren Yuda Galilaitařa ere eřolde-egunetan yaiki zan, ta beregana lagun asko ekaři zun. ³⁸ Ori ere galdu zan, ta zeřaizkion guziak sakabanatu ziran. Oraingo arazoan, beraz, dasai-zuet: ořelako gizonengandik bereiz egon; utzi itzazute. Gizagandik asmo ta ekiñaldi au ba'da, berez suntsituko da-ta; ³⁹ Yainkoarengandik ba'da, beřiz, ezin biřinduko dituzute, Yainkoaren etsai azaldu gabe».

⁴⁰ Iritzi au ayek onartuta bidaliak deitu zituten, ta

berak zigořkarazi ondoan, itzik ere Yesu'ren izenean ez egiteko agindu ziela, askatu egin zituten.

41 Ayek, beřiz, pozik ziyoazan batzaře auřeandik, Yesu'ren izenarengatik iraingarı auřkitu ziralako. 42 Ta opořik gabe yauretxean ta ethez etxe egun oro ba-zebiltzan irakasten ta Yesu Kisto'ren Beři Ona zabaltzen.

VI

Zazpi diakonen aukera

Egun ayetan ikasleak geitzen zirala-ta, ebertain aurka zinkuriñez elendařak asi ziran, eguneroko sorozketan beren alargunak alde bat utziak ziralako. 2 Argatik, amabiek ikasle guziak bildu ta esan zieten: «Ez da bide Yainkoaren itza mai-ayolařen guk uztea. 3 Beraz, senideok, zuetako zazpi gizon Goteunez ta senaz betetsu aukeratu itzazute ardura ori egotzi dezayegun. 4 Gure gain bego, beřiz, otoi ta itz egitekoa». 5 Erausi au batzaře osoaren gogarako izan zan; ta siñestez ta Goteunez betetako Estebe, ta Prokor, Nikanor, Timon Parmen ta Nikol, Antioki'ko eraskiņa, aukeratu zituten. 6 Ordun bidaliei auřkeztuak izanda, auek, otoi egiņaz, eskuak gaņera ezaři zizkien.

7 Ta Yainkoaren itza zabaltzen ziyoan, ta ikasle saila Yerusalen'en eřuz geitzen zan, ta apaiz ainitz ere siñeste mendera zetozan.

1 Elendař auek Elade-izkuntza erabiltzen zan eřietan yayo ta azitako yuduak ziran.

Biraolaritzat Estebe salatuta

⁸ Esker ta indarez beterik, Estebe'k alatz ta aritzeko asko eriarengan egiten zitula-ta, ⁹ Yaregindakoen zeritzan sinagogako batzu, baita Kirene, Alexandri, Kiliki ta Asia'ko sinagogetakoak ere, Estebe'ren aurka eztabaidan yaiki ziran. ¹⁰ Aren izketako yakintza ta adoreari ezin gogor egin zioten, ordea.

¹¹ Gizon batzu erosi zituten, beraz, Mois'en ta Yainkoaren aurka birao-itzak entzun zizkiotela esan zezaten. ¹² Ta eria ta zar ta idazlariak axatuz, arengana yota, bera atzi ta batzarrera eraman zuten. ¹³ An aitorzale gezurti batzu aurkeztu zituten, ta auek esan zuten: «Gizon au ez da yauretxe ta legearen aurka itz egitez inoiz ere asperitzen. ¹⁴ Gerok entzun diogu esaten: Yesu Nazaretarak toki au porokatuko du, ta Mois'ek irakatsitako ekanduak aldatuko ditu». Ordun batzareko guziek ari so aginda, aurpegia ikusi zioten aingeru aurpegia bezelakoa.

VII

Estebe'ren itzaldia

A paiz nagusiak esan zion: «¿Ori orela al da?» ² Ta ark esan zun: «Ene anai ta aitak, entzun.

«Karan'en baño len Abraham, gure arbasoa, Mesopotami'n bizi zala, Yainko aintzatsua aurkeztu zitzayon, ³ ta esan zion: Zure lur ta aidetartetik irten ta Nik

³ As. XII, 2,

darakuskizukedan luáldera zatoz». 4 Orezkero, Kaldai luéetik irtenda, Karan'en gelditu zan. Andik, beíz, aren aita il ondoren, zuek orain bizi zeraten luí ontara Yaunak eratoíi zun. 5 Bañan ez zion artan oin bateko unerik ere beretzat eman; agintza, bai, egin zion, ordea, luí au berari ta bere ondorengoari yarauntsitzat emango ziela; ta au, Abrahan'ek semerik ez zunean. 6 Yainkoak esan zion berebat: **Zure ondorengoia atzerian arotz biziko da, lareun urtez yopu egiña ta azpiratuta.** 7 Ta aren yabe daiteken eíia Nik ebatziko dut, dio Yainkoak; eta azezkerok, zure ondorengoak luí ontan yauretsiko nau. 8 Erdain-ituna ere egin zun arekin; ta oírela Abrahan'ek Isaak soítu ta zoítzigaíren egunean erdaindu zun, ta berebat Isaak'ek Yakob, eta Yakob'ek amabi arbasoak.

9 «Arbasoek bekaitzez Yose saldu zuten Aigito'ra; bañan Yainkoa arekin zegon, 10 ta neke guzietatik atera zun; Aigito'ko bakalduna zan Paraon'ganako gogarabide ta sena eman zizkion; ta Paraon'ek Aigito'ren ta bere etxe osoaren, buru yaíi zun. 11 Baña gosete ta beltzaldi aundia Aigito osoan ta Kanaan'en soítu ziran, ta gure arbasoak yatekorik ez zuten. 12 Ordun Yakob'ek yanaria Aigito'n ba-zala adituta, gure arbasoak lenengo aldiz igoíi zitun. 13 Bigaírenean, Yose bere anayei azaldu zitzayen, ta aren yatoíia Paraon'entzat nabari egin zan. 14 Orezkero Yose'k bere aita ta aide guziak deitu ta eratoíi zitun, irurogei ta amabost lagun. 15 Yakob,

6 Lareun, zenbaki biribilez. Paul deunak (Gal III, 17) «lareun ta ogeitamar» dio. As. XV. 13.

beraz, Aigito'ra yetxi zan, ta bera, ta gure arbasoak ere, an il ziran. ¹⁶ Andik Siken'a aldatu ta Abrahan'ek bertan Emor'en semeei zilaréz erositako ilobian eortziak izan ziran.

¹⁷ «Yainkoak Abrahan'i egindako agintzaren garaya urbiltzen zala, eña Aigito'n ugari ta kopurutsu egiña zan. ¹⁸ Bañan Yose ez zezagun bakaldun beñi batek yaikita, ¹⁹ gure enda maltzurkeriz esetsi ondoren, gure asabaei beren semetxoak or' utzerazi zizkien, azi ez zitezkan. ²⁰ Garai artan Mois yayo zan, Yainkoaren Beraren begibetegañi. Ta iru ilabetez aitarenean azten egonda gero, ²¹ bera ere utzia izan zan. Baña Paraon'en alabak semetzat artu ta azi zun. ²² Aigitoaren yakintza guziak irakatsi zizkioten; ta or'ela Mois itzez ta egitez azkar egin zan. ²³ Beñogeï urte zitula, biotzak eraginda, Israeldañak, bere anayak, ikusi nai izan zitun. ²⁴ Bidegabe norbaiti egiten aigitoar bat ikusirik, gizaxo aren alde yañi zan ta, aigitoara sakailduz, ari egindako okeña zuzendu zun. ²⁵ Senideei adirazi nai zien bere eskuz Yainkoak yaregingo zitula; bañan ayek ez zuten ulertu. ²⁶ Biaramunean batzu upatu zitun auzka, ta elkar adiskidetzeko gogoz esan zien: «Gizonak, anai izanda, ¿zergatik elkar iraindu?» ²⁷ Bañan bestearen atomatzaleak Mois asagotu zun, esanaz: «¿Nork yañi zaitu gure gain nagusi ta ebazle? ²⁸ ¿Aigitoara atzo il zenun bezela, ni ere il nai ote nauzu?» ²⁹ Itzok adituta, Mois igesi ta Madi-an luñean arotz bizi izan zan, ta seme bi an izan zitun.

³⁰ «Beñogeï urte igarota, Sinamendi'ko basoan aingeru bat azaldu zitzayon sasi izekiaren gañetan. ³¹ Zekusan

agerkariaz Mois aritu zan: ta begiratzera urbiltzen zanean, Yaunaren mintzo au eldu zitzayon: **32 Ni naiz zure arbasoen Yainkoa, Abraham'en ta Yakob'en Yainkoa.** Mois ek, ordea, ikaraz, begiratzeko ere adorerik ez zun. **33** Ta Yaunak esan zion: **Oskiok erantzi; zauden tokia deuna da-ta.** **34** Nere erriaren larialdia Aigito'n ikusi dut ikusi, ta aren intziria entzundut; eta ayek gaizkatzera yetxi naiz. Zatoz, ba; **Aigito'ra bidaliko zaitut.**

35 «Nork yañi zaitu nagusi ta ebazle?» esanaz, ayek zapuztu izan zuten Mois berbera, Yainkoak nagusi ta yaregile bidali zien, sasia berari azaldutako aingeruaren eskuz. **36** Mois au da, Aigito'n itxaso Goñian ta basoan berogeï urtez alatz ta arigañiak egiñik, atera zituna. **37** Mois au da, Israeldareï esan ziena: **Ni bezelako igarile bat zuen senidetartetik Yainkoak sortuko dizue; berari entzun.** **38** Beraxe da, basoan gure asabataldearekin zala, Sinamendi'n zerauskion aingeruarekin egona, ta bizirako itzak gerontzat artu zituna. **39** Baña gure asaba ayek ez zioten entzun nai izan; aitzitik, gogoñ egin zioten ta Aigito'ra biotzez biurtu ziran, **40** Aaron'i esanaz: **Gure auretik yoateko yainkoak egizkiguzu; Aigito luřetik atera gaitun Mois orizer yazo zayonik ez dakigu-ta.** **41** Txekoñ bat ere egin zuten egun ayetan, ta irudin ari opa eskeñi zioten; ta beren eskulanaz poz pozik zebiltzan. **42** Argatik

32 Irt. III, 6.

33 Irt. III, 5.

35 Irt. III, 7-10; II, 24.

42, 43 Am. V, 25-27

Yainkoak yasanda, izañekiko yaureskerira biurtu ta erori ziran, igañleen idaztian esana dagonez:

Israel etxea, berogei urtez basoan sañaski-oparik eskeñi ote zenidaten?

43 Molok'en txabola

ta zuen yainko Erenpan'en izaña
zuen erdian artu zenituten, ordea,
zerok egindako irudiok yauresteke.

Beraz, Babilon'ez aruntzago aldatuko zaituzt.

44 «Itun-txabola gure arbasoekin basoan zegon. Ala Mois'i zerauskionak agindu zion, ba, artarako eredia erakutsiaz. 45 Ta bera gure arbasoek artu ta ekañi zuten, beren auretik Yainkoak oildutako erien yabe, Yesu'ren agindupean yañi ziranean. Egon ere orela zegon Dabid'en egunetaraño. 46 Yainkoaren edera onek euki zun, baita otoi egin ere, Yakob'en Yainkoarenzat aterpea egiteko. 47 Ala ere, etxea eraiki ziona, Salomon izan zan. 48 Ez da, oratiño, Goigoikoa eskuz egindako aterpetan bizi, igañleak dionez:

49 Ala dio Yaunak:

Ortzia dut aulki,

ta luña oñazpiko.

¿Zein etxe eraikiko didazute?

¿Zein liteke nere atsedeen tokia?

50 ¿Ez al ditu guziok nere eskuak egin?

43 Molok semitañen gezuñezko yainko zan; Erenpa (Raiphan, Remphan), beriz, Saturno beste izenez zeritzana.

45 «Yesu au Yosue zan; Yesu ta Yosue izenek batera yotzen dute.

49, 50 Is. LXVI, 1, 2.

⁵¹ «Lepagogoí, biotz ta beláři erdaindu gabeok; Goteunari zuek beti gogor dagiozute. Ala zuen asabak, ala zuek ere. ⁵² ¿Zein igaíle ez zuten zuen arbasoek esetsi? Ayek, Zuzenaren etoíera ziragaítenak il egin zituten; zuek Berari iruzur egin ta bizia kendu diozute. ⁵³ Aingeruen bitartez legea artu ta ez duzute bete».

Estebe'ren eriotza

⁵⁴ Au entzunda, ayen biotzak leítu beárez ta ortzak kaíaska asi ziran aren aurka. ⁵⁵ Ark, beíz, Goteunez beterik, ortzira begira ta Yainkoaren aintza ikusi zun, baita Yainkoaren eskui aldean Yesu zutik ere. ⁵⁶ Ta esan zun: «Oía ortzia zabalik dakust, eta Yainkoaren eskui aldean Gizasemea zutik». ⁵⁷ Ordun ayek, gaíaxika beren beláriak estalirik, oldaí batez gañera etoíi zitzazkion, ta iritik landara yaurti ta aírikatu egin zuten. ⁵⁸ Ta an bildu ziranek beren txabuxak Saul zeritzan gazte baten oñetan ezaíta, ⁵⁹ Estebe aírikatzen zuten. Onek, bitartean, áren au zerasan: «Yesu Yauna, artu nere arnasa». ⁶⁰ Ta belaunikaturik, ozengi ots egin zun: «Yauna, ez iezu ogen au egotzi» Au esanda, erio-lo egin zun.

Aren eriotza, beíz, Saul'ek edeíresten zun.

⁵¹ Biotz-belaíri erdaindu gabeok: Yaunaren agindua entzun nai ez duzutenok.

⁵⁸ Aitoílariek lenengo aíriak bota beaí zituten. Deut. XVII, 17,7.

VIII

Siñestunak bařeyatuta

Egun berean yazaři aundi bat Yerusalen'go Elizaren aurka sořtu zan; ta, bidaliak kenduta, Yudai ta Samari bazteřaldetara guziak bařeyatu ziran. ² Ala ere, gizon Yainkozale batzuk Estebe eortzi zuten ta ileta aundiak egin zizkioten. ³ Saul'ek, beřiz, itxesa Elizari zekařkion, gizon ta emakumeak atzi ta baitegira eramateko etxerik etxe sařtuz.

⁴ Bitartean, bařeyatu ziranak, an emen zebiltzan, Beři Ona zabaltzen.

Pilipe Samari'n

⁵ Pilipe'k Samari'ko iri batera yetxirik, Kisto'ren beři angoei zeramayen; ⁶ ta Pilipe'k zesayena gogotik entzuteko guziak bat ziran, egiten zitun alatzak ikusirik. ⁷ Izan ere, txerendun askorengandik txeren satsuak deadařez irten, ta elbaři ta eřen asko sendatzen ziran. ⁸ Argatik poza iri artan aundia zan.

⁹ Irian, beřiz, Simon zeritzan norbait aspaldi bizi zan aztiketean, eta eřia liluratuta zeukan, aundiren bat bera zařa esanaz. ¹⁰ Guziek, txiki ta aundi, aditzen zioten, esanaz: «Au duk, bai, Yainkoaren indařa, ta aundia gero». ¹¹ Oři adikoř azaltzen zitzazkion, beřiz, bere aztikeriz aspaldi luzetik liluratuak zeuzkalako.

⁵ **Pilipe** onetzaz begira idazti ontan VI, 5 ta XXI, 8—Pilipe bidalia beřte bat zan.

¹² Baña Yainkoaren yauraldia Yesu Kisto'ren izenean aldañikatzen zion Pilipe'ri siñetsi zioteneko, guziak, gizon ta emakume, ukuzten ziran: ¹³ ta Simon'ek berak siñetsi ta ukuzpena artu zun; ta arézkero Pilipe'ren yaraile egin zan, onek egiten zitun alatz ta arigañiak txoratuta ikusirik.

Kepa ta Yon Samari'n

¹⁴ Yainkoaren itza Samari'k artu zula Yerusalen'en zeuden bidaliek entzun zutenean, Kepa ta Yon ayengana igorri zituten. ¹⁵ Ta auek ara eldu ziranean, ayen alde otoi egin zuten, Goteuna ar zezaten. ¹⁶ Oraindik ez zan, ba, ayetako inorenzana etoña; ta bakañik Yesu Yaunaren izenean ukuziak ziran. ¹⁷ Garai artan, beraz, eskuak gañera ezartzen zizkien, ta oñela ayek Goteuna artzen zuten.

¹⁸ Bidalien esku-ezartzez Goteuna ematen zala Simon'ek ikusita, zilara eskeñi zien, ¹⁹ esanaz: «Niri ere al izate au idazute, eskuak nik edonori ezañita, alakoak Goteuna ar dezan». ²⁰ Baña Kepa'k esan zion: «Bego zurekin zure zilara zeroñen galgañi; Yainkoaren emaria zilaraz iritsi uste duzu-ta. ²¹ Ez dago zuretzat izpide ontan eskurik, ez erkidegorik; Yainkoaren auean zure biotza zuzen ez dalako. ²² Zure gaiztakeri onen garbai izan zaitez, beraz, ta Yainkoari otoi egiozu, zure biotzeko asmakeria askesten ote dizun; ²³ beazun gañatzez

¹⁵ Pilipe'k diakon baizik ez zan ezkerro, ez zun Sendatzaren bitartez Goteuna emateko eskubiderik.

¹⁹ Emendik datoñkigu arimari dagozkion sal-erosketak simonkeri deitzeko oitura.

ta gaiztakeri-biluñez zaudela dakust-eta». ²⁴ Simon'ek erantzun ta esan zion: «Zerok nere alde Yaunari otoi egiozute, esan duzutenik ezer ere ez datořkidan».

²⁵ Ořela Yauna aitořtu ta Aren itza aldařikatu zutela, Yerusalen'ako ostera ařtu zuten, Beři Ona bide nabař Samari'ko bazteř askotan zabalduz.

Aitiopi'ko irena

²⁶ Bitartean Pilipe'ri Yaunaren aingeruak itz egin, ta esan zion: «Yaiki ta zoaz egoalderuntz, basoan bařna Gaza'ra Yerusalen'dik yeixten dan bidera». ²⁷ Ta Pilipe yaiki ta yoan zan. Ta ara, Aitiopi'ko andregoi Kanda-ke'ren inguruko aundiki ta altxořtzaya zan aitiopiař gizon iren bat, yauresketara Yerusalen'a etoři zala, ²⁸ berera itzultzen zan bere guřdian eserita, Isai igar-learen idaztia irakuřtzen. ²⁹ Gogoak Pilipe'ri esan zion: «Ots, eldu gurdi ořtara». ³⁰ Ara leyaturik, Isai igar-learena irakuřtzen entzun ta esan zion: «Irakuřtzen duzuna ulerřtzen al duzu?». ³¹ Ark erantzun zion: «Nola nezake, iřnork azaltzen ez ba'dit?» Eta Pilipe'ri eskatu zion igo ta berekin esertzeko. ³² Irakuřtzen zun idaztunea au zan:

**«Ardia bezela, arategira eramán zuten,
ta moztalearen auřean bildots isilak bezela,
ez zun aoa irikitzen.**

³³ Aren auzia lotsagařiro ebatzi da.

Aren gizaldia nork azalduko du,

Aren bizia luřetik erauzia dan ezkeror?»

32, 33 Is. LIII, 7, 8.

³⁴ Irenak ordun Pilipe'ri esan zion; Nortzaz, otoi, igarleak ori dio? ¿bere buruaz, ala beste norbaitetzaz?».

³⁵ Ta Pilipe'k, bera aoa irikirik, idaztune ontatik asita, Yesu'ren be'ri yakiñerazi zion. ³⁶ O'rela bide egiñaz, urgune batera eldu ziran, ta irenak dio: «Begira emen ura. ¿Ukuzpena zerk daragozkit?».

³⁷ Eta Pilipe'k esan zion: «Biotz biotzez siñesten ba'duzu, ezerk ez.» Ark erantzun ta esan zion: «Yainkoaren Semea Yesu Kisto dala siñesten dut.» ³⁸ Eta gurdia gelditzeko agindu zun. Beraz, biak, Pilipe ta irena, uretara yetxi ziran, ta Pilipe'k ukuzi zun. ³⁹ Bañan uretik igo ziranean, Yaunaren Atsak Pilipe eramán zun, ta a'ezkero ez zun arenik irenak ikusi. Ala ere bide au'era ziyoan.

⁴⁰ Pilipe, be'riz, Azot'en au'kitu ta andik Kaisarai'ra yoan zan, Be'ri Ona iriz iri zabaltzen.

IX

Saul'en onbideratzea

B itartean Saul'ek, Yaunaren ikasleen au'ka oraindik zema-sa'askiak zeriotzala, apaiz nagusiarengana yo, ² ta Damasko'ko sinagogentzat idazkiak eskatu zizkion, lege ontako iñortzu idoro ezkerro, guziak, gizon ta emakume, lotu ta Yerusalen'a eka'rtzeko. ³ Bide egiñez Damasko ondora eldu zanean, ostargi istatsuz bat batean bildurik au'kitu zan, ⁴ ta lu' yota, mintzo

bat entzun zun berari esaten: «Saul, ¿zergatik esesten nauzu?»

⁵ Ta erantzun zion: «Yauna, nor zaitut?»

Ta mintzoak ari: «Zuk esesten duzun Yesu naiz Ni. Gogoń zaizu eztenari ostiko egitea.»

⁶ Saul'ek ikara ta izaturik esan zion: «Yauna, ¿zer nai duzu dagidan?»

Ta Yaunak ari: «Yaiki ta sańtu irian; ta esango dizute zer egin bearń duzun».

⁷ Aren bidaideak ańituta zeuden mintzoa entzun bai ta ińor ikusten ez.

⁸ Saul yaiki zan; bańa begiak iriki ańen, ezer ez zekusan. Eskutik elduta, beraz, Damasko'ra eramantuten. ⁹ Ta iru egunez egon zan, ezer ikusi, ezer yan ta ezer edan gabe.

¹⁰ Anani zeritzan ikasle bat Damasko'n ba-zan. Oni Yaunak irudipenez esan zion: «Anani».

Onek esan zion: «Emen naukazu, Yauna».

¹¹ Ta Yaunak ari: «Yaiki, Zuzena deritzan kalera yoan, ta Tarso'tarń Saul batengatik Yuda'renean galde egiozu. Otoiketari oń dago, ¹² ta Anani deritzan gizon bat irudipenez ikusi du beragana sańtzen eta eskuak berari ezańtzen, ikustun egin dedin».

¹³ Anani'k erantzun zion: «Yauna, askori entzunda nago zeinbeste kalte zure deunei gizon ońek Yerusal'en egin dizkien. ¹⁴ Emen bertan zure izenpean dauden guziak biluńtzeko eskubidea apaizpuruengandik ańtu omen du».

¹⁵ Bańa Yaunak esan zion: «Zoaz; beraxe dut nere

izena, atzeri, bakaldun ta Israel'en semeei eramateko langile autua-ta. ¹⁶ Nik erakutsiko diot zeinbeste neke yasan bea' ditun nere izenarengatik».

¹⁷ Ordun Anani yoan ta arenean sa'rtu zan. Ta eskuak berari eza'irik, esan zion: «Saul ene anaya; Yesu Yaunak, onuzko bidean ikusi duzunak, bidalita nato'rkizu, ikustun egin ta Goteunez bete zaitezán.» ¹⁸ Ta bertantxe aren begietatik ezkatak edo alakotsu zerbait yaiki zala, be'iro ikusten asi ta yaikirik ukuzia izan zan. ¹⁹ Ta zerbait yanda, inda'rtu zan. Ta zenbait egunez Damasko'ko ikasleekin gelditu zan.

Saul'en lenbiziko alda'riak

²⁰ Ta bereala asi zan Yainkoaren Semetzat sinagogetan Yesu alda'rikatzen. ²¹ Ta entzule guziek a'rituta zioten: «Ez ote duk au izen o'ren alderdikoak Yerusalen'en po'rokatzen ari izana, ta emengoak ere apaizpuruengana loturik eramateko eto'ria?» ²² Saul'ek, be'riz, geroago ta azka'rago Damasko'ko yuduak lotsarazten zitun, «Ori Kistoa da» aito'rtuz.

²³ Egun askotsu igarota, yuduak elka'rtu ziran, ura galtzeca'ren, ²⁴ ta gau ta egun atezai zeuden ura iltzeko. Ayen burupidea Saul'ek iga'ri zun, ordea, ²⁵ ta ikasleek gauez bera a'rturik, saski batean ormatik landara eratxi zuten.

²⁶ Yerusalen'a eto'irik, ikasleekin batu nairik zebilan; ba'nan ayek, ikasle zala ez baitzekiten, aren beldu'

²³ Egun asko auek, Arabi'n bazte'rtuta bizi izan zan iru urteak bide dira. Beg. Gal. I, 17

ziran. ²⁷ Ordun Barnaba'k Saul artu ta bidaliei aurkeztu zien. Saul'ekin Yaunak bidean egindako aurpegi-ikuste ta mintzaldia ere azaldu zizkien, baita Yesu'ren izenean zabal zabal Damasko'n ari izan zala ere. ²⁸ Aezkero Yerusalen'en ayekin zebilan sar-irtenik; ta Yaunaren izenean zabal zabal itz egiñik. ²⁹ Elenda'rekin ere erausi ta eztabaidak ba-zitun; ta ayek bera iltzeko asmoa zerabilten. ³⁰ Bañan ori anayek igarita, Kaisarai'ra eraman ta andik Tarso'ra igori zuten.

Kepa Lida'n ta Yope'n

³¹ Eliza, beñiz, Yudai osoan, Galilai'n ta Samari'n nare zegon, azten ziyoan, ta, Yaunaren beldurez ari zala, Goteunaren urgaziz zabaltzen zan.

³² Guziengana Kepa ziyoan, ta Lida'n bizi ziran zindoengana ere eldu zan. ³³ Ainea zeritzan elbari bat an idoro zun, zortzi urte ezkerro oean zetzana. ³⁴ Kepa'k esan zion: «Ainea, Yesu Kisto'k sendatzen zaitu. Yaiki ta zure oea atondu». Ta bertantxe yaiki zan. ³⁵ Lida ta Saron'go bizilagun guziek bera ikusi zuten, ta Yaunarengana biurtu ziran.

³⁶ Yope'n ere, Tabita, edo berdin dana, Basauntz zeritzan andre guziz ongile ta ukar emale bat ikasleetan ba-zan. ³⁷ Ta ara, egun ayetan gaxotu ta il egin zan, ta ikuzi ondoren, etxeko goyaldean yari zuten. ³⁸ Yope ondoan Lida dago; ta ikasleek Kepa an zegola adituta, arengana gizon bi igori zituten eskari au egiteko: «Zatoz lenbaitlen gurera». ³⁹ Kepa, beraz, yaiki ta yoan zan

³² Batioaren bidez. Yainkoarekin baturik ta mundu okeretik aldendurik dauden siñestun guziei **Zindo** edo **Santu** izena dagokie.

ayekin. Ara eldu zaneko, goitira eramán zuten; ta alargun guziek, arengana negáez yota, Basauntz'ek, ayekin zegonean, zegizkien yazki ta soñekoak zerakusazkioten. ⁴⁰ Kepa'k guziei alde eraginda, belauniko otoi egin zun, ta ilotzarengana itzulirik, esan zion: «Tabita, yaiki zaitez». Ta ark, begiak iriki zitun, ta Kepa ikustean, agondu zan. ⁴¹ Ordun Kepa'k, ari eskua emanéz, eraiki zun; ta zindo ta alargunak deituta, bizirik itzuli zien. ⁴² Yope osoan gertari au nabari izan zan; ta ainitzek Yaunari siñetsi zioten. ⁴³ Yope'n, beñiz, egunetarako gelditu zan Simon zeritzan larugin batenean.

X

Korneli'k Kaisarai'n ikusia

Italika zeritzan gudasailko euntari bat, Korneli izenez Kaisarai'n ba-zan. ² Gizon zintzo ta yainkozalea zan bere etxeko guziekin; eñiari uka' asko zegizkion, ta otoiketán beti Yainkoari ari zitzayon. ³ Onek irudipenez Yainkoaren aingerua argiro ikusi zun irurak aldean beragana sartzen ta berari esaten: «Korneli». ⁴ Korneli'k, arengana begi begira ta izuak artuta, esan zion: «¿Zer da, ba, Yauna?» Ta aingeruak esan zion: «Zure otoi ta uka'ak zure oroigañitzat Yainkoaganaño igo ziran. ⁵ Orain, ba, norbait Yope'ra igo'azu, Kepa goitizena dun Simon bat deitzeko. ⁶ Itxasegian etxea daukan Simon larugin norbaitenean arotz dago».

⁷ Zerauskion aingerua yoan zala, Korneli'k mo'oi

1 Emen asten da idazti onen atal beñia: Ebaingeria, Yerusalen'en ta Samari'n argituta gero, gentilengana zabaltzen da.

bi ta bere menpeko gudamutil yainkozale bat deitu,
 8 ta yazoa ayei azaldurik, Yope'ra bidali zitun.

Kepa'k Yope'n ikusia

9 Biaramunean, bidean ayek yoan ta irira urbiltzen ziranean, etxegañera Kepa igo zan otoi egitera eguerdi aldean. 10 Gosetu zan, ordea, ta zerbait artu nai izan zun. Baña, bazkaria gertutzen ziotela, zorabiotuta gelditu zan. 11 Ta ortzia zabalik ikusi zun, baita izara aundi bat zirudin zerbait, lau mokotatik eutsita, lu' gañera yeisten ere. 12 Edozein muetako piztiak artan ba-ziran; lu'eko narasti ta lauroñekoak, eta ortziko egaztiak. 13 Ta mintzo bat eldu zitzayon: «Kepa, yaiki, il ta yan».

14 Baña Kepa'k esan zun: «Inola ere ez, Yauna; mor-doil ta satsu danik ez dut egundaño yan».

15 Ta be'iro mintzoak ari: «Yainkoak garai egiña, loitzat zuk ez etsi». 16 Irutan ori gertatu zan, ta izara lako ura laster ortzira biurtu zuten.

17 Irudipen onek zer ote leka'kioken gogoan Kepa zegolarik, ara Korneli'ren geznariak, Simon'en etxea bilatuta gero, atauréan zeuden, 18 ta, dei eginda, Kepa zeritzan Simon an arutz ote zegon galdetzen zuten, 19 ikusitakoaz Kepa oldozketan ari zala. Gogoak esan zion: «Ora iru gizon zure galde. 20 Yaiki, ba, ta enura gabe yetxi ta zoaz ayekin; Neuk bidaliak dituzu-ta».

21 Ordun Kepa'k yetxi ta gizon ayei esan zien: «Ona zuek bilatzen duzuten au. ¿Zer dala-ta etori zerate?»

22 Ayek esan zioten: «Korneli euntariak, gizon zintzo ta yainkozaletzat yudu e'ri osoarengan ezagunak, bere etxe-

ra zu deitzeko ta zure itzak entzuteko aolkua, aingeru deun baten bidez, artu du».

²³ Beraz, etxean sartu ta geldirazi zitun.

Biaramunean yaiki ta yoan zan ayekin; baita Yope' ko anai batzu ere arekin yoan ziran.

Kepa Korneli'renean

²⁴ Uringo egunean Kaisarai'n sartu zan. Aide ta adiskide miñenak ordurako bilduta, Korneli ayen zai zegon, ²⁵ ta Kepa sartu zaneko, Korneli'k argana auratu ta aren onetara auzpezturik, agur egin zion. ²⁶ Baña Kepa'k eraiki zun, esanaz: «Yaiki; nerau ere gizon naiz, ba». ²⁷ Ta arekin zerausala sartuz, lagun asko bildurik idoro zitun, ²⁸ ta esan zien: «Ba-dakizute yuduei eragoztzita dagokiela atzeritaekin bildu ta elkartzea. Yainkoak irakatsi dit, ordea, inor ere atzerita ta loigaritzat ez irizten. ²⁹ Orrexegatik ere, zuek ni deituta, isil-isilik etoñi naiz. Esaidazute, ba; ¿zertarako deitu nauzute?» ³⁰ Ta Korneli'k esan zun: «Erenegun aurretik, nere etxean otoi egiten iruretan ari nintzan, ta ara, gizon bat soñeko zuritan aurkez ageri ³¹ ta mintzatu zitzaidan: «Korneli, zure otoa Yainkoak entzun ta zure ukarak esker onez ikusi ditu. ³² Beraz, Yope'ra norbait bidalazu, Kepa goitizena dun Simon deitzeko. Itxasegian, Simon laruginenean dago arotz. ³³ Deitzaleak, beraz, bereala bidali dizkizut. Zu, beriz, ain ona izanda, etoñi egin zera. Ona, ba, guziek, Yaunak agindu dizun dana entzuteko, Yainkoaren aurrean gerturik».

³⁴ Ordun Kepa'k bere aoa iriki ta esan zun: «Ikusi

ere ba-dakust norkeritan Yainkoa ari ez dala; ³⁵ edozein eritan, beriz, Aren beldur ta zintzo dabilana begiko zayola. ³⁶ Berak Israel'en semeei bere itza eratorí zien, guzien Yauna dan Yesu Kisto'ren bidez gentza aldarikatuz. ³⁷ Yon'ek aldarikatutako ukuzpena ondoren, Galilai'n lenbizi ta Yudai osoan gero, zer yazo dan ba-dakizute; ³⁸ Yesu Nazaretaía, goi adorez ta indarez Yainkoak igurtzia, on egiñez ta txerenpeko gaxo guziak sendatuz igaro zala, Yainkoa Arekin zegolako. ³⁹ Ta Berak yuduen lúean ta Yerusalen'en egindako guzien aitorí izan gera gu. Ayek, beriz, tantai batetik esegi ta il egin zuten. ⁴⁰ Bañan irugaeren egunean Yainkoak berpiztuzun, ta agertzeko eskua ere eman zion; ⁴¹ ez eí osoari agertzeko, ordea, guri baño, Yainkoak lenik aitoritzale autuoi, ta Bera ilartetik berpiztu zan ondoren Arekin yan ta edan dugunoi. ⁴² Bera bizi ta ilen ebazle ere Yainkoak yaía dala aldarikatu ta aitoritzeko agindu ere digu. ⁴³ Ta igarle guzien aitoréz, Aren siñestun guziek ogen asketsa bere izenean artzen dute».

⁴⁴ Itzok esaten Kepa oraindik ari zan, ta entzule guzien gañera Goteuna yetxi zan. ⁴⁵ Goteun-emia atzerikoen gañera ere ixurtzen ikustean, Kepa'rekin etoritako siñestun erdaindu guziak arituta zeuden; ⁴⁶ izkuntza arotzetan itz egiten ta Yainkoa goresten zentzuyetelako. Ordun Kepa'k esan zun: ⁴⁷ «Goteuna auek, guk bezela, artu duten ezkerro, ¿ukuzpenerako ura nork eragotzi lezayeke?» ⁴⁸ Ukuzpena, beraz, ayei Yesu Kisto'ren izenean ematea agindu zun. Ayek, beriz, berari egun batzutan an gelditzeko eskatu zioten.

XI

Kepa'k egiñaren zuribidea

Yainkoaren itza atzerikoek ere artu zutela Yudai'n zeuden bidali ta anayek entzun zuten. ² Beraz, Yerusalen'a Kepa igo zanean, erdainduak arekin yardukitzen asi ziran, ³ esanaz: «Buztan-mokodunen etxean sartu ta ayen maikide egona zaitugu, beraz».

⁴ Ordun Kepa'k, zirtitutik aria artuz, zeatz ta meatz yazoa azaldu zien, esanaz: ⁵ Yope irian otoi egiten nengola, irudipen bat zorabiotan izan nun. Miesa aundi bat zirudin zerbait nekusan ortzitik bêra, lau mokotatik eutsita, yeixten ta nigana eltzen. ⁶ Ta begiok adi adi artaratuz, so negion, ta lu'eko lauroin, iize ta narastiak, eta ortziko egaztiak an ikusi nitun. ⁷ Mintzo bat ere entzun nun niri esaten: «Kepa, yaiki, ta il ta yan». ⁸ Nik erantzun: «Inola ere ez, Yauna; mordoil ta satsu danik ez zait beñere aotik sartu». ⁹ Ortzitik be'iro mintzoak erantzun zidan; «Yainkoak garbi egiña loitzat zuk ez etsi.» ¹⁰ Irutan ori gertatu zan, ta dana ortzira biurtu zuten. ¹¹ Ta ara bertantxe iru gizon eldu ziran nengon etxera, Kasaira'tik nigana bidalita. ¹² Goteunak, be'riz, esan zidan ayekin enura gabe yoateko. Nerekin sei senide auek ere eto'ri ziran, ta gizon aren etxean sartu giñan. ¹³ Ark azaldu zigun bere etxean aingerua ikusi zula zutik egoten ta berari esaten: «Yope'ra norbait igorazu, Kepa goitizena dun Simon deitzeko.

¹⁴ Berak esango dizunak gaizkatuko zaitu zure etxe guziarekin». ¹⁵ Itz egiten ozta asita nengon, ta Goteuna ayen gañera, len gure gañera bezela, yetxi zan. ¹⁶ Ordun oroitu nintzan Yaunak esandako itz ayetaz: «Yon'ek urez ukutzten zun; zuek, ordea, Goteunez ukuziak izango zerate». ¹⁷ Beraz, Yesu Kisto Yauna siñetsi dugunoi emandako eskeía bera Yainkoak ayei ere ba'zema-yen, ¿nor nintzan ni Yainkoari eragozteko?»

¹⁸ Itzok adituta, ibitu ziran ta Yainkoa goratu zuten, esanaz; «Oía, ba, atzeíei ere Yainkoak bizirako garbaya eman die».

Antiokei'ko elizaren asiera

¹⁹ Estebe zala-ta, soítutako beltzaldian baíeyatu ziranak, Poinike, Kiper ta Antiokei'n baína zebiltzan, Beíri Onaz itzik ere, yuduei baizik, iñori egiteke. ²⁰ Aye-tako batzu Kiper'taí ta Kirenai'taí ziran; ta auek, Antiokei'ra elduta, elendaíei ere itz egin zieten, Yesu Yaunaren beíri zeramayetela. ²¹ Yainkoaren eskua ayekin ari zan, ta askotsu siñestun egin ta Yaunarengana biúrta ziran.

²² Ayen beíri Yerusalen'go elizarengana eldu zala, Barnaba bidali zuten Antiokei'ra. ²³ Ara eldu ta Yainkoaren eskeía ikusi zunéan, poztu zan, ta Yaunari biotzez gogoí eusteko, guziak berotzen zitun. ²⁴ Gizon ona zan, ba, Goteunez ta siñestez okitua. Beraz, sail edeía Yaunari itsatsi zitzayon.

²⁵ Andik Tarso'ra yoan zan Saul'en bila; ta bera idorota ekaíi zun Antiokei'ra. ²⁶ Urte bete ango elizan

gelditu ziran, lagun askotsuei irakasten. Ta ikasleak Antiokei'n asi ziran Kista' izena eramaten.

²⁷ Iga'le batzu egun ayetan Yerusalen'dik Antiokei'ra yetxi ziran. ²⁸ Agab zeritzan ayetako batek gosete go'i bat lu' osoan so'rtzeko zala goi-argiz iraga'i zun: ta ala gertatu zan ere Kalaudi'ren yauraldian. ²⁹ Iksaleek, beraz, Yudai'n bizi ziran senideei sorozkiak igo'rtzea erabaki zuten, bakoitzak al zukenez. ³⁰ Ta ala egin ere zuten Barnaba ta Saul'en eskuz za'ei igo'irik.

XII

Eliza Erode'k esetsita

G arai artan Erode bakalduna esku latza erabiltzen asi zan Elizako batzuen kaltetan. ² Bizia ere Yakob'i, Yon'en anayari, ezpataz kendu zion. ³ Ta yuduei ori atseginga'i zitzayela ikusirik, Kepa ere atzeman zun. Otil egunetan ori. ⁴ Ta atzeman Paska ondoan e'riari au'keztu nairik, baitegian itxi zun launa gudamutileko lau sailtxoren zaipean. ⁵ O'ela baitegian itxirik Kepa zegon bitartean, Elizak aren alde Yainkoari otoi zegion etengabe.

⁶ Erode'k bera agirian au'keztu nai zun au'eko gabean Kepa lo zetzan bi gudamutilen erdian bi katez loturik; atau'ean, be'riz, zaitzaleak zai zeuden. ⁷ Ta ara, Yaunaren aingeru batek, ba'rne ura argituz, zerutik

26 Beg. Is. LXV, 15.

28 Lu' osoan, au da, E'roma'rek menpetutakoan.

1 Erode au Erode Agrippa da, Aristobul eta Berenike'ren seme, aitagandik Erode Aundiaren biloba.

azaldu ta Kepa sayetsean yo ta esnatu zun, esanaz: «Yaiki azkaí». Kateak ordun aren eskuetatik yalki ziran, ⁸ ta aingeruak esan zion: «Geíkoa lotu ta oskiak yantzi». Ta ala egin zun. Aingeruak beíro: «Soingañekoa ezaí ta zaíazkit». ⁹ Irten zan, beraz, aren atzetik. Ez zekin, ordea, egia zanik aingeruak zegiña, ta irudipen bat zekusalakoan zegon. ¹⁰ Lenbiziko zaisala, baita bigárena ere atzera utzita, eldu ziran irira daraman burnizko atera. Ate au berez iriki zitzayen; ta ayek irtenda kale bat igaro zuten. Bat batean aingeruak alde egin zion, ¹¹ ta Kepa'k, bere baitara itzulirik, esan zun: «Orain ziñez dazagut: Yainkoak bere aingerua bidali dit, eta Erode'ren eskutik eta yudu eíiaren itxokeri guzitik yarei atera nau».

¹² Ta yazoa gogoan erabilki, yoan zan Mari'ren etxera. Mari, beíz, Mar'k zeritzan Yon'en ama zan, ta arenean lagun asko bilduta zeuden otoyez. ¹³ Ezkaratz-atean yo zunean, Erode zeritzan neskame bat atera zan aditzera, ¹⁴ ta Kepa'ren mintzoa ezagunda, ez zion pozaíren atea iriki; baínera leyatu zan, ordea, esanaz: «Kepa dago atauíean». ¹⁵ Bañan ayek esan zioten. «Burutik ago». Neskamea, beíz, bere artan, ta ala zala. Ayek ordun zioten: «Aren aingerua da». ¹⁶ Bitartean Kepa atea yotzen zegon. Iriki ziotenean, aítu ziran bera ikustez. ¹⁷ Baña berak, eskuz isilerazi ta azaldu zien nola Yaunak baitegitik atera zun. Esan zien ere: «Dana Yakob'i ta senideei yakiñerazi ezayezute». Ta irtenik, yoan zan bestetara.

¹⁸ Egundu zanean, ¡Kepa'rena zer ote liteken, guda-

mutilen laña! ¹⁹ Erode'k bera alpe'rik bilatu ezkeru, zaitzaleak ike'ri ta ilerazi zitun. Gero Yudai'tik Kaisarai'ra yetxirik, an gelditu zan.

Erode'ren azkena

²⁰ Tir ta Sidon'da'rekiko ase're zan. Bañan ayek gogo batez eto'ri ziran arengana, ta bakaldunaren gelazai Blast limu'rturik, pakea eskatu zioten; bakaldunaren lu'retik ayena azten zan, ba. ²¹ Beraz, aututako egunean Erode'k, bakaldun-so'nekoz yauralkian eserita, itzaldi bat egin zien, ²² ta e'riak oyuka zion: «Yainkoaren mintzoa, ez gizarena». ²³ Baña bat batean gorakuntza Yainkoari biu'rtzen ez ziolako, Yaunaren aingeruak yo ta a'rek irentsita il zan.

²⁴ Yainkoaren itza, be'riz, zabaldu ta au'ratzen zioan. ²⁵ Ta Barnaba ta Saul, beren egitekoa egin ezkeru, Yerusalen'dik itzuli ziran, Mark bi'riena zun Yon berekin zeka'rtela.

XIII

Barnaba ta Saul bidalita

I ga'le ta irakasle batzu ba-ziran Antiokei'ko elizan; Barnaba, Simon Beltza, Luki kirenaita'ra, Manahen, laurdenburu Erode'ren edoskidea, ta Saul. ² Yauresketan ta burutan ayek ziardutela, Goteunak esan zien: «Saul ta Barnaba berezi izkidazute deitu ditudan eginbiderako.» ³ Ordun baru ta otoi eginda, eskuak ga'nera eza'ri zizkien, ta bidali zituten.

4 Goteunak orela bidalita, auek Seleuki'ra yetxi, ta andik Kiper'a etoñi ziran itxasoz. 5 Salamin'a elduta, Yainkoaren itza iragañtzen zuten, Yon ere lagun zitzayela.

6 Ugartean baña ibilki, Papo'ra etoñi ta Baryesu zeritzan yudu azti ta sasigarle bat upatu zuten. 7 Gizon ori Sergi Paul buruzagi guñbilaren maizteñetakoa zan. Onek Barnaba ta Saul deiturik, Yainkoaren itza entzuteko gogoa erakutsi zien. 8 Elina aztiak (Elina ta azti izenok berbera esan nai dute) eragotzi nai zien, siñesetik buruzagia aldentzeko. 9 Baña Paul ere zeritzan Saul'ek, Goteunez beterik, ari so egin 10 ta esan zion: «Maltzuñ, gaizto, txerñkume, onbide guzien etsaya ta alaena; ez al aiz Yaunaren bide zuzenak okertzetik aldentuko? 11 Oñ ba, onezkero ire gañean Yainkoaren eskua. Itsu izango aiz, eguzki argia aldi baterako ikustekke.» Ta bertantxe lañotu ta ilundu zan, eskutik nork leramaken bila alde orotara biurturik. 12 Ordun buruzagiak, yazoa ikusirik, siñetsi zun, Yaunaren ikasbidean añituta.

Paul ta Barnaba Pisidi'ko Antiokei'n

13 Papo utzita, Paul ta arekin zeudenak Panpili'ko Perge'ra etoñi ziran; Yon, beñiz, ayengandik aldentuta, Yerusalen'a itzuli zan. 14 Perge'tik ayek Pisidi'ko Antiokei'ra eldu ta larunbatean sinagogan sartu ta yañi

9 Emendik auñera, Saul eberkeraren orde, beti batera ta gerkerazko Paul izentauko da. Umetxotik eroma-uritaña zan ezker, Paul izena ere, Saul eberkerazko izenarekin batera, erabili zun. Saul=bialdua. Paul=txikia.

ziran. ¹⁵ Lege ta Igarleen irakuáldia amaituta, sinagogako nagusiak dei au bidali zieten: «Anayok, ériarentzat aolkizunik ba'duzute, mintzo zaitezte».

¹⁶ Ordun Paul'ek, zutitu ta eskuz ixo egiñik, esan zien: «Israeldarok eta Yainkoaren beldur zeratenok, entzun. ¹⁷ Israel éri onen Yainkoak, Aigito'ko atzeáldian, gure arbasoak autu, éria goratu ta beso azkaéz andik atera zitun. ¹⁸ Basoan ere be'rogeiren bat urtez yasan zitun. ¹⁹ Ta Kanaan lu'ean zazpi éri po'rokatuz, ayen lu'ra yarauntsitzat eman zien ²⁰ lareun ta be'rogei ta ama'eren bat urtez. Gero ebazleak ya'ri zizkien Samuel igarleganaño. ²¹ Ordun ayek bakaldun bat eskatuta, Yainkoak Saul, Kis'en semea, benyaminda'ra, ya'ri zien be'rogei urtez. ²² Ta ori erauzirik, Dabid, Yesai'ren semea, bakaldun ya'ri zien, aitor' au zegiola: **«Dabid, Yesai'ren semea, aurkitu dut nere biotzaren edukoa ta nere gogo guziak betetzekoa».** ²³ Beraren azitik, agintzaren arauz, Israel'i Yainkoak Yesu yaregilea eraiki zion. ²⁴ Au eto'ri baño len, ordea, garbai-ukuzpena Yon'ek éri guziari alda'rikatu zion. ²⁵ Ta bere arloa amaitzerakoan, Yon'ek zion: **«Ez naiz ni zuek naizala uste duzutena; o'ra, be'riz, nere ondoren ba-dator' beste bat; eta aren oñetakoak askatzeko ere ez naiz ni nor».**

²⁶ Ene senideok, Abraham'en aziko semeok, eta zue-tan Yainkoaren beldur zeratenok! Zuentzat bidalita dago osabide ontarako itza. ²⁷ Alabañan, Yerusalen éri-

22 Er. LXXXVIII, 21; Bak. 1'g. XIII, 14.

25 Mat. III, 11; Mark. I, 7; Yon. I, 27.

koek eta ayen nagusiek, Bera ezaguteke gaiztetsirik, larunbat oro irakurtzen diran igarleen esanak bete zituden; ²⁸ Bera iltzeko lain zanik ezertxo ere aurkitzeke, Pilat'i eskatu zioten Ari bizia kentzeko; ²⁹ ta Beratzaz idatzitako guziak bete ezkeru, abetik eratxi ta ilobiratu zuten. ³⁰ Bañan Yainkoak il artetik berpiztu du. ³¹ Ta berpiztua Galilai'tik Yerusalen'a Arekin igo ziranek ikusi dute egun askotan. Auetxek orain eñiarekiko aitoztzale dira. ³² Gerok, beriz, geznari gatozkizue; gure arbasoei egindako agintza bera ³³ Yainkoak gure semeei bete die, Yesu berpizturik. Ala idatzita baitago bigarren eresian:

Nere semea zera Zu;

Nik gauñ soñtu zaitut.

³⁴ Ta usteltzerik bein ere ez ikusteko, ilartetik piztu zula, oñela esan zun: **Dabid'i egindako opari ziñak damazkizuket.**» ³⁵ Argatik ere beste nonbait dio: **Ez duzu zure Deuna usteltzerik ikusten utziko.**» ³⁶ Oñ ba; Dabid, bere aldian Yainkoaren asmoa auñeratu ondoren, il ta bere gurasoekin bildu ta usteldu zan. ³⁷ Yainkoak berpiztu dunak, ordea, ez du usteltzerik ikusi. ³⁸ Nabari izan bekizue, beraz, ene anayok, Onen izenean ogen-asketsa aldañikatzen zaizuela, ta Mois'en legean ezin garbitu ziran kutsu guziak, ³⁹ Onen siñestun guziei garbitzen zazkiela. ⁴⁰ Orizute, ba, ez datoñkizuen igarleetan esana:

³³ Er. II, 7. Emen berez argitzen da Yesu Yainkoaren Seme zala, bañan esanda bego: Yesu, Yainkoaren Seme izanik, piztu beañ zan.

³⁴ Is, LV, 3.

³⁵ Er. XV, 10.

**41 «Gomazute, nardatzaleok,
aritu ta itzali zaitezte.
Zuen egunetan egingo dudana,
inork ba'lesaizue, ez zeniokete sinetsiko.»**

42 Irterakoan, zeskayeten urengo larunbatean ere orietaz mintzo zekizkien. 43 Ta batzara ba'eyatu zanean yudu ta eraskin zintzoetako asko yari zitzazkien. Auek, beriz, ayekin zeraustela, Yainkoaren eskerari atxikita irauteko aolkatzen zituten.

44 Urengo larunbatean eriko geyenak bildu ziran Yainkoaren itza entzuteko. 45 Yuduek, alako yoera ikusita, bekaitzez bete ziran, ta Paul'ek ziona biraoka ukatzen zioten.

46 Ordun Paul ta Barnaba'k zabal zabal itz egin ta esan zieten: «Izan ere, Yainkoaren itza zuei aldarikatu beara zan aarena. Bañan arekiko zaputz ta betiko bizitzarako ez gai azaltzen zeraten ezkerro, ara, atzerietara yotzen dugu. 47 Alaxe Yaunak agindu digu, ba: Atzeriak argitzeko yari zaitut, lur guenetaraño osabide izan zaitezan».

48 Au adituta, arotzek poz artu ta Yaunaren itza goratzen zuten; ta betiko bizitzarako autuak ziran guziek sinetsi zuten. 49 Ta bazteralde osoan Yaunaren itza ba'eyatzen ziyoan. 50 Yuduek, ordea, andre zintzoak eta iriko nagusiak axatu zituten, ta Paul ta Barnaba'ren aurka yazaraldi bat pizturik, beren mugapetik yaurti

41 AB. 1, 5.

47 Is. XLIX, 6

zituten. ⁵¹ Ayek, beren oñetako autsa ayen aurka astindurik, Ikoni'ra etori ziran. ⁵² Ta ikasleak pozez ta Goteunez beterik zebiltzan.

XIV

Ikoni'n ta Listra'n

Ikoni'n ere, oi zutenez, yuduen sinagogan sartu ziran, ta ayen itzen eragitez yudu ta elendar askok siñetsi zuten. ² Baña siñesteke gelditutako yuduek atzeñitañen biotza senideen aurka axatu ta sumindu zuten. ³ Ala ere, luzaro an gelditu ziran, Yaunaren adorez arloan ari ta ari; ta Yaunak bere eskeñ-itza sendotzen zun, ayen eskuz alatz ta añigañiak egiñik. ⁴ Beraz, iritañak bi aldetara berezi ziran; batzu yuduen alde, bestetzu, beriz, bidalien alde. ⁵ Bañan atzeñitañ ta yuduak beren nagusiekin yaiki ziran, ayek iraindu ta añikatzeko. ⁶ Ori yakinda, igesi yoan ziran Listra ta Derbe'ra, Likaoni'ko irietara, ta baranoko bazteñ orotara, ⁷ ta an ari ziran Beñi Ona zabaltzen.

⁸ Listra'n gizon bat zegon oin-makalik, eserita. Amaren sabeletik urguna zan, ta iñoiz ere ibilgabea, ⁹ Onek Paul'i itz egiten entzun zion. Ta Paul'ek ari so egiñik eta sendakuntzaren uste ona arengan ikusirik, ¹⁰ ozengi esan zion: «Zuti zaitez zure oñen gañean». Ura yauzi ta ibiltzen asi zan.

¹¹ Paul'ek egiña lagunabañek ikusi zutenean, Lika-

¹¹ Zeus gerkeraz ta Iupiter lateraz, gezuñezko yainkorik aundiena. Erme, lateraz Merkuri. Paul txikia zan Barnabaren aldean.

oni'ko izkeraz deada'ka zerasaten: «Giza-irudiko yainkoak gugana yetxi dira». Ta Barnaba'ri Dio ziotsaten; Paul'i, be'riz, Erme; itz egiten zuna Paul baitzan. ¹³ Iri au'eko Dio'ren apaizak, ate ondora zezen ta buruntzak eka'irik, e'riarekin ayei opa egin nai zien. ¹⁴ Baña Barnaba ta Paul bidaliak, ori adituta, beren so'nekoak u'aturik, gizataldera yauzi ziran, deada'ka, ¹⁵ esanaz: «Gizonak, ¿zer ari zerate? Gu ere. zuek bezela, gizon ustelko'ak gera, ta zirtzilkeri auetatik Yainko biziarengana, ortzi, lu', itxasoen ta ayetan diran guzien Egilearengana, biu'rtzeko deyez gatozkizue. ¹⁶ Berak lengo gizaldietan e'ri guziak beren bideetan ibiltzen utzi zitun. ¹⁷ Ez du ala ere aito' legiokenik gabe, bere burua utzi. Ortzitik ongi egiten, euri ta uztaroak ematen, azku'riz ta pozez gure biotzak betetzen ari zaigu-ta».

¹⁸ Itzok esanaz, gizataldea ozta ibitu zuten, yauropa berei ez egiteko. ¹⁹ Bañan Antiokei'tik ta Ikoni'tik yudu batzuk eto'rita, e'ria beren asmoetara eka'i zuten, ta Paul a'rikaturik, za'ra-za'ra iritik atera zuten ildakotzat. ²⁰ Baranoan ikasleak zitula, ordea, yaiki ta sa'rtu zan irian; ta biaramunean Derbe'ra yoan zan Barnaba'rekin.

Antiokei'ra be'riz

²¹ Be'ri Ona iri artan zabaldu ta ikasle be'ri asko egin ezkerro, Listra, Ikoni ta Antiokei'ra itzuli ziran, ²² ikasleen gogoak azka'rtuz, siñestean irauteko berotuz, ta neke askoren bidez Yainkoaren e'rian sa'rtu bea' dala

ayei azalduz. ²³ Otoi ta baru egin ondoren, zañak eliz bakoitzean buru yañi zituten, ta siñestun egiñak zitzazkion Yaunari, gorantzi zizkioten. ²⁴ Pisidi igarota, Panpili'ra etoñi ziran, ²⁵ ta Yainkoaren itza Perge'n aldañikatuta, yetxi ziran Atali'ra. ²⁶ Andik itxasoz Antiokei'ra yo zuten. Antxetik ere burututako arloarentzat irten izan ziran Yainkoaren adeyari egotzita, ²⁷ Ara ezkerro, eliza bildu zuten ta Yainkoak beren bidez egiña baita atzeñitañei siñeste-atea nola iriki zien ere zeatz azaldu zieten. ²⁸ Añezkerro ikasleekin gelditu ziran alde bateko.

XV

Eztabaidak erdainkuntzaz

Yudai'tik yetxitako batzuk senideei zerakaskieten: «Mois'en ekanduz erdaindu izan ezik, ezin yarei izan zerate». ² Alderdiak andik soñtu ziran; ta ez zan ariña Paul ta Barnaba'k ayekin zekañten eztabaida. Erabaki zan, beraz, Yerusalen'a Paul ta Barnaba beste alderdiko batzuekin igotzea, bidali ta zañekin auziaz yarduteko. ³ Elizak artarakotuta, ba, Poinike'n ta Samari'n baña ziyoazan, atzeñitañen onbideratzea azalduz, senide guziei poz aundia zekañkietela.

⁴ Yerusalen'a eldu ziranean, Elizak, bidaliek ta zañek, txera ona egin zieten; ayek,beñiz, Yainkoak beren

²³ **Otoi ta baru...** Baruak, berez, yan edateko uritasuna izanda ere, askotan, otoyarekin diyoanean, edozein laztasun ta ildura esan nai du. **Otoi ta barua** alkar lagun izanik, emen Bidaliek, ta beti Eliz Ama deunak agintzen ditu arazo estuetan. Emen daukagu benetan ardurazko arazoa: esku-ezañtez (gerkeraz cheirotónésantes) Paul ta Barnaba'k egindako gotzai ta apaizen auteskundea.

bidez burututako guziak azaldu zizkieten. ⁵ Baña parisaítar izandako siñestun batzu yaiki ziran, esanaz: «Erdainkuntza atzeítařentzat noraezekoa da, ta Mois'en legea aítzeko agindu beař zaye».

Yerusalen'go Eliz-batzařea

⁶ Auzi ori erabakitzeko, bidali ta zařek bildu ziran. ⁷ Elkařean astiro yardun zutela, Kepa'k yaiki ta onela itz egin zien: «Anayok; ba-dakizute Yainkoak aspaldi ezkerro gurean autu naula, atzeřiek nere aotik Beři Ona entzun ta siñetsi dezaten. ⁸ Biotzak dakusazan Yainkoak, ayen alde aitoř egin ba-du, Goteuna, guri bezela, ayei ere emanaz; ⁹ ta ayen biotzak siñestez garbitu ditula, ez du gure ta ayen artean bereizpiderik utzi. ¹⁰ ¿Zertako, ba, orain Yainkoa axekutzen duzute, gure arbasoek eta gerok ezin eraman dugun uztařia ikasleen lepoan ezaři beař dalakoan? ¹¹ Gu ta ayei berebat yaregingo gaituna, beřiz, Yesu Yaunaren eskeřa da. Ořa siñesten duguna».

¹² Guziak isilik gelditu ziran; ta ayei entzunda, Barnaba ta Paul'ek azaldu zuten zeinbesteko alatz ta ařigaři beren bidez Yainkoak egin zitun atzeřian.

¹³ Auek ere isili ziranean, Yakob'ek aria ařtu ta onela itz egin zun: «Anayok, entzun. ¹⁴ Simon'ek azaldu du nola atzeřietatik bere izenarentzat eři bat ařtzen Yainkoa asi dan. ¹⁵ Ořtan igařle guzien itzak bat datozkio, idatzita dagonez: ¹⁶ «Ařezkerro itzuliko naiz, ta

⁷ Kepa, emen ere, beti bezela, guzien buru agertzen zaigu.

16, 17, 18 Am. IX, 11,12

Dabid'en etxola eroria beñeraikiko dut, eta artako iraulkiñak beñeraikita zutik yañiko dut; ¹⁷ osterantzeko gizakume ta eñi guziak, nere izenaren beñi aítuz, Yaunaren bila leyatu ditezan. Ala dio ori dagin Yaunak, ¹⁸ dagiña betidanik dazagula». ¹⁹ Argatik, nere aburuz, atzerietatik Yainkoarengana biurtzen diranei ez zaye gogait eragin beañ; ²⁰ yainkoai-zunen kutsutik, izorkeritik, ito danetik eta odoletik aldentzeko idatzi baño. ²¹ Antziñeko gizaldietatik aldañikariak ba-ditu, ba, Mois'ek iri orotan, larunbat oro sinagogetan arenak irakurtzen dira-ta».

Batzaírearen erabakia

²² Ordun bidaliek eta zaírek, baita batzaíreko guziek, ere, erabaki zuten beren artetik batzu, Barsaba oi zerritzan Yuda, ta Sila, seniderik yatoírenetakoak, aukeratu ta Paul ta Barnaba'rekin Antiokei'ra igoítzea, ²³ ayen bidez angoei oírela idatzirik:

«Bidali, zaí, ta anayek, Antiokei'n, Siri'n ta Kiliki'n zeraten anayoi, aguí.

²⁴ «Guretako batzuk, guk ez artarakotuak gero, zue-tara etoíri ta zuen biotzak beñiketan kezkatuz, artegatu zaituztela entzunda baikaude; ²⁵ elkaí aítutakoan erabaki dugu lagun batzu aukeratu ta Barnaba ta Paul maitagaíekin zuetara bidaltzea. ²⁶ Yesu Kisto gure Yau-naren izenagatik bizia galtzorian biok ipiñi dute. ²⁷ Beraz, Yuda ta Sila bidaltzen dizkizuegu, berek aoz berbera dasaizueten.

²⁸ «Goteunak eta guk iritzi dugu zamarik bat ere zuei

ez leporatzea, noraezeko auek baizik: ²⁹ yainkoaizune
eskeñitakoetatik, odoletik, itotik eta izoñkeritik alde
egitea. Ondo egingo duzute auetatik urutira yotzen.
Aguí».

Geznariak Antiokiei'n

³⁰ Beraz, ayek gezna onekin Antiokiei'ra yetxi ziran,
ta lagunak bildurik, idazkia eskuratu zieten. ³¹ Ura
zan guzien poza, alako itz atsegintsuak irakuñitakoan!
³² Yuda ta Sila'k, igarñe baitziran, senideak itzaldi askoz
berotu ta sendotu zituten. ³³ Ta an egonaldi bat eginda,
bidali zizkieten ayetara gentza-aguñez senideek itzulera
gertu zieten. [³⁴ Baña Sila'k an gelditzea obetzat izan
zun, ta Yuda yoan zan bakañik]. ³⁵ Paul ta Barnaba,
beñiz, Antiokiei'n gelditu ziran, beste askorekin Yaunaren
itza adirazi ta iragañtzen.

Paul'en bigaeren bidaldia

³⁶ Egun batzu ondoren Barnaba'ri Paul'ek esan zion:
Goazan osterera ere Yaunaren itza iragañi diegun iri orotan
baña, senideak nola dabilzan ikusten. ³⁷ Baña Bar-
naba'k Mark zeritzan Yon berekin arñtu nai zun: ³⁸ Paul'
en aburuz, ordea, Panpili'tik aldendu zitzayena ta
berekin lanean ari izan ez zana berekin arñtzekoa ez zan.
³⁹ Makuñ ori zala bide, elkañengandik bakandu ziran; ta
Barnaba, berekin Mark arñturik, Kiper'a itxasoz yoan
zan; ⁴⁰ Paul'ek, beñiz, beretzat Sila auturik, bere bidea
arñtu zun, Yaunaren adeyari anayek egotzita. ⁴¹ Siri ta
Kiliki'n ibili zan elizak zuzpeñtzen.

XVI

Timote'kin Troa'ra

Andik eldu zan Derbe ta Listra'ra. Timote zeritzan ikasle bat an ba-zan, ama yudu siñestunaren ta aita elendar' baten semea. ² ta Listra ta Ikoni'ko senideen aito'rez gizon yato'ra. ³ Berekin Paul'ek eraman naita, ar'itu ta erdaindu zun, bazte' ayetako yuduen ede'ragatik; aren aita elenda'ra zala guziek baitzekiten.

⁴ Arekin, ba, iriz iri ibilki, bidali ta za'rek Yerusalem'en ar'tutako erabakiak alda'rikatzen ziyoazan, guziek bete zitzaten. ⁵ O'rela elizak siñestez sendoago ta lagun- ez ugariago egiten ziran egun oro.

⁶ Ta Yainkoaren itza Asia'n zabaltzea Goteunak eragotzi ziela-ta, Prigi ta Galati lu'ra igarota, ⁷ Misi'ra eto'ri ziran. Bitini'rako asmotan zeuden; Yesu'ren Atsak, ordea, ez zien ori utzi; ⁸ ta Misi igarota, Troa'ra yetxi ziran.

⁹ Gauez Paul'ek irudi-ikuspen bat izan zun. Gizon makedonia'r batek, zutik egonaz, a'ren ta a'renez ziotsan: «Makedoni'ra eldu ta lagun zatozkigu». ¹⁰ Ikusia Paul'ek ikusita, berealaxe Makedoni'runtz irten bea'rez leyatu giñan, Be'ri Ona angoei eka'rtzeko Yainkoak deitzen giñuzalakoan.

Makedoni'ko gertariak: Lidi

¹¹ Troa'tik irtenda, Samotrake'ra iteran eto'ri giñan, ta biaramunean Neapoli'ra, ¹² ta andik Makedoni'ko iri

uřena ta koloni bat dan Pilipoi'ra. Iri artan egun batzu gelditu giřan. ¹³ Larunbatean iri atetik irten giřan ibai ondora, otoitegia zalakoan, ta eseririk, generausten ara bildutako emakumeekin. ¹⁴ Lidi zeritzan ayetako bat guri entzuten zegon. Tiateira'ko purpur salketari ta yainkozalea zan; ta Yaunak biotza iriki zion, Paul'ek zerasana aintzat ar' zezan. ¹⁵ Ukuzia izan zan bere etxe-koekin, ta arenez zeskaigun: «Yaunarenganako zintzoa naizala uste ba'duzute, nere etxean sar' tu ta geldi zaitezte». Nai ta nai ez, ara yoan giřan.

Neskame aztia

¹⁶ Otoi egitera giřoazala, neskame bat upatu genun, aztikeri-txeřen zeukana ta bere nagusiei irabazi edeřa aztiketari zekar' kiena. ¹⁷ Onek, Paul'i ta guri zeraigula, oyuka zion: «Goiko Yainkoaren mořoi dira gizon auek, ta yareibidea darakuskizute». ¹⁸ Egun askotan ori egin zula-ta, Paul'ek, txerengana aspeřtuta itzulirik, esan zion: «Yesu Kisto'ren izenean agintzen dikat ořengan-dik irteteko». Ta bertantxe irten zan.

¹⁹ Irabazteko itxoa aitu zitzayela aren nagusiek ikusi zuteneko, agintariei Paul ta Sila eraman zizkioten, ²⁰ ta gudalburuei aur' kezturik, esan zuten: «Gizon auek, yuduak dirala, ²¹ gure iria lardaskatzen dute, eřo-mařok guretzat ezin ar' tu ditzakegun ekanduak aldaři-katuz». ²² Ta eřia ařotz ayen gaņera yauzi zala, agintariek zigořkaldia ayentzat erabaki zuten. ²³ Eřuz astindutakoan, beřiz, baitegira yaurti zituten, zořozki eukitzeko

zaitzaleari aginduz. ²⁴ Onek agindua artuta, baitegi baíne baínean itxi zitun, ayen oñak abez uzkaldurik.

²⁵ Baña gaberdi aldean, baitegiko guziek entzunda, Yainkoa otoiketan goresten Paul ta Sila'k zutela, ²⁶ izugaízko luíikara bat batean soítu zan, baitegia oñaítik zotukatuz; ta beingoan ate guziak zabaldu ta guzien biluák askatu ziran. ²⁷ Zaitzaleak esnatu ta baitegiko ateak zabalik ikusi zitunean, ezpata artu ta bere burua il nai zun, baitegikoak igesi ziralakoan. ²⁸ Baña Kepa'k ots egin zion: «Ez miñik egin zure buruari; guziak emen gaude-ta». ²⁹ Ordun argia eskaturik, baínera leyatu ta Paul ta Sila'ren oñetan auzpeztu zan ikaraz. ³⁰ Ta landara ayek eramanik esan zien: «Yaunak, ¿zer egin beartut zerua iristeko?» ³¹ Ayek esan zioten: «Zatoz Yesu Yaunaren siñestera, ta bai zuk, baita zure etxeok ere, zerua daukakezute». ³² Yaunaren itza, beraz, berari ta bere etxeko guziei azaldu zieten. ³³ Ark, beíz, gau aldi artantxe beregana artu zitun, zauriak garbitu zizkien, ta bereala ukuzia izan zan etxeko guziekin. ³⁴ Orezkero, bere etxera eraman zitun, ta Yainkoari siñetsi izanaz etxeko guziekin poztuta, aparía atondu zien.

³⁵ Egundu zunean, agintariak zigoílariak bidali zizkioten, esanaz: «Gizon oriek yarei utz itzazu». ³⁶ Zaitzaleak gezna Paul'i yakiñerazi zion: «Agintariak gezna bidali didate zuek askatzeko. Irten, ba, ta zoazte narerik». ³⁷ Baña Paul'ek esan zien bidaliei: «¿Éroma iritárek gerala, auzitara gabe agirian gu zigoíkatu ondoren, orain ere itzalgaizka igoítzen al gaitute? Bai zera! Etoítzea daukate gu ateratzera». ³⁸ Zigoílariak itzok agin-

tariei ekañi zizkieten; ta auek, eñomañen arazoa zala entzunaz, belduñtu ziran, ³⁹ ta ayetara yoanda ibitu ta atera zituten, iritik irteteko zeskayetela.

⁴⁰ Baitegitik irtenda, beraz, yo zuten Lidi'ren etxera. ta senideak an ikusi ta poztu ondoren, yoan ziran.

XVII

Tesalonike'n

Anpipoli ta Apoloni'n baña bide eginda, Tesalonike'ra etoñi ziran. Yuduek Sinagoga an zuten; ² ta Paul'ek ayetara, oi zunez, sañtuta, Idatziaz iru larunbatez zerauskien, ³ Kisto'a nozitu ta beñpiztu beaña zala ayei adirazi ta erakutsirik. «Kistoa, beñiz aldañikatzen dizuedan Yesu Bera da».

⁴ Ayetako batzuk siñetsi zioten, ta Paul ta Sila'ri itsatsi zitzazkien; ta berebat yainkozale ta elendañetako ainitzek, ta baita andere nagusietan ere ez gutxik. ⁵ Yuduek, beñiz, bekaitzak eraginda, zeyetako gizatxañ batzu irabazi ta bildurik, iria nasi zuten; ta Yason'en etxera oldañtuz, eñiaren aitziñera eramán nai zituten. ⁶ Bañan idoro ezinda, Yason ta senide batzu iriko agintariengana indañez ekañi zituten ots egiñaz: «Luñbira lañdaskatzen ari diran oñko oriek onara ere etoñi dira, ⁷ ta Yason'ek berera añtu ditu. Kaiser'en aginduen auñka guzi auek ari dira, beste bakaldun bat ba-dala, Yesu, aldañikatzen». ⁸ Oñela, itzok zentzuzten eñi ta agintariak axatu zituten. ⁹ Ta agintariak, Yason ta besteengandik baikuntza añtu ondoan, askatu zituten.

Beroi'n

¹⁰ Senideek lenbaitlen Paul ta Sila gauzez Beroi'ra igoñi zituten. Ta ayek ara ezkerok, yuduen sinagogan sartu ziran. ¹¹ Tesalonike'koak baño ayuñi obekoak auek ziran, ta itza gogo gogotik artu zuten, Idatziak egun oro aztertuz, ori ala ote zan. ¹² Ayetako ainitzek ere sinetsi zuten; baita elendañetako andre nagusi ta gizon ez gutxik.

¹³ Yainkoaren itza Beroi'n ere Paul'ek zabaltzen zula Tesalonike'ko yuduek yakin zuteneko, ara yo zuten, eña axatu ta irabiotzeko. ¹⁴ Ordun senideek itxasoruntz eñesaka Paul eragin zuten; Sila ta Timote, beñiz, bertan gelditu ziran. ¹⁵ Paul zeramatenak Atenai'raño yoan ziran arekin; ta Sila ta Timote beregana lenbaitlen eratoritzeko aginduz, itzuli ziran.

Atenai'n

¹⁶ Ayen zai Atenai'n Paul zegola, barnean gogo suminduta zekañen, sasi-yainkokoya iri osoa ikusirik. ¹⁷ Sinagogan yudu ta yainkozaleekin, ta egun oro zeyean etorkiñekin izka zerausan. ¹⁸ Epikour ta Estoa'ko yakinbidez ikastun batzu ere arekin izka zerausaten, ta batzuk zioten: «¿Zer esan nai dik itzontzi oñek?» Eta bestetzuk: «Yainko arotzen aldañikari zirudik». Ori zerasaten, Yesu ta beñpiztea iragañtzen zizkielako.

¹⁹ Beraz, eldu ziotela, Aregi'ra eraman zuten, esanaz: «¿Yakin ote dezakegu zein dan iragañtzen duzun ikas-

bide beñi ori?» ²⁰ Izan ere, bitxia da belarrietara dakañkiguzuna, ta zer ote liteken yakingale gaituzu». ²¹ Alabañan atenaitaí guziek eta ango arótzek ezertan ere ez ziarduten, beñi zerbait esan-entzuten baizik.

²² Paul'ek Aregi erdian zutik, esan zien: «Atenaitaírok: Orotan dakust oso yaureskoí zeratela. ²³ Zuen yaureskiñak ikusten oítik nenbilala, opamai bat upatudut, ba, ta artan idazkun au: **YAINKO EZ EZAGUNARI**. Orí ba, ezaguteke yauresten duzuten Ori iragaítzen dizuet nik. ²⁴ Ludia ta bertan diranak oro egin ditun Yainkoa, ortzi-luñen Yauna izaki, ez da eskuz egindako yauretxeetan bizi, ²⁵ ezta giza eskutik, zerbait gabean bezela, ezertxo arítu beaíean ere ez dago, Beraxe da, ba, guziei bizitza, arnasa ta dan dana damazkiena. ²⁶ Berak gizon batengandik gizadi osoa egin du, luí osoan bizi dedin, nori bere aldi ta mugak bizirako erabakiaz. ²⁷ Ta guziek Yainkoaren bila aztamuka ibili izan beaí dute, guretako bakoitzarengandik urun ez dagola ere. ²⁸ Beragan bizi, igi ta izan gera-ta, zuetako neurítizlari batzuk esan dutenez: «Beraren yatoíi baikera». ²⁹ Berak, Yainkoaren yatoíi geran ezkerro, ez dugu uste beaí gizonek landu ta tankeratutako arí, uré edo zilaíaren antzik yainkotasunak dula.

³⁰ «Orain, beñiz, Yainkoak, alotzaldi au goitik ikusita, gizonei deyez datoíkie, guziak edonun garbai izateko. ³¹ Alabañan, artarako gizon bat auturik, gizadia ebazteko eguna erabaki du, ta siñesbidea guziei emateko, gizon ori ilartetik beípiztu du».

³² Ilen beípiztea entzun orduko, batzu ixeka asi

ziran; bestetzuk, beñiz, zioten: «Beste batean oñezaz dantzuizukegu». ³³ Oñela Paul'ek ayengandik alde egin zun. ³⁴ Gizon batzuk, berari atxiki ta siñetsi zuten, berebat Damari zeritzan andreak, eta beste batzuk ayekin.

XVIII

Korinto'n

A rézkero Paul, Atenai'tik irtenda, Korinto'ra etoñi zan. ² An Akil zeritzan yudu pontoar bat eta Piriskil, aren emaztea, idoro zitun, Itali'tik etoñi-beñiak; Eñroma'tik aldentzeko yudu guziei Kalaudi'k agindu zielako. Ayekin batu zan; ³ ta etxolagiñak zirala-ta, ogibide berbera baitzuten, ayenean gelditu zan lankide. ⁴ Larunbat oro, beñiz, itzaldiak egin, ta yudu ta elendañak aolkaltzen ziardun. ⁵ Baña Makedoni'tik Sila ta Timote eldu ziraneko, bete betean Paul'ek itzari ekin zion, Kistoa Yesu zala yuduei erakusten. ⁶ Ala ere, ayek uko ta birao egiñaz zegozkiola-ta, bere soñekoa astindurik, esan zien: «Zuen buruen gain zuen odola; ni garbi naiz; onezkeroxe atzeñietara noa».

⁷ Ta andik irtenda, Tit zuzena zeritzan yainkozale baten etxera bazteñtu zan, etxe au sinagogari itsatsita zegola. ⁸ Sinagogaburu Kirispo'k bere etxeko guziekin Yaunari siñetsi zion, ta berebat korintoar askok entzun ta siñetsirik, ukuzpena arñtu zuten.

⁹ Alako gau batean Yaunak irudipenez Paul'i esan zion: «Ez beldur izan; aitzitik ere, itz egizu, ta ez isili; ¹⁰ Neu zurekin bainago, ta kalterik iñork ere ezin egingo

dizu; lagun sail edeña iri ontan ba-dut Niretzat-eta.
¹¹ Beraz an gelditu zan bi urtez Yainkoaren itza angoei irakasten.

¹² Baña Galio Akai'n kontsulorde zala, yuduek, elkar artuta, Paul'en gañera etoñi ta auzitegira eramane zuten, ¹³ esanaz: «Gizon onek legearen aurka Yainkoa yauresten darakus». ¹⁴ Aoa Paul'ek irikitzeoan, Galio'k yuduei esan zien: «Okeñ edo gaiztakeriren bat ba'liz, beañ danez adituko nizueke, yuduak. ¹⁵ Bañan itz edo izen bat gora bera ta zuen legeaz arazoa ba'duzute, zerok ikusi; nik ez dut oñelakoetan epaile izan nai». ¹⁶ Ta auzitegitik alde eragin zitun. ¹⁷ Ordun Sosten sinagogaburua guziek artu ta auzitegi aurean yo zuten, ori Galio'k aintzat artu gabe.

Antiokei'rako itzulera

¹⁸ Paul'ek, beñiz, egun asko an egonda gero, senideei azken agur egin zien, ta, egindako eskeintzañen, txerloa Kenkreai'n moztuta, Siri'rako itxasbidea artu zun Piriskil ta Aki'ekin. ¹⁹ Epeso'ra elduta, an utzi zitun; ta berak, sinagogan sarturik, yuduekin izka zerausan. ²⁰ Astiroago gelditzeko ba-zeskayoten; berak, ordea, ezetz; ²¹ ta azken agur ayei egiñaz, esan zien: «Beste batean etoñiko naiz, Yainkoak nai ba'du. Epeso'tik irten zan, ²² ta Kasarai'ra elduta, elizari agur egiteko igo ondoren, Antiokei'ra yetxi zan.

¹² Galio, entzute aundiko Seneka'ren anaya.

²² Igo ondoren. Yakintsuen geyenek emen uste dute igo esanaz Yerusalen'a igo aditu beañ dala. Askotan Yerusalen'ako ibilbidea igo bakañik esaten zuten (Yo. VII, 8, 10; XII, 20) eta Yerusalen'dik biurtzea beñiz, yetxi, besterik gabe. Act. XIV, 1.

Apol Epeso'n

²³ Aldiren bat an eginda irten zan, Galati ta Prigi'ko bazte'rik bazte' kirian kirian zebilan, ikasle guziak sendotuz.

²⁴ Alexanderei'ko gizon yudu bat, Apol zeritzana ta itz-eto'riz ta Idazti ezagueraz azka'ra zana, eto'ri zan Epeso'ra. ²⁵ Yaunaren bidean ikastun ta adoretsua baitzan, Yesu'ri dagozkionak zeatz azaldu ta irakasten zitun, Yon'en ukuzpena besterik ezaguteke ere. ²⁶ Sinagogan ere asi izan zan zabal zabal itz egiten. Baña Piriskil ta Akil'ek, ari entzunda, berengana a'rtu zuten ta Yaunaren bidea zeatzago azaldu zioten. ²⁷ Akaira'ño ya'rai nai zula-ta, senideek azko'rtu zuten ta ikasleei idatzi zieten, a'ra ona ari egiteko. Ara eldu zanean, eske'aren bidez siñestun egiñei laguntza ede'ra eka'ri zien; ²⁸ inda'rtsuki yuduei irtepedeak agirian ixten baitzizkien, Kisto'a Yesu dala Idazteunez erakutsirik.

XIX

Paul Epeso'n

Oraindik Korinto'n Apol zegola, Paul'ek, goye'riak arakatu ezkerro, Epeso'ra eldu ta ikasle batzu idorrik, ² esan zien: «Siñestera eto'rtzean, Goteuna a'rtu al zenuten?» Ta ayek erantzun zioten: «Ezta entzun ere Goteuna danik». ³ Paul'ek esan zien: «¿Zein ukuzpen a'rtu duzute, ba?» Ayek erantzun zioten: «Yon'en ukuz-

pena». 4 Paul'ek esan zien: «Garbai ukuzpenez Yon'ek ukuzi zun; etortzekoa zan Yesu'ri siñesteko eñiari esanaz». 5 Ori adituta, Yesu Yaunaren izenean ukuziak izan ziran. 6 Ta Paul'ek eskuak ezañi zizkiela, Goteuna ayen gañera yetxi zan, ta izkera arotzez egiten ta igarketan asi ziran. 7 Amabiren bat gizon, beñiz, guziak ziran.

8 Sinagogan ere iru ilabetez sartu ta eraberik gabe mintzaten zan, Yainkoaren eñiaz ayei argi ekañki. 9 Bañan aren ikasbideaz eñiari gaizki esaten gogor ta isituta batzu ari baitziran, ayengandik aldendu zan, ta ikasleak berezian arturik, Tiran norbaiten ikastegian egun oro zerauskien. 10 Bi urtez ori egin zun; ta oñela, Asia'n bizi ziran guziek yudu ta elendañek, Yaunaren itza entzun zuten. 11 Yaunak, beñiz, Paul'en eskuz alatzak egiten zitun. Ez nolabaitekoak gero. 12 Alabañan, Paul'en soñean egondako zapitxo edo altzokoak eriei ezañita besterik gabe, gaxoaldi ta txerènak ayengandik aldentzen ziran.

13 Txerènan iraizketan zebiltzan yudu batzu ere asi ziran txerèndunen gañera Yesu Yaunaren izena deitzen, esanaz: «Paul'ek zerazagukan Yesu'ketz duk nere araoa». 14 Ori zegitenak, beñiz, Eskeu zeritzan apaizpuru yudu norbaiten zazpi semeak ziran. 15 Baña txerènan gaiztoak yardetsi ta esan zien: «Yesu ba-dazagut; Paul ere ba-dakit nor dan; zuek, ordea, ¿zein zerate?» 16 Ta zantaña beragan zeukanak bien gañera yauzi ta yabe egiñaz, azpiratu zitun, etxe artatik biak, larugoñi ta porokaturik, igesi ziran arteraño. 17 Gertari au Epeso'n gu-

ziek, yudu ta elenda'ek, yakin zuten, ta guziak beldu'rtu ziran. Yesu Yaunaren izena gotetsirik. ¹⁸ Ta siñestun egindako asko zetozan, norberaren ogenak aito'rtu ta erakusten. ¹⁹ Aztikeritan ari izandako askok ere beren idaztiak eka'ri ta guzien au'ean e're zituten. Idazti ayen ordaña ike'rita, be'riz, be'rogei ta ama' mila denarikoa zala ikusi zuten. ²⁰ O're!a, Yaunaren inda'rez itza azi ta inda'rtzen ziyoan.

²¹ Guziok bukatuta, Paul'ek burutan ya'ri zun, Makedoni ta Akai'n ba'na, Yerusalen'a yoateko asmoa, esanaz: «An egon ta gero E'roma'ra yoan bea' dut». ²² Ba'na, bere lagunetako bi, Timote ta Erast, Makedoni'ra igo'irik, bera Asia'n gelditu zan.

Epeso'ko zapa'asta

²³ Garai artan, Yaunaren bidea dala-ta, zapa'asta bat so'rtu zan, ez nolabaitekoa gero. ²⁴ Demetiri zeritzan zila'rgiñen batek, Artemi'ren zila'rezko yauretxetxoak egiñaz, irabazi ede'rak langileei zerakazkien. ²⁵ Beraz, ayei ta lanbide berbereko guziei dei egin ta esan zien: «Gizonak; ba-dakizute lanbide ontati'k dato'rkigula gure yoritasuna. ²⁶ Zuek ikusi ta entzunda, be'riz, Paul o'rek bere aolkuz, Epeso'n ez ezik, Asia geyenean ere, lagun asko yainkoengandik sayestu ditu, eskuz egindako yainkoak yainko ez dirala esanaz. ²⁷ Ori, be'riz, ez dugu kalte baka'ra izango; Artemi aundiaren yauretxea bera iñork ez du aintzat begiratuko ere, ta Asia osoak baita

19 Denari, gure pesetaren antzeko, ta ainbatekoa ere bai.

lu'rbira osoak ere aundiesten duten Artemi bera, bere goiko ospetik irauli be'ra daiteke».

²⁸ Itzok adituta, guziak, ase'rez beterik, oyuka asi ziran esaten: «Aundia da Epesoaren Artemi». ²⁹ Iri osoa zapa'astaz bete zan; ta guziek gogo batez antzokira yo zuten zalapartan, Gai ta Aristark, Paul'en bidaideak, inda'rez zeramaztela. ³⁰ E'riarengana Paul'ek au'rkeztu nai zun; ba'nan ez zioten ikasleek utzi. ³¹ Aren adiskide ziran Asia'ko nagusi batzuk ere antzokian ez au'rkezteko aolkua igo'ri zioten. ³² Antzokian, be'riz, guziak oyuka; batzu ala, bestetzu bestela. Batza'ra zu'ribu'ri utsa zan, ta geyenak ez zekiten zertara bildu ziran-ik. ³³ Naspil artatik yuduek Alexander guzien aitzi'nera bultzizka atera zuten; ta Alexander'ek, eskuz ixo egi'nik, arazoa e'riari azaldu nai zion. ³⁴ Ba'nan yudua zala ezagun zuteneko, guziak ao batez orduren bi oyuka ari ziran: «Aundia da Epesoaren Artemi». ³⁵ Noizpait ere baratariak e'ria ibitu ta esan zun: «Epesoarak; ¿Nork ez daki Epesoaren iria, zerutik Artemi aundia gurera ezkerro, aren yaureslea dala? ³⁶ Ori ezin ukatu dala, beraz, geldirik egon ta za'rapoka ezer ez egitea on zaizue. ³⁷ Eka'ri dituzun gizonok elizlapu' ez dira, ba, ezta zuen andregoi'koaren biraolari ere. ³⁸ Demetiri'k eta bere lankideek i'no'ren au'rka auzigairik ba'dute, be'riz, ba-dira ortarako auzi-erabakitzale ta kontsulordeak; elka' salatu bezate. ³⁹ Ba'na bestelako arazoren bat ba'daka'rtzute, batza're egokian erabaki liteke. ⁴⁰ Gau'rko onengatik ere,

29 Antzokira, axe e'riaren batza'rtokia zalako.

matxiñadaz salatuak izateko zorian gaude; batzaíe au zuritzeko apukorik ezin erakutsi dugu-ta». Au esanda, batzaírea banatu zun.

XX

Troa'ra

Zapaíasta amaitu zanean, Paul'ek ikasleak deitu ta aolkatu ondoren, azken-aguía egin zien ta Makedoni'ra yoateko irten zan. ² Bazteíalde ayek arakatu ta angoak itzaldi askoz aolkatutakoan, etoíri zan Ela'ra. ³ Ta iru ilabete an egonda, Siri'ra itxasoz yoateko zanean, Makedoni'ra itzultzea obetsi zun; yuduek maltzuíkeriren bat gertu ziotelako. ⁴ Arekin Sopater, Pir'en semea, ta Aristark eta Sekun tesaloniketaíak, Gai derbetaía, ta Timote, Tikiko ta Tropin asiaíak ziyoazan. ⁵ Auek auíeraturik, Troa'n zeuden gure zai. ⁶ Gu, beíiz, Otil-egunen ondoan Pilipoi'tik itxasoz Troa'ra eldu giñan ayetara, ta zazpi egun an gelditu giñan.

⁷ Lenbiziko astegunean, otaustean bildurik geundela, Paul'ek zerauskien; biaramunean yoan-beaía baitzan. ⁸ Bildurik geunden mandioan kriselu asko ziran. ⁹ Aren itzaldia luxetxoa zala-ta, Eutiki zeritzan mutiko bat, leyoan eserita lozoíoan zegon, ta loak eraginda, irugaíen selarutik beera erori zan, ta ilotzik yaso zuten. ¹⁰ Arengana Paul yetxirik, gañera etzan zitzayon, ta gaxoa laztandurik, esan zun: «Ez armindu; adoredun

⁵ **Gure zai.** Emen beíiro Luka Paul'ekin batera agertzen zaigu azken-eraño. Len ere bai XVI gaíen buruko 10-39 atalian.

dago-ta». ¹¹ Igo zan beñiro, ogia autsi ta murtxatu zun; ta egun sentiraño itz ugari eginda, yoan zan andik. ¹² Mutikoa, beñiz, bizirik atera zuten, poz aundia zeriela.

Paul Milet'en

¹³ Gu, beñiz, ontziratu ta itxasoz Aso'ra etoñi giñan, Paul'en zai an egoteko; oñela berak agindu zigulako, berak bidea oñez egiteko. ¹⁴ Aso'n bildu zitzaigunean, gurekin arñuta, etoñi giñan Mitilene'ra. ¹⁵ Andik itxasoratuta, biaramunean Kio auñean igaro giñan, ta urango egunean Samo'ra eldu, ta ondokoan Milet'a etoñi giñan. ¹⁶ Epeso'ra gabe auñera igarotzera Paul erabakita zegon, Asia'n luzaro ez gelditzeko; Yerusalen'en, al ba'liz, Pentekoste egunerako egon nai zulako. ¹⁷ Milet'etik, beraz, deya Epeso'ra bidali zun, elizako elduenak beregana eratoñtzeko. ¹⁸ Ta ayek etoñi ta bildu ziranean, esan zien: «Ba-dakizute nola beti, Asia'n sañtu nintzan egunetik, zuen artean niardun, ¹⁹ Yaunaren moñoiketari apal apalik ekiñez, yuduengandik zetoñkidan negañbide ta mañoak gora bera. ²⁰ Ezertxo ere estaltzeke, beañ dan guzia agirian ta etxerik etxe iragañi ta irakatsi dizuet, ²¹ yudu ta elendañei Yaunkoaren gorbaya ta Yesu gure Yaunaren siñestea aldañikatuz. ²² Ta ara, beñiz, orain, Atsak eraginda, Yerusalen'a noa, an gertatuko zaidanik yakiteke. ²³ Bat bakañik Goteunak iri bakoitzean adirazi ta esaten dit; kate ta nekeak Yerusalen'en nere zai daudela. ²⁴ Dana dala, ordea, nere biziaz ayola niri ez, nere elburura iritsi ta Yaunkoaren eskeña aldañikatzeke arloa, Yesu Yaunak niri egotzia,

burutu ezkerro. ²⁵ Ta ara, gauérgero ba-dakit nere aurpegia ikusiko ez duzutela zuek, yaureía aldaíkatzen zuetara etoía euki nauzuten guziok. ²⁶ Gauérgero, beraz, aitoítzen dizuet: edozeñen odolaz garbi nagola. ²⁷ Izan ere Yainkoaren burupide osoa aldaíkatzeko uzkuí ez naiz izan.

²⁸ «Zeron ardura eukazute, ta artalde osoarena ere bai, Goteunak artan zaitzale yaíiak baitzerate Yainkoaren Eliza, bere odolez Berak irabazia, laíatzeko. ²⁹ Ba-dakit, ni yoanda gero, oso zakaíak zuetara saítuko dirala, artaldea poíokatus. ³⁰ Zeron artetik ere batzu yaikiko dira okeíkeriak esaten, ikasleak berengana eramateko. ³¹ Atzaí egon, beraz, ta oroi zaitezte iru urtetan euki nauzutela gau ta egun aspertzeke zuetako bakoitza negaéz aolkatzen. ³² Oraingoan ere Yainkoa ta Aren eskeí-itza, zintzo egiñei gara ta yarauntsia emateko lain dana, zuen gañera Berari eskatzen naukazute. ³³ Ez dut inoren zilaí, uré edo yazkirik írikatu. ³⁴ Zerok dakizute niretzat eta nerekoentzat beaí zan guzia eskuok irabazten zutela. ³⁵ Edozertan erakutsi dizuet oírelan egiñez makalei lagun etoí beaí zayela, Yesu Yau-naren itza gogoraturik. Arena da, ba, esan au: «Aítzea baño ematea atsegiñago».

³⁶ Au esanda, belaunikaturik, otoi zegin guzi ayekin. ³⁷ Aundi zan guzien negaía; ta besoak Paul'i leporatus mui egiten zioten, ³⁸ aren aurpegia beíz ikusiko ez zutela esan zienaz batez ere atsekabetuta. Orezkero yosan ziran arekin itxasontziraño.

XXI

Yerusalen'untz

Ayengandik aldentuta, zuzen zuzen Ko'ra itxasoz eldu giñan, ta biaramunean E'róde'ra ta andik Patara'ra. ² An Poinike'ra ziyoan ontzi bat idororik, artan sa'rtu giñan, ta itxasora be'riz. ³ Kiper'en au'era ezkerro, ura ezke' utzirik, Siri'runtz igaro ta Tir'a eldu giñan, ontziak an zama utzi bea' zulako. ⁴ Ikasleak upaturik, an zazpi eguneko ekuraldia egin genun; ta ayek goi-eragitez Paul'i zesayoten Yerusalen'a ez igotzeko. ⁵ Egun ayek bete ziranean, bidea be'riro asi genun, guziak emazte ta au'ekin iritik ze'raizkigula; ta itxasegian belaunikatuta otoi egin genun. ⁶ Ta azken agua'ak alka'ri eginda, ontzira gu, ta etxera ayek yoan ziran.

⁷ Gure itxasbidea bukatu zan, Tir'etik Tolemai'ra eldu giñanean. Senideei agua' eginda, egun bat gelditu giñan ayekin. ⁸ Biaramunean irten ta Kaisarai'ra eldu giñan; ta Be'ri Onaren zabaltzale ta zazpietakoa zan Pilipe'ren etxean sa'rtu ta gelditu giñan. ⁹ Onek lau alaba zitun neska ta iga'le. ¹⁰ Egun batzu an geundela, Agab zeritzan iga'le batek, Yudai'tik eldu ¹¹ ta geunden etxera eto'irik, Paul'en ge'rikoa a'rtu ta aren esku-o'nak loturik, esan zun: «Au dio Goteunak: Onela Yerusalen'en ge'riko onen yabea yuduek lotu ta atze'ita'ren mendean ya'riko dute». ¹² Au adituta, guk eta angoek eskatzen genion Yerusalen'a, a'ren, ez igotzeko. ¹³ Ordun Paul'ek

yardetsi ta esan zigun: «¿Zer ari zerate negáez nere biotza erdiratzen? Lotua izateko ez ezen, Yerusalen'en iltzeko ere gerturik nago Yesu Yaunaren izenagatik».

¹⁴ Etsi ez zula, beraz, makuítu gintzazkion, esanaz: «Yaunaren gogoa egin bedi».

¹⁵ Egun ayen ondoan, biderako gertuta, Yerusalen'untz irten giñan. ¹⁶ Kaisarai'n ikasle batzu bildu zitzazkigun biderako, Mnason kipertaía, aspaldiko ikaslea ta berera artuko giñuzana, berekin zekaítela.

Yakob'enean

¹⁷ Yerusalen'a eldu giñanean, abegi ona senideek egin ziguten. ¹⁸ Biaramunean, Yakob'en etxean elduenak oro aurkitzen zirala, Paul sartu zan gurekin. ¹⁹ Ta ayei agur egin ondoren, bere bidez atzerietan Yainkoak egindako guziak zeatz ta meatz azaldu zizkien. ²⁰ Ayek, ari entzunda, Yainkoa goretsi zuten, ta Paul'i esan zioten: «Anai ori, ba-dakusazu yuduetan zeinbeste mila ta mila diran siñetsi dutenak. Guziak legearen ayolatsu dira gero. ²¹ Entzunda daude, beíz, atzerian baíeyatutako yuduei Mois'en legetik sayesten darakaskizuela, ta umeak ez erdaintzeko ta ekanduen bidetik ez ibiltzeko dasaizuela. ²² Zer egin oíezkero? Etoí zerala entzunda, noski baño noskiago guziak bilduko dira-ta. ²³ Egizu, beraz, dasaizugun au. Zin eginda dauden lau gizon ditugu. ²⁴ Bildu zakizkie, zure garbikuntza ayekin egiteko, ta burua muízitu dakien eralgi beaía zure gain ar ezazu. Oírela guziek ezagungo dute zutzaz entzundakorik ezer ere ez dagola, ta legea betetzeko, zu ere leíotan

zabiltzala. ²⁵ Siñetsi dutenen atzeítaíei buruz ere, idatzi diegu, yainkoaizunei eskeñitako aragitik, odoletik, itotik eta izoñkeritik alde egiteko erabakiz.

²⁶ Orezkero Paul'ek gizonak bereganatu zitun, ta ayekin biaramunean garbi eginda, sañtu zan yauretxean, garbikunde egunen amaya iragaítzeko, ayetako bakoitzarengatik oparia eskeintzen zaño.

Katez Paul lotuta

²⁷ Zazpi egunak amaitzerakoan, beíz, Asia'tik eto-ritako yuduek, bera yauretxean ikusirik, eíi osoa lardaskatu ta Paul atzeman zuten, ²⁸ aldaíkatuz: «El, el, Israeldaíok. Gizon au da edonun ta edonori, eíi, lege ta toki onetzaz gaizki esaten ari dana. Elendaíak ere yauretxean sañtu ditu, toki guren au oíela kutsaturik». ²⁹ Tropin epesoára irian ikusi zuten, ba, ta uste zuten Paul'ek yauretxean sañtu zula. ³⁰ Iri osoa zotukatu zan, ta eíia zalapartan bildu. Ta Paul atzemandá, yauretxetik indaíez atera zuten, ateak bereala itxirik.

³¹ Bizia ere kendu nai ziotenean, gudalburuari beíi au eldu zitzəyon: «Yerusalen osoa zapaíastan dago». ³² Berealaxe gudamutil ta euntariak berekin aítuta, abazuzan yetxi zan ayetara. Ayek, beíz, gudalburua ta gudamutilak ikusi zituteneko Paul, geyago yotzeke gelditu ziran. ³³ Ordun gudalburuak arengana urbilduz eldu zion, ta agindu zun bi katez lotu zezaten. Nor ote zan ta zer egin zun galdetzen asi izan zan. ³⁴ Bañan eíiarengan batzuk bat eta bestetzuk beste bat oyuka zioten.

³⁴ Gudaletxea, Antonia edo Antoni'rena zeritzan.

Zalapartañen argiro ezer igarí ezinda, agindu zun gudal-
etxera eramán zezaten. ³⁵ Maletara eldu zanean, beñiz,
gudamutilak besoetan artu ta eroan beañez aurkitu ziran,
eñiaren oldařagatik. ³⁶ Eñia samaldan zeřayen, ba,
«Alde ori», deadařez.

³⁷ Gudaletxera sařtzerakoan, Paul'ek gudalburuari
esan zion: «¿Zilegi al zait zerbait zuri esatea?» Ta gudal-
buruak ari: «Eleraz ba al dakizu? ³⁸ ¿Zu ote zera lau
mila mausari egunotan axatu ta basora atera ditun aigi-
toařa?» ³⁹ Baña Paul'ek erantzun zion: «Yudua naiz ni,
Kiliki'ko Tarso'n yayoa, iri ezaguneko iritařa. Zilegi
bekit, ařen, eñiari itz egitea». ⁴⁰ Ta baimena arturik,
Paul'ek, maletan zutik, eñiari eskuz ixo egin zion. Gu-
ziak isil isili ziran, ta berak eberkeraz onela itz egin zun.

XXII

Paul'en itzaldia

Nere senide ta gurasoak: Neronen zuriketan mintzo
beařta, entzun». ² Eberkeraz itz egiten entzun
zioteneko, isilikago gelditu ziran. Ta berak dio: ³ «Yudu
naiz ni, Kiliki'ko Tarso'n yayoa. Bañan iri ontan azia,
ta Gamaliel'en oñetan gure arbasoen lege utsean ikasia,
Yainkoaren alde, zuek guziok gauř bezain gařtsua.
⁴ Ikasbide beři au ere eriotzaraño esetsi nun, gizon ta
emakumeak atzi ta baitegian sařtuz; ⁵ apaiz nagusiak
berak eta batzař osoak aitoř dagidatenez. Alabaña,
senideentzako idaztiak ayengandik artuta, Damasko'ra
yoan nintzan, ayek Yerusalen'a biluřturik ekařtzeko,

ataía artu zezaten. ⁶ Bide egiñez Damasko'ra eguerdian urbildu nintzala, beriz, bat batean ortzitik nere baranoan argi bizi bat dirdiraz edatu zan. ⁷ Luíera erorita mintzo bat entzun nun niri esaten: «Saul, Saul, ¿zergatik esesten nauzu?» ⁸ «Yauna», erantzun nion, «¿nor zera zu?» Ta esan zidan: «Zuk esesten duzun Yesu Nazaretaía naiz Ni». ⁹ Nerekin zeudenek argia, bai, ikusi zuten; zerauskidanaren mintzoa, ordea, entzun ez. ¹⁰ Nik erantzun nion: «Yauna, ¿zer egin bear dut?» Ta Yaunak esan zidan: «Yaiki ta zoaz Damasko'ra. An esango dizute egin bear duzun guzi guzia».

¹¹ «Alako argigomaz itsututa nengon, ta lagunek eskutik nineramatela, eldu nintzan Damasko'ra. ¹² Anani zeritzan ta ango yudu guzien edeía zeukan gizon legezaletsu batek, ¹³ nigana etoñi ta aurkezturik, esan zidan: «Saul anai ori, so egizu». Ta bertantxe nik so egin nion. ¹⁴ Ordun esan zidan: «Gure arbasoen Yainkoak berezi zaitu bere gogoa ezagun, Zuzena ikusi ta Aren aotikako mintzoa entzun dezazun. ¹⁵ Gizakume guziekiko aitor egin bearko diozu, ba, ikusi ta entzun duzun guziaz. ¹⁶ Onezkero, beriz, ¿zertarako berandu? Yaiki ta ukuzpena artu ta zure ogenetatik garbi egin zaitez, Aren izena deituz».

¹⁷ «Yerusalen'a itzuli ondoren yauretxean otoi negila, zorabiotuta gelditu nintzan, ¹⁸ ta Bera ikusi nun niri esaten: «Laster ta arin Yerusalen'dik alde egizu; ez dute, ba, aintzat artuko Nitzaz zenegiten aitoría». ¹⁹ Nik erantzun nion: «Yauna, berek ba-dakite neu nintzala

9 Begira goiko IX, 7

zure siñestera zetozanak sinagogetan itxi ta zigořkatzen zituna, ²⁰ ta zure aitořtzale Estebe'ren odola ixurtzen ari ziranean, antxe neu nengola gogotik onañtzen, ta ura iltzen zutenen yazkiak zaitzen». ²¹ Bañan esan zidan: «zoaz; urutiko atzeřietara bidaliko zaitut-eta».

²² Itz ontaraño adi egon izan ziran; ordun, beřiz, oyu atera zuten, esanaz: «Ken luřetik ořako ori; ez da bide ořelakorik bizi izatea». ²³ Ořela ots egiten, beren soñekoak uratzen ta autsa aizetara botatzen ari zirala-ta, ²⁴ gudalburuak agindu zun gudaletxera Paul eramatea ta zigořka astintzea, zergatik alako zarata ateratzen zuten igañtzeko.

²⁵ Edez loturik zeukatenean, ordea, Paul'ek auřean zegon euntariari esan zion: «Zilegi al zaizue Eřoma iritařa epairik gabe zigořkatzea»? ²⁶ Euntariak, ori adituta, gudalburuagana yoan ta adirazi zion, esanaz: «Zer egitekko zera, gizon au eřomařa da-ta». ²⁷ Paul'engana, beraz, gudalburuak etoři ta esan zion: «Esaidazu; eřomařa al zera»? Ark esan zion: «Bai», ²⁸ Gudalburuak yardetsi zion: «Uře askoz nik iritařgo ori iritsi dut». Ta Paul'ek ari: «Nik, ordea, yayotzez».

²⁹ Ořezkero, bera oñazetu beař zutenak aldendu ziran arengandik; ta gudalburua, berak estekatua eřomařa zala oartu zanetik, lařitu zan. ³⁰ Biaramunean, yuduek zertzaz salatua zeukaten garbi yakin nairik, ura askatzeko ta apaizpuruak eta batzař osoa biltzeko agindua egin zun; ta Paul eratořirik, auřkeztu zien.

XXIII

Batzaárean yazo zana

Paul'ek batzaári so eginda, esan zun: «Anayok: gogo zintzo zintzoz Yainkoarenetan ari izan naiz gauř-daño».

² Anani apaiz nagusiak, ordea, bere otseñei agindu zien aoan yo zezatela. ³ Ordun Paul'ek esan zion: «Zerori, bai, zuritutako orma ori, Yainkoak yoko zaitu noski. Legebidez ni ebazteko eserita zaude, ta ¿legekaltez yo nazaten agintzen duzu gero»? ⁴ An zeudenak esan zioten: «Yainkoaren apaiz nagusia ere iraintzen al duzu»? ⁵ Ordun Paul'ek esan zien: «Ez nekin, anayok, apaiz nagusia zanik. Idatzita dago, ba: **zure eñiaren buruzagiari irañik ez egin**».

⁶ Batzaáreko alderdi bat parisaitařena, bestea, beřiz, sadukaitařena zala Paul'ek igařita, batzař erdian ots egin zun: «Anayok, ni parisaitařa naiz, parisaitařen semea; ta ilen beřpizteaz ustea dala-ta, nago emen ogenduntzat».

⁷ Ori esan zuneko, lipizta sořtu zan parisaitař ta sadukaitařen artean, ta batzařea erdibitu zan. ⁸ Sadukaitařek beřpizterik ez dagola diote, ba, ezta aingerurik ez atsik ere; parisaitařek, beřiz, bata ta bestea aitortzen ditute. ⁹ Izugařizko zarata sořtu zan; ta parisaitař batzu yaiki ziran ao betez esaten: «Okeř danik ez dugu gizon

5 Irt. XXII, 28.

onengan atematen. Ez ote zayo ats edo aingeruren bat mintzo izan?» ¹⁰ Eztabaida gori gori egin zala-ta, gudalburuak, Paul zatitu zezaten belduéz, bere mutilei agindu zien arengana yetxita, ayen artetik bera atera ta gudaltegira eramán zezatela.

¹¹ Ufengo arátsean Yaunak, Paul'i aurkeztuz, esan zion: «Aurera gogor; Yerusalen'en aitor egin didazun bezela, Eróma'n ere egin bearko didazu-ta».

Paul'en kalte elkartuak

¹² Egundu zanean, yudu batzuk, elkartuta, bizia Paul'i kendu arte ezer ere ez yan-edateko zin egin zuten.

¹³ Berogei lagun baño geyago ziran, beriz, oréla elkartuak. ¹⁴ Ta apaizpuru ta zaréngana yoanda, esan zieten: «Zin eginda gaude ezer ere txastatzeko, Paul txautu arte. ¹⁵ Orain, ba, zuek gudalburuari batzararekin aurkeztu zakizkiote, gizona zuen aurera eratorí dezan eske, aren arazoa zeatzago ikusteko apukoz. Gu, beriz, bera urbildu baño len, bizia ari kentzeko gerturik gaude».

¹⁶ Baña Paul'en arebaren semeak, mañoaren berí entzunda, gudaletxera yo zun, ta Paul'engana sarturik, azaldu zion. ¹⁷ Paul'ek, beriz, euntarietako bat deiturik, esan zion: «Mutil au buruarengana eramazu zerbait ba-du, ba, ari esateko». ¹⁸ Euntariak mutila artuta buruarengana eramán zun esanaz: «Baitutako Paul'ek dei egin ta eskatu dit mutil au zuri ekartzeko; zerbait zuri esateko ba-du-ta». ¹⁹ Gudalburuak mutila eskutik

aítu ta eramanik, esan zion: «¿Zer duk niri esateko?»
²⁰ Mutilak esan zion: «Yuduak elkaítu dira zuri eskatzeko batzaíera Paul biar igor dezayezun, aren arazoa zeatzago ikerítzeko apukoz. ²¹ Ez siñetsi, ordea; berógei gizon geyago atustan daude, ba, bera txautu arte ezer ere ez yan-edateko zin eginda; orain bertan ere zure agintzaren zai daude beren asmorako gertuta».

²² Gudalburuak mutila igorí zun, esanaz: «Ez gero iñori esan istíluok azaldu dizkidazula». ²³ Ta bi euntari deiturik, esan zien: «Irugaíen gaualdirako beréun gudamutil irurogei ta amaí zaldizkokin ta beréun aiztagarikin Kaisarai'ra yoateko gerturik euzkazute, ²⁴ baita zama-riak ere, gañean Paul galbiderik gabe Pelix agintariengana eroateko». ²⁵ Berak, beríz, idazki bat egin zion, arazoa onela azalduz:

²⁶ «Pelix agintari gurenari

Kauldi Lisi'k

Aguí.

²⁷ «Gizon ori iltzeko yuduek atzita zeukaten. Ayetara, beríz, gudamutílekin nik yo ta kendu nien, éromaía dala ezagunda gero. ²⁸ Leporatzen ziotena igarí nairik, ayen batzaíari aurkeztu nion, ²⁹ ta ayen legeko istíluak besterik ez nun auzi artan idoro, eriotzarako edo baitegirako lain zanik nonbait agertzeke. ³⁰ Orain, yakin dudanez, aren kalte maío bat gertuta dute. Beraz, gizona bidaltzen dizut, eta salatariei dasayet zure aúrean auzia garbitzeko». [Ondo bizi].

Kaisarai'n

31 Gudariak, aginduari zetzizkiola, Paul artu ta gauez Antipatri'ra eramán zuten. 32 Ta biaramunean, zaldizkoak arekin aurera bearez utzirik, beren tokira itzuli ziran. 33 Kaisarai'ra ayek eldu ziranean, idazkia agintariari eman ondoren, Paul ere aurkeztu zioten. 34 Agintariak idazkia irakurritakoan, galdetu zion nongoa zanik; ta Kiliki'koa zala yakiñik, 35 esan zion: «Adituko dizut, zure salatariak datozanean». Ta agindu zun Erode'ren yauregian zaituta egotea.

XXIV

Paul'en auzia Pelix'en aurrean

Bost egun ondoren Anani, apaiz nagusia, zar batzuekin ta Tertul iztun batekin yetxi ta agintariari Paul'en aurka azaldu zitzazkion. 2 Au deitu izanda gero, salaldia Tertul'ek asi zun, esanaz: «Zuregatik dugun pake aundia ta zure arduratik eñi oni sortutako obariak, 3 Pelix bikain ori, esker onez beti ta edonun artzen ditugu, 4 Baña gogaikari luzaroxe izan ez naki-zun, entzun guri apur bat, aren, zurebiziko adeyez.

5 «Gizon ori, nazaretañen alderdiko buru nagusizat, kaltegarri utsa dugu, yuduei lur osoan zalapartak pizten ari zaigula. 6 Yauretxea bera kutsatzeko ere egiñalak egin ditu. Argatik guk bera atzirik, gure legebidez

31 Antipatri'ra. Yerusalen'dik Antipatri'ra 63 km. inguru.

ebatzi nai genun. ⁷ Baña Lisi gudalburuak, gañera etoñita, gogor gogorean eskutik kendu zigun. ⁸ Berak aginduta, gatozkizu gizon ori salatzen, zeroñek bera azteñtzen, aren aurka dakazkizugun salaketa guziak argi ezagun al ditzazun».

⁹ Esanari yuduek itsatsi zitzazkion, alaxe zala aitoñtuz.

¹⁰ Paul'ek, beriz, agintariaren baimenaz, erantzun zion: «Aspaldiko urteotan eñi ontan ebazle zerala baitakit, nere burua adorez zuritzera noa. ¹¹ Ezagun dezakezunez, amabi egun baizik ez dira Yerusalen'a yaureskuntzarako igo nintzanetik. ¹² Eta ez dago ikusi naunik yauretxean iñorekin izkatzen, ezta sinagogetan ta irian eñia neregana biltzen ere. ¹³ Nere lepotik. orain salatzen dizkizutenak ezin erakutsi dizute. ¹⁴ Ori, bai, aitoñtzen dizut; auek alderditzat aipatzen duten ikasbidez gure arbasoen Yainkoari moñoitzen natzayo, Lege ta Igañleetan idatzita dagon guzia siñetsiz. ¹⁵ Ta auek dauden ustean, nerau ere nago, on ta gaiztoentzat berpiztea izango dala Yainkoagan etsita. ¹⁶ Oregatik ere nere biotza Yainkoaren ta gizonen begitan akarbiderik gabe eukitzeko ayolatsu nabil.

¹⁷ Urteak igarota, nere eriañengana itzuli naiz, ukararak arentzat ekañi ta Yainkoari opariak eskeintzera. ¹⁸ Ta iñola zarata ta zapañastarik gabe opariok eskeintzen niardula, yauretxean idoro naute. ¹⁹ Asia'tik etoñitako yudu batzuk. Ayek emen aurkeztu beañak lirake, nere aurka zerbait ba'lute, salatzeke. ²⁰ Bestela beintzat, auek besate zertan oker ibilia idoro nauten, beren

batzaíean azaldu nintzanean. ²¹ Okértzat ez ba'dute gero; ayen erdian deadaíez esan nun au: ilen beírpiztea dala-ta, nago ni gauí zuen auíean ogenduntzat ekaía».

Epaya gerorako utzita

²² Auzi artan zegona Pelix'ek ondo ba'zezagun ere, gerorako igoíi zitun, esanaz: «Lisi gudalburua datoírean, auzia erabakiko dizuet». ²³ Euntariari, beíriz, bere zaípean Paul eukitzeko agindu zion, nasaiki gero; ta arenganako yoera aren laguntzaleei eragozteke.

²⁴ Zenbait egun ondoren, Pelix bere emazte Drusil yuduarekin etoíi zan, ta Paul eratoíirik, Yesu Kisto'renganako siñesteaz entzun zioten. ²⁵ Baña zuzentasunaz, elikuaz ta izango dan ebazteaz zerauskiela, Pelix'ek belduítuta esan zion: «Oraingotz zoaz; mugonez deituko zaitut». ²⁶ Paul'engandik zilaía aítzeko ustean, beíriz, beregana saíitan deitu ta arekin itz egiten zun.

²⁷ Baña bi urte betetakoan, Pelix'en oñorde Porki Pest etoíi zan; ta Pelix'ek, yuduen edeía euki nairik, baitegian Paul utzi zun.

XXV

Kaisarengana yotzen

Zertanera Pest elduta iru egun ondoren Kaisarai'tik Yerusalen'a igo zan. ² An apaizpuru ta yudu nagusiek, Paul'en auírka arengana auírkezturik, ³ beraren kaltetan adiguritzat eskatu zioten Yerusalen'a eratoíi zezala; bizia bidean ari kentzeko maíoa gertuta bait zeu-

katen. ⁴ Baña Pest'ek erantzun zien Kaisarai'n Paul zaipean zegola; bera, beriz, laster' ara yoango zala. ⁵ «Beraz», dio, «betoz nerekin zuetako altsuenak, ta gizon arengan oke'eren bat ba'dago, salatu bezate».

⁶ Zortzi edo amar' egun baizik ayen artean gelditzeke, yetxi zan Kaisarai'ra; ta biaramunean, auzitarako eseririk, beregana Paul eka'rtzeko agindu zun. ⁷ Au aur'keztuta berealaxe Yeruralen'dik yetxitako yuduek erdian ar'itu zuten, salaketa asko ta astunak egiñez, baña ezin egiztatuz. ⁸ Paul'ek, beriz, bere alde esan zun: «Utsik bat ere ez nik yuduen legeari, ez yauretxeari, ezta Kaisar'i ere egin». ⁹ Pest'ek, yuduak limur'itu nairik, Paul'i itz egin ta esan zion: «Yerusalen'a igo nai al duzu, nere aurean auetaz an ebatzia izateko?» ¹⁰ Baña Paul'ek erantzun zion: «Egon ere Kaiser'en auzitegian nago; emen ebatzi beara naiz. Zero'rek obeki dakizunez, yuduei ezertan ez diet irañik egin. ¹¹ Ori bai; eriotzarako lain danik oke'eren bat egin ba'dut, iltzeko uzku' ez nauzu; bañan auek egozten didatenik ezer ez ba'dago, iñork ezin nazake ayen eskuetan ur'urik utzi. Kaiser' engana yotzen dut». ¹² Ordun Pest'ek, onulariekin itz eginda, erantzun zion»: «Kaiser' engana yo ezkerro, Kaiser' engana zoazke».

Agiripa bakaldunaren aurean

¹³ Zenbait egun igarota, Agiripa bakalduna ta Bernike yetxi ziran Kaisarai'ra, Pest'i agur' egitera. ¹⁴ Ta egun askotsu bertan gelditu zirala, Pest'ek bakaldunari Paul'en be'ri eman zion, esanaz: «Ba-da emen gizon bat

Pest'ek itxian yařita. ¹⁵ Yerusalen'en nintzanean, yu-
duen apaizpuru ta zařak aurkeztu zitzazkidan aren
aurka eparen eske. ¹⁶ Nik erantzun nien eromarek
inoren aurka epairik eman oi ez dutela, salatuak bekoz
beko salatariak len euki izan ezik, eta egozten zayonaz
bere burua garbitzeko aukera ari utzirik bařo. ¹⁷ Emen
ayek, beraz, aurkeztu dira; ta gerokeririk gabe, biara-
munean, auzitarako eseririk, agindu nun gizona ekař-
tzeko. ¹⁸ Aren aurka salatariak aurkeztu ziran; bařa
nik susmatzen nitun okeřetako bat ere ez zuten atera.
¹⁹ Bakařik beren yaureskeriaz ta Paul'ek bizi dala dara-
san ildako Yesu norbaitetzaz, aren aurka zekazten istilu
guziak ziran. ²⁰ Alako arazoan argibiderik ez neukala,
itandu nion Yerusalen'a yoan nai ote luken, auzia an
erabaki zedin. ²¹ Bařa Paul'ek bere auziaren ezaguera
August'i utzia izan zekiola eskatuta, agindu nun zai-
pean bera eukitzea, Kaisar'engana igori arte. ²² Agiripa'k,
beriz, Pest'i esan zion: «Neuk ere gizon ori entzun nai
nioke». Pest'ek diotsa: «Biar entzungo diozu».

²³ Izan ere, biaramunean Agiripa ta Bernike ařan-
diro etori ziran; ta gudalburu ta iriko aundikiekin
entzungian sartu ziranean, Pest'en aginduz, Paul aur-
keztu zala, ²⁴ Pest'ek esan zun: «Agiripa yauna ta gure-
kin emen zeraten guziok: Begirazute gizon au. Bera
dala-ta, yudu guzien erauntsia Yerusalen'en ta emen
izan dut gařean deadařka: orek ez du geyago bizi
beař. ²⁵ Nik, beriz, eriotzarako lain danik ez dut ezer
ere beragan idoro. Ala ere, August'engana berak yo
ezkero, bidaltzea erabaki dut. ²⁶ Bařa jaunari idazteko

garbirik ezer ez dudala, gizon au zuen auñera ekaí dut, eta batez ere zure auñera, Agiripa bakaldun ori, galde eginda gero, dakidan zer idatzi. ²⁷ Eragabe deritzat, ba, baituta iñor bidaltzea, aren aurka dagona adirazteke».

XXVI

Paul'en itzaldia

A giripa k Pauli esan zion: «Zilegi zaizu zeroén alde itz egitea». Ordun Paul'ek, eskua auñeratuz, bere zuriketan itzok esan zitun: ² «Au ba-da niretzat zori ona, noski; yuduek salatzen nautenaz nere burua gauí zuritu bearta, zure auñean egitea. ³ Zori ona, batez ere, yuduen ekandu ta buruauste guziak ondo ezagunak dituzulako. Adeitsuki, beraz, entzuidazu, añen.

⁴«Zein izan dan gatzetanik nere bizikera yudu guziek dakite; nere eñtañen erdian ta Yerusalen'en igaro baita asieratik. ⁵ Aspalditik nazagute, ta, nai ezkerro, aitoñtu beaí dute ni, parisaitaí zuñian, gure legeko alderdirik zoñotzenaren arauz bizi izan nintzala. ⁶ Orain bertan ere, auzipean ba'nago, Yainkoak gure arbasoei egindako agintza siñesten dudalakoxe, nago. ⁷ Gure amabi leñuak yauresketan zoli zoli gau ta egun dauzkan uste berauxe, gero, bakaldun ori, yuduok nigan salagaí deritzate. ⁸ ¿Zer dala-ta, beñiz, zuen artean siñesgaitza izan diteke ilen beñpiztea, Yainkoak egiña?

⁹ «Neu ere etsita nengon Yesu Nazaretañaren izenari gogoñ egin beaí niola. ¹⁰ Baita egin ere Yerusalen'en.

Apaizpuruengandik eskubidea aítuta, gizakume zintzo asko itxi nitun baitegian, ta ayen eriotzarako nere autarkia neraman. ¹¹ Askotan ere, sinagogaz sinagoga ibilki, indaíkeriz biraotara nekaítzin, ta geyegi aseíretzen nintzayela, atzeíko irietan ere esesten nitun.

¹² «Órela Damasko'ra apaizpuruen eskubide ta aginduz ninyoala, ¹³ bidean, bakaldun ori, eguerdian, argi bat ikusi nun eguzkiarena baño biziago nere ta nerekin zeudenen baranoan ortzitik istatzen. ¹⁴ Ta lu' yota guziok geuntzala, mintzo bat entzun nun eberkeraz niri esaten: «Saul, Saul, ¿zergatik esesten nauzu? Lan gogoía dakaítzu, eztenari ostikoka». ¹⁵ Nik esan nion: «Yauna, ¿nor zera zu?» Ta Yaunak esan zidan: «Esesten duzun Yesu naiz Ni. ¹⁶ Yaiki, ba, ta zutitu zaitez zure oñengan: ikusi duzunaz ta erakutsiko dizudanaz moíoi ta aitoíleri zu yaítzeko, ageri izan naítzazu-ta. ¹⁷ Órtarako, eíi ontatik eta atzeítik atera zaitut, atzeíi orientara bidaltzen zaitudala, ¹⁸ begiak iriki dezazkizuen, ta Satan'en mendetik Yainkoarengana eraman ditzazun; órela ogen-asketsa ta nere siñestez zindotuekin yarauntsia ar' dezaten».

¹⁹ «Ortzitik niri erakutsiari, beíz, ez naiz, Agiripa bakalduna, gogoí egin. ²⁰ Aitzitik ere, Damasko'n asi ta, Yerusalen ta Yuda osoan, baita atzeíietan ere, guziei garbai izateko, ta garbai-neke egokitan Yainkoarengana biuítzeko aldaíkatzen ari izan naiz. ²¹ Ori dala bide, yauretxean nengola, yuduek atzi niñuten, ta il nai niñuten. ²² Baña, Yainkoa lagun, gaurdañokoan ba-nago txiki ta aundiei aitoí egiten, Mois'ek eta igaíleek gero-

rako aldaíkatua besterik esateke: ²³ Kisto'a nozitu ta iletatik auéna berpiztu beara zala, éri au ta atzería argitzeko».

²⁴ Ori Paul'ek bere alde ziola, Pest'ek ozengi diotsa: «Erotu zera, Paul: ikasi ikasiaz, burutik zaude». ²⁵ Paul'ek beriz diotsa: «Ez, Pest bikain ori; ez nago burutik; senaz ta egiz itz egiten ari naiz. ²⁶ Bakaldunaren auéan zabal zabal mintzo naiz; ta diodana berak ba-daki; ez dut uste, ba, guziotaz yantzi gabe dagonik, ezertxo ere ez baita zokoka burutu. ²⁷ Agiripa bakaldun ori, ¿igáleei siñesten al diezu? Ba-dakik bayetz».

²⁸ Ta Agiripa'k Paul'i: «Kista' biurtzeko ere uén naukazu». ²⁹ Ta Paul'ek: «Naiz uén, naiz urun, Yainkoak ba-letsa, zu ez ezen, gau' dantzuidaten guziak ere, ni bezelakotsu biurtzea, bilur' auekin gabe, gero».

³⁰ Ordun bakalduna, agintaria, Bernike ta ayekin eseririk zeudenak yaiki ziran; ³¹ ta alde batera eginda, elka'ean yardun ta esan zuten: «Ez du gizon onek eriotzarako lain danik ezer egin». ³² Ta Agiripa'k esan zion Pest'i»: Gizon ori yarei utzia izan liteke, Kaiser'engana yo ez ba'lu».

XXVII

Kaisarai'tik Kerete'ra

I tali'ra itxasoz gu yoatea erabaki ezkeró, Paul beste baitu batzukin Augusta-gudalsaileko euntaria zan Yuli'ri egotzi zizkioten. ² Adramite'ko ontzi bat yoateko zan Asia'ko izpazte'etara; ta artan sarturik, asi genun

gure itxasbidea, Tesalonike'ko Aristark makedonia'ra gurekin zeto'ela. ³ Biaramunean Sidon'a elduta, Yuli'k gizabidez Paul'i baimena eman zion, adiskideetara yota bidaria bildu zezan. ⁴ Andik irtenda Kiper babesean itxasoz ya'rai giñan, luya zalako. ⁵ Ta Kiliki ta Panpili'ko kolkoa igarota, Liki'ko Mira'ra eto'ri giñan. ⁶ An Itali'rako zan Alexanderi'ko ontzi bat upaturik, euntariak artara aldatu giñuzan. ⁷ Aizea'ren egun asko astiro ta nekez ibilki, Kinido au'era yota, Kerete'ra alderatu giñan Salmon ondoan, ⁸ ta lego'ari eza'rita ya'rairik, nekez eldu giñan Ate Ede'reta deritzan tokira, Lasai iriaren aldamenen.

⁹ O'rtan asti aundia galdu ta itxasbidea zail egin zan, barualdia igaro baitzan. Beraz, Paul'ek itz egin zien, ¹⁰ esanaz: «Gizonak; o'artzen naiz neketsua ta kaltega'ria bai zamarentzat eta ontziarentzat, baita geron buruentzat ere, izango dugula itxasbidea». ¹¹ Paul'ek zionari ba'no, ordea, endaizlari ta ontziburuari euntariak geyago siñesten zien. ¹² Ta ditxoa neguterako egokia ez baitzan, geyenek erabaki zuten andik itxasoratu bea' zutela, Poinike'n, Kerete'ko ditxoan, negutea nolarebait igarotzeko Liba ta Kor aizetara.

Ekaitza

¹³ Ta egoaizea so'rtu zala. beren asmoa iristeko ustez, arpeuak yasorik, Kerete'n zea' au'era ziyoazan. ¹⁴ Eurakilo deritzan ipa'raize gogo'ra laste' gañera yauzi

⁹ Barualdi au, Kippur izenez, Irailaren azkenean edo U'ri asieran oizan, Itsasaroa, be'z, ekaitzengatik oso txara ordun oiz da.

zitzaigun, ordea, ¹⁵ ontzia nařaztuz; ta ezin ari burutuz, bere oldařari utziak genbiltzan. ¹⁶ Kauda deritzan ugarte kaxkař baten ondoan igarota, ozta ozta iritsi genun atoepotiņa gure mendean eukitzea. ¹⁷ Aren yabe eginda, abortzak ezařtzen ta ontzia adabakitzen asi ziran; ta ondatzeko belduřez zapiak eratxi zituten, ta ořela, eramana zioazan. ¹⁸ Biaramunean, ekaitz gogořak baitzerauntsan, ontzia arindu zuten. ¹⁹ ta uřengo egunean ontziko abasak ere beren eskuz yaurti zituten. ²⁰ Egun askotan ez zan eguzkirik agiri izan, ez izařik; ekaitzaren erauntsia areagotzen zioan, ta buruak gaizkatzeko uste-izpirik ere ez genun.

²¹ Aspaldi zeuden barurik, eta Paul'ek ayen erdian yaiki ta esan zien: «Gizonak, obe genuke onenbeste neke ta kaltera gabe Kerete'n, nik nionez, egon ba'giņa. ²² Oraingoan, beřiz, azkařtu zaitezte, ařen; ontzia, bai, galduko; zuetako bat ere, ordea, ez. ²³ Nagokion ta nařayon Yainkoaren aingerua bart ageri izan zait, ba, ²⁴ esanaz: «Paul, ez belduřtu. Kaiser'i auřkeztu beařa zera, ta, ara, zurekin diyoazan guzien bizitzak Yainkoak eman dizkizu. ²⁵ Azkařtu zaitezte, ba, gizonak; dana esana zaidan bezela gertatuko zala Yainkoagandik etsita nago-ta. ²⁶ Ugarte batera elduko gera».

²⁷ Amalaugařen ařatsean ořela eramana Adri'n bařna genbiltzanean, gauerdian ontzilariek legořa uřbil zala susmatu zuten. ²⁸ Beruna botata, ogei gizabete zenbatu zituten, ta apuř bat aruntzago beruna beřiro botata, amabost. ²⁹ Aitzetara yotzeko belduřez, lau arpeu txopatik botata, argiaren erpai zeuden. ³⁰ Ontzimutilek

igesi nai zuten; ta potiña itxasora eraisten asi ziran, brankatik arpeuak botatzeko apukoz. 31 Baña Paul'ek euntariari ta gudamutilei esan zien: «Oriek ontzian gelditzen ez ba'dira, gaizkabiderik ez duzute». 32 Ordun gudamutilek potin-unamak ebakirik, erortzen utzizuten.

33 Paul'ek, beñiz, goiz-argia zetoñen bitartean, guziak zerbait yatera zirikatzen zitun, esanaz: «Amalaugeñen eguna gauñkoa da kezkatan barurik zaudetela ezer yateke. 34 Beraz, yan egizute, añen, zuen osasunerako; ez zayo, ba, zuetako iñori buruko ile bat ere galduko». 35 Ori esanda, ogia arñtu ta Yainkoari guzien begitan eskeñ egiñik, puskatu zun ta yaten asi zan. 36 Berebat guziek pizkoñtuta yan zuten. 37 Ta ontziko guziak beñeun ta irurogei ta amasei giñan. 38 Ondo yanda gero, ontzia arindu zuten, garia itxasora yaurtirik,

Ontzia puskatuta

39 Egundu zanean, ez zuten luñalde ura ezagun. Ala ere, kolko bat zekusten bere ondarñtzarekin, ta artan ontzia, al ba'liz, ondarñtzeko asmoa arñtu zuten. 40 Ta arpeuak yasorik, yitoan asi ziran, endaitza ere askatuz. Ta beko zapia aizera edaturik, ondarñtzara ziyoazan. 41 Baña mutuñ batean tupust eginda, ontzia ondarñtu zitzayen, ta branka tenk ta igitzeke gelditu zan; txopa, beñiz, poñokatzen ziyoan itxasoaren indañez.

42 Ordun gudamutalak itundu ziran baituak iltzeko, urtara iñor yauzi ta igesi ez zedin. 43 Bañan euntariak, Paul gaizkatu nairik, eragotzi zien ta agindu zun igerian

zekitenak urtara auñenak yauzi ta legoñeratzeko. ⁴⁴ Besteak, beñiz, batzu oletan, ta bestetzu ontziaren uzkiñetan, luñera irten ziran.

XXVIII

Melite'n

Zori artatik igesitakoan, yakin genun ugarte ura Melite zeritzala. ² Bertakoek txera edeña egin ziguten; sendoñ bat eñeta, zerauntsan euri ta otzari buruz maldatu giñuztela. ³ Paul'ek adaki batzu bildu zitun, ta sutara botatzean, ziraun bat, beroañen ilkirik, aren eskura yauzi zan. ⁴ Zirauna aren eskutik zintzilikan angoek ikusi zuteneko, elkañi zesayoten: «Gizon ori gizerale duk, eta itxasotik igesi ondoan, Goikoaren aseñeak ez dik bizitzen utzi». ⁵ Ark, beñiz, zirauna sutara astindurik, ez zun miñik añtu bat ere. ⁶ Bañan ayek uste zuten ilupatu ta bat batean erori ta ilko zala. Oñelakoen zai luzaro egon ezkerro, kalterik ez zetoñkiola ikusi zutenean, gogo aldatuz, bera Yainko zala zerasaten.

⁷ Bazteñ ayetan Pubili zeritzan ugarteko yaunak bere onibañak zeuzkan; ta bere etxera gu añturik, adiskidetsuki izan giñuzan añotz. ⁸ Pubili'ren aita, beñiz, sukañez ta sabeldarioz oean zetzan. Arengana Paul'ek sañtu ta otoi egiñez eskuak ari ezañirik, sendatu zan. ⁹ Añezkerro, ba, ugarteko eri guziak arengana zetozan ta sendatzen ziran. ¹⁰ Begirune aundia zerakuskiguten ere, ta itxasbiderako beañ genuna eman ziguten.

1 Melite (Malta). Eñomañen mendean zegon aldi artan.

Melite'tik E'roma'ra

¹¹ Iru ilabete ondoren itxasoratu giñan. Genkartzin ontzia Alexanderi'koa zan. Negutea ugartean egin zun, ta Dioskour'en ezaguga'ria zeraman. ¹² Sirakusa'ra elduta, an gelditu giñan iru egun. ¹³ Andik, lego'ari eza'rita, E'regi'ra, eto'ri giñan; ta egun baten ondoren, egoaizea so'rtu zala, irtenik, biaramunean sa'rtu giñan Puteoli'n. ¹⁴ Senideak an upatu genitula, ayekin zazpi egun egoteko zeskaiguten. Ta o'ela eto'ri giñan E'roma'ra. ¹⁵ Gure be'ri ango senideek izanda, guregana yo zuten Api ze'i ta Iru Etxoletara'ño. Ayek ikustean, Paul'ek Yainkoari eske' egin zion, ta biotza zabaldu zitzayon.

Paul E'roma'n

¹⁶ E'roma'ra ezkerro, baimena Paul'i eman zioten gudamutil baten zaipean bere gain egoteko. ¹⁷ Iru egun ondoren yudu nagusiak beregana deitu zitun; ta bildu ziranean, esan zien: «Ezertxo ere gure e'riaren edo arbasoen ekanduen kaltetan nik egiteke, Yerusalen'dik naukautute e'roma'ren esku'etara baiturik emana. ¹⁸ Auek, ni azte'rtu ezkerro, askatu nai niñuten, eriotzarako lain danik ezer ere nigan ez dagolako. ¹⁹ Baña yuduak yarki ta, Kaiser'engana yobea'rez au'kitu naiz; ez, ordea, nere e'ria zerbaitetzaz salatzeke. ²⁰ Au dala bide, zuekin eraus-

²⁰ Israel'en itxoarengatik. Begira lengo XXIII, 6; XXIV, 15; XXVI, 6. Be'ripiztea zan Israel'ek itxoten zun garaya, ta Paul'ek Yesu'ren be'ripiztea alda'rikatu zun.

teko ikustaldi au eskatu dizuet; Israel'en itxoarengatik kate onek loturik nauka-ta».

²¹ Ayek, beñiz, esan zioten: «Guk ez dugu Yudai'tik zutzaz idazkirik artu; ta etoñi diran anayetakorik batek ere ez digu zutzaz ezer ekañi, ez esan. ²² Zure iritzia, beraz, zeroñengandik entzun gura dugu. Ba-dakigu, ba, alderdi oñi aitzika edonun dabilzala». ²³ Ta eguna berezi ziotelarik, arengana kopuru aundia-gotan etoñi ziran; ta berak goizetik aratseraño Yainkoaren eña erakutsi ta aitoñtzen zion, Mois'en legeari ta Igañleei atxikita, Yesu'ri dagokiona azalduz. ²⁴ Ta ayetako batzuk siñesten zioten; beste batzuk, ez. ²⁵ Elkañ arñtzen ez ziralata, banatu] egin ziran Paul'ek ziola: «Edeñki Goteunak gure arbasoei Isai igañlearen aoz itz egin zien, ²⁶ esanaz:

Eñi oñengana zoaz ta esayozu:

**Belañiz entzunda, ez duzute adituko,
ta begiz ikusita, ez duzute nabaituko.**

**²⁷ Mokoñtuta baitago eñi onen biotza,
ta belañiak entzuteko goñtuta.**

Bere begiak itxi ditu,

begiz ez ikusteko,

belañiz ez entzuteko,

ta biotzez ez ulerñtzeko,

onbidera etoñirik, sendatu ez ditzadan.

²⁸ Yakizute, beraz, Yainkoaren osasun au atzeñikoei egiña zayela: Ta entzun ere ayek entzungo dute».

26,27 Is. VI, 9,10

²⁹ Au esandakoan, yuduek alde egin zuten, eztabaida asko elkarrengan zeramatela.

³⁰ Paul'ek, beriz, bi urte bete zitun akuratutako etxean; zetozkion guziei abegi ona egiten, ³¹ ta Yesu Kisto Yaunari dagokiona zozto'rik gabe zabal erakusten.



BIDALIEN IDAZKIAK

PAUL BIDALIAREN IDAZKIA

EĒOMAKOEI

Paul Deunak Españi'ra yoateko asmoa zun ta Eřomařen artera eldu baño len, agertu nai izan zien idazki onen bitartez, berak alderdi guztietan azaltzen zitun erakusgai berezienak. Batez ere, nola gizona zuzentzen dan, ez bere lanez, ezta ere lege zařaren egintzaekin, Yesu Kristo'ren eskeřaren bidez baizik (I-V), Gero agirian yartzen dizkigu eskeř onen ondasunak (V-VIII), eta nola Yuduak eskeř zindotzale onegandik eta Mesiaren bakaldeřitik aldendu ziran, (VIII-XII). Azkeneko zatiaren gaya Kristauen bizibide zuzena da (XII-XV). Poibe Kenkrei'ko eliz-sero-reen eskuz bidaltzen die, ta Eřoma'ko Kristau ezagunak agurtzen ditu (XVI).

Idazki au baño lenago beste batzuek Paul Deunak idatzi zitun. Bañan au danen auřenean yartzen da, nunbait antziñatik Eřoma'ko Eliza beste eliz guztien buru zalako.

Idazki au 58 gařen urtearen azken aldean egin zien, Korinto'n zegola.

I

Sařera

Paul'ek, bidalitzat deitu ta Yainkoaren Beři Onerako berezia naizan Yesu Kisto'ren mořoi onek,
 7 zuei, Eřoma'n zaudeten Yainkoaren maite ta deun deitutako guzioi,

Yainko Aitaren ta Yesu Kisto Yaunaren adeya ta gentza.

2 Beři On au Yainkoak bere Semeaz Idazteunetan bere igarleen bidez agindua da. 3 Yesu Kisto gure Yauna, beřiz, aragitan Dabid'en azitik sořtua, 4 deuntasun adorez, Yainkoaren Semetzat alazki azaldu zaigu ilartetik beřpiztean. 5 Beragandik dut bidalgoa emaritzat arřuta, atzeři guziak Aren izenean siñestera eratořtzeko. 6 Ta ayetakorik zerate zuek ere, Yesu Kisto'k deituta.

⁸ Auñenean, Yainkoari Yesu Kisto'ren bidez zuen guziengatik esker dagiot, lu'rbira osoan zuen siñestea aipatzen dalako. ⁹ Bere Semearen Be'ri Onerako mo'roitza gogotik ari natzayon Yainkoak ba-daki zuetaz etengabe oroitzen naizala, ¹⁰ Yainkoak ba'letsa, zuetara ni eto'rtzeko nere otoyetan beti eskatuz. ¹¹ Ikusi nai zaituzt, ba, gogoa sendotu dizueken iñolako urgazia zuei eka'rtzeko, ¹² edota zuen ta nere siñestez elka'rtzuz dezagun. ¹³ Ta ez dut zuek, senideok, yakiteke egotea nai, zuetara yoateko asmoan askotan egon naizala, zuenean ere, beste e'rietan bezela, iñolako zitua ateratzeko; ¹⁴ bañan orañarte elenda'rei ta a'rotzei, yakitunei ta alotzei zo'rdun natzaye, ¹⁵ E'roma'n zaudentoi ere Be'ri Ona alda'rikatzeko gerturik nagola. ¹⁶ Ez naiz, ba, Be'ri Onaz alke.

Siñestun gnziek, yuduek lenen ta elenda'rek gero, osasunerako Yainkoaren kemena artan dute-ta. ¹⁷ Izan ere, bertan agertzen da siñestetik siñestunei dato'rkien Yainkoaren zuzenbidea, idatzita dagonez: **Zuzena siñestez bizi da.**

Siñestera gabe, zindokuntzarik ez

¹⁸ Yainkoaren ase'rea zerutik ageri baitzaigu egia bidegabean baituta daukatenen biu'keri ta bidegabekeri guziei buruz; ¹⁹ Yainkoaz ezagun ditekena nabari zaye

¹⁷ Ona emen idazki onen gai osoa: siñestea. Au da Yainkoaren inda'ra, gogoaren osasuna iristeko, naiz yudu, naiz elenda' izan; baña lenik yuduari eskeñi be'ar zayo, ta gero elenda'ari.

Paul'entzat gizadi guzia bi aldetara zatitua dago: batera yuduak, bestera be'riz, osterantzekoak. Auek, batzutan elenda', beste batzutan atze'ita' bezela aipatzen dira.

-ta, Yainkoak erakutsi zielako. ²⁰ Alabaña, betiko bere indara ta yainkotasun ikusi eziñak, ludia soñtu danetik egindakoen ezagueraz ikusgarí egin dira, zuribiderik alakoentzat ez dagola, ²¹ Yainkoa ezagundakoan, Yainkostat goretsi ez dutelako, ta eskerik egin ez diotelako; aitzitik, beren asmakeriak dirala-ta. ergeldu dira, ta ayen biotz tentela ilundu da. ²² Yakituntzat arandituz, astotu dira, ²³ ta Yainko ezin ustelduaren aintza gizon ustelgaríen irudiñetara, egazti, lauroñeko ta narastienetara sayestu dute.

²⁴ Argatik Yainkoak ere utzi ditu beren biotzeko iriskerietan lokaztuta, berek beren soñak gerendu ditza-ten. ²⁵ Ta ayek Yainko ziña sasikoengatik utzita, betiko onetsia dan, ta ala biz, Irazalearen orde, irazanaren moñoi ta yauresle egin dira. ²⁶ Argatik Yainkoak gríña lotsagaríetara utzi ditu. Ayen emeak yatoña zayen aribidetik aitzikora biurtu dira. ²⁷ Berebat arak ere, emearekiko bide yatoña utzita, elkarén irikaz izeki dira, arékin arék zantañki yardunez ta okeñsari egokia beregan arñuz. ²⁸ Ta Yainkoa ezagun gogorik ez baitzuten, beren yas biurirakoan Yainkoak utzi zitun bide ez dana zegiten. ²⁹ al dan bidegabekeriz, dolórkeriz, dirugosez ta gaiztakeriz beterik, eta bekaitzez, odolketaz, liskañez, iruzur- ez, ta maltzurkeriz okiturik; ³⁰ maxiolari, Yainkoaren goñotogañi, nardatzale, aró, parastelari, gaitzerako antzetsu, gurasoekiko biurí, ³¹ sengabe, erabage, biotzgabe ta erukigabe. ³² Oñelakoetan ari diranak, Yainkoaren erabakiz iltzeko ogendun dirala yakinda ere, berbera berek egin ez ezen, ayen yarduera ontzat arñu ere zuten.

II

Yuduak ere ogendun

Argatik, zerana zarala, zuribiderik ez duzu, besteak gaiztesten dituzun oreak; besteak gaiztestean, zeroen burua gaiztesten duzu, gaiztesten duzuna bera zeroek dagizulako. ² Ba-dakigu, beriz, orelakoetan ari diranei buruz Yainkoaren epaya egiaren arauz dala. ³ Zu, ordea, orelako ogendunak gaiztetsi ta ogen berberak egiten dituzun ori, Yainkoaren epayari iges egingo diozulakoan ote zaude? ⁴ Ala Aren onbera, egoaria, ta biotz zabalaren aberastasuna ez ote duzu aintzat artzen? Yainkoaren erukiak garbaira deitzen zaitunik ez al dakizu? ⁵ Ostera ere, zure gogorkeriz ta garbaigabeko biotzez, aseera zeroentzat biltzen duzu Yainkoaren aseera ta epai zuzena ageriko diran egunerako. ⁶ Berak bakoitzari bere eginen arauz ordaña emango dio; ⁷ aspertzeke on egitez, aintzaren, deduaren ta amaigabearen bila dabilzanei, betiko bizitza; ⁸ lepagogor, egia-
rekiko ezigaitz ta gaitzerakoei, beriz, aseera ta amoria. ⁹ Gaizkin guziei sor ta lor, yuduei aurenna ta elendaerei gero; ¹⁰ ongile guziei, yuduei aurenna ta elendaerei urena, aintza, dedu ta gentza. ¹¹ Yainkoarentzat norkeririk ez dago-ta.

¹² Legerik gabe ogen egin dutenak oro legerik gabe

³ Yuduak aro ziran Mois'en bidez artutako Lege zaragatik; eta orelakorik ez zutelako, erbestekoak ixekatzen zituten; baina gizonaren onizatea ez dago lege-yakitean, lege-betetzean baizik.

ere galduko dira, ta legepean ogen egin dutenak oro legebidez ebatziak izango dira. ¹³ Yainkoaren begitan zindo ez dira, ba, legea dantzutenak; legea betetzen dutenak, ordea, auek zindotzen dira. ¹⁴ Alabaña, legerik ez duten atzeritaiek legean agindua berenez betetzen dutenean, berak dira berentzako lege. ¹⁵ Legemamia beren biotzetan idatzia orelakoek darakuste. Ta oretzaz biotzean aitorá ba-dute, norbera salatzen edota zuritzen bufuka dabilzkien oldozketan. ¹⁶ Ebaztegunean ori ikusiko da, Yesu Kisto'ren bidez Yainkoak, irakasten dudanez, gizabañea aztertuko dunean.

¹⁷ Zuk, ordea, yudu izena duzula, legean atsedean ta Yainkoaz ilaraintzen zerala, ¹⁸ Aren naya dazaguzula, ta, legeak argituta, egokiena zer dan dakizula, ¹⁹ zuk, itsumutil, iluntan daudenen argi, ²⁰ alotzen irakasle ta umeen azle zeralakoan, ta yakintza ta egiaren eredia legean daukazulakoan zauden orek, ²¹ besteri darakaskiozuna zergatik zeroi ez? Ostu bea ez dala aldarikatzen duzun orek ostu egiten duzu! ²² Izoikeririk egin bea ez dala diozu, ta izoikeri dagizu! Irudiñak iguin dituzu, ta yauretxea kutsatzen duzu! ²³ Legeaz ilaraintzen zera, ta, legea autsirik, Yainkoa nardatzen duzu! ²⁴ **Zuengatik baitago Yainkoaren izena atzerian biraogañi, idatzita dagonez.**

¹⁴ Ba-ziran atzerian lege idatzirik gabe sortzezko legeaz argituak, ogengabe bizi ziranak; bañan ez beren indaiez, Yainkoaren eskeriez baizik. Askoren iritzian au esan nai du Paul'ek toki onetan.

Gañera garbi ageri da emen, edonork ba-dula biotzean Egileak sortzetik ezaritako ezaguera bat, ondo egiteari on, eta gaizki egiteari gaizto dala bañundik deadaiez esaten diona.

²⁴ Is. LII, 5; Ez. XXVI, 20.

²⁵ Erdainkuntza, noski, onuratsua da, legea betetzekotan; baña legea austen ba'duzu, naiz erdaña naiz mokoia, zuretzat berdin. ²⁶ Erdaindua izateke legearen aginduak betetzen ditunari ez ote zayo mokoia erdaintzat aítuko? ²⁷ Lege idatzia ta erdaña dituzula ere, legea austen ba'duzu, yayo bezela mokodun geldituak legea betetzen ba'du, ebazletzat ya'rkiko zaizu. ²⁸ Ez da, ba, yudua yudu-azala darakusana; ta berebat, erdainkuntza ez da aragian ageri dana. ²⁹ Ba'netik, ordea, yudua yudu da; erdainkuntza, be'riz, biotzarena da, ez lege-itzari, adoreari dagokionez baño. Alakoa goraga'ri ba-da, ez gizau'ean, Ya'inkoarenean baño.

III

Yuduak atzeritáekin erkatuta

Zertan, beraz, yudua garai? ¿Zein da erdainkuntzaren obaria? ² Alde orotara ugari. Beintzat, bere zaipean Ya'inkoaren itza ya'rita baitu. ³ ¿Zer, ba? Batzuk siñetsi ez ba'dute, alakoen siñesgabeak Ya'inkoaren kirmentasuna motelduko ote du? ⁴ Inola ere ez. Egitia da Ya'inkoa; gizaki guziak, be'riz, gezu'rtiak, idatzita dagonez:

**Zure itzetan kirmen ageri zaitezán,
ta bayezta zutzaz so'rtu orduko, garai izan
[zaitezán.**

²⁶ Arpegi itxurari ez dio begiratzen Yaungoikoak, ba'engo ede'rtasunari baizik. Erbesteta' azal itxusikoak. ezaguera zuzenaren deyari ya'raiki, ogenik gabe irauten ba'du, Ya'inkoaren ondasunetan sa'rtuko da. Yudua, be'riz, bere lege ospatsu ta ede'arren ausle ba'da, utsik ta leko-rean geldituko da.

⁴ Er. L, 6.

5 Gure bidegabeak Yainkoaren zuzentasuna darakusan ezkerro, ¿zer diokegu, beñiz? Gizakeraz mintzo naiz. ¿Bidegabez Yainkoa ez ote doa, asere ba'dabil? 6 Inola ere ez. ¿Nola, ezperen, ludia Yainkoak ebatziko luke? 7 Nere gezuragatik, Yainkoaren aintzarako bere egia areago agertzen ba'da, beñiz, ¿zer dala-ta, ogenduntzat gaiztetsi beara naiz? 8 ¿Ez ote dugu, oster, gaizki egin bea, batzuk, gu bezturik, diogula darasaten, ongia erne dedin? Izan ere, dagokien akara orako oriek izango dute.

9 Onezkerro, ¿zer? Aurenak al gera? Inola ere ez. Erakutsi dugu, ba, guziak, yudu ta elendarak, ogenpean dauntzala. 10 Idatzita baitago:

Zintzorik ez dago bat ere;

11 ez dago zurik, ezta Yainkoaren bila
[dabilanik.

12 Guziak bidekatu dira, guziak sayestu.

On daginek ez dago, bat bakaik ere ez.

13 Ayen eztaia, ilobi zabala;

ayen minganetan, iruzura pizkor.

14 Aoa biraoz ta garatzez beterik dute,

ayen ezpanetan suge-edena,

15 ta onak odolketarako ariak.

16 Nekagari ta latzak dira ayen bideak,

17 ta gentzabiderik idoro ez dute,

18 Yainkoaren beldurik begitan ez dute-ta.

10-12 Er. LIII, 2-4; XIV, 1-3.

13 Er. V, 11; CXXXIX, 4.

14 Er. IX, 28.

15-17 Is. LIX, 7, 8.

17-18 Er. XXV, 2.

¹⁹ Ba-dakigu, beñiz, legeak dion guzia, legepean daudenentzat diola, ao guzia isili ta gizadi osoa Yainkoaren aitziñean ogenduntzat ager dedin. ²⁰ Ez da, ba, inor Aren aitziñean legeko eginbidez zindotuko; legetik ogen-ezaguera dugu-ta.

Nondik zindokuntza

²¹ Orain, beñiz, legearen ta igarleen aitoñez, zindokuntza Yainkoarengandik azaldu da legerik gabe, ²² Yesu Kisto'ren siñestez Yainkoak siñestun guzientzat eta guzien aukeran yañia. Ez baitago inoren bereizterik. ²³ Guziek ogen egin ta Yainkoaren edera galdu dutelako; ²⁴ ta zindokuntza ematen zaye ururik, Yesu Kisto'k ayen alde ordaindutako yarei-sariagatik. ²⁵ Guk siñetsi ezkerro, Yesu Kisto, bere odolez ibigañi izan dakion, Yainkoak aukeratu baitu, egindako ogenak askestean bere zuzenbidea erakusteko. ²⁶ Erakutsi ere orain ba-darakus, zuzena ez ezen, Yesu'ren siñestea dutenen zuzentzalea ere Bera dala adirazirik.

²⁷ ¿Non dago, beraz, ilaíainbidea? Alde eragiña.

²⁰ Lege zaíretik eta soítzezkotik ez du gizonak ona izateko añeko indaírik, ogenaren ezaguera besterik ez damaigute-ta. Indaí ori, Yesu Kisto'ren eskeíretik datoíkigu.

²⁴ Zindokuntza, bi aldetatik begira diteke: asieratik eta azieratik. Asiera atontzen dute siñesteak, itxaromenak, eta abaf. Auei, gertubide ba'diri ere, ez zaye zindokuntza zearo zoí, eta berak ere ururik edo utsean ematen zazkigu. Azierari begi ematen ba'diogu, siñesmen, itxaromen ta egite on guziei zindokuntza zearo zoí zaye.

Luter'ek eta Protestanteek okeí ateratzen dute emendik Yainkoaren adiskidetasuna ta zerua iristeko ez dala egite on beaírik. Paul'ek eta Trento'ko batzaíreak diotenez, beaí beaírekoak díra, ordea. Ala ere, Yainkoaren adiskide ta seme, uts utsean egiten gera. Gero beñiz, egite onik ez ba'da, Yainko-semetzako bizitza edeí ori, azi ta sendotu beaíean, il egiten da.

¿Zein legek eragiña? Eginkizunenak ote? Ez; siñeste-legeak baño. ²⁸ Uste dugu, ba, siñestez gizakia lege-eginkizunik gabe zindotzen dala. ²⁹ ¿Yudentzat baizik Yainkoa ote da, ala atzerítarentzat ere bai? Baita atzerítarentzat ere. ³⁰ Bakaía da erdainduak siñestez, ta mokodunak ere siñestez zindotzen ditun Yainkoa. ³¹ Onezkerro, beríz, ¿legea siñestez moteltzen al dugu? Inola ere ez; ostera ere, legea sendotzen dugu.

IV

Lege Zaía siñestearen alde

Zer diokegu, beraz, gure aita aragiz dan Abraham'ek iritsia? ² Egiñak egiñez Abraham zindotu ba'liz, iláraitzeko zerbait izango luke; ez, ordea, Yainkoaren auéan. ³ Zer dio, ba, Idaztiak? **Yainkoari Abraham'ek siñetsi zion, ta zindokuntzarako egotzi zitzaion.** ⁴ Lan egin dunari, beríz, ez zayo saria atseginsaritzat egozten, ordain zuzentzat baño. ⁵ Ta aitzitik, deungearen zindotzaleari siñetsirik, lanik egin ez dunari, siñeste au zindokuntzarako egozten zayo. ⁶ Dabid'en aitoéz, berebat, zori ontsua da, Yainkoak zindokuntza egindakorik gabe egozten diona:

² Abraham siñestez zindotu zan, ez bere egitez. Bestela iláraindu ziteken Yainkoaren auéan. Bakoitzak bere egitez iristen duna bere du, ta oretzaz iláraindu diteke. Ala zindotu zan Dabid ere Betsabe'rekin egin zun ogena ezkerro, beraxeago esaten danez.

³ As. L, 6.

7 ¡Uts egiñak asketsi
 ta ogenak ezabatuta
 dagozkionaren zori ona!
 8 Yainkoak ogenik egotzi ez diona,
 ¡au zori ontsua!

9 ¿Zori on au, beñiz, erdainduena bakañik, ala mokodunena ere ote da? Siñestea Abrahan'i zindokuntzarako egotzi zitzayon diogu-ta ¹⁰ ¿Noiz egotzi, ordea? ¿Erdainkuntza auñean, ala erdainkuntza ostean? Ez ostean noski, auñean baño. ¹¹ Ta mokodun zala siñestez iritsitako zindokuntzaren ezagugañitzat, erdain-atza gero arñtu zun. Añezkero, beñiz, erdainkuntzarik gabe zindokuntza egozten zayen siñestun guzien aita da, ¹² baita erdainduen aita ere; bañan, erdainduak izanda gañera, gure aita Abrahan'ek erdainkuntza auñetik zeukan siñestearen aztarnatik ba'dabiltza.

¹³ Izan ere, luñbira yarausteko agintza ez zuten Abrahan'ek eta aren ondoreak arñtu, siñestetik dan zindokuntzañen baño. ¹⁴ Yarauntsigayak legepekoak bakañik ba'lira, siñestea uts ta agintza ustel. ¹⁵ Legeari ataña baitario; ta legerik ezean, uts egiterik ere ez. ¹⁶ Beraz, siñestea dala bide, ta ala urñurik, egiña da agintza ondorengo guzientzat, legepekoentzat ez ezik, Abrahan'en azia siñestez diran guzientzat ere; guzion aita onezkero bera zaigula, ¹⁷ idatzita dagonez: **Eñi**

7, 8 Er. XXXI, 1, 2.

9 Erdainkuntza ta legea arñtu baño len, Abrahan zindotua izan zan; ez datoñkio, beraz, zindo izatea erdainkuntzantik, ezta legetik ere, yuduek nai zuten bezela.

askoren aita yaí zaitut. Ilak pizten ta, diranak beze-
la, ez diranak deitzen ditun Yainkoari siñetsi baitzion.
¹⁸ Usteren aurka uste izanik, itzok, **oñenbestekoa**
izango da zure azia, entzun orduko, eí askoren aita
izango zala siñetsi zun. ¹⁹ Eunen bat urtekoa zalarik,
aren soña zaíkul ta Sara'ren sabela agoí egiñak izanaíen,
ez zan aren siñestea auldu. ²⁰ Aitzitik ere, Yainkoaren
agintzari buruz gibel-beldurik gabe areagotu zan, Yain-
koa goretsirik. ²¹ Itza betetzeko altsu Yauna dala etsi
etsita zegolako. ²² Ta oía zergatik siñestea zindokuntza-
rako egotzi zitzayon.

²³ Ez dago, ordea, artzaz bakaírik idatzita, **zindo-**
kuntzarako egotzi zitzayon. ²⁴ Gutzaz ere dago. Guri
ere egotziko baitzaigu, íletatik Yesu gure Yauna ber-
piztu zunaren siñestea ba'dugu. ²⁵ Gure ogenengatik
Yesu il zan, ta gure zindokuntzarako piztu da-ta.

V

Oíelako zindokuntzaren atze onak

S iñestez zindotuta, beraz, Yainkoarekiko gentza dugu
Yesu Kisto gure Yaunarengatik. ² Beragatik ere,
gauden eskeí ontara siñestez saítzeko, atea zabaldu
egin zaigu, ta Yainkoaren aintza iristeko ustez poztuta
gabiltza. ³ Loíaldian bertan ere pozik gaude; loíaldiak
egonaía, ⁴ egonaíaik kemena, ta kemenak itxoa daka-

²⁴ Yesu Kristo'ren piztuera da batez ere guk siñetsi bear duguna;
ta alatz izugarí onekin egiztatuak daude beste siñeskai guziak.

réla baitakigu. ⁵ Itxo ontan, beíz, alke-zoririk ez; emana zaigun Goteunaren bidez, Yainkoaren maitakuntza gure biotzetan ixurita dagolako.

⁶ Izan ere, mugonez, oraindik ergel giñanean, gaiztoen alde Kisto il zan. ⁷ Ba-liteke ongilearen alde iltzeko gerturik nor edo nor egotea; edozein zintzoren alde bizia ematen dunik, ordea, ozta dago. ⁸ Onezkerok, beíz, Yainkoak ba-darakus zeinbeste maite gaitun; oraindik ogenlari giñanean bertan, Kisto gure alde il zan-eta. ⁹ Bidezago, beraz, oraingoan, bere odolez zindotuak geran ezkerok, aseéra gabe Berak eukiko gaitu. ¹⁰ Alabañan, etsai gintzazkionean, Yainkoak bere Semearen eriotzagatik bere adiskidetzat artu ba'giñuzan, gogotikago orain, Berekin adiskidetuta gero, Aren biziagatik yareingo gaitu. ¹¹ Ori ez ezen, beíz, Yesu Kisto gure Yaunaz ere ilaraintzen gera, Bera bide dala, oraingo adiskidetza iritsi dugu-ta.

Adan ta Yesu Kisto

¹² Beraz, gizon baten bidez ogena sartu zan gizar-tean, ta ogenaren bidez eriotza; ta oréla gizon guzietara eriotza eldu da; guziek arengan ogen egin dutelako.

⁵ Aintzagañirik aundiena Yainkoaren seme izatea da. Yainkoaren semeak daukan betiko ondasunen itxaromenak, ez du beñere utsegingo, bere baikuntza edo bayezkoa Goteuna du-ta, Yainkoaren maitetasunarekin eman zaigun Goteuna. Ona emen zindokuntzak dakazkigun lagun edeñak; Yainko-semetza, goi-maitasuna, itxaromen sendoa, Goteuna.

¹² Ogen yatoñizkoa gure guraso Adan'engandik datoñkigu ondorengo guzioi, ta gañera, eriotza ogen onen bitartez. Adan Yainkoaren agindupean zintzo egon izan ba'liz, ez gendun ogen yatoñizkorik, ez eriotzarik.

¹³ Legea baño len gizartean ogena baitzan; baña legerik ezean, ogena ez zan oarǵaí. ¹⁴ Ala ere, Adan'gandik Mois'enganaño erio zan nagusi Adan'enaren antzeko utsik egin ez zutenen gañean ere, Etoítzekoaren eredua Adan izaki.

¹⁵ Bañan ogen-eduz, eskeía ez. Izan ere, baten ogenez guziak il ba'dira, oso ugariago izan da guziენტzat Yainkoaren eskeía, ta gizon baten eskeíez, Yesu Kisto'renez, egindako emaria. ¹⁶ Bestela ere ari dira emari au, ta arako batek ogen egitez ekaí ziguna; epaya, batengandik datoíkigu ondamenerako; emaria, beíz, ogen askotatik zindokuntzarako. ¹⁷ Baten uts egiñez, batengatik erio nagusi izan ba'da, eskeía, emari ta zindokuntza eruz aritzen dutenak ere, beste batengatik, Yesu Kisto'rengatik, bizian nagusi bidezago izan dira. ¹⁸ Beraz, baten biurkeritik gizaki guziengana ondamera eldu dan bezela, baten zindotasunetik ere gizaki guziengana bizirako zindokuntza eldu da. ¹⁹ Ta baten mende-gabeagatik askotzak ogendun gelditu ziran bezela, beste baten agaíagatik ere askotzak zindotu dira. ²⁰ Legea, beíz, uts egiñak ugaltzeko sartu da. Bañan ogena ugari izan dan antxe, ugariago da orain eskeía; ²¹ ogena erioz nagusi izan dan bezela, eskeía ere, betiko bizitzarentzat nagusi izan dedin Yesu Kisto gure Yaunarengatik.

15 Adan'en txarkeria oso poíokatu ta ordaintzeko, eskeintzen digu Yesu Kristo'k bere eskeí-emaya. Au berenganatzen dntenak Yainkoaren seme izatera yayotzen dira, ta betiko bizitzaren yabe egiten. Beraz, Adan eta Yesu Kristo, gizadi guziaren bi ituíburu bezela datozkigu; bata, ondartzeko, bestea, gorago yasotzeko. Gorago, bai; nai duna Yesu Kristo'ren bidez gorago igo baititeke Adan'enez erori ta yetxi zan baño.

VI

Ogen-uztaña lepotik kenduta

Zer esan bea' onezkero? Ogentan gaudeke, eskaña ugal dedin? ² Inola ere ez. Nola ogentan biziko giñake, ogenarekiko il geran ezkerro? ³ ¿Ez al dakizute Yesu Kisto'rentzat ukuzi izanok Aren eriotzarako ukuziak gerala? ⁴ Izan ere, ukuzpenez Arekin ildakotzat eortziak gera, Aitaren aintzarako iletatik Kisto piztu dan bezela, gu ere bizitza be'itan ibiltzeko. ⁵ Aren eriotzaren ereduz Aren mentu egiñak ba'gaude, Aren be'pizkuntzarenez orobat yazoko zaigu-ta. ⁶ Yakin bea' dugu, ba, beñolako gure gizakia Arekin gurutzatu zala, soin ogenbera po'okatuta gero, ogen-yopu bein ere izan ez gaitezcan. ⁷ Il dana, ogenetik yarei baitago. ⁸ Kisto'rekin il ba'gera, be'iz, Arekin biziko gerala siñesten dugu, ⁹ baitakigu Kisto, ilartetik piztu ondoren, iltzen ez dala. Eskurik a'rezkero erioke ez du Aren gain. ¹⁰ Iltzean, ogenarentzat bein betiko il zan; bizi izatean, be'iz, Yainkoarentzat bizi da. ¹¹ O'ela zaudete zuek ere etsita, ogenarentzat ilak, Yainkoarentzat, oster, Yesu Kisto'rengan biziak zeratela.

² Kristo'ren ukuzpena artzen duten guziak Kristo gurutzatu'an txertatzen dira. Zugatzak eta txertatzen zazkien mentuak gora-bera berberak daramazkite. Beraz, Kristo, il ezkerro lu'pera diyoa; gizona, urpean ogen za'rekiko iltzen da; Kristo, lu'petik dirdiraz pizten da; gizon ukuzia, urpetik Yainkoaren semetzako bizitza be'ira yayotzen da.

⁹ Kristo, be'iz ez iltzeko piztu zan; gizon ukuzia, Yainkoaren eske'ezko bizitza be'ira pizten da, be'iro ogen astunez ez iltzeko.

¹² Ez bedi, beraz, zuen soin ilgarían ogena nagusi izan, bere iritsen oldez zarabiltzilarik. ¹³ Zuen soin-atalak ogenari ez izkiozute gaitzerako iskilutzat eskeñi; ilartetik piztuei dagokienez, osterá, zuen buruak eta zuen soin-atalak Yainkoari eskeñi izkiozute zindokuntzarako iskilutzat. ¹⁴ Ez baitzaitzue ogena nagusituko; legepean ez zaudete, ba, eskeñ mendean baño.

Ogen-yopu izanak Yainkoaren yopu

¹⁵ ¿Zer, ba? ¿legepean ez, ta eskeñ mendean gaudela-ta, ogen ote dagikegu? Inola ere ez. ¹⁶ ¿Ez al dakizute, inoren naitara yopu sartzen zeratenetik, menderatu zatzazkiotenaren yopu zeratela; ogen-yopu, eriotzarako, edo aginbide-yopu, zindokuntzarako? ¹⁷ Baña Yainkoari eskeñ, ogen-yopu ziñatenok, erakutsi zaizuen ikasbidea biotzez artu duzute, ¹⁸ ta ogenetik askatuta, zindokuntzaren yopu egin zerate. ¹⁹ Aragiz ergalak baitzerate, gizabidez dasaizuet: okeñ ibiltzeko, zuen atzbegiak zantarkeri ta gaiztakeriari yopu emanak zenekazten bezela, orain zindokuntzari ere atzbegiok yopu ekazkiozute, zintzo ibiltzeko. ²⁰ Ogen-yopu ziñatenean, beintzat, zindokuntzarekiko yarei ziñaten. ²¹ ¿Zer onik ateratzen zenuten ordun, orain lotsarazten zaitutenetatik? Ayen muga, eriotza. ²² Orain, ordea, ogenetik askatu ta Yainkoaren yopu egiñak zeraten ezkeró, zindokuntza duzute uzta, ta betiko bizitza elburu. ²³ Ogensaria eriotza da-ta;

13 Auñetik griña txarén mendeko ziñaten; gerokoan Yainko-eskeñaren esanera egon beañak zerate.

Yainkoaren emaria, beñiz, betiko bizitza Yesu Kistogure Yaunarengan.

VII

Legearekiko askatasuna

Ez al dakizute, senideok (legea dazagutenei daraukiet gero), legea gizonari, bizi daño, nagusi zayola? ² Izan ere, senaíduna senaírari legez lotuta dagokio, senaía bizi baño; baña senaía ildakoan, senaíarekiko legetik askatuta dago. ³ Beraz, senaía bizi zayon emakumea beste gizon bati itsasten ba'zayo, ezkontzanasle deritzake; senaía ildakoan, ostera, senaíarekiko legetik askatuta dago, ta besterekin ezkonduařen, ezkontzanasle ez da. ⁴ Órela zuek ere, ene senideok, Kisto'ren soñarekin legearekiko il zerate, besterenak izateko, Yainkoari zitu dakaíkiogun ilartetik piztu dan Arenak izateko. ⁵ Aragibidez genbiltzanean, ba, legeak axatutako ogen-írítsa gure atzbiegietan zitu ilgaíri ekaírtzen ari zan. ⁶ Orain, ordea, lotuta genkaírtzin legetik askatuak gera, gogo beñiz ta itz umelik gabe Yainkoaren moítoizari ekiteko.

⁴ Senaí-emazteak ezkontzako lokaíriz loturik daude. Lokaíri ori eriotzak bakaírik eten dezake, ta bizirik dirauna askatua gelditzen da. Órelaxe, lege zaía ta yuduen eía alkaí loturik zeuden. Baña lege zaía Yesu Kisto'rekin gurutzean il zan, ta yuduak artatik askatuta Yesu'k ipiñitako lege beía aítzera beaítuak izan ziran.

⁶ Yuduak lege zaíaren mendean zeuden, eta beste eíak soítzezko legearen azpian. Nor bere legearen aginduak bete zitzaken, baña ez lege zaíak edo soítzezkoak emandako indaíragatik, Yesu'ren eriotzatiko laguntzagatik baño. Ta laguntza au edozein gizonek ludiaren asieratik bere eskuan zedukan. Óregatik ogen egin ta galdu diran guziak beren eíuz galdu ziran.

⁷ Zer esan onezkero? Ogen al da legea? Inola ere ez. Baña, legez izan ezik, ez nun ogenik ezagun; iritsik ez nezaguke, ba, **ez irikatu** legeak ez ba'liost. ⁸ Ogenak, beriz, agindutik oldara artuz, irits guziak nigan piztu ditu; legerik gabe, ba, ogena il. ⁹ Beñola ni legerik gabe bizi nintzan; bañan agindua etori ala, ogena piztu zan, ¹⁰ ni, beriz, il nintzan, ta bizirako zan agindua bera, eriotzarako nigan aurkitu zan. ¹¹ Agindutik oldara artuz, ogenak liluratu ta aren bidez il niñun, ba. ¹² Legea, noski, deuna da oratiño; agindua ere deun, zuzen ta ona da. ¹³ Ona dana, beraz, niretzat ilgarí ote? Inola ere ez. Ogenak, ordea, ogen ageri miñez, eriotza nigan onaren bidez sartu du, ogentzara ta alaena aginduaren bidez izateko.

¹⁴ Ba-dakigu, ba, legea gogokoi dala; ni, beriz, aragikoi naiz ta ogenari saldua. ¹⁵ Zer dagidan ere ez dut atematen. Zerbait nai nik eta ez dagit; zerbait iguin ta ori dagit. ¹⁶ Nai ez dudana egin ezkerro, beriz, legea ona dala aitoitzen dut; ¹⁷ orain, beriz, ez naiz ni ori dagidana, nigan bizi dan ogena baño. ¹⁸ Somatzen dut, arean, ez dala nigan edo nere aragian onik kokatzen; ona nai izatea, nere aukeran baitago; burutzea, beriz, ez. ¹⁹ Nai dudana ona ez baitut egiten; nai ez dudana gaitza dagit, ordea. ²⁰ Nai ez dudana egiten ba'dut, beriz, ez naiz ni ori dagidana, nigan bizi dan ogena

¹⁴ Griña txarak eta ezaguera zuzenak gizon bakoitzaren baruan iskanbila izugaria dakarte. Ayek giza-naimena gaitzera daramate; ezaguerak, beriz, onaren edertasuna begi aurean ipinirik, on-bidera biguin biguin ots egiten dio. Bi lege oyen tartean dago gizona estu ta lafi, nai ez luken gaiztakerira bultza aundiak arturik. Baña ziñez nai duna, onean sendo egongo da.

baño. ²¹ Lege au, beraz, nere baitan somatzen dut: ona egin nai dudaneko, óra gaitza nere aldamenean. ²² Bañeko gizon aldetik, Yainkoaren legea atsegin zait; ²³ baña beste lege bat nere soñean somatzen dut, gogo-legearen aurka ari dana nere soñari datxikion ogen-legepean loturik naukana.

²⁴ Nere zori txara! Nork askatuko nau soin ilgañi ontatik? ²⁵ Eskeñik asko Yainkoari Yesu Kisto gure Yaunaren bidez!

Anartean gogo-yitez Yainkoaren legera makuñtuta nabil; aragi-yitez, ordea, ogenarenera.

VIII

Aragi yitea ta gogo-yitea

O rain, beraz, gaizteskizunik ez dago bat ere Yesu Kisto'gan bizi diranenzat ² Gogolege bizigañiak ogenlege ilgañitik Yesu Kisto'gan askatu nau-ta. ³ Izan ere, aragiak enuldutako legeari eziña zayon ogen poñokaldia, Yainkoak aragian bñrutu du, bere Semea ogen-aragi-irudiz ogen ordaintzat bidalirik, ⁴ gugan, aragi bidea utzita, gogo bidetik gabiltzanongan, legea bete dedin.

⁵ Aragi oldez dabiltzanek aragiarenak amets; gogo

1 Zindotzen diranen gogoan ez dira ogenak estalita bakañik gelditzen, protestanteek diotenez, an bañenen egi egiz ezañita ba'leude bezela, ez; aitzitik, oso asketsi, garbitu, ta kendu egiten dira. Griña gaiztoak ba-dirau: baña ez da berez ogen. Idazteunetan ogen deritza, bañan ez ogen dalako, ogenera bultzatzen gaitulako baño. Berari kemenez guda egiten dionak, donokirako sari aundiak irabazten ditu.

bidetik dabilzanek gogoarenak amets. ⁶ Aragi ametsak, beñiz, eriotzara yo beañ; gogoarenak, bizitza ta gentzara. ⁷ Aragi yitea Yainkoaren etsaya da; Yainkoaren legean etsi beañean, etsi ere ezin du-ta. ⁸ Aragi oldez dabilzanek, beraz, Yainkoaren edeña euki ezin dute. ⁹ Zuek, noski, aragi yitez ez zabilzate, gogo yitez baño, Yainkoaren Atsa zuengan bizi baldin ba'da. Kisto'ren Atsa ez daukana, Arena ez da-ta. ¹⁰ Zuengan Kisto egon ezkerro, beñiz, soña, noski, ogenagatik il beaña da; baña gogoa zindokuntzagatik bizi beaña. ¹¹ Ta Yesu ilartetik beñpiztu dunaren Atsa zuengan ezkerro, ilartetik Yesu Kisto beñpiztu zunak, zuen soin ilkoñak ere piztuko ditu zuengan dagon bere Atsez.

¹² Zoñdun gera, beraz, senideok; ez aragiaren zoñdun gero, aren yitez bizitzeko. ¹³ Aragi yitez bizi izan ezkerro, il beañko-ta; goi atsez aragi irñtsak ito ezkerro, beñiz, bizi izango zerate. ¹⁴ Yainkoaren seme baitira Aren Atsez dabilzan guziak.

Yainkoaren seme egiñak

¹⁵ Ez duzute, ba, yopu-biotzik, belduñ izateko, arñtu; semetzako-biotza arñtu duzute, aitzitik, Abba edo Aita ots eragiten digun biotza. ¹⁶ Ats onek berak gure baitan aitoñtzen digu Yainkoaren seme gerala; ¹⁷ seme ezkerro,

15 Antziñako legean, iñusturi ta tximistartean emandako lege artan gizonak belduñez ta dardaraz bizi ziran Yainkoaren auñean, moñoya nagusi zoñotzaren begietan bezela; baña Yesu Kristo'k yañi digun lege beñian, gizonak semeen antzez daude Yainkoaren auñean, ta biotzetik aora datoñkiela, «Aita gurea» bene-benetan esaten dute. Seme gera, ta oñegatik baita Yainkoaren ondasunen yabegai ere; baña Yesu Kristo gure anai zañenaren antzera gurutziltzaten ba'gera.

beñiz, oñordeko ere; Yainkoaren oñordeko, noski, ta Kisto'ren oñordekide. Nekekide ba'gatozkio, ordea, aintzakide ere etoítzeko. ¹⁸ Oraingo nekeak, gugan gero azalduko dan aintzaren aldean, ezer ez diralakoan nago-ta.

¹⁹ Ludi osoa erpai dago Yainkoaren semeak noiz azalduko. ²⁰ Izan ere, ludia, ez bere yitez, bera azpiratu zunaren egitez baizik, uskeripean azpiratuta datza, ²¹ bera ere ustelkeriarekiko yoputzatik Yainkoaren semeekin yareikuntza ospetsura etoíko dalakoan. ²² Intziriñez ta erdimiñez ludi osoa anartean dagola baitakigu. ²³ Ez bera bakañik, baita gerok ere, gogoaren askiñak dauzkagunok, ²⁴ Yainkoaren semekuntza ta gure soñaren yareikuntza itxoiten, gure baitan intziriñez gaude. ²⁵ Itxoitez yarei egiten gera-ta. Ikusiarekiko, beñiz, itxoiñenik ez dago. ¿Ikusten dana zertarako itxoin, ba? Ez dakusgunaren zai egoteko, bai, egonañiz itxoin beañ.

Goteuna gure alde

²⁶ Aulak baikera, beñiz, Goteuna lagun datoíkigu. On zaiguna eskatzen ez dakigula-ta, Goteuna Bera ezin esan alako intziriñez gure alde yaítzen da. ²⁷ Ta biotzak ikeítzen ditun Ark ba-dazagu zein dan Goteunaren gogoa; Yainkoaren gogara deunen alde eskatzen ari zayo-ta.

²⁸ Ba-dakigu, gañera, Yainkoa maite dutenei ta Aren erabakiz deituei dana onerako datoíkiela. ²⁹ Alabañan, auéetik ezagun zitunak, auéetik ere bere Semea-

ren irudiko egin zitezana berezi zitun, senide askoren lena Beraxe izan zedin; ³⁰ auretik bereziok, beñiz, auretik deitu ere zitun, ta deituok zindotu zitun, ta zindotuok goratu ere zitun.

Eskeñ oneko eresia

³¹ Onezkero, beraz, zer diokegu? Yainkoa gure alde ezkerro, gure aurka nor? ³² Bere Seme yatoña ukatu beaeran, guzion alde eman zigunak, nola ez digu Areakin dana ere emango? ³³ Yainkoak autetsien aurka nor yaikiko da salaketan? Yainkoa onesle. ³⁴ Nor gaiztezle? Yesu Kisto, ilda gero beñpiztua, Yainkoaren eskui aldean bitarteko duguna. ³⁵ Nor erauziko gaitu Kisto: ren maitasaretik? Loñeak ote? lañiak? goseak? esetsaldiak? bilostasunak? kaltezoriak? ezpatak? ³⁶ Idatzita baitago:

**Zuregatik ilagian gaude egun osoan;
arakindegirako arditzat gauzkate.**

³⁷ Ala ere, guziotan gu garai, maite izan gaitun Aregatik. ³⁸ Etsi etsita bainago ez eriok, ez bizik, ez aingeruk, ez nagusik, ez oraingo edo gerokorik ezerk, ez beste izakiren batek ezin aldendu gaitula Yesu Kisto gure Yaunarengatik Yainkoak digun maitasunetik.

³¹ Zuzendu diranak Yainkoa beren alde daukate, ta ez dira belduñ izanbeañak, beren gañera etoñi leiteken edozeiñ kaltegatik; ez da, ba, ezertxo ere izango, Yaungoikoagan ayenganako irazeki dan maitetasuna, oztu edo epelduko dunik. Ta Yaungoikoak maite ba'gaitu. ¿nori belduñ izan?

³⁶ Er. XLIII, 22.

IX

Yainkoaren agintza ta Israel'en girbinkeria

Egia diot Kisto'ren auřean; gezuřik gabe mintzo naiz, Goteunez nere barnea aitoř datořkidala. ² Oso atsekabe naiz, ta biotza miñez gelditzeke ari zait. ³ Kisto'rengandik alde biraogaři nerau izan nai nuke, ba, aragi aldetik nere senide ta aide diranengatik. ⁴ Israeldarاک dira auk, eta ayenak dira semekuntza, aintza, ituna, legea, yaurespidea, ta agintzak. ⁵ Ayen arbasoak, Kisto'renak dira aragi aldetik; Kisto, beřiz, guzien gaņetik dago betiko onetsia. Ala biz.

⁶ Ez da ala ere Yainkoaren Itza ustel irten. Israel ez dira, ba, israeldar guziak; ⁷ ezta Abraham'en azian ere, seme ez dira guziak; **Isaak'engandik izango duzu zure izeneko azia.** ⁸ Ez dira, arean, aragi-semeak Yainko-seme; agintza-semeak, beřiz, azi deritzate. ⁹ Auek baitira agintzaren itzak: **Garai ontan natořke, ta Sara'k seme izango du.** ¹⁰ Ez au bakařik, baita Eřebeba'k gure Isaak'engandik bere bizkiak umontzian zeuzkanean ere, ¹¹ auk yayo baņo len ta ezer onik ez gaitzik egin ez zutela, Yainkoaren asmoa iņor aukeratze-

⁵ Toki onetan edeřki agertzen zaigu, Yesu Kristo gizonez gaņera, Yaungoiko egiazkoa ta beti-betiko aintzagaři dala. Ta beste alderdi askotan egi berbera erakusten digu Itun Beřiak.

⁷ Isaak'i ta Yakob'i ez zitzayen beren irabaziz etoři, lenengo yabegai, ta gero nagusi izatea, Yaungoikoak ořetarako autu zitulako baņo; ořelaxe, ez dira gizonak siņesmenean ta zuzentasunean sartzen, zoř zayen sarian bezela, Yaungoikoaren autatzez ta emayez baizik.

⁷ As. XXI, 12.

⁹ As. XVIII, 10.

an, ¹² ez egitez, deyez baizik, sendo ageri zedin, Érebeka'ri esan zitzayon: **Lena azkenaren mo'oi izango da.** ¹³ Idatzita ere baitago: **Yakob maite izan dut; zapuztu ordea, Esau.**

Yainkoaren zuzentasuna

¹⁴ Zer diokegu, beraz? Bidegabekeririk Yainkoarengan ote dago? Inola ere ez.

¹⁵ Esan ere Mois'i ba-dasayo: **Éruka'ri zaidanaz éruki izango naiz, ta adeyez nato'rkionari adeyez nato'rkioke.** ¹⁶ Arazo ontan ezer ez da, beraz, norberaren gogoa edo leya, Yainkoaren érukia baño. ¹⁷ Idaztiak Paraon'i dasayo, ba: **o'rtarakoxe eraiki zaitut, nere al izatea zugaran erakusteko, ta nere izenari lu' osoan ospea eka'rtzeko.** ¹⁸ O'rela, nai dunaz éruki da, ta nai duna gogo'rtzen du.

¹⁹ O'rezkero, esango didazu, zer gaitzi zayo? Ba al dago Aren erabakiari buru legiokenik?

²⁰ Gizona, zein zera zu Yainkoari yarkitzeko? Eltze-giñari eltzeak ote diotsa: «Zergatik onela egin nauzu?» ²¹ ¿Ez ote dago buztinlariaren aukeran buztintza berberatik dedu-ontziak egitea, baita bestekoak ere? ²² Zer esan, beraz, Yainkoak, bere ase'rea erakusteko ta inda'ra agertzeko, ase'ra ontzi galbea'rak egona'ri aundiz yasan

12 As. XXV, 23.

13 Mal. I, 2, 3.

15 Irt. XXXIII, 19.

17 Irt. IX, 16.

22 Siñesmena iristen ez dutenek ta zeruan sa'rtzen ez diranek, beren éruz ori dute. Yainkoak guztiei bea' zayen laguntza bidaltzen baitie, batzuei gutxiago ta besteiei ugariago, baña guztiei naikoa dan aña.

ba'ditu; ²³ osperako zeuzkan ontzietan, beñiz, bere aintzaren aberastasuna erakusteko, ²⁴ yudutartetik ez ezen, atzeñitartetik ere, dei egin ba'digu? ²⁵ Ori da, ba, Ose'ren idaztian diona:

**Nere eña ez zanari, nere eña diotsaket,
ta maitea ez zaidanari, maitea.**

²⁶ Ta «nere eña zuek ez zerate» esana
[zitzayen ayek
Yainko biziaren seme deritzakete.

²⁷ Israel'gatik, beñiz, Isai'k dio ozengi: Itxasondaña bezain ugari Israel'en semeak ba'lira ere, uzkiñak bakañik gaizkatuko dira. ²⁸ Ori da, ba, Yaunak erabakitako itza, laster burutu beña. ²⁹ Ta Isai'k berak dionez:

**Gudasaldoen Yaunak azirik utzi ez ba'ligu,
Sodoma bezelako ta Gomoña idekotsu biurtuko
[giñake.**

³⁰ Zer diokegu, beraz? Zindokuntzaren ayolagabe ziran atzeñitañek zindokuntza, siñestetik datoñen zindokuntza, iritsi dute. ³¹ Israel'ek, oster, zindokuntzarako bidearen ayolaz ere, ez du bidea idoro. ³² Zergatik?

²⁵ Auxe zan yuduek Paul'en aurka zekañten aitzakia, Yesu Mesiatzat ez artzeko. Mesia ta Mesia'ren bakaldeña guretzat dira, zioten, igarñeek antziñatik agindu zigutenez. Baña guretatik oso gutxi sartu dira Yesu'ren yaraitzaleen artean. Paul'ek darantzuye: igarñeak ondo irakuñi, ta obe-toago aditu. An daukazute idatzita, nolatan Yaunak gutxi autuko ditun yuduen eñetik Mesia'ren eñirako, ta nola kondañ oritxek azi ta ugarituko diran, ta nola arotz ta erbestekoak sartuko diran Mesia'ren bakaldeñian. Alaxe gertatu da; ta gertaera onek Yesu Nazaretaña benetako Mesia dala agertzen dizue. Os. II, 25.

²⁶ Os. II, 1.

²⁷ Is. X, 22, 23.

²⁹ Is. I, 9.

Siñestera yo beárean, eginketara yo dutelako. Tupustarían aurikatu dira, 33 idatzita dagonez:

Ora, Sion'en Nik ya'rita, zozto' ta tupustaria; siñestez eza'riko zayonik ez da alke izango.

X

Israel bere ogenez alde egiña

Senideok, ayen osakuntza da nere biotzeko leya ta otoigaya Yainkoaren aurean. ² Yainkoaren alde leyaz ba-dabiltza; ez diet aito' au ukatzen; senaz, ordea, ez. ³ Alabaña, Yainkoagandiko zindokuntza ezagun gabe ta berena berenez burutu nairik, ez zazkio Yainkoagandik dan zindokuntzari azpiratu; ⁴ legearen elburua siñestun guzien zindokuntzarentzat Kisto da-ta.

⁵ Legetik dan zindokuntzaz, arean, Mois'ek dio: **Lege au bete dukena, beragatik biziko da.** ⁶ Siñestetik dan zindokuntzak, be'riz, o'rela dio: **Ez esan zure biotzean: ¿nor igoko da zerura, Kisto eraisteko?** ⁷ Edo ¿nor yetxiko da lezera, ilartetik Kisto eraikitza? ⁸ Zer dio, ostera? **U'ren duzu itza, zure aoan ta zure biotzean.** Ta auxe da alda'rikatzen ari geran itza; ⁹ Yauntzat Yesu aoz aito'rtzen ba'duzu, ta Yainkoak

33 Is. VIII, 14; XXVIII, 16.

1 Israel'ek zindokuntza, edo gogoaren osasuna, leyaz bilatzen zun, bañan ez zintzo ta zuzen. Zindokuntza Mois'en legetik zeto'kiolakoan, lege ari kemen kemenez itsatsita baitzegon. Zindokuntzarako bide egokia ta baka'ra, Yesu'ren siñestea ta legea zan, ordea. Au ez zun artu izan nai; ta bere e'ruz bidekatu ta galdu zan.

5 Leb. XVIII, 5.

6, 7 Deut. XXX, 12, 13.

8 Deut. XXX, 14.

ilartetik be'piztu dula siñesten ba'duzu, gaizkatuko zera. ¹⁰ Biotzez zindokuntzarako siñetsi ta aoz osasunerako aitor' egin bea' da-ta. ¹¹ O'ezkero Idaztiak dio: **Ez da Aren siñestunik bat ere alke izango.** ¹² Yudu ta elenda'ren bereizterik o'rtan ez baitago; Berberaxe da, ba, oroen Yauna, oles legioketen oroekiko aberatsa. ¹³ Yaunaren izenari oles eginda, edozein gaizkatuko da-ta.

¹⁴ ¿Nola, be'riz, oles egin lezayokete Aren siñesterik ez dutenek? Nola, be'riz, siñetsi, Artzaz ezer entzuteke? ¹⁵ Nola entzun, deitzalerik gabe? Nola, be'riz, iñork deitu, bidalia izan ezik? Idatzita baitago: **¡Auek oin ede'ak, gentza-dei ona egiten dabilzanenak!** ¹⁶ Deyari, ordea, ez diote guziek men egin. Isai'k dio, ba: **Yauna, ¿gure deya nork siñetsi du?** ¹⁷ Siñesteko, beraz, entzun; Kisto'ketz esana entzun, gero.

¹⁸ Baña diot: ¿ez al dute entzun? Bai noski.

**Lu'alde orotara ayen otsa eldu da;
ta lu' ertzetaraño ayen itzak.**

¹⁹ Be'riz ere diot: ¿ez ote du Israel'ek ule'rtu? Au'ena Mois'ek dio:

¹¹ Is. XXVIII, 16.

¹³ Yoel, III, 5.

¹⁴ Iñor o'ela bidaltzeko, almena bea'ra da; ta almen edo esku au, E'roma'ko Doipuruak baka'rik dauka, Yesu'gandik Kepa'ren bidez a'rtuta. O'regatik protestanteak eta ayen antzekoak, E'roma'ko Doipuruak bidali ez baititu, misiolari gezu'ezko dira.

¹⁵ Is. LII, 7.

¹⁶ Is. LIII, 1.

¹⁸ Er. XVIII, 5.

¹⁹ Siñesbidea ta Be'ri Ona Israel'i, besteei baño lenago ta agintezago alda'rikatua izan zan, alda'rikaria Yesu Bera zitzayola, Yainko Aitak bidalita. Deut. XXXII, 21.

**Eri ez dan eriaz tiriarazi
ta senik ez dun eriaz aseferaziko zaituzt.**

²⁰ Isai'k, beriz, zabal zabal dio:

**Nere bila ez ibiliek idoro naute;
nere galde ez zabiltzanei azaldu natzaye.**

²¹ Israel'tzaz, oster, dio: **Eri siñesgabe ta biurí-
arengana nere eskuak egun osoan izan ditut.**

XI

Israel'en zintzo geldituak

Onezkerodiot: Yainkoak bere eria zapuztu ote du? Inola ere ez. Nerau ere israeldaña naiz, Abraham'en azitik Benyamin'daña. ² Ez du Yainkoak Beretzat zeukan eria zapuztu. Inola ere ez. ¿Ez al dakizute Eli'ren idaztiak diona? Eli'k eriaaren aurka Yainkoari ots egin zion. ³ Yauna, eri onek zure igañleak il ta zure opañiak irauli ditu. Ni bakañik gelditu naiz, ta bizia kendu nai didate. ⁴ Baña zer darantzuyo Yainkoak? Baal'i belaunik makuñtu ez dioten zazpi mila gizon Neretzat berezita dauzkat. ⁵ Orela, orain ere eli bat gelditu da adeyez aukeratuta. ⁶ Adeyez ezkerod, beriz, egindako ezergatik ez; bestela. adeya adei ez liteke.

20 Is. LXV, 1.

21 Is. LXV, 2.

3 Bak. III, XIX, 10.

4 bert., XIX, 18.

7 ¿Zer ba? Israel'ek bilatzen zuna, ez du berak iritsi, aukeratuek baño. Besteak itsutu dira, ⁸ idatzita dagonez: **Yainkoak gau'rdañokoan sorayotu ditu; begiak eman dizkie ez ikusteko, ta belarriak, ez entzuteko.**

9 Ta Dabid'ek dio:

**Segada, sare, ta tupustarri
biur' bekie beren maya,
ordaña dezaten.**

¹⁰ Lausotu bitez ayen begiak, ez ikusteko
ta ayen bizkaña betiko maku'rtu egizu.

Israel'en utsunea Yainkoak beteta

¹¹ Onezkero diot; ¿Erortzekoxe aurikatu ote dira? Inola ere ez. Ayen sayeskeritik, ostera, atzeriei osabidea so'rtu zaye, Israeldaren leya pizteko. ¹² Ayen sayeskeria, beriz, gizadiaren aberastasun, ta ayen uritasuna atzerien aberastasun biur'tu ba'da, ¿zeñen areago ayen osotasuna! ¹³ Zuei atzerita'roi, dasaizuet: atzerientzako bidalia naizan ezkerro, nere arloa deduz burutu nai dut, ¹⁴ nere odol-kideak nolarebait leyarazi ta ayetako batzu yaregiteko. ¹⁵ Izan ere, ayen erauztea gizadiarentzat onezko izan ba'da, zer daiteke ayen lengoratzea, ilartetik berpiztu baizik? ¹⁶ Gari-askiña deuna ba'da, ore osoa ere ba-dai-teke; ta eroa deuna ba'da, bai adarak ere.

¹⁷ Adaretako bat edo batzu autsi ba'dira, ta baso-liondo ziñan ori, ayen utsuneetan txertuta, oliondoren sustraitik ta gozoaz bizi ba'zera, ¹⁸ ez ilaraindu beste

8 Is. XXIX, 10.

9 Er. LXVIII, 23 24.

adaíei buruz. Ilárainbiderik ere ez duzu. Ez da zuregatik sustraya bizi; sustrayarengatik zu baño.

¹⁹ Esango duzu oratiño: «Ni txertua izateko, adaíak iñausiak dira».

²⁰ Ederki. Siñesgabeagatik ayek iñausiak dira; zu, beíz, siñestearengatik or zaude. Ez arótu ala ere; belduí izan baño. ²¹ Berebiziko adaíei Yainkoa kupitu ez ba'zaye, ba, zeroíi ere ez zaizu kupituko. ²² Begira, beraz, Yankoaren adei ta zoíroztasuna: zoíroztasuna, eroriei buruz; adeya, beíz, zeroíi buruz, Yankoaren adeipean ba'dirauzu; bestela, zu ere erauzia izango zera, ²³ ta ayek, siñesgabe ez irautekotan, txertatuak izango dira; beíro ayek txertu egiteko altsua Yainkoa da-ta. ²⁴ Alabaña, basoliondotik erne ziñan ori, andik erauzi ta zurebiziko ez dan oliondo mardulean txertatua izan ba'zera, ¡zeñen areago adaí yator ayek beren biziko oliondoan txertatuak izango dira!

Israel osoa Yainkoarengana itzuliko da

²⁵ Ez dut nai, ba, senideok, arazo onen barne ostena zuek ez yakitea, zerontzaz arótu ez zaitezten. Israel zati bat itsututa datza, atzeíi-kopurua sartu arte. ²⁶ Ara ezkerro, ordea, Israel osoa ere yaregingo da, idatzita dagonez:

Sion'dik Yaregilea datoíke;

Yakob'engandik deungekeria erauziko du.

²⁷ Ta ayen ogenak Nik kendu orduko,
ayekin egindako nere ituna beteko da.

26 Is. LIX, 20...; XXVII, 9.

²⁸ Beñi Onari buruz, iguingaíri dira, noski, zuengatik; aukerari buruz, ordea, arbasoengatik maitagaíri. ²⁹ Eurt egitekoak ez baitira Yainkoak egindako emari ta deya. ³⁰ Beñola zuek Yainkoaren esaneko ez izanda, orain ayen biurkeriagatik erukia iritsi duzuten bezela, ³¹ ayek ere orain, egin zaizuen eruki au dala-ta, Aren esaneko ez dira, erukia berek ere beñiz iristeko. ³² Yainkoak eruki biurkerian itxirik guziak euki ditu, ba, guziei izateko.

³³ ¡Sakonak, bai, Yainkoaren aberastasun, yakintza ta adiña! ¡Zeñen ikeérgaitzak Aren erabakiak! ¡Zeñen uleérgaitzak Aren bideak!

³⁴ Nork lezaguke, ba, Aren asmoa?

Aren onulari nor izan da?

³⁵ Nork Ari len emanda, ordaña leskayoke?

³⁶ Diranak oro Argandik, Argatik, eta Argan dira-ta. Bego Arentzat ospea beti betiko. Ala biz.

XII

Gure eginbeaíak

Beraz, senideok, Yainkoaren erukiagatik aolkatzen dizuet, opari bizi, deun ta atsegingaíritzat zuen soñak Yainkoari eskeintzeko. Ori duzute yaurespide ziña. ² Mende ontako antzik ez artu; gogoa beñituz, ordea; aldatu zaitezte, zein dan Yainkoaren gura on, atsegingaíri ta bikaña ezaguteko.

³ Esan ere, emana zaidan agintez, zuetako bakoitzari

³⁴ Is. XL, 13.

³⁵ Yob, XLI, 2 (eberk).

diotsat: zeran baño geyagotzat zeran ori ez etsi; erabidez etsi, ordea, siñestea bakoitzari Yainkoak banatu dion neuřiz. ⁴ Soin baten atalak asko dira, ta ez dute guziek egiteko berbera. ⁵ Ořela, ba, askotsuok Kisto'rengan soin bat gera; bata besteari buruz, ordea, atalak; ⁶ bakoitzari emandako eskeřari dagokion antzi bana dugula; batek igarřletzat siñestearen arauz yarduteko; ⁷ bestek diakontzat ari izateko; beste batek irakasletzat irakasteko; ⁸ onua onulariak; zindotasuna, ukařlariak; ataza, arduřadunak; betargia, eřuki lanetan ari danak.

⁹ Alegikeririk gabe maite izan beař, gaitza nardatuz ta onari atxikiz. ¹⁰ Senidetzat elkaři txeratsu zatozkiote, ta adei egiozute. ¹¹ Nagi ez izan, maratz baño, gogo beroz Yaunaren mořoiketean ibilki, ¹² uste onaren pozez atsekabea yasaten, ta otoyari ekiten. ¹³ Deunen beařaldiak arindu itzazute, ta zuenean abegi ona erakuskiezute. ¹⁴ Esesten zaituztenak onetsi itzazute; onetsi, bai, birakatu beaře an. ¹⁵ Pozten diranekin poztu zaitezte; negař dagitenekin negař egizute, ¹⁶ gogo berberaz elkař ařturik, gora-miņik gabe bekoetara leyatuz. Zeron zuřtasunaz ez egon etsita.

¹⁷ Gaitzaren ordain gaitzik ez itzuli iņori; gizon guzien auře an on egitez. ¹⁸ Al ba'da, guziekin onekoan bizi izateko egin ala egizute. ¹⁹ Ez apendu, ene maiteok, utzi, ordea, aseře a dagokionari. Idatzita baitago; **Nere gain apena; Neuk ordaindu beař.** Ala dio Yaunak. ²⁰ Zuk, ostera, zure etsaya gose ba'da, yaten

²⁰ Garbairako eřesumiņa, ta zurekin adiskidetzeko izkia biotzean piztuko diozu.

emayozu; egaří ba'da, edaten emayozu. Orela egiñaz, ilinti biziak aren burugañean metatuko dituzu-ta. ²¹ Ez ezi gaizpean; ezi, ordea, gaitza on azpian.

XIII

Agintariekiko menpea

Bego norbera gañeko agintariei menpetuta. Ez baita-go aginterik, Yainkoagandik baño; diranak, beriz, Yainkoak yařita daude. ² Beraz, aginteari gogoř dagionak Yainkoaren asmoari gogoř dagio; gogoř dagiotenek, beriz, berentzat gaiztezteskuntza darakařte. ³ Agintariak ez baitira ongilearentzat izugaří, gaizkilearentzat baño. Nai al duzu agintearen belduř ez izan? On egizu, ta aren edeřa daukakezu; ⁴ Yainkoaren ordeko onbidean zaizu-ta. Gaizki ba'zabiltz, ordea, izan zaitez belduř; ezpata alpeřik ez baitakař, Yainkoaren orde gaizkileak atařatzeko apentzaleari dagokionez. ⁵ Menpean, beraz, egon beař; atařagatik ez ezen, bidezkoa dalako ere bai. ⁶ Zergak ere ořexegatik dakazkiezute, arlo ontan ari izateko Yainkoaren mořoi yařiak dira-ta. ⁷ Guziei zořa emayozute; zerga zoř zayonari, zerga; azpa zoř zayonari, azpa; begirunea zoř zayonari, begirunea; dedua zoř zayonari, dedua. ⁸ Iñorenganako zořik ez ařtu, elkař maite izatekoa baizik; laguna maite dunak legea bete du-ta. ⁹ Egon ere, aginduok: **ez izořtu; ez iñor il; ez iřitsi**, ta besteren bat baldin ba'dago, esakun ontan itxita daude: **Zure lagun uřkoa, zure burua bezain**

maite ezazu. ¹⁰ Maitasunak ez dio urkoari gaitzik egiten. Beraz, maitasuna lege betea da. ¹¹ Ortarako dugun mugona ere gomazute; esnatzeko garaya eldu zaizue-ta. Siñestera etoñi giñanean baño urbilago baita-go gure osasuna. ¹² Gaua ba'diyoa, ta eguna ba-datoñ. Iluntako zirtzilkeriak erantzi ta argi iskiluak yantzi ditzagun. ¹³ Eguna dala-ta, zintzo ibili gaitezán, ez oñits-ordiketán, ez oe-lizunketan, ez liskañ-bekaizketán. ¹⁴ Aitzitik ere, Yesu Kisto Yaunaz yantzita, ez ezayozute aragiari yaramonik egin aren iritsetán.

XIV

Ke xkatien lañia ez sumindu

Siñeste makala dutenak zuenean añ itzazute ayen lardeaz ebazteke. ² Urlia edozer yan dezakelakoan dago; erabe danak, beñiz, barazkiak yaten ditu. ³ Yaten dunak ez beza yaten ez duna nardatu; ta yaten ez dunak ez beza yaten duna gaiztetsi; Yainkoak Bereztat alakoa añtu du-ta. ⁴ ;Nor zera zu, besteren moñoya gaiztesteko? Zut edo plaust, bere yaunarentzat dago; zutik dagoke, beñiz; bera tink eukitzeko altsua Yainkoa da-ta. ⁵ Alakoren batek egun batzutik bestetzu bereizten ditu; besterentzat, beñiz, egunak oro berdín. Bego bakoitza bere artán. ⁶ Egun-aukeratzaleak. Yaunaren edeñagatik aukeratzen ditu; ta yaten dunak, Yaunaren edeñá-

¹² gaua=ogen-aldia=Kisto'ren argia luñgañean Beñi Onaren aldañiz soñtu ta zabaldu aũfean, luñ osoan nagusi zan ogen-ilunbea.

gatik yaten du; Yainkoari esker dagio, ba; ta yaten ez dunak, Yaunaren ederagatik ez du yaten, berak ere Yainkoari esker eginik. ⁷ Ez baitago gurean beretzat bizi danik; ezta beretzat iltzen danik ere. ⁸ Bizi ba'gera, ba, Yaunarentzat bizi gera; iltzen ba'gera, Yaunarentzat iltzen gera. Beraz, bizi edo il, Yaunarenak gera. ⁹ Oritarakoxe ere Kisto il ta berpiztu zan, bizi ta ilen Yauna izateko.

¹⁰ ¿Zergatik, ba, zure senidearen ebazle yartzen zera? ¿Zergatik zure senidea gutxiesten duzu, Yainkoaren ebaztegian guziok aurkeztu bearak geran ezker? ¹¹ Idatzita baitago:

**Naizana naiz-ta, Yaunak dio;
belaun guziak Niretzat makuítuko dira,
ta mii guziek Yainkoa aitoítuko dute.**

¹² Beraz, guretako bakoitzat bere buruaz Yainkoari darantzuyoke. ¹³ Ez elkar ebatzi, beraz; aitzitik, erabakita egon beak duzute tupustari edo gaizpiderik senideari ez yartzeko.

Makalei kalte legieken ezer ez egin

¹⁴ Yesu Yaunari natxikiola, ba-dakit eta etsita nago ezer ere ez dala berez satsurik. Ala ere, zerbait satsu dala inork uste ba'du, olako orentzat bai, satsua da. ¹⁵ Beraz, yanariren batengatik zure senidea kezkarazten ba'duzu, maitasun bidetik ez zabiltz. Ez inor galdu zure yanariagatik, aren alde Kisto il dan ezker. ¹⁶ Mardailgari ez bekio zuen onbidea inori biurtu.

¹¹ Is. XLV, 24.

¹⁷ Yainkoaren yaureña yan-edatea ez da, ba, Goteungandik datozen zuzentasun, gentza ta poza baño. ¹⁸ Kisto'ri órtañ mo'roi zayonak Yainkoaren edeña ta gizonen oniriztea dauzka. ¹⁹ Ekin, beraz, gentzarako ta elkañen obekuntzarako bideari. ²⁰ Yainkoak eraikia ez ezazu nonbaiteko yanariagatik irauli. Dana garbia da, noski; txaña, beñiz, iñoren gaizpidez yaten dana. ²¹ Ona da aragirik ez yatea, ardorik ez edatea, ta zure senideari gaizpide zayonik ez egitea. ²² Duzun ezaguera, zeroñentzat bego Yainkoaren auean. ¡Zori ontsua, zerbait egitekoan, kezkarik gabe ontzat deritzana! ²³ Orelako kezkan yaten duna, beñiz, gaiztetsita dago, obe-beañez ez dabilalako, ta gaitzuste egiten dana, ogen dalako.

XV

Ortarako eredia

Guk, beraz, azkañago geranok, ergalen aulkeriak yasan beañ ditugu, ez ordea, geron gogara ibili. ² Urkoa onbidean pizkoñtzeko, guretako bakoitza adiguritsu betoñkio. ³ Kisto ere ez baitzan bere gogara ibili; aitzitik, idatzita dagonez: **zure biraolarien bira-oak gañera erori zitzazkidan.** ⁴ Idaztiak oro, beñiz, gure irakaspidetzat idatzia dira, idatziok zuzpirtuta,

²³ Buru ontan aipatutako yayegunak, Lege Zañean agindutakoak ziran; yanariak, beñiz, sasiyainkoei oparitan eskeñitakoak. Kristau beñi ayetan batzuk alako yayegunak gorde beañ zirala okeñez uste zuten. Berebat, batzu, alako aragiak yatea eragotzia zitzayelakoan zeuden. Oretzaz emen esana alpeñik iñork Elizaren yayegunetaz ta baruaz aditu nai luke.

³ Er. LXVIII, 10.

egonañiz itxoin dezagun. ⁵ Egonañi ta poza darizkion Yainkoak bemaizue gogo batez elkañturik bizitzea Yesu Kisto'ren bidean, ⁶ biotz ta ao batez Yesu Kisto gure Yaunaren Aita dan Yainkoa goretsi dezazuten. ⁷ Abegi ona elkañi egiozute, beraz, Yainkoaren aintzarako Kisto'k egin zizuen bezela.

⁸ Ba-dasaizuet, ba: Yainkoaren egiagatik erdainduei bidalia Yesu Kisto izan da, arbasoei egindako agintzak sendotzeko; ⁹ eñukiagatik, beñiz, atzeñiek Yainkoa gores-ten dute, idatzita dagonez:

**Argatik atzeñietan edeñetsiko zaitut
eta zure izena goratuko dut.**

¹⁰ Ta beste nonbait: **Atzeñiak, poztu zaitezte Aren eñiarekin.** ¹¹ Ta beñiro:

**Yauna goretsazute eñi guziak
ta enda guziak aundietsazute.**

¹² Berebat Isai'k dio:

**Ba-datoñ Yesai'ren kimua,
eñien buru izateko ernea.**

Beragan atzeñiek uste ona dukete.

¹³ Uste ona darion Yainkoak pozez ta gentzaz bete zaitzazala, uste onez ta Goteunaren indañez aberastu zaitezten.

Esandakoen gorantzia

¹⁴ Ni, beñiz, ene senideok, etsi etsita nago zintzota-

⁹ Er. XVII, 50.

¹⁰ Deut. XXXII, 43.

¹¹ Er. CXVI, 1.

¹² Is. XI, 10.

sunez beterik ta yakitez okiturik zaudetela, ta elkar aolkatzeko gai zeratela. ¹⁵ Ala ere, senideok, zuen oroitzak nolabait pizteko, gordintsuki zerbait idatzi dizuet Yainkoak eman didan eskezez. ¹⁶ Yesu Kisto'ren mo'roi ya'rita nago, ba, Yainkoaren Be'ri Ona atze'iei alda'rikatzeko, atze'ien eskeintza, Goteunak deunduta, ona'ga'ri egin dedin. ¹⁷ Ta Yesu Kisto'ren aldetik ila'raindu naiteke Yainkoaren begitan. ¹⁸ A'rokeririk gabe aipatu nezake, ba, Kisto'k nere bidez egi'na dan ezker, atze'iak menderatzeko, itzez ta egitez, ¹⁹ alatz a'riga'rien inda'zez ta Goteunaren adoretz burutu dudana, Yerusalen ingurutik Iliriko'ra'no Kisto'ren Be'ri Ona alda'rikatzen. ²⁰ Alda'ri au, be'riz, Kisto'ren izena entzuteke dauden e'rietan egiteko ayolaz nabil, besteren o'na'riga'nean nere lana ez eraikitze. ²¹ Idatzita baitago:

**Iraga'ri izan ez zitzayenek ikusiko dute,
ta Aren be'ri entzun izan ez zutenek dazagukete.**

²² Au da zuetara yoatea askotan eragotzi didana.

Ayetara eto'rtzeko asmoa

²³ Dagoneko, ordea, egitekorik ez dut alderdi aue-tan; ta urte asko ezker zuetarako i'rikan bainago, ²⁴ Espa'ni'ra igarotzean, zuek ikusi ta arako laguntza zuengandik a'rtu uste dut, zuen artean atsalditxo bat egin ezker.

²⁵ Anartean Yerusalen'a ba-noa, deunei laguntza eramatera. ²⁶ Makedoni ta Akai'koei otu zaye, ba, Yerusalen'en diran deunetako lande'rentzat sorozki

21 Is. LH, 15.

batzu bidaltzea. ²⁷ Ayekiko zořdun diralakoan ori otu zaye, beriz. Gogobidean ayek atzeřiei urgaitzi egin dieten ezkeru, bizibidean ere auk egin beař diete-ta. ²⁸ Beraz, arlo au nik burutu, ta bildua ayei banatutakoan, zuetara noake Espaņi'ra igarotzeko. ²⁹ Zuetara ezkeru, beriz, ořko nere aldia Kisto'ren oneskunde bete betean igaroko dala ba-dakit. ³⁰ Ařen, senideok, Yesu Kisto gure Yaunarengatik eta Goteungandikako maitasunagatik, ekin otoyari nerekin, Yainkoari eskatuz ³¹ siņesgabeengandik Yuda'i'n yaregin nazala, ta Yerusalen'en nere eginbidea deunek onařtu dezatela; ³² ořela, Yainkoak nai ba'du, zuetara pozik etoři ta zuekin atsedan nadin.

³³ Gentza-Yainkoa zuekin bego. Ala biz.

XVI

Aguřak

Gorazten dizuet gure ařeba Poibe, Kenkrei'ko elizaren mirabea. ² Atotsazute Yainkoaren izenean deunei dagokienez, ta zuen beařean iņoiz ba'lego, lagun zatozkiote; bera ere anitzei, batez ere neroni, lagun etoři zaigu-ta.

³ Gorantziak Yesu Kisto'ren alde nere lankide izan diran ⁴ ta nere biziagatik berena galtzorian yaři duten Piriska ta Akila'ri. Nere eskeřak beuzkate, baita atzeřiko eliz guzienak ere. ⁵ Berebat gorantziak ayen etxeko elizari; baita Asia'n Kisto'rentzat askin izan nun Epai-

net maitagañari ere. ⁶ Gorantziak Mari'ri, zuenean ainbeste lan egin dunari. ⁷ Gorantziak bidalien artean ospetsuak diran ta ni baño len Kisto'ri atxiki zitzazkion nere aide ta bilurkide Androniko ta Yuni'ri. ⁸ Gorantziak Yaunarengan maite dudan Anpliat'i. ⁹ Gorantziak Urban'i, Yesu Kisto'rengan nere lagunari, ta nere Estaki maiteari. ¹⁰ Gorantziak Apel'i, Kisto'ren moñoi ziñari. Gorantziak Aristobul'en etxekoei. ¹¹ Gorantziak nere aide Erodio'ri. Gorantziak Narkis'eneko Yaunarenei. ¹² Gorantziak Tripain'i ta Tripos'i, Yaunaren mirabe azkañei. Gorantziak nere Persi maiteari, Yaunarentzat ainbeste lan egin dunari. ¹³ Gorantziak Erup'i, Yainkoak autuari, ta nere dudan aren amari. ¹⁴ Gorantziak Asinkrit, Pelego, Erme, Patroba ta Erma'ri, ayekin diran senideei. ¹⁵ Gorantziak Pilologo ta Yuli'ri, Nerea'ri, aren añebari, Olinpa'ri ta ayekin diran deun guziei. ¹⁶ Muin deunez elkañi agur egiozute. Gorantziak Kisto'ren eliz guziei.

Azpisugeak

¹⁷ Zaudete ernai, senideok, artu duzuten ikasbidetik sayestuta alderdikeri ta gaizpideak soñtzen ari diranei buruz, ta ayengandik alde egizute. ¹⁸ Ez die alakoei Kisto gure Yaunak ayolik bat ere, beren sabelak baño; ta beren ele xuri xamuñez gixaxoen biotzak limurñtzen ditute. ¹⁹ Zuen zintzotasuna guziei nabari zaye, ba; pozik ere nago oñegatik zuei buruz; bañan onbiderako zur, ta gaitzerako zuntzun zuek izatea nai dut. ²⁰ Gentza -Yainkoak zuen oñazpian Satan laster leñtu beza.

Bego zuekin Yesu Kisto gure Yaunaren eskeía.

Azken agurak

²¹ Agur dagizue nere lagun Timote'k; baita Luki'k, Yason'ek eta Sosipater'ek, nere aideek. ²² Idazti ontako eskulana dagokidan Terti onek ere, Yaunarengan agur dagizuet. ²³ Berean naukan Gai'k, eta Eliz osoak agur dagizuite, ta berebat iriko diruzai Eraste'k eta Kuarto anayak.

²⁴ Bego zuekin Yesu Kisto gure Yaunaren eskeía. Ala biz.

²⁵ Ta nakion Beñi Onean eta Yesu Kisto'ren aldañian bere burupide itzalgañiaren agerketaz sendotu zaitzazkenari, (betidanik isilpean zegon burupide au, ²⁶ orain ageri ta betiko Yainkoaren erabakiz atzeñi guziei, siñispera datozan, igarle-idaztietan zabaldu baitzaye), ²⁷ Yainkoari, yakintsu bakañari, betidañokoan aintza Yesu Kisto'ren bidez betoñkio. Ala biz.

22 Paul'ek ziotsana Paul'en begitan ta aginduz idazten.

KORINTO'KOENTZAT

PAUL'EN IDAZKIETAKO LENA

Korinto'ko Eliza Paul'ek soñtu ta lendabizitik azia zan. Bañan andik Paul irtenda gero, siñestunen artean iru alderdi bederen yayo ziran; Paul'i atxikiena, Apol'i yaraileena, ta Kepa'ri eraskiñena. Alderdikerion ta beste okeñ batzuen beñi Paul'ek Epeso'n yakin zun, ta antxe Korinto'tik idazki bat zenbait galdekin artu ere. Okeñak zuzentzeko, ta galdeei erantzuteko, idazki au Paul'ek Korinto'koei idatzi zien.

I

Paul'ek, Yainkoaren nai izatez bidalitzat deitu onek,
eta Sosten anaya'k,

² Yainkoaren Korinto'ko elizan deun izatera deitu ta Yesu Kisto'k deun egiñak zeratenoi, baita edozein tokitan Yesu Kisto gure ta ayen Yaunaren izena aitortzen duten guziei ere,

³ Esker ta gentza Yainko gure Aitagandik eta Yesu Kisto gure Yaunagandik.

⁴ Yainkoari beti esker dagiot zuetzaz, Yesu Kisto'gan zuei emandako adiguriagatik. ⁵ Aren bidez oso aberastu baitzerate ikasi ta yakin beañ diran orotan, ⁶ Kisto'ren itza zuenean erotuta dagola. ⁷ Ta ez zaizue emaririk bat ere peitu, Yesu Kisto gure Yaunaren agertaldia itxoiteko. ⁸ Berak geroenean ere azkeneraño

azkartuko zaituz, Yesu Kisto gure Yaunaren egunean akañkizunik gabe aurkeztu zaitezten. ⁹ Kirmena da, ba, Yesu Kisto gure Yaunaren erkidetzara deitu zaituzan Yainkoa.

Alderdikeriaz

¹⁰ Yesu Kisto gure Yaunaren izenagatik, añen, senideok, añen: izpide berbera ezazute guziok, ta ez bego alderdikeririk zuenean; gogo ta iritzi batez yarduzute, ostera. ¹¹ Kloe'nekoei entzunda nago, ba, ene senideok, zuenean eztabaidak dirala. ¹² Edo zeatzago esateko, zuenean batak dio: «Ni Paul'ena naiz»; besteak, «Ni Apol'ena»; urliak, «Ni Kepa'rena»; alakoak, «Ni Kisto'rena».

¹³ Kisto zatitu al da? Zuengatik Paul gurutzatu al da? Ala Paul'en izenean ukuziak ote zerate? ¹⁴ Yainkoari eskeñ dagiot, Kirispo ta Gai baizik, ¹⁵ zuetako bat ere ukuzi ez dudalako, iñork ere ez dasan nere izenean ukuziak zeratela. ¹⁶ Estebe'ren etxekoak ere ukuzi ditut; oriek kenduta, beñiz, ez dakit beste norbait ukuzi dudanik.

¹⁷ Ez bainau Kisto'k ukuzle bidali, Beñi Onaren aldañikari baño, ta elantzerik gabe gero, Kisto'ren gurutza utsaldu ez dedin. ¹⁸ Gurutz itza, galtzen diranentzat tentelkeria da, ba; guretzat, beñiz, yaregiten gerantzat, Yainkoaren indaía da. ¹⁹ Idatzirik baitago:

¹² Alderdikeriok ez bide ziran siñesteari legokioken zerbaitetzaz piztu; norkeri istiluak noskiago deritzakete. Ayen aurka Paul'ek Kisto'ren izena, guziak bat eratoítzeko, yasotzen du.

¹⁹ Is. XXIX, 14.

**Yakintsuen yakintza itzaliko dut,
eta zuñen zurñasuna utsalduko dut.**

²⁰ Non dago yakintsua? non ikastuna? non gizarteko burutsua? Ez ote du Yainkoak gizarteko yakintza erotzat agerazi? ²¹ Izan ere, ludia Yainkoaren yakintzatik Yainkoa ezagutera yakinbidez eldu ez baitzan, siñestunak aldañi-erokeriz yaregitea Yainkoak onetsi du. ²² Yuduak alatz eske dabilta; elendañak, yakite eske; ²³ guk, beñiz, Kisto gurutzatua aldañikatzen dugu, yudentzat tupustañi, elendañentzat tentelkeri, ²⁴ deituentzat, ordea, yudu-elendañentzat, Yainkoaren indañ ta yakintza dan Kisto. ²⁵ Yainkoaren tentelkeria lirudikena, gizayakintza baño bikañagoa dalako; ta Yainkoaren makaltasuna lirudikena, gizaindaña baño azkañagoa.

²⁶ Begira, ezperen, senideok, deituak zein zeraten; yakitun gutxi, altsu gutxi, aundiki gutxi. ²⁷ Aitzitik ere, gizarteko zuntzunak autu ditu Yainkoak, yakitunak alkerazteko; ta gizarteko makalak autu ditu Yainkoak, indañtsuak alkerazteko; ²⁸ ta gizarteko zaboñ ta ondañ ta ezer ez diranak autu ditu Yainkoak, zerbait diranak ezezteko; ²⁹ Aren auñean iñor añotu ez dedin. ³⁰ Berañandik zuek Yesu Kisto'gan duzute izatea; gure yakintza, zindokuntza, deuntasun ta yareibidea Yesu Kisto

20 Beñi Ona zabaltzeko, edo añtzeko, ez ditu Yaunak aberatsak autu, ez yakintsuak edo agintariak; beañtsuak baizik, eskolagabeak, mendeakoak; iñork uste ez dezan bere antzez ta indañez alako egitea burutuko dula.

30 Yesu Kisto gure zindokuntza dala esatean, zindokuntza irabazi ta ekañi diguna dala esaten da. Zindokuntza ori, ziñez, gugan ta gure da, bañnea Yainkoaren begitan edeñtzen digula; Yesu Kisto'k guretzañ irabazita, ordea.

izatea Yainkoak nai izan du, ba, ³¹ idatzita dagonez: **ilaíaindu ezkerro, Yaunaz ilaíaindu.**

II

Paul'en irakasbidea

Oréla ni, zuenera yoan nintzanean, eldu izan nintzaizuen, Kisto'ren aitoía itz guren ta yakintsurik gabe aldaíkatuz. ² Ezer ez bainun zuenean yakin nai, Kisto baizik, Kisto gurutzatua gero. ³ Erabe, belduí ta ikara goíitan azaldu nintzaizuen; ⁴ giza-yakintzaren elantzea nere erausi ta itzaldietan erakusteke, Yainkoaren adore ta indaía baño, ⁵ Yainkoaren indaíean ta ez giza-yakintzan zuen siñestea etzan dedin.

⁶ Yakintza ere bikañen artean darabilgu, ez, ordea, gizarte ontako yakintza, edo gizarte ontako nagusi amarakoíena; ⁷ Yainkoaren yakintza izkutu ta ostena baño, betidanik gure aintzarako Yainkoak berezi duna. ⁸ Gizarte ontako nagusi batek ere ez du yakintza ori igaí; igaí ezkerro, ba, ez lukete aintzaren Yauna gurutzatuko. ⁹ Artzaz idatzita dago:

**Ez du begik ikusi,
ez belárik entzun,
ez biotzek somatu
Bera maite dutenentzat
Yainkoak gertu duna.**

³¹ Yer. IX, 23, 24.

³ Atenai'ko yakitunei berak egindako itzaldi yakintsuaren potoak (Bid. Eg. XVII, 23) gibel-beldu' ordun zeukan, ta elantzera yotzeko uzku'.

⁹ Is. LXIV, 4.

¹⁰ Guri, beriz, Yainkoak bere Gogoaren bidez zabaldu digu. Gogo orek dana ikeritzen du, ba, Yainkoaren barnekoa ere. ¹¹ ¿Gizonetan nor da gizabarnekoa lezagukenik, norberagan dagon gizagogoia baizik? Orela, ba, Yainkoaren barnekoa inork ez dazagu, Yainkoaren Beraren Gogoak baizik.

¹² Baña guk ez dugu gizarte ontako gogoia aritu, Yainkoagandik dan Gogoia baño, Yainkoak egin dizkigun opariak ezaguteko. ¹³ Ta aytzaz mintzo gera, ez giza-yakintzatik yetxitako itzez, Gogoak irakatsita baño, gogoarenak gogoarenekin elkartuz. ¹⁴ Berebiziko ayuriz gizonak ez ditu Yainkoaren asmoak beretzakotzen; erokeritzat zazkio, ta ezin adi ditzake; gogabidez ikeritzeak baitira. ¹⁵ Gogozaleak, beriz, dana aztertzen du, ta bera ez da inorentzat aztergarri.

¹⁶ Yaunaren asmoa nor lezaguke, ba?

Aren onulari nor izango liteke?

Gerok, noski, Kisto'ren gogoia ba-daukagu.

III

Zer begira bear Kisto'ren geznariengan

Argatik, senideok, ezin nintzaizuen gogozaleei bezela mintzo izan, aragi yaseko ta Kisto'ren aurtxoei bezela baño. ² Eznea eman nizuen edateko, ez yakirik, orenbesterako ez baitzintaten. ³ Dagoneko ere ez zerate, oraindik aragikoi zerate-ta. Izan ere, elkarékin bekaitz

16 Is. XL, 13.

ta liskañez ibilki, ez ote zerate aragikoi azaldu ta gizabidez ibiltzen? 4 ¿Batak «ni Paul'ena», ta besteak «ni Apol'ena naiz» erasatean, ez ote zerate gizaki azaldu?

5 ¿Zer da, ba, Apol? Ta zer da Paul? Siñestera ekañi zaituzten moñoyak, Yainkoak bakoitzari emandako arloan. 6 Nik landatu egin dut, Apol'ek garastatu; bañan azkoñtzea Yainkoak eman du. 7 Ezer ez da, beraz, landatzalea; ezer ez da garastatzalea; Yainko azkoñtzalea baño. 8 Landatzalea ta garastatzalea, biak bat dira; ta bakoitzaren lanari dagokionez, biek saria artuko dute. 9 Yainkoaren lankide baikera gu; zuek, beñiz, Yainkoaren aloña, Yainkoaren etxea.

10 Azpikoa nik, etxegile zuñari dagokionez, yañi dut Yainkoak niri emandako al izatez; etxea, beñiz, bestek daraika. Bekus bakoitzak nola daraikan. 11 Beste azpikorik iñork ezin yañi dezake, ba, yañi dana baizik; ori, beñiz, Yesu Kisto da. 12 Azpi onen gañean zerbait iñork uñez, zilañez, añi edeñez, ala zurez, belañez eta lastoz ba'leraika, 13 bakoitzaren lana agiriko da; geroak azalduko du; sutan ageri beaña da, ba, ta bakoitzaren lana nolakoa dan suak erakutsiko du. 14 Iñork eraikia tink gelditzen ba'da, oñek saria artuko du; 15 iñork eraikia eñetzen ba'da, saria galduko du; beraxe yareingo da, ordea, baña sutan zear bezela.

Benetako yakintza

16 Ez al dakizute Yainkoaren etxe zeratela ta Go-teuna zuengan bizi dala? 17 Yaunaren etxea iñork kutsa-

tzen ba' du, Yainkoak alako ura suntsituko du. Deuna da, ba, Yainkoaren etxea, ta ori zerate zuek.

¹⁸ Ez bedi inor atzipetu. Zuetako inor gizartean zuia dalakoan ba'dago, ero biur' bedi, zuia izateko; ¹⁹ gizarteko zuitasuna Yainkoaren begitan erokeri da-ta. Idatzita baitago: **Zuak beren maioz atzemango ditut.** ²⁰ Ta beriz: **Zuñen asmaketak Yainkoak dazagutzi, ta utsalak dirala ba-daki.** ²¹ Ez bedi oiezkerok gizonetaz inor ilaiaindu. Diranak oro zuenak baitira; ²² Paul, Apol, ludia, bizia, eriotza, oraingoak eta gerokoak; zuenak dira oro; ²³ zuek, beriz, Kisto'renak; eta Kisto, Yainkoarena.

IV

Iritzi arotsuok nola zapaldu

Kisto'ren moioi ta Yainkoaren asmo itzalgañietaz eskuordeko gerala etsi bea. ² Eskuordekoengan bilatzen dana, beriz, zintzotasuna da. ³ Osterantzean, nitzaz zuek edo beste edozeñek edozer ustearen, niri ayola gutxi; neronetzaz ere zer uste ez baitakit. ⁴ Akañkizunik nigan ez dakusat bat ere; ez nago, ordea, argatik nere zintzotasunaz etsi etsita. Yauna dut ebatzi. ⁵ Ezer ez ezazute, beraz, goizegi ebatzi, Yauna etoñ arte. Berak zoko ilunak argitu ta biotzeko asmoak agirian ipiñiko ditu; ta ordun bakoitzak dagokion goraldia Yainkoagandik izango du.

¹⁹ Yob. V, 13.

²⁰ Er. XCIII, 11.

⁶ Neronen izena ta Apol'ena, beñiz, arazo ontan zuengatik nasi ditut, senideok, gugan ikas dezazuten, idatzitik irtenda, baten alde besteren lepotik ez arotzen. ⁷ Nork bereizten zaitu, ba? Ta zer duzu, besterengandik artua baizik? Artua izan ezkerro, beñiz, ¿zergatik arotzen zera, artu izan ez ba'zenu bezela? ⁸ Aserik zaudete; aberastu zerate; gu gabe yarauldira eldu zerate. ¡Ai ziñate, oratiño, yarauldira eldu, guk ere zuekin yarauldia eukitzeko! ⁹ Uste dut, ba, Yainkoak gu, azken bidaliok, eriogai agererazi gaitula; ludi, aingeru ta gizakien begitan aurkeztuak baikera. ¹⁰ Kisto'gatik ero, gu; Kisto'rengan gurbil, zuek; gu makal, zuek azkar; deduz zuek, gerenez gu. ¹¹ Orañarte gose, egañi ta zarpazar ibili gera, matsalekoak artuz, aldeñai. ¹² Geron eskuz lanari ekinda nekatu gera. Guri birao, guk onetsi; guri yasañka, guk yasan; ¹³ guri irain, guk otoi. Ludi ontako sats ta zier egiñak guzientzat gera orañarte.

Akar gazigoxo bat

¹⁴ Ez dut ori zuek lotsarazteko idazten; nere ume kutunak zerate-ta, pizkoitzeko baño. ¹⁵ Izan ere, zuentzat mila ta milaka umezayak dirala ere, aita askorik ez duzute, ordea; Beñi Onaren bidez Yesu Kisto'rentzat neuk soñtuak baitzerate. ¹⁶ Nere antza ar ezazute, beraz, Kisto'rena nik bezela. ¹⁷ Ortarako nere seme maitagañi ta Yaunarekiko kirmena dan Timote bidali dizuet. Berak

⁷ Alderdiketari ayen arokera leitzeko, Paul'ek emen diona, apaltasun ziñaren oñaria da; bai yatoñiz genuken edozein igurdizi ta indañi buruz, baita areago ere, yatoñigañeko izate ta bizitzari dagokion edozertan.

azalduko dizue nola Yesu Kisto'ren alde edonun nabilan eliz guzietan irakasten.

¹⁸ Aro dabilta batzu, zuetara etortzeko ez naizalakoan. ¹⁹ Aurki, ordea, zuetara yoango naiz, Yainkoak ba'letsa, ta ba-dazaguket arotsu orien indara, ez berek darasatena. ²⁰ Ez baitago izketan Yainkoaren yauraldia, indarean baño. ²¹ Zer nayago duzute? ¿Zigoerez ni zuetara etortzea, ala txera ta biotz beraz?

V

Senide zantařengandik igesi beař

Zuenean dagon zantařkeriaz ots aundia dabil; atzerian bertan idekorik ez dun zantařkeriaz gero; bere aitaren emaztea norbaitek beretzat omen du-ta. ² Zuek, beřiz, orenbesteraño eldua erditik ken dakizuen, samiña erakutsi beařean, ¿año aro zabilzate! ³ Soñez urun, baña gogoz oř nagon onek, ostera, aurkez ba'nengo bezela, ogen ori egin duna ebatzia daukat. ⁴ Yesu Kisto'ren izenean zuek eta zuekin nere gogoa ere bildu ezkeru, Yesu gure Yaunaren al izatez ⁵ olako ori Satan'i emana bekio, aragiz galduta, gogoz Yesu Kisto gure Yaunaren egunean gaizkatu dedin.

⁶ Ondo ez zaizue ilařaintzea. ¿Ez al dakizute orantza apuř batek ore osoa artzi oi dula? ⁷ Orantza zařa zuen

⁵ Elizetik, edo siñestun erkidetzatik alakoa yaurti ta, Yob bezela, beste asmoz gero, Satan'en mendean nozitu beařez yaři.

⁷ Gizon lizun ura korintokoentzat gaizpide, ta ango eliza artzi leza-ken orantza zan. Beren artetik, beraz, korintokoek yaurti beař zuten, kutsugabe ta beñolako Paska-otilak bezain txau ta garbi, Paska beřirako gelditzeko.

artetik yaurtazute, ore beñi izan zaitezten, otil zeraten bezela, Kisto, gure Paska-bildotsa, il dan ezkerro. ⁸ Orantza zaña dan gaiztakeri ta maltzuñkeria alde bat utzita, beraz, Paska ontako otilak izan bitez gure biotz garbi ta zintzoak.

⁹ Idazkiz esan dizuet zantañekin ez nasteko. ¹⁰ Zantañ oriek ez dira, beñiz, ludi ontako zantañ, dirukoi, lapuñ ta yainkoaizuntzale guziak; bestela, ba, luditik irten beañ zenukete. ¹¹ Senide izenez iñor zantañ, dirukoi, yainkoaizuntzale, mardalari, mozkoñti edo lapuñ ba'da, ostera, oñelakoarekin yan ere ez egiteko idatzi dizuet. ¹² ¿Añotzak ebaztea niri ote dagokit? ¿Etxekoak ez ote dira zuek ebazten dituzutenak? ¹³ Añotzak ebazteko Yainkoa dago. Zuek gizatxañ ori zuen artetik yaurtazuze.

VI

Auzikeriak

Zuetako norbait, besterekin auzi ba'darabil, deunen-gana yo beañean, gaiztoengana epai eske yotzera azañtuko ote da? ² ¿Ez al dakizute gizadi au deunek ebatziko dutela? Ta gizadia zerok ebatzi beañ ba'duzute, auzi ariñak ebazteko lain ez ote zerate? ³ Ez al dakizute aingeruak berak ebatziko ditugula? ¿Zeñen areago, ba, gizarteko auziak! ⁴ Zuek, beñiz, luñeko auzitara beañez, elizkiderik txatxañenak ebazle yañtzen dituzute. ⁵ Zuen alketarako diot; ¿ez al dago zuenean senidetarteko

auziak ebazteko zur danik bat ere? ⁶ Izan ere, senide-
rekin senideren batek auzi du, ta siñesgabeengana
yotzen du. ⁷ Makuñ aundia da, noski, zuena, elkarén
auzitan ibiltze ori. ¿Zergatik auzitara gabe irañak ez
yasan? zergatik iruzuña ez eraman? ⁸ Zuek, ordea, ¿baita
senideekin ere irain ta iruzuñka! ⁹ Ez al dakizute Yain-
koaren eña zitalek iritsiko ez dutela? Ez zaitezte atzipetu.
Yainkoaren eña ez dute zantañek izango, ez yainko-
aizunen guñtzaleek, ez ezkontzausleek, ez biraolariek, ez
sodomakeritsuek, ¹⁰ ez lapuñek, ez zikoitzek, ez mos-
koñtik, ez biraolariek, ez mausariak. ¹¹ Ala izanak
zerate batzu; baña Yesu Kisto gure Yaunaren izenean
ta gure Yainkoaren Atsez garbi, zindo ta deun biuñ
zerate.

Lizunkeria nardatzeko

¹² Dana zilegi zait; ez, ordea, egoki. Dana zilegi
zait; bañan ez naiz ezeren yopu egingo. ¹³ Yakiak
sabelarentzat, eta sabela yakientzat; bata ta besteak,
beñiz, Yainkoak suntsituko ditu. Baña soña lizunkeri-
entzat ez da, Yaunarentzat baño; ta Yauna soñarentzat.
¹⁴ Yauna beñpiztu dun Yainkoak, gu ere bere indañez
beñpiztuko gaitu.

¹⁵ ¿Ez al dakizute zuen soñak Kisto'ren atal dirala?
Ta ¿Kisto'ren atalak nik arñtu ta urdangaren atal egingo
ote ditut? Inola ere ez. ¹⁶ ¿Ez al dakizute urdangari
itsasten zayona soin bat arekin egiten dala? Idatzita

baitago: **Aragi bat izango dira biak.** ¹⁷ Yainkoari itsasten zayona, beñiz, Arekin gogo bat da.

¹⁸ Izoñkeritik iges egizute. Gizakik legiken edozein ogen, soñetik alde gelditzen da; izoñlariak, ordea, bere soñarekiko ogen dagi. ¹⁹ ¿Ez al dakizute Yainkoak emanda zerongan daukazuten Goteunaren yauretxea zuen soin-atalok dirala, ta zeronak zerok ez zeratela? ²⁰ Ordain ugariz erosiak zerate-ta. Yainkoa, beraz, zuen soñengan goretsazute.

VII

Ezkonduen beñak

Idatzi didazutenari buruz, on du gizonak emakumerik ez ikutzea. ² Ala ere, izoñkeria asagotzeko, bakoitzak bere emaztea beuka, ta emakume bakoitzak bere senaía. ³ Emazteari senaía zoía ordaindu bezayo, ta berebat emazteak senaíari. ⁴ Emaztea ez da bere soñaren yabe, senaía baño; ta berebat senaía ez da bere soñaren yabe, emaztea baño. ⁵ Otoyari bion oldez astiren bat emateko baizik, elkaíi ukorik ez egin; ta aírezkero beñiz bildu zaitezte, zuen íriskeria dala-ta, ez datoñkizuen Satan zirika. ⁶ Adeibidez, ordea, au diot, ez aginduz. ⁷ Gizaki guziak ni bezelakoak izatea nai nuke-ta. Bakoitzat berebiziko antzia Yainkoagandik ba-du, ordea: batak ala, besteak bestela.

⁸ Ala ere, ezkondu ez diranei ta alargunei dasayet on zayela oñelakoei ala egotea, ni bezela. ⁹ Bañan aragia

ezin ezi ba'dute, ezkondu bitez; éretzea baño ezkontzea obe-ta.

Ezkontza-lokañiaz

¹⁰ Ezkonduci, beñiz, agintzen diet, nik ez, Yaunak baño, emaztea senařarengandik ez bakantzeko; ¹¹ ta bakandu ba'liz, ezkontzeke gelditzeko edo senařgana itzultzeko. Senařak berebat ez beza emaztea utzi. ¹² Osterontzekoei nik dasayet, ez Yaunak: senide batek emazte siñesgabea ta arekin bizitzeko erabakia ba'du, ez beza utz, ¹³ ta emazte [siñestunak] senař siñesgabea ta arekin bizitzeko erabakia ba'du, ez beza utz. ¹⁴ Emazte [siñestun] aren edeřagatik. senař siñesgabea deunetsia da, ba; ta senidearen edeřagatik, deunetsia da emazte siñesgabea. Bestela, zuen umeak satsu lirake; ořezkero, beñiz, deun dira. ¹⁵ Baña siñesgabea bakandu ba'liz, bakan bego; ořelako zorian ez dago anaya, ez ařeba, ořelakoentzat lotuta. ¹⁶ Nondik dakizu, ezperen, emazte ořek, senařa gaizkatuko duzunik? Eta zuk, senař ořek, nondik dakizu emaztea gaizkatuko duzunik?

Bego norbera bere bizibidean

¹⁷ Bakoitza bizi bedi, ordea, Yainkoaren deya ařtzean, Yaunagandik zeukan bizibidean. ¹⁸ Erdaindu izanda iñork deya ařtu al du? Ez bedi ořetzaz alketu. Erdaindu izan gabe iñork deya ařtu al du? Ez bedi erdaindu. ¹⁹ Deus

¹² Arestixeko agindua (10, 11), ta emengo baimeua (12-15), Yaunarenak dira, noski, bata ta bestea. Lengoa, Yaunaren Beraren aoz esana ta iragañia; emengoa, Yaunaren eragitez ta agintez Paul'ek emen lenda-bizian aldařikatua.

ere ez da erdainkuntza; deus ere ez da buztanmokoa; Yainkoaren aginduak betetzea, orixe da guzia. ²⁰ Bego bakoitza deya aítzean zegon ituin artantxe. ²¹ Yopu ziñala, deitu izan al zera? Ez zaitez ayola; aitzitik, askatu zaitez-kela ere, zaude pozik zauden órta. ²² Yopu zala, Yaunarentzat deitua, Yaunaren yarei da, ba; ta berebat, yarei zala, deitua, Kisto'ren yopu da. ²³ Garesti erosiak zerate; ez zaitezte gizayopu egin. ²⁴ Bego bakoitza, senideok, deya aítzean zegon ituin artantxe.

Ezkongabeaz

²⁵ Ezkongayentzat, beíz, Yaunaren agindurik ez dut. Ala ere, Yainkoaren erukiagatik iritsi dudan kirmentasunez oía nere aburua. ²⁶ Nere aburuz, oraingo arbiñagatik, ala egotea on zaizue, edozein gizoni on zayon bezela. ²⁷ Emazteari lotuta al zaude? Askatzerik ez bilatu. Emazterik gabe al zaude? Emazterik ez bilatu. ²⁸ Ala ere, ezkontzen ba'zera, ogenik ez dagizu; ezta neskak ere ogenik ez dagi, ezkontzen ba'da. Aragi-neketan olakoak aurkituko dira, ordea; ta ez nuke ori zuentzat nai.

²⁹ Ara, senideok, dasaizuedana; laburá da epea. Beraz, emaztedunak, emazterik ez dutelakoan bebiltza; ³⁰ negar dagitenak, ez dagitelakoan; pozik daudenak, ez daudelakoan; darostenak, ezer ez dauketelakoan, ³¹ ta lúrekoetan diardutenak, ez diardutelakoan; iraizekoa, da, ba, ludi onen irudia. ³² Nik, beíz, zuek kezkarik gabe egotea nai nuke.

Ezkongabea Yaunari dagokionaz ayolatsu dabil, nola

Yaunari atsegin; ³³ ezkondua, beñiz, luñekoaz, nola emazteari atsegin. Bitara dago. ³⁴ Senaírik gabeko emakume edo neska, Yainkoari dagokionaz ayolatsu dabil, soñez ta gogoz deun izateko; senaíduna, beñiz, luñekoaz ayolatsu dabil, nola senaíari atsegin.

³⁵ Ez diot au, xedeba zuei ezaítzeko, zuen onerako baizik; goragaíri izango litzaizueke, ba, ta zoztoírik gabe Yainkoari itsasteko egokia.

³⁶ Ala ere, iñori bere alaba neskazará gelditzea lotsagaíri ba'zayo, ta ezkondu beaí dula ba'deritza, nai duna egin beza; ogenik ez dago oítan: ezkondu diteke. ³⁷ Baña beaírik gabe ta bere nai izatearen yabe dala, iñork bere alaba ezkongai uzteko asmo sendoa bere biotzean aítzen ba'du, ondo dagi. ³⁸ Beraz, bere alaba ezkontzarako damanak, ondo dagi; ta ez damanak, obe.

³⁹ Senaía bizi dan artean, emaztea loturik dagokio; baña senaía il orduko, bere buru da; nai dunarekin ezkon bedi; Yaunaren legez, ordea. ⁴⁰ Zori obeko izango da, beñiz, ala gelditzen ba'da. Au da nere onua; ta uste dut Yainkoaren Atsa daukadala.

VIII

Yainkoaizunei eskeñitako aragiaz

Yainkoaizunei eskeñitakoaz ba-dakigu guziok argituak generala. Baña yakintzak puztu egiten; maitasunak eraiki egiten du. ² Zerbait yakin uste du-

nak, yakin bea'í danez oraindik ez daki. ³ Yainkoa maite duna, be'íz, Aren begiko da. ⁴ Yainkoaizunei eskeñia yateaz ba-dakigu, noski, yainkoaizuna ezer ez dala ludian, ta Yainkorik ez dagola bat baizik. ⁵ Izan ere, ortzian ta lu'ean Yainko izenez yainkotchako ta yauntzako askotsu ba'dira ere, ⁶ Yainkoa guretzat baka'ra da, Aita; ta Arengandik eta Arentzat dana ta gu gera; Yauna ere baka'ra da, Yesu Kisto gure Yauna; ta Arengatik dana ta gu gera.

⁷ Ori ez dazagute, ordea, guziek argi. Orañarte bezela yainkoaizuna batzuk begiratuz, ari eskeñitako aragia yaureskintzat yaten dute, ba; ta ayen ezaguera makaltxoa baita, kutsaten dira. ⁸ Yanariak ez gaitu Yainkoaren begitan gorazten; ez gera yateagatik geyago, ezta ez yateagatik ere gutxiago. ⁹ Orizute, ordea, zuen eskubide ori ergalei galbide ez dakien. ¹⁰ Alabañan, argitua zeran ori o'elako norbaitek yainkoaizundegian bazkaltzen ba'zakusaz, ¿ez ote zayo ustea, makala izaki, sendotuko, yainkoaizunei eskeñitakoak yateko? ¹¹ Ta ¿zure yakintzagatik galduko ote da zure senide gaxoa, aren alde Kisto il dan ezkerro? ¹² O'ela senideekiko ogen egiñez ta ayen uste makala zotukatuz, Kisto'ren aurka ogen dagizute. ¹³ Beraz, aragia dala-ta, nere senidea galbidean aurkituko ba'da, ez dut iñoiz ere aragirik yango, nere senidea gal ez dedin.

10 Gerorxeago (X, 20) esango du au egitea ogen dala. Emen, be'íz, ogen ote danentz esan gabe, dio, noizpait gizagaxo batzuentzat gaizpide izan ditekela; ta ordun, beintzat, buru o'rtatik ogen dala.

IX

Paul'en beraren eredu

Ez ote naiz yarei? ¿Ez ote naiz bidali? ¿Ez ote dut Yesu Kisto gure Yauna ikusi? ¿Ez ote zerate zuek nere lanez Yaunarengan? ² Besteentzat bidali ez ba'nintz ere, zuentzat bederen ba-naiz; nere bidalguntzaren sendatza Yaunarengan zuek zerate-ta. ³ Auxe da bezten nautenei buruz nere zuribidea.

⁴ ¿Ez ote dugu yan edateko eskubiderik? ⁵ Ez ote dugu ariebaren bat bidaidetzat eramateko eskubiderik, beste bidaliek eta Yaunaren senideek eta Kepa'k bezelaxe? ⁶ ¿Ala niri ta Barnaba'ri baka'rik ukatuko zaigu lanez egiteko eskubidea? ⁷ ¿Gudan nor ari da bere bizka'ri? ¿Mastia nork landatu ta aren matsik ez du yaten? ¿Artaldea nork la'ratu ta ardien esnetik ez du edaten? ⁸ ¿Gizabidez au ote diot, ala legeak berbera ez ote dio? ⁹ Idatzita baitago: **Eultzian ari dan idiari aoa ez lotu.** ¿Idien ardura al du Yainkoak, ¹⁰ ala gutzaz batez ere ori al dio? Gutzaz, noski, auek idatzita daude; uztaren ustez goldean goldaria ta eultzian eultzilaria ari bea'ri dute-ta. ¹¹ ¿A'ritzeko ote da, gogo-azia zuengan erein dugonok bizirako otzu'rak zuetan biltzen ba'ditugu? ¹² ¿Zuei buruz bestetzuk darabilten eskubidea guk ezin ote dezakegu bidezago erabili? Ez dugu ala

⁵ Yesu'ri bezela, bidaliei ere emakume zinzto batzu ya'raitzen zitzazkien, bizirako bea'rak ayei e'aztu'rik; bidaliak alako arazotik al denduta, Be'ri Onaren alda'riketan ta Eliz be'riaren azketan zain ta muin ari zitezten.

⁹ Deut. XXV, 4

ere eskubide au erabili; aitzitik, dana yasaten dugu, Kisto'ren Be'ri Onari zozto'rik ez eza'rtzeko. ¹³ ¿Ez al dakizute yaureskizunetan ari diranek yauretxetik yatekoa dutela, ta opamai otseñak opamai erkide dirala? ¹⁴ O'rela, ba, Yaunak Be'ri Onaren alda'rikariei Be'ri Onaren bizka' bizitzeko agindu die.

¹⁵ Ala ere, ez dut nik o'relako ezertara yo. Idazten dizuedan auxe ere, o'relakorik zerbait niretzat ardiesteko ez da. Il ere obe niretzat, ila'rainbide au inork niri kendu baño. ¹⁶ Be'ri Ona zabaltzeaz ezin ila'raindu naiteske; bea'ra ori niretzat; eta ¡nere zori txa'ra, Be'ri Ona zabaltzen ez ba'dut! ¹⁷ Nere oldez o'rtan ari izan ezkerro, saria ba-nuke; baña niri egotzitako eginbea'ra baizik ori ez dan ezkerro, ¹⁸ ¿zein daiteke nere saria? Be'ri Onaren alda'rikatzean, u'urik alda'ri egitea, Be'ri Onaz dagokidan eskubidea erabiltzeke.

¹⁹ Guziei buruz yarei nintzala, guzien mo'roi egin naiz alik geyenak irabazteko. ²⁰ Yuduei yudu azaldu natzaye, yuduak irabazteko; legepean ez nagola ere, legepekoei legepeko azaldu natzaye, legepekoak irabazteko; ²¹ Kisto'ren legepean egon ezkerro, Yainkoaren legetik alde ez nagola ere, legegabekoei legegabeko azaldu natzaye, legegabekoak irabazteko; ²² ergalei ergal azaldu natzaye, ergalak irabazteko; guziei guzitariko azaldu natzaye, bide guzitik zeinbait yareiteko. ²³ Guziok, be'riz, Be'ri Onaren egiten ditut, nere laña andik ateratzeko.

²⁴ ¿Ez al dakizute atxintxitokian leyatzen diran guziek, atxintxi, bai, dagitela; saria, ordea, batek baka'rik

artzen dula? Bera eskuratzeko bear' aña atxintxi egizute.
 25 Bu'rukari guziak ere guziz elikutsu dira; ayen burun-
 tza, be'riz, zimelga'ria da; gurea, aitzitik, ezin zimeldu
 da. 26 Ni, beintzat, atxintxika nabil, ez, noski, erezka;
 bu'rukan ari naiz, ez aize yoka, gero; 27 aitzitik ere,
 soña astintzen dut eta yoputzan darabil, besteak aol-
 katu ondoren gaiztetsi ez nadin.

X

Aigito'tik irtera

Ez zaituzt, ba, senideok, iluntan utzi nai. Gure asabak
 odeipean guziak egon, itxasoan ba'rna guziak ibili,
 2 ta Mois'entzat guziak odei ta itxasoan ukuzi ziran;
 3 gogo-azku'ri berkera guziek yan 4 ta gogo-edari ber-
 bera guziek edan zuten. Ayekin ziyoan Aitzetik edaten
 baitzuten; Aitza, be'riz, Kisto zan. 5 Ayetako geyen-
 tsuak ez ziran, ordea, Yainkoaren gogara ibili, ta basoan
 lu' yota il ziran.

6 Guretzako iruditzat gertariok yazo ziran, gogo
 oke'etara, ayek bezela, yo ez dezagun. 7 Ez zaitezte
 sasiyainkoen yauresle egin, ayetako batzu bezela, ida-
 tzita dagonez: **Yan-edatera e'ria eseri zan, ta kiro-
 letara yaiki.** 8 Ez izo'rtu; ayetako batzuk izo'rtu zutela,
 egun batean ogei ta iru mila lagun erori ziran. 9 Yauna
 ez axekatu; ayetako batzuk axekatu zutela, suge-miztoz
 bizia galdu zuten. 10 Ez ibili marmar; ayetako batzu

7 Irt. XXXII, 6

ořela ibiliagatik apentzaleak pořokatu zitun. ¹¹ Iruditzat ayei guziok gertatu zitzazkien, ta azken aldiotan bizi geranon galentzat idatzita daude. ¹² Beraz, zutik dagola uste dunak, ernai bego ez erortzeko. ¹³ Giza-neketan baizik egonak ez zerate. Kirmena da, beřiz, Yainkoa, ta yasan dezakezutena besterik yasaten ez zaituz utziko; nekaldian, ostera, lagun datořkizueke, zutik egon zaitezketen.

Kistařen ořitsak

¹⁴ Onezkero, maiteok, sasiyainkoen yaurespidetik iges egizute. ¹⁵ Zuřekin diardut; diodana zerok begira. ¹⁶ Onesten dugun onestontzia Kisto'ren odolarekiko bakuntza ez ote da? Zatitzen dugun ogia Kisto'ren soñarekiko bakuntza ez ote da? ¹⁷ Ogi bat izan ezkerok, soin bat ere baikera guziok; ogi berberaz azita, bat egin geralako. ¹⁸ Begira Israel aragikoa. ¿Ez al dira opamayaz erkide, ango opariak yaten ditutenak?

¹⁹ ¿Zer diot, ba? ¿Sasiyainkoei eskeñia zerbait dala? ²⁰ Ez; sasiyainkoei eskeñia tuxuriei eskeñia zayela, ordea. ez Yainkoari; ta nik ez dut nai zuek tuxurien erkide egitea. ²¹ Yaunaren ontzia ta tuxuriena ezin edan ditu-

16-23 Mezatan Kisto'ren odol biuřtutako ardoa edatea, ta Beraren soin biuřtutako ogia yatea, Kisto'rekin bat egitea da; ta ala Kisto'rekin bat egiñek, elkař ere bat egiten dute. Ta ori bi aldetatik; a) yanari ta edari zuek, ogi-irudiz ta ardo-irudiz, Kisto'ren soin ta odol zin zinak diralako; b) yauresketan Kisto'k Berak Yainkoari opari eskeñiak diralako. Oř, ba; alako oparitik yaten dunak, oparia eskeintzen dion arekin bat egiten da, ez noski soñez; gogoz ta onerako edo gaitzerako erkidegoz baño. Bigařen sustrai ontatik, yuduen yauresketan eskeñitako oparitik yaten zutenak, Yainkoarekin bat egiten ziran; ta siñesgabeak beren yauresketako oparitik yanez, tuxuriekın bat egiten dira; tuxuriak baitira ayen opariak eskeintzen zazkienak.

zute. ²² Ala ¿Yauna tíriatu nai ote dugu? ¿Bera baño azkaragoak ote gera?

Egun oroko bazkarietan begirabeaía

²³ Dana zilegi, da, ez, ordea, egoki. Dana zilegi da; ez, ordea, onuratsu ²⁴ Bererik ez beza inork bilatu, besterena baizik. ²⁵ Arategian salgai dagon edozertakorik yazute, zilegi ote danik azteítezeke. ²⁶ **Yaunarena da, ba, luía ta bertako dana.** ²⁷ Siñesgabereren batek deituta, arengana yoan nai ba'duzute, yaíi litzaizuekena yazute, zilegi ote danik azteítezeke. ²⁸ Bañan «au yauro-pa da» inork ba'lio, ori aipatu dunaíen ta ogen-kexkaíen, ez yan. ²⁹ Diodan ogen-kexka, arena da, ez zurea. ¿Zergatik, ba, nere askatasuna bestek uste lukenez lotu beaía da? ³⁰ Eskeí eginda yaten ba'dut, ¿zergatik akaígaíi naiteke, eskeí onez aítzen dudana gátixe?

³¹ Beraz, yatekoan, naiz edatekoan, naiz beste edo-zer egitekoan, dana Yainkoaren aintzarako egizute. ³² Gaizpiderik ez eman yuduei, ez elendaíei, ezta elizari. ³³ Oírela ni guzien gogara orotan ibiltzeko leyatzen naiz, nere obaririk bilatzeke, guziena baño, gaizkatu ditezan.

XI

Elizeko batzaldia

N ere antza aí ezazute, Kisto'rena ník bezela.

² Orotan nitzaz oroiturik, eta eman nízkizuen aginduei atxikirik zabiltzatela-ta, txalo egin dizuet.

²⁶ Er. XXIII, 1

3 Orain, beñiz, nai dut zuek yakitea gizon guzien burua Kisto dala; emaztearena, beñiz, senaña; ta Kisto'rena, Yainkoa. 4 Burua yantzita, eliz-otoi edo itzaldia agirian dagin edozein gizonek, bere burua ezaintzen du. 5 Burutsik eliz-otoi edo itzaldia agirian dagin edozein emakumek bere burua ezaintzen du, burumotzik aurkeztu ba'liz bezela. 6 Burua ez estaltzekotan, burumotz bego emakumea. Emekumearentzat, beñiz, lotsagañi ba'da burumotz edo soil agertzea, estal bedi.

7 Gizonak ez du burua estali bea, Yainkoaren irudi ta aintza dalako; emakumea, beñiz, senañaren aintza da. 8 Izan ere, gizona ez da emakumeagandik soñtu, gizona-gandik emakumea baño. 9 Ta ez da emakumearentzat gizona soñtu, gizonarentzat emakumea baño. 10 Argatik emakumeari on zayo aingeruen edeñagatik burugañean yopu ezagupidea ekañtzea. 11 Osterontzean, emakumerik gabe, gizonik ez; ta berebat, gizonik gabe, emakumerik ez Yaunaren asmotan. 12 Gizonagandik emakumea soñtu dan bezela, gizona ere emakumearen bidez soñtzen da, ba, ta danø Yainkoagandik datoñ.

13 Zerok ebatzazute: ¿egoki al da emakumeak burutsik Yainkoari otoi egitea? 14 ¿Izaerak berak ez al darakaskizue gizonari alkekizun zayola iladatsa aztea, 15 emakumeari, ordea, aintzakizun zayola orixe, ileak estalkiltzat emanak ditu-ta? 16 Onezkero, beñiz, etiketan iñor yaikitzen ba'da, ez dago gurean, ezta Yainkoaren elizetan oñelako ekandurik.

Yaunaren aparria

¹⁷ Ori gorantzirik, beñiz, ez dut ontzat artzen, oberako beaŕean, gaitzerako biltzen zeratenean. ¹⁸ Entzunda nago, ba, zuen batzaŕaldietan alderdikeriak dirala, ta nolarebait siñesten dut. ¹⁹ Alderdikeriak zuenean izatea ere onuratsu da, yatoŕak zein diran ager dedin. ²⁰ Elkaŕgana biltzen zeratenean, ez omen da Yaunaren aparria egiten duzutena; ²¹ nork bere aparria baitakaŕ yateko; ta batzu gose, bestetzu, beñiz, mozkoŕ omen dira. ²² ¿Etxerik ez al duzute yan edateko? ¿Ala Yainkoaren eliza nardatu ta landeŕak lotsarazten ote dituzute? ¿Zer esan beaŕ dizuet? ¿Goratuko al zaituzt? Ez; oŕtan iñola ere ez.

²³ Yaunagandik nik artuta baitaukat zuei irakatsi nizuen au. Yesu Yaunak, etsaipera eratoŕi zan gau artantxe, ogia artu ²⁴ ta eskeŕ egiñik, zatitu ta esan zun: **Au da nere soña, zuen alde eman beaŕa; au egizute nere oroitzat.** ²⁵ Berebat apalondoan, ontzia artu ta esan zun: **Ontzi au nere odolez Itun Beŕia da; au egizute nere oroitzat, edan dukezuten bakoitzean.** ²⁶ Ogi au yan ta ontzi ontatik edan dukezuten bakoitzean Yaunaren eriotza aldaŕikatuko duzute, ba, Bera etoŕi arte. ²⁷ Beraz, zitalki ogi au yan, edo Yaunaren ontzitik edango lukenak, Yaunaren soin ta odolaz ogendun liteke. ²⁸ Oŕezkero, bere burua len nork azteŕtu ta gero ogi au yan ta ontzi ontatik edan beza; ²⁹ beaŕ ez danez yan-edaten dunak, bere gaiztespena yan-edaten du-ta. ³⁰ Argatik, zuenean ainbeste

ergal ta enul, ta lo etzanak. 3¹ Geron buruak azteñtu ba'genitu, ordea, ez giñake ebatzirik izango. 3² Gu ebaztean, beñiz, Yaunak gardosten gaitu, gaiztoekin gal ez gaitezán. 3³ Beraz, ene senideok, aparitara biltzean, zaudete elkañen zai. 3⁴ Iñor gose ba'da, bere etxean yan beza, zuen batzañengatik gaiztetsi beañak ez zaitezten.

Enparauak zuenera etoñitakoan zuzenduko ditut.

XII

Gogoko emariak

Bañan ez dut nai, senideok, gogoko emarietaz zuek iluntan egotea. 2 Ba-dakizute, atzeñi ziñatenean, irudi mintzuletara yitoan ekañiak yotzen zenutela. 3 Oñá, beñiz, yakiñerazten dizuedana; Yainkoaren Atsez mintzo dala, «Yesu'ri birao» iñork ere ez dio; ta «Yesu Yauna» iñork ezin esan du, Goteunez izan ezik.

4 Askotariko emariak dira; Atsa, berbera, ordea. 5 Askotariko moñoikuntzak dira; Yauna, ordea, berbera. 6 Askotariko eginbideak dira; berbera, ordea, orotan dana dagin Yainkoa. 7 Bakoitzari emandako

4 Emari auk: a) Goteungandik datozkie; b) ez kristau guziei, ezta deuntasuna neuñi bat edo besteraño iritsi dutenei; d) Goteunak ururik eman nai dizkienei ta dizkienean, ta ez añtzaleareu onerako; beti besteenako ta Elizaren auñerapiderako baño. Oñá emen aipatuak: 1.^a izmen zuñá, egi sakonenak azaltzeko. 2.^a izmen yakintsua, egi beañenak guziei irakasteko. 3.^a siñestea, edo alatzak ere iristeko uste betea. 4.^a eriak sendatzeko indaía. 5.^a alatz-egitekoa. 6.^a igarñmena edo agiriko itzaldietan aolkuz, irakaslez, eta noizpait ere, barñekoen edo etoñkizunen igarñketaz entzuleak siñesbidean pizkoñtzeko indaía. 7.^a Yainkoagandik, norberagandik edo txerengandik datoñena bereizteko argi edo usna. 8.^a mintzo arotzez egitekoa, edo erderaz yakiteke, erderaz Yainkoa goratzen edo otoi egiten agirian mintzatzekoa; 9.^a oñelako itzaldiak entzuleen izkerara biuñtzeko antzia.

Atsaren agerbidea, beñiz, *guzien* onerako da. ⁸ Batari Atsaren bidez izmen zuña ematen zayo; besteari, Ats berberaz irakasteko izmen yakintsua; ⁹ oñkoari, Ats berberaz siñestea; angoari, Ats berberaz sendatzeko antzia; ¹⁰ norbaiti, alatz egiteko indaña; beste bati, igartzekoa; alakoari, gogoak bereiztekoa; urliari, izkera arotzez mintzatzekoa; sendiari, esanak adiraztekoa. ¹¹ Baña guziok Ats berberak burutzen ditu, bere oldez bakoi-tzari antziok banatuz.

¹² Bat dala ere, soñak atal asko ditu; atal guziok, beñiz, asko dirala ere, soin bat dira. Oñela da Kisto. ¹³ Guziok, yudu ta atzeñitañak, yopu ta yareyak, soin bat egiteko Ats batez ukuziak baikera, ta guziok Ats batek azkoñtuak. ¹⁴ Soña, beñiz, atal bat ez da, asko baizik. ¹⁵ «Esku ez naiz-ta, soñari ez nagokio» oñak baldin ba'lio ere, ¿soñari ez legokioke? ¹⁶ Ta «begi ez ñaiz-ta, soñari ez nagokio» belañiak baldin ba'lio ere, ¿soñari ez ote legokioke? ¹⁷ Soin osoa begi ba'liz, ¿zerez entzun? Soin osoa belañi ba'liz, ¿zerez usaindu? ¹⁸ Baña Yainkoak soñean atalak yañi ditu bere oldez banatuta. ¹⁹ Guziak atal bat ba'lira, ¿non legoke soña? ²⁰ Orain, beñiz, atal asko, baña soin bat. ²¹ Begiak eskuari ezin esan dio: «zure beañik ez dut»; ezta ere bu-ruak oñei: «zuen beañik ez dut». ²² Aitzitik ere, ergalenak diruditen atalak, beañenak dira; ²³ ta txatxañenak diru-diten soin-atalak, obekienik apaintzen ditugu; ta lotsaga-ñiak oi dira deduzago ekañiak; ²⁴ besteentzat ori ez da beañ. Yainkoak soña atondu digu, atalik nañasenei itzal geyago ezañirik, ²⁵ soñean alderdikeririk izan ez dedin;

atalek, osterá, elkarén ardura dezaten. ²⁶ Ta atalen bat mindu orduko, atal guziak arekin miñez; atalen bat ondo ezkeró, atal guziak arekin pozez.

²⁷ Zuek, ba, Kisto'ren soña zerate, ta zuetako ba-koitza Beraren atal bat. ²⁸ Ta Yainkoak batzu Elizan bidali ya'ri ditu; beste batzu igar'le; bestetzu irakasle; urénean alazkilé; gero sendatzale, ta urgazteko, yaur'tzeko ta izkera askotaz erausteko antzidun. ²⁹ ¿Guziak bidali ote? ¿guziak igar'le? ¿guziak irakasle? ¿guziak alazkilé? ³⁰ ¿guziak sendatzeko antzidun? ¿guziak izkera askodun? ¿guziak itz adirazle?

³¹ Emari obeak ir'ikatu itzazute. Ta ara, biderik ziñena erakusten nato'rkizue.

XIII

Maitasunaz

Gizonen ta aingeruen izketa orotaz egiñarén, maitasunik ez ba'nu, tupiki ozen ta txilin bu'runbaria bezela nintzake.

² Ta igar'mena eukiarén, ta izkutuki ta yakingar'i guziak ezagunarén, ta mendiak aldatzeko bezain azka'ra nere siñestea izanarén, maitasunik ez ba'nu, ezer ez nintzake.

³ Ta daukadan guzia lande'rei banatu ta nere soña éretzeko emanarén, maitasunik ez ba'nu, ezertarako ez litzaidake.

⁴ Maitasuna biotz-zabala da; maitasuna biotzbera da; maitasunak bekaitzik ez du, ez pa'asteririk, ez

aókeririk; ⁵ eragabe ez da; ez da berakoi, ez sakeé, ez goganbearíti; ⁶ ez da okeérkeriaz pozten; egia, ordea, atsegin zayo; ⁷ dana onártzen du, dana siñesten, dana itxoiten, dana yasaten.

⁸ Maitasunak ez du ok egiten. Igarímena, bai, aitu beára da: izkuntzak, bai, isiliko dira, ta yakintza itzaliko da. ⁹ Akastunak baitira gure yakintza ta igarímena. ¹⁰ Osoa dana etoítakoan, ordea, akastunik ez dagoke. ¹¹ Ume nintzanean, umeari dagokionez itz egin, umeari dagokionez uste, umeari dagokionez asmatzen nun. Gizondu orduko, beíz, umekeriak erantzi ditut. ¹² Orain ispiluz ta lañotartean ikusi egiten dugu; ara ezkeror, ordea, begiz begi. Orain erdizka dazagut; ara ezkeror, ordea, ezagun naizan bezelaxe, dazaguket. ¹³ Orain irurok daude; siñeste, itxo ta maitasuna. Auetakor nagusia, beíz, maitasuna.

XIV

Igarímena ta izkerarako antzia

Maitasunari ekiozute; gogokoetara berebat leya zaitzte, batez ere igaríketara. ² Izkerar aórtzez mintzo dana ez zaye, ba, gizoner mintzo, Yainkoar baño; iñork ez baitio aditzen, goiko adorer adigaitzak esaten ari da-ta. ³ Igaríketan ari dana, beíz, gizoner mintzo zaye, ondu, aolkatu ta pozten ditula. ⁴ Izkerar aórtzez mintzo danak bere onerako diardu; igaríketan ari danak, beíz, eliza daraika. ⁵ Ala ere, izkerar

aíotzez zuek mintzatzea nai nuke; nayago dut, ordea zuek igarítzea. Izkeratsua baño aundiago da, ba, igarílea, lenak bere esanak azaltzen ez ba'ditu, eliza eraikitzeke.

⁶ Ezperen, senideok, ¿zer aterako zenukete izkera aíotzez mintzatzan ba'nentorkizue, ta agerbidez, edo goi-argiz, edo yakitez, edo irakastez ez ba'nerauskizue? ⁷ Bizi ez diran ostaluek, adibidez, txistuak naiz kitarak, ots berezirik aterako ez ba'lute, ¿nola igarí liteke zer txistuak, zer kitarak yotzen dunik? ⁸ Turutak ots berezirik ateratzen ez ba'du, ¿buñukara nor gertuko da? ⁹ Oírela zuen mintzaldian ere itz ezagunik ez ba'darabiltzute, ¿nola ulértuko dizuete diozutena? Aizetara mintzatzan ari izango zerate. ¹⁰ Ba-dira luñbiran izkera asko; ta itz adigaririk gabe bat ere ez. ¹¹ Bañan itz-in-dara ez ba'dazagut, mintzo zaidanarentzat erdaldun izango naiz, ta berebat ura niretzat.

¹² Beraz, gogokoetara leyatsu zeratela-ta, leya zaitzte gogoko emariak eruz iristen, eliza eraikitzeke. ¹³ Oítarako, izkera aíotzez egiten dunak, adirazteko antzia eskatu beza. ¹⁴ Alabañan, erderaz otoi egiten ba'dut, nere biotzak, bai, otoi egiten du; baña nere adiña mozkin gabe gelditzen da. ¹⁵ ¿Zer egin bear, ba? Bai biotzez, bai adiñez otoi egingo dut; bai biotzez, bai adiñez eresi egingo dut. ¹⁶ Bestela, atsegin-aguñak izkera aíotzez zuk egindakoa, ¿nola zure esanei «ala biz» darantzuyeke eriko entzuleak, diozunik ulértzeke? ¹⁷ Zuk, bai, esker-otoi ederki dagizu; bestea, beriz, ez da andik obetzen. ¹⁸ Esker dagiot Yainkoari,

zuek oro baño izkeratsuagoa naizalako. ¹⁹ Ala ere, elizan amar mila erdalitz baño bost itz adigari esan nayago dut, besteei on egiteko. ²⁰ Senideok, ezagueraz ez zaitezte ume izan; gaitzarekiko, bai, umetu zaitezte; ezagueraz, ordea, izan zaitezte gizon eldu.

²¹ Legean idatzita dago: **Erdalitzez ta erdalezpañez eri oni mintzatuko natzayo, ta ala ere ez didate adituko**, dio Yaunak. ²² Beraz, izkelantzia siñesgabekoentzat ezagupide da; ez, ordea, siñestunentzat; igarketa, beriz, siñestunentzat; ez, ordea, siñesgabekoentzat. ²³ Ezperen, eliz osoa bildurik dagola ta guziak erderaz egiten ari dirala, siñesgabe edo orkoren bat sartu ba'liz, erotu zeratela ez al lioke? ²⁴ Aitzitik, guziok igarketan diarduzutela, siñesgabe edo orkoren bat sartzen ba'da, guziek argitua ta guziek etsia geldituko da; ²⁵ aren biotzeko zirkiluak argitara datoz, ta orezkero auzpezturik, Yainkoa yauretsiko du, zuenean Yainkoa ziñez dagola aitoztuz.

Antziok batzaraldietan bea' danez erabiltzeko arauak

²⁶ ¿Zer egin bea', ba, senideok? Zuen batzarretan nor edo nork eresi egin, naiz zerbait irakatsi, naiz beriren bat argitaratu, naiz izkera arotzez egin, naiz orela esana azaldu bea' ba'du, dana onerako egin bedi. ²⁷ Mintzo arotzez egitekotan, aldizka bik, edo geyenez iruk, ori egin bezate; ta esana norbaitek azaldu beza. ²⁸ Azaldu lezakenik ez ba'lego, izkeratsuok isilik beude batzarrean, ta norberarekin ta Yainkoarekin berausate.

21 Is. XXVIII, 11, 12.

29 Igarleetako bizpairu bakañik mintzo bitez, ta ande-
rakoe'k ebatzi bezate. 30 Bañan an eseritako norbaiti zer-
bait ageri egin ba'litzayo, lengoa isil bedi. 31 Guziok
igari baitezakekute aldizka, argi ta aolkuak guziek ar di-
tzaten. 32 Igarleen atsa igarleen mendean dago; 33 lipiz-
tari ez da, ba Yainkoa, gentzakoi baño.

34 Deunen batzañe guzietan bezela, zuenetan ere ema-
kumeak isil bitez; zilegi ez baitzaye, itz egitea, meneko
izatea baño, legeak dionez. 35 Zerbait ikasi nai ba'dute,
ordea, etxean senañari galde bezayote; emakumeari
alkegañi baitzayo elizean itz egitea.

36 ¿Zuenean soñtu, edota zuengana bakañik eldu al da
Yainkoaren itza? 37 Igarñena edo beste gogo-antziren
bat daukalakoan iñor ba'dago, bezagu idazten dudana
Yainkoaren agindua dala. 38 Iñork ori ez ba'lezagu,
beriz, ez da bera ere ezaguna izango. 39 Beraz, senideok,
igarñetan leya zaitezte ta mintzo arotzez egitea ez
ezayozute iñori eragotzi. 40 Dana, beriz, egoki ta
erabidez egin bedi.

XV

Yesu Kisto'ren berpizteaz ta gureaz

Orain, senideok, azalduko dizuet, nik iragañita,
artu duzuten Beñi Ona. Bertan sendo dirauzute,
2 ta aren bidez yarei izango zerate, nik irakatsi dizue-
danez eusten ba'diozute. Bestela, alpeñik siñetsi duzute.

3 Bego auñena, neronek len ikasita, irakatsi dizue-
dana: Kisto gure ogenakatik il da, idatzita zegonez;

4 eortzi ta irugañen egunean be'piztu da, idatzita zegonez. 5 Ta be'piztua Kepa'k ikusi du; gero amaikek ere ikusi dute; 6 gero bosteun senide baño geyagok batean; ayetako geyenak oraindik bizi, batzu, be'riz, il dirala. 7 Gero Yakob'i aurkeztu zitzayon, ta ondoren bidali guziei. 8 Azkenean ilortz oni ere ageri izan zait. 9 Bidalirik txikiena bainaiz, ta bidali izenez agertzeko inola ere ez lain, Yainkoaren Eliza esetsi dudan ezkerro. 10 Ala ere, Yainkoaren eske'ez, naizana naiz; ta ez da nigan alpe'rik Yainkoaren eske'ra egon; aitzitik ere, guziek baño lan geyago egin dut; ez nik, ordea, Yainkoaren eske'ak nerekin baño. 11 Ayek eta nik, be'riz, alda'rikatzen duguna, ta zuek siñetsi duzutena, auxe da.

12 ¿Nola, beraz, batzuk darasate ilak be'pizterik ez dagola, il artetik Kisto be'piztu dala alda'rikatzen dan ezkerro? 13 Ilak be'pizterik ez ba'dago, ezta Kisto ere ez da be'piztu. 14 Kisto be'piztu ez ba'da, be'riz, gure alda'ria uts, zuen siñestea uts. 15 Gezu'ezko aito'rlari ere agertzen gera gu Yainkoari buruz; Yainkoaren aurka, Kisto be'piztu dula aito'rtzen ari izan gera-ta; ez du, ordea, be'piztu, ilak be'pizten ez ba'dira. 16 Izan ere, ilak be'pizten ez ba'dira, Kisto ere ez da be'piztu. 17 Ta Kisto be'piztu ez ba'da, uts duzute siñestea; oraño zuen ogenetan baitzerate; 18 ta Kisto'rengan il diranak galdu dira. 19 Bizi aldi ontarako baka'rik Kisto'ren zai ba'gaude, gizakumerik eruka'rienak gera. 20 Orain, be'riz, ilartetik Kisto be'piztu da, ilen askiña. 21 Alegia, gizon baten bidez eriotza bezela, gizon baten bidez ilen be'piztea ere. 22 Adan'engan guziak iltzen diran bezela,

guziak ere Kisto'rengan pizten baitira. ²³ Bakoitza bere aldian; aurrena, Kisto; gero, Kisto'ren eto'aldian, Kisto'renak. ²⁴ Ondoren amaya izango da, al izate, aginte ta indar guziak iraulitakoan, Kisto'k yaure'ria Yainko ta Aitari itzuliko dionean. ²⁵ **Etsai guziak Aren oñazpian ipiñi arte,** Berak yauraldia euki be'ar du-ta. ²⁶ Azkena ere eriotza ezereztuko da; ²⁷ **Aren oñazpian dana ipiñi du-ta.** Dana Aren azpian datzala esana'ren, nabari da andik kendu be'ar dala dana azpiratu diona. ²⁸ Dana Aren azpira ezkerro, be'riz, Semea Bera, dana azpiratu dionari azpiratuko zayo, guzietan guzia Yainko izan dedin.

²⁹ Ezperen, ¿zer legikete ilen orde'z ukuzten diranek? Inola ere, ilak be'ripizten ez ba'dira ¿zertarako ayen orde'z ukuzten dira? ³⁰ ¿zertarako gu ere aldi oro ariskuan gabiltz? ³¹ Egun oro ilu'ren bainago senideok, Yesu Kisto'ren aitziñean zuetaz daukadan ila'rainbidez. ³² Epeso'n gizonki piztitzare'kin bu'rukatu ondoren zer irabazi dut? Ilak be'ripizten ez ba' dira, **yan dezagun, edan dezagun; biar ilko gera-ta.** ³³ Ez atzipetu: erausi txare'z ekandu onak gorbizten dira. ³⁴ Senera zintzo itzuli, ta ogenik ez egin; Yainkoa batzuk ez dazagute-ta; zuen alketarako diot.

Soin be'ripiztuen izaera

³⁵ Baña norbaitek dioke: ¿nola be'ripiztuko dira ilak?

25 Er. GIX, 1

27 Er. VIII, 7

32 Is. XXII, 13

¿zein soñez datozke? ³⁶ Zoroa, zuk ereiña ez da azkoítzen, lenago il izan ezik. ³⁷ Ereitean, beñiz, izango dan landare betea ez duzu ereiten, azi utsa baizik; adibidez, galazi, edo oñelakoren bat. ³⁸ Eta Yainkoak gara ematen dio nai dunez; azi bakoitzari dagokion gara. ³⁹ Aragi oro ez da aragi bera; gizaragia bat, abereena beste bat, egaztiena beste bat. ⁴⁰ Ba-dira ere ortziko izakiak eta luñekoak; bañan ortzikoaren edertasuna bat da, ta luñekoena bestea. ⁴¹ Eguzkiaren argia bat da, ta beste bat ilargiarena, ta beste bat izañena. Izañetik izañera ere argi-goraberak ba-dira.

⁴² Oñela da ilen beñpiztea. Luñera ustel, luñetik betiko mardul; ⁴³ luñera lotsagañi, luñetik goragañi; luñera ergal, luñetik azkañ; ⁴⁴ luñera soin azkai, luñetik soin adintsu. Izan ere, ba-dira soin azkai ta soin adintsu, ⁴⁵ idatzita dagonez: **Lenbiziko gizona, Adan, bizidun azkai egiña zan;** azken Adan, bizirazle adintsu. ⁴⁶ Ez, ordea, auñenik adintsua, azkaya baño; ta gero adintsua. ⁴⁷ Lenbiziko gizona, luñetikoa, luñeko; bigañen gizona, zerutikoa. ⁴⁸ Luñekoak, luñekoaren eduko; zerukoak, zerukoaren eduko. ⁴⁹ Beraz, luñekoaren irudiko izan geran bezela, zerukoaren irudiko gaitezan. ⁵⁰ Orizute, senideok, diodana: Yainkoaren eñia aragi-odolek ezin iritsi dute; ezta ustelkeriak ustel eziña ere. ⁵¹ Orizute berebat dasaizuedan itzalgañi au: ez gera guziok ilko; guziok, ordea, beñituko, ⁵² ziztakoan, begikliskan, azkeneko turutotsez. Turutak yoko du, ba, ta ilak yaikiko

⁴⁵ As. II, 7

⁵¹ Vulgata'k: Guziok ilko gera, noski, ez ordea guziok aldatuko.

dira betiko gordin, eta gu beñituko gera. ⁵³ Ustelkoñ au gordindu ta ilkoñ au betiko bizkoñ biurñtu beara da-ta. ⁵⁴ Ustelkoñ au gordin ta ilkoñ au betiko bizkoñ biurñtutakoan, beñiz, ordun beteko da idatzitako itz au: **Eriogurendak irentsia da.** ⁵⁵ Nun dago, erio, zure gurenda? nun dago, erio, zure eztena? ⁵⁶ Erioren eztena, beñiz, ogena da, ta ogenaren piztugañi legea. ⁵⁷ Yainkoari eskeñik asko, ordea, Yesu Kisto gure Yaunaren bidez gurenda damaigu-ta.

⁵⁸ Beraz, ene senide maiteok, ekin beti gogoñ ta tink Yaunaren arloari, zuen lana Yaunaren begitan alpeñik ez dala baitakizute.

XVI

Itzostea

Deunentzako eskebatzeaz Galatiñko elizei agindu niena zuek ere egizute. ² Lenbiziko astegunetan zuetako bakoitzak nai lukena berezi ta bildu beza, oñera natoñkenean, eskebatzerik egin ez dedin. ³ Ta oñ aurkeztuz, zuek aututako lagunak Yerusalen'a idazkiekin igoñiko ditut zuen emariak eramatera. ⁴ Ta ni ere yoatea on ba'leritza, nerekin yoango dira. ⁵ Zuengana, beñiz, ba-natoñke, Makedoni igarotakoan; andik igaro beañ dut, ba. ⁶ Ta zuenean apika geldituko naiz negute osoan, nere ibilketarako atondu nazazuten. ⁷ Ez baitzaituzt orain iraizean ikusi nai; astiroxe, ordea, zuenean ekuratzeko ustez nago, Yainkoak ba'letsa. ⁸ Pentekos-

⁵⁵ Is. XXV, 8; Os, XIII, 14

te'taraño, beñiz, Epeso'n egongo naiz, 9 ate aundi ta zabal zabala iriki zaidalako, etsai asko izanañen.

¹⁰ Timote oía ba'letor, begirazute, ez dedin belduñez zuen artean egon; Yaunaren eginbidean, ni bezela, ari da-ta. ¹¹ Ez beza inork nardatu; ta txeraz igorazute, nigana datoñen; aren zai bainago senideekin.

¹² Apol senideari biziro eskatu diot zuetara senideekin yoateko; bañan inola ere ez du oraingoan yoan nai; aukera izan orduko, yoango da, ordea. ¹³ Zaudete ernai ta siñestean gogor; ekin gizonki lanari, ta azkartu zaitzete. ¹⁴ Dana zuenean maitasunez egin bedi.

¹⁵ Orain, senideok, eskari bat. Ba-dakizute Estebe'ren etxeakoak Akai'ko askiñak dirala ta deunen laguntzale gogoz egin dirala. ¹⁶ Orelako gizoni, ta lankide ta laguntzale guziei, beraz, adiguritsu zatozkiete.

¹⁷ Pozik nago Estebe ta Portunat eta Akaiko'ren etoñeraz, zuen gabea berek bete dutelako, ¹⁸ nere biotza ta zuena pizkoñtu baitute.

¹⁹ Agur dagizute Asia'ko elizek. Agur dagizute Akil ta Piriska'k beren etxeo elizarekin. ²⁰ Agur dagizute senide guziek.

Zuek ere elkarí muiñ deunez agur egiozute.

²¹ Oía Paul onen agura, neronen eskuz egiña.

²² Inork Yesu Kisto Yauna maite ez ba'du, birao alakoari; Maran atha.

²³ Bego zuekin Yesu Yaunaren eskeía. ²⁴ Guziok Yesu Kisto'rengan maite zaituzt.

²² **Maran atha:** «Yauna ba-dator», eta **Marana tha:** «Yauna, zatoz» aramaitañen esakerak dira, Eliz beñian erabiliak, gutartean Alleluia ta Hosanna bezela.

KORINTO'KOENTZAT

PAUL'EN IDAZKIETAKO BIGAĀENA

Idazki au Paul'ek Makedoni'n idatzi zun, Ti'ek Korinto'tik etořita lengoaren ondore onak eta Paul'en etsayek aren aurka mardaitzen zutena azaldu zizkionean. Emen, beraz, Paul'ek bere burua garbitzen du ta Korintoarēi samiņa leguntzen die, berekin eta Kisto'rekin adiskidetzeko.

I

Sařera

Paul'ek, Yainkoaren nai izatez Yesu Kisto'ren bidali onek, eta Timote anayak,

² Yainkoaren Korinto'ko elizari, ta Akai osoan dau-den deun guziei;

Yainko gure Aitarengandik eta Yesu Kisto Yauna-rengandik eskeř ta gentza.

³ Onets bedi Yesu Kisto gure Yaunaren Yainko ta Aita, Aita guziz erukitsu ta Yainko guziz pozemalea, ⁴ gure lořaldi guzietan pozten gaituna, gerok ere, Yainkoak pozten gaitun pozez, lořaldian diranak poztu ditzakegun. ⁵ Nekeak eruz Kisto'rengatik ditugun bezela, poza ere eruz Kisto'rengandik dugu-ta. ⁶ Atsekabe ba'gera, zuen poz ta onerako; pozik ba'gaude, zuen pozerako; guk yasaten ditugun neke berak egonařiz yasane-raziko dizkizuen pozerako. ⁷ Ořela zuetzaz dugun uste ona areagotzen da, gure nekekike izanda, pozkide ere izango zeratela baitakigu.

⁸ Ez dugu nai, senideok, Asia'n izan dugun latzaldia zuek ez yakitea. Biziaz aspertzeko ere bezain astun ta la'egia izan zaigu-ta. ⁹ Erio-epaya gerongan somatzen genun, ustea gerongan ez eza'rtzeko, ilak pizten ditun Yainkoagan baño. ¹⁰ Berak o'renbesteko iltzoritik atera ta ateratzen gaitu, baita gerokoan ere aterako gaitula uste dugu, ¹¹ gure alde otoi egitez lagun ba'zatozkigute. O'rela ainitzen ede'ragatik egin digun adeyaz ainitzek gure alde eske' dagiokete.

Paul'ek ez die korintoa'ei ezertan uts egin

¹² Biotzak aito'rtzen digu, ta au da gure ila'rainbidea, argi ta garbi Yainkoaren begitan guziekin ta batez ere zuekin yardun oi dugula, ez aragi-yakitez, Yainkoaren eske'rez baño. ¹³ Ez dizuegu, ba, zerok iraku'ri ta ezagun duzutena besterik idazten. Ta uste dut guziok noizpait ere ezagungo duzutela ¹⁴ zuetako batzuk aspaldi dazagutena, zuen ila'rainbidea gu gerala, zuek Yesu gure Yau-naren egunean gurea izango zeraten bezela.

¹⁵ Uste ontan zuetara au'renik yoan nai nun, eske'aldi bikoitz zenezaten; ¹⁶ o'rtik Makedoni'ra ni igarotzean, ta Makedoni'tik zuetara itzultzean zuen laguntzaz Yudai'runtz eto'rtzeko. ¹⁷ Ori naita, be'riz, zuzika azaldu ote naiz? Ala, nere asmoa aragi-yakitez kilikolo ote dabil, aldian bai, aldian ez? ¹⁸ Ba-daki Yainko ziñak egin dizuedan itzean **bai ta ez'ik** ez dagola. ¹⁹ Ez baitzan **bai ta ez**, guk, neronek, Silban'ek eta Timote'k zuenean iraga'ritako Yainkoaren Seme Yesu Kisto'rengan, **bai**

utsik baño. ²⁰ **Bai** utsa dira, ba, Beragan Yainkoaren agintza guziak, ta Beragatik **amen** datořkio Yainkoari gure bidez. ²¹ Yainkoa da Kisto'rentzat gu ta zuek sendotu ta iguřtzi gaituna. ²² Beraxe ere da galgatu gaituna ta gure biotzetan Gogo-baikuntza ipiņi diguna.

²³ Nere biziagatik, beraz, Yainkoa aitořzat deituz, diot, Korinto'ra oraindik itzuli ez ba'naiz, atsekaberik zuei ez emateko izan dala; ²⁴ siņeste-arazoan yabe baño, zuen urgazle izan nayago dugu-ta; siņestean sendotuta baitzaudete.

II

Nondik Paul'en atsekabea

Beraz, zuetara atsekabetan ez etořtzeko asmoa arřtu dut. ² Bestela, atsekabetzen ba'zaituzt, nork ni poztuko? Neronek atsekabetuek ote? ³ Idatzia, beraz, idatzi dizuet, ořera natořenean, poztu beař nauten aye-txengandik atsekaberik ez arřtzeko, nere poza zuen guzie-na dala etsita bainago guzioi buruz. ⁴ Atsekabe ta biotz-kezka gořitan idatzi baitizuet malko ugariz, ez noski atsekaberik zuenean sořtzeko, zeinbeste maite zaituztan zuei adirazteko baizik.

Askesteko aolkua

⁵ Norbaitek atsekabe sořtu ba'du, beřiz, atsekabetua ez naiz ni bakařik izan, zuek guziok baño, nolarebait bederen, geyegi ez esateko. ⁶ Naikoa du alakoak geyen-

20 Bai izan dira=bete dira.

engandik aítutako atára, ⁷ ta obe litzake zuek ari adorea adeyez pizkoítzea, atsekabe geyegik gizaxoa ito ez dezan. ⁸ Arenganako txera, beraz, areágotu ezazute; aén, bai, aén. ⁹ Ikeáldian esaneko ote zeraten ezaguteko ere, idatzi baitizuet. ¹⁰ Zuek iñor asketsi orduko, nik ere bai; nik ere iñor asketsi ba'dut, zuen edeáगतик Kisto'ren auéan asketsi baitut, ¹¹ Satan'ek atzipetu ez gaitzan; aren asmakeriak ezagun ditugu-ta.

¹² Kisto'ren Beí Onagatik Troa'ra eldu nintzanean, Yainkoak atea zabaldu zidan aén, ¹³ atsedetik ez zan nere biotzarentzat, nere anai Tit idoro ezin ezkerro. Ta angoei agur egiñik, Makedoni'ra yoan nintzan.

¹⁴ Baña ¡Yainkoarentzat bego eskeé ona! Berak beti garai ateratzen gaitu Kisto'ren edeáगतик, eta bere Beíaren uríña gure bidez alde orotara baéyatzan du. ¹⁵ Kisto'ren usai edeá Yainkoaren atziñean gera, ba, yareiten diranentzat, baita galtzen diranentzat ere; ¹⁶ auentzat, eriotzarako erio-luñin; ayentzat, beíz, bizi-luñin. Ta ¿oítarako nor lain? ¹⁷ Ez gera, ba, askoren ereduz, Yainkoaren itza gezuéz saltzen ari; aitzitik, Yainkoagandik datoéenez Yainkoaren auéan ta Kisto'ren izenean zintzoki zabaltzen dugu.

III

Bidalien arlo ta gurentasuna

Beíz asi ote gera gure burua goratzen? ¿Zuentzako, ala zuengandiko gorantzi-idazkien beáean ote gaudé, batzu bezela? ² Zerok zerate gure biotzetan gizon gu-

ziek ezagun ta irakuñi dezaketen idatzitako idazkia. ³ Nabari da, ba, Kisto'ren idazki zeratela, gure bidez egiña ta Yainko biziaren Atsez biotz-aratoletan, ez aroletan, idazturik gabe idatzia.

⁴ Au da Kisto'rengatik Yainkoaganako dugun uste ona; ⁵ ez gerok geronez zerbait asmatzeko ere gai gerakakoan; gai izatea Yainkoagandik datořkigulako baizik. ⁶ Berak ere Itun Beñia, gogoan baizik ez idatzia, iragaritzeko gai egin gaitu; idazkiña ilgarí da, ba; gogoa, beñiz, bizigarí.

⁷ Beraz, arietan idatzitako erio-mořoitza Mois'en aurpegian alako deduz azaldu ba'zan, iraizean zerion istagatik, aren aurpegia israeldarek ezin begira bait-zuten, ⁸ ez al dagokio gogo-mořoitzari dedu aundi-agorik? ⁹ Eriotzarako mořoitza aintzatsu ba'zan, aintzatsuagoa da, noski, zindokuntzarako mořoitza. ¹⁰ Izan ere, aintza bikain oni buruz, beñolako ura aintza ez zan. ¹¹ Iraizekoa aintzatsu ba'zan, irautekoa aintzatsuago izango da-ta.

Zabal zabal itz egiteko eskubidea

¹² Uste ontan gaudela, zabal zabal diardugu, ¹³ ez Mois'ek bezela. Onek bere aurpegigañean estalki bat zezaren, iraizekoaren azkena israeldarek ez zekusten. ¹⁴ Ayen adiña, beñiz, kamustu zan. Gauřdaño ere estalki ura erantzigabe baitago Itun Zařa irakuřtzean, Kisto'rengan erazten da-ta ¹⁵ Gauřdaño estalki au ayen

³ Itun edo Lege Zařa, izkiz idatzia zan osorik; berez ilik zegon ordea, ta eragiterik gabe. Lege Beñia, ordea, Goteunak biotzetan jařia dago bizi bizirik, agintzen diguna egiteko indařtzen eta eragiten gaitula.

biotzgañean ipinita dago Mois irakuítzen zayen bakoi-
tzean. ¹⁶ Baña Yaunarengana orduko, estalkia kenduko
da. ¹⁷ Yauna, beíz, gogo da; ta Yaunaren Gogoa non-
bait ezkerro, yareitasuna ere bertan dago. ¹⁸ Ta guziok,
aurépegi-utsik Yaunaren aintza gomatus, Aren irudi
biurítzen gera, Yaunaren Gogoak argirik argi eraginda.

IV

Paul'en asmo ta lanbide bakara

Lanbide au Yainkoaren erukiagatik dugun ezkerro, ez
zaigu adorea moteltzen. ² Aitzitik ere, itzalgaizke-
riak oro utikan yaurtitzen ditugu, ta amaúrik gabe ga-
biltza, Yainkoaren itza iruzuéz nasteke, egia erakutsiz,
ostera, Yainkoaren aúrean gure burua sen oneko guziei
gorantzirik. ³ Darabilgun Beí Ona inorentzat estalirik
ba'dago, galtzen diranentzat estalirik dago; ⁴ Beí
Onaren argia ta Yainkoaren irudia dan Kisto'ren aintza
ageri ez dakien, mende ontako yainkoak adimena itsutu
dien siñesgabeentzat. ⁵ Ez gera, ba, gure buruak alda-
ríkatzen ari; Yesu Kisto, bai, Yauntzat iragaítzen,
ta Yesu'rengatik gerok zuen moíroitzat azaltzen baño.
⁶ «Íluntatik argia ista bedi» esan zun Yainkoa Bera gure
biotzetan istatu da, ba, Yesu Kisto'ren aurépegitik darion
Yainko-aintzaren ezaguera argitzeko.

Neketarako indara

⁷ Altxo' au, beíz, luézko ontzietan daramagu,
onenbesteko indara Yainkoari egotzi dakion, ez guri.

⁸ Ertsirik gaude beti, bañan itorik ez; lañi, bai, etsian ez; ⁹ esetsi, bai, utzirik ez; irauli, bai, galdurik ez. ¹⁰ Yesu'ren eriotza soñean daramagu beti, Yesu'ren bizitza ere gure soñean ager dedin. ¹¹ Bizi geranok, ba, Yesu'rengatik il zorian gaude beti, Yesu'ren bizitza gure aragi ilkoñean ager dedin. ¹² Oñela gugan eriotza, ta zuengan bizia ari da.

¹³ Bañan idatzita dago: **Siñesten dut, eta oñexegatik itz egiten ere.** Siñeste-ats auxe daukagula, beraz, guk ere siñetsi ta oñexegatik itz egiten dugu. ¹⁴ Ba-dakigu, ba, Yesu Kisto beñpiztu dunak gu ere Yesu'rekin beñpiztu ta zuekin yañiko gaitula. ¹⁵ Dana zuengatik da-ta, ainitzek adeya añtuz, ainitzen eskeñ ona Yainkoaren aintzarako ugaldu dedin.

¹⁶ Argatik ez gera okiltzen; ostera ere, azaletik geran ori andegatzen ba'da, gure bañnekoa egun oro beñizten diyoa. ¹⁷ Apuñ bateko dan loñ ariñak betiko aintza ezin aztatu alakoan kopuratzen baitigu. ¹⁸ Begiok ez ditugu, beñiz, ikusten dan ezertara itzuliak, ikusi ezin diranetara baizik; begitan dauzkagunak apuñ bateko baitira; ikusi ezin diranak, ordea, betiko.

V

Betiko gure etxeruntz

Yakin ere ba-dakigu luñeko aldia egiteko dugun txabola amaratzen ba'da, betiko etxea zeruan daukagula, giza eskurik gabe Yainkoak atonduta. ² Emengoan

¹³ Er. CXV, 10.

baikaude intzirika zeruko gure aterbeaz gañetik yantziak izateko erpai; ³ yantzirik eta ez erantzirik egotekotan, beintzat. ⁴ Etxola ontan geranok. beñiz, antzarka gaude, erantziak izan ez nairik, gañetik yantziak baño, gugan ilkoñ dana bizitzan murgildu dedin. ⁵ Ta oñtarakoxe atondu gaitun Yainkoak Gogoa baikuntzat eman digu. ⁶ Beti kementsu, beraz, ta soin ontan bizi geraño Yaunarengandik arotz gabiltzala yakiñik; ⁷ (ez dugu, ba, ikustez bide egiten, siñestez baizik); ⁸ kemenez goaz, ta soñetik irten ta Yaunaren aldame-nera eldu nayago dugu. ⁹ Oregatik, soin au euki edota utzi beañoan ere, Yaunari atsegingañi izateko azkutsu gabiltza. ¹⁰ Guziok, ba, Kisto'ren auzitegira azaldu beañoak gera, sointan egindako on edo gaitzari dagokiona artzeko.

Kisto'gana dago Paul'en biotz osoa

¹¹ Beraz, Yaunaren belduñez beterik, gizonei onañgari izan nai dugu. Yainkoak, noski, ezagun gaitu, ta zuek ere ezagungo gaituzutelakoan nago. ¹² Ez gatozkizue gure burua beñiro gorazten, ilañainbidea gutzaz zuei ematen baño, biotzekoaz beañean, azalekoaz ilañaintzen diranei buruz. ¹³ Izan ere, aidoñki ari giñanean, Yainkoarentzat ari giñan; senazago ari izatean, zuentzat ari gera; ¹⁴ Kisto'ren maitasunak axatzen baikaitu oldotz onez: ¹⁵ guziengatik Kisto il da, bizi diranak ez ditezan

³ Yantzirik egotekotan. Yesu Kisto datoñenean, gorputzez yantzirik edo bizirik; ez erantzirik edo ilik, aurkitzen ba'gera.

⁵ Eriotza bilduñgañi da, baña Yainkoagana yoateko bide bakaña dan ezkerro, biotz onez igaro beañ dugu.

ořezkero berentzat bizi, ayengatik il ta beřpiztu danarentzat baizik.

¹⁶ Au dala bide, guk ez dugu iñor aragi-arauz begiratzen, ta iñoiz aragi-arauz Kisto begira ba'dugu, orain beintzat, ez dugu ořela begiratzen. ¹⁷ Kisto'rengan iñor ba'da, izaki beři da; zařenak egin du; ara dana beři. ¹⁸ Ta guzi au Yainkoagandik datoř, Kisto'ren bidez bere adiskide ta berekiko adiskidetzale egin gaitun ezkero. ¹⁹ Kisto'rengan Yainkoa baitzegon gizadia Berekin adiskidetzen, gizakiei beren ogenak ez egozten, ta adiskidetzeko itza gugan ipintzen. ²⁰ Kisto'ren geznari gera, beraz, gure aoz Yainkoa aolkaria ba'liz bezela. Kisto'ařen dasaizuegu: Yainkoarekin adiskidetu zaitezte. ²¹ Ogenik ez zezagun Uraxe ogen biurtu zun, gerok Arengan Yainkoaren zindotasun biur gaitezcan.

VI

Nola Yainkoarekin lan egin bear

Aren lankidetzat, aolkatzen dizuegu ere Yainkoaren adeya alpeřik ez artzeko. ² Berak baitio:

Adei-garayan entzun zaitut;

osasan-egunean lagun etoři natzaizu.

Ořa orain adei-garaya, ořa orain osasan-eguna.

³ Iñori ezertan ez diogu gaizpiderik ekařtzen, gure eginbideaz mardailkizunik ez dedin. ⁴ Ostera ere, orotan Yainkoaren mořoi azaltzen gera, egonaři aundiz elkaitz, beařaldi, axanpa, ⁵ ukaldi, baitegi, zalaparta,

² Is. XLIX, 8

neke, lorik-eza, ta baruak yasaten; ⁶ garbitasunez, yaki-
tez, biotz zabal ta xamuñez, Goteunez, maitasun ziñez,
⁷ egi-aitoñez, Yainkoaren indañez, zuzenbide-iskilũak
eskui-ezkeretara erabiltzez; ⁸ ospe,naiz alketan; izen
on, naiz txararekin; gezurti-aipuz, egizale; ⁹ ustez ezeza-
gun, ezagun ordea; ustez ilik, eta ara bizi: ustez astin-
duak, ez ordea ilak; ¹⁰ ustez goibel, ta beti pozik; ustez
landeñ, baña lagunik asko aberasten; ustez ezer gabe, ta
guzien yabe.

Siñesgabekoen bidetik urundu bear

¹¹ Korintoarok, zuengana dago gure aoa irikirik,
gure biotza zabalik. ¹² Ez zaudete gure biotzean estu;
zuen, bai, estuxea zaigu. ¹³ Ordain egokia biurtzeko,
beraz, biotzok, añen, zuek ere zabaldu: semetxoekin
bezela mintzo naiz.

¹⁴ Ez zaitez teta siñesgabekoekin uztañtu. ¿Zein er-
kidego daiteke, ba, zindotasun ta okekeritar-tean? ala
¿zein elkartze argi ta ilun artean? ¹⁵ zein itunik Kisto ta
Belial artean? zein batzerik siñestun eta siñesgabearen
artean? ¹⁶ zein tokirik yauretxean sasiyainkoentzat?
Yainko biziaren etxe baikera gu, Yainkoak dionez:

**Ayen artean etxekotu ta ibiliko naiz,
ta beren Yainko, izango naute
ta nere eñia izango dira.**

**¹⁷ Ayen artetik, beraz, irten ta alde egizute,
dio Yaunak, ta satsurik ez ikutu.**

Ta Nigana artuko zaituzt Nik,

16-18 Leb. XXVI, 12, Ezk. XXXVII, t. a.

18 eta Aita izango natzaizue.
ta seme-alaba izango zatzazkidate,
dio Yaun guziz altsuak.

VII

Paul en kezka-pozak oro Korintoarengatik dirala

Agintza auek ditugula, beraz, aragi ta gogoa kutsu guzitik garbi ditzagun, geron zindokuntza Yainkoaren belduéz buruturik.

² Atotsi gaituzute. Inori ez diogu kalterik egin, ez gorpizterik, ez iruzuñik. ³ Akañ-usañik gabe darauski-zuet; len ere esan baitizuet gure biotzean zaudetela bizirako ta eriotzarako. ⁴ Zabal zabal nabil zuenean, zuentzaz oso ilaíaindurik. Atsegiñez beterik eta pozez gañezka gaude gure loíaldi guzietan. ⁵ Alegia; Make-doni'ra ezkerro, atsedetik ez du gure aragiak idoro; osterera ere, edolako loíaldiak yasan ditugu; ⁶ lekoretik buñukak, bañetik belduía. Bañan apalak pizkoítzen ditun Yainkoak gu ere pizkoítu gaitu Tit'en etoíeraz. ⁷ Ez onen etoíeraz bakañik, ordea, baita zuengandik berak aítu dun pozez ere: nere pozari poza geituz, niganako zuen gale, negaí ta leya azaldu dizkigu-ta.

⁸ Ez naiz, beraz, garbai, nere idazkiz zuei atsekabe ekañi izanaz; ta, apuñ bateko ere, idazki ark atsekabetu zaituzala ikusirik, garbai nintzan añen, ⁹ orain, beñiz, pozten naiz, ez noski atsekabe izan zeratelako, garbairako atsekabea izan zaizuelako baño. Yainkoak nai

dunez atsekabetu zerate-ta, kalterik ořela gugandik ar-tzeke. ¹⁰ Alabaña, Yainkoagandik dan atsekabeak osasunerako garbai sendoa dakař; gizagandik dan atsekabeak, ostera, eriotza dakař. ¹¹ Orizute, ezperen, zeinbesteko ataza zuengan piztu dun Yainkoagandiko atsekabeak, zein zuribide, zein aseře, zein belduř, zein gogo, zein azku, zein zořoztasun. Alde orotara erakutsi duzute arazo artzaz garbi zaudetela. ¹² Ez nizuen, beraz, iraintzaleagatik, ez irainduagatik idatzi; Yainkoaren auřean oř duzuten guganako azkua ager dedin baño. ¹³ Ořexegatik poztu gera. Gure poz au, beřiz, Tit'en pozak areagotu digu; biotza guziok suzpertu diozute-ta. ¹⁴ Arekin zuetaz nolabait ilařaindu ba'naiz ere, ez naiz alke; ostera era, egi utsa beti esan dizuegun bezela, egi azaldu ere da zuetaz nik Tit'i egindako gorantzia. ¹⁵ Ta zuenganako biotz-gařa areagotzen zayo, zuen guzien menaz ta erakutsi zenioten belduř-ikaraz oroitzean. ¡Ene poza, zuengandik orotan entzindu naiteke-ta!

VIII

Makedoniaren esku zabala

Yakiñerazten dizuegu, senideok, Makedoni'ko elizei Yainkoak egindako adeya. ² Lořaldi betean ibilita ere, poz pozik ayek; eta landeř pořokatuak dirala ere, ayen biotzbera aberats azaldu zan. ³ Aitoř dagiet, ba, eskuzabal azaldu dirala, ⁴ deunen alde berak ere lagun etořtzeko baimena ařen ta ařenez guri eskaturik. ⁵ Ta guk uste aña ez ezik, beren buruak ere Yaunari auřena,

ta gero, Yainkoak naita, guri ere eskeñi dizkigute. ⁶ Au dala bide, Tit'i eskatu diogu eginkizun on au asi bezela, zuenean ere burutu dezan; ⁷ orela zuek orotan, siñestean, izketan, ezagueran, danerako azkuan ta gure biotzeko maitasunean auñelari izan zeraten bezela, sorozpide ontan ere auñelari izan zaitezten.

⁸ Au, beñiz, ez dizuet agintzeko asmoz esaten, besteen azkuz zuen biotz ona kilikatzeko baizik. ⁹ Ba-dakizute, ba, Yesu Kisto gure Yaunaren adeya, aberatsa zalarik, zuengatik lander' egin zanean, bere lander'tasunez zuek aberasteko. ¹⁰ Onu utsa da arazo ontan damaizuedana, zuei dagokizuenenez; burupide au erabiltzeko ez ezen, asmatzeko ere auñenak igaztik yañi zeraten ezkerro. ¹¹ Orain, beraz, egitez burutu ezazute, asmoa artzeko leyari, burutzekoa ere, duzutenaren neuñiz, berdindu dakion. ¹² Ez baitzayo iñori gogoleya neuñtzen berak ez dunaren arauz, dunaren arauz baño. ¹³ Besteak legun bizi, zuek ordea latz, ori ez; guziak berdin. ¹⁴ Zuen geyegiak ayen uritasuna orain bete beza, ayen geyegiak ere zuen uritasuna bete dezan. Onela guziak berdin, ¹⁵ idatzita dagonez: **Asko bildurik, ez zuten geyago; gutxi bildurik, ez uriago.**

Bidali yatoñak

¹⁶ Yainkoari eskerik asko, Tit'en biotzean zuengana azku au piztu du-ta. ¹⁷ Gure añenak entzunda, ba, azkua geitu zayo ta zuengana pozik irten da.

15 Irt, XVI, 18

¹⁸ Arekin senide bat ere bidali dizuegu, eliz orotan entzute onekoa, ¹⁹ ta Yainkoaren goraldirako gogotik darabilgun sorozpide ontan bidaide dakigun, elizek autua. ²⁰ Oñela mardailkeriak ito nai ditugu, oñenbesteko dirutza gure yaurpidean artu bea' dugun ezkerro. ²¹ Yainkoaren begitan ez ezik, gizauréan ere zintzo yardun nai dugu-ta. ²² Gure anaya ere ayekin igoñi dugu, askotara askotan azkutsu agiri baitzaigu, orain batez ere azkutsuago, zuei buruz daukan uste onagatik. ²³ Oñ, ba; Tit nere lagun ta zuekiko lankidea da; gure senide oriek, beñiz, elizen bidali ta Kisto'ren goragañi. ²⁴ Abegi on egiezute, beraz, ta zuentzaz dugun ilarainbidea elizen auréan erakusazute.

IX

Bildubea'ra laster bildu bea'

Deunentzako sorozpideaz zuei idaztea alpeñik litzaidake. ² Zuen azkua ezaguna baitzait, eta artzaz ilaraindurik makedonia'ren artean ibili naiz esaten: igazdanik Akai gerturik dago. Zuen azkuak lagunik geyenak zirikatu ditu. ³ Senideak ala ere bidali dizkizuet, zuetaz ilaraintze ori ez dedin arazo ontan ustel irten, ta, esan dudanez, gerturik zaudeten. ⁴ ¡Au nere lotsa, zuena ez esateko, makedonia'rek zuenera nerekin elduta arazo ontan gertugabeak ba'zakusazte! ⁵ Uste izan dut, beraz, senide oriei zuengana auretik yoateko eskatu

bea' niela, eskeñitakoa esku zabalez ta zekenkerik gabe zuek emanda, mugonez berek gertu dezaten.

Esku zabalen saria

⁶ Orizute: azi uritik uzta urí, ta azi yoritik uzta yori. ⁷ Bakoitzak bere biotzean erabaki duna eman beza; ez ordea betilunik edo ezin bestez bezela; emale betargia Yainkoak maite du-ta. ⁸ Altsua da, be'iz, Yainkoa edotariko emariak zuengan ugaltzeko, zerontzat guzira-ko naikoa beti eukirik, edozein eruki-egintzarako ere geiga'ri izan dezazuten. ⁹ Idatzita baitago:

**Emariak pa'astan lande'ei banatu dizkie;
aren zuzentasunak betiko dirau.**

¹⁰ Ereileari azia ta yateko ogia damazkionak, zuei ere azia oparo emango dizue ta zuen zuzentasunaren zitua geituko du. ¹¹ O'rela zuek orotan aberastuta, Yainkoaganako eske'í ona gure bidez pizturik, edozein erukirako lain izango zerate. ¹² Eruki-arazo onen yaur'pidea, deunen bea'aldia arintzeko ez ezen, eske'í-egite ugari Yainkoagana pizteko ere berebizikoa da-ta. ¹³ Ainitzek, ba, onelako erukiagatik Yainkoa goresten dute, Kisto' ren Be'ri Onari ain atxikiak eta ayei ta guziei zuena emateko ain eskuzabalak zuek ikustean. ¹⁴ Ta zuen alde otoi egiñez, biotz biotzetik maite zaituzte, Yainkoak zuengan ipiñi dun adeiga'ri bikañagatik. ¹⁵ Eske'rik asko Yainkoari, Beragandik dugun ezin esan alako emariagatik.

9 Er. CXI, 9.

X

Batzuen mardailkeriak itotzeko

A olku bat orain Kisto'ren Biotz bera ta otzanagatik niri, aldamenean apal ta urutik zo'rotz omen naitzaizuen Paul oni, entzuidazute. ² Eragozkidazute, a'ren, o' nagokenean, aragi-yitez gabiltzala uste dutenei, erakutsi omen dudan larderiaz gogo' egiteko bea'ra. ³ Aragitan, noski, bizi gera; ba'nan ez gera aragi-gudaka ari. ⁴ Darabilgun gudan iski'loak, aragi-iski'loak ez dira; Yainkoagandik dato'kie, ordea, gazteluak eta giza-asmakeriak iraultzeko inda'ra. ⁵ Ayen bidez iraultzen goaz Yainkoaren yakintzaren au'ka yaikitako antuiste guziak, eta Kisto'ren mendera gogo guziak lotuta eka'rtzen ditugu. ⁶ Ta menpetza zuenean osoa daitekenean, edozein biu'keri ata'ratzeko gerturik gaude. ⁷ Azalekoa zuek dakusazute. Kisto'rena dala i'ork uste ba'du, uste beza, be'riz, bera bezain Kisto'renak gerala gu ere. ⁸ Ta Yainkoak zuen onerako, ez zuen kalterako, eman digun aginteaz geixeago i'la'rainduko ba'nintz ere, ez nintzake argatik alke izango. ⁹ Ez uste, ala ere, izua zuei sa'rtu nai dizuedala; ¹⁰ nere idazkiak, bai, astun ta zo'rotzak omen dira-ta; lazoa, be'riz, kaxka', ta mintzoa nardaga'ri. ¹¹ O'rela uste lukenak yakin beza, u'rundik idazkietan itzez gerana, aldamenera ezkerro egitez ere gerala. ¹² Bekokirik ez dugu, ba, beren buruen gorantzika dabiltzan batzuekin gure burua le'okatu ta berdintzeko.

Sena galtzen dute, ordea, beren buruak beren buruekin neurítzean, ta beren buruak beren buruekin erkatzean.

¹³ Gu, beñiz ez gera neurí gabe ilárainduko; neurí zaigu, ordea, zuenganaño eltzeko agindua, Yainkoak guri neurítzat emana. ¹⁴ Ez gera, ba, etenbeárez, zuengana ezin elduan bezela, besoak luzatzen ari; Kisto'ren Beñi Onarekin zuenera eldu izan gera-ta. ¹⁵ Iláraitzean ez dugu, ba, besteren lanak guretuz, neuría austen. Ta uste dugu, zuen siñestea azkoítu daitekenean, gure neuríaren arauz arloa zabalduko zaigula, ¹⁶ zuen bazteráldetik aruntzago Beñi Ona eraman dezagun, besteren arloan bestek egiñaz iláraitzeke.

¹⁷ Iláraitzen dana, beraz, Yaunañen iláraindu bedi. ¹⁸ Ontzat ártzekoa ez da, ba, bere burua gorazten duna, Yaunak gorazten duna baño.

XI

Ba-dute korintoárek Paul'engan zer onetsi

A puñ bat erotzen ez al nauzute utziko? Utzi, bai, añen. ² Yainkoaren tukuz tukutsu nauzute, ba; Kisto'ri, eskeñita baitzaituzt, senaígai bakañ Oni, neska garbitzat aurkezteko. ³ Ta belduñ naiz, sugeak bere maltzuñkeriz Eba liluratu zun bezela, zuen biotzak ere Kisto'renganako zintzotasun ta garbitasunetik goñbiztuko ote diran. ⁴ Guk azaldua izan ezik, Kisto'ren bat azaltzen, edo zuek ártua izan ezik, Gogoren bat es-

² Yainkoaren tukuz edo espaz=Yainkoak Israel eñiari erakusten zion maitasun tukutsua bezelako maite-miñez.

keintzen, edo gure aotik entzuna izan ezik, Beñi Onen bat ekaítzen norbait ba-datoíkizue, adeitsuki entzuten diozute.

5 Gu, beñiz, orelako bidali gurenei buruz ezertan motzagoak ez geralakoan gaude. 6 Itz egiteko motelak ba'giña ere, yakintzan, ordea, ez; ta aintzat aldi ta alde orotan zerok ezagun gaituzute. 7 Ala, zuek goratzeko apalik nenbilanean ta Yainkoaren Beñi Ona adirazten nizuenean, okeñ ote nengon? 8 Zuentzat lan egiteko, beste elizak erantzi ditut, ayengandik emendioa aítuz. 9 Zuenean nengola, laztuta ere, ez nintzan zuetako iñoren bizkañ bizi. Uts egin zitzaidana Makedoni'tik etoñitako senideek bete zidaten; ta orotan egon naiz zuei nekagañi izateke, baita egongo ere. 10 ¡Ala Kisto'ren egia! ez zait Makedoni alderdietan ilaíainbide au ustelduko. 11 Zergatik? Maite ez zaituztalako ote? Yainkoak ba-daki. 12 Dagidana egiten yaíraiko ere naiz, arotuta dauzkan yardueran gure idekotsu agerimiñez bidebila dabilzaneñ bidea eragozteko. 13 Sasibidaliak dira oriek, langile gezuñtiak, Kisto'ren bidali-zomoñoz yantzita. 14 Ez aítu; Satan ere argi-aingeruz zomoñotzen da-ta. 15 Aítzekorik ez da, beraz, aren otseñak zindotasunaren otsein-zomoñoz yazten ba'dira. Orelakoek, egiteak nola, azkena ala dukete.

16 Lena beñiz diot: ez nazala iñork txoro etsi: edo bestela aintzat añ nazazute, nerau ere pixkat ilaíaindu nadin. 17 Ilaíaindu beañkoan diokedanak Yaunaren arnasez esana ez dirudike, txoro baten aoz baizik. 18 Aragi aldetik askotsu ilaíaintzen dirala-ta, ni ere ilaíainduko

naiz. ¹⁹ Zur zeratelarik, tentelak gogotik yasaten dituzute-ta. ²⁰ Inork azpiratu, irentsi, larutu, urgoiki erabili, edo aurpegian yotzen bazaituz, yasaten diozute. ²¹ Lotsaz diot. Ortan txepel ari izanak baikera. Osterantzean, beriz, edozertzaz inor ilaraindu ezkeru, artzaz ni ere bai ilaraindu naiteke. Txoralditan mintzo naiz.

²² Ebertar al dira? Ni ere bai.

Israeldar al dira? Ni ere bai.

Abrahan'en azi al dira? Ni ere bai.

²³ Kisto'ren ordelari al dira? Areago ni, txoro usanez mintzatzeko; neketan aziago, baitegietan aurkituago, ukaldika porokokatuago, ilagian maizago egona. ²⁴ Bostetan yuduengandik berogeyak bat gutxi artu ditut. ²⁵ Irutan zigoratu ta bein arikatu naute. Itxasontzia irutan puskatu zait, legoretik urun gau ta egun bein utzi naula. ²⁶ Osteraka askotan, galuren ibayetan, galuren lapur aldetik, galuren eritar aldetik, galuren atzeritar aldetik, galuren irietan, galuren basoan, galuren itxasoan, galuren senide xurienean, ²⁷ nekatu ta laztuta, saritan lo gabe, gose ta egañi, barutan maiz, otz, ta bilutsik. ²⁸ Eta dan oren gañean or dago egun oroko auziabarrekin eliz guziekiko ardura nere gain. ²⁹ ¿Nor aultzen da, ni ere aulzen ez naizala? ¿Nor aurikatzen da, ni sumintzen ez naizala?

³⁰ Ilaraindu bearkoan, nere makaltasunaz ilaraindu-

²⁴ **Berogeyak bat gutxi.** Utsegin batengatik ebazleak agindutako astinaldian berogei ukaldi baño geyago ematea eragotzita zegoen (Deut. XXV, 3); eta Yainkoaren agindu au ez austeko, ukaldiak ogeita emeretzi oi ziran.

ko naiz. 3¹ Yesu Kisto gure Yaunaren Yainko ta Aitak, betiko onesgaría danak, gezuírik ez diódala ba-daki.

3² Damasko'n Areta éregeren orde eríburu zanak iria zaipean, ni atzemateko, ipiñita zeukan. 33 Baña saski batean leyotik ormabera eraitsi naute, ta oírela aren eskutik iges egin nun.

XII

Edozertzaz baño bere aulkeriaz ilaíaintsuago

Egoki izan ez aíren, ilaíaindu beaíta, Yaunak erakutsi ta agerietara ba-noa. 2 Gizon bat dazagut, irugaíren ortziraño orain amalau urte yaso izana. Soñez ala soingabe ori gerta ote zitzayen Yainkoak daki, nik ez. 3 Ba-dakit oíatiño, alako gizonak, soñez ala soingabe Yainkoak daki, nik ez, 4 paradisura ezkerro, gizonek adirazi ezin lituken itzak entzun zitula. 5 Alako gizonaz, bai, ilaíainduko naiz: nitzaz ordea ez, nere aultasunaz izan ezik. 6 Ilaíaindu nai ba'nu ere, ez litzaidake erokeritzat aítu beaíta; egia nesake-ta. Oí bego, ordea, ori, iñork nigan ikusi edo nitzaz entzun lukena baño aundia-gotzat aít ez nazan. 7 Ta oírenbesteko agerkariz aítotu ez nadin, aragian ñaía daramat, zartaka ari dakidan niri emandako Satan'en aingeru bat. 8 Irutan Yau-

2 Irugaíren ortziraño. Idatzi Deunetan ortzian iru oin edo alderdi bereizten dira: 1.^a) bekoa, txori-egalketakoa edo eguratsa; 2.^a) erdikoa, izaít-tokia edo ortzia; 3.^a) goikoa, betiko biziarentzat Yainkoak deunei gertu dien zerua (beraxeago, 4'gaíren ataltxoan) paradisua deritza.

7 Ñaít edo arantza ori eri edo gaitz mingaíri bat bide zan, ta Satan'en moíoi batek bezela, oñazeak Paul'i zekazkion.

nari eskatu diot alakoa nigandik alde eragiteko. ⁹ Ta Berak esan dit: «Aski duzu nere laguntza; makalaldian nere indaía osorik ageri da-ta». Pozik, beraz, ilaíainduko naiz nere makaltasunaz, Kisto'ren indaía nigan egon dedin. ¹⁰ Au dala bide, Kisto'rengatiko eri, irain, beaí-aldi, yazaípen ta elkaitzetan poztuta nabil; makal naizanean bertan, sendoa naiz-ta.

Onela itz egiten zergatik ari dan

¹¹ Txoro azaldu natzaizue, zuek oítaratuta. Zuek goratu beaía nintzan, ba; ezer ez naizan aíen, bidali bikain oriei buruz ezertan ez bainaiz txikiago azaldu. ¹² Bidalitzat narakusten agiriak, beíiz, edozer yasateko egonaía ta goiko indaíez zuenean burututako zantzu ta alatzak dira.

¹³ Beste elizei buruz zein izan da zuen akatsa? Au bakaírik; zuen bizkaí ni bizi ez izana. Okeí au barka egidazute. ¹⁴ Ara, irugaíen aldiz zuenera yoateko gerturik nago, ta ez natzaizue bizkaí izango; zuenaren bila ez bainabil, zeron bila baizik; ez dira, ba, semeak gurasoentzat bildu beaí dutenak, gurasoak semeentzat baño. ¹⁵ Nik, beíiz, zuen gogoengatik nere dana ta gañera naizan au pozik eralgiko ditut. Eta zuenganako nere maitasuna oíen aundia dalarik, ¿niganako zuena txikia ote daiteke?

¹⁶ Edeíki. Ez natzaizue bizkaí izan. Baña maltzuíkeriz ibilki, iruzuí egin dizuet. ¹⁷ Igoíi dizkizuedan aye-tako iñoren eskuz zer edo zer erauzi ote dizuet? ¹⁸ Zue-tara yoateko Tit'i eskatu nion, ta arekin anaya igoíi

nizuen. Zerbait Ti'tek erauzi ote dizuet? Ez ote gera gogo batez ta bide berberatik biok ibili?

¹⁹ Gure burua zuen aúrean astiro zuritzen ari gerala deritzakezute. Yainkoaren aúrean mintzo gera, ordea, Kisto'ri atxikita. Dana, be'riz, maiteok, zuei on egiteko. ²⁰ Beldu'ri naiz, ba, zuetara orduko, idoroko ote zaituztan nik nai bestelakoak, eta berebat zuek nai bestelakoa idoroko ote nauzuten. Ba-liteke, ba, zuenean lipiztak, bekaizkeriak, mutu'keriak, iskanbilak, mardailkeriak, maxioak, a'rokeri ta nasimasiak izatea. ²¹ O'ezkero, be'riz, zuetara ni itzulitakoan, Yainkoak ausaz zuen begitan lotsaraziko nau, ta ogen egin duten askorengatik nega' egin bea'ko dut, beren loikeri, izo'keri ta zanta'keriaz garbai ez diralako.

XIII

Zema ta a'renaz

Iruga'ren aldiz noa zuenera orain. Bizpairu aito'larien aoz auzi dana erabaki bea'. ² Biga'renez o' nintzala, ogendun izanei ta beste guziei esan niena, orain ere u'rutitik dasayet: o'ra be'riz ba'noa, ez dut i'nor asketsiko, ³ Kisto nigan mintzo dala agiri bila zabilzaten ezkero. Kisto, be'riz, ez da zuenean aula, inda'rtsua ba'no. ⁴ Aultzat gurutzatua izan ba'zan ere, Yainkoaren inda'rez bizi da-ta. Gu ere Beragan aulak gera; ba'na Yainkoaren inda'rez Arekin bizi izango gera zuei

1 Deut. XIX, 15.

buruz ⁵ Zeron baitan ikerazute sinestean ote zaudententz; norbera atemazute. Ez al zerate oartzen Yesu Kisto zerongan dagonik? Ezezkoan, gaiztetsi bearak zerate. ⁶ Uste dut, beñiz, gaiztetsi bearak ez geranik ezagungo duzutela. ⁷ Ta Yainkoari daskayogu ez dezazutela gaizkirik bat ere egin; ez noski yatorztat gu azaltzeko, zuek ongi dagizuten baizik, guk astangañi irudi beař ba'genu ere. ⁸ Egiaren aurka al izaterik ez dugu, ba, egiaren alde baizik. ⁹ Pozik gaude, beñiz, makal geranean, zuek osterazka; ta au gure eskaria, zuen zindotasun betea. ¹⁰ Argatik au urundik idazten dizuet, zuenera orduko, zořotz izan beař ez nakizuen: ez dit, ba, Yainkoak iraultzeko aukerarik eman, eraikitzeko baizik.

¹¹ Orezkero, senideok, poztu, bikaindu ta suzpertu zaitezte, gogo bat eukazute guziok, bakez bizi zaitezte; ta bake ta maitasuna darizkion Yainkoa zuekin egongo da.

¹² Muin deunez elkañi agur egiozute. Agur dagizuete deun guziek.

¹³ Bego guziokin Yesu Kisto gure Yaunaren eskeña, ta Yainkoaren maitasuna ta Goteunaren erkidetza. Ala biz.



GALATIARENTZAKO

PAUL'EN IDAZKIA

Galati'ko Elizak Paul'en lanez irasiak ziran (Bid. Eg. XIII-XIV), eta ayen siñestunetan oso gutxi ziran Israel eñiagandik soñtuak. Geyen geyenak atzeñiangandik zetozan, Mois'en legepean egon izan gabe. Or' ba, Beñi Ona atzeñietan zabaltzen asi zaneko, eztabaida goñi bat piztu zan Mois'en legetik Kisto'renera etoñitakoetan. Kisto'ren Eliza, zioten, guzientzat da, noski, yudentzat eta atzeñitañentzat; bañan atzeñiangandik Kisto'ren eñiagana ezin eldu, erdainkuntzaz eta Mois'en legez Abraham'en seme ta azi biuñtzeke. Auzi au Yerusalen'go batzañean erabaki izan zan yuduen uzia astandurik. Eta Paul bera galatiañei epai onen beñiarekin igoñia izan zan. Ala ere, Yerusalen'dik etoñitako yudu batzu aren auñka ari ziran Paul'en esanak gezuñak zirala, Yerusalen'go Bidali aundienek, Kepa'k eta Yakob'ek zerakastela erdainkuntza beañekoa zala t. a., Paul ez zala Bidali yatoñia, ta Yesu'k ez zula besteak bezela bidali. Erdainkuntzarenak eta Lege Zañarenak zearo egin zula, ta berak eta beste Bidaliek orobat zerakastela, ta Yesu'rengandik añtutako eskubidez Beñi Ona aldañikatzen zula sendo yañtzeko idazki au egiten die.

I

Sañera

Paul'ek, ez giza-eskuz, ezta giza-bitartez ere, Yesu Kisto gure Yaunaren eta ilartetik Bera piztu zun Yainko Aitaren aukeraz baño, bidali naizan onek, ² eta nerekin diran senide guziek,

Galati'ko eliz guziei,

³ Yainko Aitaren izenean ta Yesu Kisto gure Yaunarenean eskeñ ta bakea. ⁴ Yaun onek, mende okereñ ontatik gu ateratzeko, bere burua gure ogenengatik eman zun, gure Yainko ta Aitak ala naita. ⁵ Bego Arentzat aintza menderen mendetan. Ala biz.

Beñi On bakara

⁶ Arítuta nago, óren laster zuek, Yainkoaren edeá-gatik deitu ziñuzan Arengandik beste Beñi On batera biurtu zeratela-ta. ⁷ Baña besterik ez dago. Ór ba-dira, ordea, batzu, nasten zaituztenak eta Beñi Ona irauli nai dutenak. ⁸ Bañan ekañi dizuegun Beñi Ona besterik gerok naiz edozein aingeruk zerutik ba'lekañkizue, birao alakoari. ⁹ Beñiz ere esana dasaizuet: artu duzuten Beñi Ona besterik iñork ba'lekañkizue, birao alakoari. ¹⁰ ¿Gizonen edeá euki, ala Yainkoarena nai ote dut oraindik? ¿Gizonei atsegin izan gura ote dut? Gizonei oraindik atsegin izan ba'nenkie, Kisto'ren moñoi ez nintzake.

Beñi Ona Paul'ek Yainkoagandik artu du

¹¹ Nik esanda, senideok, yakizute: nakion Beñi Ona gizagandik ez da. ¹² Ez dut gizagandik artu, ez ikasi. Yesu Kisto'k irakatsita dut.

¹³ Entzun duzute nola yudu-asmotan beñola ari nintzan Yainkoaren eliza biziro esetsi ta erasotzen, ¹⁴ nere adiñeko eñitañ askori yudu-asmotan auñera aritzen, ta arbaso-ekanduak ardurarik gorienaz zaitzen. ¹⁵ Baña nere amaren sabeleandanik berezi ta deitu naunak adeitsuki naita, ¹⁶ bere Semea ageri izan zitzaidan, Aren Beñi Ona atzeñietan zabaldu nizan. Berbertatik, aragi ta odolari aditzeke, ¹⁷ ta ni baño len bidaliak ziranen bila Yerusalen'a yotzeke, Arabi'ra yoan nintzan, ta andik beñiro Damasko'ra itzuli. ¹⁸ Gero, iru urte buruan, Kepa ikusteañen, Yerusalen'a igo ta ama-

bost egun arekin egon nintzan. ¹⁹ Bidalietako besterik ez dut ordea ikusi, Yakob, Yaunaren anaya kenduta. ²⁰ Auek idaztean, beñiz, Yainkoaren aúrean yañita, gezuñik ez diot.

²¹ Gero Siri ta Kiliki'ko bazteñetara yoan nintzan. ²² Yudai'n, beñiz, Kisto'ren elizei ez nintzayen ikustez ezaguna. ²³ Entzunda bakañik au zekiten: beñola esesten giñuzanak berak, ordun gogoñ zerabilan siñestea orain zabaltzen du. ²⁴ Ta Yainkoa nere lepotik goresten zuten.

II

Paul'en eginbidea bidalien aitoñez yatoña

Amalau urte buruan, beñiz igo nintzan Yerusalen'a Barnaba'rekin, Tit ere gurekin añtuta. ² Goitik argituta igo nintzan, ta atzeñietan zabaltzen dudan Beñi Ona angoei ta batez ere nagusiak ziruditenek azaldu nien, alpeñik nere ibilketan ari izana edo izaten ote naizan garbitzeko. ³ Ayek, beñiz, ez zioten nere lagun Tit'i, elendaña zala ere, erdainbeañik egotzi. ⁴ Egozteko ala ere senide aizun batzu isilean ta itzalgaizka sañtu izan ziran, ta atustan zeuden, Yesu Kisto'gandik daukagun yareitasuna ito ta moñoitza leporatu nai zigutela. ⁵ Guk, ordea, apuñ bateko ere makuñtzeke, gogoñ egin genien, Beñi Onaren egia zuenean bizirik egon dedin. ⁶ Zerbait ziruditenek, beñiz, (noizpait zer

¹ Bid. Eg. XI,30 eta XII, 25.

ziran niri ayolarik ez, norkeritan Yainkoa ez baitabil) zerbait ziruditenek ez zidaten oar bat ere egin. ⁷ Ostera ere, oartu ziran, Kepa'ri erdainduekiko lanbidea bezela, niri ere atzeriekikoa egotzi izan zitzaidala. ⁸ Erdainduentzako bidalitzat Kepa artu dunak Berak, atzerientzako bidalitzat ni artu nau. ⁹ Beraz, niri emandako kisa ezagundakoan, zutoyak omen diran Yakob, Kepa ta Yon'ek eskuya lagunkidetzat niri ta Barnaba'ri eman ziguten, berak erdainduen artean ta gu atzerietan lan egiteko. ¹⁰ Baka'rik eskatu ziguten landeretataz oroi gintezala; ta ori egiteko ayola beti izan naiz.

Kepa'ri Paul'ek egindako akara

¹¹ Bañan Antioki'ra Kepa eto'ri zanean, bekoz beko gogor' egin nion, aka'ga'ri zalako. ¹² Alabaña, Yakob' eketz norbaitzu eldu baño len, atzerita'rekin bazkaltzen zun; eldu orduko, be'iz, atzera ta estika asi zan, erdainduekiko beldu'ez. ¹³ Ta alako alegikeritan beste yuduak zeraizkion, Barnaba ere o'rtara maku'itzen zitzayela. ¹⁴ Beraz, Be'ri Onaren egiari dagokionez zuzen ez zebiltzala oartu nintzaneko, guzien au'ean Kepa'ri esan nion: «Yudu zeran ori, atze'ri-eraz, ta ez yudu-eraz bizi ba'zera zu, ¿zertako atzerita'rei yudu-eraz bizibea'ra leporatzen diezu? ¹⁵ Izan ere, yato'rkiz yudu gera gu, ez atze'ritikako gizatxa'. ¹⁶ Ba-dakigu, ordea, Yesu Kisto'ren siñestez gizakia zindotzen dala, ez legeko eginbidez; ta o'rezkero Yesu Kisto'ren siñestera eto'ri gera, Kisto'ren siñestez, ez legeko aginbidez, zindokuntza iristeko; legeko eginbidez ez baita iñor zindotzen. ¹⁷ Gure zindo-

kuntza Kisto'rengan bilatzen dugunok ere oraindik ogendun ba'gera, ¿ogen-mo'oi ote dabil Kisto? Inola ere ez. ¹⁸ Neronek iraulia neronek be'iro eraikitzean, oke' azalduko nintzake-ta. ¹⁹ Izan ere, legearentzat legea'ren il izan naiz, Yainkoarentzat bizi izateko. Kisto'rekin gurutzatu izan naiz. ²⁰ A'rezkero bizi naiz, ez gero ni, nigan Kisto bizi da, ordea. Ta aragitan bizi ba'naiz, Yainkoaren Semea izanik maite niñun ta bere burua nigatik eman zunaren siñestez bizi naiz. ²¹ Ez dut Yainkoaren adei-erakutsia gutxi esten. Legetik zindokuntza ba'dato', be'iz, Kisto alpe'rik il da.

III

Legea ta Yainkoaren agintza

G alatia' burugabeok! Nork liluratu zaituz [egiari ez menderatzeko], Yesu Kisto gurutzatuaren eredia zuen begitan azaldua izan ezkero? ² Au baka'rik zuengandik yakin nai dut: ¿legeko eginbidez, ala siñesteari menderatuz, Goteuna a'rtu ote duzute? ³ Gogabidez asita orain aragibidera yo duzute? ⁴ Alpe'rik o'renbeste yasan ote duzute? Alpe'rik, ordea, agian ez. ⁵ ¿Goteuna

¹⁹ Legeak ezaguera eman, bai, bañan ezagundakoak betetzeko laguntzarik ez; ogenak ugaritu ditu, ta ya'ri nau Yainkoaren asafe-azpian. Berak esan dit ez daukala ni sendatzeko bea' añeko sendakirik, eta berak bidali nau nere Sendagile ta Gaizkatzale baka'arengana, Yesu Kisto'rengana. Yesu Kisto'k, be'iz, Lege Za' o'ri eriotza eman dio ta a'rezkero Lege Za'ra neretzat il da, ta ni Legearentzat.

11-21 Kepa ta Paul'en arteko auzi au ikasbidez ez zan; yardunbidez ba'ño. Siñestun egindako yuduen artean, bai, askotsuk Lege Za'ra, ta batez ere, erdaintzuntza, bea' bea'ekoa oraindik zala uste zuten. Ore-lakoen minberakeria ez sumintzeko Kepa'k a'rtutako yardunbidea Paul'ek yauki zion, siñesterako bidea atze'ita'rei bidegabez zail egiten zielako.

damaizuen ta alatzak zuenean egiten ari dana, legez egiñengatik, ala siñesterako yoeragatik ari ote da? ⁶ Oñela **Abrahan'ek Yainkoari siñetsi zion, ta zindokuntzarako egotzi zitzayon.** ⁷ Yakizute, beraz; Abrahan'en semeak, siñestez dira seme.

⁸ Izan ere, Idatziak, atzería siñestez Yainkoak zindotzen dula ikusirik, beñi on au Abrahan'i auñetik eman zion: **Zugan eñi guziak onetsiko dira.** ⁹ Oñela siñestunak Abrahan siñestunarekin onetsiak dira. ¹⁰ Legeko eginkizunei atxikiak oro, beñiz, biraopean daude. Idatzita baitago: **Lege-gutunean idatzitako guzia betetzen iñor tink ez ba'dago, birao alakoari.** ¹¹ Yainkoaren auñean iñor ez dala legez zindotzen, beñiz, nabari da: **Zindoa siñestez bizi da-ta.** ¹² Legeari, beñiz, siñestea ez dagokio: au bakañik du bere: **Ori egin dukena, oñexegatik bizi izango da.**

¹³ Lege-biræotik Kisto'k yarein gaitu, bere burua biraogañi biuñtuz, idatzita dagonez: **Biraogañi bego abetik esegitakoa,** ¹⁴ oñela, Abrahan'i egindako onespina Kisto'rengan atzerietara eldu dedin, ta eskeñitako Goteuna siñestez ar' dezagun.

¹⁵ Senideok, gizabidez itz egingo dizuet. Gizabidez burututako ituna ez da iñork ustü edo geitzekoa. ¹⁶ Oñ ba, agintzak Abrahan'i ta aren aziari egiñak dira. Ez dio ta aziei, azi asko adirazteko lesakenez, ta zure

6 As. XV. 6

8 As. XII, 3. XXVII, 18

10 Deut. XXVII, 25

11 Ab. II, 4

12 Leb. XVIII, 5

13 Deut. XXI, 23

aziari baño, Kisto dan azi bakaña adirazirik. ¹⁷ Orezkero diot: Yainkoak burututako ituna ez du gerokoan, lareun ta ogei ta amañ urte buruan soñtutako legeak, agintzak usturik, ezerezten. ¹⁸ Izan ere, legeaeren yarauntsia ba'da, agintzaeren ez da. Abraham'i, beñiz, yarauntsi au Yainkoak agintzaz eman zion.

Legea zertako zan

¹⁹ ¿Zertako, ba, legea? Agintzako azia zetoeren arte-rañoakoan ezaña izan da okeerengatik, bitarteko baten eskuz aingeruek ekañita. ²⁰ Baten bitartekorik ez dago, ordea, ta Yainkoa bat bakañik da. ²¹ ¿Legea, beraz, ta Yainkoaren agintzak elkaeren aurka ote zebiltzan? Inola ere ez. Bizia ekañi lezaken legea emana izan ba'liz, zindokuntza legetik letoñke-ta. ²² Idaztiak, beñiz, ogenpean dana itxi du, agintza siñestunengan Yesu Kisto'ren siñestez bete zedin.

²³ Siñestea etoñi baño len, legepean itxirik geunden agertzeko zan siñesterako. ²⁴ Legea Kisto'rentzako umezai izan zaigu, siñestez zindotu gaitez. ²⁵ Baña siñestea etoñi dalarik, ez gaude onezkero umezaipean. ²⁶ Yesu Kisto'ren siñestez Yainkoaren seme baitzerate guziok. ²⁷ Kisto'rentzat ukuziak zeratenok Kisto duzute soñekotzat. ²⁸ Ez dago yudurik, ez elendañik; ez dago yopurik, ez yareirik; ez dago añ-emerik; Kisto'rengan

¹⁷ 430 urte auek, Yakob'i beñitutako agintzatic Mois'en bidez emandako legerañoakoak bide dira. Abraham'i lenbizian agintza au, 200 urte ezkeroko egiña izan zitzayon.

¹⁹ Okeerengatik=gizonek beren okeñak eta onerako aultasuna ezagun ditzaten, ta Yesu'rengandik osabidea añtzeko gertu ditez.

zuek oro bat zerate-ta. ²⁹ Kisto'renak izaki, beñiz, Abrahan'en azi zerate ta agintzaz oñordeko.

IV

Len yopu, orain seme

O rézkero diot: oñordekoa aurtxo daño, guzien yabe izanañen, ezertan ez da yopuari buruz bestelakoa. ² Ostera ere, aitak erabakitako garairaño gurasorde ta yagoleen mendean dago. ³ Orela gu, aurtxo giñanean, ortzi-luñeko gaipean yopu geunden. ⁴ Bañan epea bete zanean, Yainkoak bere Semea, emakumegandik legepean yayoa, bidali zun, ⁵ legepekoen askatzale, bere semetzat gu artzeko. ⁶ Ta seme zeraten ezkerro, biotzetara bidali dizue bere Semearen Gogoa, «Abba, Aita», deyez ari dana. ⁷ Gauñgero, beraz, yopu ez zera, seme baizik; seme ezkerro, beñiz, oñordeko ere, Yainkoaren egitez.

⁸ Beñola, noski, Yainkoa ezaguteke, izatez Yainko ez diranen yopu bizi ziñaten. ⁹ Bañan orain Yainkoa zuei, edo obe, zuek Yainkoari ezagunak izan ondoren, ¿nola beñiro itzuli zerate gai zirtzil ta mengeletara, ayen yopu beñiro izateko? ¹⁰ Egun, ila, aro ta urteak dirala-ta, ayola zabilzate. ¹¹ Beldur naiz zuenean alpeñik lan egin ote dudanik.

⁹ Yesu Kisto'k bere ikastola iriki baño len, gizonak ezin zuten bizitza zuzen egiteko, asimasiak besterik ikasi; atzeritañek adimen argiz; yuduek, gañera, Legearenez. Orela ikasiak, beñiz, aurtxoei irakasten zazkien yakintzarako asimasiak bezain gutxitxo ziran.

Oroipen xamuřak

¹² Áren, senideok; ni bezela izan zaitezte, zuek bezela ni naiz-ta. Ez didazute uts bat ere egin. ¹³ Ostera ere, ba-dakizute aragi makalez Beři Ona lenbizi artan ekaři nizuela. ¹⁴ Zuek, beřiz, atzerabide au nere aragian eukiařen, ez niñuzuten nardatu, ez iguin; aitzitik ere, Yainkoaren aingerutzat, baita Yesu Kisto'tzat ere, artu niñuzuten. ¹⁵ ¿Non dago, beřiz, zuen pozaldi ura? Aitoř dizuet, ba; zeron begiak ere, al izatekotan, erauzi ta niri emateko lain ziñaten. ¹⁶ Beraz, ¿egia azalduz, etsai biur ote natzaizue? ¹⁷ Zintzo ez dabilta ain txeratsu dabilzkizuenak; nigandik alde eragin ta berengana ekaři zaituzte-ta. ¹⁸ Ona liteke, beřiz, onerako txeragaři beti izatea, ez bakařik zuekin nagonean. ¹⁹ Ene umetxook, Kisto zuengan azkořtu arte, beři ro erdiminduta naukazutenok! ²⁰ Nai, bai, or zuekin orain egon nai nuke, aoz zuei mintzatzeko; zuei buruz kezkan nago-ta.

Sara ta Agar

²¹ Esaidazute: ¿legepean egon naita, legeak diona ez al dantzuzute? ²² Idatzita baitago: **Abrahan'ek seme bi izan zitun; neskameagandik bata, andreagandik bestea.** ²³ Neskameagandikoa aragibidez yayo zan; andreagandikoa, agintzaren indařez. ²⁴ Alegitan esanak dira auek. Emakume biok bi Itunak dira. Bata, Sina-mendikoa, mořoitzarako ume egiten duna. ²⁵ Sina, beřiz, Arabi'ko mendi bat da; ta alakoa da oraingo

²² As. XVI, 15 ta XXI, 2-9

Yerusalen, bere semeekin yopu da-ta. ²⁶ Goiko Yerusalen, beñiz, yarei da; ta au da gure ama. ²⁷ Idatzita baitago:

Poz zaitez, erditzeke zeunden agoñ ori; zantzo ta irintzi egin, erdimiñik ez dazaguzun ori; senařduna baño umetsuago bakařtua daiteke-ta.

²⁸ Zuek, beñiz, senideok, Isaak bezela, agintzaren seme zerate. ²⁹ Bañan ordun aragibidez yayoak gogabidez yayoa esesten zun bezela, orain ere ala da. ³⁰ ¿Zer dio, ordea, Idaztiak? Neskamea ta aren semea alde eragin itzazu; ez da, ba, neskamearen semea andrearen semearekin oñordeko izango. ³¹ Beraz, senideok, neskamearen seme ez gera, etxandrearen seme baño.

V

Uztařpera ez itzuli

Askatasunerako askatu gaitu Kisto'k. Artan, beraz, egon, ta ez zaitezte yopu-uztařpera itzuli. ² Gomazute; neuk, Paul onek, dasaizuet: erdaintzen ba'zerate, ezertarako ez zaizue Kisto izango. ³ Erdaintzen danari, beñiz, aitoř dagiot; lege osoa betetzeko zořdun da alakoa. ⁴ Kisto'gandik erauzi zerate legean zindokuntza bilatzen duzutenok; eskeřetik yalki zerate. ⁵ Guk, beñiz, Goteungandik zindokuntza iristeko ustea siñestean dugu.

²⁷ Is. LIV, 1.

³⁰ As. XXI, 10-12.

⁶ Yesu Kisto'rentzat erdainkuntza ezer ez dalako, ezta erdaingabea ere; maitasunez ari dan siñestea baño.

⁷ Uxtu edeña zeneramaten. ¿Bidea nork autsi dizue egiari ez menderatzeko? ⁸ Zuen deitzaleagandik ez datoñen burupideak, noski. ⁹ Orantza gutxik ore osoa artzi egiten du. ¹⁰ Yainkoa lagun, burua aldatuko ez duzutelakoan nago. Artegatzen zaituzanak, beñiz, berea yasan beaño du, dana dala. ¹¹ Baña senideok, ¿niri, erdainkuntza oraindik goratzen omen ba'dut, zergatik orain ere yazañi? Antza bai, suntsitu da gurutz-aurikoa? ¹² ¿Agian irendu ba'lira nastakatzen zaituztenak!

Aragibidea ta gogoarena

¹³ Izan ere, askatasunera deituak zerate. Ez bekizue oñatiño askatasun ori aragi-irritsetarako leñabide. Elkañen moñoi, ostera, maitasunez azaldu zaitezte. ¹⁴ Agindu bakañ ontan: **Zure urkoa zure burua bezain maite ezazu**, lege osoa bildurik dago-ta. ¹⁵ Elkañ ausiki ta iresten ari ba'zerate, ostera, elkañ suntsituko duzute. ¿Begira gero!

¹⁶ Oñezkero diot: gogabidez ibili ta ez dituzete aragi-irritsak beteko. ¹⁷ Aragi-irritsak gogoaren aurka ari baitira; gogoarenak, beñiz, aragiaren aurka; elkañ aitzikoak dira; ta andik datoñkizue zedozer nai ta ez egitea. ¹⁸ Gogoaren eragitez ba'zabiltzate, ordea, legepean ez zaudete.

⁶ Oña Luter'ek ukatzen zuna, Paul Deunak argi ta garbi aldañikatua
¹⁴ Leb. XIX. 18,

¹⁹ Nabari dira, beñiz, aragiaren eginkariak. Ara; izoñkeri, zantañkeri ta lotsagabea; ²⁰ sasiyainkokeri, sorginkeri, mutuñkeri, liskañ, bekaitz, goñoto, buñuka, iskanbila ta alderdikeriak; ²¹ iñartsi, [gizeraite], ordikeri, salokeri ta oñelako besteak. Len bezela, orain ere dasai-zuet: oñela ari diranek ez dute Yainkoaren eñia iritsiko.

²² Gogoaren arnariak dira, beñiz: maitasuna, poza, gentza, biotz zabala, biotz bera, ontasuna, zintzotasuna, ²³ samuñtasuna ta erabidea. Oñelakoen auñka legerik ez dago.

²⁴ Kisto'ren diranek aragia bere griña ta iñitsekin gurutzatu dute. ²⁵ Gogoaz bizi ba'gera, gogabidetik ibil ere gaitezán. ²⁶ Ez gaitezán añoxko azaldu, ez elkañen mutiri ta bekaizti.

VI

Elkañ eramateaz

Senideok; uts egiñen batera norbait labaindutakoan, gogazale zeratenok alakoa samuñki yaso ezazute, norbera azteñtuz bertara ez erortzeko. ² Elkañean zama eroazute; ta oñela Kisto'ren legea beteko duzute. ³ Ezer ez dalarik, ezer dalakoan iñor ba'dago, bere buruari iruzuñ dagio. ⁴ Beraz, nork bere egiñak azteñtu bitza; ta oñezkero beregan berebiziko ilañainbidea eukiko du, besterekin erkatzeke. ⁵ Nork bere zama eroango du-ta.

⁶ Ikasbidea azaltzen zayonak, ditun guzien erkide ikaslea egin beza.

Azken aolkua

7 Ez zaitezte atzipetu; Yainkoari buruz iruzurik ez dago. Ereiten danetik bildu beaí. 8 Bere aragian ereiten dunak, aragitik ustelkia bilduko du; gogoan ereiten dunak, beíz, gogotik ere betiko bizitza bilduko du. 9 Ez gaitez an egitez asperútu; aspertzen ez ba'gera, garai egokian zitua bilduko dugu-ta. 10 Beraz, astia duguño, guziei on dagiegun, batez ere etxeko siñestunei.


11 Begira zein izkitzaérez idatzi dizuedan nere eskuz.

12 Aragibidez nabari izan nai duten guziek, Kisto'ren gurutzagatik esetsiak ez izateko bakaírik, erdainkuntzara beaítzen zaituzte. 13 Erdainduek berek ez baitute legea betetzen, ta nai dutena da, zuek erdainkuntza aítzea, zuen aragian berek ilaíainbidea eukitzeko. 14 Alde nigandik, ordea, Yesu Kisto gure Yaunaren gurutzaz baizik ilaíaintzea, Aren egitez izaki guziak niretzat eta ni ayentzat gurutzatuta baikaude. 15 Izan ere, [Yesu Kisto'rentzat] erdainkuntza ezer ez dalako, ezta erdainingabea ere; izaki beía baño.

16 Ta arau onen yaíraile guzien gañera, Yainkoaren Israel'en gañera bezela, gentza ta erukia.

17 Osterantzekoan, poxelurik iñork ez bezaíkit; Yesu [Yauna]'ren xakiak nere soñean dakaítzit-eta.

18 Bego zuen biotzetan, senideok, Yesu Kisto gure Yaunaren eskeía. Ala biz.



EPESO'KOENTZAT PAUL'EN IDAZKIA

Idazki au ta Kolosai' ta'entzakoak elkar idekotsuak dira; bizkiak dirudite; ta bata bestearen betegari deritzake. Abazuzan idatzia bide da, Epeso'n ba'na Kolosai'ra yoateko zan Titiko'k eraman zezaken. Idazki onen mamia ta guneko oldozkuntza, soin bateko atalak bezela, siñestunak Kisto'rengan ta Kisto'rekin bilduak eta bat egiñak dauzkan elkartasuna da. Soin onen burua, bizitza damayona, Kisto da; Eliza, edo siñestunen baltzua, be'riz, Aren betegaria; Yainkoaren asmo ta burupide sakona, be'riz, Eliza ori egiteko, eri guzietako semeak deitzea, zeru-lu'etakoak oro buru berberaren azpian, Kisto'ren azpian, bildurik.

I

S a ñ e r a

Paul'ek, Yainkoaren nai izatez Yesu Kisto'ren bidali onek, [Epeso'ko] deun ta Yesu Kisto'ren siñestunei,

² Yainko gure Aitaren izenean ta Yesu Kisto Yaunarenean, eske' ta gentza.

Yesu'ri zo' dioguna

³ ¡Gora Yesu Kisto gure Yaunaren Yainko ta Aita, edotariko gogo-onga'riz Kisto'rengan zerutik onetsi gaituna! ⁴ Ludia ludi ba'no len, Arengatik autu giñuzan, ba, Aren au'rean deun ta aka'rkizunik gabe izan gaitezcan. ⁵ Baita ordutik ere Kisto'rengan maitetsuki bereziak euki gaitu, semetzat gu a'rtzeko, bere oldez ala naita, ⁶ Aren adei goraga'ria goretsi dezagun; adei ori dala-ta,

Beraganako atsegingaí egiñak baikera Maitagaíagan. 7 Onengan yareikuntza dugu beronen odolez ogen-asketsarekin, Yainko-eskeí aberatsaren arauz. 8 Al dan argiz ta ezagueraz okitua ixuri baitigu, 9 bere baitan oldez erabakia zeukan asmo ostena guri zabaltzeko. 10 Asmo au zan, beíiz, epea bete orduko, zeruan ta luéan diranak oro Kisto'rengan erabat biltzea. 11 Gu ere Beragan gaude oñordetzat autuak; nai dunez dana burutzen dunak oítara berezi gaitulako. 12 Oírela, Kisto'rengan gure uste ona yaí ezkerro, Aren ospea ere goratzeko lain eginbeaíak gera.

13 Beragan ere zuek, egiaren itza ta osasunerako Beíi Ona entzunda, Aren siñestera etoíi zeratenok, eskeñitako Goteunaren aztaínaz galgatuak zerate. 14 Au da yarauntsi-baikuntza Yainkoak beretutakoen erospenerako ta bere aintzaren gorespenerako.

Zein gora deituak geran

15 Au dala bide, Yesu Yaunaganako zuen ziñestea ta deun guzienganako zuen maitasuna entzunda, 16 zuengatik eskeí egiten, ta nere otoiketán zuetaz oroitzen etengabe ari naiz. 17 Yesu Kisto gure Yaunaren Yainko Aita goragaíak Bera ezaguteko sena zolitu dezai-zuen, 18 zuen biotzeko begiak argituz, ezagun dezazuten zer itxoitera deituak zeraten, zein aberats ta ospetsua dan Aren yarauntsia deunetan, 19 ta zein kemenez ta indaíez siñestunon alde garaitsuki ari dan Aren al izate aundia! 20 Aintzat azaldu zan, noski, il artetik Kisto piztez ta zeruan yaítez bere eskui aldean, 21 aginte, al

izate, indar ta nagusitza guzien gañean; ta mende ontan ez ezen, gerokoan ere aipatu liteken edozein izen gañean. ²² Aren oñazpian dana menderatu ta Bera Eliz osoaren buru yaí du. ²³ Aren soña, beíz, ta dana alde orotara betetzen dunaren betegaí Eliza da.

II

Kisto'rengan beégiñak gera

Zuek ere ilik zeundeteten zuen okekeri ta ogenengatik. ² Orelakoetan beñola ibiltzen ziñaten gizarte onen oldez, aizeko nagusiaren eragitez, ta seme biurien artean oraindik ari dan arnasez. ³ Gerok ere ala ibiltzen giñan beñola, aragi-irítsek eraginda, aragi ta ustekerien oldea betetzen; ta, besteak bezela, izatez seme iguingaí giñan. ⁴ Bañan erukitan aberatsa dan Yainkoak ainbestean maite gaitula-ta, ⁵ ogenengatik ilik geundenean ere bizira Kisto'rekin atera gaitu, (utsean gaizkatuak zerate, ba), ⁶ ta Arekin beípiztu ta Yesu Kisto'rengan eserazi gaitu zeruan, ⁷ bein betiko ageri dedin zein aberatsegia azaldu zaigun Yesu Kisto'rengan bere eruki-eskeá. ⁸ Eskeí au dala-ta, gaizkatuak baitzerate siñes-tez. Zeronez ez duzute ori; Yainkoaren emaria da; ⁹ ez zuen egitez, iñor ilaíaindu ez dedin. ¹⁰ Berak eginda,

² **Aizeko nagusi** ori Satan bere tuxuriekin da. Eguratsa da, ba, tuxurien tokitzat Paul'ek beti aipatzen dun tokia. **Seme biuríak**=Yainkoaren itza siñetsi nai ez dntenak.

Kisto'rengan sórtuak gera, ba, Yainkoak atondutako eginbide onetik ibiltzeko.

Bitarteko esia iraulita dago

¹¹ Oroi zaitezte, beraz, beñola zuek aragi aldetik atzeri ziñatela, aragian eskuz erdaindutakoei buruz erdaingabe-izena eramanez. ¹² Kisto gabe zeundeten aldi artan Israel eritiko bakanduta, Itunen agintzarekiko arrotz, ez itxorik, ez Yainkorik lur ontan. ¹³ Orain, beriz, bakandu egonak, Yesu Kisto'rengan Kisto'ren odolez bat eginak zerate. ¹⁴ Bera da, ba, gure gentza; Bera bitarteko esia edo etsaigoa iraulirik, bere aragian biak bat egin dituna. ¹⁵ Berak legea arauz ta erabaki betea kendu ta onezkoak egin zitun, alderdi biak Beragan gizon berri bat eginnez; ¹⁶ ta Beragan biak soin bat eginak Yainkoarekin gurutzez adiskidetu zitun, Beragan etsaigoa suntsiturik. ¹⁷ Gentza urutikoei ta gentza urkoei aldarikatzen etori zan. ¹⁸ Beragatik Aitagana gogo batez biok saera dugu-ta.

¹⁹ Engoitik ez zerate, beraz, arrotz, ez etorkin; deuenen erilagun ta Yainkoaren etxeak zerate oster, ²⁰ bidali ta igarleen onari gañean eraikiak, Kisto Bera goiko giltzaria dalarik. ²¹ Beragan antolatuta yaikitzen diyoa ormadi osoa Yaunaren etxe deuna izateko. ²² Beragan zuek ere eraikitzen zerate Goteunaren egitez, Yainkoaren egoitza izateko.

13 Bitarteko esia=Lege Zaria; biak=Israel-eria ta Atzeriak.

III

Paul'i egotzitako eginbeaía

A in zuzen ere, atzeíri zeratenon auzia dala-ta, Paul au Yesu Kisto'rengatik biluítuta *nago*. ² Entzunduzute, ba, Yainkoaren aginduz nere ardurapean dagola Aren eskeía banatzeko arazoa. ³ Arestixean labuía aipatu dizuedan asmo ostena goitikako azalpenez ageri izan zait. ⁴ Itzok irakuíriz igarí dezakezute nola dazagudan Kisto'ri dagokion asmo ostena. ⁵ Lengo gizaldietan ez zaye gizakumeei erakutsia izan, orain bidali ta igaríleei Goteunez zayen bezela. ⁶ Asmo onen arauz, atzeíriak, Beíri ona dala-ta, Israel'ekin oñordekide, ta soin berberaren atal, ta agintza berberaren erkide Yesu Kisto'rengan dira. ⁷ Beíri Onen aldaírikari yaíta nago ni, Yainkoak bere indaíaren arauz artarako adeieskeía eman didalarik. ⁸ Niri, deunik kaxkaíren auni, eskeí au emana zait, Kisto'ren aberastasun uleírgaitza atzeírei iragaítzeko, ⁹ ta argitan yaítzeko zein dan alako asmoaren mamia. Betidanik baitzegon oroen Egíle Yainkoarengan ostenduta, ¹⁰ zeruko nagusi ta aldun guziei Elizaren bidez orain nabari egin dakien Yainkoaren yakintza burubidetsua. ¹¹ Oírela betidanik izan dan bere asmoa burutu du Yesu Kisto gure Yaunagan. ¹² Yaun au dala-ta, beíriz, ta Onen siñestez, Yainkoagana zabal

10 Zeruko aingeruek Yainkoaren izatea garbi ikustean, Yainkoaren gizakundea ere artan zekusten; baña Toma deunak dionez, gizakunde onen sayets ta inguru guziak ez zitutea ezagun Yesu'ren bizitzan eta Beíri Onaren zabaltzean gerta-ala baizik.

zabal ta beldurik gabe sartu gaitezke. ¹³ Orezkero ez zaitezte, aŕen, okildu zuengatik yasaten ditudan loaldiak gora bera; auetxek zuen ilarainbidea baitira.

Paul'en eskari edera

¹⁴ Argatik, Aitaren auran belaunikatzen naiz, ¹⁵ zeru ta luran sendi guziek izena Arengandik dute-ta, ¹⁶ Aren aintza aberatsari dagokionez, barneko gizona bere arnasez zuengan indartsuki azkartu dezan, ¹⁷ Kisto zuen biotzetan sinestez koka dedin, ta maitasunean eroak eginda, tink egon zaitezten. ¹⁸ Orela deun guziekin asmo au zein zabal, luze, garai ta sakon dan neurtzeko, ¹⁹ ta Kisto'ren maitasun gañezkoa ezaguteko lain zintezkete, Yainkoaren bizitzaz bete betean bizi izanik. ²⁰ Guggan ari dan indarez guk eskatu ta asmatu genezaken baño oparoago edozer egiteko altsu danari, beriz, ²¹ Elizan bein betiko aintza Yesu Kisto'ren bitartez bekio. Ala biz.

IV

Soin bateko buru ta atalak

Beraz, Yainkoagatik biluzez nagon Paul onek daskai-zuet zuei egindako deyari dagokionez ibiltzeko, ² oso apal, otzan ta yasankor, maitagaŕiro elkar eramaten, ³ gentza-lokariz gogo-batasuna eukitzeko zurt,

¹⁵ sendi guziek=angeru-sendia, ta giza-sendia: izena=izatea: Aitarengandik sendi guziak sortuak dira-ta.

¹⁶ Barneko gizona=giza-barne edo biotza, senaren argiz ta go-eragitez dabilzanean.

4 soin bat eta gogo bat izaki; agintza batera berera deyez deituak zeraten bezela. 5 Yaun bat, siñeste bat, ukuzpen bat. 6 Izan ere, bat da guzien Yainko ta Aita, guzien gañean, guzien bidez, ta guziengan ari dana.

7 Antzi bana ala ere, Kisto'k erabakitako neuriz, guretako bakoitzari emana zaigu. 8 Esana baitago;

**Gora igota, baituak Berekin eraman zitun;
opariak gizonei banatu zizkien.**

9 ¿Nola, beñiz, igo, luñalde bekoenetara yetxi ezkerro baizik? 10 Yetxi izana Bera da ortzi guzien gañera, dana betetzeko igoa. 11 Ta Beraxek batzu bidali, batzu igañle, bestetzu Beñi onaren zabaltzale, beste batzu, beñiz, zaitzale ta irakasle yañi ditu, 12 lanbiderako deunak ayotuz Kisto'ren soña antolatzeke, 13 guziok siñestez ta Yainkoaren Semearen ezagueraz bat eginda, gizon eldu ta Kisto'ren gara betetsuko biurñtuak izan arteraño. 14 Ezin gaitezke, ba, engoitik aur izan, edozein irakaste-aizek or ara ekañtzekoak, giza-maño ta kako-mako artean okeñtu beañez. 15 Egiari autsita, beñiz, maitasunez azkoñtzen yoan beañ dugu burua dan Kisto'gan. 16 Beragandik soin osoa, antola ta elkañpide guziak añturik, atal bakoitzari dagokion adorez garatzen diyoa ta maitasunez azkoñtzen.

Gizaki beñia

17 Orezkero Yaunaketz esan ta aitoñtzen dizuet: ez ibili gañgero, atzeñiak beren ustekerietan dabilzan bezela. 18 Biotza mokoñtu zayela-ta, ezaguerarik gabe

8 Er. LXVII, 19

baitoaz adin ilunez ta Yainkoaren bizitzatik urun.
 19 Sorayotu dira, ta alakotzat aragi-irritsetara emanak,
 edolako zantañkeriz eragabe asaskatzeko.

20 Ez da ori, gero, Kisto'gandik ikasi duzutena,
 21 Aren ikasbidean azi, ta egian, Yesu'rengan danez,
 ikasiak ba'zerate beintzat, 22 beste au baño; lengo
 bizitzako gizaki zaía, iriskerien iruzuñez irotua, erauzi
 23 ta zerongan sena beñiztea, 24 gizaki beñiaz, Yain-
 koaren ereduz benetan zintzo ta deun egiñaz, yazteko.

Urkoekiko yarduera

25 Beraz, gezuía alde bat utzirik, **bakoitza bere**
urkoarekin egiz mintzo bedi, elkañen atalkide gera-ta.
 26 **Aseñean ez ogen egin**. Oraindik aseñe zerala, ez
 bedi eguzkia etzan. 27 Elbiderik tuxuriari ez eman.
 28 Ostu oi zunak ez beza auñerontzean ostu; eskulan
 egokiren bat egin beza, ordea, beañaldian dagonari
 nondik eman izateko. 29 Ez bedi zuen aotik itz gaiztorik
 irten; dantzutenen onerako zerbait esan beañ ba-da,
 ostera, ori bai esazute. 30 Ez ezazute Yainkoaren Gogo
 Deuna atsekabetu; Aren xakiz galgatuak baitzerate
 yareikuntza-egunerako. 31 Utikan zuengandik zakañkeri,
 aseñe, goñoto, gañaxi, birao ta okeñkeri guziak. 32 Aitzi-
 tik ere, elkañenganako biotzbera, eñukitsu ta askesteko
 eñazak azaldu zaitezte, Kisto'rengatik Yainkoak asketsi
 zaituzan bezela.

25 Zak. VIII, 16

26 Er. IV, 5

V

Argisemeak

Seme kufunei dagokienez, Yainkoaren antza ar ezazute, ² ta maitasunean ari izan zaitezte, Kisto'k maite izan ziñuzala-ta, bere burua gugatik usai gozoko eskein ta oparitzat Yainkoari eman zion bezela.

³ Deunei dagokienez, ez bedi zuen lepotik izoñkeri bat ere aipatu, ez zantañkeririk, ez eukimiñik, ⁴ ez doñoñkeririk, edo ezertarako ez liteken ele zantzail ta bañegañirik, eskeñ oneko itzak baizik. ⁵ Ondo yakin beañ duzute, ba: Kisto'ren ta Yainkoaren eñian yarauntsirik ez du iñungo izoñtzalek, ez zantañek, ez diruzalek, edo berdin litekena, sasiyainkozalek. ⁶ Iñork ez zaitzazala ele xuriz liluratu; oñelakoengatik siñesgoñoren gañera Yainkoaren aseñea etoñtzen da-ta. ⁷ Ez zakizkiete erkide egin. ⁸ Beñola iñunbe ziñaten; orain, beñiz, Yaunagan argi zerate. Argi-semetzat ibili. ⁹ On, zuzen ta egia dan guzia, argi-zitua da-ta. ¹⁰ Ikeñazute Yainkoari zer zayon atsegin, ¹¹ ta ez zaitezte iñuntako egite alpeñetan nasi; gaiztetsi itzazute, ostera; ¹² itzalgaizka oriek dagitena, esateko ere lotsagagañia da-ta. ¹³ Gaiztetsiak oro, beñiz, argiañen agertzen dira; agertzen dan edozer, argi dalako. ¹⁴ Argatik esana dago:

**Yaiki, loti ori,
iñañtetik irten,
ta Kisto'k argituko zaitu.**

¹⁴ Is. XXVI, 19 ta LX, 1

¹⁵ Zuríki, beraz, gomazute nola ari izan beaí duzuten; ez, noski, ergeltzat; guíbiltzat baizik, ¹⁶ astia ustiatuz; txarák dira egunak-eta. ¹⁷ Adingabe ez izan; adizute, osterá, zein dan Yaunaren gogoa. ¹⁸ Ardoz ez mozkoítu; loikeria berekin du-ta; Goteunez, bai, okitu zaitezte, ¹⁹ elkaí-aldietan elítoz, eresiz ta oyu deunez yardunik, eta zuen biotzetan Yainkoa txio ta eresika goretsirik. ²⁰ Danagatik Yainko Aitari eskeí egiozute beti Yesu gure Yaunaren izenean.

Senaí-emazteak elkaí buruz

²¹ Kisto'ren belduéz elkaíen mendean bizi zaitezte. ²² Emazteak, Yaunari bezela; senaíei menderatu bekizkie, ²³ emaztearen buru senaía dalako, Elizaren buru ere Kisto dan bezela; alako soñaren alako yaregílea. ²⁴ Beraz, Kisto'ren mendean Eliza dagon bezela, emazteak ere senaíen mendean beude guzitarako.

²⁵ Zuek, senaíok, zeron emazteak maite itzazute, Eliza Kisto'k maite izan ta arengatik bere burua eman zun bezela, ²⁶ ur-ukuztez ta itzez garbi ta deun eginda, ²⁷ bere begitan Eliza aratz agererazteko, iñolako orban, zimuí edo alakotsurik gabe. ²⁸ Oírela senaíek, beren soñak bezela, beren emazteak maite beaí ditute. Bere emaztea maite dunak, bere burua maite du. ²⁹ Iñork ez du, ba, iñoiz bere aragia goíoto; osterá ere, azi ta zaitzen du. Ta berebat Kisto'k bere Eliza; ³⁰ bere soñatal baikaitu (bere aragi ta ezuía). ³¹ Argatik gizonak bere aita ta ama utziko ditu, ta bere emaz-

31 As. II. 23, 24

teari itsatsiko zayo, ta biak aragi bat egingo dira.
 3² Aundia da misteri au; Kisto ta Elizaren artekoaz au diot gero. 3³ Orela, ba, zuenean ere nork bere emaztea, bere burua bezain maite beza; emazteak, beñiz, senařari lotsa berakuskio.

VI

Guraso-semeak elkaři buruz, baita nagusi-mořoyak ere

Seme-alabak gurasoenganako, Yainkoaren edeřagatik esangin azaldu zaitezte; zuzena ori da-ta. ² **Zure aita-amei begirunea erakutsiezu.** Ara lenbizi agindua, ta urėnean agintza: ³ **ondo ibili ta luřgañean luzaro bizi zaitez.** ⁴ Zuek, beñiz, gurasook, ez itzazute zuen seme-alabak sumindu; zuzendu, bai, ta Yaunaren ikasbidean azi.

⁵ Mořoi zeratenok zuen luřeko nagusiei, Kisto'ri bezela, belduřez, ikaraz, ta biotz zintzoz men egiezute; ⁶ mořoyena ayen begitan bakařik egiteke, gizonak limuřtzeko; Kisto'ren mořoyei dagokienez, ostera, Yainkoaren naya gogoz betetzeko, ⁷ Yaunaren edeřagatik, ez gizonenagatik, mořoi-lanari ekiñik. ⁸ Yakin beařduzute, ba, bakoitzak legiken ona Yaunak sarituko diola, mořoi, naiz bere buru dedila ere.

32 Misteri au Kisto'ren ta Elizaren arteko itsuta, biok bat egiñak dauzkana, da: ta gizarteko ezkontza Yainkoak paradisian sořtua, misteri onen irudi egokia dugu. Argatik, ezkontza oso aguřgařia zan lenbitik; aguřgařiago da, ordea, Kisto'k siñestunen artekoa eskeř-ituři edo ikuřton egin zusetik.

² Irt. XX, 12

³ Deut, V, 16

9 Órelaxe ayekin zuek ere, nagusiok, yarduzute, zemak alde bat utzita. Ba-dakizute, ba, zeruan dagola ayen ta zuen Yauna; ta Arentzat norkeririk ez dago.

Yainkoaren iskiluak.

¹⁰ Gañerakoan, [ene senideok], azkañtu zaitezte Yaunagan Aren indaíaren kemenez. ¹¹ Yainkoaren iskiluak yantzi itzazute, tuxuriaren mañukeriei gogoñ egiteko. ¹² Ez da, ba, aragi ta odolaren aurka, darabilgun buruka; beste al izate ta indaíen aurka da, ilunbe ontako buruzagien aurka, ortzipean ari diran gogo aiduñen aurka da. ¹³ Argatik Yainkoaren iskiluak yantzi itzazute, egun gaitzari gogoñ egin, ta, dana burutu ondoren, sendo iraun dezakezuten. ¹⁴ Zaudete, beraz, tink, egia geñikotzat, eta zuzentasuna bulañekotzat arturik, ¹⁵ gentzaren Beñi Ona zabaltzeko oñak yantzirik. ¹⁶ Siñnestea batez ere babeskintzat eukazute, artan aiduñaren gezi gori guziak itzal ditzakezuten. ¹⁷ Osasun-buroskolta gogo-ezpata dan Yainkoaren itza ar itzazute. ¹⁸ Otoyari beti ekiezute biotzeko arenez, deun guzien alde leyaz otoi egiteko beti ernai zaudetela. ¹⁹ Nigatik ere otoi egizute, aoa irikitzean esatekoa eman dakidan, Beñi Onaren mami ostena zabal zabal aldañikatzeko, ²⁰ ta bilurketan ere aren geznaria naizan ezkerro, artzaz beañ dudanez mintzatzeko kemena dezadan.

A z k e n a

²¹ Nere goraberak eta zeri nakion yakin ditzazuten, beñiz, Titiko'k, anai maitagañi ta Yaunaren moñoi zin-

tzoak, dana azalduko dizue. ²² Artarakoxe igorí dizuet, ba; nere beí izan dezazuten, eta zuen biotzak zuzpertzitza.

²³ Yainko Aitak eta Yesu Kisto Yaunak gentza ta maitasuna siñestearekin senideoi bemazkizuite. ²⁴ Bego eskeía Yesu Kisto gure Yauna aspertzeke maite dutenekin. Ala biz.



PILIPOI'TAĒNTZAKO

PAUL'EN IDAZKIA

Pilipoi, Makedoni'ko iri nagusia zan, ta ango Eliza Paul'ek Euro-pa'ko lego' zabalean irasietako lena. Siñestun ayek beti esku-zabal ta leratsu azaldu zitzazkion. Ta bestengandik ezer artu nai ez zun Paul'ek, ayen ukar ta sorozkiak, bai, artzen zitun pozik, zein azkutik zetozkion baitzekusan. Ukar ayetako bat, baitegian itxirik Paul zegola yakitean, Epaprodit'en bidez Eroma'ra igo'ri ziotena, idazki ontarako eretia izan zan. Dana bertan seme laztan ayei aita onaren atsegiña, biotz samu'ra ta eske' ona erakusteko dio, nabastare bete betean, ta irakasleren yarduera alde bat utzirik. Ala ere, bertan iraku'gai dugu (II, 5-11) Kisto'ren Yainkotasunaz eta Gizakundeaz Paul'ek idatzitako aito' argiena.

I

Atsegin-agu'ak

Paul ta Timote'k, Yesu Kisto'ren mo'roi auek,
Pilipoi'n zaudeten Yesu Kisto'ren deun guziei,
gotzai ta diakonei.

² Yainko gure Aitaren ta Kisto'ren adei ta gentza.

³ Zuentzaz oroitzen naizan bakoitzean Yainkoari eske' egiten diot, ⁴ Beragana pozik nere otoi guziak zuen guzion alde yasorik. ⁵ lenbiziko egunetik gau'rdano Be'ri Onari erakutsi diezuten eraspengatik. ⁶ Etsita ere nago, eginbide on au zuenean asi dunak Yesu Kisto'ren eguneraño burutuko dula. ⁷ Bidez nago ere o'ela zuetzaz etsita; nere bilu'ketan ta Be'ri Onaren alderako aito'ketan eske'kide zazkidaten ezkerro, bio-

tzean zuek oro zauzkadalako. ⁸ Yainkoak ba-daki, ba, zeinbesteraño zuen guzion zaleturik nagon Yesu Kisto' ren e'rayetan. ⁹ Ta au da nere eskaria: gero ta geyago senaz ta yakitez zuen maitasuna azko'rtu dedila, ¹⁰ onena aukeratzeko; o'rela, garbi ta aka'rkizunik gabe Kisto' ren egunean azaldu zaitezten. ¹¹ Yesu Kisto' gandik dato' ren zindokuntza-zituz beterik, Yainkoaren aintza ta goral-dirako.

Be'ri Onaren au'rapenak E'roma'n

¹² Zuek, senideok, yakitea nai dut nere goraberak Be'ri Onaren au'rapidera yo dutela. ¹³ Yauregiko guziei, ta enparauei ere bai, nabari egin baitzaye Kisto' ren-gatik bilu'rtuta nagola. ¹⁴ Ta nere bilu'ringatik Yaunaren uste ona senide geyenetan azka'rtu dalarik, Yainkoaren itza beldu'rik gabe ba'reyatzeko kementsuago egin dira. ¹⁵ Batzuk, noski, bekaitz ta aye'e'ez, bestetzuk, ordea, gogo onez Kisto alda'rikatzen dute. ¹⁶ Auek maitasunez o'rtan ari dira, Be'ri Ona yagoteko ya'rita nagola baitakite; ¹⁷ beste ayek bekaitzez ta ez zintzoki Kisto iraga'rtzen dute, nere bilu'rketan atsekabe niri eman ustez. ¹⁸ ¿Niri, ordea, zer? Dana dala, alegikeritan naiz egitan, Kisto alda'rikatua izan ezkeru, pozten naiz ni, baita poztuko ere. ¹⁹ Zuen otoyak eta Yesu Kisto' ren Atsa dirala bide, guzi au osasunga'ri biu'rtuko zaidala baitakit. ²⁰ Uste bete betean etsita nago, ba, ez naizala alketurik geldituko; nere so'nean, osteru, Kisto, beti bezela, orain ere

¹⁷ Paul'i min emateagatik, ura bezainbatetsu agertzea' ren ta aren ospea motelduz, berena geitzea' ren.

aundietsiko dala, bizi edo ilbeára ba'nintz ere. ²¹ Nere-tzat, ba, bizitza Kisto da, ta iltzea irabazkin.

²² Ez dakit, óratiño, zer aukeratu; aragitan bizi ezkerro, onurakoára ba-liteke nere lana-ta. ²³ Alde ta aldetik ertsita nago: izan ere, Kisto'rekin egoteko, il nai nuke; niretzat au askoz obe. ²⁴ Zuengatik beárago, ordea, aragitan gelditzea. ²⁵ Ta uste ontan ba-dakit zuekin geldi ta egongo naizala, siñestean auíferatu ta poztu zaitezten. ²⁶ Órela zuengan nere itzuleraz poza ugarituko da Yesu Kisto'ren bidean.

Beí Onari dagokionez bizi beaí

²⁷ Dana dala, Beí Onari dagokionez yarduzute; óra zuek ikustera yoanda, naiz zuengandik urúnduta, entzun dezadan gogo batez sendo dirauzutela, adore berberaz Beí Onaren siñesmenagatik buíukatzen, ²⁸ etsayak gorabera ezertan izutu gabe. Ara ayentzat ondamenaren agiria; zuentzat, ordea, osasunarena; ta ori Yainkoa-gandik. ²⁹ Kisto'ri buruz, siñestea ez ezen, Arengatik yasatea ere emana baitzaizue, nigan ikusi zenuten, ta orain dantzuzuten buíuka bera duzute-ta.

II

Norberakeria ito, guziak bat izateko

B éraz, Kisto'rengan adorerik, maitakuntzan azkaírik, gogoan erkidetzarik, eta biotzean érukirik baldin ba'dago, ² nere poza bete egizute, iritzi bat, lera bat,

gogo bat eta biotz bat guziok eukirik. ³ Ezer ere ez egin bekaitz edo aókeriaren eragitez; aitzitik ere, bakoitzak gogo apalez bestea nagusitzat begira beza, ⁴ norberarenaz baño besterenaz ayolago azalduz. ⁵ Bekizue irazpidetzat Yesu Kisto'rengan dakusguna. ⁶ Tankeraz Yainko izaki, buruz gañeko uzia ez litzayoke Yainkatzat egotekoa. ⁷ Bereaz ustu zan, ordea, yopu-tankera aíturik, giza-antzeko agertzeaén.. ⁸ Ta azpegietatik gizontzat ezaguna izanda, bere burua apalduzun, iltzeraño men egiñez; gurutzean iltzeraño gero. ⁹ Argatik Yainkoak Bera aupatu du, ta edozein izenen gañeko izena eman dio, ¹⁰ Yesu'ren izenari belaun guziak, zerukoenak, lu'ekoenak eta lu'pekoenak maku'rtu dakizkion, ¹¹ ta Yainko Aitaren goraldirako, mingain guziek Yesu Kisto Yauntzat aito'rtu dezaten.

Osasunerako aolkua

¹² Beraz, ene maiteok, nere au'ean len bezela, ta areago ere, orain, nigandik urun zaudetenean, esagin zakizkidate ta zuen osasun-arloa beldu'í-ikaraz azkene-raño eramazute. ¹³ Yainkoa da, arean, bere gogara zuengan nai izatea ta burutzea daragizana. ¹⁴ Dana marmar ta ezmezik gabe egizute, ¹⁵ e'í oke'í-ta gaiztoaren erdian Yainkoaren seme zintzo ta uts gabe zaitezten. Zuziak lu'ean bezela, ayen artean ageri zerate ¹⁶ bizirako itza eukitzen. O'írela Kisto'ren egunean ila'raindu naiteke; nere atxintxi ta nekeak alpe'ík izanak ez daitezke-ta. ¹⁷ Baña zuen opari ta yaureskein gañean

erainbeara ba'nintz ere, poztuko nintzake, ta guzioi pozkide izango. ¹⁸ Poztu zaitezte zuek ere, nere poza zuentzat arturik.

Timote ta Epaprodit'en alde

¹⁹ Yesu Yauna lagun, aurki zuenera Timote igoertzeko ustean nago, zuen beñi yakinda, nere biotza pizkoertzeko. ²⁰ Besterik ez baitut ain gogaide, ta dagokizuena begiratzeko ain ayolatsu. ²¹ Berena guziek bilatzen baitute, ez Yesu Kisto'rena. ²² Ba-dakizute zein zintzoki ibili dan, Beñi Onaren alde nerekin, semea aitarekin bezela, lan egiten. ²³ Bera aukeratu dut, nere arazoaz zer dan usmatuta bereala zuenera igoertzeko. ²⁴ Nerau ere, Yainkoa lagun, zuenera elduko naizala uste dut.

²⁵ Anartean, zuek nere beñaldian urgazletzat bidali zenidaten Epaprodit, nere anai, lagun ta gudalkidea, igoñi beñ nizuela uste izan dut. ²⁶ Zuen guzionganako iskiaz baitzegon, baita atsekabez ere, gaxo egon zala entzun zenutelako. ²⁷ Gaxo egon da, noski, bai ilagian ere; baña Yainkoa artzaz eruki izan da; artzaz bakañik ez, nitzaz ere bai, atsekabe gañean atsekaberik ez dezan. ²⁸ Lenbaitlen igoñi dizuet, beraz, ura ikusita beñiro poztu zaitezten, ta atsekabe ez nadin. ²⁹ Abegi ona egiezute, beraz, Yaunaren edeñagatik, eta oñelakoak aintzat ar itzazute. ³⁰ Kisto'ren egitekoagatik iluñan egon da, bere bizia zorian yañirik, nere alde zuek ezin zenegitena betetzeko.

III

Yudukeriak utzi, Kisto'ri yaraitzeko

O rézkero, senideok, Yaunaz poztu zaitezte. Beti bat zuei idaztea ez zait nekagaí, ta zuentzat baitezpadakoa da. ² Zurt egon txakuíei buruz, zurt langile txaíei buruz, zurt iñausiei buruz. ³ Erdaindu yatoíak gu gera, Yainkoa gogoz yauresten dugunok, Yesu Kisto'gatik ilaíaintzen geranok, eta uste ona aragitik ez dugunok.

⁴ Aragitik ere uste on dut, ordea, nik. Aragitik uste on izan dezakelakoan iñor ba'dago, areago ni, zortzi eguneko erdaindu au, ⁵ Israel eíoko, Benyamin leñuko, ebertaíengandik ebeítaí, legez parisaitaí, ⁶ ta azkuz, Elizaren yazaíle, legebidean akaíkizunik gabe ibilia, naizan au.

⁷ Bañan obaritzat neukan ori, Kisto'ren ondoan kalte deritzat. ⁸ Dan dana berebat kalte deritzat Yesu Kisto gure Yaunaren ezaguera garaitsuaren ondoan. Arengatik dana gogoz galdu ta simaurítzat dut, Kisto irabazteko, ⁹ ta Beragan aurkitzeko, ez neronengandik edo legetik ernetako zindokuntzarekin, Kisto'ren siñestetik eta, siñeste onen bidez, Yainkoagandik datoíkigun zindokuntzarekin baño. ¹⁰ Oírela, Bera ta Aren beípiztearen indaía ezaguki, nekaide egiten natzayolarik, ¹¹ ilartetik beípiztera eldu naiteke-ta.

¹² Elburura oraindik ez naiz noski eldu, gara osora gabe naiz-ta; artara leyatzen naiz, ordea, atzeman ote

dezakedan, Yesu Kisto'k atzeman naun ezkerok. ¹³ Atzeman dudalakoan ez nago, senideok. Ara, beriz, zertan nagon osorik; atzekoa aztuta aurera ekinenez, ¹⁴ elburura leyatzen naiz, Yesu Kisto'ren bidez Yainkoak deitu naun sarira eltzeko. ¹⁵ Ori bedi garakoak geran guzion asmoa; ta beste zerbait ba'deritzazute, oretzaz ere Yainkoak argituko zaituz. ¹⁶ Eldu geran unea dana dala, beriz, txede au baka'rik gure uratsen araua bego.

Kisto'gandik ez sayestu

¹⁷ Nere antza a' ezazute, senideok, ta gugan duzuten eredu dabilzane' so egiezute. ¹⁸ Askotsu baitira o', ta ayetaz sa'itan esan dizuedana orain ere nega'ez dasaizuet, Kisto'ren gurutzari aitzika dabilzananak, ¹⁹ amaitzat eriotza, Yainkostat sabela, ila'rainbidetzat beren alkea, ta gozaga'itzat lu'ekoa dutela. ²⁰ Gure bizia, oster, zeruan dago, ta andik Yaregile zu'ian eto'rtzekoa dan Kisto Yaunaren zai gaude. ²¹ Berak, dana bere azpian ya'rtzeko daukan al izatez, gure so'in dolor' au aldatu ta bere so'in aintzatsuaren idekotsu biu'rtuko du.

IV

Urbil dago Yainkoa

Orela, beraz, ene senide maite ta kutunok, nere poza ta buruntza zeratenok, Yaunarengan irauzute, laztanok.

² Ebodi ta Sintike'ri aolku dagiet Yaunarengan gogo

batez egoteko. ³ Ta zuri, nere lagun yatoí orí, daskaizut emakume oriek urgazi ditzazula; Kelmen'ekin ta beste nere lankideekin Beí Onaren arloari nere aldamenean ekin baitiote. Guzi orien izenak bizitza-idaztian daude.

⁴ Pozik egon beti Yainkoarengan; beíiz dasaizuet, pozik egon. ⁵ Gizaki guziei nabari izan bekie zuen erabidea. Auíki dago Yainkoa. ⁶ Ezergatik ez kezkatu. Edozertan, ostera, Yainkoagana eskeí onez zuen otoi, aíen ta eskariak igo bitez. ⁷ Ta asma ala baño areago dan Yainkoaren gentzak zuen biotz-adiñak zaitu bitza Yesu Kisto'rengan.

⁸ Osterantzekoan, senideok, zin, yatoí, zuzen, garbi, maitagaí, aipu edereko, onbidetsu edo goragaía liteken edozertara biyoa zuen ataza. ⁹ Nigandik ikasi ta artu duzutena, nigandik entzun ta nigan ikusi duzuten guzia egizute. Ta gentza-Yainkoa zuekin dagoke.

Eskeí oneko itzak

¹⁰ ¡Nere poza Yaunaren auíean, nere alde zuen lera noizpait ere biíloratu da-ta! Ortan zeundeten, azaltzeko mugonik gabe, ordea. ¹¹ Au ez diot, iñolako beaíaldik eraginda; neronentzat naiko izaten ikasita bainago. ¹² Ba-dakit ururik eta yoritsurik egoten; edozertan edozertarako azita nago; ase ta gosetarako, geyegi ta gutxi-


³ Nor zan Paul'ek ori diotsana ez dakigu. ¿Pilipoi'ko gotzai edo elizpurua? idazki au pilipoitaíei zeramayen Epaprodit? ¿Sizigo izenez Pilipoi'n gizon nabari bat? Sizigo eladeraz, ta uztaíide euskeraz bat dira; ta lagun edo lankide esan diteke. Dana dala, uztaíide au emakume ez zan, protestante batzuk ziotenez, gizon baño; gizonaz bakaírik *γνήσις* esan diteke.

rako. ¹³ Edozertarako ba-naiz, azkártsen naunaren indáez. ¹⁴ Ondo egin duzute ala ere latzaldian ni sorozten. ¹⁵ Ba-dakizute, ba, pilipoitaók, Beíi Ona zabaltzen asi ta Makedoni'tik irten nintzanean, zuek izan ezik, beste Elizek ar-emanik nerekin izan ez zutela. ¹⁶ Zuek, bai, Tesalonike'ra ere bein ta beíz, beár nukena igoí zenidaten. ¹⁷ Ez nauzute emarien zai; zuen átzekorako zitu ugari opa dizuet, osterá. ¹⁸ Dana dut, baita eruz ere. Okituta nago, bidali didazutena Epaprodít'engandik artu ezkeró. Ori da, bai, luín goxo, opari edeí ta Yainkoaren gogarakoa. ¹⁹ Zuen utsuneak, beíz, nere Yainkoak aberaski bete bitza Yesukristo'ren aintzarako. ²⁰ Gure Yainko ta Aitari, betoókio ospea menderen mendetan. Ala biz.

A z k e n a

²¹ Deun guziei agur egiezute Yesu Kisto'rengan. ²² Agur dagizute deun guziek, Kaiser'en etxeoek batez ere.

²³ Bego zuen biotzetan Yesu Kisto gure Yaunaren adei-eskeá. Ala biz.



KOLOSAI'TAĒNTZAKO PAUL'EN IDAZKIA

Kolosai'ko siñestunetan oso gutxi ziran Mois'en legean aziak. Geyenak, Beři Ona aldařikatu zien Epapra bezela, atzeřiko legetik eta yainko aizunen yaurespidetik zetozan. Yuduak ala ere ugari ziran bazteřalde ayetan; ta yan-edarietaz, yai-egunetaz ta aingeruetaz beren legean ikasia, giza-asmakeriekin eta ekanduriekin naspildurik, Eliz Beři aren siñesteari kalte aundiak zekazkieten, Kisto'ren goitasuna aingeruenarekin berdinduz, ta Yainkoaren begitan bitarteko bakařa Kisto Yauna zaigula ukatuz. Kolosaitařak ikaspide okeř ontatik asagotzeko, Paul'ek idazki au bidali zien, Kisto'ren goitasuna, Betiko Aitarena berbera, goratzen ziela, ta, Bitařteko bakařari zoř zayonez, Ari atxikitzeke zeragitzila.

I

Gaul'ek, Yainkoaren nai izatez Yesu Kisto'ren bidali onek, eta Timote anayak,
² Kolosai'ko senide deun ta Kisto'ren siñestunoi,
 Yainko gure Aitarengandik eskeř ta gentza.

Atsegin-aguřak

³ Beti zuen alde otoi egitean, Yainkoari, Yesu Kisto gure Yaunaren Aitari, eskeř ona erakusten diogu;
⁴ entzunda baikaude zein siñestez Yesu Kisto'ri, ta zein leraz deun guziei atxikiak zatzazkioten; ⁵ Beři Onaren itz egitsua entzunda, zeruan zuentzat dagon sariaren zai zaudete-ta. ⁶ Eldu zaizuen Beři On au luř osoan ere ba-dabil zituz aunditzen, zuenean ibili dan bezela, bera entzun ta Yainkoaren adeibidea egiaren arauz ezagun zenuten egunetik. ⁷ Ořtarako Epapra, gure mořoikide

maite ta zuekiko Kisto'ren ordeko zintzoa, irakasle izan zaizue, ⁸ ta berak biotzeko zuen lera yakiñerazi digu.

⁹ Argatik, beñi au entzun genun egunetik otoiketari zuen alde ari gera aspertzeke Yainkoari eskatzen, bere gogoaren ezagueraz ta goi-yakitez ta adiñez bete betean argitu zaitzazala, ¹⁰ Yainkoari zoñ zayonez, Aren gogara orotan zabiltzaten, edozein egite on ekañtzen, ta Yainkoaren ezagueraz auñeratzen, ¹¹ Aren al izate ospetsuak guziz indañturik, egonañiz, ta pozez edozer yasateko. ¹² Ta Aitari eskeñ dagiogu deunen oñordekide argian izateko lain egin zaituzalako, ¹³ ta bere Seme kuñunaren yaureñira, ilunbe-mendetik atera ta aldatu gaitulako.

Kisto'ren gurentasuna

¹⁴ Seme onengan yareikuntza ta ogen-asketsa dauzkagu. ¹⁵ Bera Yainko ikusi eziñaren irudia da, egindako guzien gain lensemea. ¹⁶ Beragan guziak egiñak baitira, zeru-luñekoak, ikusgañiak eta ikusi eziñak, Aulki, Yaun, Nagusi ta Agindetunak. Dana Berak eta Berarentzat egiña da. ¹⁷ Bera guzien auñena da, ta Beragan guzien izatea dago. ¹⁸ Bera soñaren edo Elizaren burua da; Bera da soñburua, ilartetik lenpiztua, orotan auñena izateko. ¹⁹ Dana Arengan, Yainkoak naita, bilduta baitago, ²⁰ Aren bidez izaki guziak, zerukoak eta luñekoak,

15-18 Yainko ez diran guziak, Ark egiñak dira. Yainkoaren Semea, Yainkoaren Itza, beñiz; egiña ez da, sendua baño; ta ori, Yainkoa Yainko danetik, betidanik. Yainkoak ezerezetik izatera edozer atera baño len, Itza ba-zan, betidanik ba-zan. Yesu Kisto, beraz, Yainko dan aldetik ez da, Areitañek ziotenez, egindakorik lena edo auñena; egindako guziak baño aundiago ta guziz gurenago baizik, guzien Egile, Eredu ta Elburua, Betiko Aita bezain aspaldiko ta mugagabe aundi ta aintzatsua, izatea berbera dutelarik.

Berekin adiskidetzeko, Aren gurutzeko odolez onezkoak egiñik.

²¹ Zuek ere, biotzez ta egite txárez Beragandik urun beñola zebiltzatenok, ²² aragizko soñaren eriotzaz orain Berekin adiskidetu zaituz, bere auñean garbi ta akañkizunik gabe ageri zaitezten. ²³ Ortarako, beñiz, siñestean érotu ta sendotuta egon beañ duzute, zuei ta ortzipeko guziei iragañitako Beñi Onaren agintza kordokatzeke itxarorik.

Zein dan Paul'en egitekoa

Beñi Onaren moñoi egiña naiz Paul au, ²⁴ ta orain pozten naiz zuengatik nekeak yasatean, Kisto'ren soña dan Elizaren alde Kisto'ren nekeei peitu zayena nere aragian beterik. ²⁵ Elizaren moñoi yañita bainago, Yainkoaren itza zearo aldañikatzeko ardura Yainkoak zuei buruz leporatu didan ezker. ²⁶ Aren burupide itzalgañia ostenik baitzegon lengo mende ta gizaldientzat; orain, oster, deun guzientzat nabari da. ²⁷ Yainkoak erakutsi nai izan baitie zein aberats ta guren dan atzeñitartean burupide au: Kisto zuengan, zerurako itxarobidea. ²⁸ Bera aldañikatzen ari gera gu, gizaki guziak argitzen, gizaki guziak Kisto'rengan bikain azaldu dite-

²⁴ Yesu Kisto'ren nekaldia, gu gaizkatzeko ta gure ogen-zoña garbizeko beañ baño oso aundiago ta gain-gañezkoa da berez. Bañan ordain ori ez dugu guretzen, kristau bizitza betetzeko beañak diran nekeak Aren ereduz ta edeñagatik yasanez baño. Ara, bakoitzari buruz Kisto'ren nekaldiari peitu zayona. Kristau bizitza, beñiz, ez dezakegu añtu, Yainkoaren bidaliek aldañikatzen ez ba'digute; ara Kisto'ren nekaldiari peitu zayon beste zertxo bat; Aren bidalien lana.

zan. ²⁹ Ta órtañ diardut zain ta muin, indaítsuki nara-
giñaren eragitez buńukatzen.

II

Giza-asmakeriak utzi, Kisto'ri atxikitzeko

Nai dut, ba, zuek yakitea zeinbesteko buńuka dara-
bildan zuengatik, eta Laodikei'n daudenengatik,
eta nere aurpegia oraindik ikusi ez duten guziengatik,
² biotza susperťu dakien, ta maitasunez elkańturik,
eta adin-argiz bete ta aberasturik, Yainkoaren burupide
ostena, dazaguten: Aitarena ta Kisto'rena. ³ Onengan
baitaude yakintzaren ta ezagueraren altxoń guziak osten-
duta.

⁴ Au, beńiz, diot, ele xuriz ińork liluratu ez zaitzazan.
⁵ Sońez urun nagola ere, gogoz zuekin bainago, ta
pozik gero, zuen yardunbide ona ta Kisto'ri diozuten
sińeste sendoa begirata.

⁶ Beraz, Yauntzat Yesu Kisto arťu duzuten ezkerro,
zabiltzate Aren bidetik, ⁷ Arengan eńoak eginda, Aren
gain eraikita, ikasi duzuten sińestean sendotuta, eskeń
onez beterik. ⁸ Zaudete zurt, ińoren yakinbideko ele
xuriz atzipetuta, Kisto'ren irakastetik gizarteko asmake-
rietara ta ludi-gayen azpira ez etońzeko. ⁹ Beragan
baitago Yainkotasun osoa bete betean sońez. ¹⁰ Ta
Beragan, edozein nagusitza ta al izatearen Buruagan,
beterik zaudete. ¹¹ Beragan ere erdainduak izan zerate,
ez aragia ebakirik eskuz egiten dan erdainkuntzaz,

Kisto'ren erdainkuntzaz baño. ¹² Ukuzpenez ere Arekin eortzi ta be'rpiztu izanak zerate, Bera ilartetik be'rpiztu dunaren al izatea siñetsirik. ¹³ Ogenez ta aragi-erdain-gabez ilda zeundetenok, Arekin bizitzara eka'ri zaituz, ogen guziak asketsirik. ¹⁴ Eta erabakiekin aurka zegokigun agiria ezabatu ta erditik kendu zun, gurutzari yosirik. ¹⁵ Nagusi ta altsuak erantzi ta alketarako agirian atera ditu, ayen lepotik artan garai-ospea erakutsirik.

¹⁶ Iñor ez beto'rkizue, yan-edari, yayegun, ilbe'ri edo larunbataz ebazketan. ¹⁷ Eto'rkizunen itzala dira guziok; mamia, be'riz, Kisto da. ¹⁸ Iñork ez bezaizue saria galerazi, apal ta aingeruzale azalduz, ta ikusi ez dunaz mintzatuz, bere aragi-zu'keriz a'rotuta. ¹⁹ Burua dan Arengandik askatuta dabil alakoa; ta burutik soin osoa, txurkun ta elka'rpidez eratu ta antolatua, Yainkoak damayon adorez garatzen da.

²⁰ Beraz, lu' ontako gayentzat Kisto'rekin ilak ba'zerate, ¿zertako zuei, lu'eko bizia ba'zeneramate bezela, iñork agindu lezaizueke: ²¹ «ez ori a'rtu, ez txastatu», erabiliz andegatzen danaz egiñik? ²² Gizaburu-pide ta irakaspentak dira arauok. ²³ Nolarebaiteko yau-reskuntza, apaltasuna ta soñarekiko laztasunagatik, yakintzaren usaya daka'rtte; aragi-asaskarako baizik ez dira, ordea.

14 Eskutitz edo agiri au, naiz Lege Za'ra bere agindu guziekin, naiz gure ogenei zo'f zayen epai-agiria dala, Kisto'k gurutzera yaso ta bere eriotzaz artan ezereztu zun, Lege Za'retik eta geronez ezin iges genkion galtzerako epaipetik askatu giñuzala.

19 Beg. Epes. IV, 16.

III

Bizikera bedia

Beraz, Kisto'rekin berpiztu ba'zerate, goikoen bila ibili zaitezte; goyan Kisto baitago Yainkoaren eskui aldean eserita. ² Goikoak itzazute gozagañi, ez luřgañekoak. ³ Il baitzerate, ta zuen bizia Yainkoagan Kisto'rekin ostenik baitago. ⁴ Kisto, zuen bizia, azalduko danean, zuek ere Arekin ospez azalduko zerate.

⁵ Beraz, zuen soin-ataletan luřkoya dan guzia, izořkeria, likiskeria, zantařkeria, griña gaiztoak, mikuinkeria, edo berdin dana, irudiñentzako guřkeria, ito itzazute. ⁶ Auek dirala bide, Yainkoaren aseřea gizaki siñesgořen gañera yetxi da. ⁷ Ořelakoetan zuek ere noizpait ibili zerate, ayekin bizi ziñatenean. ⁸ Gauřgero, beriz, guziok, aseřea, gořotoa, mardailkeria, birao ta ele zantařak zuengandik ta zuen aotik astandu ta urutiratu itzatzute. ⁹ Gezuřik elkaři ez esan; gizon zařa bere egikeraekin erantzi ezazute, ¹⁰ ta beřia, bere Egilearen ereduz yakinbidean beřitua, yantzi. ¹¹ Onezkero ez dago elendař ta yudurik, erdaindu ta erdaingaberik, ařotz ta eskitiařik, yopu ta yareirik; guziengan guzia dan Kisto baizik.

Elkařenganako yardunbidea

¹² Beraz, Yainkoarentzat aukeratu, berezi ta maitagařiak zeraten ezkerro, biotzeko eřuki, adei, apaltasun,

erabide ta egonaña yantzi itzazute, ¹³ elkar yasan ta asketsirik, elkañen arteko akañbiderik ba'liz. Yaunak asketsi zaituzan bezela, zuek ere elkar asketsazute. ¹⁴ Guzion auñena, beñiz, maitasuna, lokañi bikaña. ¹⁵ Garai bego zuen biotzetan Kisto'ren gentza; artara deituak baitzerate, soin bat eginda. Eskeñ onekoak ere izan zaitezte. ¹⁶ Kisto'ren itza zuenean oparo bebil, senik aundienez elkar argitu ta berotu dezazuten, eskeñ oneko gogoz Yainkoa zuen biotzetan eresiz, abestiz ta oyuz goretsirik. ¹⁷ Edozertan, itzez naiz egitez, ari zeratela, Yesu Kisto'ren izenean dana egizute, Aren bidez Yainko eskeñ ona erakutsirik.

Etxekoekiko yardunbidea

¹⁸ Emazteak, zaudete zuen senañen mendean, Yaunari buruz egokia danez.

¹⁹ Senañak, zuen emazteak maite itzazute, ayekiko gañatz azaltzeke. ²⁰ Semeak, gurasoei orotan men egitezute; ori baitzayo Yainkoari atsegin. ²¹ Gurasoak, zuen semeak ez aseñerazi, uzkuñ egin ez ditezan.

²² Moñoyak, etxeko nagusiei orotan men egitezute, ez ayen begitan bakañik moñoyenak burutuz, gizonen edeña eukitzeko, Yainkoaren belduñez ta biotz xaloz baño. ²³ Edozer egitean, gogotik ekin, Yainkoarentzat bezela, ez gizontzat. ²⁴ Saritzat yarauntsia Yaunagandik añtuko duzutela yakiñik, Kisto Yaunaren

¹⁴ lokañi bikaña: gizonak Yainkoarekin ta elkañekin biltzeko.-Edo bestela; zintzotasunaren lokaña=bizitza zintzo ta bikañerako beañ diran onbide guziak bildurik dauzkan lokaña.

mo'oi izan zaitezte. Oke'ean ari danak oke' eginda-koaren ordaña a'rtuko du, ba; ²⁵ ta norkeririk Yainkoarenengan ez dago.

IV

Nagusiak, zuzen ta bide dana mo'oyei emayezute nagusi bat zuek ere zeruan duzutela yakiñik.

Guzientzako aolkuak

² Ekin otoyari, ta atza'ri egon artan eske' egiten.
³ Gureztat ere otoi egizute, alda'irako atea Yainkoak iriki dezaigun, Kisto'ren itzalpekoa iraga'rtzeko, Arengatik bilu'ez bainago, ⁴ ta, bea' bezela mintzatuz, adirazteko.

⁵ Atze diranekin zu'ki yarduzute, eretia a'rtuz.
⁶ Zuen elea beti adiguritsu ta gazituxe izan bedi, nola bakoitzari erantzun bea' diozuten atemanik.

Gorantzi ta agurak

⁷ Nere goraberak oro azalduko dizkizue nere anai maite, lagun kirmen ta Yainkoarenetan mo'oi-kide zaidan Tikiko'k. ⁸ Ain zuzen ere, nere be'ri zuei eka'rtzeko ta zuen biotzak suspertzeko, bera igo'ri dizuet ⁹ zuetako dan anai maite ta kirmen Onesimo'rekin. Emengo dana oriek azalduko dizuete.

3 alda'irako=Be'ri ona alda'rikatu ta zabaltzeko

5 atze diranekin=siñesgabekoekin.

¹⁰ Agur dagizute Aristark'ek, nere bilurkideak, eta Mark'ek, Barnaba'ren ilobakideak. Onetzaz ba-duzute beñi. Zuenera ba'letoñ, txera egiozute. ¹¹ Baita Zuzena deritzan Yesu'k ere agur dagizue. Auek bakañik ditut erdainduetan Yainkoaren erirako lankide, ta izan dira nere pozgañi.

¹² Agur dagizue Epapra'k. Yesu Kistoren moñoi au zuetako da, ta zuen alde otoiketari beti ari da, Yainkoaren nai guzia zearo ta zintzoki betetzen iraun dezazuten. ¹³ Aitoñ dagoñ neke asko darabilala zuengatik, eta Laodikei'n ta Yerapoli'n dauden guziengatik.

¹⁴ Agur dagizute Luka'k, sendagile maiteak, eta Dema'k.

¹⁵ Agur egiezute Laodikei'ko senideei, ta Ninpa'ri ta aren etxeko elizari. ¹⁶ Ta idazki au zuenean irakuñi ondoren, Laodikei'ko elizean ere irakur dedin orizute; zuek, beñiz, Laodikei'tarentzakoa irakurazute. ¹⁷ Ta Arkipo'ri esayozute: Begira Yaunagandik arñtu duzun ardurakizuna, burutu dezazun.

¹⁸ Neuk ere, Paul onek, neronen eskuz agur dagizuet. Oroñ zaitezte nere biluretar. Eskeña zuekin bego Ala biz.

10 Aristark; Beg. Bid. Eg. IX, 29; XX, 4; XXVII, 2 – Mark: Beg. Bid. Eg. XII-25; XIII, 13; XV, 36-40. Askoren ustez, Mark au da bigañen Ebaingeriaren idazlea.

14 Luka; irugañen Ebaingeria ta Bidalien Egiñak idatzi zituna. Dema; Beg. Pilm. I, 24 ta: Timot. IV, 10.

16 Ez dakigu idazki au galdu danik ala Epeso'tarentzakoa danik.

TESALONIKE'TARÉI

PAUL'EN IDAZKI LENA

Beři Ona Tesalonike'n iru aste ezkeru aldarikatzen Paul zegola, yuduek asefetuta andik eta Beroi'tik irtenerazi zuten (Bid. Eg. XVII, 1-15), siñestun beři ayek galbidean, ta bera ayengatik kezkan utzirik. Korinto'ra Timote'k elduta poztu zun, ordea, yazaaldian zein sendo ta arenganako zein zintzo azaldu ziran adirazten ziola. Poz au laztantsuki ayei erakusteko, beñolako lizunkeriarren kutsu guziak ayen artetik astantzeko, ta Kisto'ren itzuleraz oke' uste zutenagatik galdutako adorea ayengan pizkoitzeko, idazki au egiña da.

I

Paul'ek, Silban'ek, eta Timote'k,
Yainko Aitari ta Yesu Kisto Yaunari eratsitako
tesaloniketařen elizari,
eske' ta gentza zuei.

Eske' oneko aito'ra

² Yainkoari zuengatik beti eska' dagiogu, gure otoketan zuen oroipena aspertzeke be'rituz. ³ Gure Yainko ta Aitaren au'rean oroitzen baikera zein maratz siñestean, zein azkutsu maitasunean, ta Yesu Kisto gure Yaunarenganako itxaropenean zein aldakaitz zeraten; ⁴ ta baitakigu, senideok, Yainkoaren maiteok, nola aukeratuak izan ziñaten. ⁵ Ez baikenizuen itzez baka'rik Beři Ona aldarikatu; inda'rez, Goteunez, ta edotariko etsibidez baño. Ta ba-dakizute nola zuen alde ari giñan zuetan. ⁶ Zuek, be'riz, lo'raldi go'rian Goteungandikako pozez alda'ria a'rtuta, gure idekotsu egin ziñaten,

7 ta Makedoni ta Akai'ko siñestun guzien eredu egin ziñaten.

8 Izan ere, Yainkoaren itza zuenetik Makedoni'n ta Akai'n entzuten da, ta bazter orotara ere eldu da Yainkoaganako zuen siñestea; ezer esan bearik oretzaz ez dugula; 9 guzien erausketan baitabil zein aiera izan genun zuenean, ta nola irudiñetatik Yainkoarengana itzuli ziñaten Yainko bizi ta ziñari yañaitzeko, 10 ta Yesu, Aren Semea, ilartetik Berak berpiztua, zerutik noiz yetsiko zai egoteko; aseretik yagole dugu-ta.

II

Beñi Onaren lenbiziko aldaría Tesalonike'n

Ba-dakizute, senideok, alpeñik ez giñala zuenean sañtu. 2 Neke ta iraiñak Pilipoi'n, zuek dakizutenez, yasanda gero, Yainkoagan azkañtu giñan Yainkoaren Beñi Ona zuei buñuka askoz zabaltzeko. 3 Ez zan gure izketan asmo okeñ edo zitalik nasi, ez mañorik. 4 Beñi Ona gure ardurapean yañtzeko ontzat Yainkoak añtuta geundela, alakotzat mintzo giñan, ez gizarteko edeñ irabazteañen, biotza ikeñtzen digun Yainkoarena baño. 5 Iñoiz ere ez gera limuñkeriz mintzo izan; zuek ba-dakizute; ezta mozkingalez; Yainkoak ba-daki. 6 Giza-osperik ez dugu zuengandik, ez beste iñortzuengandik, bilatu. 7 Kisto'ren bidali gerala-ta, nagusitzat ari gintezkela ere, auñtxotzat azaldu giñan zuen artean, bere umeei tañañ egiten dien iñudea bezela. 8 Oñela, zuen

2 Beg. Bid. Eg. XVI 16-24.

zaleturik, Yainkoaren Beñi Ona ez ezen, geron bizia ere zuei eman gogo genizuen; oñen maitagañi egiñak ziñaten guretzat. ⁹ Oroi zaitezte, ezperen, senideok, gure neke ta armiñaz. Zuetako iñoren bizkañ ere ez izateko, gau ta egun lan egiñez Yainkoaren Beñi Ona zuenean aldañikatu genun. ¹⁰ Yainkoa aitoñ begokigu, baita zuek ere, zeñen zintzo ta zuzen ta akañbiderik gabe ari izaten giñan siñetsi zenutenokin, ¹¹ zuetako bakoitzarekin, aitak bere semeekin bezela, yarduten, ¹² ta bere yaureñi ta aintzara deitu gaitun Yainkoari zoñ zayonez ibiltzeko, añenez ta aolkuz zuek zirikatzen.

Aldañi onen ondorenak

¹³ Oñezkero taigabe Yainkoari eskeñ dagiogu, gure aotik Yainkoaren itza añtu zenutenean, ez giza-itza, Yainkoarena baizik, zalakoan, añtu zenutelako. Alaxe da, ba, ziñez, ta alakotzat ari da siñetsi duzutenon baitan eragiten. ¹⁴ Izan ere, zuek, senideok, Yesu Kisto' ren mendean Yudai'n dauden elizak bezelakotsu egiñak zerate; ayek yuduengandik yasan dituten neke berberak zuek ere zuen eñitañengandik yasan dituzute-ta. ¹⁵ Yesu Yauna ta igañleak il zituten yuduek gu ere esetsi gaitute. Yainkoarentzat iguingañi dirala, gizaki guzien auñka dabiliz, ¹⁶ osabiderako itza atzeñiei azaltzea guri eragotzen, ta oñela beren ogen-neuñia aspertzeke mukurutzen. [Yainkoaren] aseñea ere gañera amildu zaye erabat.

¹⁶ Mesia' ren eñitik Israel yaurtia zeukan gogoñkeriaz, ta Yerusalen'en poñokaldian lasteñ agertzeko zan atañaz ori dio Paul'ek.

Tesalonike'ra itzulmiñez

¹⁷ Gu, beñiz, senideok, apur' bateko zuengandik, soñez, ez ordea biotzez, urun gaudelakoxe, areago leyatu gera zuen aurpegia ikustera irikarik miñenaz. ¹⁸ Izan ere, zuenera eldu nai izan dugu; nik, Paul onek, noski, bein ta beñiz; baña Satan'ek eragotzi dit. ¹⁹ ¿Zein litzaiguke, ezperen, zuek izan ezik, Yesu gure Yaunari beñe etoñaldian aurkezteko, gure itxaropide, pozkañi ta ilañaintzeko buruntza? zuek noski gure ilañainbide ta poza zerate.

III

Timote'ren txostena dala-ta

Geyago itxoin ezinda, beraz, erabaki genun Atenai'n gu bakañik geldiltzea, ² ta Timote, gure anaya, ta Kisto'ren Beñi Onerako Yainkoaren moñoya, igoñi genizuen, siñestean zuek sendotu ta berotzeko, ³ loñaldi ontan iñor kordokatu ez dedin, oñtarako yañita gaudela baitakizute. ⁴ Zuenean oraindik geundela, iragañi genizuen gogoñaldiak yasango genitula; ta, zuek dakizutenez, oñela izan da. ⁵ Argatik nik, geyago itxoin ezinda, zuen siñesteaz beñi eske igoñi dut, zirikaria zirika zuenean ari izanda-edo, lana ustel biur' ez dedin. ⁶ Orain, beñiz, gurera zuenetik Timote eldu da. Berak zuen siñeste ta maitasuna adirazi dizkigu, baita gutzaz beti duzuten oroipen ona ere, ta gu ikusteko tiñia, zuekiko gurea

bezelakoa. ⁷ Órezkero, senideok, gure neke ta atsekabe guzietan poztuta gaude zuen siñesmenagatik. ⁸ Orain, zuek Yaunarengan sendo egon ezkero, gu bizi gera-ta. ⁹ ¿Nola Yainkoari eskeí dagiokegu zuengatik, órenbeste pozez zuengatik gaudenok Yainkoaren auíean, ¹⁰ gau ta egun aíen aíenez otoika, zuen auípegia ikusteko, ta zuen siñesteari peitu zayona betetzeko? ¹¹ Zuenera Yainko gure Aitak eta Yesu gure Yaunak bidea zuzendu bezaigute. ¹² Zuei, beíz, Yaunak elkarénganako ta oroenganako maitasuna bete ta ugaldu begizue, ¹³ zuenganako nerea ugari dan bezela; zuen biotzak onbidean sendotuta, gure Yainko ta Aitaren begitan akatsik gabe azaldu ditezan, Yesu gure Yauna bere deun guziekin datoíkenean. Ala biz.

IV

Bizi garbiaz

Azkenean, senideok, óra gure otoi ta aolkua Yesu Yaunaren izenean. Yainkoari atsegingaíi izateko dagokizuen ibilpidetik, guk irakatsita zabilzaten bezela, ekin areago auíera. ² Baitakizute zein diran Yesu Yaunaketz ezaíi genizkizuen aginduak. ³ Au da, ba, Yainkoaren naya; zuen deunkuntza; izoíkeritik alde zuek egitea; ⁴ bere soña guren ta deungaíi zaitzen zuetako bakoitzak yakitea, ⁵ ez ííts-gáretan, Yainkoa

⁴ bere soña; edo bere emaztea;; bitara aditu daiteke ΣΧΕΪΟΣ itza toki ontan.

ezagun ez duten atzeritaiek bezela; ⁶ ta egitekoetan bere senideari zoztoí edo iruzurik inork ez sartzea; oker guzian apentzalea Yauna da, ba, len ere esan ta aitoitu dizuegunez. ⁷ Ez baikaitu Yainkoak zantaikerietara deitu, zindokuntzara baizik. ⁸ Beraz, aginduon nardatzalea, gizanardatzale ez da, bere Goteuna eman digun Yainkoarena baño.

Senide-maitakuntza

⁹ Senide-maitakuntzaz inoren idazki beaiek ez dutute, Yainkoari zerok ikasita, elkar maite izaten baitakizute. ¹⁰ Au ere da Makedoni osoan senide guziei buruz egiten dututena. Aren, senideok, ekin auerago bide ortatik, ¹¹ nareki bizi izateko alegiak eginik, eta norberaren egitekoetan ta esku-lanean ari izanik, gorantzi dizuegunez, ¹² atzekoen begitan deduz ibiltzeko ta inoren beaiek ez izateko.

Ilen berpiztea

¹³ Ildakoenaz, beriz, zer dan yakiteke zuek, senideok, egotea ez dugu nai, ez zaitezten, itxaropenik ez daukatenak bezela, goibeldu. ¹⁴ Yesu il ta berpiztuzala sinesten ba'dugu, Yesu'rengan ilak ere Yainkoak Arekin bereganatuko ditu. ¹⁵ Yaunaren itzez aitoí au ere egingo baitizuegu: guk, biziok, Yaunaren etoraldirako utziok, ez diegu ildakoei aurea artuko. ¹⁶ Arkaingeru-oyuz ta Yainkoaren adarotsez dei eginda, Yauna Bera zerutik yetxiko da; ta Kisto'rengan ilak berpiztuko dira

aurerako. ¹⁷ Gero gu, bizitan geldituok, eguratsean baína Kisto'rengana odayetan eramana izango gera, Yaunarekin onela beti egoteko. ¹⁸ Elkar' poztu ezazute, beraz, itz auetaz.

V

Ernai egoteko

Garai ta uneaz senideok, inoren idazki bearik ez duzute; ² zerok ongi baitakizute Yaunaren eguna, lapura gauez bezela, etoriko dala. ³ «¡Au duk pake ta atsaldia!» gizakiak darasatela, itxesa otop otopan gainera elduko baitzaye, izora danari erdimiña bezela; ta igespiderik ez dukete. ⁴ Zuek, beriz, senideok, iluntan ez zaudete, egun ori, lapura bezela gaineratu dakizuen zorian. ⁵ Zuek oro argiseme ta egunseme baitzerate; ez gaitu gauak bere, ez ilunak. ⁶ Ez gauden, beraz, besteak bezela, lo; ernai ta atzari baño. ⁷ Gauez lo egiten dute, ba, lo egiten dutenek, eta gauez mozkoitzen dira mozkoitzen diranak. ⁸ Gu, oster, egunseme generala-ta, gauden atzari, bularrekotzat sineste ta maitasuna, burukotzat yareikuntzaren itxaropena yantzita. ⁹ Ez baikaitu Yainkoak bere aserea yasateko eraiki, Yesu Kisto gure Yaunaren bidez osakuntza iristeko baizik. ¹⁰ Gure alde Kisto il da, ba, Berarekin gu, ernai edo lotan, bizi gaitzan. ¹¹ Beraz, egiten duzutenez, elkar' poztu ta aolkatu ezazute.

¹⁷ gu bizitan geldituok=egun artan bizi daitezkenak, naiz gu, naiz bestetzu.

Azken aolku ta gorantziak

¹² Zuen artean lan egiten ari diranei ta Yaunaketz zuen buruzagi ta aolkari diranei, a'ren, senideok, begirunea erakuskiezute. ¹³ Daramaten lanagatik areago maite itzazute, ta elka'ren artean ezazute gentza.

¹⁴ Biuriei aka' egiteko aolkua damaizuegu, senideok. Erabetsuak, be'riz, adoretu, erkiñak eraiki, ta guziak yasatez a' itzazute. ¹⁵ Besteri iñork ez bezayo gaitzik gaitzez ordaindu; osterera ere, elka'ri ta guziei beti on egiezute. ¹⁶ Pozik egon beti. ¹⁷ Taigabe otoi egizute. ¹⁸ Orotan eske' on erakutsazute; au da, ba, zuentzat Yesu Kisto'ren aito'rez Yainkoaren naya. ¹⁹ Gogoa ez itzungi. ²⁰ Iga'rkuntzak ez nardatu. ²¹ Dana azte'rtu, ta ona zerontzat a' ezazute. ²² Edozein gaitz-antzetik urutira zaitezte.

²³ Yainko bakezaleak, be'riz, guziz gurendu zaitzazala, ta zeratena osorik, gogo, adore ta soña, orbangabe ager bedi Yesu Kisto gure Yaunaren eto'aldian. ²⁴ Kirmena da zuen deitzalea, ta ori Berak egingo du.

²⁵ Gure alde, senideok, otoi egizute.

²⁶ Muin deunez senide guziei agu' egiezute.

²⁷ Yainkoaren daskaizuet; idazki au senide guziei iraku' bekie.

²⁸ Yesu Kisto gure Yaunaren eske'ra zuekin bego. Ala biz.

²³ gogoa = gure arima, giza-adimenaren ta goiko bizitzaren aulkia zaigun aldetik; adorea, edo atsa = arima bera, soin-bizitzaren aulkia zaigun aldetik.

PAUL'EN IDAZKIETAKO TESALONIKE'TAÑEI BIGAÑENA

*Onak izan ziran tesaloniketañen artean lengo idazkiaren ondoreak. Beñiro idatzi beañ zien, ordea; Yaunaren itzuleraz eta azken-egunaz artegatsu baitzebiltzan, berealaxeko izango ziralakoan, lanerako zañil, ta alpeñik lañi. Idazki ontan dasaye ez zala oñen auñki azken-eguna; gertari aundiak lenik soñtu beañak ziralta; Gaizkiñaren agerpena ta askotza-
ren sayeskuntza; ekin beañ ziotela, beraz, lanari biotz zabalez, ta iruzuñti ta gaiztoengandik aldenduta.*

I

Paul'ek, Silban'ek eta Timote'k,
Yainko gure Aitarengan ta Yesu Kisto Yauna-
rengan dagon Tesalonike'tañen elizari:

² Eskeñ ta gentza zuei Yainko Aitaren ta Yesu Kisto
Yaunaren izenean.

Eskeñ oneko aitoña

³ Zuzen ta bidez Yainkoari zuengatik, senideok,
eskeñ egin beañ diogu beti, zuetako bakoitzarengan
siñestea azkañtzen, ta elkañen maitasuna geitzen diyoala-
ko. ⁴ Gureztat, noski, Yainkoaren elizetan ilañainbide
zerate, esetsi ta loñaldi guzietan azaltzen dituzuten ego-
nañi ta kirmenagatik. ⁵ Oñtan agiri da Yainkoaren bu-
rupide zuzena; Arengatik zuek laztuta egon ezkerro,
Yainkoaren eñirako gai auñkituko zerate-ta. ⁶ Yainko
zuzenaren berebizikoa da, ba, atsekebetzen zaituztenak

atsekabetzea, ⁷ zuei, beñiz, atsekabetuoi, atsedena gu-
rekin ematea, Yesu Yaunak zerutik bere aingeruekin al-
izatez agertzean, ⁸ Yainkoa ezagun ta Beñi Onaren
mendera etoñi nai ez zutenak sugárez ataratzeko ager-
tzean. ⁹ Okeñ-sari au bein betiko dukete oñelakoek,
Yainkoaren aurpegitik eta Aren indararen ospetik urun-
duta, ¹⁰ bere deunetan ospatu ta siñestun guzietan edeñ-
etsia izateko, Yauna datoñken egunean. Zuek, beñiz,
gure aitoña siñetsi duzute.

¹¹ Anartean beti zuen alde otoiketan gaude, gure
Yainkoak deigañi egin zaitzazan, ta ongina guzia ta
siñestearen arloa indárez burutu ditzan. ¹² Oñela, gure
Yainkoaren ta Yesu Kisto Yaunaren eskeñez, goragañi
azalduko da zuengan Yesu Kisto gure Yaunaren izena,
ta zuena Arengan.

II

Kisto'ren etoñeraz ez artegatu

Yesu Kisto gure Yaunaren etoñeraz ta gure arengana-
tzeaz, otoi, senideok; ² ez zotukatu bereala iritzi-
tik, ezta ere gogoak emana, edo gurea omen liteken itz
edo idazkiren bat gorabera izutu, Yaunaren eguna aurki-
dalakoan. ³ Iñola ere ez zaitzala iñork atzipetu. Auñenik
sayeskuntza soñtubeara da, ta ageriko da oñen-gizona,
gaizkin galgaña, ⁴ Yainkostat begiratu edo yauresten
dan edozeren aurka yañi ta goratuko dana, Yainkoaren

4-7 Tesalonike'tañek, Paul'i entzunda, zekitena, arean, nor edo zer
diteken oñen-gizonari agertzea daragotziona, guk ez dakigu.

etxean Yainkotzat esertzeraño. ⁵ ¿Ez al zerate oroitzen guziok nesazkizuela, zuen artean nengonean? ⁶ Yakin ere ba-dakizute zerk daukan orain eragotzita, bere garayan ager dedin. ⁷ Orain bertan gaizto ta alaena berean ari da; itzalgaizka, ordea, eragozpena ari kendu arte. ⁸ Ordun ageriko da zitala, ta Yesu Yaunak bere aotitako atsez ezereztuko du ta bere etoáldiko agerketaz poóokatu. ⁹ Alako zitalaren etoéra, beíz, Satan'en egitez, al izate aunditan izango da, gezuézko alatzez, zantzuz, ¹⁰ ta edotariko lilúra okeéz betea, burua gaizkatzeko egizaletsu egin ez ziralarik, galtzen diranentzat. ¹¹ Argatik ere, gezuía siñesterazi lezayeken lilurapidea Yainkoa daratoókie, ¹² egia siñetsi beárean, okeía obetsi dutenak gal ditezan.

Zertarako aututa Yainkoak gaitun

¹³ Guk, ordea, senideok, Yaunaren kuñunok, Yainkoari zuengatik beti eskeí egin beár diogu, gogo-gurentasunez ta egiaren siñestez osasuna iristeko, Yainkoak asieratik autu zaituzalako. ¹⁴ Oótarako, nere aldaíz dei egin baitizue, Yesu Kisto gure Yaunaren ospea irabazteko.

¹⁵ Sendo egon, beraz, senideok, nere izketan naiz idazkietan ikasi duzutena betetzen. ¹⁶ Yesu Kisto gure Yaunak, eta gure Yainko ta Aitak, maite izan gaitunak, eta betiko poza ta uste ona adei utsez eman dizkigunak, ¹⁷ zuen biotzak eginbide ta itz on guzirako adoretu ta sendotu bitza.

III

Eske ta aolku batzu

Zuek ere, senideok, gure alde otoi egizute, Yainkoaren itza bañeyatu, ta, zuenean bezela, goretsi dedin, ² ta gu, gizatxañ ta gaiztoengandik yaregin gaitezán; siñestea oroena ez da-ta. ³ Kirmena da, beñiz, Yainkoa; ta Berak sendotu ta gaitzera gabe eukiko zaituz. ⁴ Zuek ere agindu genizuena betetzen ta beteko duzute lakoan gaude Yainkoaren auñean etsita. ⁵ Yaunak, beñiz, zuen biotzak, Yainkoa maite izatera ta Kisto'renganako egonañira zuzendu bitza.


⁶ Onezkero, senideok, Yesu Kisto gure Yaunaren izenean agintzen dizuegu guk irakatsitako bidetik alde okeñ dabilzan senide guziengandik aldentzeko. ⁷ Ba-dakizute zer egin beañ duzuten gu bezela ibiltzeko. Eragabe ez gera zuenean bizi izan; ⁸ iñoren ogirik ez dugu ururik yan; gau ta egun lanean ta neketan ari giñan, osterá, zuetako iñoren bizkañ ez izateko. ⁹ Ez, ordea, oñtarako eskubiderik ez genulakoan, gu bezela ibiltzeko eredua gerongan zuei erakusteañen baño. ¹⁰ Esan ere, zuenean geundela, genesaizuen; lan egin nai ez dunak ez beza yan. ¹¹ Entzunda gaude zuetako batzu nabarbenki dabilzala, lanik egiteke beñiketan beti. ¹² Oñelakoei Yesu Kisto Yaunañen agindu ta aolkatzen diegu, beren ogia isilik lan egitez yan dezatela. ¹³ Zuek, beñiz, senideok, on egitez ez aspertu. ¹⁴ Ta idazki on-tan dioguna norbaitek betetzen ez ba'du, alakoa galgatu

ezazute, ta ez zaitezte arekin nasi, lotsa dedin. ¹⁵ Ez ezazute ala ere etsaitzat begira; senidetzat, ostera, akañ egiozute.

¹⁶ Yainko bakezaleak aldi ta alde orotan bakea bemaizue. Yauna bego guziokin.

¹⁷ Orain nere aguña, Paul'ena, nere eskuz ezaña. Au da idazki guzietan ezagugaña. Onela idazten dut.

¹⁸ Yesu Kisto gure Yaunaren eskaña bego guziokin Ala biz.



TIMOTE' RENTZAT

PAUL'EN IDAZKI LENA

Timote au Paul'en zenbait idazki-burutan aipaturik ikusi dugu. Paul'ek bere lenbiziko osteran ezagutu zun gaztetxorik, Yainkoarengana biurtu ta ukuzi. Aezkero semetzat maite zun, ta bigaeren osteratik iltzerano beti irakasle iruzurrtiei gogor egiteko zeraman berekin bidealdi guzietan. Aldi artan, ordea, Epeso'n zeukan Gotzai-ordeko. Beraz, lanbide ori beaf bezela egiten irakasteko, bidaltzen dio idazki au, Eliz-artzayen eta gañerako kristau zintzo guzien eginbeafak adirazirik.

I

Paul'ek, Yainko gure Yaregilearen ta Yesu Kisto gure itxobidearen aginduz, Yesu Kisto'ren bidali onek,

² Timote'ri, siñestean seme yator' ori;

Yainko Aitarengandik eta Yesu Kisto gure Yaunarengandik eskef, eruki ta gentza.

Sasiko irakasleak

³ Makedoni'ra yoatean, aolkatu nizun Epeso'n gelditzea, norbaitzuei agintzeko berikeriak irakasten, ⁴ ta ipui ta amaigabeko yator'kiak erabiltzen ari ez ditezala. Siñestean datzan Yainkoaren egitekoa auferatzeko baño, etiketak pizteko egokiagoak baitira. ⁵ Aginduaren xedea, beriz, biotz garbitik, barne zintzotik eta siñeste utsetik

⁵ Agindu au = Timote'ri Paul'ek emana, Epeso'n betetzeko.

darion maitasuna da. ⁶ Andik sayesturik, alpeéko ele-tara yo dute batzuk, ⁷ lege-irakasle izan nairik, esan ta erakusten dutena ez dakitela ere.

⁸ Legea, noski, ona dala ba-dakigu, beaí danez erabiltzen ba'da gero. ⁹ Oaí bedi, ala ere, ez dala zindoarentzat legea yaí, gaizto ta azigaitzentzat baño, lotsagabe ta ogenlariantzat, deunge ta naskagaírentzat, gurasoekiko zakaírentzat eta gizeralentzat, ¹⁰ izoíkeritsu ta sodomakeritsuentzat, yopu-biltzale, gezuíti ta siñaus-lentzat, edo ikaspide onaren auíka edozela ari diranentzat. ¹¹ Au darakaskigu Yainko zori ontsuaren osperako egotzi zaidan Beí Onak.

Kisto'renganako Paul'en eskeí ona

¹² Eskeírik asko azkaítu naun Yesu Kisto gure Yau-nari, kimentzat etsi ta oítarako langile aítu naulako, ¹³ Bera lenik biraokatu, esetsi ta iraintzen ari nintzala ere. Yainkoaren eíukia erditsi dut, ordea, siñesterik ez bainun, zer negin ez nekilako. ¹⁴ Baña gañez egin du gure Yaunaren eskeíak, Yesu Kisto'ren siñestez ta maitasunez. ¹⁵ Zin ziña ta aintzat aítzekoa da, ba, egi au:ogendunak yareiteko luí ontara Yesu Kisto etoí da. Ogendunik auíena, beíz, ni naiz. ¹⁶ Ta oírexegatik eíukia erditsi dut, auíena ere nigan Yesu Kisto'k bere egonaí osoa erakutsi dezan, betiko biziagatik Aren siñestera etoítzekoen eredutzat. ¹⁷ Betiko Yaunari, ilkoí ta ikusgaí ez dan Yainko bakaíari, dedu ta ospea menderen mendetan. Ala biz.

Aolku bat Timote'rentzat

¹⁸ Timote, ene seme ori, agindu au dut zuretzat: auñenetik zutzaz diran igañketak gogoratuta, ayen arauz guda onari ekiozu, ¹⁹ siñestea ta bañne zintzoa eukirik. Zintzotasun ori yaurti ezkerro, siñesteaz ere batzuk puñut egin dute-ta. ²⁰ Orietako dira Imenai ta Alexander; ta argatik Satan'i egotzi dizkiet, biraorik ez egiten ikas dezaten.

II

Guzien alde otoi egin bear

Lenbizi gura dut añen, otoi, eske ta eskeñ egitea gizakume oroen alde; ² eñege ta garai yañitako oroen alde; nare ta eztitan bizi gaitezana oso zintzo ta garbi. ³ Zuzen da, ba, ori, ta Yainko gure Yaregilea-rentzat atsegingañi ere bai; ⁴ gizakume guziak gaizkatzea ta egiaren ezaguera iristea Berak nai du-ta. ⁵ Izan ere, bakaña da Yainkoa, baita bakaña ere Yainko ta gizonen Bitartekoa, Yesu Kisto gizona, ⁶ bere burua oroen yareikuntzarako ordaintzat eman zuna. Au da garai egokian zuritutako aitoña. ⁷ Ta bera aldañikatu ta zabal-tzeko bidalita nago ni, siñeste ta egia atzeñiei irakatsi

¹⁸ iragañketa auek, Timote apaiztu auñean, artarako gai aitoñtuz, siñestun hatzuk Goteunez egindako itzaldiak bide ziran. Beg. Kor. 1.^a V, 5 ta Bid. Eg. XIII, 1-4.

²⁰ Imenai. Beg. Tim. 2.^a II, 17; Alexander, ¿Tim. 2.^a IV, 14 aipatua?

beáñez. Egia diot, gezuírik ez. ⁸ Nai dut, beraz, gizonek toki orotan esku garbiak yaso ta otoi egitea aseíre ta lipiztarik gabe.

Emakumeei dagokien yarduera

⁹ Emakumeak berebat yazkeran txukun, ta apainketan lotsakoí ta erabidetsu azaldu bitez, ile aforik, uíerik, txirlaíirik eta soñeko aberatsik ekaítzeke, ¹⁰ egite onei ekiñik, onbideari atxikitako emakumeei dagokienez. ¹¹ Emakumeak irakaspena isilik eta apal apalik ar beza. ¹² Irakastea, beíz, eta senaíari agintzea ez diot emazteari zilegi uzten, isilik egotea baizik. ¹³ Auíena Adan soítu zan, ba; gero, beíz, Eba. ¹⁴ Ta agindua autsi zutenean, atzipetua, Adan ez zan, emaztea baño. ¹⁵ Emakumea ala ere yareingo da, siñestean, maitakuntzan ta gurentasunean erabidez ba'dirau.

III

Gotzayak

Zin ziñak dira itzok: gotzaitza nai dunak eginbide on bat nai du. ² Gotzayak, beíz, akaíkizunik gabe izan beaí du, bein bakaírik ezkondu, elikuti, gurbil, gorgots, arotzekiko atoskoí, ta irakastuna; ³ ez ardozale, ezta sakeíre ere, adeibera baño; ez auzkin, ez zikoitz.

¹¹ Emakumeak = Elizeko eginbide batzu ardurapean zituten serorak.

¹² Agirian, Elizeko batzaírean, ta agintez ori egitea emakumeei eragotzen die.

4 Bere etxea ondo yauri ta semeak zintzo azi ta ezi beari ditu. 5 ¿Nola, ezperen, eliza yauriko du, bere etxea artezen ez ba'daki? 6 Ez bedi sinestun beari izan, arokeriz puztu ta txerenekin gal ez dedin. 7 Atzeritarlean ere entzute ona izan beari du, nardatua ez izateko ta txerenen sareetara ez etortzeko.

Gotzayaren lanari eraskiak

8 Yaurotseiñak berebat gorgots bitez, ez aonabaari, ez ardozalegi, ez miguru. 9 Sineste itzalgarria biotz garbian zaitu bezate. 10 Lenik aztañenatu beari dira, ta gero, akatsik ez ba'dute, eginbidera artu.

11 Emakumeak ere gorgots, ez iztimizti; elikuti ta orotan zintzo bitez.

12 Yaurotseiñak ez bitez bein baizik ezkonduak izan; beren etxe ta semeak, beari, ondo zuzendu bitzate. 13 Eginbide ontan zintzo ari izanek izen eder ta Yesu Kisto'ren sinestean ganora aundia irabazten dute-ta. 14 Auek idazten dizkizut zuregana laster etortzeko ustean; 15 luzatuko ba'nu, ordea, dakizun nola yardun beari duzun Yainkoaren etxean. Au da, beari, Yainko biziaren Eliza, egiaren zutoi ta onaria. 16 Ta enuragabe, aundia da eruki-ezkutukia aragitan ageria, Goteunak zuritua, aingeruei erakutsia, atzeriei aldarikatua, ludian sinetsia ta goyan ospez artua.

8 Yaurotseiñak = diakonak.

16 eruki-ezkutukia = eruki-itzalgarria = eruki ulergaitza.

IV

Datozken iruzurékiko zогiera

Gogoak erabat dio azken aldietan siñestetik batzu sayestuko dirala, iruzuŕtien ta tuxurien irakaspe-netara makúrtuz, ² ao gezúrtiko ta biotz kizkóreko batzuen azaluskeriagatik. ³ Ezkontzatic eta yanari batzuta-tik alde egin beár dala irakatsiko dute gezúrtiok. Ala eragotzia, bériz, Yainkoak sórtua da, egia ezagun duten siñestunek eskér onez aukeran ár dezaten. ⁴ Yainkoak sórtutako guzia ona da, ba, ta eskér onez ártzekotan, ezer ere ez da astangári, ⁵ Yainkoaren itzak eta otoyak dana gurentzen dutelako.

⁶ Senideei au irakasten, Yesu Kisto'ren móroi ona zaitezke, siñesmen-egietan ta ártu duzun ikaspidean azita baitzaude. ⁷ Atso-ipui alpérak, bériz, utzi, ta yainkoza-letasunean ari zaitez. ⁸ Gutxirako da, ba, soin-igurdizia; guzirako, ostera, yainkozaletasuna; oraingo ta geroko biziarentzat agintza du-ta. ⁹ Egi utsa da ori ta erabat onártzekoa. ¹⁰ Ta argatik gu neke ta búrukan sártuta gabiltza; gizaki oroen, ta batez ere siñestunen, Yaregilea dan Yainko biziarengan uste ona ipíni dugu-ta.

¹¹ Ori agindu ta irakatsazu. ¹² Ez beza iñork zure gaztetasuna ezetsi; siñestunen eredu egin zaitez, ostera, izketan, bizikeran, maitakuntzan ta garbitasunean. ¹³ Ni

1 Azken aldiak, = Itun Záreko idatzietan, Yesu'ren lenengo etóreratik bigárenerañoakoak ziran. Itun Bérian, bigáren etóraldi onen ingurukoak batez ere. Emen, bidalien eriotza-ondokoak.

zugana arte, irakuñtzen, aolkatzen ta irakasten pizkoñ ari zaitez. ¹⁴ Ez opoñik utzi, zugan dagon eskeña, batzañeko apaizen esku-ezañtzez zuri emana. ¹⁵ Oñtan bego zure gogoa; oñtan zure bizia; zure auñerapena guziei nabari egin dakien. ¹⁶ Adi egon zeroñi ta irakasteari; oñtan ekin; ta bai zure burua, baita zure entzuleak ere, gaizkatuko dituzu.

V

Elizakoekin yarduteko oañkizunak

A gureri ez akañ egin, aolku baizik, aitari bezela; mutilei, anayei bezela; ² atsoei, amari bezela; ta neskatilei, añebaei bezela, zogi zogi, ordea. ³ Andre alargunentzat begirunea ezazu, benetako alargunentzat gero. ⁴ Alakoren batek semerik ba'du, bekas auñena bere etxekoak aintzat maite izaten ta arbasoei eskeñ-zoña ordaintzen; ori zayo Yainkoari atsegingañi-ta. ⁵ Benetako alargunak, bakañik geldituak, Yainkoagan bere uste ona ba-du, ta gau ta egun añen ta otoiketari ari da. ⁶ Leunduta bizi dana, beñiz, bizitan ila da. ⁷ Aolkuok egizkiezu, akañkizunik ez dezaten. ⁸ Beretañen ta batez ere etxekoan ardurarik ez dunak, beñiz, siñesteari uko egin dio, ta siñesgabekoa baño gaiztoago da.

⁹ Alargun-leñoan yañtzekoa irurogei urteko beintzat izan beaña da, senañ bakañaren emazte izana, ¹⁰ egite onez ezaguna, semeak azten, añotzak atosten, deunen oñak ikuzten, atsekabeak urgaitzen, ta guzitariko ongiak egiten ari izana. ¹¹ Alargun gordiñak, beñiz, atzerazi

itzazu; Kisto'az aspertzen diranean, ezkondu nai dute, ba, ¹² itza yanez ogendun egiten dirala. ¹³ Gañera, alpeñ izaki, etxerik etxe ibiltzen dakaste, alpeñ bezain beñitsu ta non ze beñi, beañ ez dana erausten. ¹⁴ Nai dut, beraz, gordiñok ezkontzea, auñ egitea, etxeko andre zintzo izatea, ta mardailbiderik aitzikoari ez ematea. ¹⁵ Oñelako batzu bidekatu baitira, Satan'en ondoren yoanda. ¹⁶ Siñestunen batek alargunik berean ba'du, sorotzi betza, Elizari zama egozteke, benetako alargunak sorotzi ditzan.

¹⁷ Agintea ondo darabilten apaizentzat bikoitza bego dedua, itza ereiten ta irakasten ari diranentzat batez ere. ¹⁸ Idaztiak baitio: **Eultzian ari dan idiari zurdapalik ez ezañi. Ta langileari bere saria eman beañ zayo.** ¹⁹ Apaizen kaltetan ez ezazu salakuntzarik añtu, bizpairu aitoñez baizik. ²⁰ Ogendunei guzien auñean akañ egiezu, besteak belduñ ditezan. ²¹ Yainkoaren ta Yesu Kisto'ren ta aingeru autuen auñean larderiasten zaitut; au bego zure yarduera atze-asmorik gabe, ta iñoren edeñagatik ezer ere egiteke. ²² Eskuak goizegi ez iñori ezañi, besteren ogenaz erkide ez izateko. Egon beti garbi.

²³ Gerokoan ur utsik ez edan, ardo pixkarekin baño, urdalarengatik eta maiz dituzun gaxoaldiengatik.

²⁴ Batzuen ogenak auzira baño len nabari egiten dira; bestetzuenak, ordea, ostean bakañik. ²⁵ Berebat on egite batzu nabari egiten dira; ta bestela diranak, ostendurik ezin gelditu ditezke.

18 Deut. XXV, 4; XXIV, 15; Leb. X, 7.

VI

Nagusi ta yopuak

U ztaárpean dauden yopu guziak begirunerik aundiena nagusiei zo' zayela etsita beude, Yainkoaren izena ta irakastea biraoga'ri biu' ez ditezan. ² Nagusi siñestun yopuak ez bitez o'raño, senide dirala-ta, ayengana-ko zaba' azaldu, maratzago baizik, ongia a'rtzen dutenak siñestun ta maitaga'riak diralakoxe. Ori zuk irakatsi ta aolkatu.

Bestelako irakaspenik ez yasan

³ Besterik iñork irakasten ba'du, ta Yesu Kisto gure Yaunaren itz ziñei ta ikasbide yato'ari ez ba'datxikie, ⁴ burutik dago, ta ezer ez daki, asmakeri ta izmizketan txorabiotuta. Andik datoz bekaitz, liska', birao ta susmo txar'ak; ⁵ zintzotasuna irabazpidetzat daukaten sen usteleko ta egigabeko gizonen lipiskeriak. ⁶ Izan ere, irabazi aundia da zintzotasuna, bizirako aski izan ezkerro. ⁷ Ezer ez baitugu lu' ontara eka'ri; ta, yakiña, ezer ere emendik ezin atera. ⁸ Baña zer yan ta zer yantzi euki ezkerro, aski dugu. ⁹ Aberastumiñez dabiltzanak, be'iz, zirikaldi, sare ta i'its oke' ta kaltega'ri askotara erortzen dira, ta auek itxesean ta ausiabartzan gizonak murgiltzen ditute. ¹⁰ Gaitz guzien e'oa zilargosea da, ba, ta aren eragitez batzu siñestetik sayestu ta oñaze ugaritan sa'rtu dira.

¹¹ Zuk, ostera, Yainkoarena zeran ezkerro, orelakotatik iges egizu, zuzen, yainkozale, siñestun, txeratsu, yasankor ta xamur izateko leyaz. ¹² Ekin siñeste-buruka onari. Eldu betiko biziari; artara deitua baitzera, ta arengatik aitor eder ura ainitzen aurean egin baitzenun. ¹³ Dana askortzen dun Yainkoaren begitan, ta Ponti Pilat'en mendean aitor ona egin zun Yesu Kisto'ren aitzinean larderiitzen zaitut: ¹⁴ agindua akats ta akarpiderik gabe bete ezazu, Yesu Kisto gure Yauna etori arte. ¹⁵ Agirian etoriko da, ba, garai egokian zori oneko Buruzagi bakaia, eregeen Egege, ta yaunen Yauna, ¹⁶ il ezin diteken bakaia, ta argi eldugaitzean bizi dana, Bera ikusi dunik edo ikusi dezakenik gizonetan ez dago-la. Berarentzat dedu ta agintea betidanoan. Ala biz.

Azken aolkuak

¹⁷ Mende ontako aberatsei esayezu ez dutela urgoitu bear, ezta aberastasunetik entzindu ere, Yainkoagandik baño. Aldakora baita aberastasuna; Yainkoak, ordea, bear zaigun guzia eruz damaigu. ¹⁸ Bekaste ongi egiten, egite onez aberasten, emankor ta eskuzabal izaten, ¹⁹ ta alxor ona gerorako biltzen, benetako bizia iristearen.

²⁰ Ene Timote, dagokizun yagotekoa yagozu, beriketa alperak eta sasi-yakintzaren erasoak oildurik. ²¹ Orelako yakintzara makurtuz, siñestetik batzu zayestu baitira.

Bego zuekin eskeia.

TIMOTE'RENTZAT

PAUL'EN IDAZKIETAKO BIGARĒNA

Idazki au Eroma'ko baitegian Paul'ek idatzi zun, bere bizi-amaya aurki zekusala. Adiskide ta ikasle guziek alde egin izan zioten, ta Luka bakañik arekin zegon. Atsekabe ontan Timote maitea aldamenean euki nairik, etoñtzeko idazten dio, ta anartean, irakasle iruzurñien aurka ta siñeste yatoñaren alde kemena arengan pizteko, azken aolkuak laztanki damazkio.

I

Paul'ek, Yesu Kisto'rengan dagon biziaren agintza aldañikatzeko, Yainkoaren nai izatez, Yesu Kisto'ren bidali onek,

² Timote, seme maiteari,

Yainko Aitarengandik eta Yesu Kisto gure Yaunarengandik eskeñ, eñuki ta gentza.

Beñi Onaren alde kemena pizteko

³ Nere gurasoenetik bañe garbiz yauresten dudan Yainkoari, eskeñ dagiot, nere otoiketari etengabe gau ta egun zu gogoan ekañki. ⁴ Zure malkoaz oroiturik, zu ikusteko erpai nago, pozez bete nadin, ⁵ zure siñeste yatoñaren gomuta piztuz. Siñesmen ori lenik zure amaso Loide'gan ta zure ama Eunike'gan bizi zan; ta berebat zuregan bizi dala uste dut.

⁶ Aolkatzen dizut, beraz, nere esku-ezaítzez zuregan duzun Yainkoaren antzia piztea. ⁷ Ez digu, ba, Yainkoak erabe-atsik eman, indar-atsa, maitasun-atsa ta erabide-atsa baño. ⁸ Beraz, gure Yauna aitoítzeaz alke ez izan, ezta nitzaz ere, Beragatik biluñez nagon onetzaz. Beñi Onaren alde, ostera, Yainkoaren indaréz nerekin lan egizu. ⁹ Berak yaregin ta dei gurenez deitu gaitu, gure egiñak órarako ezer ez dirala. Ori zan, ordea, Aren erabakia, ta betiko aspalditik Yesu Kisto'rengan guretzat zeukan adei-emaria, ¹⁰ orain nabari egiña, Yesu Kisto gure Yaregilea ageri izan danetik eriotza porokatzuz, ta usteldu ezin dan bizitza Beñi Onaren bidez argitara azalduz. ¹¹ Órarako aldarikari, bidali, ta atzerien irakasle yaña naiz; ¹² ta óreregatik neke auetan nago. Ez naiz alke, ordea; ba-dakit, ba, nori siñetsi diodan, ta etsi etsita nago nere yagokizuna egun artaraño yagoteko altsua dala. ¹³ Yesu Kisto'ren siñeste ta maitakuntzarako entzun dizkidazun itz zindoen ereduari eutsiozu. ¹⁴ Yagokizun edeña, gugan dagon Goteunaren laguntzaz, yagozu.

¹⁵ Ba-dakizu Asia'n guziak girbindu zazkidala. Aye-tako dira Pigel ta Ermogen. ¹⁶ Onesipor'en etxekoei Yainkoa eruki bekie; askotan adoretu nau, ba, ta iñoiz ere ez da nere biluñaz alke izan; ¹⁷ ostera ere, Eróma'ra etoñi ala, nere bila idoro arte ayolaz ibili da. ¹⁸ Yaunak

6,7 Ara apaizkuntza ta arentzako beña dan Yainkoaren eskeñ berezia artzeko iturria, Elizean Kisto'k yaña. (Trid. 23, 3).

15 Asia au ez da orain onela deritzan luñaldea; Asia Txikia orain deritzana baño.

egun artan bere erukia bemayo. Epeso'n zein laguntza eman zidan ondo dakizu.

II

Yesu Kisto'ren gudari ona

Zu, beraz, ene seme ori, Yesu Kisto'ren eskeréz sendotu zaitez; ² ta aitor askoren aurrean entzun zenidana gizon zintzo ta besteei irakasteko lain litezkeen azaldu egiezu. ³ Ekin lanari, Yesu Kisto'ren guda-mutil onari dagokionez. ⁴ Gudari egon ezkerro, bizitzako arazoetan ez da inor nasten, lehoratu dunaren edera eukitzeko. ⁵ Sari-leyaketan ere buruntza ez du inork beretzen, bear dan arauz leyatu ez ba'da. ⁶ Lu-lanean ari izanak zitua artu bear du aurrea. ⁷ Diodana ule ezazu; ulemena Yainkoak orotan damaizuke-ta.

⁸ Gogora ezazu Yesu Kisto, ilartetik piztua ta David'en erotikakoa, aldarikatzen dudanez. ⁹ Argatik ere, gaizkin bezela, biluzez egoteraño nekeetan bizi naiz. Lotuta ez dago, ordea, Yainkoaren itza. ¹⁰ Argatik dana autuen alde yasaten dut, berek ere Yesu Kisto'rengandik datořkigun osakuntza betiko aintzarekin erditsi dezaten. ¹¹ Itz zina: Arekin iltzen ba'gera, Arekin bizi ere izango gera; ¹² yasaten ba'dugu, Arekin ere eretgetza dukegu; ¹³ uko egiten ba'diogu, Berak ere uko

2 Emen dugu Yainkoaren itza gizaldirik gizaldi ta bazterik bazter zabaltzeko bide yatorra, Paul'ek argi aolkatu diguna; Elizaren ardurapean etengabe aoz ta itzez egin bear dan irakastea; ez, ostelariak (protestantiek) nai dutenez, Idazteunak irakurtzea, gogoak norberari eman lezayokena aditzeko.

egingo digu; kirmen ez ba'gatzazkio, Bera kirmen dago; ezin bere burua uka dezake-ta.

Sasi-irakasleen beriketaz

¹⁴ Ori aolkatu ezazu, aditzaleen kalterako baizik ez diran izki-mizkiak Yaunaren aurrean larderiatur. ¹⁵ Alegizu Yainkoari oneskañi agertzeko, alkekizunik gabe lanera yotzen, ta egiaren itza bear danez erabiltzen. ¹⁶ Beriketa alpeñak alde eragitzizu; deungeak areagotzeko adiñonak baitira, ¹⁷ ta oñelakoen elea, minbizia bezela, edatzen diyoa. Ayetako dira Imenai ta Pilet. ¹⁸ Egitik girbinduta biok oñ diyoaz berpiztea egiña dagola esaten ta batzuen siñestea iraultzen. ¹⁹ Sendo dago ala ere Yainkoaren oñañia xaki onekin: **Yaunak ba-dazagu zein ditun bereak; eta: Okerbidetik alden-du bitez Yaunaren izena aitoñtzen duten guziak.** ²⁰ Etxe aundietan ure-zilañezko atuxaz gañera, buztin-zurezkoak ere ba-dira; batzu, apaingañitza, bestetzu, beriz, arontekotzat ²¹ Alako kutsutik iñor garbi egiten ba'da, beraz, dedurako ontzi guren ta nagusiarentzat adiñona izango da, edozer eginbear onerako gertua.

²² Gazte-iriskeritik iges egizu, ta ekin zindokuntzari, siñesteari, itxaropenari, maitasunari ta Yainkoagana biotz garbiko deyez yotzen dutenekiko gentzari. ²³ Eztabaida zoro ta indurigabeak alde eragitzizu, liskañen piztugañi oi dirala yakiñik. ²⁴ Liskañti izatea, beriz, Yaunaren moñoyari ez dagokio, guzienganako adei, argi ta egonañia azaltzea baño; ²⁵ biuñiak xamuñki atañatuz,

garbaya Yainkoak ayei emanda, egia ezagun, ²⁶ ta txerének bere naitara atzita dauzkan sarea ateman al dezaten.

III

Etořzeco diran iruzurťiak

Orizu; azken egunetan aldi txarřak izango dira. ² Izan ere, gizakumeak norberakoi, urřzale, parřastelari, arřo, biraolari, gurasoekiko piři, eskerř gaiztoko, lotsagabe, ³ biotz-igarř, zital, mardalari, elikugabe, ankerř, onaren etsai, ⁴ azpisuge, mutiri, anpurutsu, ta Yainkoari bařno atseginkeriei atxikiagoak izango dira; ⁵ zintzotasunaren tankera, bai, adorea, beřiz, ez dutela. Oriengandik ere alde egizu. ⁶ Ayetako baitira, etxerik etxe emakume ergelak sareratuz dabiltzanak. Emakumeok, ogenez kunkuin ta askotariko grĩnaz okiturik, ⁷ beti ikasten izanařen, ez dute iřnoiz egiaren ezaguera iristen. ⁸ Yanes ta Manber'ek beřnola Mois'i bezela, gogo biurřiko ta siřeste usteleko gizon oriek egiari gogorř dagiote. ⁹ Ez dute, ordea, ezer iritsiko; nabari da, ba, guzientzat orřelakoen erokeria, ayena ordun izan zan bezela.

Onbidean irauteko aolkua

¹⁰ Zerořek ikusita, beřiz, ba-dakizu zein diran nere ikasbidea, bizikera, asmoak, siřeste, biotz zabala, maitasuna ta egonařia, ¹¹ baita Antiokei'n, Ikoni'n ta Lистра'n erauntsi niřuten yazařaldi ta nekeak ere. ;Yazařaldiak, bai, yasan nitunak! Guzietatik Yaunak atera nau,

ordea. ¹² Izan ere, guziek, Yesu Kisto'rekin zintzo bizi nai ezkerro, yazañaldia ba-dute yasatekoetan. ¹³ Gaizto ta iruzurñiak, beñiz, beren artan areagotuko dira, okeñ ta okeñtzale izaki.

¹⁴ Zu, ostera, zaude sendo ikasi ta onetsi duzun guzian, irakatsi dizunaz oroiturik. ¹⁵ Umetanik dazaguzun Idazteuna altsua da Yesu Kisto'ren siñestez osakuntzarako bidean zuri argi egiteko. ¹⁶ Yainkoak idarokitako idazti oro adiñon ere da irakasteko, akañtzeko, artezteko ta zuzenbidean azteko, ¹⁷ Yainkoaren gizona bikain dedin, edozein eginbeañ onerako gerturik.

IV

Azken arena

Yainkoaren auñean, ta bizi ta ilak ebazteko, eñegetzat ageri beañ dan Yesu Kisto'renean agintzen dizut: ² itza aldañikatu ezazu; ekin mugonez ta mugaitzez; akañ, aolku, zema egizu, egonañirik aundienaz ta beñi irakasten. ³ Etoñiko dan garayan gizakiek ez dute irakaste onik yasango; belañi-atsegintzat, beñiz, norberaren iritsen aukerako irakasleak biribilgatuko ditute, ⁴ ta belañia egitik aldenduz, ipuyetara biurñtuko dute. ⁵ Zu, beñiz, zaude zurt orotan; yo lanera gogoñ; Beñi Ona zabaldu, ta zure egitekoa bete ezazu.

⁶ Ni iluñen nago, ba, ta nereak lasteñ egingo du. ⁷ Buñuka on egin dut; atxintxiketa burutu dut; kirmen egon naiz. ⁸ Zuzentasunaren buruntza daukat orain zai;

ta Yaunak, ebazle zuzenak, egun artan emango dit; ez niri bakañik; baita Aren agertaldia opa duten guziei-ere.

B e r i b a t z u

⁹ Leya zaitez enegana laster etoítzeko; ¹⁰ nigandik Dema aldendu ta mende ontakoen zalez Tesalonike'ra yoan da; Kereske Galati'ra, ta Tit Dalmati'ra. ¹¹ Luka bakañik nerekin dago. Mærk artu ta zureki nekañkidazu lanbiderako on baitzait. ¹² Tit, beriz, Epeso'ra igorí dut. ¹³ Onuzkoan, ekazkidazu Karpo'renean Troas'en utzi nun soingañekoa ta idaztiak, batez ere laútxak. ¹⁴ Alexander pazigileak gaitz asko soítu dizkit. Yaunak biurútko dio egiñen ordaña. ¹⁵ Igesi argandik; gure itzei oso gogor egin die-ta. ¹⁶ Lenbiziko nere zurikaldian iñor ez da nere alde yaiki; guziek utzi naute. Ez bekie yauki. ¹⁷ Yaunak, beriz, niri lagun etoíta, suspertu nau, aldaña nere bidez osotu dedin, eta atzeri guziek entzun dezaten. Orela irten naiz leoyaren aotik. ¹⁸ Yaunak ere gaitz guzitik yarei aterako nau, zeruko bere erira ni artzeko. Berari aintza menderen mendetan. Ala biz.

Azken agurak

¹⁹ Agur egiezu Piriska ta Akil'i ta Onesipor'en etxe-koei. ²⁰ Erast Korinto'n gelditu da, ta Toropin gaxorik utzi dut Milet'en.

²¹ Negua baño len etoítzeko leya zaitez.

Agur dagizute Eubul'ek, Pudén'ek, Lin'ek, Kalaudi andreak, eta senide guziek.

²² Bego Yauna zure biotzean, ta eskeña zuekin.

TIT'ENTZAKO PAUL'EN IDAZKIA

Tit onetzaz dakiguna, Paul'en idazkietan dugu (2.^a Kor. II, 15; VII, 6-16; VIII, 16-24; IX, 3-5; XII, 18; 2.^a Timot. IV, 10; Tit. I, 5). Paul'ek idazti au egin zionean, Kerete'n zeukan ango Eliz beña antolatzeko, ta iri bakoitzean apaizak yaítzeko, gotzai-orde ta buru. Tit'en arloa, berez zail ta kardabatsua, areagotzen zitzayon, a) keretañen ayuñiatatik, b) geyenak an ziran siñesgabekoen bizieragatik, eta d) erdainduetatik siñestera etoñitako irakasle beritsu batzuengatik. Ora zertarako Paul'ek lenik aoz egindako aolku ta irakaspentak, emen idatziz gogoratzen dizkion.

I

Paul'ek, Yainkoaren moñoi onek,
siñestea ta egiaren ezaguera zintzoa Yainkoak
autetsiek erditsi ² ta betiko bizia itxaro dezaten, Yesu
Kisto'ren bidali naizan onek,

³ (mende guzien auñetik Yainko gezuñgabeak agintza ori egiña baitzeukan, eta erabakitako garayan bere itza adirazi baitigu, Yainko gure Yaregilearen aginduz aldañikari natzayolarik),

⁴ Tit'i, guzion siñestean seme yatoñ ori,
Yainko Aitarengandik eta Yesu Kisto gure Yaregileagandik eskeñ ta gentza.

Gotzai yaítzekoak

⁵ Argatik Kerete'n utzi zaitut, artezkizunak arteztu, ta iri bakoitzean buru izatekoak, adirazi dizudanez, yañ ditzazun. ⁶ Ala yaítzekoa akatsik gabe bedi, bein baizik ezkondu ez izana, ta seme siñestunak, ez nabarmen edo biuñitzat etsiak, dauzkana. ⁷ Gotzayak, Yainkoaren

etxe-yaurle dan ezkerro, akatsik gabe izan bea' du, ba; ez a'ro, ez ardozale, ez zaka', ez miguru; ⁸ aitzitik atos-tun, biotz-bera, gorgots, zuzen, yainkozale, bere yabe. ⁹ Ikasbide yato'ari atxiki ere bea' dio, onuraz aolkatze-ko ta aurka diardutenak zuritzeko gai izan diteken.

Irakasle iruzur'iak

¹⁰ Ba-dira, ba, erdainduetan batez ere, ezigaitz, be'itsu ta iruzur'tirik asko. ¹¹ O'relakoei aoa itxi bea' zaye; etxe guziak naspilatzen ditute, ba, bea' ez dana irakatsirik irabazi dolo' batengatik. ¹² Ayen e'riko ole'kari batek esan zun: **Kereta'ak beti gezur'ti, pizti-tza', sabel-nagi.** ¹³ Aito' au egi da. Zo'rozki, beraz, ata'ratu itzazu, si'nestez sendatu ditezan, ¹⁴ yuduen ipuyei ta egitik girbindutako gizonei ya'raitzeke. ¹⁵ Gar-bientzat, dana garbi; zikin ta si'nesgabeentzat, be'riz, ezer ez da garbi; kutsututa dago, ordea, ayen gogo ta biotza. ¹⁶ Aito'rez, bai, Yainkoa ezagun dute; egitez, ordea, uko egiten diote; nazkaga'ni, biu'ni, ta egite on guzirako alpe'ak diralako.

II

Gizamota guziei irakatsibe'ara

Suk, be'riz, ikasbide onari dagokiona irakatsazu. ² Agurei elikuti, gorgots, gu'rbil izateko, ta si'nes-tez, maitakuntzaz ta egona'iz zindo egoteko. ³ Atsoei,

¹⁵ Beg. E'ri. XIV, 20; 1.^a Tim. IV, 4; Mat. XV, 11-17. Baru-egunak ez dira Elizean, yanari batzu berez ziki'nak diralakoan agi'nduak; ayetatik, beste garbai-nekeetatik bezela, yaso ditzakegun obari ede'rengatik ba'no.

beribat, itzalgañi agertzeko, ez mardailti, ez ardozalegi, eredu oneko baizik. ⁴ Ayena da emazte gazteei senañ-semeak maite izaten, ⁵ ta gorgots, garbi, perkatz ta senañen esaneko izaten irakastea, Yainkoren itza birao-katu ez dedin. ⁶ Mutilei ere sena irakaskiezu, ⁷ ta orotan azaldu zaitez egite onen eredu, zintzo ta iteratsu irakastean, ⁸ ta akats ta akañkizunik gabe yardueran, alke dedin arerioa, mardailbiderik gutzaz eukitzeke. ⁹ Yopuei, nagusien mendean ta gogara egoteko, ukoka ayekin ibili gabe. ¹⁰ Ta ezer ayei apiztubeañean, oso kirmen azaldu bekizkie, Yainko gure Yaregilearen ikasbidea orotan edeñetsi dedin.

¹¹ Gizaki guzientzat osasungañi azaldu baitzaigu Yainkoaren eskeña, ¹² argitzen gaitula, luñeko deungekeri ta iritsak astantzeko, ta erabidez, zuzentasunez ta yainkozaletasunez mende ontan bizi izateko, ¹³ zori onaren zai, ta Yesu Kisto, gure Yaregile ta Yainko aundiaren agertaldi ospetsua itxoiten. ¹⁴ Berak bere burua gugatik eman baitzun, gaiztakeri guzitik yarei gu ateratzeko, ta berebiziko eñi bat, egite onetara uts utsa, Beretzat garbitzeko. ¹⁵ Ori aldañikatu, ori aolkatu, ori aginte betean burutu ezazu. Ez zaitzala inñork nardatu.

III

Agintarietako menaz

Aolkutan ekin, agintari ta buruzagien mendean guziak esangin ta egite on guzirako gerturik egon ditezan, ² inñortzaz gaizki esan gabe, liskañetik urun, ta

guzientzat samur ta otzanak izaten. ³ Gu ere bein batean ergel, piri, okei, irits ta atseginkeri askoren yopu, gaiztakeriz ta bekaitzez muku, iguingari ta elkarren goirotzale baikinan. ⁴ Baña Yainko gure Yaregilearen biotz befa ta gizagiña ageri izan danean, ⁵ ez zuzenbidean guk egindako ezergatik, bere erukiagatik baño, yaregin gaitu, yayotza beirako ukuzpenean Goteunez gu berizten. ⁶ Yesu Kisto gure Yaregilearen bidez Goteuna oparo ikuri digu, ba, ⁷ Aren eskezez zindotuta, betiko biziaren yabegai, uste dugunez, egin gaitez.

⁸ Egi utsa dira guziok, eta ayetan nai dut zuk eragotea, onbidean galendubearez Yainkoaren siñestunak leya ditezan. Bide au baitzaye gizakiei eder ta adiñona. ⁹ Ikerketa eroak, yatorkiak, etiketak eta lege-eztabaidak, ostera, alde eragitzizu, uts ta alperak dira-ta. ¹⁰ Targozalea, bein ta beriz ataratu ondoren, zuregandik asagotu ezazu; ¹¹ biuri ta bere buruz ogendun alakoa dala yakinik.

A z k e n a

¹² Zuregana Artema edo Tikiko nik igori orduko, Nikopoli'ra lenbaitlen niganatzeko leya zaitez, negutea an igarotzeko erabakita bainago. ¹³ Zena legelariarentzat eta Apol'entzat bidaria ayolaz gertu ezazu, ezer peitu ez dakien. ¹⁴ Guretaiek ere, elkorik ez gelditzeko, bekasate ongi egitez beiraldiak arintzen.

¹⁵ Agur dagizute nerekin dauden guziek. Agur egiezu maite gaitun siñestunei. Eskeia guziokin bego. Ala biz.

PAUL'EN IDAZKIA
PILEMON'I

I

Paul'ek, Yesu Kisto'ren atxilo onek, eta Timote anayak,

Pilemon'i, gure lankide maite oñi, ² ta Apia'ri, gure a'eba maiteari, ta Arkipa'ri, gure gudalkideari, ta zure etxean dagon elizari,

³ Yainko gure Aitarengandik eta Yesu Kisto Yaunarengandik eske' ta gentza.

Onesimo'ren alde

⁴ Eske'rik asko nere Yainkoari egiten dizkiot, beti nere otoiketari zutzaz oroiturik. ⁵ Entzunda baitakit zein diran Yesu Yaunarentzat eta guren oroentzat zure maitasun ta siñestea. ⁶ Izan ere, gurean dagon on guziaren ezagueraz, Kisto'ren alde pizko'rtu da zure siñestearen erkidetza. ⁷ ¡Nere poza ta atsegiña, senide ori, zure maitakuntzagatik gurenen biotzak atsedan dira-ta!

⁸ Argatik, egokia zuri agintzeko aukera aundia Kisto'rengan dudala ere, ⁹ zuregana eskean adiskidez yo nayago dut. Ona emen Paul agure au, Yesu Kisto'rengatik orain atxilotuta, ¹⁰ baitegian so'rtu dudari nere seme Onesimo'ren alde a'renez. ¹¹ Len alpe'reko zuri izana, orain, be'riz, zuri ta niri on. ¹² Igo'ri dizut. Nere biotza


da; otoi, atotsazu. ¹³ Nerekin euki nai nun, Beñi Onarengatik nagon biluñaldian zure orde z lagun zekidan. ¹⁴ Ez dut oratiño zure baimenik gabe ezer egin nai izan, zure egite ona oldezkoa zedin, ez indar-antzean. ¹⁵ Apika ere apur bateko zuregandik aldendu zan, bein betiko ar dezazun, ¹⁶ ez yoputzat gero, anai maitagañitzat baño. Alakotzat bereziki maite dut nik. Bidezago ere zuk ori odolaren ta Yaunaren egin bear duzu. ¹⁷ Beraz, laguntzat ba'naukazu, ni bezela, bera ar ezazu. ¹⁸ Ta zerbait gaizki egin edo zor ba'dizu, nere lepotik ori bego. ¹⁹ Nik, neronen eskuz zuri idazten nagon Paul onek, zora garbituko dut, zeran ori ere zor didazula zuri ez esateko. ²⁰ Bai, anai maitea, pozbide au emaidazu Yaunaren edeñagatik; Kisto'ren aurean nere biotza poztu ezazu. ²¹ Zure menaz uste betean ori idatzi dizut, diodana baño geyago ere egingo duzulakoan.

A z k e n a

²² Niretzat ere aroztegia gertu ezazu; zuen otoi-laguntzaz zuenera itzuli uste dut-eta.

²³ Agur dagizu Epapra'k, Yesu Kisto'rengandik nere bilurkideak; ²⁴ baita Mark'ek, Aristark'ek, Dema'k eta Luka'k nere laguntzaleek.

²⁵ Yesu Kisto gure Yaunaren eskeña zuekin bego. Ala biz.



EBERTAÉNTZAKO PAUL'EN IDAZKIA

Idazki au Yerusalen'go Elizarentzat egiña bide da. Inon ez zan ain gogoña yudutzatik kristautzari zetoñkion eraso. Dana Yerusalen'en kristau beñi ayen aurka ari zan. Norberaren barnean, odol-otsa, eñi guzien gain Israel'i zegokion nagusitasuna goratuz. arbasoengandik ayetaraño belaunik belaun zoliago eldua. Inguruan, nagusitasunaren eñoa zitzayen Yainkoaren aukera, Abraham'i egindako agintzaz ta Mois'ekin burutako Itunez sendotua, ta yauretxeko opari ta yayetan ospez ageri zana. Yerusalen Yudu-eñiaren burua baitzan; ta aren buruntza, yauretxeko bizitza. Kristauak an endakatutzat bizi ziran, guziei iguingari, ta siñespidetik sayesteko agian. Arisku ontatik Kristau ayek aldentzea, da idazki onen asmo agiria.

Oñtarako, Itun Zaña ta Beñia aurkez aurke yañirik, Beñiaren nagusitasuna adirazten da, bataren ta bestearen bitartekoei, apaizgoari ta opariei so egiñez.

Idazki au, Paul'ena da noski; mami oso osoa, esanak oro, yañai-kerak ta antolabidea, arenak dira osorik. Itz-yoera bakañik omen da beste-rena; ta ausaz ala da, aren aginduz, ta ardurapean beste bat idazteko esku zitzayolarik.

I

Kisto ta aingeruak

Askotan ta askotara igaiñeen bidez Yainkoak gure arbasoei beñola itz egin ondoren, ² azken egunotan guri ere itz egin digu bere Semearen aoz, ludia Aren bidez egin baitu, guzien yabe ere Bera yañirik.

³ Au beñiz, Aren aintzaren dirdira, Aren izatearen irudia, ta bere indaí-itzez dana irozotzen duna da; ta ogen-garbikuntza egin ondoren, goyenean dago Goikoaren eskui aldean eserita, ⁴ aingeruek baño izen gurenagoa yarauntsi dun giñoan, ayek baño gorago yaso.

⁴ Seme-izena.

⁵ ¿Zein aingeruri, ezperen, esan dio bein ere: Nere Semea zera zu; Neronek gauñ soñtua? Ta beñiz: Ni izango natzayo Aita; ta Bera izango zait Seme?
⁶ Beñiro ere, Lensortua luñbiran sañtzen dula, dio: Yainkoaren aingeru guziek Bera yaurets bezate.

⁷ Aingeruetaz dio:

Aizeak bere aingeru,
 ta sugañak bere moñoi egiten dituna.

⁸ Semeaz dio, ordea:

Zure aulkia, Yauna, bein betiko,
 ta zure makila, zuzen-makil.

⁹ Zuzena maite ta okeña goñoto duzu;
 Argatik Yainkoak, zure Yainkoak,
 poz-olioz iguñtzi zaitu,
 zure lagunenen gañetik Zu goratuz.

¹⁰ Ta beñiro:

Zuk, Yaun Oñek, lenbizitik luña sendo yañi
 [duzu,

ta zure eskuek egiña da ortzia.

¹¹ Arenak egingo du; Zuk, beñiz, ba-diraukezu;
 yazkia bezela, mañoiztuko da osoa;

¹² soingañekoa bezela, bilduko duzu,
 ta aldagañitzat bazteñtuko.

Zu beti bat zera, ordea,
 ta ez dira zure urteak aituko.

¹³ Esan ere, ¿zein aingeruri esan zion bein ere:

5 Er. II, 7; Ef. 2.^a VII, 14

6 Er. XCVII, 7

8, 9 Er. XLIV, 6, 7

10-12 Er. CI, 26-28

13 Er. CIX, 1

**Eseri zaitez nere eskui aldean,
oñazpikotzat zure etsayak yaítzen dizkizudaño?**

¹⁴ Moítoitzarako gogo ez ote dira guziak, osasuna yarauntsi beaí dutenak laguntzeko igoíriak?

II

Kisto'ren itzari zoí diogun a'erez

Onezkerok, entzundakoei areago atxiki beaí diegu, yitoan ez ibiltzeko. ² Alabañan, aingeruen bidez aldaíkatutako itza sendo egin ba'zan, ta arekiko auste ta biu'keri guziek ordain zuzena a'rtu ba'zuten; ³ ¿nola guk iges egin, o'renbesteko osabidea nardaturik? Osabide au, lenbizikotz Yaunak iraga'ria izanda, entzuleen aito'rez sendotuta eldu baitzaigu. ⁴ Ta ayen aito'ari Yainkoak berea geitu dio, zantzu, alatz ta askotariko ezagupideak burutuz, ta Goteuna bere oldez banatuz.

⁵ Ez baitie Yainkoak ari dugun ludi eto'rtzekoa aingeruei menderatu. ⁶ Ba-dugu, ba, nonbait norbaiten aito' au:

¿Zer da gizakia, artzaz Zu oroitzeko?

¿Zer Gizasemea, Aren ayola Zuk a'rtzeko?

**⁷ Apu' batez aingeruak baño beeragotuta,
burua ospez ta deduz yantzi baitiozu,
dana Aren oñazpian ya'irik.**

² itza=Lege Za'ra

⁵ ludi eto'rtzekoa=Itun Be'irkoa.

⁶⁻⁷ Er. VIII, 5-7

⁷ apu' bat ori, Yesu'ren lu'eko bizialdia da, be'piztez ta zerurako igoeraz amaitua.

⁸ Dana, beñiz, Aren oñazpian yañi dula, ez du Aren azpira gabe ezer ere utzi. Orain, noski, ez dakusgu dana Aren azpiko. ⁹ Apur' batez aingeruak baño beera-gotutako Yesu Bera ba-dakusgu, ordea, yasan dun erio-tzagatik, ospez ta deduz yantzia; Yainkoaren eskezez, eriotza murtxatu bea' baitzun guzien onerako. ¹⁰ Berez ta Beretzat dana egin dunari baitzegokion, semerik asko zerura eramatean, osasuna zeka'kiena oñazez arago-tzea. ¹¹ Guziak, alegia, Gurentzalea ta gurenduak, yato'ri bereko. Argatik lotsa gabe senidetzat aipatzen ditu, ¹² esanaz:

**Zure izena nere senideei iraga'riko diet;
ta batza're betean goretsiko zaitut.**

¹³ Ta beñiz:

Arengan nere uste ona ya'riko dut.

Ta beñiz:

Ona emen ni ta Yainkoak eman dizkidan semeak.

¹⁴ Or' ba, semeak aragi ta odol bateko baitira, Bera ere or'tan erkide egin zaye, erioztaren gañeko al izatea zeukan tuxuria erioztaz po'rokatzeko, ¹⁵ ta erioztaren beldu'rez ildabiziko yoputzan zeudenak askatzeko. ¹⁶ Ez du, ba, noski, aingeruen auzia bere gain ar'tu, Abraham' en semeena baño. ¹⁷ O'rezkero alde orotara anayen eduko eginbea'ra zan, Ya'inkoarenetan apaizpuru e'ruki-bera ta kirmen izateko ta e'riaren ogenak eriteko.

¹¹ Yainkoak gizona gizonaren bidez ogenetik yaso du, Yainkoaren Semea or'tarako gizon egin zalarik; zuzentasuna e'rukiarekin burupide sakon ontan bilduta erakuski.

¹² Er. XXI, 23

¹³ Er. XVII, 3; Is. VIII, 8

18 Ubañazkian Bera egonda, ubañazkian daudenak urgaitzi ditzake-ta.

III

Yesu ta Mois

Beraz, zerurako deya artu duzuten senide gurenok, Yesu, gure aitoñaren iragañle ta apaizpurua, begirazute, ² aintzat yañi zunari kirmena, Aren etxe osoan Mois bezela. ³ Mois baño goragañiago ere da Au, etxea baño etxegilea goragañiago dan giñoan. ⁴ Izan ere, norbaitek egiña da edozein etxe; guzien Egilea, beñiz; Yainkoa. ⁵ Mois, noski, Aren etxe osoan kirmen zan, esanbeañak aitoñtzeko moñoitzat; ⁶ Kisto, ordea, bere etxean semetzat. Aren etxea, beñiz, gu gera, azkeneraño zabal zabal ta bipilki itxaropena sendo eukitzekotan.

Yainkoarekiko goñ ez izan

- ⁷ Oñezkero, Goteunak dionez,
 Aren mintzoa gauñ ba'dantzuzute,
⁸ ez gogoñtu biotzok,
 basoko Meriba'n Masa-egunez bezela,
⁹ zuen arbasoek tiñitatu ta axukatu niñutenean,
 ta nere egiñak beñogeñ urtez ikusi egin beañ.
¹⁰ Argatik alako gizaldiaz aspertuta esan nun:
 biotza beti okeñ dute; ez ditute nere bideak
 [ezagun.

¹ Aren etxe osoan = Israel'eñiaren burutzat.
 7-11 Er. XCV, 7-11

**11 Suminduta, beraz, zin egin dut:
ez dira auek nere atsedenera sartuko.**

¹² Orizute, senideok: ez bego zuenean biotz bat ere, Yainko biziarengandik sayesteko bezain gaizto ta siñes-gogoñik. ¹³ Aitzitik, gauñ deritzan astiak dirauño, egun oro elkar berotu ezazute, ogen-liluraz zuenean inor gogoñtu ez dedin. ¹⁴ Kisto'ren erkide egiñak baikera, asierako uste ona azkeneraño sendo eukitzekotan. ¹⁵ Esaten baitzaigu:

**Aren mintzoa gauñ ba'dantzuzute,
ez gogoñtu biotzok Meriba'n bezela.**

¹⁶ Izan ere mintzoa entzunda gero zalapartatuak zeintzu izan ziran? Ez ote Aigito'tik Mois'en mendean irtendako guziak? ¹⁷ Ta zeintzuei aseñe izan zitzayen berogei urtez? Ez ote ogendunei, kaski egiñak basoan eroritakoei? ¹⁸ Bere atsedenera sartuko ez zirala zeintzuei zin egin zien, biurñei baizik? Ta ba-dakusgu biurñeri onengatik ezin sartu izan zirala.

IV

Atsedeen-agintza

Beldur gaitez, beraz, Aren atsedenera sartzeko agintza geldi zaigun aren, zuetako norbait ara gabe aurkituko ote dan. ² Ayek bezela, gu ere dei zoragarria artuta gaude-ta. Itz entzunak ez zien, ordea, onik egin

¹³ Bizitan geraño dugu gauñ edo asti au, Yainkoaren mintzoa entzuteko ta Aren efukia iristeko.

aditu zutenekin siñestez batu ez ziranei. ³ Atsedenera siñestunok saítuko baikera. esana dagonez:

**Suminduta zin egin dut:
ez dira nere atsedenera saítuko.**

Aren lana, beíz, ludia antolatu zunetik amaiturik zegon. ⁴ Zazpigaíen egunaz nonbait dio, ba: **Ta zazpigaíen egunean Yainkoak lana utzita atsedenaítu zun.** ⁵ Ta beíro emen: **Ez dira nere atsedenera saítuko.**

⁶ Beraz, ara saítzeko zenbait gelditzen baitira, ta auíena deituak biúrkeriagatik saítu ez baitziran ⁷ beíro egun bat, gauí bat, mugatzen du, ainbesteko epe ondoren arestiko itzak Dabid'en aoz esanez:

**Aren mintzoa gauí ba'dantzuzute,
ez gogoítu biotzok.**

⁸ Orí ba, Yosue'k atsedenera saítu izan ba'litu, ez luke Yainkoak beste egun batentzaz aízkeru itz egin. ⁹ Oraindik itxarogaí dago, beraz, Yainkoaren eíarentzat betiko atsedena. ¹⁰ Aren atsedenera saítzen dana bere lanetatik atsedeten da, ba, Yainkoa beretatik bezela.

¹¹ Leya gaitezán, beraz, atsedenaítan saítzeko, iñor ez dedin ayen ereduz siñesgogoíkerian erori. ¹² Yainkoaren itza, bizi, eragintsu ta sorbatz biko edozein ezpata baño saíkoíagoa da, ba; gogo ta adimena, txunku ta muñak sakailtzeko ainbatekoa, ta biotzeko oldotz ta asmoak bereizteko zoíotza. ¹³ Ta aren begientzat ezer ez dago ostenik; dana garbail ta zabalik dago, aitzitik, aipatzen dugunaren begitan.

† As. II, 2

Gure Apaizpurua

¹⁴ Beraz, Apaizpuru aundia, Yesu, Yainkoaren Semea, zeruan sartuta daukagun ezkerro, aitoari sendo gatzizkion. ¹⁵ Gure gaitzak somatu ezin ditzaken Apaizpuru ez baitzaigu; ogenik gabe edozer neketan, gu bezela, azita baño. ¹⁶ Emari-aulkira, beraz, uste onez yo dezagun, erukia iristeko, ta urgaitzi egokirako edera irabazteko.

V

Yesu'ren apaizgo yatoia

Izan ere, edozein apaizpuru, gizartetik artua, ta Yainkoari dagozkienetan gizakien alde yaria da, ogenengatik emari ta opariak eskeintzeko, ² ta itsu ta okertuak samur erabiltzeko, bera ere ergalkeriz esita dagon ezkerro. ³ Ta argatik, eriaeren alde bezela, bere buruaren alde ere opariak eskeñi bea ditu ogenengatik.

⁴ Inork ez du, beñiz, dedu ori bere buruz beretzen; Aaron bezela, Yainkoak deitu izanak baño. ⁵ Orela Kisto'k Berak ez du berez apaizpuru-dedua artu; emana du, ordea, itzok esan zizkionarengandik:

**Zu zera nere Semea;
Neuk gau' soñtu zaitut.**

¹⁶ Emari - aulkira = eskeñ aulkira.

⁵ Er. II, 7

⁶ Ta berebat beste nonbait:

**Bein betiko Apaiz zera Zu,
Melkisedek'en ariaz.**

⁷ Alakotzat ere, aragitan bizi zala, eriotik yagon zezakenari oyu ozenez ta negárez otoi ta árenak eskeñirik, aditua izan zan bere lotsagatik. ⁸ Ta [Yainkoaren] Seme izanañen, neketan ari izanda, men egiten ikasi zun. ⁹ Ta iltzean, Aren esangin guzientzat betiko osasunbide egin da, ¹⁰ Melkisedek'en ariaz Apaizpurutzat Yainkoak iragañita.

Egi au ezaguteko oarñizunak

¹¹ Itzaldi luze ta adigaitza ba-negizueke órétzaz, aditzeko ergel egin zerate-ta. ¹² Óren aspalditik irakasle izan beañ zenutela ere, Yainkoaren ikasbidean zein diran asimasiak beñiz ikasteko beañean baitzaudete, ta yanari gogoña baño, esnea duzute beañago. ¹³ Esnez oraindik azten dana, ez da zindotasunaren izketarako lain; aurtxoa da-ta. ¹⁴ Elduentzat da azkuñi gogoña; ona gaitzetik bereizteko sena azita dutenentzat.

VI

Goragoko aolkuak

A la ere, Kisto'ren ikasbideko asimasiak alde bat utzirik, gorenegara yo dezagun, órpo-egiak, egite ilen garbayaz, Yainkoaren siñesteaz, ² ukuzpenaz, esku

⁶ Er. CIX, 4

² esku—ezarñtze au Sendatza, edo ukuzpenez arñtutako siñesmena sendotzeko. Elizan Yesu'k yañi dun esker-ituñia da.

-ezaítzeaz, ilartetiko beípizteaz ta betiko epaitzaz egiok beíz ikutzeke. ³ Ta ori egitera goaz, Yainkoak onez.

⁴ Eziña da, ba, bein argituak, zeruko emaria murtxatu, Goteuna ártu, ⁵ ta Yainkoaren itz ona ta etórtzeko mendearen inđańak ezagundakoan ⁶ eroriak, garbairako beítzea, Yainkoaren Semea, beren aldetik al danez, beíro gurutzatu ta alkegańi egin duten ezkeror. ⁷ Alabańa, sańitako euria gańean ártu ta edandakoan, belar ona lugińei dakańkien luńak, Yainkoaren onespena bere gain du; ⁸ lar ta arantzak dakazkiena, beíz, txara da, biraogańi ta eńalora beara.

⁹ Ońela mintzo gerala ere, ene maiteok, obe da zuen osakuntzaz dugun ustea. ¹⁰ Okeń ez da, ba, Yainkoa, zuen lana ta Aren izenagatik deunak sorozten erakutsi ta erakusten duzuten maitakuntza aintzat ez ártzeko. ¹¹ Azku ori azkenerańo, itxoikizuna bete betean iritxi arte, zuetako bakoitzak erakustea nai dugu, ordea, ¹² nagitu ez zaitezten; aitzitik ere, ońordea sińestez ta egonańiz erdisten dutenak bezela, ari izan zaitezten.

¹³ Agintza Abrahan'ı Yainkoak egin zionean, zin egiteko aundiagorik ińor ez baitzizayon, bere buruagatik zin egin zun, ¹⁴ esanaz: **Onetsi ere onetsiko zaitut, eta ugaldu ere ugalduko zaitut. Ala Ni.** ¹⁵ Ońela Abrahan'ek egonańiz itxoinda, agintza euki zun. ¹⁶ Gizonek aundiago zayen bat edo batengatik zin egiten

5, 6 Emen ikutuak, Kisto'ren sińestetik sayestuak, eta batez ere yudtzara itzuliak bide dira; Yesu gurutzatu ta zekańkigun osabide bakańa zapuztu zutenen erkidetzara biurtu baitira, Yainkoak bakańik bere urgaitzi azkańez ta laguntza bereziz beńitu ditzake garbai zińerako, ayen biotzak aldatuz ta sińestea ayengan piztuz.

14 As. XXII. 27

dute, ta ziña da ayentzat eztabaidan esandakoen erabateko sendogaía. ¹⁷ Yainkoak ere, bere asmoaren alda eziña agintzaren oñordekoei areago erakusteko, zin egi-tera yo zun. ¹⁸ Oírela, Yainkoarengan gezuárekin bat etoí, ta aldatu ere ezin ditezken bi burutatik, eskeñitako itxaropena azkaítzeko zurkaitz sendo dezagun, Arengan gerizatu geranok. ¹⁹ Itxaropen au gogoaren arpeu eskieí ta sendo baitugu estalki bañneraño saítuta. ²⁰ Ara gure alde saítu da, ba, auéna, Yesu, Melkisedek'en ariaz bein betiko Apaizpuru egiña.

VII

Melkisedek'en apaizgoa

Izan ere, Melkisedek, Salen'go érege ta Yainko Goyenaren apaiz au, éregeen poírokalditik zetoíren Abraham'gana auératuta, onespena eman ziona, ² ta Abraham'ek oroen amaírenak eman zizkiona, izenez Érege Zuzen, ta izanez Salen'go érege edo Érege Paketsu, zana, ³ aita gabe, ama gabe, yatoíki gabe, bere egunen asiera gabe, ta biziaren amai gabe, ta oírela Yainkoaren Semearen antzeko agertzen zaigun onek, apaiz dirau betiko.

Lebi'taíren apaizgoa

⁴ Gomazute zeinbestekoa dan au, Abraham'ek, arbaso nagusiak, gudakiñetako amaírenak eman zizkion au. ⁵ Apaizgoa aítzen duten Lebi'taírek, legearen aginduz,

¹⁸ agintza ta zin egiña.

amañenak eñiarengandik, edo berdin dana, beren senide-
engandik yaso bea' ditute, auek ere Abraham'en belau-
neko izanañen. ⁶ Ark, beñiz, beste endakoa zala ere,
amañenak Abraham'engandik izan zitun, ta agintzaen
yabe zana onetsi zun. ⁷ Ezin uka diteke gero, onespena
a'rtzen duna ematen diona baño txikiagoa dala. ⁸ Bere-
bat emen gizon ilko'ak dira amañenak a'rtzen ditutenak;
an, ordea, bizi dala aito'rtzen dana. ⁹ Ta amañenen
a'rtzalea dan Lebi'k ere, Abraham'en bidez, amañenak
eman zizkion; ¹⁰ oraindik aitaren ge'untzetan baitzegon,
oni Melkisedek bidera irten zitzayonean.

¹¹ O' ba, zindokuntza Lebi'ta'ñen apaizgoz iristen
ba'zan, aren gain baitzegon eñiari emandako legea, ¿zer-
tarako yaiki bea'ra zan beste apaiz bat Melkisedek'en
ariaz, ta ez Aaron'en ariaz aipaga'ri? ¹² Apaizgoa aldatu
ezkero, legea ere bea'rez aldatu da. ¹³ Izan ere, esanak
dagozkiona beste leñukoa da; ta Aren leñuan opamai-
-mutilik ez zan izan. ¹⁴ Nabari, da, ba, gure Yauna,
Yuda e'rotik erne dala; Mois'ek, beñiz, apaizkondeaz
egitean, ezer ere ez dio leñu o'rtzaz.

¹⁵ Ta are nabariago da ori, Melkisedek'en eredu
beste Apaiz bat ya'ri dan ezkero, ¹⁶ ez legeko belaun-
bidez, amaigabeko biziaren inda'rez baño. ¹⁷ Artzaz
esana baitago:

**Bein betiko Apaiz zera Zu
Melkisedek'en ariaz.**

¹⁵ nabariago da apaizgoaren alda.

¹⁶ belaunbidez; Legearen arauz-apaizgoa Aaron'engandik aren on-
dorengoei belaunez belaun igaro bea'ra zan.

¹⁷ CIX, 4

¹⁸ Órela lengo agindua, aul ta alper' zala-ta, ustu egin da. ¹⁹ Ezer ez du, arean, legeak bete betean osotu; Yainkoagana urbiltzen gaitun uste oberako ataka baizik ez baitzan. ²⁰ Ta gañera, zin egiteke ez da ori yazo. Besteak ziñik gabe apaiztu dira; ²¹ Au, beñiz, zin egitez, apaiztu du diotsanak: **Yaunak zin egin du; ta ez da garbai izango: Bein betiko Apaiz zera Zu.** ²² Órezkero, Yesu, Itun obearen baitzale yañita dago.

²³ Asko dira, berebat, apaiz egiñak; eriotzak irautea daragozkie-ta. ²⁴ Onek, beñiz, beti baitirau, betiko apaizgoa dauka. ²⁵ Órexegatik Yainkoarengana urbiltzen diranak beti ere gaizkatu ditzake, gure alde otoi egiteko beti bizi da-ta.

²⁶ Órelako Apaizpuru beaña zitzaigun; guren, utsik gabe, garbi, ogenditartetik atera ta zerugañera yasota; ²⁷ bere ogenakatik auñena ta eñiarenakatik uñena, opariak egun oro eskeñi beañik ez duna; bere burua eskeñirik, bein betiko ori egiña du-ta. ²⁸ Apaizpuru Legez yañiak, gizon ergalak baitira; lege ondoren zin-itzez yañia, beñiz, Semea da, bein betiko bikaña.

VIII

Itun Beñiko Bitartekoa

Ara esanen guna: Órenbestekoa da zeruan dugun Apaizpurua, Goikoaren yauralki-eskuyan eserita, ² yauretxearen arduraduna, ta Yaunak Berak, ez gizonek, eraikitako etxola yañóarena. ³ Apaizpuru dana,

21 bertan

beríz, emari ta opariak eskeintzeko yaíta dago. Beraz, Onek ere zer eskeñi izan bea' du. ⁴ Luéan egonik, apaiz ere ez zan izango; opariak legez eskeintzeko auke-radunak baitira. ⁵ Bañan oriek zerukoen irudi ta itzalarrekiko mo'roitzan ari dira, etxola eraikitzeakoan, Mois'i esan zitzayonez: **Begira; diotsa Yainkoak; dana egizu mendian era kutsi dizudan ereduz.**

⁶ Onako Oni egotzitako egitekoa, beríz, garayago da noski; Itun oberen ta agintza obeetan sendotuaren Bitartekoa dan giñoan. ⁷ Lengo Itun ark akatsik ez ba'lu, beríren bat egiñenik ez lizake. ⁸ Yainkoak, beríz, ase'retan dasaye:

**Ara egunak datoz, dio Yaunak,
ta Itun be'ri bat burutuko dut
Israel etxearekin ta Yuda etxearekin;
⁹ ez, ordea, Aigito'tik ayen arbasoak ateratzeko,
eskutik eldu nien egunean
ayekin egin nuna bezelakoa.
Nere Itunean ayek iraun ez zutela,
Nik ere, dio Yaunak, zapuztu nitun-eta.
¹⁰ O'ra, dio Yaunak, egun ayetara orduko,
Israel etxearekin atonduko dudan Ituna:
Nere legea gogoan ipiñiko diet
eta biotzetan itsatsita utziko.
Neu Yainkostat izango natzaye,
ta ayek e'ritzat izango zazkit.
¹¹ Iñork bere ur'koari, iñork bere senideari
ez dio irakasletzat esango: ezaguzu Yauna;**

⁵ Irt. XXV, 40

^{8, 12} Yer. XXXI, 31-34

guziek, txiki-aundiek, nazaguketelako.

¹² Ayen utsekiko erukior izango naiz,
ta beñiro ez ditut ayen ogenak gomutarako.

¹³ Itun au beñia esatean, lengoa zarkintzat darakuskigu. Zarkin ta umela, beñiz, aurki aitzekoa da.

IX

Itun Zareko yaureskuntza

Lengo Itunak ere yauresketarako araudi ta luñeko yauresgua ba-zeuzkan. ² Etxola bat antolatua baitzan ta Gurena deritzan aitzialdean argimutilla, maya ta eskein-ogiak zeuden. ³ Bigaren estalki ostean, Guren Gurena deritzan aldea; ⁴ ta artan urezko luñin-maya ta alde orotatik urez estalitako Itun-kutxa. Kutxa-bañean, beñiz, urezko antuxin bat manarekin, Aaron'en makilla, birloratu izana, ta Lege-olak; ⁵ eta kutxagañean ospe-kerubiñak adeigañia itzalpetuz. Orain ez dagokigu, ordea, orelako bakoitzaz itz egitea.

⁶ Dana orela gertuta, lenbiziko etxolaldean apaizak beti sartzen dira yauresketarako; ⁷ bigarenean, oster, apaizpurua bakañik urtean bein, ta inola ere ez odolik gabe, ordain ori bere utsegiñakatik eta eñiarenakatik eskeintzeko. ⁸ Orela Goteunak zerakusan Gurena'rako bidea oraindik zabalik ez zegola, lengo etxolak zutik zirauño. ⁹ Orduko mendearen irudia da ori; eskein-

⁴ luñin-maya; Vulgata'k dio; luñin-ontzia. Mois'ek dionez (Irt. XXX, 6) Gurena'n zegon. Guren-gurena'ri nolarebait zegokion, ordea; aren ate-estalki aurean baitzegon, zerizkiñ luñiñak Guren gurena'ra sañtu zitezken eran.

tzen ziran emari ta yauropak yaureslea barnetik zintzotzeko alpeak ziralako; ¹⁰ garai beiraño yan-edariak eta ikuzketa batzu arautzeko aragi-aginduak baizik ez baitziran.

Kisto'k eskeñitako yauropa yatoa

¹¹ Kisto, beiz, etortzeko ongien Apaizpuru azaldu-rik, eskuz egiña ez dan ta emengo tankerarik ez dun etxola obe ta bikañagoan zear, ¹² Guren barnera bein betiko sartu zan, aker ta zikiroen odolik gabe, bere odolez baizik, betiko yareikuntza burutuz. ¹³ Alabaña, satsuak, aker ta zezenen odolez ta txalen erautsez zirpizinduta, aragitan garbi ta guren egiten ba'dira, ¹⁴ zeñen bidezago betiko Goteunez bere buru garbia Yainkoari eskeñi zion Kisto'ren odolak zuen barnea egite iletatik garbituko du, Yainko bizia yauresteko?

¹⁵ Ta orexegatik Itun Beiraen Bitartekoa da, agintzaren arauz betiko ondarea deituek ar dezaten, lengo Itunpean egindako ogenen ordaintzat il dalako. ¹⁶ Ilburukoa betetzeko, aren egilearenak egin bea du-ta. ¹⁷ Eriotza ondoan sendo egiten da, ba, ilburukoa; aren egilea bizi daño, beiz, indarik ez du. ¹⁸ Oregatik lengo Ituna ere odolik gabe ez zan sortua izan. ¹⁹ Mois'ek eri osoari legearen aginduak oro irakuri ondoren, aker ta txekoaren odola, ur, artile goi ta itzebelara arturik, Idazia bera ta eri osoa iztatu zitun, ²⁰ esanak: **Au da Yainkoak zuekin burutu dun Itunaren odola.**

15-18 Itun Beira ilburuko da, noski. Yainkoaren ordeko ta arazo ontan gure buruz bitartekoa, arean, Kisto yaria da, bere odolez ta eriotzan Itun au burutzeko egile ta baitzale izanda.

20 Irt. XXIV, 8

²¹ Berebat etxola ta yauresketarako ontzi guziak odolez zirpizindu zitun. ²² Ta legearen arauz geyenak odolez garbitzen dira; ta odol-ixurtzerik gabe askespenik ez dago.

²³ Orela garbitu bearak ziran zerukoen irudiak; zerukoak, ordea, opari obeen bidez. ²⁴ Izan ere, Kisto ez zan eskuz egindako Gurena'n, yatoñaren irudian, sartu, zeruan bertan baizik, Yainkoaren begitan gure alde orain aurkezteko. ²⁵ Ezta bere burua maiz eskeintzeko ere, yauresguan urte oro apaizpurua besteren odolez sartzen dan bezela. ²⁶ Ostera, ludi-asieratik oñazetu beara askotan izango lizake. Bein bakañik ageri izan da, ordea, azken aldi ontan, bere eriotzaz ogena ezabatzeko. ²⁷ Ta gizonentzat bein iltzea, ta gero ebaztaldia erabakita dagon bezela, ²⁸ Kisto ere, eñiaren ogenak ezabatzeko bere burua bein eskeñitakoan, Aren zai daudenei beñiro ogenik gabe azalduko zaye, osasuna ekañtzeko.

X

Kisto'ren oparia bein betiko bakaña

Legeak etoñtzeko ongien itzala ba-zeukan; ayen irudipekoa, beñiz, ez. Argatik, urtean maiz opariak eskeñañen, ayetara elduak ez zitzaken ben ben egin. ² Bestela, eskeintzaleak, bein garbi eginda gero, ogen-oañtzetik gabe gelditzean, ez ote lirake opariok amaitu? ³ Urte oro, ostera, ayetan beñizten da ogen-oroipena; ⁴ ezin baititeke zezen ta akeñen odolez ogenak kentzea. ⁵ Argatik gizartera sartzean, dio:

5-7 Er. XXXIX, 7-9

Ez duzu oparirik, ez eskeñik nai izan;
soña ezañi didazu, ordea.

⁶ Sutopa ta ogengatikoak ez dituzu edeñetsi.

⁷ Oñezkero esan dut: Ona emen Ni, Yainkoa,
idazpuruan Nitzaz idatzita dagonez,
zure gogoa egiteko gerturik.

⁸ Lege arauz egin oi diran opari, eskein, sutopa
ta ogengatikoak ez dituzu nai izan, ezta edeñetsi
ere, lenik esanda gero, ⁹ Ona emen Ni, Yainkoa,
zure gogoa egiteko gerturik, diola, lengo yaurespi-
dea darauz, bigařena yařtzeko. ¹⁰ Erabaki au dala-ta,
guren egiten gera gu Yesu Kisto'k bein betiko egindako
bere soin-eskeintzagatik.

¹¹ Izan ere, apaiz guziak yauresketan egun oro ari
dira, opari berak askotan eskeintzen; opariok ogena
iñola ere ezin kendu dutelako. ¹² Au, ostera, opari bat
bakañik ogenengatik eskeñitakoan, bein betiko eseri da
Yainkoaren eskuin, ¹³ gerorako itxoiten, **Aren etsayak
oinpean yañiak izan arte.** ¹⁴ Opari batez osasun betea
gurenduei bein betiko ekañi die-ta. ¹⁵ Goteunak ere
dioguna aitořtzer du. Lenik esandakoan:

¹⁶ **Au da egun ayetara orduko
ayekin atonduko dudan Ituna; dio Yaunak:
Nere legea biotzetan ipiñiko diet
eta ayen gogoan itsatsita utziko;**

¹⁷ **ta beñiro ez ditut ayen ogen ta utsak gomu-
[taratuko.**

16-17 Yer. XXXI, 33

¹⁸ Oí ba, ogen-asketsa ezkerro, ogengatiko eskeinkizunik ez dago.

Sĩñespidean sendo egoteko

¹⁹ Gurena'rako sa'rbidea zabalik ba-dugu, beraz, seni-deok, Yesu'ren odolez. ²⁰ Berak estalki zear, edo berdindana, bere aragi zear, bide be'ri ta bizi bat zabaldu digu. ²¹ Bera dugu Yainkoaren etxean Apaizpuru ya'rita. ²² Arengana goazan, beraz, benetako gogoz, siñeste bete betez, ba'rne-kutsu guzitik biotza garbi, ta soña ur utsez ikuzita eka'ki. ²³ Gure uste ona kordokatzeke aito' dezagun; kirmena da, ba, agintza egin diguna. ²⁴ Elka'ri so dagiogun, maitasuna ta egite onak gurean pizko'rtze-ko. ²⁵ Ez beza iñork bere batza'rea utzi, batzuk oi dutenez; elka' adoretu ezazute, ordea, eguna batez ere ur'biltzen dakusazute-ta.

²⁶ Egiaren ezaguera ar'tu ondoan, oldez ogen ba'da-gigu, gerokoan ez baitzaigu ogen-ordaintzat oparirik gelditzen. ²⁷ Epayaren ta biu'riak irentsi bea' ditun su biziaren zai egon bea'. ²⁸ Mois'en legea austen duna-
rentzat ez dago e'rukirik; bizpairuren aito'ez ilbea'ra da. ²⁹ ¡Zeñen ga'ratzago ebainbea'ra deritzazute, Yainkoaren Semea oinkatu, Itun-odolez guren eginda gero, odol ori nardatu, ta eske'ra darion Gogoa iraindu lukena? ³⁰ Baitakigu nork dion: **Nere gain apena; nere gain or-**

19, 20 Gurena'rako=zerurako. Ara sa'rtu da, ba, Yesu bere aragi ta soñaren estalkia eriotzan ur'aturik.

30 Deut. XXXII, 35; Er. GXXXIV, 4

26-39 Yesu Kisto'ren siñestea erabat ukatu ta erantzitakoan, o'ela sayesturik egon nai dunarengatik esanak dira emen itz izuga'riok.

daña. Ta beste nonbait: **Yaunak bere eña ebatziko du**
³¹ ¡Bai izugaria, Yainko biziaren eskuetan erortzea!

Oroipen azkariak

³² Lenbiziko egun ayek gomutara itzazute, argitara eldubeñi zinatela, neke askoren buruka zeneramatenean,
³³ alde batetik guzien begitan alke ta gogaikari yariak, eta bestetik, orela zebiltzanen lagun egiñak. ³⁴ Atxiloekin nekeak yasan baitzenitetun, ta zuenaz eraztea pozik eraman zenuten, beste ogasun obe ta iraunkor bat zeneukatela yakiñik. ³⁵ Uste on ori ez galdu; sari edera du-ta. ³⁶ Egonaria beara baitzaizue, Yainkoaren naya bete ta agintza iritsi dezazuten.

³⁷ **Apuñ bat oraindik, apuñ bat;**
etoñiko da Etoñtzekoa, ta ez du luzatuko.

³⁸ **Anartean nere zintzoa siñestez biziko da;**
ta gibeltzen ba'da, ez du nere edera eukiko.

³⁹ Guk, beñiz, ez dugu ondamenerako gibeldu nai, gure yareikuntzarako siñetsi baño.

XI

Siñestearen goraldia

Izan ere, siñestea itxoikizunen mamia, ta ageri ez diranen erakuspidea da. ² Arengatik zarak aipagari egin dira. ³ Siñestez ba-dakigu mendeak Yainkoaren

^{37, 38} Is. XXVI, 20; Ab. II, 3

¹ Edozeren zai bidezko siñestez gaudenean, siñesterik gabe ezer ez litzaiguken itxoikizun ori, etoñtzeko zerbait besterik ez dan bitartean bertan, ba-dago gure baitan benetako izatez ta eragitez nolarebait bizirik, baita pizkor ere; aren mamia ba-daukagu gudan, aren siñestea eukitzean.

itzetik soñtuak dirala, ikusgaría ageritik etoñtzeke beraz.

⁴ Siñestez, Abel'ek Kain'en oparia baño obea Yainkoari eskeñi zion; ta argatik, aren opariaz Yainkoak Berak egindako aito'rez zuzentzat iragaríta, oraindik ere ilda gero mintzo da.

⁵ Siñestez Enok eriotzara gabe eramana izan zan, ta **iñork ez du idoro, Yainkoak eraman zulako.** Era- mana izan baño len, **Yainkoaren gogarako zala,** aitoñtua izan baitzizayon. ⁶ Siñesterik gabe eziña da, ordea, Yainkoaren gogarako izatea. Yainkoari urbiltzen zayonak, Yainkoa ba-dala, ta bila dabilzkionei ordain- tzale zayela siñetsi bea' du-ta.

⁷ Siñestez Noe'k, oraindik ez ikusitakoen be'ri a'rtu- ta, bere etxeakoak yagoteko kutxa gu'bilki antolatu zun; ta o'rela gizakeria gaiztetsirik, siñestetik dan zindokun- tzaren oñordeko egin zan.

⁸ Siñestez Abrahan deritzana, deya adituz, ondare- tzat a'rtu bea' zuken alderdira irten zan, nora ziyoanik yakiteke. ⁹ Siñestez agintza-lu'ean a'rotz, atze'rian beze- la, txaboletan bizi zan; ta berebat Isaak eta Yakob, agintza berberaren oñordekoak. ¹⁰ Yasoin sendo ga- ñean Yainkoak eraiki ta antolatutako iriaren zai ze- golako.

¹¹ Siñestez Sara'k berak, elduegia zala ere, au'rdun izateko inda'ra a'rtu zun, agintza egin ziona-kirmen zala siñetsi zulako. ¹² Ta ala gizon batengandik, erdi-ilagan- dik gero, soñtuak, ortziko iza'rak eta itxasegiko onda'rak aña dira.

5 As. V, 24

¹³ Siñestez guziok il ziran agintzak iristeke, bañan ayetara urundik so ta agur eginik, eta lur gañean arutz ta atzeritar zirala aitoriturik. ¹⁴ Orrela mintzo diran ezkerok, aberiruntz diyoazala baitarakuste. ¹⁵ Ta utzi izan zuten erira gogoak ba'leramatzi, bertara itzultzeko aukeran zeuden. ¹⁶ Beste eri obe batera gogoak zeramatzin, ordea, ta au zerukoa zan, Argatik Yainkoa ere ez da lotsa ayen Yainko izena beretzeaz; iria ayentzat gertuta baitzeukan.

¹⁷ Siñestez Abraham'ek azteraldi artan Isaak, seme bakaia, eskeñi zun, agintzak artu, ¹⁸ ta itzok aditu ondoren: **Isaak'en ondorengoa dukezu zure izenekoa.** ¹⁹ Ilak berpizteko lain Yainkoa dalakoan zegon, ta argatik itzulitakotzat euki zun.

²⁰ Siñestez Isaak'ek etorkizunerako oneskuntza Yakob'i ta Esau'ri eman zien. ²¹ Siñestez Yakob'ek, iltzerakoan, Yose'ren semeak banaka onetsi zitun, makilburuan ezarita gur eginenez. ²² Siñestez Yose'k, iltzerakoan, Israeldaren irtenaldia aipatu ta bere ezurretaz egitekoa erabaki zun.

²³ Siñestez, Mois'en yayotzean, aren gurasoek auraren ederitasuna ikusirik, iru ilabetez izkaturik euki zuten, erege-agindua aintzat artu gabe. ²⁴ Siñestez Mois'ek berak, gizondu orduko, Parao'ren alabaren seme zala ukatu zun, ²⁵ ogen-atsegin mengela baño Yainkoaren eriarekin nekepean bizi nayagorik. ²⁶ Sariaren zai baitzegon, Kisto'ren gerena Aigito'ko altxorak

18 As. XXI, 12

21 bere semeen yaregile ta Aigito'ren nagusia zan Yose ura, giza-yaregile ta oroen Yauna dan Kisto'ren irudizat begiraturik edo.

baño aberatsagoa zan arentzat-eta. ²⁷ Siñestez ere Aigito utzi zun, éregeren aseéaz ayolarik gabe; ikusi eziña begitan ba'lu bezain sendo egonik. ²⁸ Siñestez Paska-yaya ta odol-ziprinketak burutu zitun, seme nagusien sa'askitzaleak israelda'erenik ikutu ez zezan.

²⁹ Siñestez Israelda'arak, lego'etik bezela, Itxaso Go'itik igaro, ta aigitoa'arak, be'riz, ori bera egitean, ito egin ziran.

³⁰ Siñestez, Yeriko baranoan israelda'arak zazpi egunez ibili ezkerro, iriko a'esiak erori egin ziran.

³¹ Siñestez E'rahab zirilda ura ez zan siñesgabekoe-kin galdu, ike'leei egin zien a'era onagatik.

³² ¿Zertarako o'rtik ya'rai? Astirik ez nuke Gedeo, Barak, Sanson, Yepte, Dabid, Salomon ta iga'leak o're-la aipatzeko. ³³ Siñestez auek e'riak azpiratu, zuzenbidea eraiki, agintzak iritsi, leoyen aoak itxi, ³⁴ suaren olda'ra itzali, ezpata-sorbatzetik iges egin, eri ondoren suspertu, gudan azka'rtu, ta etsaitaldeak sakabanatu zituten. ³⁵ Emazteek beren ilak be'rpiztez a'rtu zituten. Batzu zeatuak izan ziran, yareibiderik a'rtzeke, be'rpizte o-bea erdisteko. ³⁶ Beste batzuk maxi ta zigo'radak yasan zituten, baita bilu'rt ta baitegiak ere. ³⁷ Ba-dira a'rikatu, o'ñazetu, ze'ratu, ta ezpataz il diranak; ardi ta auntz-la'ruz yantzirik, lande'rt, la'ri ta laztuta bizi izanak, ³⁸ baso, mendi, obi ta aitzartean alde'rai ibilki, lu'ra ayentzako gai ez zala ere.

³⁹ Guziok, be'riz, siñestearen aito'rez aipaga'ri izan-

^{39, 40} Zitu au zerua zan; ta ez zitzayen zabaldu, Yesu'ren eriotz-gatik guretzat zabaldua izan zan artera'ño.

aíren agintzaren zitua ez zuten iritsi, ⁴⁰ Yainkoak gutzaz obe zerbait erabakita baitzeukan, gu gabe goyenera eldu ez zitezán.

XII

Yesu'ren ereduá

Beraz, ainbeste aito'ren odei erdian gauden ezkeró, edozein zama ta ogen-esi erauzirik, dagokigun bu'rukara egona'riz leya gaitezán, ² siñestearén Itu'ri ta Elburua dan Yesu'ri so ta so. Poza aukeran zeukala, gurutza yasan baitzun, alkea uruñaturik, eta Yainko-aulkiaren eskuyean eserita dago. ³ Gogora eka'rtzute ogendiengandik alako yaza'ra yasan zun Ori, kemena galdurik aspertu ez zaitezten.

⁴ Oraíndik ez diozute, odolketaraño bu'rukatzuz, ogen-ari gogor' egin. ⁵ Ta aztu zaizue Yainkoak, semeei bezela, dagizuen aolku au:

Ene seme, Yaunaren erasia ez ezetsi;

Aren aka'ragatik gogoa ez galdu;

⁶ bere maiteari egiten baitio Yaunak erasi, ta semetzat daukana astintzen du.

⁷ Senaren azka'ri zaizue esaria. Semeekin bezela, Yainkoa ari da zuekin. ¿Al da ezperen semerik, aítak aka' egiten ez dionik? ⁸ Guzientzat dan aka'ra zuentzat ere ez ba'da, sasiko zerate, ez seme. ⁹ Aragi-gurasoek ere aka' egiten ziguten, ta lotsa ona generakuskien. ¿Zeñen bidezago gogoen Aitari menderatu bea'rez gaude,

5, 6 Itz, III, 11, 12

bizia iristeko? ¹⁰ Ayek, akaárpean egun gutxiko gauzkate beren gogara azkai; Onek, beñiz, bere gurentasuna guretzeko beara zaiguño. ¹¹ Edozein akaárek noski, bertakoan pozkañi baño gogaikañiago dirudi; bañan artan azitakoei gentza ta zuzentasuna arnaritzat dakazkie. ¹² Beraz, esku akituok eta belaun zañilok indartu bitez, ¹³ urats zuzenka ibilki, érenen oñak bidekatu gabe sendotu ditezan.

Sinai ta Sion

¹⁴ Guziekiko pakea bila ezazute, baita gurentasuna ere; gurendu izan ezik, iñork ez du Yainkoa ikusiko. ¹⁵ Zaudete zurt Yainkoaren edeña iñork galdu ez dezan, ta linbuxkerien érorik azi ta aldaskatu ez dedin, askotsuei kalte ta gaitz ekañtzen. ¹⁶ Ez bedi iñor zantañ ta deunge izan, Esau, bere oñordetza yaki baten ordañez saldu zuna, bezela. ¹⁷ Baitakizute geroan onespina yarauntsi naita, astandua izan zala, negañez ekinda ere, atzeratzerik erditsi ez zulako.

¹⁸ Ez baitzerate mendi aztagañira urbildu, su bizi, txarañamel, laño ta ekaitz-artean ¹⁹ turutotsa ta itz-min-tzoa entzunik, itzegin zekiela nai ez zuten ayek bezela. ²⁰ Ezin yasan baitzuten geben ura: **Mendia ikutu dukena, abere dala ere, añikatua izan bedi.** ²¹ Mois'ek berak zion: **Izututa nago ta ikarak artuta. ¡Oñen izugañi zan ikuskizun ura!**

18 Sinai mendira, ta an emandako Lege gogoñera.

20 Irt. XIX, 13

21 Deut. IX, 19

²² Zuek, beñiz, Sion'mendira urbildu zerate, Yainko biziaren irira, zeruko Yerusalen'a, aingeru sail zenbakaitzetara, batzañe yaitsura, ²³ zeruetan idatzitako lensemeen elizera, guzien ebazlea dan Yainkoagana, elburura eldutako zintzoen gogoetara, ²⁴ Itun Beñiaren Arartekoa dan Yesu'gana, ta Abel'ena baño obeki darausan odol-iztaldira.

²⁵ Begira, ez zapuztu mintzo zaizuen. Alabaña, luñean zerauskien zapuztu zutenek igespiderik ez ba'zuten, ¿nola guk dukegu, zerutik darauskiguna zapuzten ba'dugu? ²⁶ Ordun luña dar dar yañi zunaren mintzoa, beñiro orain datoñkigu esanaz: **Oraindik bein, luña ez ezen, ortzia ere zotukatuko dut.** ²⁷ Oraindik bein oñek adirazten digu, aldagañiak, ayen aldia igarota, bazteñtubeañak dirala, aldakoñ ez dana gelditzeko. ²⁸ Beraz, aldagañi ez dan yaureñira deituak geran ezkerro, eskeñ ona azaldu ta Yainkoaren moñoitzañ gogo onez, begirunez, ta belduñez ari beañ dugu. ²⁹ Gure Yainkoa su ireskoñ da-ta.

XIII

Aolku berezi batzu

Bego zuenean senide-maitakuntza. ² Añotzenganako txeraz ez aztu; txera oñegatik, etxera oañtzeke añtutako aingeruekin aññkitu baitira. ³ Biluñketan oroi

²³ zeruetan idatzitako lensemeak, luñean bizi diran kristauak dira, Kisto'ren odolez ta siñestez Yainkoaren seme ta zerurako gai egiñak.

²⁶ Ag. II, 6

²⁹ Lege Beñiña, Yesu'ren Elizera, aingerutegira, Yainkoaren irira.

zaitezte, ta gaizki erabilietaz berebat; soña zerok ere duzuten ezkerro.

⁴ Itzalgañi bego ezkontza, ta kutsurik gabe ezkonduen oea. Likits ta ezkontzausleak Yainkoak ebatziko ditu-ta.

⁵ Dirugose ez izan; daukazutenaz naikotuta egonik. **Ez zaitut utziko, ez zaitut zapuztuko,** Berak dioskun ezkerro, ⁶ zabal zabal esan dezakegu:

Yauna nere urgazle; ez naiz belduñ izango.

¿Zer egingo dit gizonek?

⁷ Yainkoaren itza azaldu zizueten auñetikoak gogoratu itzazute; ta nola azkeneraño lana burutu zuten begitan yañirik, ayen siñestea eredutzat añ ezazute.

⁸ Yesu Kisto atzo ta gauñ ta betiko berbera. ⁹ Irakaste aldakoñ ta añotzen yitoan ez ibili. Eskeñez biotza sendotu beañ, ez, ordea, zerabilztenei onik ekañi ez dieten yanarien bidez. ¹⁰ Opamai bat daukagu; ta andik yateko eskubiderik etxolako moñoyek ez dute. ¹¹ Alabañan, ogengatik eskeñitako abereen odola apaizpuruak Gurenañra darama; sañaskia, beñiz, iritik alde eñetzen da.

¹² Oñela Yesu'k ere, bere odolez eñia gurentzeko, iri atetik alde nozitu zun. ¹³ Etzauntzatic gu ere Arengana irten gaitezcan, Aren gerena eramantik. ¹⁴ Ez dugu, ba, emen betiko iririk; gerokoaren bila gabiltza, ordea.

¹⁵ Aldi orotan, beraz, Aren bitartez Yainkoari gorespen-oparia, edo Aren izena aitoñtzen duten ezpañetako

⁵ Deut. XXXI, 6; Yos. 1, 5

⁶ Er. CXVIII, 6

¹⁰ etxolako moñoyak=apaiz lebitañak, eta oparietan erkide datozkionak.

¹³ etzauntzatic=Mois'engandik eta Lege Zañetik Yesu'rengana ta zabaldu digun bidera

arnaria, eskeñi dezayogun. ¹⁶ Elkañi on egiteaz ta lagun etoñtzeaz ere ez aztu; oñelako oparien bidez Yainkoaren edeña irabazten da-ta.

¹⁷ Zuengatik erantzun beañez zuen buru diranak ernai dauden ezkerro, esangin ta etoñkoñ azaldu zakizkiete, pozik oñtan yardun dezaten, ez, osterá, atsekabez; on ez litzaizueke ori-ta.

¹⁸ Otoi egizute gure alde; gure biotza zintzoa dala-koan baikaude, ta orotan ondo ari izan nai dugu. ¹⁹ Ori egiteko batez ere daskaizuet, lenbaitlen zuetara itzuli nadin.

A z k e n a


²⁰ Yesu gure Yauna, Betiko Itunaren odolez Artzai Aundi egiña, ilartetik yaso dun Yainko pakezaleak, beñiz, ²¹ egite on guzirako gai zuen biotzak egin bitza, Aren gogoa bete dezazuten; baita gugan ere atsegin zayona burutu beza menderen mendetan aintza dago-kion Yesu Kisto'ren bidez. Ala biz.

²² Aolkuok, añen, senideok, ontzat añ itzazute; laburki idatzi baitizuet.

²³ Yakizute gure anai Timote yarei dagola. Laster baldin ba'datoñ, arekin yoango naiz zuek ikustera.

²⁴ Zuek buru diranei ta guren guziei agur egiezute. Itali'ko senideek agur dagizute.

²⁵ Bego zuekin Yainkoaren edeña. Ala biz.



YAKOB'EN IDAZKIA

Idazki au ta ufengo besteak (Yon'en 2.^a ta 3.^a kenduta) oroentzako idaztiak oi deritzate; ez baitira, lengoak bezela, inõorentzat berezian, edo eliz batentzat egiñak, edonungo kristaudentzat, edo efi ta eliz askotan bařeyatuentzat baño. Lenbiziko onen egilea, Yakob Alpai'rena, Yesu'ren lengusua, ta Yerusalen'go elizaren lenengo gotzaya da. Ta aren asmoa, kristau bizia ito zezaketer ifiskeri ta egikera trař batzu siñestunengandik oiltzea. Paul deunaren irakaspn batzu okeřturik, eta beñolako griñaei amoř egiñik, kristuatutako yudu askoren artean, Asia Txikian batez ere, lizunkeria, aundinaya, ta irakasmiña zabaltzen baitziyoazan; Kisto'ren siñestea euki ta aitořtu ezkeru, dana zilegi zitzayelakoan, ta egite onik gabe zeru iritsiko zutelakoan.

I

Yakob'ek, Yainkoaren ta Yesu Yaunaren mořoi onek, bařeyatuak diran amabi leñuei, aguř.

Gaitzaldiaz

² Erabat poz zaitezte, nere senideok, edozein lořaldira ezkeru. ³ Zuen siñesmenaren ařagoaldiak egonařia pizten dula baitakizute. ⁴ Egonařia, beřiz, egite onekin betoř, utsik gabe bikain ta osoak izan zaitezten.

⁵ Sena inõorgan uři ba'da, beřiz, Yainkoari beskayo; ta guziei mazalki ta eřuzirik gabe ematekoa damayen Yainkoak emango dio. ⁶ Baña siñestez beskayo ezmezik gabe; ezmezean dabilana, aizeak itxasoan yaso ta dardatutako ugiña bezela da-ta. ⁷ Ez beza alako gizonak uste Yainkoagandik ezer ařtuko dula. ⁸ Gizon gogo-bikoitza, bere bide guzietan zuzika.

1 amabi leñuei = atzeřian bařeyatutako kristau israeldaei.

⁹ Senide apala bere goraldiaz ilaíaindu bedi ¹⁰ aberatsa, beíz, bere beeraldiaz; belar-lorea bezela, pirtxilduko da-ta. ¹¹ Eguzkia gora ezkerro, aren gingan belara igar, ta lorea zimel ta edertasunik gabe geldiltzen dira. Orela aberatsa ere bere arazoetan ikolduko da. ¹² Gaitzaldia ondo daramana jorixe, bai, zori ontsua! Artan zintzo azalduak biziaren buruntza, Yainkoak Bera maite dutenei eskeñi diena, iritsiko du-ta.

¹³ Gaitzaldian ez beza inork esan: Yainkoak gaitzeratuta nago. Izan ere, Yainkoagan gaitzerako makuítzerik ezin izan diteke; Berak, beíz, ez du inor gaitzeratzen. ¹⁴ Norberaren iritsak dira, ordea, kilikaz ta beitzaz gaitzera dakaítenak. ¹⁵ Irítsak, beíz, ernaldu ezkerro, ogena erditzen du; ta ogenak, zolituta gero, eriotza soítzen du.

¹⁶ Ez zaitezte atzipetu, ene senide maiteok. ¹⁷ Adiguri on guziak eta akatsik gabeko emari guziak goitik datozkigu, aldarterik edo itzalunerik ez dun argi-Aitarengandik yetxita. ¹⁸ Berak ala naita, egiaren itzez soítu gaitu, irazakien askiñak izan gakizkion.

Benetako onbideak

¹⁹ Ba-dakizute, ene senide maiteok. Gizaki guziak bitez azkar entzuteko, uzkuí itz egiteko, ta berankor aseíerako; ²⁰ gizonaren aseírea Yainkoaren zuzenbidetik ez dabilalako. ²¹ Beraz, naío ta nabarbenkeri guziak astandurik, zuengan txertatua dagon ta zuek yaregiteko altsua dan itzari mara mara eutsiozute.

¹⁵ naimenaren bayetzez ernaldua.

²² Bañan itz ori entzun ez ezen, burutu ere bea' duzute, zeroi zerok iruzu'rik egiteke. ²³ Itz entzuna burutzen ez dunari gertatzen baitzayo, ispiluan bere aur'pegia begiratzen dunari bezela. ²⁴ Ala begira egon ez-kero, gizon ori ba-diyoa, ta andik besteko ez da oroitzen nola zanik. ²⁵ Baña yareitasunaren lege bikañera eldurik, aren erakaspnak alpe'rik entzunbea'ean, egitez betetzen dirauna, ori, bai, zori ontsua bere arazoetan izango da.

²⁶ Bere biotzari iruzu' egiñik, iñork uste ba'du mingaña ezi gabe zintzoa dala, alakoaren zintzotasuna alpe'ra da. ²⁷ Umezurtz ta alargun gaxoak soroztea, ta mende ontako kutsurik gabe norbera yagotea, orixe da Yainko ta Aitaren begitan zintzotasun yato' ta garbia.

II

Norkeriak eta

Ene senideok, ez ezazute Yesu Kisto gure Yaun goraga'riaren siñestea norkeriekin nasi. ² Alabaña, zuen batza'ean gizon bi sartzen ba'dira; bata, u'rezko eraztunez ta soñeko aratzez; bestea, lande' ta pilda'rez; ³ ta zuek, soñeko araztunari so, «eseri emen zu gogara» esanda, lande'ari «zu geldi or' zutik», edota «eseri or' nere oñaulkipean» ba'diotsazute, ⁴ ¿ez ote duzute zuen artean bereizkeririk ya'rtzen, irizpide oke'rez ebatzirik?

⁵ Entzun, ene senide maiteok. ¿Ez al ditu Yainkoak gizarte ontan lande'ak aukeratu, siñestez aberats egin ditezan, ta Bera maite dutenei eskeñitako yaure'ia ya-

rauntsi dezaten? ⁶ Zuek, beñiz, landeña nardatzen duzute. Ez ote dira aberatsak, beren al izatez zapatu ta auzitara ekañtzen zaituztenak? ⁷ Ez ote dira berak daramazuten Izen bikaña biraokatzen dutenak?

⁸ Idatzita dagon eñege-lege au: **Zure urkoa, zeroñen burua bezain maite ezazu**, betetzen ba'duzute, ondo egiten duzute, noski. ⁹ Baña norkeritan ba'zabiltzate, ogen egiten duzute, legea autsirik. ¹⁰ Lege osoa beteta ere, agindu bat austen duna, guziekiko ogendun egiten da-ta. ¹¹ **Ezkontzarik ez kutsutu** dionak Berak, **lñor ez il** baitio ere. Ezkontzarik kutsutu ez añen, beraz, iñor il ba'duzu, legearen ausle egin zera. ¹² Zuen itz ta egiteak, yarecitasunaren legez ebatzibeañak diranei dagozkienak bitez. ¹³ Izan ere, eñuki ez danarentzat, epaya eñuki gabe; eñukia, beñiz, epayaldian garai.

Siñestea ta egitea

¹⁴ ¿Zertarako, senideok, norberaren siñestea alaratu, egipenik izan gabe? Siñesteak alakoa yaregin ote dezake? ¹⁵ Anai edo añebaren bat lañugoñi ta eguneko ogirik gabe egon ezkeru, ¹⁶ zuetako norbaitek «zoaz nare, berotu ta ase zaitez» esanda, soñarentzat beaña ez ba'lemayo, ¿zertarako ori on litzayoke? ¹⁷ siñestea berebat, egiterik ez ba'du, bere baitan ila da.

¹⁸ Bañan apika norbaitek lesake: «siñestea zuk duzu; egiñak, ordea, nik. Egipenik gabe zure siñestea erakus-

⁸ Leb. XIX, 18

¹⁰ betetako beste aginduak dagokien zitutik uldu egiten ditulako. Zitu ori, betiko saria zeruan, ta Yainkoaren adiskidetasuna bailirake, agindu bat ura autsi ez ba'lu.

¹¹ Irt. XX, 13, 14; Deut. V, 7

kidazu, ta nik nere eginbidetik nere siñestea erakutsiko dizut. ¹⁹ Yainkoa bat dala siñesten duzu; ¿ezta? Ederki. Tuxuriek ere, ikaraz gero, siñesten dute».

²⁰ Baña siñestea egipenik gabe alpeña dala ikusi nai al duzu? ²¹ Gure aita Abraham ez ote zan egipenez zindotu, bere seme Isaak sendor gañean eskeñi zunean? ²² Ba-dakusazu: siñesteak arekin egite ontan ziardun, ta egite onek siñestea osotu zion. ²³ Oréla bete zan Idaztiak diona: **Abraban'ek Yainkoari siñetsi zion, ta zindokuntzarako egotzi zitzayon**, ta Yainkoaren adiskide deitua izan zan. ²⁴ Ba-dakusazute; gizakia egipenez zindo egiten da, ez bakañik siñestez. ²⁵ Berebat Erahab zirilda ura ez ote zan egipenez zindotu, bidaliak atotsi ta beste bide batetik atera zitunean? ²⁶ Izan ere, soña adorerik gabe ila dan bezela, siñestea ere egipenik gabe ila da.

III

Mingaña ezi beañ

Ene senideok, irakasle ez zaitezte askotsu yañi; zoñozkiago ebaztekoak gerala baitakigu; ² askotara guziok uts egiten dugu-ta. Izketan utsik ez dagaña, origizon bikaña da, ta soin osoa ezirik ekañtzeko aña. ³ Zal-

^{20, 26} Itzok eta Paul'enak (Eñ. IV, 2) aitziz aitzikoak dirudite. Auzi berea ez dute, ordea, biek epaitzeko. Paul'en auzia zindokuntzaren lenbiziko asieraz zan; Jakob'ena, beñiz, iritsitako zindokuntzaren azieraz, (Beg. Eñ. III, 24, oar). Paul ortan dago osorik; siñespidera gabe, zindokuntzarik ez, zeruratzerik ez; Legea ta egite guziak, alpeñik. Jakob'ek, beñiz; siñespidera ezkerore ere, egite onak beañak dira; ta egite onik gabe, zeruratzerik ez, siñestea izan añen; alako siñestea ila da-ta.

²³ As. XV. 6

diak azpiratu dakizkigun, aokoa matralartean ezaítzen diegu, ta oírela ayen soin osoa gure oldez darabilgu. ⁴ Ara izontziak ere: oíren aundiak izanaíren, aize-bultzik zakaírenak gora bera, endaitz txiki batek darabiltzi artezkariak bere qldaírez nai dunaruntz. ⁵ Oírela mingaña ere soin-atal txiki bat da, ilárainbide aundikoa, ordea. Ara zein sutatik zein oyan gaírez!

⁶ Izan ere, mingaña su da, gaitz guzien sorta. Mingaña gure atal artean yaíta dago, soin osoa naíiotzen; ta lezeko sutan goíituta, bizitzako baítutia goritzen digu. ⁷ Edozein izakera, basabere ta egaztiena, naíazti ta aáyena, giza-igurdiziak ezten ta ezita eukitzen ba-daki. ⁸ Mingaña, beíriz, gizonik batek ere ezin ezi du. Gaitz urduri ta eden ilgaíriz betea da au. ⁹ Mingañez Yainko ta Aita goresten dugu, ta Aren ereduz egindako gizonak araokatzen ditugu. ¹⁰ Ao berberetik gorespina ta araoa yalkitzen dira. Ez da oírela izan beaí, ene senideok. ¹¹ ¿Ba al dago nunbait zulo berberetik ur geza ta ur gazia darizkion ituíirik? ¹² ¿Oliaranik pikondoak ekaíi ote dezake, ene senideok, edo pikorik matsondoak? Ezta ur gezarik ituíi gaziak ere.

Sen ona, ta ala ez dana

¹³ Nor da zuenean zuí ta ikasia? Egipenetan berakus senaren erabidez zintzo ibilki. ¹⁴ Biotza bekaitzez mintsu ta sakeíe ba'duzute, beíriz, ez zaitezte, egiaren kalte gezuíretara yotzen, iláraindu. ¹⁵ Oírelako yakintza ez da goitik yeisten; luírekoa da, abereena, tuxuriena. ¹⁶ Bekaitz ta sakeíea iñon ezkerro, bertan ezin egona ta

edotariko dolorkeria ere. ¹⁷ Goitik dan yakintza, beñiz, garbia da lenbizi; gero pakezale, erabidetsu, etoñkoñ, eñukiz ta arnari edeñez betea, norkeri ta azalkeririk gabe. ¹⁸ Ta pake ontan ereinda, zuzentasun-zitua paketsuek yasotzen dute.

IV

Iñitsen aurka

Nondik zuenean gudu ta buñukak? ¿Ez ote zeron baitan ñitsek dakañten liskañetik? ² ñitsi bai, ñitsi ez; ilketara yo ta ñnartsitan eñe bai, zerbait erditsi ez; buñukan ta gudan ekin bai, opa duzutena euki ez; oña zuen nekea, eskatu egiten ez zutelako, ³ Eskatu ezkerore, ez duzute ezer añtzen, gaizki eskatzen duzutelako, atseginkerietan eralgitzeañen.

⁴ ¿Ez al dakizute, zantañok, luñ onekiko adiskidetasuna Yainkoaren etsai dala? ta, beraz, emengoen adiskidea Yainkoaren etsai yañtzen dala? ⁵ ¿Uste al duzute Idaztiak alpeñik diola: «tukuz dago gugan yañi dun Gogoa ñirkan?» ⁶ Aundiagoa da, beñiz, Aren adeya, dionean:

**Yainkoa añoei gogoñ,
apalei, beñiz, adeibera zaye.**

⁷ Yainkoari, beraz, menderatu zakizkiote; txereni, ostera, gogoñ egiozute, ta iges doake zuengandik. ⁸ Yainkoagana alderatu zaitezte, ta alderatuko zaizue. Zuek, ogendunak, ikuzi eskuok; ta zuek, gogo bikoak, garbi

⁵ Maitatzale tukutsua bezela, dago gugan Goteuna, gure biotzaren yabe bakaña izateko ñirkan.

⁶ Itz. III, 4

biotzok. ⁹ Samiñez, erostaz ta negaíez ekin: zuen paíea negaí biurí bedi, ta poza atsekabe. ¹⁰ Apal zaitezte Yainkoaren auíean, ta Berak goratuko zaituz.

¹¹ Ez batak besteaz gaizki esan, senideok. Senideaz gaizki esaten edo senidea ebazten dunak, legeaz gaizki esaten ta legea ebazten du. Legea ebazten ba'duzu, beíriz, legearen betetzale ez zera, ebazle baño. ¹² Bakaía da lege-emale ta ebazlea, edozein galdu ta yaregin dezakena. Zu, ostera, geidea ebazten duzun ori nor zera?

Zein gutxirako geran

¹³ Ara, zuek, beaí ba'da, diozute: «gauí edo bi-alako irira yoango gera; urte bat an egongo gera garaz, ketan, ta irabazi egingo dugu». ¹⁴ Ez dakizute, ordea, biarkoaz ezer ere. Zer da ezperen zuen bizia? Apurí bateko agiri ta bereala suntsibeaía dan luíña. ¹⁵ «Yaunak nai ba'du, edo bizi izatekotan, au edo ori egingo dugu» esanbeaíean, ¹⁶ antustez ilaíaintzen zerate. Oíelako ilaíaintzea txaía da. ¹⁷ Ondo egiten yakinda, ondo egiten ez dunak ogen egiten du-ta.

V

Aberats gogoíak

Ots, ba; aberatsok, gaíaixika negaí egizute datozki-zuen gaitzengatik. ² Zuen ondasunak usteldu egin dira: sitsak yota daude zuen yazkiak. ³ Zuen uré-zilaíak erdoitu dira, ta ayen erdoyak zuen kaltetan aitoí egingo du, ta, suak bezela, zeron aragia yango du. Azken

egunetarako aserea moltzotu duzute zerontzat. ⁴ Ara, soroak itaitu dizkizuetenei eman ez diezuten saria oyuka dago, ta ayen oyua sabaot-Yaunaren belarrietara eldu da. ⁵ Luéan legun ta gozoro bizi izan zerate; saraski-egunerako zuen biotzak guritu dituzute. ⁶ Zuzena gaiztetsi ta il duzute, ta ez dizue gogor egin.

Aurki dago Ebazlea

⁷ Beraz, senideok, itxoin egonaiz Yaunaren etoera arte. Begira; soro-zitu edearen zai lugiña egonaiz egoten da, goiz-berantekoak bildu arte. ⁸ Itxoin zuek ere, biotzak azkartuz; Yaunaren etoaldia aurki dago-ta. ⁹ Ez ibili, senideok, elkaeren minkurti, ebatziak izan ez zaitzten. Begira; Ebazlea atarean dago. ¹⁰ Yaunaren izenean mintzo izan diran igarleak euzkazute, senideok, neke ta egonaiaeren eredutzat. ¹¹ Ara, yasan zutenak zori onekotzat aipatzen ditugu. Yob'en egonaia entzun ba-duzute, ta Yaunak eman zion ondorena ba-dakusazute; biotzbera ta erukitsua Yauna da-ta.

¹² Baitik bat, senideok, zirik ez egin, ez ortziagatik, ez luagatik, ezta beste ezergatik ere. «Bai, bai; ez, ez;» izan bedi zuen esakera, ebazkizunik ez dezazuten.

¹³ ¿Atsekabe al da zuetako norbait? Otoi begi. ¿Pozik al dago? Abestu beza. ¹⁴ Zuetako norbait gaxorik al dago? Elizaren apaizak deitu bitza, ta auek aren alde otoi begite, Yaunaren izenean olio z bera igurzten. ¹⁵ Orela, sineste-otoyak gaxoa sendatu ta Yaunak erai-kiko du; ta ogen egin ba'du, asketsiko zayo. ¹⁶ Zuen

^{14, 15} Emen dugu Azken-Igurzketa, eske-ituritzat aldarikatuta,

ogenak, beraz, elkañi aitoñtu egizkiozute, ta elkañen alde otoi egizute, yareikuntza iristeko; indaí aundia du, ba, zintzoaren otoi azkutsuak. ¹⁷ Eli, gure ariko gizona zan; ala ere, euririk luígañera ez yeisteko añenez eskatu zun, ta euririk ez zan iru urte ta sei ilabetez yetxi. ¹⁸ Ta beñiro otoi egiñez, ortziak euria eman ta luíak zitua ekañi zun.

¹⁹ Ene senideok, zuenean iñor egitik sayestutakoan, norbaitek itzulerazten ba'du, ²⁰ yakin beza bide okere-tik zuzenera ogenduna daratoñenak aren gogoa gaizkatu dula ta ogen-moltzo aundia estali dula.



KEPA' REN IDAZKIETAKO LENA

Idazki onen tredea bikoitza da: a) kristau ayen kemena azkartu, lo'aldi ta yaza'ietan siñesbidetik sayestu ez zitezán; b) garbiago ta zintzokiago bizitzeko aolkatu, kristau-izena siñesgabekoei deduzago ager zekien. Asmo biok iristeko, be'riz, Kepa Deuna idazki osoan zeaf Yesu Kisto'ren eredu ta Aren yaraileentzat gerturik dauden sari ede'ak gogora dakazkie, Yainkoari zo' dioten adiguririk aundiena, Paul'ek ayei alda'ikatutako Be'ri Ona, dala erakutsirik.

I

Kepa'k, Yesu Kisto'ren bidali onek,
atze'riko Ponto'n, Galati'n, Kapadoki'n, Asia'n ta
Bitini'n ba'eyatu,

² ta Gogo-gurenketaz Yesu Kisto'ren siñestera ta
odol-garastara Yainko Aitaren betiko yakitez autuak
zeratenoi,

eske' ta pakea.

Yesu Kisto'ri zo' diogun osasuna

³ Onets bedi Yesu Kisto'ren Yainko ta Aita, bere
e'ruki aundia dala-ta, Yesu Kisto'ren ilartetiko be'ripitez
be'riro so'rtu gaitulako itxaropen bizira, ⁴ ta iro, erdoi ta
itsik gabe zuentzat zeruan berezita dagon yarauntsira.
⁵ Zuentzat, bai; azken aldietan agertzeko dan osasuna
siñestearen bidez iristeko, Yainkoaren inda'ak yagon-
durik zaudetentzat. ⁶ Uste ontan poztu zaitezte, orain-
dik neke batzuetan apu' bateko atsekabe izanbea'ak

ba'ziñate ere. ⁷ Ayetan zuen siñesmena araztuko da, ta sutan araztutako uré suntsikoía baño bikain bikañago azalduko da Yesu Kisto'ren agertaldian, zuen ospe, dedu ta goragañitzat. ⁸ Bera zuek, ikusi ez duzutela ere, maite duzute, ta orain bertan, Bera ikusi baño len, Aren siñestez pozik eta ilaíraindurik yauzten ba-zerate, ⁹ zuen siñespenaren txedea dan gogo-osasuna erditsirik.

¹⁰ Osasun au zan zuei egindako adeyaz yardun duten igarleek gogoan erabili ta azteíi zutena, ¹¹ ikeítezearen noizko ta zein garaitako ote zanik Kisto'ren atsak beren baitan ziona, Kisto'ren neketaz ta neke ondoko ospez auírenetik aitor' zegienean. ¹² Ta erakutsi zitzayen, ez berentzat, zuentzat baño iragañtzen zutela Beíi Onaren aldaíkariek zerutik bidalitako Goteunez ezagunerazi dizuetena ta aingeruek leyaz begira nai dutena.

Dagokizun gurentasuna

¹³ Beraz, gogoa gerikatuz ta bizia eratuz, zuen uste osoa atxikirik begokio Yesu Kisto'ren agertaldian dato'kizuen ongiari, ¹⁴ seme esangiñei dagokienez, lengo ilunaldiko íritsei yaíraitzeke; ¹⁵ ostera ere, dei egin dizuena gurena dan ezkerro, zuek ere orotan gurentsu azaldurik, ¹⁶ Idatzita baitago: **Guren izan zaitezte, Ni guren naiz ta.** ¹⁷ Berebat, bakoitza aren egiñen arauz norkeririk gabe ebazten duna Aitatzat aitoítzen ba'duzute, atzeíaldi ontan belduéz bizi zaitezte. ¹⁸ Ya-

¹² iragañtzen zutena, ayen egunetan burutzekoa ez zan, gure egunetan baño.

¹³ eskeí edo emari au zeruko zori ona da,

¹⁶ Leb. XI, 4

kinda baitzaudete, ez zeratela asabaengandik aítutako ekandu alpeíretatik úrez naiz zilaréz yaregiñak, ¹⁹ Kisto'ren odol bikañez baño. Auxe da, ba, bildots garbi ta kutsugabea, ²⁰ ludia ludi baño len ezaguna, ta azken aldiotan zuengatik ageri egiña. ²¹ Aren bidez zuek, ilartetik piztu ta goratu dun Yainkoaren siñestea duzute, zuen siñesmena ta itxaromena Yainkoarengan daudela.

²² Beraz, egiaren mendera etoírrik, senide-maitasun ziñerako zuen biotzak garbitu dituzuten ezkerro, biotz garbiz elkar maite ezazute mamiki. ²³ Ez baitzerate azi ustelgaítik birsoítuak, ezin usteldu danetik baño, Yainko bizi ta betikoaren itzez. ²⁴ Alegia,

Aragi oro belar antzekoa da,

ta aren ospe osoa, belar-lorea bezela.

Belara igartzen da, lorea yalkitzen;

²⁵ Yaunaren itza, beriz, betidañokoan dago.

Ta orixe da zuei aldarikatutako itza.

II

Giltzaria

Beraz, gaiztakeri ta iruzur guziak eta edozein alegigikeri, bekaitz ta mardail erauzirik, ² gogo-esne utsa, aurtxo yayoberiek bezela, bilazute, aren bidez osasunerako azi zaitezten; ³ murtxatuta baitakizute Yauna ona dala. ⁴ Arengana alderatu zaitezte. Bera da ari bizia, gizonek ezetsia, Yainkoak, ostera, autu ta

^{24, 25} Is. XL, 6,7

edeřetsia. ⁵ Aren gañean zerok ere, aři biziak bezela, pilatu zaitezte, gogozko etxe ta apaizkunde guren izateko, ta Yesu Kisto'ren edeřagatik Yainkoak onařtuko ditun gogozko opariak eskeintzeko. ⁶ Argatik Idatzia-ak dio:

**Ořa giltzaři autu ta bikaña,
Sion'en Nik yařita:
artan siñestea eukirik,
iñor ez da alketuko.**

⁷ Zuentzat, beraz, siñetsi duzutenontzat, dedua; siñesgabeentzat, ordea,

**Eraikileek ezetsitako ařia bera
giltzaři yaři da, zoztoř-aři, tupustaři.**

⁸ Artan auek tupust egin beař dute, itza ez siñetsirik; ori da ayen elburua. ⁹ Zuek, beřiz, enda autua zerate, eřege aņeko apaizkundera, nare gurena, eři irabazia, iluntatik bere argi zoragařira deitu zaituzanaren bikaintasuna aldařikatu dezazuten. ¹⁰ Beñola eři ez ziñatenok, orain eřukia iritsi duzute.

¹¹ Ene maiteok, ara nere aolkua. Ařotz ta bidazti zabilzatela-ta, gogoaren kalte gudan ari diran aragi-iřitsetatik aldendu zaitezte, ¹² atzeři ořtan zintzo bizi

⁵ Kristau guziak nolarebait apaiz dira; Kisto'ri baturik, Aren adorez Yainkoari eskeintzen dizkioten egite ta gura on guziak, Yainkoaren begitan opari edeřak baitira; gogozkoak, ordea, ta egizko opariaren antza bakařik dutenak. Benetako oparia Itun Beřian bakařa da; Kisto Yauna; gurutzean odola ixuririk ila, ta Mezatan alegiko eriotzaz, baña benetako soñez ta odolez, Yainkoari eskeintzen zayona. Opari au Mezatan eskeintzeko Kisto'ren ordekoak, Aren izenean ta Aren agintez ořtarako yasoak bakařik, dira benetako apaizak.

⁶ Is. XXVIII, 16

⁷ Er. CXVII, 22

izanik; gaiztagintzat bezten zaituztenek, zuen egite onak ikusita, ikustaldi-egunean Yainkoa goretsi dezaten.

Agintariekiko agara

¹³ Beraz, Yainkoaren ede'ragatik gizaki guziri men egiozute; naiz e'regeri, nagusi dala-ta, ¹⁴ naiz gaiztagiñak ataratzeko ta onak goratzeko berak ya'ri ditun esku-dunei ere. ¹⁵ Auxe da, ba, Yainkoaren naya; zuek ondo egitez, buru kazka'ren yakiñeza isileraztea, ¹⁶ yarei azaldurik; yareitasuna, be'riz, gaiztakeria estaltzeko erabil-tzeke, Yainkoaren mo'roitizat agertzeko baizik.

¹⁷ Guziei lotsa erakuskiezute; senideak maite itzazute; e'regerentzat begirunea eukazute.

¹⁸ Yopu zeratenok nagusiei al dan beldu'rez menderatuta bizi zaitezte, on ta eto'ko'rei ez ezen, zaka'rei ere. ¹⁹ Au baituzu ede'; Yainkoaren ede'ragatik lo'raldiak eramatea, bidegabekoak diranean. ²⁰ Ogen eginda, be'riz, zartadak yasateaz nola ila'rainduko ziñakete? Ondo eginda, egona'riz yasaten ba'duzute, ori, bai, Yainkoari atsegin zayo.

²¹ O'rtarako deituak zerate. Kisto'k ere zuengatik miña yasan du, bere aztarnatik ya'raitzeko eredia zuei utzirik. ²² **Ogenik ez du egin; gezu'rik ez da Aren aoan idoro.** ²³ Biraorik ez die biraolariei itzuli; ezta zemarik ere zeatzen zutenei, zuzenki ebazten dunari bere burua utzirik. ²⁴ Berak bere soñean tantai gañera gure ogenak eraman ditu, ogenarentzat il ta zindotasunarentzat bizi gaitezcan; ta Aren zauriz sendatuak zerate.

²⁵ Ardi galduak bezela baitziñaten; bañan orain zuen gogoen Artzai ta Yagolearengana itzuli zerate.

III

Senar-emazteak

Zaudete, emazteak ere, senařen mendean; itzarekiko siñesgabe senar batzu ba'dira, emazteen yardunbidez itzik gabe irabazi ditezan, ² zuen yarduera garbi ta eratsua ikusirik. ³ Zuen apainkera ez bedi ile kizkuřez, uřezko pitxiz ta yazki edeřez azalekoa izan; ⁴ biotz barneko giza-ayurı biguin ta otzanetik dariona baizik. Ori du Yainkoak begibetegaři. ⁵ Beñolako andre guren ayek ere ořela apaintzen ziran, senařen mendean Yainkoaren zai zeudela. ⁶ Ořela Sara'k Abrahan'i men egiten zion, **yaun** izena emanik. Ta Sara'ren alaba egiñak zerate zuek, ezeren beldurik gabe zintzo ibilki.

⁷ Berebat zuek, senarok, zuen emazteenganako urguritsu azaldu zaitezte, aultxoagoak baitira; ta begirunea erakuskiezute, bizitzaren adiguria zuekin yarauntsi beař dutenei dagokienez. Ořela ezerk ez dizue otoyera eragotziko.

Guziekiko yardunbidea

⁸ Guziok azkenez gogaide, eřukitsu, senidekoi, biotz bera ta apalekoak izan zaitezte, ⁹ gaitza gaitzez ta biraoa biraoz ordaintzeke, oneskuntzaz baño: oneskuntza yarausteko deituak zerate-ta. ¹⁰ Alegia,

10-12 Er. XXXIV, 12-16

bizia maite ta egun onak ikusi nai ditunak,
 mingaña gaitzetik zaitu beza
 ta gezurik ezpañetan ez berabil;
¹¹ gaitzetik aldendu ta ona egiten ari bedi;
 pake bila bebil, ta berari be'ayo.
¹² Yaunaren begiak zintzoengana atza'ri,
 ta Aren belar'iak ayen a'renetara zurt baitaude;
 Yaunaren bekozkoa, be'iz, gaizkileen aurka dago.

Nekea yasateko

¹³ Nork kalte egingo dizue, on danaren ayola ba'ze-
 rate? ¹⁴ Kaltetan ere, ¡zuen zori ona, zuzenagatik yasa-
 tekoa ba'da! Ez beldu' izan, ez kezkatu; ¹⁵ Kisto
 Yauna zuen biotzetan gurenetsazute, ordea, beti zurt
 egonik zuen itxaromenaz galdekariei erantzuteko. ¹⁶ Era-
 bidez gero, lotsaz, ta ba'rne zindoz; Kisto'renganako
 zuen yarduera bezten dutenak, zuen lepotik darasatenaz
 alke izan ditezan. ¹⁷ Izan ere, obe da, Yainkoak nai
 ba'du, ondo egitez zerbait yasatea, gaizki egitez ba'ño.

¹⁸ Gure ogenak dirala-ta, gizatxa'ongatik Kisto zin-
 tzoa bein il baitzan Yainkoari gu eskeintzeko. Aragi
 aldetik eriotza au zan; Aren gogoak, be'iz, pizko' ziraun;
¹⁹ ta ala, baitegian zeuden gogoetara yetxi zan,
 Be'ri Ona aldar'ikatzen ²⁰ be'ñola si'nesgogo' izanei, Noe'
 ren egunetan Yainkoaren egona'ria zai zegokienean,
 zortzi lagun baka'rik ugolde'rik onez atera zitun kutxa

¹⁹ ta ala = Kisto'ren gogo edo arima bizia, so'netik bakanduta. Bai-
 tegi au linboa, edo Abraham'en kolkoa zan.

²⁰ si'nesgogo' izanei, ba'ña gero ugoldean itobea'rez zeudela, garbai
 izanda, Yainkoaren e'rukia iritsi zutenei.

antolatzen zari bitartean. ²¹ Orain ere, kutxa aren ereduak dan ukuzpenak gaizkatzen zaituz, ez aragi-orbanak garbiturik, Yesu Kisto'ren berpiztez zuen biotzak Yainkoarengana biuririk baño. ²² Eriotza irentsi ezkerro, Yainkoaren eskuin Yesu Kisto baitago, betiko bizia erditsi dezagun, aingeru, agintari ta indaritsuak azpiratu ondoren igota.

IV

Yainkoarentzat bizia erabili bear

Beraz, Kisto oñazez izan dan ezkerro, zuek ere burupide au iskilutzat ar ezazute; aragi-oñazez izanak ogena zapuztu du, ² geroenean ez giza-iritsen oldez, Yainkoarenez baizik, gañerako aragi-bizitza erabiltzeko. ³ Naikoa da, ba, noizpait atzerien oldez eralgitako astia, likiskerian, iriskerietan, ardotan, oritsetan ta yaureskeri naskarietan bizi izaten zinatenean. ⁴ Arituta daude orain ayek eta biraoka, orelako ziribofo zantarean nasten ez zeratelako. ⁵ Baña bizi ta ilak ebazteko gerturik dagonari erantzun beariko diote. ⁶ Artarako Beñi Ona ilei ere emana izan baitzaye, aragi aldetik gizauñean gaiztetsita ere, gogo aldetik Yainkoaren auñean bizi izan ditezan.

⁷ Guzien amaya, beriz, urbil dago. Zaudete zurt, beraz, ta otoiketari ernai. ⁸ Batez ere elkar maite ezazute beti; maitasunak ogen asko estaltzen ditu-ta. ⁹ Marmar gabe elkar atotsazute. ¹⁰ Bakoitzak artu dun antzia, besteen onerako berabil, Yainkoaren askotariko antzien yaurleari dagokionez. ¹¹ Norbait mintzo ba'da,

Yainkoak emandako indárez burutu beza, edozertan Yauna goretsi dedin Yesu Kisto'ren bidez. Arena da ospe ta al izatea menderen mendetan. Ala biz.

Yazaralditik datozkigun zitu ederak

¹² Ez aritu, maiteok, zuen azterketarako or piztu dan suaz, bakaneko zerbait gertatzen zaizuelakoan. ¹³ Aitzitik ere, Kisto'ren nekaide izanaz poz zaitezte, Aren ospea ageriko danean ere, arai ta pozik egoteko. ¹⁴ ¡Zuen zori ona, Kisto'ren izenagatik irainduak ba' zerate! Gogo ospagarria, Yainkoaren Gogo, zuenean bizi da-ta. ¹⁵ Ez bego zuenean gizerailatzat, lapurtzat, mardalaritzat edo salatitzat yasan bear' dunik. ¹⁶ Kista'rtzat yasateaz, beriz, ez bedi inor alke izan; ostera ere, Yainkoa goretsi beza or'elako izenagatik. ¹⁷ Yainkoaren etxetik ebazkuntza asteko garaya da-ta. Gugandik asi ezkerro, beriz, ¿zein izango da Yainkoaren Be'ri Ona siñetsi ez dutenen azaga? ¹⁸ Ta zintzoa nekez gaizkatuko ba'da, ¿non aurkeztuko da deunge ta ogenlaria? ¹⁹ Beraz, Yainkoaren gogara yasaten dutenek, egite onez Berari, Irazale kirmenari bezela, beren buruak egotzi bezazkiote.

V

Azken aolkuak

Ora zuetako za'rentzat, za'ra ere ta Yesu Kisto'ren nekez aito'rlari ta agertzeko dan ospean erkide naizan onen aolkua: ² zaipean daukazuten Yainkoaren

artaldea laiatu ezazute, gogotik Yainkoaren sorotzirik, ez nakaiki, ezta mozkin itsusiaen ere, utsean baizik; ³ yabemiñez menpekoak erabili gabe, artaldearen eredu azalduz baño. ⁴ Ta artzayen Nagusia aurkeztuko danean, zimeldu ezin dan ospe-buruntza iritsiko duzute.

⁵ Gazteok, beñiz, zaiei men egiezute; ta guziok elkarrenganako apaltasunez yantzi zaitezte; Yainkoak arotsuei gogor egin ta apalei adeya erakutsi die-ta. ⁶ Apal zaitezte, beraz, Yainkoaren esku altsupean, garaiz gora zaitzazan. ⁷ Zeron ardura osoa Berari utzi-ozute, zuen ardura Berak du-ta. ⁸ Zaudete gartzu ta zurt; leoya oruz bezela, txeren, zuen etsaya, baranoan baitabil nor irentsiko zai. ⁹ Siñestez gogor egiozute, luean dituzuten senide guziak neke beretan daudela yakiñik.

¹⁰ Yesu Kisto'ren bidez bere ospera dei egin dizuen Yainkoak, opari guzien Emaleak, beñiz, apurtxo bat zuek yasandakoan, osotu, sendotu ta gotortuko zaituz. ¹¹ Berari ospe ta agintea menderen mendetan. Ala biz.

¹² Anai zintzo deritzadan Silban'en bidez laburki idatzi dizuet, zatzizkioten bidea Yainkoaren adeibide ziña dala zuei erakutsi ta aitortzeko.

¹³ Babiloni'ko auteskideak eta Mark'ek agur da-giezute.

¹⁴ Zuek muin laztanez elkari agur egiozute.

Pakea bego Kisto'rengan zaudeten guziokin.

¹³ Babiloni'ko auteskidea = Erroma'ko Eliza, zuek bezela Yainkoak autetsia, Mark au bigaren Ebaingeriaren idazlea da.

KEPA' REN IDAZKIETAKO BIGARĒNA

Idazki ontan Kepa'k bere eriotza laster zala goi-argiz yakiñik, Asia Txiki'ko elizetan siñestea irozo ta ondo erótuta utzi, ango irakasle iruzur'tien gezur'ak eragotzi, ta Yesu eto'rtzekoaren ustez siñestun ayen adorea pizko'rtu nai du.

I

Simon Kepa'k, Yesu Kisto'ren mo'roi ta bidaliak, gure Yainkoaren ta Yesu Kisto Yaregilearen zuzen-bidearekiko siñeste bikaña, guk bezela, iritsi dutenei,
² Yainkoaren ta Yesu gure Yaunaren ezagueraz esker ta pakea zuenean areagotu bitez.

Yainkoari zor' diogun esker ona

³ Yainkoaren inda'etik bizitza zintzorako on guzia baitzaigu, bere ospez ta al izatez deitu gaitunaren ezagueran, emana; ⁴ ta gizarteko irits' usteletatik aldenduta, Yainko-izatearen erkide egin gaitez, agintza eder' ta bikañak bertatik emanak zazkigun ezker, ⁵ zuek ere ordaintzat, egiñala egiñez, siñestearekin zintzotasuna batu bear' duzute, zintzotasunarekin ezaguera, ⁶ ezaguerarekin elikua, elikuarekin egona'ria, egona'riarekin yainkozaletasuna, ⁷ yainkozaletasunarekin senidekoitasuna, ta senidekoitasunarekin maitakuntza. ⁸ Eder'ga'ri guziok

zuengan eruz egotekotan, ez zaituzte Yesu Kisto gure Yaunaren ezaguerarako alper ta elkorik utziko. ⁹ Auek gabe dana, beriz, itsu dabil ta aztaka, lengo ogenen garbikuntzaz aztuta. ¹⁰ Egiñalak egin, beraz, senideok, deitu ta autuak zeraten elburua ongi egitez abatzeko; orela ibilki, ez baitzerate inoiz ere eroriko, ¹¹ ta Yesu Kisto gure Yaun ta Yaregilearen erirako sarbidea zabal zabalduko zaizue. ¹² Argatik, ari dugun egiaz argituak eta bertan sendotuak ba'zerate ere, auek beti zuei gogoratzen izango nauzute. ¹³ Txabola ontan nagoño, adorea aolkuz piztu bear dizuedala baiteritzat. ¹⁴ Yesu Kisto gure Yaunak adirazita, baitakit aurki dala nere txabola-
ren erauzketa. ¹⁵ Alegingo dut, oratiño, auetaz zuek, ni ilda gero ere, maiz oroi al zaitezten.

¹⁶ Izan ere, ez dugu antze-ipuitik atera Yesu Kisto gure Yaunaren indar ta etoreraz ezagunerazi dizueguna; gerok geron begiz Aren aunditasuna ikusi dugu-ta. ¹⁷ Alabaña, Yainko Aitak dedu ta goraldia egin zizkionean, ta argi dirdiratsutik alako mintzoa: **Au da atsegin zaidan nere Seme kutuna,** Arengana sortu zanean, ¹⁸ mintzo au gerok ere entzun genun, mendi gurenean Arekin geundela. ¹⁹ Orela guretzat sendoagotu da igarleen itza; ta zuei ere on zaizue itz ori, iluntan piztutako zuziari bezela, adi egotea, eguna argitu ta artizarra zuen biotzetan agiri arte. ²⁰ Lenik yakin bear duzute, ordea, Idaztietako igarpenik bat ere ez dala norberaren aburuz egiten. ²¹ Inoiz ere ez da, ba, igarpenik bat ere giza naikuntzatik sortu; Goteunaren eragitez mintzo izan baitira, Yainkoaren gizon gurenak.

II

Irakasle iruzurriak

Sasi-igarle batzu erian izan dira, ordea; ta berebat zuenean sasi-irakasle batzu izango dira, taigo txarrik sortzen, ta beherosi ditun Yauna izpitzatzen, beren ausiabartza laster idorotzeko. ² Berein ere zantarkerietan dariaizkieke, ta ayengatik egiaren bidea birao-gari izango da. ³ Ta ele xuriz irabazi ederak aterako dizkizute dirugosea austeko. Aspaldi ezkerro ayen ondolik nagi ez dabil porokaldia, ta lorik ez du ayen ausiabartzak egiten.

⁴ Alabaña, Yainkoak, aingeru ogendunak asketsi bearean, ilunbeko obietara lezeratu zitun ebaztaldirako gordeak eukitzeko. ⁵ Berebat ez zun antziñeko gizadia asketsi; baña, gizadi oker ura ugoldez itorik, Noe, zuzenbidearen aldarikaria, beste zazpirekin gaizkatu zun. ⁶ Ta, geroko gaiztoen galengaritzat, Sodoma ta Gomoir iriak ilaundu ta porokatu zitun; ⁷ baña Lot zuzena, biuri ayen zantarkeriz atsekabetua, yarei atera zun. ⁸ Bere eritaren artean bizi zala-ta, zuzen aren biotz zintzoa egun oro erdiratzen baitzan, ayen egite txarrik ikusi ta entzunik. ⁹ Orela ba-daki Yaunak gaitzalditik zintzoak ateratzen, okerak, beriz, ebaztegunerako onazegai uzten, ¹⁰ batez ere aragi ondolik grina satsuz dabil-tzanak eta agintearekiko nardatzaleak. Lotsagabe ta beren ustekoi oriek ez dira goratsuen aurka birao egiteko

ikaratzen, ¹¹ aingeruek berek, indaíez ta al izatez aundia-goak izanaíen, birao-itzik alakoentzat Yainkoaren auíean ez ba'dute ere. ¹² Oíako oriek, beíiz, lokaíi ta usteltzerako yayo diran abere adingabeak bezela, ez dakitena biraokatuz, beren zantaíkeriz ustelduko dira, ¹³ gaiztakeri-saria yasorik.

Zoriona ayentzat eguneko legunkeria da; sats ta geren dira-ta, iruzuíez okiturik, sabela zuekin aítzen dute. ¹⁴ Begiak ezkontza -azpikeriz ta ogenez ezin aseak dakazte; buru ariñak limuítzen ditute; biotza dute mikuinkerian azita; biraogaíi dira. ¹⁵ Bide zuzena utzi ta galdurik, Balaan'en bidea aítu dute. Bosor'en seme ark, beíiz, okeí-saria iritsi naita, ¹⁶ bere okeía ezagun beaí izan zun. Zamari mintzul batek igaíleari giza-mintzoz itz egin ta asmakeri ura eragotzi zion.

¹⁷ Ur gabeko ituíi, ta ekaitzak eragindako odei dira oriek; eta ayentzat dago leze iluna. ¹⁸ Ots aundiko ele aíoetara yota, iruzuítan murgildurik zeudenen arte-tik etoíibeíiak zantaíkeri-peitaz aragi íítsen ondolik baitakazte. ¹⁹ Askatasuna eskeintzen diete, berak yopu dirala; bestek menderatua aren yopu da-ta. ²⁰ Oí, ba, Yesu Kisto Yaun ta Yaregílearen ezagueraz gizarteko kutsutik aldendu ondoren, bertara iñor itzuli ta menderatzen ba'zayo, oíelakoaren gerokoa lengoa baño txára-goá daiteke. ²¹ Obe lukete oíelakoek zuzenbidea len ez yakitea, yakin ondoren, emana izan zitzayen agindu gurenetik gibelatzea baño. ²² Baña supita ziñarena ger-

15, 16 Zenb. XXII, 21-34.

tatzen zaye: Txakurak oka, ta ara milizka; ta: Txerri ikuzia, lokatzetara beriz.

III

Yaunaren etoíeraz

Au da, ene maiteok, dagizuedan bigaíren idazkia, bietako aolkuz zuen biotz zintzoa iratzaírik, ² igaíle gurenen auíresanak, eta bidalien bidez Yaregile Yaunak eman dizuen agindua gomutaratzeko.

³ Orizute auírenik; azken egunetan ao-zuri batzu, beren íítsen oldez bizi dirala, iruzuíketan etoíriko dira, ⁴ esanez: «¿non dago Aren etoíeraz egindako agintza? Asabak ilda gero, luía luí danetik bezela, dana dago-ta». ⁵ Berek ala naita, ez baitakite ortzia aspalditik or dago-la, ta baita luía ere, Yainkoaren itzak uretatik soítu ta ur erdian yaía, ⁶ ta ala izanik, orduko luíbira urez estalita galdu zala. ⁷ Orain, beriz, ortzi-luák itz berberak zaituta daude gaiztoen epai ta itseseguneko sutan éretzeko. ⁸ Ez au aztu gero, ene maiteok; **egun bat Yaunarentzat amaíeun urte bezela da, ta amaíeun urte, egun bat bezela.** ⁹ Ez du Yaunak bere agintza gibelatzen, batzuk uste dutenez; ez du, ba, nai iñor galtzea, guziak garbaira etoítzea baño. ¹⁰ Lapuía bezela, datoíke oíatiño Yaunaren eguna. Ordun ortzia kaíaskan koíokoildu, lugayak beroaíren urtu, ta luíbira ta bertako guziak éreko dira.

¹¹ Guzi oriek aitu beaí ezkerro, beriz, ¿zein azkuz oitura gurenetan ta egite zintzoetan yardun beaí duzute,


¹² Yaunaren eguna erpai itxoiten, egun artan ortzia gañez urtu, ta luñbira bertako guziekin sutan éreko dirata! ¹³ Gu, beñiz, Yaunaren agintzari eutsita, zuzentasunaren egoitza izango diran ortzi beñi baten ta luñ beñi baten zai gaude.

¹⁴ Uste ontan, ene senideok, ayolaz ibili, Aren begitan garbi ta akatsik gabe pakez auñkezteko. ¹⁵ Ta gure Yaunaren egonaña zeron osabiderako ar ezazute. Ori da ere Paul'ek, gure anai maiteak, emana zayon yakitez idatzi dizuena, ¹⁶ ta bere idazki guzietan irakatsi oi duna. Ba-dira oñatiño ayetan une ulérgaitz batzu; ta argi ta sen uridunek, beste idatziak bezela, beren kalte-tara makuñtzen ditute.

A z k e n a

¹⁷ Zuek, beñiz, ene maiteok, auñenik oañtuta zaudenten ezkerok, ayolaz ibili, zuen asmo sendotik zitalen iruzuñez ez erortzeko. ¹⁸ Ostera ere, Yesu Kisto gure Yaun ta Yaregilearen edeñez ta ezagueraz areagotu zaitezte.

Berari goraldia orain ta betiko egunean. Ala biz.



YON'EN IDAZKIETAKO LENA

Yon'ek idatzitako Beñi Onaren itzauratzat egiña dirudi idazki onek. Yesu'ren edesti artan erakutsitako egi nagusiak emen ditugu bein ta beñiz aspertzeke esanak, biotzeratu ditezan: Yainkoa argi dala, Aita dala, maitasuna dala; Yesu, Yainkoaren Seme yatoña dala, benetako Yainko ta benetako gizona. Aginduak, berebat, an ta emen berberak; senide-maitasuna, ta gizakeritik igesi beña. Asmoa ere berbera: Aitarekin ta Aren Seme Yesu Kisto'rekin erkidetzara gu yasotzea.

I

Sañera

Asieratik ba-zan Biziaren Itzaz entzun duguna, geron begiz ikusi, oañez begira, ta geron eskuz aztatu duguna dakañgu. ² Izan ere, Bizia azaldu da, ta ikusi dugu; ta Aitarengan izanda azaldu zaigun betiko Bizi onen aitoñtzale ta aldañikari gatozkizue, ³ ikasi ta entzun duguna iragañtzen, erkide zakizkiguten, ta gure erkidetzara Aitarekin ta Aren Seme Yesu Kisto'rekin dedin. ⁴ Ta bete betean poz zaitezten, idazten dizuet au.

Argitan bizi beñ

⁵ Au da, beñiz, Berari entzunda dakañkizuegun Beñi Ona: Yainkoa argi da, ta iñolako iluntzerik Beragan ez dago. ⁶ Aren erkide gerala ba'diogu ta iluntan ba'gabiltz, gezuñ diogu ta egiari berea ez damayogu. ⁷ Argitan Bera dagon bezela, argitan gu ere ba'gabiltza, beñiz, elkañen erkide gera, ta bere Seme Yesu'ren odolak ogen

guzitik garbitzen gaitu. ⁸ Ogenik ez dugula ba'diogu, oke' gaude ta egia gugan ez dago. ⁹ Gure ogenak aitor' tzen ba'ditugu, ostera, kirmen ta zuzena da Bera, gure ogenak askesteko ta oke' guzitik gu garbitzeko. ¹⁰ Ogenik ez dugula ba'diogu, gezu' tizat Bera darakusgu, ta Aren itza gugan ez dago.

II

Argitan bizi izateko eginbe'arak

Ene semetxoak, au idazten dizuet, ogenik ez dagi- zuten. Ala ere, iñork ogen ba'legi, Aitarekiko bitartekotzat Yesu Kisto zuzena dugu. ² Bera da gure ogenen ordain ibiga'ria; ta ez gure ogenena baka'rik, gizadi osoarenena ere bai.

³ Bera ezagun dugula etsita gaudeke, Aren aginduak betetzen ba'ditugu. ⁴ «Bera ba-dazagut» esanda, Aren aginduak betetzen ez dituna, gezu' ti da, ta alakoaren- gan ez dago egia. ⁵ Aren itzari datxikionarengan, be'riz, Yainkoaren maitasuna bete betean dago. O'rtik dakigu Arengan gaudela. ⁶ Arengan dagola dionak, Ura ibili zan bezela, berak ere ibili bea' du. ⁷ Ene maiteok, ez dizuet agindu be'irik idazten, asieratik duzuten agindu za'ra ba'ño; ta agindu za' au entzun duzuten itza da. ⁸ Izan ere, nolabait be'ria da idazten dizuedan agindua. Egia da ori, agindua berez ta zuenean dana begirata;

⁸ **Arengan**=Yesu'rengan=agindu au eman dun Yesu'ren aldetik begirata; Aren irakastez ta ereduaz argi be'itan ya'ria dalako. **Zuengan**; Aren eske' inda'rez eragiko'rago azalduko da zuengan eta siñestun gu- ziengan, Eliz-edestiak darakuskigunez.

ilunaroa igaro ta oraindanik benetako argia aintzat ageri dalako. ⁹ Argitan dagola esanda bere senidea go'oto duna, iluntan dago oraindik. ¹⁰ Senidea maite duna argitan dago, ta alakoarengan gaizpiderik ez dago. ¹¹ Baña senidea go'oto duna, iluntan dago ta iluntan dabil. Alakoak ez daki nora diyoan, iluntan begiak itsuturik ditu-ta.

Gizartekeriaz

¹² Zuei, umetxoei, idazten dizuet, Aren izenagatik ogenak asketsi zaskizuelako. ¹³ Zuei, gurasoei, idazten dizuet, asieratik dan Ura ezagun izan duzutelako. Zuei, gazteoi, idazten dizuet, gaiztoa azpiratu duzutelako. ¹⁴ Zuei, mutikoei, idatzi dizuet, Aita ezagun izan duzutelako. Zuei, gurasoei, idatzi dizuet, asieratik dana ezagun izan duzutelako. Zuei, gazteoi, idatzi dizuet, azkar zeratelako, itza zuengan dagolako, ta gaiztoa azpiratu duzutelako. ¹⁵ Ez ezazute lu'ra maite, ezta lu'ekorik ere. Norbaitek lu'ra maite ba'du, ez dago arengan Aitaren maitasuna. ¹⁶ Lu'ean diranak oro, aragi-iritsa, begi-iritsa, ta bizitzako arandia, Aitagandik ez baitira, lu'etik baño. ¹⁷ Lu'ra, be'riz, iraizekoa da, baita ango iritsa ere; Yainkoaren naya egiten dunak, ostera, betidañokoan dirau.

Antikisto ta bereak

¹⁸ Ene semetxoak, azken garaya da, ta entzun duzutenez, Antikisto ba-dato'. Dagoneko ere antikisto askotsu yaiki dira; ta andik ba-dakigu azken garaya dala.

¹⁹ Gure artetik soñtu dira; ez ziran, ordea, guretar. Guretar ba'lira, gurekin geldituko lirake. Oñela agiri-beara zan, ordea, guretar ez ziralala.

²⁰ Zuek, beñiz, Gurenak igurtzita zaudete, ta dana dazaguzute. ²¹ Oñexegatik, eta egiaren ezaguera gabe ez zeratelakoxe; egitik, beñiz, gezuña ezin soñtu ditekela-ko, idatzi dizuet. ²² ¿Nor da gezuñtia, Kistoa Yesu dala ukatzen duna baizik? Au da Antikistoa, Aitaren ta Semearen ukatzalea. ²³ Semea ukatzen dunak, Aita ere ukatzen du; Semea aitoñtzen dunak, Aita ere aitoñtzen du. ²⁴ Zuengan, beñiz, bego asieratik entzun duzutena. Asieratik entzun duzutena zuengan ba'lego, zuek ere Semearengan ta Aitarengan egongo zerate. ²⁵ Ta auxe da Berak egin dizuen agintza, betiko bizia.

²⁶ Auek idatzi dizkizuet iruzuñketan datozkizuen ariaz. ²⁷ Zuengan bego, ostera, Arengandik arñtu duzuten igurtzia; ta irakasle beañik ez duzute. Aitzitik ere, Aren igurtzia guzirako irakasle, ta Bera egizale ta ez gezuñti daukazuten ezkerro, Berak irakatsi dizuenez, Beragan irauzute. ²⁸ Arengan orain irauzute ene seme-txoak, Aren agertaldian entzindu gaitez, ta Aren etoñaldian lotsarazi ez gaitzan. ²⁹ Zuzena dala baldin ba'dakizute, zuzenbidean ari dana ere Arengandik yayo bala ezaguzute.

²⁰ **Gurenak**—Yesu`k (Goteunez) igurtzita zaudete.

²⁷ Siñespidean, ta, beraz, Eliz - magalpean ta argitan bizi diranei, beste ikasterik ez zaye beara, zerurako arazoan. Elizarena, bai, beañ beara zaigu, Kisto`k berak eta Aren Bidaliek maiz ta argi diotenez. Ta igurtzi oñek, edo berdin dana Goteunak, eñaztu egiten digu Elizak irakasten diguna aditu ta siñestea.

III

Yainkoaren semeak eta ogena

Gomazute zeinbesterañoko maitasaírea Aitak erakutsi digun; Yainkoaren seme-izena ta izana ditugu -ta. Oréxegatik ez gaitu munduak ezagun, Bera ez dazagulako. ² Ene maiteok, orain Yainkoaren seme gera, ta oraindik ez da ageri zer izango geran. Ba-dakigu ala ere, ageri orduko, Aren idekotsu izango generala, Bera danez ikusiko baitugu.

³ Uste on au Arengan daukana zintzo biurtzen da, Ura zintzo dan bezela. ⁴ Ogen dagiñak legea austen du; ta ogena lege-austea da. ⁵ Ba-dakizute, beíz, ogena kentzeko Bera ageri zala, ta ogenik Arengan ez dagola. ⁶ Arengan diraunak ez du ogenik egiten. Ogen dagiñak ez du Bera ikusi, ezta ezagun ere.

⁷ Umetxoak, ez zaitzazala inork atzipetu. Zuzen dabilana zuzena da, Ura zuzen dan bezela. ⁸ Ogen dagiña txerengandik dator; asieratik txerenek ogen dagi-ta. Yainkoaren Semea, beíz, txerenek dagiña iraultzeko ageri da. ⁹ Yainkoagandik yayoak ez du ogenik egiten, Yainkoaren azia arengan dagolako; ogen egin ere ezin du, Yainkoagandik yayo dalako. ¹⁰ Ortan agiri dira Yainkoaren semeak eta txerenenak: zuzen ez dabil-

⁹ Emen ez du esan nai Yainkoaren semetza daukanari ogen egitea eziña zayola; biok, ogena ta Yainkoaren semetza, inorengan ezin aldi berean aurkitu dirala baño. **Yainkoaren azia**, beíz, esker gurentzalea da, ta onen bidez siñesmena, itxaromena ta maitasuna biotzean pizten dizkigun Goteuna.

ana Yainkoagandik ez da soñtu; ezta bere senidea maite ez duna ere.

Elkar maitakuntzaz

¹¹ Auxe da, ba, asieratik entzun duzuten aldaña; elkar maite ezazute; ¹² bere anayaren eraile ta gaizkiñaren ume Kain'ek bezela egiteke. Ta ¿zergatik il zun? Bere egiñak okeñ ta anayarenak zuzen ziralako.

¹³ Ez aritu, senideok, munduak goñoto ba'zaituz. ¹⁴ Ba-dakigu eriotik bizira aldatuak gerala, senideak maite ditugulako. Maite ez duna eriotzan datza. ¹⁵ Bere senidea goñoto duna, gizeraile da; ta ba-dakizute gize-raileen baitan betiko bizia kokatuko ez dala.

¹⁶ Maite izatea zer dan ezagun dugu, bere bizia gure alde Ark eman duneko. Guk ere geron bizia senideen alde eman beañ dugu. ¹⁷ Inñork, beñiz, bizi leguna eramanik, senidea ubañazkian egoten ba'lekus ta bere biotza itxi ba'lio, ¿nola arengan lirauke Yainkoaren maitasunak? ¹⁸ Ene semetxoak, ez dezagun itzez ta mingañez maite, egitez ta egiz baizik.

¹⁹ Orñtan nabari zaigu egiarenak gerala, ta oñela gure biotzak Yainkoaren auñean zurituko ditugu. ²⁰ Bestela, gure biotzak gaiztetsiko gaitu, ta areago Yainkoak; gure biotza baño aundiago da, ba, ta dana daki. ²¹ Bañan, ene maiteok, gure biotzak gaiztesten ez ba'gaitu, Yainkoagana belduñik gabe yo dezakegu, ²² ta edozer eskatuta, Arengandik erditsiko dugu, Aren agindua bete ta atsegin zayona egiten dugulako. ²³ Ta au da Aren agindua: bere Seme Yesu Kisto'ren izenean siñeste izan ta

elkar maite dezagula, agindu digunez. ²⁴ Aren aginduak betetzen dituna Beragan dago ta Bera Arengan. Ortan, beriz, atematen dugu gudan dagola eman digun Atsez.

IV

Arnasekiko zогiera

Ez siñetsi edozein arnasi; arnasak ostera, azter itzazute, Yainkoagandik ote diranentz; sasi-igarle askotsu gizartean yaiki dira-ta. ² Yainkoagandik soñtutako arnasa ortan ezagungo duzute: Yesu Kisto aragitan etoria aitoñtzen dun arnas guzia, Yainkoagandik yatxi da. ³ Ta Yesu aitoñtzen ez dun edozein arnas, ez da Yainkoagandik yatxi. Antikisto'rena da arnas ori; entzun duzutenez, Antikisto ba-dator ta gauñgero gizartean dago-ta.

⁴ Zuek, ene semetxoak, Yainkoagandik zerate, ta azpiratu dituzute, zuengan dagona mundukoa baño aundiagoa dalako. ⁵ Munduarenak dira ayek; argatik munduaren oldez mintzo dira, ta munduak aditzen ditu. ⁶ Gu Yainkoarenak gera; ta Yainkoa dazagunak aditzen gaitu; Yainkoarena ez danak, beriz, ez gaitu aditzen. Ortik antz ematen diegu egiaren arnasari ta gezuñarenari.

Maitakuntzari maitakuntzaz erantzuteko

⁷ Ene maiteok, elkar maite dezagun; maitakuntza Yainkoagandik dator, ba, ta maitakuntza duten guziak Yainkoagandik yayo dira, ta Yainkoa dazagute. ⁸ Maita-

kuntzagabeak Yainkoa ez dazagu; Yainkoa maitakuntza da-ta. ⁹ Órtan agiri da Yainkoak digun maitakuntza; Yainkoak bere Seme bakaía luíera bidaltzean, Aren bidez bizi gaitezán. ¹⁰ Ori da, ori, maitakuntza. Izan ere, Yainkoa guk maite ez genula, Berak maite izan gaitu, ta bere Semea bidali digu gure ogen-eringaí. ¹¹ Ene maiteok, órela Yainkoak maite izan gaitun ezkeró, guk ere elkar maite beaí dugu.

¹² Yainkoa ez du bein ere inork ikusi; ala ere. elkar maite ba'dugu, Yainkoa gugan dago, ta Aren maitakuntza gugan eldu eldua da. ¹³ Ta órtan dakusagu Beragan gaudela ta gugan Bera; bere arnasa eman digu-ta.

¹⁴ Guk, beíz, ikusita gero, aitoítzen dugu Aitak Semea gizadiaren Yaregiletzat bidali dula. ¹⁵ Yainkoaren Semea Yesu dala inork aitoítzen ba'du, Yainkoa arengan dago, ta bera Yainkoagan. ¹⁶ Ta guk Yainkoak digun maitakuntza ezagun ta siñetsi dugu. Yainkoa maitakuntza da; ta maitakuntzan dagona Yainkoagan dago ta Yainkoa arengan.

¹⁷ Maitakuntza gugan osoa ba'da, ebaztegunean bipil aurkeztuko gera, Bera dan bezela, gu ere luí ontan gerako. ¹⁸ Maitakuntzarekin beldurik ez dago: aitzitik, maitakuntzak beldura asagotzen du; beldura atarari adi baitagokio, ta beldur dana maitakuntzari buruz zoli ez dago. ¹⁹ Guk, beíz, Yainkoa maite dezagun, Berak aurenik maite izan baikaitu.

¹⁸ **yopu-belduraz** ori aditu beaí. **Seme-beldura** ta maitakuntza ondo baño obeki elkartuta egon ditezke ta egoten dira luíreko bizialdi ontan. Ala ere, maitakuntza aundiago egiten dan giñoan, seme-beldura opoíago gelditzen da; biotzeko ilunaldietan ageriago azaltzeko, arátsean izararak bezela,

²⁰ «Yainkoa maite dut» esanda inork dakusan senidea maite ez ba' du, ¿nola maite dezake ikusi ez dun Yainkoa? ²¹ Beragandik agindu au dugu, beriz: «Yainkoa maite dunak bere senidea ere maite beza».

V

Yesu Kisto'ren siñesteaz

Kisto'a Yesu dala siñesten dun edonor Yainkoagandik yayoa da; ta Aita maite dunak Aren Semea ere maite du. ² Yainkoa maite izatean ta Aren aginduak betetzean, beriz, Yainkoaren semeak maite ditugula ezagun dugu. ³ Auxe da, ba, Yainkoa maite izatea; Aren aginduak betetzea. Aren aginduak, beriz, nekagarí ez dira; ⁴ Yainkoagandik sórtu dana munduari garaitzen baitzayo: ta au da munduari garaitzen zayon garai-kuntza, gure siñesmena. ⁵ Nor da munduaren garaitza-ilea, Yainkoaren Semea Yesu dala siñesten duna baizik? ⁶ Yesu Kisto au da urez ta odolez ta Gogoz eto'í dana; ez odolez baka'rik, urez ta odolez baño. Ta aito' egiten diona Gogoa da; Gogoa egia dalako. ⁷ Iru baitira aito' egiten diotenak; ⁸ Gogoa, ura ta odola; ta irurok bat datoz. ⁹ Giza-aito'ra a'rtzen ba'dugu, Yainkoaren aito'ra aundiago da: Yainkoaren aito'ra dalako ta bere Semeaz

⁶ **urez**, Yordan'en azaldu zanean ukuzpena a'rtzeko, ta o'ela bere agiriko bizia asteko, Yon Ukuzleak lenbizi, ta bereala zeruko Aitak eta Goteunak gizadiaren yaregile ta zerutikako irakasletzat alda'rikatuta: **odolez**, gurutzean bere lu'eko bizia erantzi zuenean, gure ogen ordaña Aitaren eskuetan ya'rita. **Gogoak** edo **Goteunak**, beriz, aito' egiten dio, Yordan'en lenbizi, ta gero Pentekoste'tan, bere emarien ta alatzen bidez Bidalien alda'ria inda'rtzen. eta siñestunen biotzetan bere argiz ta eragitez kristau bizitza pizko'rtzen.

egiten dulako. ¹⁰ Yainkoaren Semea siñesten dunak aitor au bere baitan dauka. Yainkoari siñesten ez dionak Yainkoa gezuritzat dauka; Yainkoak bere Semeaz aitoritzen duna siñesten ez dulako. ¹¹ Ta aren aitorá au da: «Yainkoak betiko bizia eman digu; ta bizi au Aren Semeagan dago». ¹² Semea daukanak bizitza dauka; Yainkoaren Semea ez daukanak bizitza ez dauka.


Azken aolkuak

¹³ Au idatzi dizuet, Yainkoaren Semea siñesten duzutenok betiko bizia daukatzutela yakin dezazuten. ¹⁴ Ta Ari buruz etsi etsita gaude, bere gogarako edozer eskatuta, entzungo digula. ¹⁵ Ta zerbait eskatzen diogunean entzuten digula yakiñik, bai ere dakigu eskatu dioguna iristen dugula.

¹⁶ Inork bere senidea eriotzarako ez dan ogen egiten ba'dakus, otoi begi; ta Yainkoak bizia emango dio eriotzarako ez dan ogen egiten dutenentzat. Ba-da, beñiz, eriotzara daraman ogena; alakoaren alde inork eskatzeko ez diot. ¹⁷ Gaiztakeri guzia ogen da; bañan ogen guziak eriotzarako ez dira. ¹⁸ Ba-dakigu Yainkoagandik yayotako inork ere ogen ez dagila; osterá ere, Yainkoagandik yayo danak bere burua zaitzen du, ta gaiztoak ez dio ikutu ere egiten. ¹⁹ Ba-dakigu Yainkoarenak

16, 17 Edozein ogen lafi, arimarentzat ilgarí da; ala ere, ogen lafietan ba-dira eskeñ-bizirako sustraya dan siñesmena itotzen ez dutenak; eta auetaz Yon'ek emen dio eriotzarako ez dirala. Siñesmena beregandik yaurtitzen dunaren ta erabateko ukoz siñesbidetik sayesten danaren ogenak, beñiz, eskeñ-bizirako sustraya ito ta erauzten du; ta Yainkoaren urgazi berezi berezi batez baizik, eskeñ-bizia orrelakoei iltzultzea oso zail ta eziña alakotsua da. Orrelakoen alde otoi egitea zilegi da; ez digu, ordea, Yon'ek ori agintzen.

gerala, ta mundu osoa gaizpean datzala. ²⁰ Ba-dakigu, ordea, Yainkoaren Semea eldu dala, ta Egitsua ezaguteko sena Berak eman digula; ta Egitsuagan, bere Seme Yesu Kisto'rengan gaude. Au da Yainko yatoía ta betiko Bizia. ²¹ Ene semetxoak, irudiñetatik alde egizute. Ala biz.



YON' EN

IDAZKIETAKO BIGARÉNA

Yon emen Agurea izenez aurkezten zaye idazkia artu bear zutenei. Aguretro baitzan, noski; 90 urtekoa edo; ta ori zan aren ikasleek laztantsuki ezartzen zioten izena. Nori idazten dio? Andre autu edo siñestun bati? Autu zeritzan andre bati? Kiria, edo Andre zeritzan andre bati? Asia Txiki'ko eliz bati? Azken au geyenek uste dute.

I

S a r e r a

Agureak andre autuari ta aren semeei. Egiz maite ditut, ba; ta ez nik bakañik; egia ezagun duten guziek ere maite ditute, ² gurean dagon ta beti dagoken egiagatik. ³ Beude zuekin Yainko Aitaren ta bere Semea dan Yesu Kisto'ren adei, eruki ta pakea, egian ta maitakuntzan.

Elkar maite izateaz

⁴ Pozaren pozez yakinda nago zure semeak egiaren bidetik, Aitak agindu digunez, dabiltzala. ⁵ Ta orain, andre ori, agindu beñirik idazteke, asieratik duguna gogoratuz baizik, daskaizut: elkar maite dezagun. ⁶ Maite izatea, beñiz, Aren aginduen arauz ibiltzea da. Au da asieratik entzun duzuten agindua, aren arauz ibiltzeko.


Iruzuṛtiak

⁷ Iruzuṛti asko yaiki baitira gizartean, Yesu Kisto aragitan etoṛi dala aitoṛtzen ez dutenak. Oṛa iruzuṛti ta Antikistoa. ⁸ Zaudete ernai zuen lana ez galtzeko ta sari betea aṛtzeko. ⁹ Atzera diyoan ta Yesu Kisto'ren ikaspidean gelditzen ez danak, Yainkoa ez dauka. Aren ikaspidean gelditzen danak, oṛetxek, bai, Aita ta Semea ba-dauzka. ¹⁰ Ikaspide au ez dakaṛela, zuetara norbait ba'datoṛ, ez ezazute etxera aṛtu, ezta agur ere alakoari esan. ¹¹ Agur dasayona, aren egite okeṛen erkide egiten da-ta.

A z k e n a

¹² Esanenik asko zuentzat dauzkala ere, ez ditut paperean idazturez ipiṇi nai izan; zuenera etoṛi ta aoz ao erausteko ustez bainago, zuen poza bete dedin.

¹³ Zure aizpa autuaren semeek agur dagizute.



YON'EN
IDAZKIETAKO IRUGAĪENA

I

Agureak zuri, ziñez maite zaitudan Gai laztan oĪi.
² Ene maitea; gogobidean daramazun ituin on ta osasuntsua, beste edozertan ere opa dizut. ³ Oso poztu naiz, etoĪitako senideek egiaren bidetik zein zintzo zabiltzan azaldu didatenean. ⁴ Ezer ere ez zait gozoagorik, ene semeak egiaren bidetik dabiltzala entzutea baño. ⁵ Lan edeĪa, noski, senideak, aĪotzak batez ere, sorotzirik, burutzen duzuna, ene maite ori. ⁶ Ala da ayek elizauĪean zure sorozketaz egin duten aitoĪa. Ondo egingo duzu, bidari egokia berei gertuz, Yainkoari zoĪ zayon lotsagatik. ⁷ Aren izenaĪen yoanak baitira, atzeĪiengandik ezer ere aĪtzeke. ⁸ Abegi ona oĪelakoei egin beaĪ diegu, beraz, egiaren alde ayen lankide izateko.

⁹ Elizari zerbait idatzi diot; bañan Diotrepe'k, ayenean auĪena izan nairik, ez gaitu onaĪtzen. ¹⁰ Argatik, oĪera ba'noa, gure lepotik gaizki esaka egiten dun txaĪkeria ezainduko diot. Ta ori naiko ez dalakoan, bere atea senideei itxirik, berena zabaldu nai dietenei eragozten die, ta elizetik yaurtitzen ditu.


¹¹ Ene maite ori, eredu txaĪa utzi ta onari eutsi.

Ongiña Yainkoagandik dator; gaizkiñak ez du Yainkoa ikusi.

¹² Demeter'i guziek eta egiak berak aitor eder dagiote; guk ere bai; ta ba-dakizu gure aitorá ziña dala.

¹³ Idatzienik asko zuretzat neuzkan; bañan ez dizkizut idazturez ta orátzez idatzi nai. ¹⁴ Aurki zu ikusteko ustez nago, ta aoz ao mintzatuko gera.

¹⁵ Pakea opa dizut. Agur dagizute adiskide auek. Adiskideei agur bana.



YUDA'REN IDAZKIA

Yuda, Alpairena, Tadaí ta Lebbai ere zeritzana, Yesu gure Yaunaren lengusua zan, ta aintzat Nazaret'en guziek ezaguna. Idazki ontan soñtaldeko siñestunak irakasle iruzurñien aurka iratzañi nai ditu. Idazki au ta Kepa'ren bigařena, une askotan idekotsuak dira, ta bata bestearen aztañnaka egiña dala ezin uka. Lena zein? Ezin erabaki.

I

Sařera

Yuda'k, Yesu Kisto'ren moñoi ta Yakob'en anai onek, zuei,

Yainko Aitak maite ta Yesu Kisto'rentzat gordetako deituoi;

² eñuki, pake ta maitasuna zuengan geitu bitez.

³ Ene maiteok: guzion osasunaz zuei idazteko ayola biziak beařtuta, idazki ontan natoñkizue, gurenei bein emandako siñestearen alde gogoñ buñukatzeo aolkuz.

⁴ Ondamenerako epaya aspaldi idatzia zayen gizon deunge batzu itzalgaizka sañtu baitira, gure Yainkoaren adiguria zantañkerira okeñtzen ta Yesu Kisto gure Yaun ta Yabe bakaña ukatzen.

Irakasle gaiztoak

⁵ Oñezkero, dana bein yakiña ba'duzute ere, gomutarazi nai dizuet Yaunak, Aigito'tik eñia yareginda gero, siñesgogoñ izanak poñokatu zitula, ⁶ ta, nagusitza euki-beařean, beren egoitza galdu zuten aingeruak, egun

aundiko epayarentzat betiko lokañiz ilunpean gorde zitula. ⁷ Berebat Sodoma, Gomoń, ta ayek bezain zantañ ta aragi biurkeriz nazkagañi ziran inguruko iriak or daude luñ yota bein betiko galentzat suak ilaunduta.

⁸ Alaxe, ba, amestiok aragia zikintzen, nagusitza nardatzen ta goratsuak biraokatzen ari dira. ⁹ Mikael arkaingerua, Mois'en soña zala-ta, txeñenekin buñukatzean, ez zan aren aurka epai iraintsurik botatzera eldu; ta au bakañik esan zion: **Yaunak ondikatu azakala.** ¹⁰ Oriek, ostera, ez dakiten edozer biraokatzen dute, ta adingabeko abereek bezela, susmoz dazaguten edozertan usteltzen dira. ¹¹ Kain'en bidean sañtu, Balaan'en erokerian sariañen leñatu, ta Kore'ren zalapartan galdu dira. ¡Ayen zori txaña!

¹² Oriek dira zuen oritsetako satsa, sabela betetzeko, lotsagabe maikide datozkizuela; odehyak urgabe aizetan eramana; udazkeneko zugatz elkoñ, bitan il ta sustrayetatik igañtuak; ¹³ itxasuin zakañak alkekizuna apañez dariela; iraizeko izañak, betiko iluntara yobeañak. ¹⁴ Oriengatik auñesanez Enok'ek, Adan'en ondoko zazpigañenak, zion: «Oña ba-datoñ Yauna bere guren zenbakaitzekin, ¹⁵ gizakume guziak ebazteko ta gaizto guziak larderia-tzeko gaizki egindako gaiztakeri guziengatik, eta ogen-lari gaiztoek Aren aurka esandako gordinkeri guziengatik». ¹⁶ Or dabilta oriek marmar ta minkuñti, beren

⁹ Ez dakigu izka ontan zer zerabilten. Yudutartean aoz ao zebilan edestiren bat emen ikutua bide da.

¹⁴ Enok'en idaztian itzok irakuñgai daude; ez, ordea, Idazteunetan. Yuduen aotan bizi izandakoan, Enok'en itz ta egiterik asko liburu batean bilduak izan ziran, Kristo'ren auñeko bigañen mendean.

gogara bizirik, ots aundiko itzez aoa beterik, eta mozkinmiñez aundikiak limurturik.


¹⁷ Zuek, beñiz, maiteok, oroi zaitezte Yesu Kistogure Yaunaren bidaliek aurenik esan dutenaz. ¹⁸ Esan ere zesaizueten azken aldietan etoriko ziralā iruzurtti batzu, beren grña gaiztoen yitez ibilki, ¹⁹ linbuxkeritsu, luñkoi ta adingabe.

²⁰ Zuek, beñiz, maiteok, daukazuten siñeste gurenean ezañita yaiki zaitezte; Goteunaren itzalpean otoi egizute; ²¹ ta Yainkoa maite izaten iraunik, Yesu Kistogure Yaunaren erukia itxoizute betiko biziarentzat.

²² Batzuei, ezbai daudenei, eruki zakizkiete, ta sutatik atera ta yaregin itzazute; ²³ beste batzuei, beñiz, erukiarekin larderia ere erakutsiezute, aragi-kutsua soñekoan ere iguindurik.

A z k e n a

²⁴ Eroraldi guzitik zuek yagoteko, ta bere aulki gorañariaren aurerā akatsik gabe ta pozez beterik zuek eratoritzeko altsua dan ²⁵ Yesu Kisto'rentzat, gure Yaregile ta Yainko bakañarentzat, beude, beñiz, mende guzien aurretik, orain eta menderen mendetan, goraldia, aunditasuna, al izate ta agintea. Ala biz.



YON'I
AGERITAKOA

YON'I AGERITAKOA

Idazti ontan erakusten dira Elizak yasan bea' ditun yaza'ri ta bu'ruka gogo'ak, eta bere etsai guzien lepotik azkenean iritsi bea' dun bein betiko garaikunde oso ta ospetsua. Yesu'ren itz ayek: A'rkaitz zera zu; ta a'rkaitz onen ga'nean eraikiko dut nere Eliza: ta aren au'ruka ez dira sulezeko atea'k garai geldituko, emen sendotuak, eta eto'rkizuna tximistaka bezela argitzen diguten irudi aundietan azalduak au'rkitzen dira, edonoizko si'nestunen kemena ta itxaromena azka'rtzeko.

Zitu au emendik iraku'le guziek yaso dezakete, alderdi asko ezin ule'rtu ditezke'la ere; Yainkoaren yau'rpide sakonari dagokionaz egitean, beste igar'leek bezela, gure onek ere argi ta itzala nasita oi daka'rtzi-ta.

I

S a r e r a

Yainkoaren agerpena, au'ruki gertabea'ak bere mo'royei erakusteko, Yesu Kisto'ri egi'na, ta bere aingerua bidalita, Yon'i, bere mo'royari, adirazia. ² Yonda, be'riz, Yainkoaren itzaz ta Yesu Kisto'ren aito'raz, dana ikusitakoan, aito' egin duna. ³ Igar'keta onen itzak iraku'rtzen ditunaren zori ona, baita bertan idatzia entzun ta betetzen ditutenena ere! Au'ruki baitago garaya.

⁴ Yon'ek Asia'ko zazpi elizei. Eske' ta pakea bekazkizuetę danak, zanak eta dato'renak, eta Aren aulki au'reko zazpi gogo ayek, ⁵ eta Yesu Kisto'k, aito'lari zi'nak, ilartetik lenso'rtuak, lu'reko yaunen Yaunak, gu maite izanda, gere ogenetatik bere odolez askatu ta ⁶ bere Yainko ta Aitaren yaure'i ta apaiz egin gaitunak.

⁶ Kep. 1.^a II, 6

Beude Arenak ospe ta agintea menderen mendetan.
Ala biz.

⁷ Oía non datoíren odeitartean. Begi guziek ikusiko dute, baita zaurtu zuten ayek ere. Ta eíi guziak Aren aitzíñean negárez daudeke. Ala biz, bai.

⁸ «Ni naiz α ta ω , Lena ta Azkena» dio Yainko Yaunak, danak, zanak, datoíren guziz altsuak.

Idaztèko agindua

⁹ Nik, Yon'ek, zuen senide ta Yesu'ren nekeetan, yaureíi ta egonaírian erkide onek, Yainkoaren itzagatik eta Yesu'ren aitoíragatik Patmo deritzan ugartean nengola, ¹⁰ igande batean txorabiotuta, turutotsa bezelako mintzo aundi bat nere atzetik entzun nun, ¹¹ esaten: «Dakusazuna liburu batean idatzi ta bidalieu Epeso'n, Esmirna'n, Pergamo'n, Tiateira'n, Sardei'n, Piladelpi'n ta Laodiki'n diran zazpi elizei». ¹² Zerauskidan mintzoa norena zan ikusteko atzera begiratuz, úrezko zazpi argimutil ikusi nitun, ¹³ ta úrezko zazpi argimutilen erdian gizaseme ideko norbait, soñeko luzez yantzia, ta bularpean úrezko itoltzez geíkatua. ¹⁴ Aren buru ta íleak, artile zuria ta eluía bezelakoak ziran; ta Aren begiak, sugaíren antzekoak. ¹⁵ Aren oñak, labeen tupikia bezain goriak; eta Aren otsa, ugoldearena bezelakoa. ¹⁶ Esku-yeen zazpi izaí zeuzkan; ta aotik ao biko ezpata irteten zitzayon; ta Aren auípegia, eguzkia bere indaírean bezain argitsua zan.

⁸ α (alpha), elendaírentzat lenbiziko elatza zan; ω (omega) azkenekoa.

⁹ itzagatik = Beíi Onagatik.

¹⁷ Bera ikusi ala, Aren oñetara, ila bezela, erori nintzan; ta bere eskuya gañean ezañi zidan, esanaz: «Ez izutu; ni naiz Lena ta Azkena, ¹⁸ ta bizi dana ta il izana; ta ona emen ni bizitan bein betiko; ta eriotzaren ta lezearen giltzak Nik dauzkat. ¹⁹ Ikusi dituzunak, beraz, idatzi itzazu, bai oraingoak, baita izatekoak ere, ²⁰ nere eskuyean ikusi dituzun zazpi izañen alegipekoa, ta urrezko zazpi argimutilena. Zazpi izañak, zazpi elizen aingeruak dira, ta urrezko zazpi argimutilak, zazpi elizak».

II

Epeso'ko elizaren aingeruari

Epeso'ko elizaren aingeruari idatziozu:

Ora zer dion zazpi izañak bere eskuyean dauzkan ta urrezko zazpi argimutilen erdian dabilanak.

² Ezagunak ditut zure eginbidea, zure lanak eta egonaña. Ba-dakit gaiztoak ezin yasan dizutula, ta bidaliak izateke, bidalitzat aurkezten diranak azteñi ta gezuñti idoro dituzula. ³ Egonañitsu zera, ta nere izenañen asko yasanda ere, ez zera aspeñtu. ⁴ Baña ba-dut zure aurka, mertzildu zaizun lengo maitakuntza. ⁵ Gomazu, beraz, nondik erorita zauden; garbai zaitez, ta lengora itzuli. Bestela, garbai ez ba'zera, zugana etoñirik, zure argimutila bere tokitik kenduko dut. ⁶ Zure alde duzu,

²⁰ Aingeruak=gotzayak, buruzagiak, eliz bakoitzaren ordekotzat.

⁶ Beg. 14 ta 15

ordea, nikolañen eginbidearekiko goñotoa, ta goñoto oñtan bat zatozkit.

⁷ Belañidunak bentzu zer dasayen gogoak elizei: Garaitzaleari yateko emango diot Yainkoaren atsedentokian dagon bizi-zugatzetik.

Esmirna'ko elizaren aingeruari

⁸ Ta Esmirna'ko elizaren aingeruari idatziozu:

Ara zer dion Lena ta Azkena danak, ñla izanda bizi danak.

⁹ Aberats zerala ere, zure loñ ta landeñtasuna ezagun ditut, baita, Satan'en sinagoga besterik ez diran, ta, yudu izateke, yudu dirala darasatenek zutzaz gaizki diotena ere. ¹⁰ Ez izutu, edozer yasatekoan ere. Ara, tuxuriak zuetako batzu baitegira yaurtiko ditu, gaizki zuek erabiltzeañen; ta amañ egunez loñ zabiltzakete. Zaude kirmen il arteraño ta bizitzako buruntza emango dizuet.

¹¹ Belañidunak bentzu zer dasayen gogoak elizei: Garaitzaleari ez dio bigañen eriotzak kalterik egingo.

Pergamo'ko elizaren aingeruari

¹² Ta Pergamo'ko elizaren aingeruari idatziozu:

Ara zer dion ao biko ezpata zoñotza daukanak.

¹³ Ba-dakit non bizi zeran; Satan'en aulkia dagon tokian. Satan'en egoitza oñtan, beñiz, Antipa'ri, nere aitoñkide ziñari, bizia kendu ziotenean ere, zuk, nere

¹¹ Bigañen eriotza=betiko ondamena.

izenari eutsita, ez zenun nere siñestea ukatu. ¹⁴ Ala ere, zerbait da-dut zure aurka. Izan ere, aldamenean dituzu, israeldarak yainko aizunen yanarietara ta loikerira eratorzeco, Balaan'ek Balak'i zerakaskionaren yaraile porokatuak. ¹⁵ Alakoxe baitira aldamenean dituzun nikolaeren ikaspideari atxikiak.

¹⁶ Garbai zaitez. Bestela, or nauzu laster, ta nere aoko ezpataz buruka egingo diet.

¹⁷ Belañidunak bentzu zer dasayen gogoak elizei: Garaitzaleari mana ostena damayoket, baita ari zuri bat ere; ta artzaleak baizik inork ez dazagun izen bat arian idatzita.

Tiateira'ko elizaren aingeruari

¹⁸ Ta Tiateira'ko elizaren aingeruari idatziozu:

Ara zer dion sugara bezelako begiak, eta tupikia bezelako onak ditun Yainkoaren Semeak.

¹⁹ Zure egiteak eta zure maitasun, siñesmen, lanbide ta egonaia ezagun ditut, eta lengoak baño areagotsuak dirala ba-dakust. ²⁰ Akañkizun bat dut, ordea, zuretzat. Or baitabil Yezabel emakume ori igarle dala esaten, ta nere moroyei loikeria ta yainko aizunen yanariak geurez aolkatzen; ta zuk ez diozu eragozten. ²¹ Garbai izateko beta eman diot; berak ez du, ordea, garbai izan nai bere zantañkeriaz. ²² Ara, oean eratzango dut, eta arekin kutsutuak lor goñian izango dira, beren gaiztakeriaz garbai ez ba'dira. ²³ Ta aren semeak erioz ilko ditut; eta eliz guziek atemango dute Ni nai-

14 Beg. Zenb. XXXI, 15

zala giltzurun ta biotzak ikeitzen ditudana. Ta bakoitzaren egiteak lirakenez, ordaña emango dizuet.

²⁴ Beñiz, Tirateira'n oñelako ikaspidera gabe zaudeten, ta Satan'en sakonak omen diranak ezagun ez dituzuten guzioi, dasaizuet: Ez dizuet zama beñirik leporatuko; ²⁵ daramazutena, ori bai, eramazute Ni etoñi arte.

²⁶ Ta garaitzaleari, nere aginduak azkeneraño bete litukenari, atzeñiekiko agintea emango diot, ²⁷ burnizko zigoñez erabili, ta, buztñezko eltzeak bezela, puskatu ditzan. ²⁸ Alakoxea da Neronek nere Aitarengandik dudana agintea. Goizeko izaña ere emango diot.

²⁹ Belañidunak bentzu zer dasayen elizei gogoak.

III

Sardei'ko elizaren aingeruari

Ta Sardei'ko elizaren aingeruari idatziozu:

Ara zer dion Yainkoaren zazpi gogoak eta zazpi izañak ditunak.

Ba-dakit zertan ari zeran. Bizi omen zera, ta ilik zaude. ² Egon atzañi, ta iltzeko zan osterantzekoa sendotu ezazu; nere Yainkoaren begitan bete danik ezer ez dut zure arloan idoro-ta. ³ Ikasi ta entzuna gogoratu ta bete ezazu, ta garbai zaitez. Atzañi ez ba'zaude, lapuña bezela natoñkizuke, ta ez duzu yakingo noiz natoñken.

⁴ Ala ere, lagun gutxi batzu Sardei'n ba-dituzu, beren soñekoa zikindu ez dutenak. Oriek Nerekin ibiliko dira yazki suriz, oñtarako lain dira-ta.

⁵ Garaitzalea ere yazki zuriz apainduko da, ta aren izena ez dut bizi-idaztitik ezabatuko; aitzitik ere, nere Aitaren aurrean ta bere aingeruenean aitoituko dut.

⁶ Belaíidunak bentzu zer dasayen elizei gogoak.

Piladelpi'ko elizaren aingeruari

⁷ Ta Piladelpi'ko elizaren aingeruari idatziozu;

Ara zer dion Guren ta Egizaleak, Dabid'en giltza daukanak, Ark irikia itxi, edo itxia iriki dezakenik ez dagola.

⁸ Indaí gutxiko zerala ere, nere itzari eutsirik, nere izena ukatu ez duzulako, ara zure aurrean zabalik Nik yaíita, inork ezin iriki dun atea. ⁹ Oía Satan'en sinagogatik, yudu izateke, yudu dirala alaratzzen dabilzanok. Oía, Nik eratoíita, zure oñetara auzpeztuko dira, ta ikusiko dute maite izan zaitudala. ¹⁰ Yasateaz Nik esana gorde duzulako, Nik ere gordeko zaitut, luíean bizi diranak azteítzeko, luí osora datoíren laíalditik. ¹¹ Auíki natoíke. Daukazuna sendo eukazu, inork aí ez dezan.

¹² Garaitzalea nere Yainkoaren yauretxean zutoi yaíiko dut, eta ez da bein ere andik soítuko. Ta aren gañean nere izena, ta Yerusalen beíaren izena, nere Yainkoaren iriarena, nere Yainkoak naita, zerutik yatsiarena idatziko ditut, baita ayekin ere nere izen beía.

¹³ Belaíidunak bentzu zer dasayen elizei gogoak.

Laodiki'ko elizaren aingeruari

¹⁴ Ta Laodiki'ko elizaren aingeruari idatziozu:

Ara zer dion Yatoíak, Aitoílari egitsu ta kirmenak, Yainkoak egindakoen Soíburuak.

¹⁵ Ba-dakit zertan ari zeran, ez otz, ez bero. ¡Ai ziña otz edo bero! ¹⁶ Bañan epel, ez otz ez bero, zerala-ta, nere aotik zu iraitzeko goragale naiz. ¹⁷ Zuk diozu: Aberatsa naiz, yoritsua, ezeren beańik gabe; ta ez daki-zu gaxo ta eńukańi ta landeń ta muńitz zerala. ¹⁸ Ańtu nere onua: ańagotutako uńea eroskidazu, aberats izateko, ta yazki zuriak, sońa estaltzeko ta lańugońi ez agertzeko, baita betura ere, begiak iguńztekoko ta ikustun biuńztekoko. ¹⁹ Nik ińor maite ezkeroko, akańtu ta atańatzen dut. Leya zaitez, beraz, ta garbai izan. ²⁰ Ona emen Ni atauńean yoka. Ińork nere deya entzunda atea zabaltzen ba'dit, arengana sańtuko naiz, ta arekin apari egingo dut, eta ark Nerekin.

²¹ Garaitzalea nere aulkian Nerekin yańiko dut, Nerau ere, garaitzale izan ezkeroko, nere Aitarekin Aren aulkian eserita nagon bezela.

²² Belańidunak bentzu zer dasayen elizei gogoak.

IV

Yainkoaren aulkia

Ońezkeroko ikusi egin nun; ta ara zeruan ate bat za-balik. Eta, turutotsa bezela, nerekin erausten lengoan entzun izan nun arako mintzoak esan zidan: «Onara igo zaitez, ta gerokoan gertabeańa erakutsiko dizut». ² Eta bertan txorabioak ańtu nińun; ta ara, zeruan aulki bat yańia, ta aulkian norbait eseria. ³ Eseriak, beńiz, yaspi ta sardi-ańia zirudin; ta aulki baranoan esmeralda antzeko ostadańa. ⁴ Aulki baranoan ere

beste ogei ta lau aulki; ta aulkiotan, yazki zuriz ta urézko buruntza buruan, ogei ta lau agure eserita. ⁵ Aulkitik tximistak, otsak eta inusturiak sórtzen dira; ta aulki auréan Yainkoaren zazpi gogoak diran zazpi kriselu ixio. ⁶ Aulki auréan ere, itxaso alako bat, leya bezain garden, ta aulki baranoan lau iize, auré atzetik begiz beterik. ⁷ Auréneko iizea, leoi irudiz; bigaíren iizea, txekoí irudiz; irugaíren iizea, giza-aurépegiz; ta laugaíren iizea, egaka arano irudiz. ⁸ Lau iizeok seiná ega ditute, ta, bai azaletik baita baínetik ere, begi beterik, gau ta egun atsedetik aríteke ari dira esaten: «Guren, guren, guren, Yainko Yaun guziz altsua, dana, zana, etoítzekoa». ⁹ Ta iizeok aulkian eseri ta menderen mendetan bizi danari goraldi, dedu ta eskeí ona dakazkioten bakoitzean, ¹⁰ ogei ta lau agure ayek, aulkian eserita dagonaren auréan auzpezturik, aulki aurera beren buruntzak yaurtitzen ditute, esanez: ¹¹ «Gure Yainko Yaunak, goraldi, dedu ta indaía aríteko lain ba-zera; oroen Irazalea Zu baitzera, ta diranak oro zure nai izatez sórtu ta irazanak baitira».

V

Zazpi zildaiko idaztia

Ta aulkian eseritakoaren eskuyean idazti bat ikusi nun, azaletik eta baínetik idatzi ta zazpi zildaiz itxita. ² Aingeru azkaí bat ere ikusi nun ozengi aldaíkatzen: «Idaztia zabaltzeko ta aren zildayak askatzeko lain nor da?» ³ Ta inór ere ez zegon, ez zeruan, ez luí-

ean, ezta lurpean ere, idaztia zabaldu edo begira zezakenik. ⁴ Idaztia zabaltzeko edo bederen begiratzeko lain inor ez zala-ta, negařaren negařez yaři nintzan. ⁵ Ta agureetako batek esan zidan: «Negařik ez egin; ara Yuda'ren leñutik leoya, Dabid'en kimua, idaztia ta aren zazpi zildayak irikitzeke».

Bildotsa

⁶ Ta ikusi egin nun, ta ara, aulki ta lau iizeen erdian, ta agureen erdian Bildots bat zutik, zirudiñez eraila, zazpi adar ta zazpi begi zitula. Yainkoak luřalde orotara igorıtako zazpi gogoak dira auek. ⁷ Ta etoři zan, ta aulkian eserita zegonaren eskuitik idaztia artu zun. ⁸ Ta idaztia artu zuneko, lau iizeak eta ogei ta lau agureak Bildotsaren aurean auzpeztu ziran, bakoitzak bere kitara ta urezko antuxiñak ekaři, antuxiñok gurenen otoyak zirala. ⁹ Ta eresi beři bat yo zuten, esanez: «Idaztia artzeko ta aren zildayak askatzeko lain zera; ila izanda, leñu, izkera, enda ta eři guzitik Yainkoarentzat zure odolez erosi gaituzulako, ¹⁰ ta gure Yainkoaren yaureři ta apaizkunde egin dituzulako, ta luř gañean eřegetza dukete».

¹¹ Ta so egiñik, aulki ta iize ta agureen baranoan aingeru ainitzen otsa entzun nun; amařeun miloika ta amařeun milaka bilduta, ¹² ozengi baitzioten: «Indar, aberastasun eta yakintza, al izate, dedu, ospe ta goraldia artzeko lain da oparizat ildako Bildotsa.» ¹³ Ta zeruan, luřgañean, lurpean ta itxasoan diranak oro entzun nitun esaten: «Aulkian eseri dagonari ta Bildotsari onespen

ta goraldi ta al izatea menderen mendetan. Ala biz». ¹⁴ Ta lau iizeek zioten; «Ala biz.» Ta ogei ta lau agureek, auzpezturik, menderen mendetan bizi danari agur egin zioten.

VI

Lenbiziko lau zildayak

Ta Bildotsa ikusi nun zazpi zildayetako bat askatzen; ta lau iizeetako bat entzun nun ostotsez esaten: «Zatoz». ² Ta ikusi nun, ta ara zaldi zuri bat. Gañean yañiak añanbel bat zeukan; buruntza eman zioten, ta garaitzera irten zan garaitsuki.

³ Ta bigaeren zildaya askatu zunean, bigaeren iizea entzun nun esaten: «Zatoz». ⁴ Ta beste zaldi goñi bat irten zan, ta aren gañean, pakea luñetik kentzeko ta sañaskia gizartean sañtzeko almena ta ezpata aundi bat eman izan zizkioten norbait.

⁵ Ta irugaeren zildaya askatu zunean, irugaeren iizea entzun nun esaten: «Zatoz». Ta ikusi egin nun; ta ara zaldi beltz bat, eta aren gañean norbait, aztaga bat eskuan zeramala. ⁶ Ta lau iizetartetik ots bat entzun nun esaten; «txopin bat gari, denari batean; ta iru txopin garagañ, denari batean; bañan ez egin kalterik ardoari, ez olioari».

⁷ Ta laugaeren zildaya askatu zunean, laugaeren iizearen otsa entzun nun esaten: «Zatoz». ⁸ Ta ikusi egin nun; ta ara, zaldi zurbil bat, eta aren gañean Eriozeritzan norbait. Lezea zeñayon; ta al izatea eman zioten

luéko laurden gañean gizakiak ezpataz, gosez, izuñiz ta luéko basapistiz iltzeko.

Boskañen ta seigañen zildayak

⁹ Ta boskañen zildaya askatu zunean, opamai azpian ikusi nitun Yainkoaren itzagatik eta eman zioten aitoá-gatik ildakoen gogoak. ¹⁰ Eta oyuka zioten: «¿Noizarte, Yaun deun ta egizale Orek, ebaztea geroratzen duzu, gure odolaz luékoei apena yasanerazi gabe?» ¹¹ Ta soñeko zuri bana eman ta apur bat atsedeteko esan zieten, berak bezela ilbeañak ziran beren moñoikide ta senideen kopurua bete arte.

¹² Ta seigañen zildaya askatu zunean, ikusi nun; ta luíkara aundia soñtu zan, ta eguzkia, zurdazko zoño bat bezain beltz egin zan, ta ilargia, odola bezela, ¹³ ta ortziko izañak luígañera erori ziran, uztapikoak aizebul-tzaz pikondotik yalkitzen diran bezela. ¹⁴ Ta ortzia bildu zan, zeñenda bat biribiltzen dan bezela; ta mendi ta ugarte guziak beren tokitik zotukatu ziran. ¹⁵ Ta luéko érege, aundiki, agintari, aberats, indaítsu, yopu ta yarei guziak mendizulo ta ańkaitzetan izkutu ziran, ¹⁶ ta mendi ta ańkaitzei zesayeten: «gañera zatozkidate, ta aulkian eseritakoaren aurpegitik eta Bildotsaren ase-
retik izkutu gaitzazute. ¹⁷ Ayen aseé egun aundia eldu da, ta nor egon diteke?»

VII

Yainkoaren zantzua

Gero lau aingeru ikusi nitun luřaren lau zokoetan zutik, luřeko lau aizeak geldi eukitzen, legořean, itxasoan eta zugatzetan aizebultzik sořtu ez zedin.

² Ta beste aingeru bat ikusi nun eguzki sořtaldetik igotzen. Yainko biziaren zantzua zeukan, ta legoř-itxasoari kalte egiteko zeuden lau aingeruei ozengi oyu egin zien ³ esanez: «kalterik legořari ez egin, ez itxasoari, ez zugatzei, gure Yainkoaren mořoyei zantzua bekokian dazařkieguņo». ⁴ Zantzua ařtu zutenen zenbatza ere entzun nun; eun ta beřogei ta lau mila ziran Israeldaren leņu guzietako zantzudunak.

⁵ Yuda'ren leņutik, amabi mila zantzudun,
Eřuben'en leņutik, amabi mila,
Gad'en leņutik, amabi mila,

⁶ Aser'en leņutik, amabi mila,
Neptali'ren leņutik, amabi mila,
Manase'ren leņutik, amabi mila,

⁷ Simeon'en leņutik, amabi mila,
Lebi'ren leņutik, amabi mila,
Isakar'en leņutik, amabi mila,

⁸ Zabulon'en leņutik, amabi mila,
Yose'ren leņutik, amabi mila,
Benyamin'en leņutik, amabi mila zantzudun.

Beste autuak

⁹ Gero, iñork zenbatu ezin lezaken samalda aundi bat, aulki aúrean Bildotsaren aitziñean zutik, ikusi nun. Guziek soñean yazki zuriak eta eskuan palmak zekazten. Enda, leñu, eñi ta izkera guzietako ayek, ¹⁰ ozengi ots egiten zuten, esanez: «Gora aulkian eserita dagon gure Yainkoa ta Bildotsa». ¹¹ Ta aingeru guziak zutik zeuden aulkiaren, agureen eta lau iizeen baranoan; ta aulkiruntz auzpeztuta, Yainkoari agur egin zioten, ¹² esanez: «Ala biz. Onespen, ospe, yakintza, esker-egite, dedu, al izate ta indara gure Yainkoari menderen mendetan. Ala biz».

¹³ Ta agureetako batek itz egin ta esan zidan: «Nor ta nondik etoñiak dira soñeko zuriz yantzi oriek»? ¹⁴ Ta esan nion: «Ene Yauna, zeroñek ba-dakizu». Ta esan zidan: «Auek dira loñ aunditik etoñi ta beren soñekoak Bildotsaren odolez ikuzi ta zuritu ditutenak. ¹⁵ Oñegatik Yainkoaren aulki aúrean daude gau ta egun Aren etxean yauresten; ta aulkian dagona ayekin biziko da. ¹⁶ Gero-enean ez dira gose izango, ez egañi; ta ez ditu eguzkiak edo iñongo sargorik nekatuko; ¹⁷ aulki erdian dagon Bildotsak lañera ta bizitzako ur-ituñietara eramango ditulako, ta ayen begietatik edozein malko Yainkoak txukatuko dielako».

VIII

Zazpigarén zildaya

Ta zazpigarén zildaya askatu zunean, ordu erdi bate-tsuko isilaldia egin zan zeruan. ² Ta Yainkoaren aitziñean egoten diran zazpi aingeruak ikusi nitun, ta zazpi turuta eman zizkieten. ³ Ta beste aingeru bat etoñi ta opamai ondoan gelditu zan, urezko luñiñontzi bat eskuan zeukala. Ta luñingai asko eman zioten, deun guzien otoyak eskeñi zitzan aulki auñean dagon urezko opamayean. ⁴ Ta deunen otoyekin luñiñen kea aingeruaren eskutik igo zan Yainkoaren auñean. ⁵ Ta aingeruak luñiñontzia artu ta opamaiko txingarez beterik, luñgañera bota zun; ta oñazkañ, buñunba, tximistak eta luñikarak asi ziran. ⁶ Ta zazpi turutak zeuzkan zazpi aingeruak, turuta yotzeko gertu ziran.

Lenbiziko lau turutotsak

⁷ Lenak turuta yo zun ta asi zan kazkabaña ta odolarekin nasitako sua luñgañera yeisten; ta luñerena, zugatzetako erena, ta belañ guzia ére egin ziran.

⁸ Ta bigarén aingeruak turuta yo zun; ta mendi aundi bat zirudin zerbait yaurtia izan zan itxasora; ta itxaso erena odoldu zan, ⁹ ta itxasoan bizi diranetako erena il, ta ontzietako erena galdu zan.

¹⁰ Ta irugarén aingeruak turuta yo zun; ta zuzi bat bezela ixiotako izañ aundi bat erori zan ibai ta ituñi-

etako eren gañean. ¹¹ Ta izañak Ixen du izena; ta ur erena mindu zan, ta gizakume asko ur minduagatik il ziran.

¹² Ta laugañen aingeruak turuta yo zun; ta eguzki erena, ilargi erena ta izañetako erena nañiotu ziran, aye-tako erena ilundu zala, ta bai egunek baita aratsek ere argia ereneraño galdu zutela.

¹³ Ta arano bat ikusi nun ortzi erditik egaka, ta ozengi zion au entzun nion: «Ene, ene, ene, negar-gañiak luñean bizi diranak! yotzeko dauden iru ainge-ruen beste turutotsengatik».

IX

Boskañen turutotsa

Ta boskañen aingeruak turuta yo zun; ta izañ bat ikusi nun ortzitik luñera eroria; ta lezerako giltza eman zioten. ² Ta lezeko osiña zabaldu zun; ta osiñetik kea, labe aunditik bezela, igo zan; ta osiñeko keak eguzki ta eguratsa ilundu zitun. ³ Ta ketik otiak luñera irten ziran, lugartzena bezelako indaía emana izan zitzayela. ⁴ Agindu izan zitzayenez, kalterik ez zioten luñeko belañ, barazki ta zugatzetako bati ere egin beañ, Yainkoaren zantzua kopetan ez luketen gizakumeei baño. ⁵ Alakoak ere iltzeko aukera ez zuten, bost ila-betez oñazetzekoa baizik. Oñazeok, beñiz, lugartzak zizatutako gizonarenak bezelakoak ziran. ⁶ Egun aye-tan gizakumeeek eriotza bilatuko dute; iritsi, ordea, ez;

il nai izango dute, bañan eriotzak ayengandik iges egingo du.

⁷ Otien tankera, gudarako gerturik dauden zaldiena zan. Buruan úrezko buruntza bana zekaíten, ta ayen aurpegiak giza-aurpegiak bezela ziran. ⁸ Adatsa zuten emakumeen adatsaren edukoa, ta ayen ortzagiñak leoyenak bezela ziran. ⁹ Bulaírekoa zuten burnizko oskol irudiko, ta ayen egal-zarata, gudara taíapatan diyoazan zaldi askodun gurdiena zan. ¹⁰ Lugartzek bezela, buztan ta eztenak zituten, ta buztanean, gizonak bost ilabetez mintzeko al izatea. ¹¹ Ayen érege, eberkeraz Abaddon, eta eladeraz Apollion deritzan lezeko aingerua zan.

¹² Lenbiziko «ene» au amaituta, ara oraindik beste bi.

Seigaíren turutotsa

¹³ Seigaíren aingeruak turuta yo zun, ta Yainkoaren aurean zegon úrezko opamairan lau ertzetatik zetoíren ots bat entzun nun. ¹⁴ Ta turuta zeukan seigaíren aingeruari zesayon: «Askatu itzazu Euprate ibai aundian loturik dauden lau aingeruak». ¹⁵ Ta lau aingeruak, ordu, egun, ilabete ta urterako gertuta, askatuak izan ziran, gizakumeetako erena iltzeko. ¹⁶ Ta zaldizko gulariak beíreun miloi ziran; zenbaki au neronek entzunda. ¹⁷ Ara, beíz, ikustaldi artan zaldiak eta ayetan eseriak nola ikusi nitun; zaldizkoek bulaí-oskol sutsu, ubel ta orixkak zekazten; zaldien buruek leoi-buru ziruditen, ta ayen aotik su, ke ta sulbuía soítzen ziran. ¹⁸ Ayen aotik soítzen ziran irurok, su, ke ta sulbuíak, gizadi erena il zuten. ¹⁹ Ao ta buztanean baitago zaldion al

izatea; ayen buztanak suge-antzekoak baitira, bakoitza bere buruarekin; ta ayen bidez min damate. ²⁰ Alako gaitzez bizia galdu ez zuten osterantzeko gizakumeak ez ziran beren eskulanaz garbai ízan. Txerénak, eta ikusteko, entzuteko ta ibiltzeko ezer ez diran uré-zilar-tupiki-zurezko irudiak yauresten isitu ziran osterá, ²¹ beren ilketak, sorginkeriak, izoñkeriak eta lapuñetak iguintzeke.

X

Yon'ek irentsitako idaztiñoa

Beste aingeru azkañ bat ikusi nun ortzitik yeisten, odei bat inguruan ta ozadaña buruan zekañela. Aren aurpegia, eguzkia bezela zan; ta aren oñak, suzko abeak bezela. ² Ezkuan idaztiño bat zabalik zeukan. Ta eskuiko oña itxasoan ta ezkerékoa legoñean ezañirik, ³ leoyak oñu egiten dun bezela, oyu azkañ bat atera zun. Ta oyu egin zuneko, zazpi yuzturiek burunban erausi zuten. ⁴ Ta zazpi yuzturiek erausi zutenean, idazteko nengon, ta ortzitik mintzo bat entzun nun niri esaten: «Zazpi yuzturien esanak burutan yañi itzazu, ta ez idatzi».

⁵ Ta itxas-legoñen gañean zutik egoten nekusan aingeruak, ortziruntz bere eskua yaso zun. ⁶ Ta menderen mendetan bizi dan Arengatik, ortzia ta ango guziak, luña ta ango guziak, itxasoa ta ango guziak soñtu ditun Arengatik zin au egin zun: «Astirik geroenean ez dagoke; ⁷ zazpigañen aingeruak turutaz ots egin beañ du,

ordea, ta egun ayetan beteko da Yainkoaren burupide ostena, bere mo'oi igarleen bidez adirazia».

⁸ Ta entzun izan nun ortziko otsak be'iro itz egin ta ezan zidan: «Zoaz itxas-lego'rganean zutik dagon aingeruagana, ta aren eskuko idaztiño zabala ar' ezazu».

⁹ Ta aingeruagana yoanda, esan nion idaztiñoa niri emateko. Ta esan zidan: «Tori ta yan; sabela mingoiztuko dizu; bañan aoan ezta bezain goxo izango zaizu».

¹⁰ Idaztiñoa aingeruaren eskutik ar'tu ta irentsi nun, ta aoan ezta bezain goxo zan; baña irentsitakoan, sabela mingoiztu zidan. ¹¹ Ta esan zidan: «Be'iro ere enda, e'ri, izkera ta e'rege askotaz igar'i egin be'ar' duzu».

XI

Yainkoaren aitorzale bi

Ta zigo'ra bezelako seska bat eman zidaten, esanez: «Yaiki ta Yainkoaren etxea, opamaya ta ango yauresleak neu' itzazu. ² Yauretxeko atau'ea, be'iz, neu'tzeke utzazu. Atze'ientzat emana baitago, ta ayek be'oge'i ta bi ilabetez iri deuna ostikatuko dute. ³ Neuk ya'ita, be'iz, aitorzale bi, zo'oz yantzirik, irakasten ari izango dira mila ta be'reun ta iruroge'i egunez. ⁴ Auek dira lu'aren Yaunaren au'ean ya'itako oliondo biak eta argimutil biak. ⁵ Ta iñork kalte egin nai ba'lie, ayen aotik suak irtenda etsayak irentsi'ko ditu. O'ela ilbe'ara da gaizki egin nai liekena. ⁶ Auek ortzia isteko esku-bidea dute, ayen alda'ria bitartean euririk yetsi ez dedin;

ura odoldu ere, ta luía, nai luketen bakoitzean, edozein izuriz yo dezakete. ⁷ Ta ayen aitoía egindakoa, pizti batek, lezetik igota, guda egingo die, ta azpiratu ta ilko ditu. ⁸ Ta alegitan Aigito ta Sodoma deritzan iri aundiko zeyetan, ayen Yauna gurutzatua izan zan irian, ayen soñak ilotzik etzanda egongo dira. ⁹ Ta eri, leñu, izkuntza ta enda guzietakoek ayen kaskiak dakusazte, obiratzerik ayentzat utzi gabe. ¹⁰ Ta ayen lepotik bertargitsu ta elkaí adigurika dabilta luíeko lagunak, igaríe biok luíeko lagunei ekaí zizkieten oñazeakatik. ¹¹ Bañan iru egun ta erdi ezkeru Yainkoaren arnas piztugaría soin ayetan sartu zala, zutitu ziran, ta belduí aundia erori zan ayen ikusleen gañera. ¹² Ordun ots aundi bat entzun zuten ortzitik: «Igo zaitezte onara». Ta odeyetan igo ziran ortzira, etsayek zekusaztela. ¹³ Ta ordu artantxe luíikara artan il ziran; ta osterantzekoek, belduítuta, zeruko Yauna goretsi zuten.

¹⁴ Bigarén «ene» au igarotakoan, ara, aurki dago irugaréna.

Zazpigarén turutotsa

¹⁵ Izan ere, zazpigarén aingeruak turuta yo zun; ta zeruan ots aundiak sórtu ziran, esanez: «Gure Yauna bere Kisto'rekin luíbiraren nagusi egin da, ta nagusi dirauke menderen mendetan». ¹⁶ Ta Yainkoaren aitzinean beren aulkietan eseritako ogei ta lau agureek gur egin zioten, ¹⁷ esanez: «Eskeí dagizugu, zeran, ziñan ta zatozken Yainko Yaun guziz altsu Orí, zure al izate aundiz yaiki ta érege yaí zeralako. ¹⁸ Eriak aseíe izan dira;

bañan eldu da zure aseírea, ta ilak ebazteko, zure moíroyei, igaríleei, deunei ta zure izenaren belduí diran txiki-aundiei saria emateko, ta luía kutsatu dutenak poírokatzeko garaya da».

¹⁹ Ordun zeruan yauretxea zabaldu ta yauretxean Itun-kutxa ageri izan zan, tximistak, otsak, luíkarak ta ageta aundiak soítzen zirala.

XII

Emakumea ta iransugea

Ta aítzeko ikuskizun bat zeruan ageri izan zan; emakume bat eguzkiz yantzita, oñazpian ilargia ta buruan amabi izaírezko buruntza bat zekaírela, ² aurí-dun ta erdimiñez gaíaxika ertaldi gaitzaíren.

³ Beste ikuskizun bat ere azaldu zan zeruan; iransuge goí bat, zazpi buru ta amaí adaí zituna, ta zazpi buruntza. ⁴ Aren buztanak ortziko izaíretako erena bosatu ta luíera yaurti zun. Iransuge ura emakume erdi uírenari auríkez yaí zitzayon, aren umea yayo ala iresteko. ⁵ Erdi eginda emakumeak seme bat izan zun, burnizko zigoírez eí guziak yauíko zituna; ta ume ori Yainkoagana ta Aren aulkira atzeman izan zitzayon. ⁶ Emakumeak ordun basora iges egin zun; Yainkoak arentzat atondutako bazteí batean mila ta beíreun ta irurogei egunez azibeára baitzan.

⁷ Zeruan, beíriz, guda piztu zan; Mikel'ek bere aingeruekin iransugeari guda zegion, iransugeak bere aingeruekin gogoí zegiela. ⁸ Ez ziran, ordea, auek garaitu,

ta airezkeru ayentzat ez da zeruan tokirik gelditu. ⁹ Orela iransugetzara, Txeren edo Satan deritzan aspaldiko suge ura, gizadi osoaren liluratzalea, irauli ta luera yaurtia izan zan, ta arekin bere aingeruak ere.

¹⁰ Ta ots aundi bat entzun nun zeruan esaten: «Eldu da onezkeru osasuna, eldu dira gure Yainkoaren indar ta yarauldia ta bere Kisto'ren al izatea; iraitzirik baitago gure senideen salatzalea, gure Yainkoaren aitziñean gau ta egun salatzen zituna. ¹¹ Ta ayek Bildotsaren odolez ta, bizia aintzat artzeke, eriotzaraño itzari egin zioten aitoiez azpiratu zuten. ¹² Poztu zaitezte, beraz, zeruok eta ayetan bizi zeratenok. Zuen zori txara, beriz, lego itxasoena! Aseré goritan zuetara Txeren yetxi da, ba, asti gutxi dala yakiñik».

¹³ Luera iraitzia zala iransugeak ikusi zuneko, seme ura egin zun emakumeari yarañi zitzayon. ¹⁴ Bañan emakumeari arano aundiaren ega biak ezañi zizkioten, basoko bere bazterera egatzeko; ta an, sugearen begitatik alde azten da iru urte ta erdiz. ¹⁵ Iransugeak, beriz, bere aotik ibai besteko ura emakumeari yaurtizion, arangelak emakumea eraman zezan. ¹⁶ Baña luak emakumearen alde egiñik; aoa zabaldu ta iransugeak bere aotik yaurtitako ibaya irentsi zun. ¹⁷ Ordun iransugea, emakumearekin amoratuta, aren ondorengo osterantzekoei, Yainkoaren aginduak betetzen ditutenei ta Yesu aitoitzen dutenei, guda egitera yoan zan. ¹⁸ Ta itxasondaretan atanda aukeratu zun.

XIII

Itxasoko bidutzia

Ta bidutzi bat ikusi nun itxasotik igotzen. Amár adar ta zazpi buru zitun ta adaretan amár alara, ta buruetan birao-izena. ² Nekusan bidutzia leoi nabaía bezela zan; aren oñak artzarenak bezela, ta aoa leoyarena bezela. Iransugeak bere indaía, bere aulkia ta alizate aundia eman zizkion. ³ Aren buruetako batean zauri ilgaí bat ikusi nion; zauri ilgaí ura sendatu zitzayon, ordea; ta gizaki guziak zeíazkion aítuta. ⁴ Ta iransugeak yauretsi zuten, bidutziari al izatea eman ziolako; baita bidutzia ere yauretsi zuten, esanez: «Nor da bidutzi ainbatekorik? Nor arekin buíukatu litekenik?» ⁵ Ele arotsu ta biraoak esateko aoa yesanda zeukan, baita beíogei ta bi ilabetez yarduteko eskubidea ere. ⁶ Ta bere aoa iriki zun, Yainkoa ta Aren izena ta Aren etxola ta zeruan bizi diranak biraokatzen. ⁷ Indaía ere emana izan zitzayon deunei guda egiteko ta ayek azpiratzeko, baita leñu, eíi, izkuntza, ta enda orotako giza-kumeak bere mendean eukitzeko al izatea ere. ⁸ Ta luía luí danetik, eraildako Bildotsaren bizi-idaztian beren izena ez duten luíeko lagun guziek, bidutzia yauretsi zuten.

⁹ Belaíidunak bentzu. ¹⁰ Uztaípera norbait lekaíkena, uztaípera datoíke; ta ezpataz norbait il lukena, ezpataz ilko da. Oírtan datza deunen egonaí ta siñestearen eíoa.

Basoko iizea

¹¹ Beste iize bat ikusi nun legořetik yaikitzen. Arikoak bezela, adař bi zeuzkan, ta iransugea bezela mintzo zan. ¹² Lenbiziko bidutziaren auřean aren al izate osoa zerabilan; ta luřa ta luřeko lagun guziak eratoři zitun zauri ilgařia sendatu izan zitzayon lengo bidutzia yau-restera. ¹³ Ta alatz aundiak zegitzin, sua ortzitik luřera gizaurean eratxirik ere. ¹⁴ Ta lengo bidutziaren auřean alatz egiteko emana izan zitzayon al izatez luřeko lagunak liluratzen zitun, zesayela, ezpataz zaurturik ere bizi zan bidutziaren irudia egiteko. ¹⁵ Adore ta izkuntza ere bidutziaren irudian pizteko, ta bidutziaren irudia yau-resentsia ez luken edonori bizia kentzeko al izatea emana izan zitzayon. ¹⁶ Guziei, txiki-aundiei, aberats-landereiei, yarei-yopuei, xaki bat eskuyean edo bekokian erazaři zien. ¹⁷ Xakia bidutziaren izena edo izen onen zenbakia zan, ta xakia ekařtzeke iñork ezin ezer erosi edo saldu zezaken.

¹⁸ Emen dago yakitekoa. Antzedunak igaři beza bidutziaren zenbakia; giza-zenbaki da-ta. Zenbaki au, beřiz, seireun ta irurogei ta sei da.

XIV

Bildotsa ta Arekin dabiltzanak

Ta ikusi nun; ta ara, Sion`mendi gañean Bildotsa zutik zegon, ta Arekin eun ta beřogei ta lau mila lagun, Aren izena ta Aren Aitarena beren bekokietan

idatzirik zeuzkatela. ² Ta zeruko ots bat entzun nun, uyol-otsa edo yuzturi-buñunba bezelakoa. Nentzun otsa, beñiz, kitara yotzen ari diran kitarazaleena bezelakoa zan. ³ Eresi beñi bat yotzen ari ziran aulki auñean, ta lau iizeen ta agureen aitziñean; ta iñork ezin eresia ikasi zun luñetik erositako eun ta beñogei ta lau mila ayek baizik. ⁴ Auek dira emakume-kutsurik izan ez zutenak, nasgabe baitira. Auek Bildotsari, edonora doan, dañazkionak. Auek Yainkoarentzat eta Bildotsarentzat gizartean erositako askiñak. ⁵ Ta gezuñik ez da ayen aoan yañugi; ez dute akatsik.

Iru aingeruren iragarpenak

⁶ Ta beste aingeru bat ikusi nun zeru erditik egaka, betiko Beñi Ona zeukala, luñeko enda, leñu, izkera, ta eñi guzikoei iragaritzeko, ⁷ ozengi ziola: «Yainkoaren belduñ izan ta Bera goretsazute; eldu da, ba, Aren ebaztaldia. Ortzi, luñ, itxaso ta ituñiak egin dituna yauretsazute».

⁸ Aingeru onen ondotik beste bat ere etoñi zan, esanez: «Erori da, erori, Babilon aundia, bere izoñkeri-ardo z eñi guziak mozkoñtu zituna».

⁹ Ta biñon ondotik beste aingeru bat etoñi zan, ozengi esanez: «Iñork bidutzia edo aren irudia yauretsi, edo aren xakia bekokian naiz eskuyean arñtu bañlu, ¹⁰ oñek ere Yainkoaren aseñe-ardo utsalaren samioñontzitik edan beañko du, ta aingeru deunen ta Bildotsaren begitan su ta sulburtan oñazeak arñtu. ¹¹ Oñelakoen oñaze-kea menderen mendetan gora datoñke, ta atsedetik ez da gauez

ez egunez izango bidutzia edo aren irudia yauretsi, edo aren izenaren xakia artu zutenentzat».

¹² Or dago Yainkoaren aginduak eta Yesu'ren siñes-
tea betetzen ditutenen egonaia.

¹³ Ta ots bat entzun nun zerutik niri esaten: «Ida-
tzazu; Yaunarengan il diranak jauek zori ontsuak! Izan
ere, dio Gogoak, neke ondoren atsedean artu beari dute;
beren egiñak baitaiaizkie».

Aingeru itailariak

¹⁴ Ta ikusi nun, ta ara odei zuri bat, eta odeigañean
Gizasemea zirudin norbait eserita, buruan urzko bu-
runtza ta eskuan itai zoñotz bat zeukala. ¹⁵ Ta beste ain-
geru batek, yauretxetik irtenda, odeyea eseriarri ozengi
ots egin zion; «Sañtu itaya, ta itaitu; eldu da, ba, itaroa,
ta luñeko uzta zori egin da». ¹⁶ Odeyea eseriak bere
itaya luñari ezañi zion, ta luña motz gelditu zan.

¹⁷ Ta zeruko yauretxetik beste aingeru bat irten zan,
onek ere itai zoñotz bat zekañela. ¹⁸ Ta beste aingeru
batek, sua bere mendean zeukanak, opamaitik irtenda,
itai zoñoztunari ozengi ots egin zion: «Sañtu itai zoñotz
ori, ta luñeko mastiaren mordoak moztu; aren matsak
eldu egiñak baitira». ¹⁹ Aingeruak bere itaya luñari ezañi
zion, luñeko mastia moztu zun, ta Yainko aseñearen
tolare aundira mordoak bota zitun. ²⁰ Ta iritik alde
tolarea ostikatua izan zala, odola tolaretik zaldien mu-
tuñeraño edatu zan mila ta seireun estadiko eremuan.

XV

Zazpi antuxin zazpi aingeruri emanak

Beste ikuskizun aundi ta ariñak bat ikusi nun zeruan; zazpi aingeru zazpi elkaitz zeuzkatela; azkeneko elkaitzak gero; ayen bidez Yainkoaren aseréa asaskatuko baitzan.

² Ta su-leizko zirudin itxaso bat ikusi nun. Leizko itxasgañean, beñiz, bidutzia ta aren irudia ta aren izenaren zenbakia oinperatu zutenak zutik zeuden, Yainkoaren kitaraz ³ Mois'en eresia ta Bildotsarena yotzen, esanez: «Aundi ta ariñak dira zure egiñak, Yainko Yaun guziz altsu Ori; zuzen ta ziriñak zure bideak, érien Érege Ori. ⁴ Nor ez da zure belduñ izango, ta nork ez du zure izena goretsiko, Yauna? Zu bakañik guren baitzera. Éri guziak etoñi ta zure aurean auzpeztuko dira, zure asmoak agiri dira-ta».

⁵ Onen ondotik zeruan Itun-etxolaren yauretxea nere begitan iriki zan, ⁶ ta zazpi elkaitzak zeuzkaten zazpi aingeruak irten ziran, liño garbi ta zuriz yantziak eta úrezko itoltzez geñikatuak. ⁷ Lau iizeetako batek zazpi aingeruoi úrezko zazpi antuxin eman zizkien; antuxiñak, beñiz, menderen mendetan bizi dan Yainkoaren aseréz beterik zeuden. ⁸ Ta yauretxea Yainkoaren ospez ta al izatearen kez bete zan, zazpi aingeruen zazpi elkaitzak igaro arte, iñor artan sartu ezin zala.

XVI

Antuxiñak ustuta

Ta ots bat entzun nun zazpi aingeruei esaten: «Zoazte, ta Yainkoaren asezez betetako zazpi antuxiñak luřgañera ustu itzazute».

² Lenak, beraz, yoanda, bere antuxiña luřgañera ustu zun; ta zauri txar ta nazkagañiak sořtu ziran bidutziairen xakia zutenengan ta aren irudia yauretsi zutenengan.

³ Bigařenak bere antuxiña itxasgañean ustu zun; ta saraski-odola bezelako biurřtu zan, ta itxasoko bizidun guziak il ziran.

⁴ Irugařenak bere antuxiña ibai ta ituñien gañean ustu zun; ta guziak odoldu ziran. ⁵ Ta uretako aingerua entzun nun esaten: «Zuzen zera Zu, zeran ta ziñan Guren Ori, erabaki ontan. ⁶ Deunen ta igañleen odola ixuri dute, ta odola eman diezu edateko; zoř zayena dute». ⁷ Ta beste bat entzun nun opamaitik esaten: «Bai, Yainko Yaun guziz altsu Ori, zin ta zuzenak dira zure asmoak».

⁸ Laugařenak bere antuxiña eguzkigañean ustu zun, gizakiak sutan txigořtzeko eskubidez. ⁹ Bero aundiařen txigořtuta, gizakiak zebiltzan, alako gaitzez oñazetu zitzaken Yainkoaren izena biraokatzen, ta ez ziran Bera gorestekoko biurřtu.

¹⁰ Boskařenak bere antuxiña bidutziairen aulkian ustu zun; ta aren yaurería ilunik gelditu zan; ta miña-

ren miñez gizakiak norberaren mingañari ozka ari ziran, ¹¹ zeruko Yainkoa min ta zaurien eragitez biraokatzen; ta ez ziran beren gaiztakeriaz garbai izan.

¹² Seigaírenak bere antuxiña Euprate ibai aundian ustuzun; ta aren ura idortu zan, eguzki aldeko éregeentzat bidea gertutzeko.

¹³ Ta iransugearen aotik, eta sasi-igaílearen aotik igel-antzeko iru ats satsu irteten ikusi nitun. ¹⁴ Txeíren-ats alazkile dira auek, eta luíalde guzietako éregeengana yotzen dute, Yainko guziz altsuaren egun aundi artako gudarentzat ayek biltzeko. ¹⁵ «Ona emen natoí, lapuía bezela. Zori ontsua ernai dagona ta bere yazkiak berekin dauzkana, laíugoí ez ibiltzeko, aren lotsagaíak inork ikus ez ditzan». ¹⁶ Ta bilduko ditute eberkeraz Armagedon deritzan landan.

¹⁷ Zazpigaírenak bere antuxiña eguratsean ustuzun; ta yauretxeko aulkitik mintzo ozen bat ilki zan esanez: «Oírenak egin du». ¹⁸ Ta gizakumeak luígañean diranetik ez da ainbesteko luí-ikararik inoiz ere ikusi. ¹⁹ Iri aundia iru zati egin zan, atzeíko iriak irauli ziran, ta Babilon aundiaz Yainkoa oroitu zan, bere aseíe-ontzitik ardoa ari emateko. ²⁰ Ugarte guziek iges egin zuten, ta mendirik ez zan inon aurkitu. Talanta banako aíaabaak ere gizakumeen gañera yausi ziran ortzitik; eta gizakumek Yainkoari birao zegiote oírelako aíteagatik.

XVII

Babilon'en tankera

Zazpi antuxiñak zeuzkaten zazpi aingeruetako bat, nigana elduta, mintzo zitzaidan, esanez: «Zatoz ta erakutsiko dizut ur askoren gañean eserita dagon ematxañ aundiaren ondikoa. ² Arekin nasi dira luñeko éregeak, eta aren zantañkeri-ardoz moskoñtu dira luñean bizi diran guziak. ³ Ta basora irudimenez eraman niñun. Emakume bat an ikusi nun birao-izenez kunkuñ, ta zazpi buru ta amañ adañeko bidutzi goñi baten gañean eserita. ⁴ Aren soñekoa ubel ta goñia zan; uñez, istañiz ta perlaz apainduta zegon; ta eskuan uñezko ontzi bat iguingañiz kunkuñ, ta bere izoñkeri-satsa zeuzkan; ⁵ bekokian, beñiz, izen au idatzita: «Misteri; Babilon aundia, luñeko zantañ ta nazkagañien ama». ⁶ Emakume ori deunen odolez ta Yesu'ren aitoñtzaleen odolez ordi zegola ikusi nun, ta ikustean, oso añitu nintzan.

⁷ Ta aingeruak esan zidan: «Zer dala-ta añitu? Nik azalduko dizut emakumeaz ta bera gañean daroan zazpi buru ta amañ adañeko bidutzi az igañtzekoa». ⁸ Ikusi duzun bidutzia len zan ta orain ez da; ta lezetik igo ta ondatzekoa da. Ta luña asi zanetik beren izena bizi-idaztian ez duten luñeko guziak añituko dira, bidutzia ikusirik, izanda gero ez dala, beñazalduko da-ta.

⁹ Emen beañ da buru argia. Zazpi buruak, emakumea gañean eserita duten zazpi mendi ta zazpi érege

dira. ¹⁰ Bost erori egin dira; bat or' dago; bestea ez da oraindik etorri; ta dato'kenean, labur' iraunbe'ra da. ¹¹ Len zan ta orain ez dan bidutzia, zortziga'ena da, zazpietakoa gero; ta pu'ut eginbe'ra da. ¹² Ikusi dituzun ama' adak, yauraldia oraindik ar'tu ez duten ama' e'gege dira; ba'nan apu' bateko ere, agintea ar'tuko dute bidutziaren ondotik. ¹³ Asmo berbera dute auek, eta beren inda' ta al izatea bidutziaren alde darabilte. ¹⁴ Bildotsari guda egingo diote, ta Bildotsak azpiratuko ditu, yaunen Yauna ta e'gegeen E'gege dalako. Arekin daudenak, be'riz, deitu, autu ta si'nestunak dira.

¹⁵ Ta esan zidan: «Ematxa'ra eserita dagon tokian ikusi dituzun urak, e'ri, laguntalde, enda ta izkuntzak dira. ¹⁶ Ta ikusi dituzun ama' adak, baita bidutziak ere, ematxa'ra go'oto izango dute, mu'ri ta soil utzirik; ta aren aragiak yango ditute, ta sutan e'keko dute. ¹⁷ Yainkoak ayen biotzak eragin ditu, ba, gogo batez bere asmoa erabili dezaten, ta beren al izatea bidutziari eman dezayoten Yainkoaren itzak burutu arte. ¹⁸ Ta ikusi duzun emakumea, lu'eko e'gegeen ga'nean agintea daukan iri aundia da».

XVIII

Babilon'en porokaldia

Auek ezkerro, beste aingeru bat ikusi nun zerutik yeisten al izate aunditan; ta aren istaz lu'ra argitsu egin zan. ² Ta inda'rtsuki ots egin zun esanaz: «Erori

da, erori, Babilon aundia, ta txerendegi, gogo satsugu-
zuzien obi, ta txori satsu ta iguingaí guzien kabi egin
da; ³ aren zantaíkeri amoíatuaren ardotik eí guziek
edan dutelako, ta luíeko éregeak arekin nasi ta sale-
rosle guziak aren legunkerien mamiz aberastu diralako».

⁴ Ta zerutik beste ots bat entzun nun esaten: «Alde
arengandik, ene eí ori, aren gaiztakeriz kutsutu ez
zaitezten, ta aren okeí-saritik ezer ere eldu ez dakizuen.
⁵ Aren ogenak ortziraño metatu baitira, ta aren okeí-
kerietaz Yainkoa oroitu da. ⁶ Ark eman dizuen ordaña
itzuliozute, ta beste ainbeste ere bai, aren egiñen arauz;
edaten eman dizuen ontzian emayozute, ta beste ain-
beste ere bai. ⁷ Goratu ta legunduta bizi izan dan
giñoan, negaí ta min ekazkiozute. Bere biotzean dio:
Éregiña aulkian nago; ez naiz alargun, ta negaík ez
dakusket. ⁸ Argatik, egun batean bere gaitzak, eriotza,
negaí ta gosea datozkioke, ta sutan éreko da; bera eba-
tziko dun Yainkoa indaítsua dalako.

⁹ Arekin nasi ta legunduta bizi izan diran éregeak
artzaz negaí ta erostan ibiliko dira, aren éretaldiko kea
ikustean. ¹⁰ Ta aren oñazekiko belduéz urútian egonik,
esango dute: ¡Ene bada, ene! iri aundia, Babilon iri
indaítsua! bat batean ireak egin din. ¹¹ Negaéz ta
erostaz dabilta azokariak ari buruz, azokagairik iñork
ez baitio onezkero erosten; ¹² ez uré, zilar, istaí ta
perlarik; ez liño, purpur, seda ta eun goírik; ez zur
usaintsurik, ez ebuík; ezta aí bikañez, tupikiz, burniz,

⁶ eman dizuen ordaña = egin dizuen kaltearen ordaña.

naiz marmolez egindako atuxik ere; ¹³ ez kanel, usai-mats, luñin, gantzuki ta lerdorik; ez ardo, olio, irin ta garirik; ez zamari, gibeñi ta gurdirik; ez yopu, ez giza-kumerik. ¹⁴ Agozagañi itunan arnariak, iregandik urutira ditun; guri ta argi dan guzia irean galdu dun ta inork ez din idoroko. ¹⁵ Guzion salketan arekin aberastan ziranak, aren onazekiko belduñez, arengandik urun egongo dira, negar ta erostan ¹⁶ esanaz: ¡Ene bada, ene! Iri aundia, liño bikañez ta oyal ubel ta goriz yazten, ta istariz ta perlaz apaintzen zan iri gaxoa! ¹⁷ Orenbesteko aberastasuna bat batean suntsitu da. Ta ontziburu guziek, eta itsasoz andik dabilzan guziek, itxasmutilek eta itxaslanean ari diran guziek, urun yarita, ¹⁸ aren eretaldiko kea ikustean, oyuka zioten: Zein iri, iri aundi onen idekorik? ¹⁹ Ta norberaren burugañean autsa edatuz, ots zegiten esanez: «¡Ene bada, ene! Iri aundi onetan aberats egin dituk itxasontziren yabe guziak, eta or zegok bat batean muñituta.

²⁰ Pozez yauzi zaitezte zuek, zeru, deun, bidali ta igarleok! Aren aurka zuen auzia Yainkoak ebatzi du-ta».

²¹ Ordun aingeru sendo batek igara-ari beteko ari bat yaso ta itxasora yaurti zun, esanez: «Onelako oldarez Babilon iri aundia iraitziko dute, ta ez da arezkerroan ageriko. ²² Bein ere ez dun irean kitara-otsik entzungo, ez eresirik, ez txisturik, ez turutarik; arotzik ez dun gauñdanik ezertarako aurkituko; igara-kalakarik ez dun irean inoiz ere adituko. ²³ Zuzik irean ez din gerokoan argi egingo; ta ezkonberien erausirik ez dun beriro irean entzungo; ire azokariak luñeko aundikiak

itunalako, ta ire sorginkeriz eñi guziak liluratu ditunalako. ²⁴ Irean berebat aurkitu duk igarñe ta deunen odola ta luñean ilerazitako guziena».

XIX

Zeruko poza

Gero laguntalde aundien buñunba bezelako ots bat zeruan entzun nun esaten: «Aleluya! Osakuntza, ospe ta al izatea gure Yainkoari dagozkio. ² Zin ta zuzen baitira Aren epayak. Ematxañ aundia, loikeriz luña usteltzen ari zana, ebatzi dulako, bere moñoyen odola aren lepotik apenduz». ³ Bigañenez «Aleluya» esan zuten. Ta aren kea menderen mendetan gora diyoa.

⁴ Ta ogei ta lau agureek eta lau iizeek Yainkoa yau-
retsi zuten auzpezturik, esanez: «Ala biz; aleluya». ⁵ Ta mintzo bat aulkitik soñtu zan, esanez: «Gure Yainko
koa goretsazute Aren moñoi guziok, eta Aren belduñ
zeratenok, txiki-aundiok».

⁶ Ta gizatalde aundien zarata, uyolaren oñua ta yuz-
turi zakañen buñunba añeko ots bat entzun nun esaten:
«Aleluya; gure Yainko Yaun guziz altsua, eñege yaiki
da-ta. ⁷ Poztu ta yauzi gaitezán, Bera goretsirik, Bil-
dotsaren ezteyak eldu diralako, ta aren emaztegaya
gerturik dagolako, ⁸ liño aratz ta zuriz yazteko aukera
eman diotela. Liño ori, beñiz, deunen egite onak dira».

⁹ Ta esan zidan: «Idatzazu. Bildotsaren ezteyetako

aparira deituak ¡auek zori ontsuak!» Ta beíro: «Yainkoaren itz ziñak dira auek».

¹⁰ Ordun aren oñetara auzpeztu nintzan bera yau-resteko. Bañan esan zidan: «Oírelakorik ez; zure ta Yesu'ren aitoía duten zure anayen moíokide nauzu; Yainkoa yauretsazu; Yesu'ren aitoía, igártzeko atsa da-ta».

Bidutziaren poíokaldia

¹¹ Ordun zerua ikusi nun zabalik; eta ara, zaldi zuri bat, eta aren gañean eseria Kirmen ta Egizale deritza, ta ebazketan ta gudan zuzen da. ¹² Begiak ditu su-gaíren antzekoak; buruan alara asko ta Berak baizik iñork ez dazagun izen bat idatzita. ¹³ Aren soñekoa odol-zipriztiñez beterik zegon, ta Aren izena Yainkoaren Itza da. ¹⁴ Zeruko gudosteak zaldi zuritan zeíraizkion, liño garbi ta zuriz yantzita. ¹⁵ Aotik sorbatz biko ezpata bat sórtzen zayo, eíak sakailtzeko. Burnizko zigoíez yauíko ditu, ta Yainko guziz altsuaren aseíe miñaren tolarea Berak ostikatzen du. ¹⁶ Bere soñekoan ta iztaíean idatzita dauka: **Eíegeen Eíege ta yaunen Yauna.**

¹⁷ Ta aingeru bat eguzkian zutik ikusi nun, egurats-ean baína egaka zebiltzan egazti guziei oyu aundiz esaten: «Zatozte, ta bildu zaitezte Yainkoaren apari aunditarako. ¹⁸ Eíegeen aragiak, eta indaítsuen aragiak, eta zaldi ta zaldizkoen aragiak, eta yarei ta yopu guzien aragiak, eta txiki ta aundien aragiak yan beaí dituzute».

¹⁹ Ta bidutzia, ta luíeko eíegeak. eta beren gudosteak ikusi nitun zaldizkoari ta Aren gudosteari guda

egiteko bilduak. ²⁰ Eta bidutzia atzemanan izan zan, eta arekin sasi-igarlea, aren aurrean alatzak egiten zituena, ta ayen bidez bidutziaren xakia artu ta iduria yaurresten zutenen liluratzale izana, eta biak, bizirik, yaurtiak izan ziran sulbuñez irazekitako su-idoira. ²¹ Beste guziak zaldigañekoaren aotik sortzen zan ezpataz il ziran, ta egazti guziak ayen aragiz ase ziran.

XX

Mila urteko yauraldia

Ta aingeru bat ikusi nun zerutik yeisten, lezearen giltza ta kate aundi bat eskuan ekañki. ² Ta iransugea, Txeren edo Satan dan antziñeko sugea, atzi ta mila urteko loturik, ³ lezera yaurti zun, gaña zildaiz itxirik, mila urte baruan inor beriz atzipetu ez dezan. Epe onen ondoan, bai, apur bateko askatubea da.

⁴ Aulki batzu ere ikusi nitun; ta ayetan eseriei, ebazteko eskubidea emana izan zitzayen. Berebat Yesu'ren aitoragatik eta Yainkoaren itzagatik lepo egiñen gogoak ikusi nitun, baita bidutzia edo aren irudia yauretsi ez zutenak, baita aren xakia beren bekokian naiz eskuan artu ez zutenak ere. Guziok bizitara itzuli ta Kisto'rekin erege izan dira mila urtez. ⁵ Beste ilak ez ziran bizitara

^{4, 5} **mila urtez.** Urteok, Agustin deunak dionez, Kisto'ren eriotzatik azken egunetarakoak bide dira; **mila** emen, askotan bezela, kopuru aundizat esaten dala. Bitarte ontan, zintzoki ildako siñestunen gogoak edo arimak zeruan bizi dira. Ara lenbiziko berpiztea. Besteentzat, beriz, ez dago lurrean ez zeruan bizitarik, miñetarako baizik. Ara bigaren eriotza, edo betiko gaitzespena.

itzuli, mila urte igarotakoan baizik. Ori da lenbiziko berpiztaldia. ⁶ ¡Zori ontsu ta gurena, lenbiziko berpiztea iritsi duna! Alakoei buruz eskubiderik ez du bigaeren eriotzak. Ostera ere, Yainkoaren ta Kisto'ren apaiz izango dira, ta Arekin mila urteko erege.

Satan'en porokaldia

⁷ Mila urteok igarotakoan; Satan bere bagitegitik yarei ⁸ irtengo da lurreko lau ertzetan dauden ta itxasoko ondarak ana diran eriak, Gog eta Magog, axatzearen ta gudarako biltzearen. ⁹ Ta lur zabalera igorik, deuned etzauntza ta iri maitagarria erdian artu zituten. Bana Yainkoak ortzitik eratxitako suak irentsi zitun; ¹⁰ ta tuxuria, ayen axatzalea, sulbur ta suzko idoira amildua izan zan, bertaraxe bidutzia ta sasigarlea zeraizkiolarik, onazetan gau ta egun bein betiko an egonbearez.

Il guziekiko epaya

¹¹ Ordun aulki aundi zuri bat ikusi nun. Artan norbait eserita zego; ta Aren aurpegitik ortzi-lurak igesi ziran, tokirik ayentzat azaldu ez zala. ¹² Ta ilak ikusi nitun aulki aurrean zutik, txiki-aundiak. Idazti batzu zabaldu ziran. Beste idazti bat ere, Bizi-idaztia, zabaldu zan; ta ayetan idatzitakoen arauz, ilak ebatzi ziran, norberaren egiñei zegokienez. ¹³ Ta itxasoak bere alzoan zeuntzan ilak itzuli zitun; erio ta lurpeak ere berenak itzuli zituten; ta bakoitzari epaya eman zitzaion bere egiñen arauz. ¹⁴ Ordun erio ta lurpea yaurtiak izan ziran suzko idoitara. Au da bigaeren eriotza. ¹⁵ Ta

Bizi-idaztian norbait aurkitu ez ba'zan, su-idoira yaurtia izan zan.

XXI

Ortzi ta lu' be'riak

Ta ortzi be'ri bat eta lu' be'ri bat ikusi nitun. Lengo ortzia ta lengo lu'a yoanak baitziran, ta itxasorik onezkero ez dago. ² Ta iri deuna, Yerusalen be'ria, zerutik Yainkoaketz yeisten ikusi nun, ezkonbe'ria sena'arentzat bezela apainduta. ³ Aulkitikako ots aundi bat ere entzun nun esaten: «O'ra Yainkoaren etxola gizartean. Bizilagun izango zaye. Aren e'ria izango dira; ta Yainkoa Bera ayekin egongo da ayen Yainkostat. ⁴ Begietako malko guziak txukatuko dizkie; ta ez da au'rerontzean eriotzarik izango, ez nega'rik, ez ga'raxirik, ezta mi'nik ere; lengoak igaro baitira».

⁵ Ta aulkian eseriak esan zun: «O'ra, Nik eginda, dana be'ri». Ta esan zidan: «Idatzazu; zin ta egitsuak baitira nere itzak». ⁶ Ta be'riz: «Egi'na da. Ni naiz α ta ω ; lena ta azkena. Nik ega'ri danari ur bizia darion itu'ritik edaten damayoket utsean. ⁷ Ondare au garaitza-leak eukiko du, ta alakoari Yainko izango natzayo, ta bera seme izango zait. ⁸ Kelmenek, be'riz, si'nesgogo'ri, nazkaga'ri, gizerale, zanta'ri, azti, irudizale ta gezu'rti guziek su ta sulbu'ezko irazekian beren yarauntsia daukakete. Au da biga'ren eriotza».

Yerusalen beía

⁹ Ordun azkeneko zazpi elkaitzez betetako zazpi antuxiñak zeuzkaten zazpi aingeruetako bat enegana etoñi ta mintzo zitzaidan, esanez: «Zatoz, ta erakutsiko dizut Bildotsaren ezkonbeñi maitagaña». ¹⁰ Ta mendi aundi ta garai batera irudimenez yaso niñun, ta Yerusalen iri deuna erakutsi zidan, zerutik Yainkoaketz yeisten, ¹¹ Yainkoaren aintza zeriola. Aren ista, añi dirdirtsuena ta yaspi gardenarena bezela zan. ¹² Esi aundi ta garai bat zeukan; esian, beñiz, amabi ate ziran, aingeru bana ta izen bana gañean idatzita zutela. Ta izenok Israeldaren amabi leñuenak dira. ¹³ Soñtaldean iru ate; ipañaldean iru ate; egoaldean iru ate; ta sañtaldean iru ate. ¹⁴ Iriko esiak amabi oñañi zeuzkan, ta ayetan Bildotsaren amabi bidalien amabi izenak.

¹⁵ Nerekin zerausanak uñezko neuraña zeukan, iria ta aren ateak eta esia neurtzeko. ¹⁶ Iria lauko bat da, luze bezain zabal; ta uñezko neurañaz iria neurturik, amabi mila estadi zenbatu zitun, luzera, gora ta zabalera berdin dirala. ¹⁷ Ta iriko esia neurturik, eun ta beñogeñi ta lau beserdi zenbatu zitun, giza-neuritan aingerua ari baitzan.

¹⁸ Esia, yaspi-añiz egiña zan; iria bera, lei garbi antzeko uñe garbiz. ¹⁹ Esi-azpiak edotariko añi bikañez apainduta daude; lenbiziko azpia, yaspi; bigaena, sapir; irugaena, kalkedoi; laugaena, esmeral; ²⁰ boskaena, sardoni; seigaena, sardi; zazpigaena, krisolit; zortzigaena, beril; bederatzigaena, topazi; amañgaena, kri-

sopras; amaikagařena, yakinto; amabigařena, ametista. ²¹ Amabi atepak amabi perla dira; ate bakoitza, perla bat; ta iriko zeya, lei gardena bezelako ur̄e uts. ²² Yauretzerik artan ez nun ikusi; ango yauretxea Yainko Yaun guziz altsua ta Bildotsa baitira. ²³ Iriak ez du eguzki-ilargien beařik argitua izateko; Yainkoaren argiak argitzen du, ta ango zuzia Bildotsa da. ²⁴ Argi ontan ibiliko dira eřiak; eta luřeko eřegeek beren ospea dakařkiokete. ²⁵ Aren atepak ez dira egunean egunean itxiko, gaurik an ez daitekkelako. ²⁶ Artara eřien ospe ta dedua ekařiko ditute; ²⁷ ta ez da an satsurik ezer sařtuko, ezta nazkagaři edo gezuřti danik ere, Bildotsaren bizi-idaztian izena dutenak baizik.

XXII

Zeruaz areago

Gero ur bizizko ibai bat erakutsi zidan, leya bezain argi, Yainkoaren ta Bildotsaren aulkitik zeriola. ² Iriko zeı erdian ta ibai ertz bietan bizi-zugatzak, amabitan, ilabetean bein, arnari eta ostoak eřiaren osabiderako ekařtzen dituna. ³ An ez da iřoiz ere birao-gařirik izango; Yainkoaren ta Bildotsaren aulkia, bai, an dagoke, ta Aren mořoyek yauretsiko dute, ⁴ ta Aren auřpegia dakuskete, ta Aren izena bekokian dakařkete. ⁵ Gaurik an ez daiteke, ta zuzi naiz eguzki-argiren beařik ez dukete, Yainko Yauna argi zayelako.

⁶ Ta esan zidan: «Zin ta egitsu dira itzok; eta igařmena igařleeı damayon Yainko Yaunak bere mořoyei

bere aingerua bidaliko die, aurki gertubearak ayei erakusteko. ⁷ Ta ara, laster nato. ¡Zori ontsua idazti ontan auresanak bete litukena!»

A z k e n a

⁸ Neraunek, Yon onek, guziok ikusi ta entzun ditut. Entzun ta ikusitakoan, beriz, zerakusazkidan aingeruaren onetara auzpeztu nintzan, bera yauresteko. ⁹ Bañan esan zidan: «Ez ori egin; zuk, eta zure anai igarleek, eta idazti ontan auresanak bete ditutenek, moioikide nauzute-ta. Yainkoa yauretsazu».

¹⁰ Ta esan zidan: «Ez itxi zildaipen idazti ontan auresanak; garaya urbil baitago. ¹¹ Zitala, zitalago biur bedi; zikiña, zikiñago; zuzena, zuzenago; ta deuna, deunago. ¹² Ara, laster nato, saria Nerekin ekaiki, bakoitzari bere eginen arauz ordaña emateko. ¹³ Ni naiz α ta ω ; lena ta azkena; asiera ta amaya: ¹⁴ ¡Zori ontsuak, beren soñekoa garbitzen dutenak, bizi-zugatzetik yan ta ateetatik irira sartu al izateko! ¹⁵ Utikan zakur, sorgin, zantar, gizerale, ta gezura maite ta egiten duten guziak!

¹⁶ Neuk, Yesu Onek, nere aingerua bidali dizuet elizekiko guzion aitoztale. Ni naiz Dabid'en ero ta yatorikoa, goizeko izar argitsua».


¹⁷ Ta Gogoak eta Emazteak diote: «Zatoz». Dantzunak ere «Zatoz» bio. Beto egañi dana ere, ta naidunak bizirako ura ar beza utsean.

¹¹ **Gogoak**, edo Goteunak siñestunen biotzetan; ta **Emazteak**, edo Elizak, Goteunaren eragitez.

¹⁸ Ara, beñiz, idazti ontan auñesanak entzun litukenari aitoñtzen diodana: Zerbait iñork geituko ba'lie, Yainkoak alakoari idazti ontan idatzitako elkaitzak leporatuko dizkio. ¹⁹ Ta igarñkuntza onen itzetako bat ere iñork kendu ba'lu, alakoaren laña Yainkoak kenduko ere du bizi-zugatzetik eta iri deunetik eta idazti ontan esan diranetatik».

²⁰ Guziok aitoñtzen ditunak dio: «Bai; laster natoñ». Ala biz. Zatoz, Yesu Yauna.

²¹ Bego deun guziekin Yesu Yaunaren adeya. Ala biz.



BIĻABIDEA

BERI ONA

Matai D.

- I Yesu'ren etořkia, 3. Yesu'ren sořkundera, 5.
- II Aztiak Arengana, 6. Aigito'ra igesi, 7.
- III Yon Ukuzlea, 8. Yesu'ren ukuzpena, 10.
- IV Yesu'ren barutea ta zirikalđiak, 10. Yesu Kaparnaun'en, 11. Lenbiziko deituak, 11. Bazteřik bazteř irakasten, 12.
- V MENDIKO ITZALDIA. – Zori ona, 13. Lege Beřia Zařari buruz, 13.
- VI Nola ukař, otoi ta baru egin beař, 17. Emengoak nardatuz, zerukoetara yo beař, 18.
- VII Irizkeriaz, 19. Otoirako aolkua, 20. Zerurako bidea, 20. Itzaldiaren amaya, 21.
- VIII Legenařduna, 22. Kaparnaun'go euntaria, 22. Beste sendakuntza batzu, 23. Ekaitza ibituta, 24. Gadara'ko txeřendunak, 24.
- IX Kaparnaun'go elbařia, 25. Matai'ri egindako deya, 25. Yon'en ikasleak, 26. Odol-yario-duna ta Yair'en alaba, 26. Itsu biren sendakuntza, 27. Mintzula, 28.
- X Bidaliak arlora, 28.
- XI Yon Ukuzlearen geznariak, 31. Yon Ukuzlearen goraldia, 32. Siņetsi beařean sakeře, 33. Kisto'ren uztařia, 33.
- XII Larunbataz, 34. Txeřendun itsu ta mintzula, 36. Goteunaren auřkako ogena, 36. Ezagupide ziņa ta parisaitařak, 37. Yesu'ren etxarikoak, 38.
- XIII Alegiak: ereilea, 39. Iraka, 40. Yeben-azia ta orantza, 41. Iraka-alegiaren mamia, 41. Altxoř ostena, txirlařia ta sarea, 42. Yesu bere eřian, 43.

- XIV Yon Ukuzlearen eriotza, 43. Ogi ugarituak, 44. Ekaitza ibituta, 45. Genesaret'eko sendakuntzak, 46.
- XV Paraisaita'eren azakeria, 46. Kanaan'da'ra, 48. Ogiak be'iro ugarituta, 49.
- XVI Parisai ta sadukaita'arak ata'ratuta, 49. Kepa, Elizaren o'na'ri, 50. Nekaldiaren iraga'rketa, 51. Norberari uko egin bea'raz, 52.
- XVII Yesu'ren antzalda, 52. Alditsuaren sendakuntza, 53. Zergaz, 54.
- XVIII Au'rtxoak eta gaitzeratzaleak, 55. Senidetarteko uts egi'netan nola yardun, 56. Irain-askes-teaz, 57.
- XIX Eskontzaz ta eskontza-austeaz, 58. Au'rtxoak, 59. Gazte aberatsaren naigabea, 59. Oldez lande'ri egi'nak, 60.
- XX Mastiko nekazariak, 60. Yerusalen'ako bidean, 62. Zebedai'ren semeak, 62. Itsu biren sendakuntza, 63.
- XXI Yesu Yerusalen'en sa'rtzen da, 63. Yauretxeko salketariak, 64. Pikondo iga'rtua, 65. Yesu'ren eskubidea, 66. Mastiko nekazari oke'rak, 67.
- XXII Ezteyeta'ra deituak, 68. Kaiser'entzako zergaz, 69. Be'rpizteaz, 70. Kisto'a ta Dabid, 71.
- XXIII Parisaikeria, 72.
- XXIV Yerusalen'en itxesa ta ludiaren amaya, 75. Kisto'ren eto'ra, 76.
- XXV Neska ergelak eta gu'rbilak, 78. Talantak, 79. Azken epaya, 81.
- XXVI Azpisugea kirika, 82. Betani'ko oturuntza, 82. Azken Aparia, 83. Oliamendiruntz, 84. Getsemani'ko naigabea, 85. Yesu atzituta, 86. Kai-pa'renean, 86. Kepa'ren izpitzoak, 87.

- XXVII Kaipa'rengandik Pilat'engana, 88. Yuda'ren amaya, 88. Pilat'enean: galdetaldia, 89. Yesu ala Baraba?, 89. Arantzazko buruntza, 90. Gurutzaldia, 91. Yesu'ren eorzipena, 93. Paraskebe u'enean, 93.
- XXVIII Yesu be'rpiztuta, 94. Apaizpuruen ma'roak, 95. Yesu'k bidaliei egotzitako eginbea'ra, 95.
-

Mark D.

- I Yon Ukuzlea, 97. Lenbiziko ikasleak, 98. Kaparnaun'go txe'renduna, 99. Simon'enean, 100. Galilain'n ba'rna: legena'rduna, 100.
- II Elba'rduna, 101. Lebi deituta, 102. Baruaz, 103. Larunbatuz, 103.
- III Larunbatuz be'riro: esku-iga'ra, 104. Amabi bidalien aukera, 105. Idazlarien zitalkeria, 105. Yesu'ren Ama-senideak, 106.
- IV Ereile'a, 106. Alegi onen mamia, 107. Alegi-txortabat, 108. Ekaitza ibituta, 109.
- V Gadara'ko txe'renduna ta urdaldea, 109. Odol-yarioduna ta Yair'en alaba, 111.
- VI Yesu Nazaret'en, 112. Amabiak deitzale bidalita, 113. Yon Ukuzlearen eriotza, 114. Amabien itzulera, 115. Ogiak ugarituta, 115. Ur ga'nean ibilki, 116. Genesaret'eko sendakuntzak, 117.
- VII Parisaita'ren ekanduak, 117. Kanaanda'ra, 119. Go'f-mintzula, 119.
- VIII Ogiak be'riro ugarituta, 120. Parisaita'ren orantza, 121. Betsaida'ko itsua, 122. Kepa'ren aito'ra, 122.
- IX Yesu'ren antzalda, 123. Mutil alditsua, 124. Ikasleei azaldutako ikaskizun batzu, 125.

- X Ezkontza-austeaz, 127. Yesu ta aurtxoak, 128. Gazte aberatsa, 128. Yesu'rengatik dana utzi dutenen saria, 129. Aurki Yesu il ta be'piztuko dala, 129. Zebedai'ren semeak, 130. Yeriko'ko itsua, 131.
- XI Yerusalen'a sa'rtze ospetsua, 131. Pikondo birakotua, 132. Yauretxeko salketariak, 132. Pikondoa iga'rtuta, 133. Yesu'ren eskabideaz, 133.
- XII Mastiko nekazari oke'ak, 134. Kaisar'entzako zergaz, 135. Sadukaita'ak eta be'piztea, 136. Agindurik nagusiena, 136. Dabid'en semea, 137. Alargunaren uka'rtxoak, 138.
- XIII Yesu'ren itzaldia azken egunetaz, 138. Amayaren zantzuak, 139. Yerusalen'en po'rokaldia, 139. Azken egunak, 140.
- XIV Azpisugea, 141. Azken Aparia, 142. Getsemani'runtz, 143. Yesu'ren otoyak, 144. Yesu atzita, 144. Kaipa'renean, 145. Kepa'ren izpitzoak, 146.
- XV Pilat'en au'rean, 147. ¿Yesu ala Baraba?, 147. Arantzezko buruntza, 148. Gurutzaldia, 148. Yesu'ren eriotza, 149. Yesu'ren ilobiratzea, 150.
- XVI Yesu be'piztuta, 150.

Luka D.

- I Itzaurea, 153. Yon Ukuzlearen so'era, 153. Aingeruak Mari'ri eka'itako gezna, 155. Mari ta Elisabet elka'ri agurka, 156. Yon Ukuzlearen yayotza, 157.
- II Yesu'ren yayotza, 159. Aingeru ta Artzayak, 160. Yesu'ren erdainkuntza, 161. Yesu yauretxean aurkeztuta, 161. Irakasletartean, 162.
- III Yon Ukuzlea basoan, 164. Yesu'ren ukuzpena, 165. Yesu'ren eto'kia, 165.

- IV Yesu'ren barute ta zirikaldiak, 167. Yesu Nazaret'en, 168. Kaparnaun'go sendakuntzak, 169. Simon'enean, 170.
- V Añantza añaña, 170. Legenañduna, 171. Elbañiduna, 172. Lebi deituta, 173.
- VI Larunbatz, 174. Bidalien aukera, 175. Mendiko itzaldia; Zoriona, 175. Etsayak maite bea, 176. Norbera ezaguteaz, 177. Azken oña, 178.
- VII Kaparnaun'go euntaria, 178. Nain'go alargunaren semea, 179. Yon Ukuzlearen gezna, 180. Yon'en goraldia, 180. Simon Parisaitañenean, 181.
- VIII Eñiz eñi, 183. Yesu'ren Ama-senideak, 184. Ekaitza, 184. Gergesa'ko txerenduna, 185. Odol-yarionduna ta Yair'en alaba, 186.
- IX Amabiak deitzale bidalita, 187. Erode'ren kezak, 188. Ogiak ugarituta, 188. Kepa'ren aitoña, 189. Norberaren ukoa, 189. Yesu'ren antzalda, 190. Mutil aldientsua, 191. Ni ta ni, 191. Yerusalen'untz, 192.
- X Irurogei ta amañ ikasleak, 193. Irurogei ta amañ-en itzulera, 194. Yesu'ren eskeñ-itzak, 194. Samariañ zintzoa, 195. Mari ta Marta, 196.
- XI Otoi-eredua, 197. Yesu'ri siñesteko zantzuak, 198. Yesu ta Yona, 199. Parisaitañen azakeria, 200
- XII Belduñik gabe Yesu aitoñtu bea, 202. Eukimiñaz, 203. Yainkoaren guganako arduraz, 204. Moñoi ernaya, 205. Gudadei goria, 206. Eguraldia dala-ta, 206.
- XIII Garbairako aolkua, 207. Larunbatz, 208. Yeben-azia ta orantz, 208. Zeru-atea, 209. Bere eriotzari buruz, 209.
- XIV Ugeriduna, 210. Maipururik ez irikatu, 211. Oñits aundia, 211. Nola Yesu'ri yañai bea, 212.
- XV Ardi galdua, 213. Seme zañastela, 214.
- XVI Yaurle maltzuña, 216. Parisaitañen azaluskeria, 217. Aberats beti-yai ta Lazar eskalea, 217.

- XVII Gaizpideaz ta irain-asketsaz, 218. Siñeste ta apal-
tasunaz, 219. Amár legenaárdunak, 219. Kisto'
ren bigaíren etoíeraz, 220.
- XVIII Ebazle lotsagabea, 221. Parisaitaía ta zergaria,
222. Yesu ta auíak, 222. Gazte aberatsa, 223.
Oldéz landeí egiñak, 224. Yesu bere azaga
iragaítzen, 224. Itsu argítua, 224
- XIX Zakai, 225. Amár minak, 225. Yerusalen'a saítze
ospetsua, 226. Yesu negaíez, 227. Yauretxeko
salketariak, 228.
- XX Yesu'ren al izateaz, 228. Mastiko nekazari okeí-
ak, 229. Kaisar'entzako zergak, 230. Beípi-
teaz, 230. Dabid'en Semea, 231.
- XXI Alargunaren ukaíttoa, 232. Yerusalen'en poíro-
kaldiaz, 232. Gizasemearen bigaíren etoíera,
234. Ernai egon beaí, 234.
- XXII Batzaíe Nagusiaren erabakia, 235. Azkeneko apa-
ria, 235. Galenkeriaz, 236. Uíengoxe armiñal-
dirako oaíak, 237. Getsemani'ko otoya, 238.
Atzemaleak, 238. Kaipa'renean: Kepa'ren iz-
pitzoak, 239. Yesu Batzaíe Nagusian, 240.
- XXIII Pilat'en auíean, 240. Erode'ren auíean, 241.
Yesu ala Baraba? 241. Garezuímendi'runtz,
242. Gurutzaldia, 243. Yesu'ren eriotza, 243.
Yesu'ren eoízketa, 244.
- XXIV Yesu beípiztuta, 245. Emaus'ko ikasleak, 245.
Yesu, bidali guzien erdian, 247. Zerura, 248.

Yon D.

- I Saíera, 249. Yon'en aitoía, 251. Yesu'ren bost
ikasle lenak, 253.
- II Kana'ko ezteyak, 254. Yauretxeko salketariak,
255.
- III Nikodemo'rekin izketan, 256. Yon'en aitoí beía
Yesu'ren alde, 258.

- IV Sikar'ko osin ondoan, 259. Yesu Galilai'n, 262.
- V Betesda'ko elbaña, 263.
- VI Ogi ugarituak, 267. Ur gañean ibilki, 268. Bizitzarako Ogia, 268. Ikasle askoren atzerapena, 271. Kepa'ren aitoña, 272.
- VII Txosna-yaya, 272. Yesu'ren itzaldia yauretxean, 273. Parisaitar'ak aseñe, 275.
- VIII Emazte kutsuduna, 276. Gizargia, 277. Siñeste-ko gogoñei zema, 278. Yainkoaren semeak eta txer'enkumeak, 279. Yainkoaren Semea Yesu dala, 280.
- IX Yayotzez itsua, 281.
- X Artzai Ona, 285. Adeluak eta, 286.
- XI Lazar'en berpiztea, 288. Yesu'ren eriotza sanedrinek erabakita, 291.
- XII Betani'ko bazkaria, 292. Yerusalen'a sañera, 293. Atzeritar'ak Yesu'rekin, 293. Yuduen siñesgabea, 295.
- XIII Azken apalondoan: oiñ-ikuzketa, 296. Yuda'ren iruzuñaz, 297. Bereala aldendu beañaz, 298.
- XIV Nora ta zertara Yesu diyoan, 299.
- XV Matsondo ta ayenak, 301. Luñkoyen goñotoaz, 303.
- XVI Agintzak eta pozbideak, 303.
- XVII Yesu'ren otoy'a bere buruaren alde, 306. Yesu'ren otoy'a bere ikasleen alde, 307. Yesu'ren otoy'a bere siñestun guzien alde, 307.
- XVIII Getsemani'n, 308. Ana ta Kaipa'renean, 309. Pilat'enean, 310. Yesu ala Baraba?, 311.
- XIX Arantzazko buruntza, 312. Oñ'a Gizona, 312. Galdetaldi beña ta epaya, 312. Gurutzaldia, 313. Obiratzea, 315.
- XX Kepa ta Yon ilobian, 316. Mari Malen'i Yesu agertzen zayo, 316. Yesu bidaliei agertzen zaye, 317.
- XXI Tiberi itxasaldeko agertaldia, 319. Kepa Yesu'k Elizpuru yañita, 320. Azkena, 321.

BIDALIEN EGIÑAK

- I Saíera, 325. Matia'ren aukera, 326.
- II Goteunaren etoíera, 328. Kepa'ren itzaldia, 328. Itzaldi onen atzeak, 331.
- III Érena Kepa'k sendatuta, 332. Kepa'k ordun egin-dako itzaldia, 333.
- IV Kepa ta Yon Sanedrin auíean, 334. Siñestunen eskeí-otoya, 336. Lenbiziko siñestun ayen bata-suna, 337.
- V Anani ta Sapis, 337. Elizaren gara, 338. Bida-liak beíro esetsita, 339. Gamaliel'en onua, 340.
- VI Zazpi diakonen aukera, 341. Biraolaritzat Estebe salatuta, 342.
- VII Estebe'ren itzaldia, 342. Estebe'ren eriotza, 347.
- VIII Siñestunak baíeyatuta, 348. Pilipe Samari'n, 348. Kepa ta Yon Samari'n, 349. Aitiopi'ko irena, 350.
- IX Saul'en onbideratzea, 351. Saul'en lenbiziko al-daíiak, 353. Kepa Lida'n eta Yope'n, 354.
- X Korneli'k Kaisarai'n ikusia, 355. Kepa'k Yope'n ikusia. 356. Kepa Korneli'renean, 357.
- XI Kepa'k egiñaren zuribidea, 359. Antiokei'ko eli-zaren asiera, 360.
- XII Eliza Erode'k esetsita, 361. Erode'ren azkena, 363.
- XIII Barnaba ta Saul bidalita, 363. Paul ta Barnaba Pisidi'ko Antiokei'n, 364.
- XIV Ikoni'n ta Listra'n, 368. Antiokei'ra beíz, 369.
- XV Eztabaidak erdainkuntzaz, 370. Yerusalen'go ba-tzaírea, 371. Batzaírearen erabakia, 372. Gez-nariak Antiokei'n, 373. Paul'en bigaíren bidal-dia, 373.
- XVI Timote'kin Troa'ra, 374, Makedoni'ko gertariak: Lidi, 374. Neskame aztia, 375.
- XVII Tesalonike'n, 377. Beroi'n, 378. Atenai'n, 378.

- XVIII Korinto'n, 380. Antiokei'rako itzulera, 381. Apol Epeso'n, 382.
- XIX Paul Epeso'n, 382. Epeso'ko zapařasta, 384.
- XX Troa'ra, 386. Paul Milet'en, 387.
- XXI Yerusalen'untz, 389. Yakob'enean, 390. Katez Paul lotuta, 391.
- XXII Paul'en itzaldia, 392.
- XXIII Batzařean yazo zana, 395. Paul'en kalte elkařtuak, 396. Kaisarai'n, 398.
- XXIV Paul'en auzia Pelix'en auřean, 398. Epaya gero-rako utzita, 400.
- XXV Kaisarengana yotzen, 400. Agiripa bakaldunaren auřean, 401.
- XXVI Paul'en itzaldia, 403.
- XXVII Kaisarai'tik Kerete'ra, 405. Ekaitza, 406. Ontzia puskatuta, 408.
- XXVIII Melite'n, 409. Melite'tik Eřoma'ra, 410. Paul Eřoma'n, 410.

BIDALIEN IDAZKIAK

Paul'enak

Eřoma'koei.

- I Sařera, 415. Siņestera gabe zindokuntzarik ez, 416.
- II Yuduak ere ogendun, 418.
- III Yuduak atzeřitařekin erkatuta, 420. Nondik zindokuntza, 422.
- IV Lege Zařa siņestearen alde, 423.
- V Ořelako zindokuntzaren atze onak, 425. Adan ta Yesu Kisto, 426.
- VI Ogen-uztařia lepotik kenduta, 428. Ogen-yopu izanok Yainkoaren yopu, 429.
- VII Legearekiko askatasuna, 430.

- VIII Aragi-yitea ta gogo-yitea, 432. Yainkoaren seme eginak, 433. Goteuna gure alde, 434. Esker oneko eresia, 435.
- IX Yainkoaren agintza ta Israel'en girbinkeria, 436. Yainkoaren zuzentasuna, 437.
- X Israel bere ogenez alde egiña, 439.
- XI Israel'en zintzo geldituak, 441. Israel'en utsunea Yainkoak beteta, 442. Israel osoa Yainkoarengana itzuliko da, 443.
- XII Gure eginbeñak, 444.
- XIII Agintariekiko menpea, 446.
- XIV Kexkatien laña ez sumindu, 447. Makalei kalte legieken ezer ez egin. 448.
- XV Oñtarako eredia, 449. Esandakoen gorantzia, 450. Ayetara etoñtzeko asmoa, 451.
- XVI Agurak, 452. Azpisugeak, 453. Azken agurak, 454.

Korinto'koei lena.

- I Atsegin-agurak 455. Alderdikeriaz, 456.
- II Paul'en irakasbidea, 458.
- III Zer begira beñ Kisto'ren geznariengan, 459. Benetako yakintza, 460.
- IV Iritzi añotsuok nola zapaldu, 461. Akañ gazigoxo bat, 462.
- V Senide zantañengandik igesi heañ, 463.
- VI Auzikeriak, 464. Lizunkeria nardatzeko, 465.
- VII Ezkonduen beñak, 466. Ezkontza-lokañiaz, 467. Bego norbera bere bizibideñan, 467. Ezkongabeaz, 468.
- VIII Yainko aizunei eskeñitako aragiaz, 469.
- IX Paul'en beraren eredia, 471.
- X Aigito'tik irtenera, 473. Kistañen oñtsak, 474. Egun oroko bazkarietan begirabeña, 475.

- XI Elizeko batzaldiak, 475. Yaunaren aparria, 477.
- XII Gogoko emariak, 478.
- XIII Maitasunaz, 480.
- XIV Igarúmena ta izkerarako antzia, 481. Antziok batzaraldietan beár danez erabiltzeko arauak, 483.
- XV Yesu Kisto'ren beárpizteaz ta gureaz, 484. Soin beárpiztuen izaera, 486.
- XVI Itzostea, 488.

Korinto'koei biga'ena.

- I Sa'era, 491. Ezertan Paul'ek korintokoei ez die uts egin, 492.
- II Nondik Paul'en atsekabea, 493. Askesteko aolkua, 493.
- III Bidalien arlo ta gurentasuna, 494. Zabal zabal itz egiteko bidalien eskubidea, 495.
- IV Paul'en asmo ta lanbide baka'ra, 496. Neketarako inda'ra, 496.
- V Betiko gure etxeruntz, 497. Kisto'gana dago Paul'en biotz osoa, 498.
- VI Nola Yainkoarekin lan egin beár, 499. Siñesgabekoen bidetik urundu beár, 500.
- VII Paul'en kezka-pozak oro korintoa'rengatik dirala, 501.
- VIII Makedonia'ren esku zabala, 502. Bidali yato'rak, 503.
- IX Bildubea'ra laste' bildu beár, 504. Esku zabalen saria, 505.
- X Batzuen mardailkeriak itotzeko, 506.
- XI Ba-dute korintoa'rek Paul'engan zer onetsi, 507.

- XII Edozertzaz baño, bere aulkeriaz ilařaintsuago, 510. Onela itz egiten zergatik ari dan, 511.
- XIII Zema ta ařenak, 512.
-

Galatiařei.

- I Sařera, 515. Beři On bakařa, 516. Beři Ona Paul'ek Yaunagandik ařtu da, 516.
- II Paul'en eginbidea bidalien aitořez yatořa, 517. Kepa'ri Paul'ek egindako akařa, 518.
- III Legea ta Yainkoaren agintza, 519. Legea zertako zan, 521.
- IV Yopuak len, semeak orain, 522. Oroipen xamuřak, 523. Sara ta Agar, 523.
- V Uztařpera ez itzuli, 524. Aragibidea ta gogorena, 525.
- VI Elkař eramateaz, 526. Azken aolkua, 527.
-

Epeso'koei.

- I Sařera, 528. Yesu'ri zoř dioguna, 528. Zein gora deituak geran, 529.
- II Kisto'rengan beřegiņak gera, 530. Bitarteko esia iraulita dago, 531.
- III Paul'i egotzitako eginbeařa, 532. Paul'en eskari edeřa, 533.
- IV Soin bateko buru ta atalak, 533. Gizaki beřia, 534. Uřkoekiko yarduera, 535.
- V Argisemeak, 536. Senař-emazteak elkaři buruz, 537.
- VI Guraso-semeak elkaři buruz, baita nagusi-mořoyak ere, 538. Yainkoaren iskiluak, 539. Azkena, 539.

Pilipoi'taíei.

- I Atsegin-aguák, 541. Beí Onaren auérapenak Eroma'n, 542. Beí Onari dagokionez bizi beaí, 543.
 - II Norberakeria ito, guziak bat izateko, 543. Osasunerako aolkua, 544. Timote ta Epaprodit'en alde, 445
 - III Yudukeriak utzi, Kisto'ri yaíaitzeko, 546. Kisto' gandik ez sayestu, 547.
 - IV Uíbil dago Yainkoa, 547. Eskeí oneko itzak, 548. Azkena, 549.
-

Kolosai'koeri.

- I Atsegin-aguák, 551. Kisto'ren gurentasuna, 552. Zein dan Paul'en egitekoa, 553.
 - II Giza-asmakeriak utzi, Kisto'ri atxikitzeko, 554.
 - III Bizikera beía, 556. Elkaíenganako yardunbidea, 556. Etxekoekiko yardunbidea, 557.
 - IV Guzientzako aolkuak, 558. Gorantzi ta aguák, 558.
-

Tesalonike'taíei lena.

- I Eskeí oneko aitoía, 561.
- II Beí Onaren lenbiziko aldaía Tesalonike'n, 562. Aldaí onen ondorenak, 563. Tesalonike'ra itzulmiñez, 564.
- III Timote'ren txostena dala-ta, 564.
- IV Bizi garbiaz, 565. Senide-maitakuntza, 566. Ilen berpiztea, 566.
- V Ernai egoteko, 567. Azken aolku ta gorantziak, 568.

Tesalonike'taíei bigaíena.

- I Eskeí oneko aitoía, 569.
 - II Kisto'ren etoíeraz ez artegatu, 570. Zertarako aututa Yainkoak gaitun, 571.
 - III Eske ta aolku batzu, 572.
-

Timote'ri lena.

- I Sasiko irakaslea!, 575. Kisto'renganako Paul'en eskeí ona, 576. Aolku bat Timote'rentzat, 577.
 - II Guzien alde otoi egin beaí, 577. Emakumeei dagokien yarduera, 578.
 - III Gotzayak, 578. Gotzayaren lanari eraskiñak, 579.
 - IV Datozken iruzuírekiko zogiera, 580.
 - V Elizekoekin yarduteko oarkizunak, 581.
 - VI Nagusi ta yopuak, 583. Bestelako irakaspenik ez yasan, 583. Azken aolkuak, 584.
-

Timote'ri bigaíena.

- I Beíi Onaren alde kemena pizteko, 585.
 - II Yesu Kisto'ren gudari ona, 587. Sasi-irakasleen beíiketaz, 588.
 - III Etoítzeko diran iruzuítiak, 589. Onbidean irau-teko aolkua, 589.
 - IV Azken aína, 590. Beíi batzu, 591. Azken aguí-ak, 591.
-

Tit'i.

- I Gotzai-yaítzekoak, 593. Irakasle iruzuítiak, 594.

- II Gizamota guziei irakatsibeara, 594.
 - III Agintariekiko menaz, 595. Azkena, 596.
-

Pilemon'i.

Onesimo'ren alde, 597. Azkena, 598.

Ebertaiei.

- I Kisto ta aingeruak, 599.
 - II Kisto'ren itzari zor diogun aieraz, 601.
 - III Yesu ta Mois, 603. Yainkoarekiko gor ez izan, 603.
 - IV Atsedeen-agintza, 604. Gure Apaizpurua, 606.
 - V Yesu'ren apaizgo yatoia, 606. Egi au ezaguteko oarkizunak, 607.
 - VI Goragoko aolkuak, 607.
 - VII Melkisedek'en apaizgoa, 609. Lebitaen apaizgoa, 609.
 - VIII Itun Beiko Bitartekoa, 611.
 - IX Itun Zareko yaureskuntza, 613. Kisto'k eskenitako yauropa yatoia, 614.
 - X Kisto'ren oparia bein betiko bakaia, 615. Siñestepidean sendo egoteko, 617. Oroipen azkaia, 618.
 - XI Siñestearen goraldia, 618.
 - XII Yesu'ren eredia, 622. Sinai ta Sion, 623.
 - XIII Aolku berezi batzu, 624. Azkena, 626.
-

GUZIEKIKO IDAZKIAK

Yakob'ena.

- I Gaitzaldiaz, 627. Benetako onbidez, 628.

- II Norkeriak eta, 629. Slñestea ta egitea, 630.
 - III Mingaña ezi beaí, 631. Sen ona ta ala ez dana, 632.
 - IV Íritsen auírka, 633. Zein gutxirako geran, 634.
 - V Aberats gogoírak, 634. Auírki dago Ebazlea, 635.
-

Kepa'renak lena.

- I Yesu Kisto'ri zoír diogun osasuna, 637. Dago-kizun gurentasuna, 638.
 - II Giltzaía, 639. Agintariekiko agaía, 641.
 - III Senaí-emazteak, 642. Guziekiko yardunbidea, 642. Nekea yasateko, 643.
 - IV Yainkoarentzat bizia erabili beaí, 644. Yazaíalditik datozkigun zitu edeírak, 645.
 - V Azken aolkuak, 645.
-

bigaíena.

- I Yainkoari zoír diogun eskeí ona, 647.
 - II Irakasle iruzuírtiak, 649.
 - III Yaunaren etoíeraz, 651. Azkena, 652.
-

Yon'enak lena.

- I Saíera, 653. Argitan bizi beaí, 653.
- II Argitan bizi izateko eginbeaírak, 654. Gizarterkeriaz, 655. Antikisto ta arenak, 655.
- III Yainkoaren semeak eta ogena, 657. Elkaí-maitakuntzaz, 658.

- IV Atsekiko zogiera, 659. Maitakuntzari maitakuntzaz erantzuteko, 659.
- V Yesu Kisto'ren siñesteaz, 661. Azken aolkuak, 662.

bigařena.

Sařera, 665. Elkar maite izateaz, 665. Iruzuřtiak, 666. Azkena, 666.

irugařena 667

Yuda'rena.

- I Sařera, 669. Irakasle gaiztoak, 669. Azkena, 671.

YON'I AGERITAKOA

- I Sařera, 675. Idazteko agindua, 676.
- II Epeso'ko elizaren aingeruari, 677. Esmirna'ko elizaren aingeruari, 678, Pergamo'ko elizaren aingeruari, 678. Tiateira'ko elizaren aingeruari, 679.
- III Sardei'ko elizaren aingeruari, 680. Piladelpi'ko elizaren aingeruari, 681. Laodikei'ko elizaren aingeruari, 681.
- IV Yainkoaren aulkia, 682.
- V Zazpi zildaiko idaztia, 683. Bildotsa, 684.
- VI Lenbiziko lau zildayak, 685. Boskařen ta sei-gařen zildayak, 686.
- VII Yainkoaren zantzua, 687. Beste autuak, 688.

- VIII Zazpigañen zildaya, 689. Lenbiziko lau turutotsak, 689.
- IX Boskañen turutotsa, 690. Seigañen turutotsa, 691.
- X Yon'ek irentsitako idaztiñoa, 692.
- XI Yainkoaren aitoítzale bi, 693. Zazpigañen turutotsa, 694.
- XII Emakumea ta iransugea, 695.
- XIII Itxasoko bidutzia, 697. Basoko iizea, 698.
- XIV Bildotsa ta Arekin dabiltzanak. 698. Iru aingeruren iragañpenak, 699. Aingeru itailariak, 700.
- XV Zazpi artuxin zazpi aingeruri emanak, 701.
- XVI Antuxiñak ustuta, 702.
- XVII Babilon'en tankera, 704.
- XVIII Babilon'en poñokaldia, 705.
- XIX Zeruko poza, 708. Bidutziaren poñokaldia, 709.
- XX Mila urteko yauraldia, 710. Satan'en poñokaldia, 711. Il guziekiko epaya, 711.
- XXI Ortzi-luñ beñiak, 712. Yerusalen beñia, 713.
- XXII Yerusalen beñia oraindik, 714. Azkena, 715.

A. M. D. G.





